

69

Sopela (1890–1936): Errestaurazioa,
Primo De Riveraren Diktadura
eta Bigarren Errepublikak

Sopela (1890–1936): la Restauración, la Dictadura
de Primo de Rivera y la Segunda República

Koldo Somokueto Pérez



herria gara
Sopela
SOPELAKO UDALA

Sopelako Udala
Ayuntamiento de Sopela



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

Lankidetzan

Sopela (1890-1936): Errestaurazioa, Primo de Riveraren Diktadura eta Bigarren Errepublik

Sopela (1890-1936): la Restauración, la Dictadura de Primo de Rivera y la Segunda República



Azalaren argazkia / *Fotografía portada*: Sopelako ikuspegia, Jauregizar zelaia lehen planoan duela / *Vista de Sopela, con la campa de Jauregizar en primer plano*. 1918. Indalecio Ojanguren. (Iturria / Fuente: Gure Gipuzkoa (CC BY-SA))

Somokueto Pérez, Koldo

Sopela (1890-1936): Errestaurazioa, Primo de Riveraren Diktadura eta Bigarren Errepublikak = Sopela (1890-1936): la Restauración, la Dictadura de Primo de Rivera y la Segunda República / Koldo Somokueto Pérez [euskarazko itzulpena Hitzurrun Hizkuntza Zerbitzuak] . – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2025.

716 or./p. : il. ; 24 cm. – (Lankidetzan ; 69)

ISBN: 978-84-8419-315-9 / eISBN: 978-84-8419-316-6

I. Somokueto Pérez, Koldo II. Bilduma III. Tit.

Eusko Ikaskuntzak eta Sopelako Udalek eskertzen diete liburuki honetan parte hartu duten egileei eta, elkartearen tradizioaren arabera, haien irizpide eta uste guztiak errespetatzen dituzte, nahiz horrek ez duen esan nahi bereziki haietako ezein beren gain hartzen dutenik.

Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos y el Ayuntamiento de Sopela muestran su agradecimiento al autor que ha colaborado en este volumen y de acuerdo con su tradición, respetan todos sus criterios y opiniones, sin que ello signifique que asuman en particular cualquiera de ellos.

ISBN: 978-84-8419-315-9 / eISBN: 978-84-8419-316-6
L.G./D.L.: 01246-2025

Inprimaketa eta koadernaketa / *Impresión y encuadernación*:
Leitzaran grafikak – Andoain (Gipuzkoa)

AURKIBIDEA / ÍNDICE

SOPELA (1890-1936): ERRESTAURAZIOA, PRIMO DE RIVERAREN DIKTADURA ETA BIGARREN ERREPUBLIKA	9
Agurra	13
Hitzaurrea	15
Sarrera	17
1. Errestaurazioa eta Primo de Riveraren Diktadura	19
2. Bigarren Errepublika (1931-1936)	145
IRUDIAK / IMÁGENES	333
SOPELA (1890-1936): LA RESTAURACIÓN, LA DICTADURA DE PRIMO DE RIVERA Y LA SEGUNDA REPÚBLICA	345
Saludo	349
Prólogo	351
Introducción	353
1. La Restauración y la Dictadura de Primo de Rivera	357
2. La Segunda República (1931-1936)	489
ERANSKINAK / ANEXOS	685
Dokumentuen gehigarria / Apéndice Documental	687
Iturriak / Fuentes	707

Koldo Somokueto Pérez

Sopela (1890-1936): Errestaurazioa, Primo de Riveraren Diktadura eta Bigarren Errepublika



AURKIBIDEA

AGURRA	13
HITZAURREA	15
SARRERA	17
1. ERRESTAURAZIOA ETA PRIMO DE RIVERAREN DIKTADURA	19
1.1. Kazikismoaren eta nazionalismoaren artean: Sopolako bizitza politikoa	
1890etik 1923ra	21
1.1.1. Sopolako bilakaera politikoa mende biren artean (1890-1910)	21
1.1.2. Hautesleriaren portaera Kongresu eta Probintzia hauteskundeetan	
1910etik 1923ra	31
1.1.3. Tokiko boterea 1910 eta 1923 artean	53
1.1.4. Bizkaiko Alderdi Kontserbadorea (1909-1913) eta Sopolako Batzorde	
Kontserbadorea	65
1.1.5. Euskal nazionalismoaren agerpena eta garapena Errestaurazioaren	
azken urteetan	67
1.2. Primo de Riveraren Diktadura (1923-1930)	80
1.2.1. Sopolako Udala Primo de Riveraren erregimenean	81
1.2.2. Erregimenaren erakunde politikoak: Somatena eta Unión Patriótica	90
1.2.3. Errepresio politikoa: euskal nazionalismoaren kasua	95
1.2.4. Diktadurari atxikitzeko ekintzak	99
1.3. <i>Belle Époque</i> etik 1920ko Hamarkada Zorionsura: gizartea eta kultura Sopelan	106
1.3.1. Egitura sozio-ekonomikoa	106
1.3.2. Turismoaren sorrera eta garapena Sopelan	113
1.3.3. Soziabilitatea: aisia eta jaiak	123
1.3.4. Erijihoa	133
1.3.5. Euskararen egoera	135
1.3.6. 1918ko gripearen epidemia	141

2. BIGARREN ERREPUBLIKA (1931-1936)	145
2.1. Udal politika eta hauteskunde portaerak	147
2.1.1. Berenguerren gobernutik 1931ko apirileko udal hauteskundeak arte	147
2.1.2. Bigarren Errepublika aldarrikatzetik 1933ko azaroko Gorteetarako hauteskundeetara	152
2.1.3. Heriotza, arrakastaren ondorio: estatutu prozesuaren porrota	169
2.1.4. Ardoaren Estatutuaren gatazka eta horren ondorioak	171
2.1.5. 1936ko otsaileko Gorteetarako hauteskundeak eta horien ondoriozkoak ...	177
2.2. Ideologiak eta alderdi politikoak Sopelan	182
2.2.1. Euskal nazionalismoa	182
2.2.2. Ezkerreko indarrak: errepublikanoak eta sozialistak	203
2.2.3. Eusko Abertzale Ekintza (EAE/ANV) Sopelan	217
2.2.4. Estatuko eskumak Sopelan	222
2.3. Bizikidetzeta eta gatazka politikoa eta soziala	230
2.3.1. Adiskidetasunetik desadostasunera	230
2.3.2. Tradizioaren eta garai berrien artean: gatazkak Sopelan 1931ko apiriletik 1933ko apirila bitartean	231
2.3.3. 1933ko asalduzko udaberria	240
2.3.4. Tirabirak udalean: gehiengo nazionalista versus gutxiengo errepublikanoa	246
2.3.5. Haustura baten kronika: Antonio de Arechavaletaren eta bertako nazionalisten arteko harreman zapuztua	249
2.3.6. Ardoaren Estatutuaren gatazka eta 1934ko urriko iraultza eta horien ondorioak	257
2.3.7. 1936: Gerra Zibilaren aurreko gatazkak	261
2.4. Gizartea eta ekonomia	266
2.4.1. Datu demografiko orokorrak	266
2.4.2. Udalerriko gizartearen osaera Bigarren Errepublikan zehar	268
2.4.3. Abeltzaintzako ekoizpena 1931 eta 1936 artean	274
2.4.4. Nekazaritzako ekoizpena 30eko hamarkadan	277
2.4.5. Industria eta merkataritza ehuna	283
2.4.6. 30ko hamarkadako krisialdia eta beharginen langabezia	287
2.5. Kultura eta aisia	296
2.5.1. Turismoa eta udako aisia Sopelan 30eko hamarkadan	296
2.5.2. Harremanetarako eta aisialdirako guneak	305
2.5.3. Eskolako hezkuntza eta helduen alfabetatzea	313
2.5.4. Euskara Sopelan Errepublikaren garaian	327
ERANSKINAK	685
Dokumentuen gehigarria	687
Iturriak	707

AGURRA

Gure memoria historikoaren berreskurapena: Sopelarentzat altxorra

Gure herriaren historia garaikidea berreskuratzea erronka handia da, zalantzarik gabe. Sopelaren bizipenak dokumentatzea, biltzea, gordetzea, altxor bat izango balitz bezala. Hori da Sopelako Udalak abian jarri duen proiektuaren helburua: iragana aztertu, orainean zein etorkizunean irakaspenak landu eta zabaltzeko. Esku artean duzun liburu hau 1850etik 1979ra bitartean Sopelako historia biltzeko asmoa duen proiektu handiago baten zati bat besterik ez da. Altxor handiago baten harri bitxia. Sopeloztarrek zein herriko edozein elkartek, alderdi politikok edo eragile sozialek lanketarako eta dibulgaziorako erabili dezakeen materiala biltzen da orri hauetan. Ikuspegi kritikotik abiatuta, gure memoria historikoa lantzen hasteko tresna bat da honako liburuxka hau.

Proiektu honek oso esanahi berezia du niretzat, nire familiaren bizipenekin oso lotuta baitago. Sopelako udaletxe zaharrean ikurrina lehen aldiz jaso izana erakusten duen argazkian nire aitite Carmelo Carrasson agertzen da, beste zinegotzi batzuekin batera.

Aitite beti izan da nire familian erreferentea politikan, eta ukaezina da Sopelari eskaini zion konpromisoa eta denbora. Hala ere, Maria Dolores Ayo nire amamaren ezinbesteko papera ere nabarmendu nahi dut. Nahiz eta aitite izan lehen planoan agertzen zena, amama beti ondoan izan zuelako izan zen posible hori guztia, une oro babesa ematen ziolako.

Etxeko argazki zaharrak ikusita, Sopela urte haietan nolakoa zen gogoratu eta deskubritu ahal izan dugu: nolakoak ziren hango kaleak, ohiturak, eguneroko bizitza... Denboran zehar bidaia txiki bat egitea bezala izan da, gure alde hainbeste egin zuten eta, dagoeneko gure artean ez egon arren, oraindik oso presente jarraitzen duten senideekin berriz konektatzeko modu bat.

Pertsonalki, biziki eskertzen diet aititeri, amamari eta nola ez gure aitari Carmelo Carrassoni, euskara bizirik mantendu izana, gaur egun nire ama-hizkuntzetako bat baita. Era berean, izugarri baloratzen dut Sopelako Ander Deuna ikastola sortzeko egin zuten ahalegina. Bertan hazi ginen eta harrotasunez daramagun ondarea baita.

Hitzaurre honekin bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiogu Eusko Ikaskuntzako langileei eta bereziki, Koldo Somokueto Pérez historialariari, proiektu hau garatzen eman diguten laguntzagatik. Baita beraien testigantzekin gure herriaren memoriari ekarpen garrantzitsua egin dioten sopeloztar guztiei. Hau zuen istorioa ere bada.

Guruzne Carrasson Torrontegi
Sopelako Udalaren Alkatea

HITZAURREA

Gerra osteko eskoletan, 1940-1950 urte bitartean ikasle izan gintzen umeori munduko historia handia irakatsi euskuen eskolan; asagoko tokietan eta aintzina gertatutakoak. Horrela izan genduzan Egipto eta faraoien barri, Erromaren handitasuna eta eragina Europa osoan, Ameriketako aurkikuntza... baita, ezagutu, goraiatu eta besoa gora jasota kanta behar izan genduan “Glorioso Alzamiento Nacional” deritxona.

Eskolan irakasten euskuen azken jazoera honeri buruz baina, guztiz beste era batera egiten euskuen berba batzueri geure etxeetan; hori bai, eskolan agintzen euskuena ondo betetzeko esanez, baina gure hurbileko historia beste era batekoa zala; ez zala hain triunfalista.

Azkenez laurogei urte igaro ondoren irakurri ahal izan dogu liburu baten idatzia geure historia hurbila, etxean geure nagosiei entzun geuntsen berbera, txikitan bizi eta sufritu genduana, 1936ko gerra madarikatu haretara bultzatu eta eroan ginduzan aurreko gertaerak kontaktzen dituen.

Guzti hau Koldo Somokueto historialari gazteari zor deutsogu, bere historia zaletasunari, ikerketa lanari, dokumentu bilketari eta azterketa eskerdari. Honela jakin dogu etxean familiak kontaktzen euskuna zala benetako geure historia.

Guzurra dirudi sasoi haretako geure herrian, mila bostehun bizilagun baino ez zituen Sopelan zenbat eta zenbat gizon hil ziren edo zigortuak izan ziren kartzeletan, lan batailoietan edota kontzentrazio kanpoetan. Gerra ondoko urte gogorretan geu gobernatu ginduezanak bere gogoratu doguz.

Dokumentuetan idatzita agertzen ez dan, baina gure herriak bizi izan eban zer edo zer bere aipatu gura dot neuk. Semeak galdu ebezan gurasoak ezagutu nituen; baita urtearoz lurra landu, ganadua zaindu eta gu umeok hazi ginduezan ama gazteak; lan hori beori bizitza osoan bakarrik egin behar izan eben alargunak; mutilagunak, zigorrak bete ondoren, noiz etorriko sei-zortzi urte itxaron eben neska ezkongaiak; eskolan maistrak “Ignacia” eta “Amada” izendatu eta erantzuten ez eben neure lagunak, paluaz jotzen zituen bitartean “Nire izena ez da hori” esaten ebenak; eta laurogetaz urte zituenean, soltera eta bakarrik hiltzen egoanean, mesanotxe gainean Legutioko gudan galdutako hogeitalau urteko mutil haren erretratua eukan andrea.

Oroitzapen guztiok sortuarazi deustazuzelako, eskerrik asko, Koldo.

Bene Markaida
Sopela, 2025eko uztaila

SARRERA

2021eko urtarrilean, hasiera eman genion Sopelaren historiaren aldi baten ikerketari (zehazki, 1890-1950 aldia), herriko Udalaren eta Eusko Ikaskuntzaren bultzadarekin, eta 2023ko urtarrilean amaitu genuen ikerlana. Aukeratutako aldi kronologiko zabalak aukera eman zigun sakontzeko bost etapa historikotan: Errestaurazioaren zatirik handiena (1890-1923), Primo de Riveraren Diktadura (1923-1930), Bigarren Errepublika (1931-1936), Gerra Zibila Euskadin (1936-1937) eta Lehen Frankismoa (1937-1950).

Irakurleak esku artean duen liburu honetan jaso dugu ikerlan horren lehen zatia, aztergai duena Elizatearen bilakaera 1890-1936 urteen artean. Gaurdaino, Sopelaren historiaren garai hori ez da sakon aztertu, eta aurretik eginiko azterlanek azaletik baino ez dute landu. Alde batetik, aipatu behar da Anibal Malmiercaren “*Monografías de pueblos de Bizkaia. Barrika y Sopelana*” lana (Bizkaiko Foru Aldundia, 1997), batez ere zentratua Antzinako Erregimenean, Aro Garaikideari atal bat eskaintzen diona. Bestetik, kontuan hartzekoa da ere Endika de Mogrobejo genealogistak idatzitako “*Sopelanako Elizatearen kondaira*” (Sopelako Udala, 1996) liburua, geure ikerketak aztertutako aldiari buruzko zenbait datu ematen dituena. Behin bibliografia espezifikoa aztertuta, kontsultatu ditugu ere orokorrak diren lan ugari eta gai zehatzei buruzko beste zenbait ikerlan.

Erabilitako dokumentu iturriei dagokienez, hutsune handi bi topatu ditugu Sopelako Udalaren Artxiboaren funtsetan. Alde batetik, 1934ko azarotik 1939ko urrira bitarteko osoko bilkuren akta liburua falta da. Arazo hori konpontzeko, batez ere aztertu dugu Sopelako Udalak bidali eta jasotako korrespondentzia, eta hutsune hori arindu dugu, hein handi batean, modu horretan. Bestetik, 1891-1915 aldiko akta liburua ez du jasotzen denbora tarte horretako udalbatzen eraketa akten zati handi bat, eta urte horietan eginiko udal hauteskundeen espedienteetara jo behar izan dugu, garai hartako tokiko boterearen argazki ahalik eta zehatzena lortzeko.

Sopelako Udal Artxiboko dokumentu funtsa izan da geure iturri nagusia. Aitatzekoa da Sopelako Udalak sortutako dokumentazioaren parte handi bat dagoela Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoan, eta agiritegi horretan daude ere ikerlan honek aztergai duen aldian egin ziren hauteskundeen espedienteak.

Inguruko beste artxibo batzuetara ere jo dugu: barbarako, Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia – Sabino Arana Fundazioa, Bizkaiko Eliz Artxibo Historikoa edo Plentziako Udal Artxibo Historikoa. Estatuko artxiboei dagokienez, kontsultatu ditugu Salamancako Memoria Historikoaren Dokumentazio Zentroaren funtsak, Ferrolgo Artxibo Militarra (A Coruña) eta Administrazioaren Artxibo Nagusia (Alcalá de Henares).

Garrantzitsua izan da ere garaiko prentsa aztertzea, datu kopuru ikaragarria eman digun informazio iturri oso aberatsa izan delako, Sopelarekin zerikusia duten hainbat garaitako datu ezezagunak, kasu askotan. Berba baterako, orduko erakunde politikoak eta euren jarduerak, Elizatean izandako gatazkak edo sopeloztarren eguneroko bizitzari buruzko oharkizunak.

Lerro hauek baliatu gura nitzuke eskerrak emateko aipatu ditudan artxiboetako behargin guztiei. Inor gutxiesteko asmo barik, hiru pertsona aipatuko ditut. Lehenik eta behin, Julen Erostegi, Bizkaiko Foru Agiritegi Historikokoa, zeinaren beharrak ikaragarri erraztu baitzigun dokumentazioaren azterketa COVID-19aren pandemia betean. Bigarrenik, Eduardo Jauregi, Euskal Abertzaletasunaren Agiritegikokoa, profesionaltasun handiz lagundu ziguna pandemiak sortutako arazoak gainditzin. Azkenik, bereziki nabarmendu gura nuke Administrazioaren Artxibo Nagusiko Evelia Vegak egin zidan harrera adeitsua, bai artxibo horretara egin nituen bisitetan, bai geure arteko mezu elektronikoen trukean.

Argazkiei dagokienez, bihoakie nire eskerrik beroena Bene Markaida, Marcelino Gromaz, Irantzu eta Mikel Begoña, Alazne Díez eta Maritere Villalabeitiari. Bestalde, eskerrak eman nahi dizkiot José Manuel González Cembellini nire galderak beti hain modu atseginetan erantzuteagatik.

Bestetik, udalerrien eta lurraldeen izenei dagokienez, erabaki dugu egungo izen ofizialak erabiltzea, komatxo arteko testuetan eta ohar bibliografikoen erreferentzietan izan ezik, non jatorrizko grafia errespetatu den, dokumentuetan ageri den legez. Premisa horri jarraikiz, bere garaian idatzi ziren moduan utzi ditugu ere pertsonen deiturak eta baserrien izenak.

Eskerrak eman gura dizkiot ere Sopelako Udalarari ikerketa hau bultzatzeagatik Eusko Ikaskuntzarekin batera, eta plazer handia izan da niretzat berriro ere alboan edukitzea Ludger Mees EHUko Historia Garaikideko katedraduna, ikerlan honen zuzendaritza lanetan. Ikerlanak iraun duen urte bietan, pazientzia handiz laguntzeaz gain, Ludgerrek iradokizun eta argibide baliotsuak eman dizkigu azken testua hobetze eta orrazte aldera.

Ezin dut berbaurre hau amaitu hasiera-hasieratik ikerlan honetan sinetsi zuen Unai del Burgo zinegotzia aitatzeko, baita Amaia Guenetxea zinegotzia ere, interes bizia izan duena beti lan hau bultzatu eta modu onean egin zedin.

Atal hau ixteko, eskerrak eman gura dizkiet egiten ari nintzen urratsekiko interesa agertu duten inguruko pertsona guztiei, baita burua argitzen eta arnasa hartzen lagundu didatenei ere, beharrezkoa bezain baliotsua dena behar mota honetan. Eta, zelan ez, amari eta aitari, pazientziaz hartu nautenak, orduak egunari nahiz gauari kentzera behartu nauen neure eginkizun honetan.

1. ERRESTAURAZIOA ETA PRIMO DE RIVERAREN DIKTADURA



1.1. Kazikismoaren eta nazionalismoaren artean: Sopelako bizitza politikoa 1890etik 1923ra

1.1.1. Sopelako bilakaera politikoa mende biren artean (1890-1910)

1890-1910 urteetako Sopelako bilakaera politikoa sakon aztertzeko asmo barik, komenigarria iruditu zaigu haren bilakaera orokorrari erreparatzea, Errestaurazioan indarrean egon zen sistema politikoaren ezaugarri nagusiak azalduz lehenengo eta behin.

Hasteko, esan behar da Sopela, inguruko udalerrriak lez, Barakaldoko barrutiaren barruan egon zela 1896tik 1923ra, Diputatuen Kongresurako Hauteskundeetarako; 1895era arte, Bilboko barrutian egon ziren¹. Azken hauteskunde barruti horretan, probintzia hauteskundeetarako zeuden.

Boto eskubideari dagokionez, argi eta garbi mugatuta zegoen, nahiz eta aldi bi bereizi behar diren. 1876tik 1890ra, botoa zentsarioa izan zen, eta soilik bozka zezaketen gaitasun profesionala eta ekonomikoa zuten 25 urtetik gorako gizonek. 1890 eta 1923 bitartean, sufragio unibertsal mugatu bat egon zen, eta botoa eman zezaketen euren herrian urte bi bizitzen zeramatzaten 25 urtetik gorako gizonezko guztiek. Aldi bi horietan, ezin zuten bozkatu ez andrezkoek ez gazteek; hau da, biztanleriaren zati handi batek².

Hauteskunde ustelkeria izan zen Errestaurazioaren sistema politikoaren ezaugarri nabarmenena, eta ustelkeria horren adierazgarritzat har daitezke boto erosketa, koakzioa, indarkeria edo “*bolilleo*” izeneko iruzurra, zeinaren bidez herritar batek botoa lehenik bere izenean ematen zuen, eta gero, berriro bozkatzen zuen, hildakoen, herritik kanpo zeudenen edo bozkatu behar ez zuten pertsonen izenean.

Javier Real Cuesta irakasleak adierazi legez, XIX. mendeko 80ko hamarkadan boto erosketak izan ziren Bilboko barrutian, erabat zabaldutako iruzurra izan ez bazen ere. *Bilboko Batzorde Liberala* izan zen iruzur mota horren bultzatzaile nagusia. Liberal dinastikoen 1881ean sortutako erakunde bat izan zen, 1880ko probintzia hauteskundeetan tradizionalistek lortutako emaitza onen ostean, euren indarrak berrantolatzeko hurrengo hauteskunde hitzordu biei begira: udal hauteskundeak

1 *La Gaceta de Madrid* 1895-08-04.

2 REAL CUESTA, Javier: *Partidos, elecciones y bloques de poder en el País Vasco 1876-1923*, Bilbo, Deustuko Unibertsitatea, 1991, 124-125 or.

eta hauteskunde orokorrak³. Hauteskunde horien ostean, Eduardo Victoria de Lecea buru zuen erakundeak egitura sendo bat antolatzeko oinarriak ezarri zituen, etortzear ziren hauteskundeei aurre egiteko. Horrela, *Batzorde Liberalak* Tokiko Batzordeak sortu zituen XIX. mendeko 80ko hamarkadan; barbarako, Plentzian⁴.

Real Cuestak esandakoari jarraikiz, *Batzorde Liberalak* boto erosketa masiboa egin zuen lehen aldia izan zen 1891ko otsailaren 1eko hauteskunde orokorretan. Aipatutako Victoria de Leceak hartu zuen bere gain batzorde horren hautagaitza Bilboko barrutian. Garai hartan, hauteskunde kanpainaren eredia oinarritzen zen boto emailearen erakarpen indibidualean, eta, duda barik, hauteskunde ustelkeria handia sustatzen zuen horrek. Landa izaerako udalerrietan, halan zelan Sopelan, Urdulizen edo Barrikan, jabeen eginkizuna zen maizterrak mobilizatzea eta boto jakin bat eman zezaten lortzea. *Batzorde Liberalak* buru bat zuen herri bakoitzean, eta buru hori arduratzen zen hautesleen botoa bideratzeko modua bilatzeaz. Zeregin horren emaitza dira Bilboko Merkataritza Ganberan aurki daitekeen *Eduardo Victoria de Lecea Funtsean* gordetako zerrendak. Zerrenda horietan ageri dira hautesleen izenak, Sopela, Barrika eta Urdulizko baserrietako maizterrak gehienak, eta eurengan eragin zezaketen pertsonenak⁵. Mendekotasun sare horretatik edo adiskidetasun harremanetatik kanpo zeuden lagunak botoak diruarekin erosten ziren⁶.

Sopelako zerrendak, 1890 inguruan eginikoak⁷, 57 hautesleen izenak eta euren baserrienak biltzen ditu. Gehienak maizterrak zirenez, jabeek eurengan eragiten zuten, Eduardo Victoria de Lecearen alde bozka zezaten. Berba baterako, zerrendan ikus daiteke horietako batzuk Balbina Urruticoechea edo Luisa Oleagaren maizterrak zirela, bi-biak Elizateko bizilagunak. Kasu batzuetan, esaten zen erretoreak edo udal epaileak eragin zezakeela boto emailearengan, eta honen lantokia ere zehazten zen; barbarako, Juan Felipe Olaguivelen kasuan, Algortako Vapores Uriosteko marinela. Dokumentu horrek boto bilketan inplikaturako bizilagunak ere aitatzen ditu; halan zelan Gerardo Ugarte Olaguibel eta Juan Felipe Elorriaga Zalvidea, “Garcíaren boto biltzailea” epigrafean aipatuak⁸. Biak zeuden tokiko politikari lotuta: Ugarte udal epaile gisa aitatzen da 1883an⁹, eta Elorriaga udaleko zinegotzia zen¹⁰. Bestetik, José Manuel Candina Guachier, zapataria lanbidez, “errazioneroen buru” gisa aitatzen da¹¹.

3 Ibid., 137. or.

4 Ibid., 99-100 or.

5 Ibid., 141-142 or.

6 Ibid. 137. or.

7 Ondorio hau atera dugu aipatutako hautesleeta bat, José María Castañón Ereño maisua, 1890-02-27an hil zelako (BIZKAIKO ELIZ ARTXIBO HISTORIKOA - BEAH, 3213/003-00, Sopelako San Pedro Apostoluaren parrokiako Heriotzen Liburua, 1888-1905).

8 BMG, Eduardo Victoria de Lecea Funtsa, 81. mikrofilma, Hautesleen zerrenda: baserria, izena, jabearen izena eta botoa lortzen lagun dezakeen harremana, d/g (1890. urte inguruan).

9 BIZKAIKO FORU AGIRITEGI HISTORIKOA (BFAH), JCR4621/018, *Gerardo Ugarte Sopelako Elizateko udal epaileak bere osasuna zaintzeko Zaldibarko bainuetxean hamabost egun igarotzeko lizentzia eskaerari loturiko eginbidea*, 1883-09-18 eta 19.

10 BFAH, ARO0234/061, *Sopelako Udalaren ofizioa, udal berriaren eraketaren berri emateko*, 1883-07-01.

11 BMG, Eduardo Victoria de Lecea Funtsa, 81. mikrofilma, *Hautesleen zerrenda: baserria, izena, jabearen izena eta botoa lortzen lagun dezakeen harremana*, d/g (1890. urte inguruan).

Batzorde Liberalak eraturako sareak bikain funtzionatu zuen, Victoria de Leceak irabazi baitzituen hauteskundeak Bilboko barrutian¹². Sopelan, hautagai liberalak 98 boto jaso zituen; aurkariak, Solaegui errepublikanoak, 31 boto. Parte hartzea handia izan zen, eta 145 hautesleetatik 129 botoa emateko eskubideaz baliatu ziren¹³.

XIX. mendeko 90eko hamarkadan, liberal dinastikoak hauteskundeetan nagusitasuna galtzen hasi ziren, eta bidea zabaldu zion horrek erakunde berri bati, Bizkaiko industriako ugazabek osaturikoa batez ere. Victor Chavarri buru zuen enpresaburu handien talde horri “*La Piña*” izena jarri zioten, eta hasieran ez zuen aurrean izan bere nagusitasuna arriskuan ipin zezakeen oposiziorik. Garai hartan, euskal sozialistak eta nazionalistak hasiak ziren lehen urratsak egiten, baina XX. mendearen hasierara arte ez ziren masa alderdi bihurtuko. Abertzaletasunari dagokionez, lehen arrakasta handia lortu zuen 1898ko iraileko hauteskundeetan: Sabino Arana probintzia diputatu hautatu zuten. Eragin handia izan zuen horretan nazionalistek ustelkeriaren eta jauntxokeriaren aurka zabaldu zuten diskurtsoak, boto ugari erakarri baitzuen oligarkiaren jardunbide txarrak zirela-eta itxaropena galduta zuen biztanleriaren sektore batetik, eta tradizionalismoaren zati baten babesa ere lortu zuten¹⁴. Dena dela, duda barik, faktore erabakigarriena izan zen Ramón de la Sota ontzigilea buru zuten foruzaleen babesa, urte horretan bertan sartu zirenak EAJn¹⁵. Sopelan, euskal nazionalismoaren aita izan zen hautagairik bozkatuena, 66 botorekin, eta Casimiro Zunzunegui liberala izan zen bigarren, 61 boto lortuta¹⁶.

Mende berrian, abertzaletasunaren eta sozialismoaren eklosioak berekin ekarri zuen politika egiteko modu berri bat. Kontserbadoreek ehundutako sare klientelaren aurrean, alderdi berriek euren lan politikoa oinarritu zuten jarraitzaileen mobilizazioan, mitinen eta manifestazioetan¹⁷. Eragiteko modu berri horrek ezerezean utzi zituen ordura arte aurrez aurre egon ziren bloke politiko biak; hau da, tradizionalismoa versus liberalismoa, eta eskuma-ezker dikotomia nagusitu zen, 1907tik aurrera erlijioaren inguruan artikulatuko zena¹⁸. Urte horretan, López Domínguez en Gubernuak ezarri zuen ordena erlijioso katolikoen eragina mugatu gura zuen legea. Eskuma katolikoak eta kleroak legedi berriaren aurka jo zuten; oster, sozialistek eta er/republikanoek indarrak batu zituzten Gubernuaren proiektua defendatzeko. Aliantza horren ondorioz, *Bilboko Batzorde Katolikoak*, *La Gaceta del Norte* berripaperak eta Gasteizko Gotzaindegiak presio

12 *El Nervión* 1891-02-02.

13 BFAH, SOPELA 0061/003, *Gorteetarako Diputatuak aukeratzeko espedientea 1891-02-01*. Espedientearen izenburuak okerra eragin dezake, probintzia hauteskundeetarako inprimakia erabili baitzen.

14 REAL, 25. or.

15 GRANJA SAINZ, José Luis de la: *Angel o demonio: Sabino Arana. El patriarca del nacionalismo vasco*, Madrid, Editorial Tecnos, Madrid, 2015, 44. or.

16 BFAH, SOPELA 0062/001, *1898an Sopelako udalerrian Diputatu Probintzialak hautatzeko hauteskundearen bozketa akta eta boto emaleen zerrenda bikoiztua*.

17 PABLO, Santiago de, MEES, Ludger eta RODRÍGUEZ RANZ, José Antonio: *El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco. I: 1895-1936*, Barcelona, Crítica, 1999, 86. or.

18 REAL, 33-36 or.

egin zuten alderdi katolikoak, EAJ barne, batera aurkez zitezen *Euskal Hautagaitza Katolikoa* izenekoan 1907ko martxoaren 10eko probintzia hauteskundeetara. Entente horren emaitzak ez ziren izan alderdi katolikoek espero zituztenak: hiru diputatu lortu zituzten Bilboko barrutian, baina barruti horretako landa herrietan lorturiko babesari esker. Handik gutxira, apirilaren 21ean, Diputatuen Kongresurako hauteskundeak egin ziren. Bilboko barrutian, EAJk Pedro de Anitua aurkeztu zuen; eskumak, ostera, Fernando María de Ybarra hautagai katolikoa, aurre egin ziezaion Pablo Iglesias sozialista buru zuen ezkerreko hautagaitzari. Hautagaitza propioa aurkezteko nazionalistek eginiko apustuaren helburua zen alderdiaren batasuna berrezartzea. Hala ere, Ybarraren hautagaitzak nazionalismo moderatuaren babesa lortu zuen hasiera-hasieratik; EAJren zuzendaritzak, ostera, afiliatuen batzarraren babesarekin, Anituaren hautagaitzari eutsi zion, Ybarrak Bilbon alderdi “*maurista*” antolatuko zuen beldur. Hori horrela, agerian gelditu zen alderdi jeltzalearen barruko borroka (“*alde batetik, nazionalista dirudunak eta udal eta probintzia karguak, eta bestetik, alderdiaren zuzendaritza eta oinarria*”), eta Anituak emaitza eskasak lortu zituen hauteskontzietan. Deskalabruaren ondorioz, EAJ ez zen hurrengo urteetan hauteskunde orokorretara aurkeztu¹⁹. Ybarra izan zen garaile eta, abertzaleen beldurra egia bihurtuta, Alderdi Mauristaren Bizkaiko filiala sortu zuen, 1909an.

Urte horietan Sopelan eginiko udal hauteskundeetara dagokienez, lehenik eta behin esan behar da udal hauteskundeetan ez zela udalbatza osoa berritzen, eta urte biko biko zinegotzien erdiak aukeratzen zituztela.

Zalantza barik, alkateen eta zinegotzien esku hartzea ezinbestekoa izan zen *Batzorde Liberalak* probintzia hauteskundeetan eta hauteskunde orokorretan hautesleak kontrolatzeko ehundu zuen sarean. Berbarako, hainbat agiritan egiaztatu ahal izan dugunez, Agustín de Arambalza Urdulizko alkatea eta Berangoko alkatea buru-belarri aritu ziren liberal dinastikoei sustatutako sareetan²⁰. Modu berean jokatu zuen Sopelako alkate Ignacio Bilbaok ere.

Duda barik, udalak kontrolatzea funtsezkoa izan zen liberalen interes politikoak babesteko, udal hauteskundeetara zentzua eta helburua hutsalduta ziurrenik. Horren erakusgarri da *El Noticiero Bilbaino* egunkariak “*hautesle independenteetara*” eginiko deia 1891ko maiatzaren 10eko udal hauteskundeetan; ez alferrik, “*gaur herriek egin beharreko ekintza guztiz garrantzitsutzat*” jo zituen. Berripaper bilbotarrak dei egin zien “*gu lez udal hauteskundeek izaera politikorik izan behar ez dutela uste duten*” boto emaleei, eta eskatu zien botoa emateko “*bilkura aretoan esertzeko prest dauden hautagaiei, edozein izanik ere, ez alderdi honen edo bestearen ideiak edo helburuak defendatzeko, interes publikoak zintzoki eta duintasunez administratzeko baizik*”²¹. Pentsa daiteke deialdiak oihartzun eskasa izan zuela Uribe Kostako landa udalerrietan, *Batzorde Liberala* baitzen jaun eta jabe herri horietan. Plentzian, berbarako, hauteskundeak egin ziren “*oposizio barik, alderdi liberalaren mendeko elementuen partetik*”. Zinegotzi berrien artean, Salvador Arruza

19 PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ, 80-81 or.

20 BMG, Eduardo Victoria de Lecea Funtza, 81. mikrofilma, *Hautesleentzako zerrenda: baserria, izena, jabearen izena eta botoa lortzen lagun dezakeen harremana, d.g.* (1890. urte inguruan).

21 *El Noticiero Bilbaino* 1891-05-10.

zegoen, eta alkate aukeratu zuten, “*duela urte batzuk*” kargu berean aritutakoa jada²². Nabarmenezkoa da Arruza hautesleen zerrendan ere ageri dela, botoan eragin zezaketen lagunen atalean, Urdulizko baserri baten jabe gisa²³.

Ez dugu daturik Sopelan eginiko bozketari buruz²⁴, baina badakigu Ignacio Bilbao Exposito aukeratu zutela udalbatza berriaren buru eta honako hauek aritu zirela zinegotzi: Santiago Zalduondo Goiri, Francisco Zalduondo Goiri, José María Otazua Barandica, Narciso Menchaca Echandia eta Juan Venancio Egusquiza Aldecoa²⁵. Ez dugu informaziorik zinegotzi horien ideologia politikoari buruz. Hori esanda, ohartarazi behar dugu horixe gertatzen dela Errestaurazioaren garaiko hauteskundeetan inguruan aztertu ditugun ia agiri denetan. Horregatik, zinegotzien filiazio politikoa aipatuko dugu soil-soilik informazio hori dugunean.

Aurreko lerroetan adierazitakoa berrestera dator Sopelan eta inguruan 1895eko maiatzaren 12an egin ziren hurrengo hauteskundeetako buruzko informazioa. Berba baterako, Plentziako zinegotzi berri guztiak ideologikoki liberalak ziren, dinastikoei kostaldero herri horretako udalean zuten indarraren erakusgarri. Bestetik, esanguratsua da guztiz Mungiako Elizateko korrespontsalak El Nervión egunkariko orrialdeetan eginiko salaketa: hautagai liberalek herri horretako bozketan iruzurra egin zutela dio, eta boto emaileek euren borondatez parte hartu zutela iruzur horretan. Kronikagilearen ustean, herri horretan, “*zinegotziak hautatzeko bozketak (...) nahiko mugituak izan ziren*”, eta irakurlea gaztigitzen du: “*dagoeneko hautesleria usteltzen hasia da, baserriarrak ere bai, ustez puritanoenak zirenak*”. Ez alferrik, berriemaile mungiarraren ustean, “*hautesleriaren zati handi batek botoa saldu zuen, eta 50 pezeta ere ordaindu ziren boto bakoitzeko*”. Hiru zinegotzi karlista eta liberal bi hautatu zituzten, eta kronikan irakur daitekeenez, “*azkenean liberalek lortu dute udalerrian esku hartzea*”, nahiz eta “*karu irten zaie*”²⁶.

Sopelari dagokionez, 1895eko maiatzeko udal hauteskundeetan eta aurreko urteko probintzia hauteskundeetan emaitzak konparatuz gero, argi ikus daiteke hautesleek oso modu desberdinean jokatu zutela hauteskunde hitzordu bi horietan. Hauteskunde bietan hautesle kopurua berbera izan bazen ere (168), parte hartzea guztiz desberdina izan zen. 1894an, 120 lagunek baliatu zuten botoa emateko euren eskubidea, eta 48 etxean gelditu ziren²⁷; hau da, abstentzioa % 28,57koa izan zen. Ostera, 1895ean, 25 pertsonak baino ez zuten bozkatu, eta 143k uko egin zioten. Hots, abstentzioa handia izan zen, % 85,11koa²⁸. Udal hauteskundeetan izandako parte hartze eskasa izan liteke apatiagatik edo interes faltagatik, zeinu desberdineko hautagaien arteko lehia bako bozketa batean, baina izan liteke ere

22 El Nervión 1891-05-20.

23 BMG, Eduardo Victoria de Lecea Funtsa, 81. mikrofilma, *Hautesleen zerrenda: baserria, izena, jabearen izena eta botoa lortzen lagun dezakeen harremana*, d.g. (1890. urte inguruan).

24 Foru Agiritegian gordetako espedienteetan ez dago boto zenbaketaren aktarik (BFAH ARO00400/006, 1891ko Sopelako udal hauteskundeetan espediente orokorra).

25 BFAH, SOPELA 0077/001, Akta liburua 1891-1915, Ohiko Bilkura 1892-03-06.

26 El Nervión 1895-05-13.

27 BFAH, SOPELA 0062/040, 1894ko Sopelako probintzi diputatu hauteskundeetan bozketa akta.

28 BFAH, SOPELA 0061/038, Zinegotzien hautaketa. Bozketa akta, 1895-05-12.

boto emaileen mobilizazio eta kontrol bera ez egoteagatik, urte horietako probintzia hauteskundeetan eta hauteskunde orokorren ezaugarri izan ziren udalaz gaindiko interes politikoei eragindakoak.

Boto eskubidea zuten sopoloztarren jokabide hori ez zen jazoera bakana izan; kontrara, joera nagusia izan zen garai horretan, kasu batean izan ezik. Horrela, 1897ko udal hauteskundeetan, 170 hauteslek osaturiko erroldarekin, 43 herritarrek eman zuten botoa eta 127 sopoloztar abstenitu ziren²⁹; hots, % 74,70. Hurrengo urteko Diputatuen Kongresurako hauteskundeetan, hautesle kopuru berarekin, 137 lagunek sartu zuten botoa hauteskontzian eta 33 abstenitu ziren³⁰; hau da, erroldaren % 19,41.

Bestetik, aitzatekoa da Jose Maria Otazua Barandica izan zela buru 1895eko eta 1897ko hauteskundeetatik sortutako udal bietan.

1. TAULA: HAUTESKUNDEEN EMAITZAK 1895-05-12³¹

Hautagaiak	Boto kopurua
José María Otazua Barandica	18
Juan Antonio Bilbao Ibaragaray	16
Victoriano Landeta Menchaca	9
Venancio Ortiz de Zarate Baldenuros	4
Ignacio Bilbao Expósito	3

2. TAULA: UDALBATZA 1895-07-01³²

Kargua	Izen-deiturak	Lanbidea ³³	Hautaketa urtea
Alkatea	José María Otazua Barandica	Nekazaria	1895
Alkateordea	Juan Ignacio Zaldondo Goiri	Itsasgizona	-
Sindikoa	Juan José Bilbao Expósito	Nekazaria	-
Sindiko ordezkoa	Julian Aldecoa Goñia	Nekazaria	-
Zinegotzia	José Ramón Zubiaguirre Bilbao	Nekazaria	-
Zinegotzia	Juan Antonio Bilbao Ibaragaray	Nekazaria	1895

29 BFAH, SOPELA 0061/040, *Zinegotzien hautaketa akta*, 1897-05-09.

30 BFAH, SOPELA 0062/034, *1898ko martxoko 27an Sopelan Diputatuen Kongresurako eginiko hauteskundeetan bozketa akta*.

31 BFAH, SOPELA 0061/038, *Zinegotzien hautaketa. Bozketa akta*, 1895-05-12.

32 *Ibid.*, *Udal berriaren eraketa akta*, 1895-07-01.

33 Sopelako Udalaren 1892ko eta 1900eko hauteskunde erroldetatik ateratako datuak, BFAH, SOPELA 0062/022.

3. TAULA: HAUTESKUNDEEN EMAITZAK 1897-05-09³⁴

Hautagaiak	Boto kopurua
Antonio Larrazabal Egusquiza	35
Juan Venancio Egusquiza Aldecoa	23
Cipriano Inchaurtieta Abaroa	23
Florentino Igartua Gambe	19
Felipe Arrizabalaga Achutegui	19
José León Olagorta Egusquiza	10

4. TAULA: UDALBATZA 1897-07-01³⁵

Kargua	Izen-deiturak	Lanbidea ³⁶	Hautaketa urtea
Alkatea	José María Otazua Barandica	Nekazaria	1895
Alkateordea	Antonio Larrazabal Egusquiza	Nekazaria	1897
Sindikoa	Juan Venancio Egusquiza Aldecoa	Nekazaria	1897
Sindiko ordezkoa	Victoriano Landeta Menchaca	Nekazaria	1895
Zinegotzia	Juan Antonio Bilbao Ibaragaray	Nekazaria	1895
Zinegotzia	Felipe Arrizabalaga Achutegui	Itsasgizona	1897
Zinegotzia	Cipriano Inchaurtieta Abaroa	Nekazaria	1897

34 BFAH, SOPELA 0061/040, *Zinegotzi hautaketaren akta*, 1897-05-09.

35 Ibid., *Udal berriaren eraketa akta*, 1897-07-01.

36 Sopelako Udalaren 1892ko eta 1900eko hauteskunde erroldetatik ateratako datuak, BFAH, SOPELA 0062/022.

1899ko maiatzeko udal hauteskundeak izan ziren 1895-1910 urteetan parte hartze handiena izan zuten bozketak. 171 hautesleetatik 102k parte hartu zuten, eta 69 abstentitu ziren; hau da, erroldaren % 40,35³⁷. Hauteskunde hauei buruz zerbait nabarmentzekotan, esan behar da Enrique Urruticoechea itsasgizona izan zela hautagai bozkatuena eta alkate izendatu zutela. Urruticoechea hamarkada biz egon zen kargu horretan, 1920ko hauteskundeetara arte.

5. TAULA: HAUTESKUNDEEN EMAITZAK 1899-05-14³⁸

Hautagaiak	Boto kopurua
Enrique Urruticoechea Oleaga	71
Segundo Echevarria Arana	49
Francisco Zalduondo Goiri	42
Florentino Igartua Gambe	22
Venancio Ortiz Zarate	11
José León Olagorta Egusquiza	9
Fernando Arrarte Amezaga	4

6. TAULA: UDALBATZA 1899-07-01³⁹

Kargua	Izen-deiturak	Lanbidea ⁴⁰	Hautaketa urtea
Alkatea	Enrique Urruticoechea Oleaga	Itsas pilotua	1899
Alkateordea	Francisco Zalduondo Goiri	Nekazaria	1899
Sindikoa	Segundo Echevarria Arana	Nekazaria	1899
Sindiko ordezkoa	Juan Venancio Egusquiza Aldecoa	Nekazaria	1897
Zinegotzia	Cipriano Inchaurtieta Abaroa	Nekazaria	1897
Zinegotzia	Antonio Larrazabal Egusquiza	Nekazaria	1897
Zinegotzia	Felipe Arrizabalaga Achutegui	Itsasgizona	1897

37 BFAH, SOPELA 0062/002, *Zinegotzi bozketaren akta*, 1899-05-14.

38 Ibid.

39 Ibid., *Udal berriaren eraketa akta*, 1899-07-01.

40 Sopolako Udalaren 1900ko hauteskunde erroldatik ateratako datuak, BFAH, SOPELA 0062/022.

Esan dugun lez, 1899ko partaidetza datu onak salbuespena izan ziren. 1901eko udal hauteskundeetan, 181 hautesleetatik 22k baino ez zuten parte hartu; ostera, urte horren maiatzean eginiko Diputatuen Kongresurako hauteskundeetan, 167k erabili zuten boto eskubidea hautesle errolda osatzen zuten 177 bizilagunetatik⁴¹, eta bat dator datu hori dagoeneko azaldu dugun hautesleen portaera dinamikarekin. Gauza bera jazo zen 1903an: berriro, oso jende gutxi parte hartu zuen azaroko udal hauteskundeetan, eta soilik 34 pertsonak bozkatu zuten botoa emateko eskubidea zuten 186 hautesleetatik⁴². Aldiz, martxoko probintzia hauteskundeetan, 142k bozkatu zuten 177tik⁴³. Azkenik, zinegotziak hautatzeko 1905eko bozketaren datuak oso kaskarrak izan ziren: ordurako, 207 hauteslek osatzen zuten errolda, eta 13k bakarrik eman zuten botoa⁴⁴.

7. TAULA: HAUTESKUNDEEN EMAITZAK 1901-11-10⁴⁵

Hautagaiak	Boto kopurua
Fernando Arrarte Amezaga ⁴⁶	18
Juan Bautista Urquiaga Zuazua	18
Cipriano Inchaurtieta Abaroa	12
Juan Venancio Egusquiza Aldecoa	9
Francisco Menchaca Inchaurtieta	8

-
- 41 BFHA, SOPELA 0062/033, *1901eko zinegotzi hautaketarako Sopelako Udalak izapidetutako espedientea*. 1901eko maiatzeko Diputatuen Kongresurako hauteskundeen espedientea barne hartzen du.
- 42 BFHA, SOPELA 0062/035, *1903ko zinegotzi hautaketarako Sopelako Udalak izapidetutako espedientea*.
- 43 BFHA, AJ01915/011, *Sopelako udalerriko 1903ko martxoko Diputatu Probintzialen Hauteskunderi buruzko espedientea*.
- 44 BFAH, SOPELA 0061/038, *Zinegotzien hautaketa. Boto kontaketarako Batzordearen akta, 1905-11-16*. (1905eko udal hauteskundeen dokumentazioa agertu den espedientea 1895eko udal hauteskunderi buruzkoa da).
- 45 BFHA, SOPELA 0062/033, *1901eko zinegotzi hautaketarako Sopelako Udalak izapidetutako espedientea*.
- 46 Arrartek dimisioa eman zuen 1903ko urriaren 21ean, Urdulizera bizitzera joan zenean (BFAH, SOPELA 0030/009, *Sopelako Udalak 1903an jasotako korrespondentzia, Fernando Arrarte zinegotziak Sopelako alkateari igorritako jakinarazpena 1903-10-21*).

8. TAULA: HAUTESKUNDEEN EMAITZAK 1903-11-08⁴⁷

Hautagaiak	Boto kopurua
Enrique Urruticoechea Oleaga	32
Agustín Artaza Barroetabeña	27
Segundo Echevarria Arana	26
Francisco Zalduondo Goiri	17

9. TAULA: UDALBATZA 1904-01-01⁴⁸

Kargua	Izen-deiturak	Lanbidea ⁴⁹	Hautaketa urtea
Alkatea	Enrique Urruticoechea Oleaga	Itsas pilotua	1903
Alkateordea	Cipriano Inchaustieta Abaroa	Nekazaria	1901
Sindikoa	Juan Bautista Urquiaga Zuazua	Itsasgizona	1901
Sindiko ordezkoa	Segundo Echevarria Arana	Nekazaria	1903
Zinegotzia	Agustín Artaza Barroetabeña	Itsasgizona	1903
Zinegotzia	Francisco Zalduondo Goiri	Nekazaria	1903
Zinegotzia	Juan Venancio Egusquiza Aldecoa	Nekazaria	1901

10. TAULA: HAUTESKUNDEEN EMAITZAK 1905-11-16⁵⁰

Hautagaiak	Boto kopurua
Juan Bautista Urquiaga Zuazua	9
Ramon Garay Zuazaga	9
Francisco Menchaca Inchaustieta	8
Francisco Zalduondo Goiri	17

47 BFHA, SOPELA 0062/035, 1903ko zinegotzi hautaketarako Sopolako Udalak izapidetutako espedientea

48 BFAH, SOPELA 0076/040, Sopolako udalbatzaren eraketa akta, 1904-01-01.

49 Sopolako Udalaren 1902ko hauteskunde erroldatik ateratako datuak, BFAH, SOPELA 0062/022.

50 BFAH, SOPELA 0061/038, Zinegotzi hautaketa. Boto kontaketa Batzordearen akta, 1905-11-16. (1905eko udal hauteskundearen dokumentazioa agertu den espedientea 1895eko udal hauteskundeetara buruzkoa da).

11. TAULA: UDALBATZA 1906-01-01⁵¹

Kargua	Izen-deiturak	Lanbidea ⁵²	Hautaketa urtea
Alkatea	Enrique Urruticoechea Oleaga	Itsas pilotua	1903
Alkateordea	Juan Bautista Urquiaga Zuazua	Nekazaria	1905
Sindikoa	Agustín Artaza Barroetabeña	Itsasgizona	1903
Sindiko ordezkoa	Segundo Echevarria Arana	Nekazaria	1903
Zinegotzia	Ramon Garay Zuazaga	Nekazaria	1905
Zinegotzia	Francisco Menchaca Inchaurtieta	Nekazaria	1905
Zinegotzia	Francisco Zalduondo Goiri	Itsasgizona	1903

Garai honetako korporazioen osieran ikus daitekeenez, kargudun asko tokiko botereari lotuta egon ziren urte luze, eta botere horrek barne hartzen zuen, Udala ez ezik, baita Udal Epaitegia ere, non zinegotzi ohi eta gerora udalkide izango zen pertsona bat baino gehiago aurki baitaiteke. Berbarako, 1907ko azaroan, Ignacio Bilbao Expósito alkate ohia izendatu zuten udal fiskal, eta Lucas Galbarriartu, haren ordezko, gerora 1923an zinegotzi izendatuko zutena. Bestetik, Victoriano Landeta zinegotzi ohia izendatu zuten udal epaile, eta Venancio Ortiz de Zarate zinegotzi ohia, haren ordezko⁵³. Aldi honetako zinegotzien ogibideari dagokionez, gehienak baserritarrak ziren eta gutxi batzuk, ostera, itsasgizonak eta marinela. Guztiz logikoa dena, marinelek denbora luzea igarotzen baitzuten etxetik kanpo, eta udal zereginetan aritzea eragozten zien horrek.

1.1.2. Hautesleriaren portaera Kongresu eta Probintzia hauteskundeetan 1910etik 1923ra

Atal honek aztergai du Sopelako eta inguruko herrietako hautesleen portaera 1910 eta 1923 urteen artean; zehazki, urte horietan eginiko probintzia hauteskundeetan eta hauteskunde orokorretan. Probintzia hauteskundeetan, Barrika, Berango, Laukiz, Plentzia, Sopela eta Urdulizko datuak jaso ditugu, jada esan dugun lez Bilboko barrutiak barne hartzen zituen udalerriak. Diputatuen Kongresurako hauteskunde kasuan, aurreko zerrendari batu dizkiogu Gatika eta Gorliz, bi-biak Barakaldoko barrutikoak.

51 Ibid., *Udal berriaren eraketa akta*, 1906-01-01.

52 Sopelako Udalaren 1908ko hauteskunde erroldatik ateratako datuak, BFAH, SOPELA 0062/022.

53 *El Nervión* 1907-11-21.

Aldi honetako lehen hitzordua izan ziren 1910eko maiatzaren 8ko Diputatuen Kongresurako Hauteskundeak. Barakaldoko barrutian, Fernando María de Ybarra hautagai kontserbadoreak irabazi zuen, Ramon de Madariaga errepublikanoarekin norgehiagokan. Ybarraren garaipena erabatekoa izan zen Sopelan eta inguruko herrietan:

12. TAULA: HAUTESKUNDE OROKORREN EMAITZAK SOPELAN ETA INGURUKO HERRIETAN 1910-05-08⁵⁴		
Udalerrria	Ybarra (kontserbadorea)	Madariaga (errepublikanoa)
Barrika	70	12
Berango	147	-
Laukiz	86	24
Plentzia	192	12
Sopela	98	46
Urduliz	140	30

Fernando María de Ybarra Bizkaiko indar dinastikoen buruzagia zen. 1909ko maiatzeko udal hauteskundeen porrotaren ostean, dinastikoez euren indarrak berrantolatatu eta lehenik Alderdi Kontserbadorea sortu zuten; gero, Zirkulu Kontserbadore bat eta *El Pueblo Vasco* berripapera. Hiru ziren alderdi berriaren ardatzak: ordena, katolizismoa eta askatasuna. Ez zuen tradizionalistei aurre egin gura, ezkerreko indarren –sozialistak eta errepublikanoak– aurka borrokatu baizik, eta liberalen aurkako indarrak batu behar ziren horretarako. Helburu nagusia zen, Antonio Mauraren planteamenduei jarraikiz, “*masa alderdi bat sortzea, ordena maite zuen jendea eta iritziz neutroa mobilizatzeko gai izango zena*”. Ybarrak Bizkaiko oligarkia gehientsuenak bildu zituen bere lidergoaren inguruan, “*bai La Piña-ko kideak izandakoak, bai garai bateko Batzorde Liberaletik etorritakoak*”. Ikusiko dugun lez, ezerezean gelditu zen iraultzaren kontrako alderdi guztiak batzeko asmo hori, dinastikoez ez zuelako nazionalisten babesik lortu⁵⁵.

Hauteskunde hauen gardentasuna ezbaian jarri zuten prentsa kronikek, eta hauteskunde iruzurra eta eroskeria salatu zituzten. Barakaldoko barrutiko bozketak aztertu zituen *El Liberal* berripaperaren arabera, hautesleen % 90ek baino gehiagok eman zuten botoa barruti horretako landa herrietan, “*eroldan marinela asko inskribatuta egon arren*”, eta bere harridura adierazi zuen, errepublikanoen hautagaiaren emaitza kaskarrak zirela-eta. Oro har, *El Liberalen* kronikek oso kritikoki baloratu zituzten barrutiko herrietan eginiko bozketak, eta hauteskunde giroa erabat ustela izan zela adierazi zuten.

54 *El Liberal* 1910-05-10

55 REAL CUESTA, 103. or.

“Quedan los sobornos de conciencia, las compras de votos a granel. Además de las comidas servidas por cientos a los caciques, alcaldes y jueces municipales, curas y otros juanchus de los pueblos, en la semana que precedió a la elección, no negará esto el Sr. Ybarra, comenzaron a pagarse los votos a tres pesetas el domingo por la mañana cuando los ‘piñistas’ creían no tener contrincante, y a medida que vieron avanzar el automóvil de éste por los pueblos, fueron elevando el precio de la carne de borrego a cinco, diez y hasta quince pesetas pieza”⁵⁶.

Hurrengo hauteskundeak –probintzia hauteskundeak– egin ziren 1911ko martxoan, eta lau hautagaitza lehiatu ziren Bilboko barrutian: koalizio errepublikano-sozialista, kontserbadoreak, nazionalistak eta karlistak. Indar irabazlea izan zen errepublikanoek eta sozialistek osatutako koalizioa, eta haren ondoren bozkatuenak izan ziren euskal nazionalistak, kontserbadoreak eta, azkenik, karlistak. Halandaze, diputatu akta lortu zuten hiru hautagai errepublikano-sozialistek eta Baltasar Amezola nazionalistak⁵⁷. Sopelan, Berangon, Laukizen, Plentzian eta Urdulizen, kontserbadoreena izan zen boto gehien jaso zituen hautagaitza. EAJ bigarren indarra izan zen Sopelan, Plentzian eta Laukizen, eta Berangon berdinduta geratu zen koalizio errepublikano-sozialistarekin. Barrikan, kontserbadoreek eta nazionalistek berdinketa estua izan zuten; oster, Urdulizen, errepublikano-sozialistak bigarren indarra izan ziren, hautagaitza kontserbadorearengandik oso hurbil. Azkenik, karlistek 9 boto baino ez zituzten lortu sei udalerrietan⁵⁸.

13. TAULA: PROBINTZIA HAUTESKUNDEEN EMAITZAK SOPELAN ETA INGURUKO HERRIETAN 1911-03-12⁵⁸

Udalerrria	Madariaga (errep.)	Ybarra (errep.)	Prieto (errep.)	Uruñuela (konts.)	Goitia (konts.)	Arrola (konts.)	Amezola (aber.)	Arruza (aber.)	Vicuña (aber.)	Aranguren (karl.)	Juaristi (karl.)	Zuazola (karl.)	Boto zuriak
Barrika	20	20	20	35	37	36	37	38	36	1	1	1	1
Berango	20	20	20	35	37	36	37	38	36	1	1	1	1
Laukiz	8	8	6	56	56	57	52	52	52	-	-	-	-
Plentzia	25	12	16	111	134	139	64	87	62	1	1	1	1
Sopela	28	28	28	74	80	79	58	55	59	-	-	-	-
Urduliz	42	42	42	49	49	49	32	30	31	1	1	1	-

56 *El Liberal* 1910-05-10

57 *El Nervión* 1911-03-13.

58 BFAH, AJ01923/005 (Barrika) AJ01922/005 (Berango) AJ01924/006 (Laukiz), AJ01924/008 (Plentzia), AJ01924/009 (Sopela), AJ01924/010 (Urduliz). *La Gaceta del Norte* 1911-03-13, eta *El Noticiero Bilbaino* 1911-03-13.

14. TAULA: 1911KO MARTXOKO PROBINTZIA HAUTESKUNDEETAKO PARTE HARTZEA⁵⁹

Udalerrria	Hautesle kop.	Boto emaile kop.	Abstentzioa
Barrika	141	95	46 (% 32,62)
Berango	178	145	33 (% 18,53)
Laukiz	128	116	12 (% 9,37)
Plentzia	375	221	154 (% 41,06)
Sopela	221	164	57 (% 25,79)
Urduliz	182	152	30 (% 37,50)

1910eko hauteskunde orokorretan jazo lez, hautagaitza kontserbadorea izan zen nagusi Sopelan eta inguruko herrietan egin ziren bozketetan. Berrito ere, prentsak salatu zuen kontserbadoreek irabazi zutela praktika ustelengatik. Berba baterako, EAJren Bizkai Buru Batzarraren organo ofiziala zen *Bizkaitarra* berripaperak adierazi zuen Bilboko barrutiko *“herri euskaldunetan”* hautagaitza kontserbadorearen kanpaina oinarritu zela *“prozedurarik gaitzesgarrietan: promesan, oparietan, mehatxuan, eroskerian, lapurretan eta kontzientzien bortxaketan”*. Berripaper jeltzalearen iritziz, *“kazikismo kontserbadore koldarrak”* ez balu esku hartu lehian *“burua mozorrotuta, eskuak eskularrotuta eta automobil bizkorraren gainean, liluratuta uzteko baserritar xumea, zeinaz ziurrenik gogoratuko ez diren urteak dituen gainerako 364 egunetan”*, hobeak izango ziren hautagaitza nazionalistaren hauteskunde emaitzak⁶⁰.

Bere aldetik, koalizio errepublikano-sozialistarekin lerrokatuta zegoen *El Liberal* egunkariaren arabera, koalizioak Bilboko Barrutian lortu zuen garaipen *“kolosalak”* jauntxokeriaren porrota ekarri zuen, eta oso titular esanguratsua argitaratu zuen: *“Kazikismo azpiratua”*. Edozelan ere, jauntxokeriaren aurkako ezkerren garaipena gazi-goza izan zen barrutiko landa herrietan lorturiko emaitzei erreparatuz gero. Hauteskundeak baino egun bi lehenago, berripaper errepublikano-ezkertiarrak bere kausarako iragarpen nahiko goibela egin zuen barrutiko udalerrietako egoera deskribatzean, eta salatu zuenez, *“kontserbadoreek erabili dituzte jauntxokeria chavarristaren garaian horren boladan egon ziren amarrukeria denak: botoak erostea, ugazabak nekazaria derrigortzea, kaleratzearen mehatxua tailerretan, lantegietan, bulegoetan...”*. Ezkerreko indarrek *“borrokalari prestuak”* zituzten Sopela, Urduliz edo Barrika legezko herrietan, *“heroi lez borrokatzeko gertu, eraso klerikalaren kontra, ahal den neurrian euren abusuak eragozteko, baina nahikoa eta gehiegi egingo dute aurkariaren garaipena erabatekoa izatea galarazten badute”*. Halandaze, koalizio errepublikano-sozialistak bazekien udalerrri horietan ez zuela nabarmentzeko moduko indarrik, eta horregatik zen behar-beharrezkoa Bilbon garaitzea, hori baitzen modu bakarra *“ruralismoaren eragin elektoralala zapaltzeko eta egiten ari garen eginahala antzua ez izateko, hirian egiten ari garen eginahala eta baita lehoien ausardiaz portatzen ari diren herrietako lagunena ere”*⁶¹.

59 Ibid.

60 *Bizkaitarra* 1911-03-18.

61 *El Liberal* 1911-03-10 eta 1911-03-13.

1912ko martxoaren erdialdean, kontserbadoreek euren antolakuntza sendotu zuten Sopelan, eta Fernando María de Ybarra buru zuen Alderdi Kontserbadorearen mende zegoen Batzorde Kontserbadorea sortu zuten. Aurrerago ikusiko dugun lez, batzorde horrek hainbat ekitalditan parte hartu zuen, gutxienez 1913ko abuztura arte (handik gutxira, Alderdi Kontserbadorea krisian sartuko zen), eta Alderdi Mauristarekin bat egitearen alde agertu zen urte horretako azaroaren amaieran. Fernando María de Ybarra sigla horiek erabilia aurkeztu zen hauteskunde orokorretara, Barakaldoko barrutiko hautagai gisa, eta hautagai bozkatuena izan zen Sopelan eta inguruko herrietan, alde oso handia aterata Indalecio Prieto sozialistari.

**15. TAULA: HAUTESKUNDE OROKORREN EMAITZAK SOPELAN
ETA INGURUKO HERRIETAN 1914-03-08⁶²**

Udalerrria	Hautesle kop.	Fernando M. ^a Ybarra (maurista - kontserbadorea)	Indalecio Prieto (sozialista)	Bartolomé Urquiaga (independentea)	Boto zuriak	Boto emaeleak guztira	Abstentzioa
Barrika	141	71	23	-	1	95	46 (% 32,62)
Berango	187	125	22	-	1	149	38 (% 20,32)
Gatika	246	144	15	21	1	181	65 (% 26,42)
Gorliz	284	107	38	-	2	147	137 (% 48,23)
Laukiz	137	87	25	-	2	114	23 (% 16,78)
Plentzia	357	172	34	-	1	207	150 (% 42,01)
Sopela	227	103	45	-	1	149	78 (% 34,26)
Urduliz	184	116	31	-	-	147	37 (% 20,10)

Javier Realek adierazi legez, Ybarrak lortu zuen Barakaldoko barrutiaren ordezkartza *“bere eragin pertsonalari esker”*⁶³. Horren adibide bat topa dezakegu 1914ko otsailean Ramón de Echevarrioste abokatuak Plentziatik *El Pueblo Vasco*ra bidalitako kronikan. Berriemailearen arabera, hauteskunde kanpaina *“lasaia”*

62 BFAH, AJ01987/003 (Barrika), AJ01987/005 (Berango), AJ01987/012 (Gatika), AJ01987/013 (Gorliz), AJ01987/015 (Laukiz), AJ01987/018 (Plentzia), AJ01987/021 (Sopela), AJ01987/022 (Urduliz). El Pueblo Vasco 1914-03-09.

63 Ibid., 104. or.

izango zen herrian, eta *“herritarrek, isilean gorderik euren hautu politikoa, masiboki bozkatuko dute Fernando María de Ybarra jaunaren hautagaitza”*. Kronikariaren iragarpen zorrotz bezain propagandistiko horrek azalpen argia zuen: hautagai kontserbadoreak babes masibo hori jasoko zuen *“oso gizon maitekorra, umila eta ona delako, denei arreta ematen dielako eta beti denekin miresgarriri portatu delako”*. Baieztapen hori indartzeko, Echevarriostek bere irakurleei gogorarazten zien Ybarraren esku hartzeak amaiera eman ziela Plentziak eta Gorlizek urteetan izan zituzten jurisdikzio auziei, eta Valentin de Gorbeña ingeniaria izendatu zuela herri bien arteko desadostasunak konpontzeko⁶⁴. Berba gutxitan, Ybarra aurkezten zen ordenaren, aurrerabidearen eta bake sozialaren bermatzaile gisa.

Jada esan dugunez, iraultzaileen aurkako alderdi guztiak batzeko irrika zaharrak ez zuen fruiturik eman, dinastikoez ez zutelako erdietsi nazionalisten babesik. Eskumaren zatiketaz ezkerren garaipena ekarri zuen 1914ko Gorteetarako hauteskundeetan: barbarako, Horacio Echevarrietak diputatu postua lortu zuen Bilbotik, bigarren lekuan utzirik abertzaletasunaren hautagaitza, *Comunión Nacionalista Vasca* (CNV) izena erabiltzen zuena 1913az geroztik (1916an ofizial bihurtuko zen izen hori)⁶⁵.

1915eko martxoan, probintzia hauteskundeak egin ziren (16. taula), eta agerian gelditu zen bozketa horietan euskal nazionalismoaren zabalkundea. Sopelan eta inguruan garaile izan zen, hautagaitza errepublikano-sozialistarekiko lehian. Nazionalismoaren hazkundera, aurrerago ikusiko dugunez, une gorenera heldu zen 1918an, hainbat faktorerengatik. Alde batetik, barne faktoreak: alderdi barruko kohesioa indartu eta apustu egin zuten ildo posibilistago baten alde, autonomismoaren alde, indarrean zen legeriaren barruan, etorkizunean independentziari uko egin barik. Bestetik, nabarmentzekoak dira ere CNVren gorakadan lagundu zuten kanpoko faktoreak; halan zelan nazionalitateen auzia berpiztea Europan Lehen Mundu Gerraren testuinguruan, edo Errestaurazioaren sistema politikoaren krisi larria Espainiako estatuan⁶⁶.

Lan honek aztergai duen eremu geografikora etorritik, duda barik Antonio Araluce getxoxtarra hautagai gisa aurkezteak eragin handia izan zuen CNVk Sopelan eta inguruko herrietan lortu zuen garaipenean, lotura estua baitzuen Uribe Kosta eskualdearekin, herri horietan arkitekto gisa egin zuen beharragatik.

Oro har, bozketa egin zen gorabehera barik, eta Sopelan, Urdulizen edo Laukizen ez zen protestarik izan. Edozelan ere, Plentzian berba baterako, Aralucek protesta egin zuen *“alkatearen, alkateordearen eta Undabeitia zinegotzi jaunaren jokabideagatik, gau jagoleak, musikariak eta aguazilak behartu zituztelako hautagaitza konjuntzionista bozkatzera, modu ageriko batean”*. Hautagai nazionalistaren kexak izan zuen Mariano Tejero hautagai errepublikanoaren kontraprotesta⁶⁷.

64 *El Pueblo Vasco* 1914-02-14, *Crónica Postal - Plencia*, 12 de febrero de 1914.

65 REAL CUESTA, 103. or.

66 PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ, 109. or.

67 Euzkadi 1915-03-19.

**16. TAULA: PROBINTZIA HAUTESKUNDEEN EMAITZAK SOPELAN
ETA INGURUKO HERRIETAN 1915-03-14⁶⁸**

Udalerrria	Antonio Araluce (nazionalista)	Mariano de la Torre (nazionalista)	Antonio Maguregui (nazionalista)	Ernesto Bengoa (errepublikanoa)	Indalecio Prieto (errepublikanoa)	Mariano Tejero (errepublikanoa)
Barrika	56	56	56	34	34	34
Berango	88	88	88	59	59	59
Laukiz	106	106	106	28	28	28
Plentzia	153	136	130	86	91	93
Sopela	99	99	98	58	58	57
Urduliz	99	99	99	57	57	57

**17. TAULA: 1915KO MARTXOKO PROBINTZIA HAUTESKUNDEETAKO
PARTE HARTZEA⁶⁹**

Udalerrria	Hautesle kop.	Boto emaitze kop.	Abstentzioa
Barrika	140	90	50 (% 35,71)
Berango	191	147	44 (% 23,03)
Laukiz	145	134	11 (% 7,58)
Plentzia	364	232	132 (% 36,26)
Sopela	224	156	68 (% 30,35)
Urduliz	186	156	30 (% 16,12)

1916ko apirilko Gorteetarako hauteskundeetan, Fernando Maria de Ybarra kontserbadorea aurkeztu zen berriro ere, Barakaldoko barrutian (18. taula), Mariano Tejero errepublikanoarekin lehiatzen. Hauteskundeak baino egun batzuk lehenago, Plentziako berriemaile eta abokatu Ramón de Echevarriostek iragarri zuen Ybarraren garaipena barrutian izango zela *“bikaina bezain eztabaidaezina”*, eta arrazoiak aitatzten zituen: *“sinpatia ugari ditu eta ederto errotuta dago herri horietan”*. Plentziako emaitzen pronostikoa oso zehatza izan zen: Ybarrak 200

68 BFAH, AJ01933/002 (Barrika), AJ01933/005 (Berango), AJ01933/011 (Laukiz), AJ01933/014 (Plentzia), AJ01933/015 (Sopela), AJ01933/016 (Urduliz).

69 Ibid.

boto lortuko ei zituen, eta 203 lortu zituen⁷⁰. Echevarriostek adierazi legez, Ybarra oso ezaguna zen Barakaldoko barrutian, eta honako hau iragartzera ausartu zen berriemailea hauteskundeak baino apur bat lehenago, otsailaren erdialdean “Plentziak era masiboan bozkatuko du Fernando María de Ybarra jaunaren alde (...), ez du aurkakorik izango eta, aurkakorik balego, denbora galtzeko eta hautesleak gogaitzeko izango litzateke”⁷¹.

18. TAULA: HAUTESKUNDE OROKORREN EMAITZAK SOPELAN ETA INGURUKO HERRIETAN 1916-04-09⁷²

Udalerria	Hautesle kop.	Fernando M. ^a de Ybarra y de la Revilla (maurista - kontserbadorea)	Mariano Tejero Manero (errepublikanoa)	Boto zuriak	Boto emalleen kop.	Abstentzioa
Barrika	155	68	33	1	102	53 (% 34,19)
Berango	190	123	22	-	145	45 (% 23,68)
Gatika	239	165	8	1	174	65 (% 27,19)
Gorliz ⁷³	279	126	31	2	160	119 (% 42,65)
Laukiz	149	94	23	1	118	31 (% 20,80)
Plentzia	365	203	12	2	217	148 (% 40,54)
Sopela	235	122	33	1	156	79 (% 33,61)
Urduliz	193	115	41	-	156	37 (% 19,17)

1917ko martxoko probintzia hauteskundeetan, nazionalismoaren hazkunde ikusgarriak lehen gehiengo lortu zuen Aldundian, Ramón de la Sota Aburtoren eskutik⁷⁴. Sopelan eta inguruan, CNVk ez zuen gorakada bera izan herri guztietan (19. taula): Sopelan bertan, mauristak izan ziren garaille, errepublikanoak ondoren eta komunionistak hirugarren postuan geratu ziren. Berangon ere kontserbadoreek irabazi zuten, eta berdinketa izan zen bigarren postuan hautagaitza errepublikanoen eta nazionalisten artean. Barrikan, Laukizen, Urdulizen eta Plentzian, CNVren hautagaitzak jaso zuen boto gehien.

70 *El Pueblo Vasco* 1916-04-06, *Crónica Postal - De Plencia - De elecciones*.

71 *El Pueblo Vasco* 1916-02-15, *Desde Plencia - Feliz Acontecimiento*.

72 BFAH, AJ01993/002 (Barrika), AJ01993/004 (Berango), AJ01993/011 (Gatika), AJ01993/012 (Gorliz), AJ01993/014 (Laukiz), AJ01993/017 (Plentzia), AJ01993/020 (Sopela), AJ01993/021 (Urduliz).

73 Espedientearen arabera, Domingo Hormaza Amezagak boto bat jaso zuen.

74 PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ, 109-110 or.

Ramón de Echevarrioste, dagoeneko aipatu duguna *El Pueblo Vascoren* berriemaile gisa 1916an, *El Liberal* egunkarian hasi zen argitaratzen Plentziako bere kronikak. Mudantza politiko horren aurretik Fernando María de Ybarra kontserbadorea babestu bazuen, 1917an errepublikanoen kanpainen mugildu zen buru-belarri. Echevarriosteren aldaketa horrek aukera ematen digu ezagutzeko Plentziako hauteskunde prozesuen barne mekanismoetako bat, baliagarria azaltzeko mauristek Sopelan edo Berangon lorturiko garaipena. Plentziako kronikariaren artikulua bati esker, badakigu marinel herriko alkate Hilario Gorordo Artaza konprometituta zegoela *“mauristen hautagaitzarekin, Fernando María de Ybarra Gorteetako diputatu jauna aztertzen ari zelako herriarentzat interes handikoak diren gaiak”*⁷⁵. Alde horretatik, ez litzateke zentzugabea izango pentsatzea agian Sopelako alkateak konpromiso bera zuela mauristen hautagaitzarekin, Plentziako alkatearen arrazoi berberengatik, nahiz eta hori ez litzatekeen izango mauristek Elizatean lorturiko emaitzaren azalpen bakarra: *Euzkadin* idatzitako artikulua batean, *Katarra* berriemaile algortarrak zioen posible zela kontserbadoreek botoak erosi izana Sopelan eta Urdulizen⁷⁶.

Echevarriostek ere salatu zuen Plentziako hauteskundeetan izandako ustezko jokabide irregularra, eta zalantzan jarri zuen herri horretako hauteskundeen gardentasuna. Berriemailearen esanetan, nazionalistek kostaldeko herrian lorturiko garaipenaren arrazoia izan zen nazionalisten eta mauristen arteko ituna, *“Plentziako botoak banatzeko, gehiengo txiki bat eratuta nazionalisten mesederako”*. Akordio horren ondorioz, Echevarriostek kostaldeko herriko alkatea bisitatu zuen, Vicente Fatrás hautagai errepublikanoarekin batera⁷⁷.

**19. TAULA: PROBINTZIA HAUTESKUNDEEN EMAITZAK SOPELAN
ETA INGURUKO HERRIETAN 1917-03-11**⁷⁸

Udalerrria	Cosme Palacio (maurista)	José M.º González (maurista)	Luciano Zubiria (maurista)	Mariano Tejero (errepublikanoa)	Vicente fatrás (errepublikanoa)	Claudio Cerezo (errepublikanoa)	Mariano de la Torre (nazionalista)	Luis Urrutia (nazionalista)	José Ramón Bilbao (nazionalista)	Boto zuriak
Barrika	31	30	30	38	37	38	42	42	42	-
Berango	98	99	98	33	33	33	34	33	34	-
Laukiz	17	16	16	14	14	13	97	97	97	-
Plentzia	59	66	66	57	63	54	143	106	115	1
Sopela	86	86	86	56	56	54	43	43	43	1
Urduliz	45	45	45	40	40	39	85	85	86	-

75 *El Liberal* 1917-03-13.

76 *Euzkadi* 1917-03-14. *“Txindi edo diru-zorro galantak erabili dabez geure aurkariak, baiña oraingoan guzurrak urten dautzen. Sopela eta Urduliz-aldean ibilli ei-dan ugarien”*.

77 *El Liberal* 1917-03-13.

78 BFAH. AJ01937/002 (Barrika), AJ01937/003 (Berango), AJ01937/009 (Laukiz), AJ01937/012 (Plentzia), AJ01937/014 (Sopela), AJ01937/015 (Urduliz). *La Gaceta del Norte* 1017-03-12 eta *Euzkadi* 1917-03-12.

**20. TAULA: 1917KO MARTXOKO PROBINTZIA HAUTESKUNDEETAKO
PARTE HARTZEA**

Udalerrria	Hautesle kop.	Boto emaille kop.	Abstentzia
Barrika	155	110	45 (% 29,03)
Berango	200	165	35 (% 17,50)
Laukiz	149	127	22 (% 14,76)
Plentzia	371	246	125 (% 33,69)
Sopela	239	185	54 (% 22,59)
Urduliz	193	170	23 (% 11,91)

CNVk 1917an izandako hauteskunde arrakastek, Bizkaiko Foru Aldundian eta Bilboko Udalean batez ere, euskal mugimendu autonomista bultzatzera eta haren buru izatera eroan zituzten abertzaleak. Prozesu hori hasi zen 1917ko uztailean, hiru aldundiek Gasteizen eginiko bilera batean sinaturiko ebazpenarekin⁷⁹. Horrela, ia alderdi politiko guztiak batzea lortu zuten, mauristak izan ezik⁸⁰, nahiz eta batasun hori abuztuaren amaierarako jada apurtzen hasia zen, monarkiko alfonsinoek foru integrazio erabatekoa eskatu zutenean aldarrikapen autonomistaren orde. Pablo, Mees eta Rodríguez Ranzek dioten legez, jarrera horrek helburu argi bat zuen: mugimendu autonomista oztopatzea⁸¹. Aurrerago helduko diogu berriro gaiari.

Autonomiaren aldeko giro sutsu horretan, abertzaleak euren hazkundearen gorenera iritsi ziren 1918ko otsaileko hauteskunde orokorretan, Bizkaiko lurraldearen ordezkaritza osoa lortuta, Bilboko diputatua izan ezik⁸². Barakaldoko barrutian, Zaballa abertzalea eta Ybarra maurista lehiatu ziren, eta lehenak lortu zuten akta. Hauteskundeak nahiko gorabeheratsuak izan ziren Barakaldoko barrutiko hainbat udalerritan, eta nazionalistek eta mauristek eroskeria eta boto erosketa egotzi zioten elkarri, euren organo ofizialen bidez (*Euzkadi* eta *El Pueblo Vasco*, hurrenez hurren). Berba baterako, *El Pueblo Vascok* salatu zuenez, Berangon hautestontzi bat apurtu zuten “*boto zenbaketaren ordua baino apur bat lehenago*”, hautagai mauristak abertzaleari 100 botoko aldea ateratzen zionean. Berripaper

79 MEES, Ludger: “*El nacionalismo vasco entre 1903 y 1923*”, *Vasconia*. Cuadernos de Historia-Geografía, N.º 17 Donostia, Eusko Ikaskuntza, 1990, 115-139 or. (aipua: 130. or.)

80 REAL, 55. or.

81 PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ, 123. or.

82 MEES, 115-139 or. (aipua: 129. or.)

kontserbadoreak honako hau jo zuen egile gisa: *“jelkide bat, Algortako marinela, Antonio de Araluce arkitektoak akuilatu, lagundu eta hauteslekuan bertan babestu zuena, zalantzarik izan ez zezan”*. Jazoera horren ondorioz, bozketa errepikatu behar izan zen Berangon⁸³ eta Fernando María de Ybarra irten zen garaile, *“abertzaleek hori eragozteko modu barik”* –deitoratu zuen *Euzkadi* berripaperak–, eta gainera salatu zuen hautagai kontserbadorearen garaipena izan zela *“egun hauetan barrutian horrenbesteko distira arriskutsuz dabilen Ybarraren errearen indarragatik”*⁸⁴.

Sopelako eta inguruko emaitzak aztertuz gero, ikus daiteke Ybarraren hautagaitza nagusi izan zela Berangon, Gatican, Plentzian eta Urdulizen; ostera, Zaballak garaitu zuen Barrikan, Gorlizen, Laukizen eta Sopelan (21. taula). Zortzi herri horietako emaitzek agerian uzten dute zer-zelako lehia estua izan zen barruti osoan, eta, horrekin batera, zer eragin sendoa zuen Ybarrak inguru horretan.

21. TAULA: HAUTESKUNDE OROKORREN EMAITZAK SOPELAN ETA INGURUKO HERRIETAN 1918-02-24⁸⁵

Udalerrria	Hautesle kop.	Alejandro Zaballa (abertzalea)	Fernando M. ^a de Ybarra	Boto emaitleen kop.	Abstentzioa
Barrika	162	83	41	124	38 (% 23,45)
Berango	206	63	125	188	18 (% 8,73)
Gatika	246	100	123	223	23 (% 11,16)
Gorliz	281	112	59	171	110 (% 38,32)
Laukiz	145	86	49	135	10 (% 6,89)
Plentzia	363	113	149	262	101 (% 27,82)
Sopela	239	107	82	189	50 (% 20,92)
Urduliz	203	75	101	176	27 (% 13,30)

83 *El Pueblo Vasco* 1918-02-25.

84 *Euzkadi* 1918-02-26.

85 BFAH, AJ02004/002 (Barrika), AJ02004/004 (Berango), AJ02004/011 (Gatika), AJ02004/012 (Gorliz), AJ02004/014 (Laukiz), AJ02004/ (Plentzia), AJ02004/020 (Sopela), AJ02004/021 (Urduliz).

Apirilaren 6an, Auzitegi Gorenak Zaballaren akta baliobakotu zuen⁸⁶, eta berriro egin behar izan ziren hauteskundeak Barakaldoko barrutian, ekainaren 30ean. Hiru hautagaitza aurkeztu ziren: CNV, Domingo Epalza buru zuela; ezkerreko indarrak, Ernesto Bengoarekin; eta mauristak, José Felix Lequerica buru zutela. Bigarren saio horretan, argi eta garbi nagusitu zen hautagaitza nazionalista Sopelan eta inguruko herrietan, Berangon izan ezik, non garaipena oso estua izan baitzen (22. taula).

22. TAULA: HAUTESKUNDE OROKORREN EMAITZAK 1918-06-30⁸⁷

Udalerrria	Hautesle kop.	Domingo Epalza	Ernesto Bengoa (ezkerreko koalizioa)	José Félix Lequerica (maurista)	Boto zurriak	Boto emailleen kop.	Abstentzioa
Barrrika	162	79	31	12	-	122	40 (% 24,69)
Berango	206	79	14	73	-	166	40 (% 19,41)
Gatika	246	133	19	79	-	222	24 (% 9,75)
Gorliz	281	122	7	44	2	175	106 (% 37,72)
Laukiz	145	97	4	26	-	127	18 (% 12,41)
Plentzia	363	188	18	47	-	253	110 (% 30,30)
Sopela	239	135	30	9	-	174	65 (% 27,19)
Urduliz	203	105	13	55	-	143	60 (% 29,55)

Autonomia prozesuaren gaiari berriro helduz, martxoaren erdialdean, García Prietoren gobernu liberalak agintea galdu eta Antonio Maura kontserbadorea buru zuen gobernu batek hartu zuen haren lekua, aldarrikapen autonomisten aurkakoa. Azarora arte iraun zuen agintean, eta denbora horretan ez zen ezelango urratsik egin. Mauraren gobernuaren erortzeak eta haren ordezkari Romanones liberalaren beste bat ezartzeak itxaropenak berpiztu zituen euskal autonomiaren aldekoen artean, baina laster egiaztatu zenez, *“Errestaurazioaren esparru politiko eta sozialean ezin zen egin botere egituren erreformarik txikiena ere, nahiz eta mila aldiz ziurtatu hori batasun nazionalaren barruan gauzatuko zela”*. 1919ko apirilaren erdialdean, Maurak gobernu berreskuratu zuen eta amaiera eman zien horrek euskaldunen asmo autonomistei⁸⁸.

86 *El Pueblo Vasco* 1918-04-07.

87 BFAH, AJ02003/002 (Barrrika), AJ02003/004 (Berango), AJ02003/011 (Gatika), AJ02003/012 (Gorliz), AJ02003/014 (Laukiz), AJ02003/017 (Plentzia), AJ02003/020 (Sopela), AJ02003/021 (Urduliz).

88 PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ, 125. or.

1918ko otsaileko hauteskunde orokorretako abertzaleen arrakasta itzelaren ostean, mauristek aton ulertu zuten ez zitzaieela komeni ezelango traturik egitea jeltzaleekin. Premisa horrek azaltzen du ordezkari monarkikoen jarrera Mario Arana Bilboko alkate nazionalistaren ekimenez 1918ko abenduaren 15ean egin zen Bizkaiko Udalen Batzarrean. Monarkikoen udaletxearen balkoian ikurrina eskegitzeari buruz esandakoek edo autonomia proiektuari babesa emateko batasun nazionala ezinbestekotzat jotzeak eztabaida eta ika-mika sortu zituzten batzarrean bildutakoen artean. Horren aurrean, bertaratutako gehienak, nazionalistek eta karlistek, testu bat onartu zuten, zeinean autonomia eskatzen zen euskal probintzientzat eta Nafarroarentzat, egitura bakarrean, eskaera hori behin-behineko agertoki gisa planteatu bazen ere, ez baitzitzaion uko egin 1839ko urriaren 25eko Legearen indarbakotzeari. Batzarra amaitzean, bertaratutakoak Aldundiaren jauregira joan ziren, bilkuran adostutako testua entregatzera. Giroa gaiztotu egin zen eta liskarrak izan ziren Udaletxe aurrean, Areatzan eta Kale Nagusian, eta polizia indarrek esku hartu behar izan zuten. Istilu horien ondorioz, Arana Bilboko alkatea kargubakotu zuen gobernuak biharamunean⁸⁹.

Handik gutxira, 1919ko urtarrilean, dinastikoen euren antolakuntza berrantolatu eta *Liga de Acción Monárquica* izeneko erakundea sortu zuten, euskal nazionalismoaren gorakadari aurre egiteko helburu argiarekin. Ondorioz, lehia politikoa, eskuma/ezker kontrakotasun klasikoak indarra galdu eta areagotu egin zen auzi identitarioa (euskal nazionalismoa / antinazionalismoa edo nazionalismo espainiarra)⁹⁰. Lehia berri horrek aurrez aurre jarri zituen CNV eta Liga Monarkikoa, eta azken horrek sozialisten babesa izan zuen hauteskundeetan.

89 *Euzkadi 1918-12-16* eta *La Gaceta del Norte 1918-12-16*.

90 REAL CUESTA, 56. or.

Esan dugunez, Ligaren helburu nagusia zen aurre egitea nazionalistei, ordurako lortua zuten boterea kenduta, ezelango bitartekorik baztertu barik. Hain zuzen, horixe jazo zen 1919ko ekaineko hauteskunde orokorretan: CNVk lau akta lortu zituen; tartean, Barakaldoko barrutikoa. Hala ere, auzitegiek akta hori baliobakotu zuten, Markinako eta Durangoko aktekin batera, hauteskunde iruzurra jazo zelakoan⁹¹.

Barakaldoko barrutian, aurrez aurre lehiatu ziren Fernando Maria de Ybarra hautagai kontserbadorea eta Domingo de Epalza abertzalea. Ybarrak irabazi zuen Sopelan, Barrikan, Berangon eta Gatikan, oso alde txikia aterata Epalzari, zeina garaile izan zen Gorlizen, Laukizen, Plentzian eta Urdulizen (23. taula).

23. TAULA: HAUTESKUNDE OROKORREN EMAITZAK SOPELAN ETA INGURUKO HERRIETAN 1919-06-01⁹²						
Udalerrria	Hautesle kop.	Fernando M ^o de Ybarra (kontserbadorea)	Domingo Epalza (nazionalista)	Boto zuriak	Boto emalleen kop.	Abstentzioa
Barrika	160	72	50	-	122	38 (% 23,75)
Berango	203	91	82	-	173	30 (% 14,77)
Gatika	242	108	104	-	212	30 (% 12,39)
Gorliz	263	49	113	3	165	98 (% 37,26)
Laukiz	139	31	87	-	118	21 (% 15,10)
Plentzia	363	102	163	1	256	107 (% 16,82)
Sopela	237	86	81	-	167	70 (% 29,,53)
Urduliz	195	72	90	-	162	33 (% 16,92)

91 PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ, 128. or.; eta REAL, 56. or.

92 BFAH, AJ02006/018 (Barrika), AJ02006/019 (Berango), AJ02006/027 (Gatika), AJ02006/028 (Gorliz), AJ02006/029 (Urduliz), AJ02006/035 (Laukiz), AJ02006/036 (Sopela), AJ02006/038 (Plentzia).

Aste batzuk geroago, probintzia hauteskundeak egin ziren, berrikuntza batekin: maiatzean, Espainiako gobernuak Bizkaiko hauteskunde banaketa aldatu zuen, data horretatik aurrera egingo ziren lurralde mailako hauteskunderi begira. Aldaketa horren ondorioz, Bilboko barrutia bitan zatitu zen: Bilbo-Erdialdea barrutia, Sopela, Barrika, Plentzia, Berango, Urduliz edo Laukiz barne hartuta; eta Bilbo-Zabalgunea⁹³. Antonio Araluce buru zuen hautagaitza nazionalistak gehiengoa eskuratu zuen Bilbo-Erdialdea barrutian, eta garaile izan zen Sopelan, Urdulizen, Barrikan, Plentzian eta Laukizen; ostera, Liga Monarkikoa bozkatuena izan zen Berangon (24. taula). Edozelan ere, probintzia osoan lorturiko emaitzak ez ziren nahikoak izan nazionalistek 1917. urtean Aldundian lorturiko lehen gehiengoari eusteko⁹⁴. Bestetik, nabarmentzekoa da Araluce ere kargutik kendu zutela 1919ko abenduan, ustez Butroeko Gazteluko Bisita Liburuan “Gora Euzkadi askatuta” idazteagatik. Azkenean, epaitegiek ez zuten ezelango delitu politikorik ikusi eta diputatu akta berreskuratu zuen 1920ko uztailen⁹⁵.

24. TAULA: PROBINTZIA HAUTESKUNDEEN EMAITZAK SOPELAN ETA INGURUKO HERRIETAN 1919-07-06⁹⁶

Udalerrria	Antonio Araluce	Jesús Rodríguez (nazionalista)	Federico Zabala (nazionalista)	Cecilio Goitia (monarkikoa)	Federico Ugalde (monarkikoa)	Juan Gallano (monarkikoa)	Boto zuriak
Barrika	80	80	80	45	45	45	-
Berango	76	76	76	101	101	87	-
Laukiz	93	93	93	32	32	32	-
Plentzia	150	143	145	117	115	116	1
Sopela	117	117	117	62	62	62	-
Urduliz	117	112	111	54	54	35	-

93 Euzkadi 1919-05-15.

94 PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ, 129. or.

95 Euzkadi 1919-11-13, 1919-12-12, 1919-12-14, 1919-12-16, 1920-07-08; eta ABC 1919-09-10 y 1919-12-12.

96 BFAH, AJ01941/012 (Barrika), AJ01941/014 (Berango), AJ01941/020 (Laukiz), AJ01941/023 (Plentzia), AJ01941/024 (Sopela), AJ01941/025 (Urduliz). *El Pueblo Vasco* 1919-07-07.

25. TAULA: 1919KO UZTAILEKO PROBINTZIA HAUTESKUNDEETAKO PARTE HARTZEA⁹⁷

Udalerrria	Hautesle kop.	Boto emaile kop.	Abstentzioa
Barrika	160	125	35 (% 21,87)
Berango	203	177	26 (% 12,80)
Laukiz	139	125	14 (% 10,07)
Plentzia	363	263	100 (% 27,54)
Sopela	237	179	58 (% 24,47)
Urduliz	195	165	35 (% 33,33)

Liga Monarkikoak arrakasta itzela lortu zuen 1920ko abenduko Gorteetarako hauteskundeetan: bost diputatu lortu zituen; sozialistek, bakarra⁹⁸. Nazionalismoak ez zuen Bizkaian ordezkariarik lortu hauteskunde horietan, krisialdian murgilduta zegoelako neurri judizial sorta batek indartutako monarkikoen jazarpenagatik⁹⁹. Barakaldoko barrutiko Belausteguigoitia hautagai abertzaleak nagusitasunari eutsi zion ozta-ozta Barrikan, Gatikan, Laukizen, Plentzian eta Sopelan. Goyoaga, monarkikoen zerrendaburua, Berangon, Gorlizen eta Urdulizen nagusitu zen (26. taula).

Sopelan eta inguruko herrietan dinastikoez izandako gorakada sendotu egin zen 1923ko apirilean egin ziren Gorteetarako hauteskundeetan, eta garaile izan ziren udalerririk guztietan, Laukizen izan ezik, non Mariano de la Torre nazionalista gailendu zen, tarte txikiaz (27. taula). Ordurako, gainera, nazionalismoa are gehiago ahuldu zen, 1921ean CNV zatitu eta alderdi berri bat sortu zelako, EAJ sigla zaharrak berreskuratu zituena¹⁰⁰. *EAJ aberrianoa* deitu zioten. Une horretatik aurrera, alderdi abertzale bi izan ziren, bata bestetik oso ondo bereizten ez ziren proiektu politikoekin¹⁰¹.

97 Ibid.

98 REAL, 56-57. or.

99 PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ, 128-129. or.

100 *Aberri* 1921-09-10.

101 Ibid.

**26. TAULA: HAUTESKUNDE OROKORREN EMAITZAK SOPELAN
ETA INGURUKO HERRIETAN 1920-12-19¹⁰²**

Udalerrria	Hautesle kop.	José Luis de Goyoaga (monarkikoa)	José María de Belausteguigoitia (abertzalea)	Boto zurriak	Boto emalleen kop.	Abstentzioa
Barrika	167	44	64	-	108	59 (% 35,32)
Berango	203	102	59	-	161	42 (% 20,68)
Gatika	238	105	110	-	215	23 (% 9,66)
Gorliz	271	83	61	-	144	127 (% 46,86)
Laukiz	119	45	65	-	110	9 (% 7,56)
Plentzia	362	104	128	2	234	128 (% 35,35)
Sopela	241	63	84	-	147	94 (% 39,00)
Urduliz	216	90	73	-	163	53 (% 24,53)

102 BFAH, AJ02011/002 (Barrika), AJ02011/004 (Berango), AJ02011/011 (Gatika), AJ02011/012 (Gorliz), AJ02011/014 (Laukiz), AJ02011/017 (Plentzia), AJ02011/020 (Sopela), AJ02011/021 (Urduliz). *El Pueblo Vasco* 1920-12-21.

**27. TAULA: HAUTESKUNDE OROKORREN EMAITZAK SOPELAN
ETA INGURUKO HERRIETAN 1923-04-29¹⁰³**

Udalerria	Hautesle kop.	José Luis de Goyoaga (monarkikoa)	Mariano de la Torre (abertzalea)	Boto zurriak	Boto emaitleen kop.	Abstentzioa
Barrika	174	70	36	-	106	68 (% 39,08)
Berango	208	107	55	-	162	46 (% 22,11)
Gatika	236	125	86	-	204 ¹⁰⁴	32 (% 13,55)
Gorliz	302	100	43	2	145	157 (% 51,98)
Laukiz	123	53	61	-	114	9 (% 7,31)
Plentzia	364	140	89	3	232	132 (% 36,26)
Sopela	242	76	66	-	142	100 (% 41,32)
Urduliz	226	88	73	-	161	65 (% 28,76)

Azkenik, Liga Monarkikoa garaile izan zen 1923ko ekainean egin ziren probintzia hauteskundeetan. Sopela eta inguruko herriak Bilbo Erdialdeko barrutiaren barruan zeuden, eta barruti horretan diputatu aukeratu zituzten hiru hautagai kontserbadoreak eta Gabino Orbe nazionalista¹⁰⁵. Sopolari eta inguruko udalerriei dagokienez, hautagaitza nazionalista izan zen bozkatuena Sopelan, Urdulizen, Laukizen eta Barrikan; ostera, monarkikoak Berangon nagusitu ziren, ohikoa zen legez. Amaitzeko, Plentzian, monarkikoena izan zen indar bozkatuena, alde eskasa aterata nazionalistei (28. taula).

103 BFAH, AJ02021/002 (Barrika), AJ02021/004 (Berango), AJ02021/011 (Gatika), AJ02021/012 (Gorliz), AJ02021/014 (Laukiz), AJ02022/004 (Plentzia), AJ02022/007 (Sopela), AJ02022/008 (Urduliz). *Euzkadi* 1923-06-12.

104 Espedientean jasotzen denez, 211 boto paper zenbatu eta 204 boto emaile izan ziren.

105 *El Pueblo Vasco* 1923-06-12 eta 1923-06-16.

**28. TAULA: PROBINTZIA HAUTESKUNDEEN EMAITZAK SOPELAN
ETA INGURUKO HERRIETAN 1923-06-10¹⁰⁶**

Udalerrria	Antonio Araluce (abertzalea)	Julían Arrien (abertzalea)	Gabino Orbe (abertzalea)	Julían B. Marco (monarkikoa)	Rafael m. ^a zubiria (monarkikoa)	Mario Basterra (monarkikoa)	Ramón basanta (errepublikanoa)	Vicente Suárez (errepublikanoa)	Vicente Fatrás (errepublikanoa)	Boto zuriak
Barrika	68	67	67	53	52	52	-	1	-	-
Berango	54	54	54	108	108	107	6	5	5	-
Laukiz	64	64	64	49	49	49	-	-	-	-
Plentzia	112	106	110	121	119	121	7	2	3	2
Sopela	86	86	86	78	78	78	1	1	1	-
Urduliz	102	101	100	70	70	69	1	-	-	-

**29. TAULA: 1923KO EKAINEKO PROBINTZIA HAUTESKUNDEETAKO
PARTE HARTZEA¹⁰⁷**

Udalerrria	Hautesle kop.	Boto emaile kop.	Abstentzioa
Barrika	174	120	54 (% 31,03)
Berango	208	169	39 (% 18,75)
Laukiz	123	113	10 (% 8,13)
Plentzia	364	276	88 (% 24,17)
Sopela	242	165	77 (% 31,81)
Urduliz	226	171	55 (% 24,33)

Labur esanda, aztergai hartzen baditugu 1910 eta 1923 bitartean Gorteetarako eta Diputazio probintzialerako egniko hauteskunderi buruzko datu guztiak, hainbat ondorio atera daitezke:

- 1910eko hamarkadaren hasieran, badirudi kontserbadoreak nagusi zirela, argi eta garbi, Sopelan eta inguruko herrietan, aintzat hartzen baditugu 1911ko probintzia hauteskunderen emaitzak. Emaitza horiek agerian uzten dute ere hautesleek abertzaletasunari emandako babes handia, areagotu egin zena hurrengo hauteskunderetan, 1915eko probintzia hauteskunderetan. Ez alferrik, abertzaleak garaile izan ziren aztertutako 6 udalerrietan. Hala ere, 1917ko probintzia hauteskunderetako garaipen nazionalista itzela ez zen hain erabatekoa izan herri multzo horretan, Sopelan eta Berangan, esan dugunez, mauristak izan zirelako bozkatuenak.


106 BFAH, AJ01947/003 (Barrika), AJ01947/005 (Berango), AJ01947/011 (Laukiz), AJ01947/014 (Plentzia), AJ01947/015 (Sopela), AJ01947/016 (Urduliz).

107 Ibid.


- Hamarkada honetako Gorteetarako hauteskundeetan, hautesleen portaera bestelakoa izan zen. Adierazi dugun legez, abertzaleek ez zuten hautagaitzarik aurkeztu 1907 eta 1918 artean, eta boto katoliko-kontserbadorearen kontzentrazioa erraztu zuen horrek, Fernando María de Ybarra Barakaldoko barrutiko mauristen hautagaiaren inguruan, zeinak itzelezko arrakasta izan zuen Sopelan eta inguruko herrietan 1914 eta 1916ko hauteskundeetan. Hala ere, ez zen hori Ybarraren garaipenaren faktore erabakigarri bakarra. Esan dugunez, mauristen Bizkaiko liderraren eragin pertsonala oso handia zen Uribe Kostan, eta horrek isla izan zuen hauteskundeetan. Euskal nazionalistek 1917ko probintzia hauteskundeetan lorturiko garaipenak segida izan zuen 1918ko otsaileko hauteskunde orokorretan. Zaballa jeltzaleak emaitza ona lortu eta bozkatuena izan zen Sopela edo Barrika legezko udalerrietan, amaiera emanik horrela Ybarrak eskualdean zuen nagusitasun osoari. 1918ko ekainean hauteskundeak errepikatzeak ez zien batere mesederik egin mauristei, Domingo Epalza nazionalistak Sopelan eta inguruko herrietan irabazi zuelako, aurrea hartuta Lequerica kontserbadorea buru zuen hautagaitzari. 1919ko ekainean, Gorteetarako hauteskundeak egin ziren berriro, eta Ybarra nonahikoa izan zen Liga Monarkikoaren hautagaitzaren burua. Jada adierazi dugunez, hautagaitza hori sortu zen aurre egiteko nazionalistei. Kontserbadoreen estrategia berriaren eragina eskualde osoan nabaritu zen, hauteskunde hitzordu horren emaitzek erakusten duten legez.
- 1919tik 1923ra bitartean eginiko hauteskunderi dagokionez, emaitzek erakusten dute nazionalismoak beherakada bat izan zuela Sopelan eta inguruko herrietan, Liga Monarkikoaren bultzadak eraginda, baieztapen hau zehaztea komeni den arren. Jadanik adierazi dugunez, CNVk Antonio Araluce getxoztarra aurkeztu zuen hautagai gisa 1919ko eta 1923ko probintzia hauteskundeetan. Araluce oso ezaguna zen Uribe inguruan arkitekto gisa egin zuen beharragatik, eta hautagaitza nazionalistan aurkezteak indargetu egin zuen Ligaren bultzada Sopelan eta haren inguruan, 1919ko uztailan eginiko hauteskundeetan eta, neurri txikiagoan, 1923ko ekainean eginikoetan. Jeltzaleek eskualdean izandako boto galera are nabarmenagoa da 1920ko eta 1923ko hauteskunde orokorretako boto zenbaketak aztertzean.

Sopelako hautesleek aldi honetan izandako jokabideari dagokionez, nabarmentzekoa da 1917ko probintzia hauteskundeetatik aurrera boto emailen kopuruak izan zuen gorakada, baita 1920an eta 1923an eginiko Gorteetarako hauteskundeetan abstentzioak izandako hazkunde esanguratsua ere. Ostera, Errestaurazio garaiko azken hauteskundeetan –1923ko ekaineko probintzia hauteskundeak–, gora egin zuen berriro boto eskubidea erabili zuten hautesleen kopuruak. Ez bakarrik Sopelan, baita Barrikan, Berangon, Plentzian eta Urdulizen ere, grafikoak alderatzean ikus dezakegunez.


HAUTESKUNDE OROKORRAK ETA PROBINTZIA HAUTESKUNDEAK 1911-1923. BARRIKA




HAUTESKUNDE OROKORRAK ETA PROBINTZIA HAUTESKUNDEAK 1911-1923. BERANGO



HAUTESKUNDE OROKORRAK ETA PROBINTZIA HAUTESKUNDEAK 1911-1923. PLENTZIA



HAUTESKUNDE OROKORRAK ETA PROBINTZIA HAUTESKUNDEAK 1911-1923. URDULIZ



1.1.3. Tokiko boterea 1910 eta 1923 artean

1910etik 1923ra bitarteko hauteskunde orokorrak eta probintzialak aztertu ostean, atal honetan helduko diegu tarte kronologiko horretan egin ziren tokiko hauteskundeak. Lehenago, hala ere, jadanik esandako zerbait gogoratu behar dugu: urte bian behin korporazioaren erdia berritzen zen. Aldi honetan, hiru hauteskunde egin ziren Sopelan: 1909an, 1911n eta 1922an. Gainerako bozketetan, 1907an onartutako Hauteskunde Legearen 29. artikulua aplikatu zen, zeinaren arabera, bete beharreko postuen hautagai kopuru bera aurkezten bazen, zuzenean zinegotzi izendatzen zituzten.

1909ko abenduko udal hauteskundeak deitu ziren hiru zinegotzi berri aukeratzeko, azkenean lau hautagai izan baziren ere. Hala ere, badakigu bi gehiago aurkeztu zirela hautagai gisa Hauteskunde Erroldaren Udal Batzarraren aurrean: José Loroño eta Florentino Igartua. Azken horrek, Miguel Echaui eta Valentín Goirigolzarriekin batera, hautagai izendatzeko behar zen dokumentazioa aurkeztu zuen; ostera, Loroñok, Claudio Larrondok eta Francisco Ondizek ahoz eskatu zuten hautagai gisa onartuak izateko. Igartua, Echaui eta Goirigolzarri zinegotzi kargurako hautagai izendatu zituzten ofizialki, *“dokumentazioa behar lez aurkezteagatik”*. Hala ere, ez zituzten behin betiko zinegotzi izendatu, Batzar Probintzialak Loroñok, Larrondok eta Ondizek ere hauteskundeetara aurkezteko eskubidea zuten ala ez erabaki arte¹⁰⁸. Azkenean, hauteskundeetan lehiatu ziren dokumentazioa aurkeztu zuten hautagaietako bi, Echaui eta Goirigolzarri, eta eskaera ahoz egin zutenetako bi, Larrondo eta Ondiz. Den-denak, dokumentazioaren arabera, ideologikoki independenteak ziren.

Hauteskunde hauetan izandako parte hartzeari dagokionez, 226 hautesleetatik 131ek eman zuten botoa, eta abstentzioa % 42,03koa izan zen. Parte hartze hau soilik pareka daiteke 1899ko tokiko hauteskundeetan izan zenarekin, esan legez, salbuespen izan zena 1895-1906 aldian.

30. TAULA: UDAL HAUTESKUNDEEN EMAITZAK 1911-11-12¹⁰⁹

Hautagaiak	Filiazio politikoa	Boto kopurua
Miguel Echaui Oderiz	Independentea	89
Valentín Goirigolzarri Zalduondo	Independentea	71
Claudio Larrondo Ibarra	Independentea	64
Francisco Ondiz Zabala	Independentea	46

108 BFAH, AR00268/017, *Hautagaiak izendatzeko akta* 1909-12-05.

109 BFAH, AR00268/017, *Sopelako 1909ko udal hauteskundeetako hautagai jakinarazpenaren eta emaitzen akta*. Filiazio politikoaren datuak agertzen dira ere *El Nervión* (1909-12-14) eta *El Noticiero Bilbaino* (1909-12-15) berripaperetan.

31. TAULA: UDALBATZA 1910-01-01¹¹⁰

Kargua	Izen-deiturak	Lanbidea ¹¹¹	Hautaketa urtea
Alkatea	Enrique Urruticoechea Oleaga	Itsas pilotua	1907
Alkateordea	Miguel Echaury Oderiz	Nekazaria	1909
Sindikoa	Agustín Artaza Barroetabeña	Itsasgizona	1907
Sindiko ordezkoa	Segundo Echevarria Arana	Nekazaria	1907
Zinegotzia	Francisco Zalduondo Goiri	Nekazaria	1907
Zinegotzia	Valentín Goirigolzarri Zalduondo	Nekazaria	1909
Zinegotzia	Claudio Larrondo Ibarra	Bidezaina	1909

la urte bi geroago, 1911ko azaroaren 12an, beste bozketa bat egin zen, korporazioko lau postu berritzeko. Zoritxarrez, hauteskunde horien espedientean ez zen jaso boto emaileen kopuru osoa, baina kontuan hartzen badugu hautagaietako hiruk bildu zuten boto kopurua, parte hartzea nahiko handia izan zela ondoriozta dezakegu. Hauteskundearen espedientean ez zen ere jaso boto eskubidea zuten hauteslearen kopururik, baina urte bereko martxoko probintzia hauteskundearen dokumentazioari esker badakigu 221 bizilagunek osatzen zutela errolda¹¹².

Ikus daitekeenez, Enrique Urruticoechea eta Agustín Artaza berriro aurkeztu ziren hauteskundeetara, eta hautagai bi bozkatuenak izan ziren: 112 eta 99 botorekin, hurrenez hurren. Florentino Igartuak, 1897ko eta 1899ko hauteskundeetan Udalean sartzeko nahiko botorik jaso ez zuenak, oraingoan lortu zuen, 98 boto jasota. Francisco Ondiz, bere aldetik, bigarren aldiz aurkeztu zen hautagai, eta huts egin zuen berriz. Azkenik, José Loroño aurkezteko aukera izan zuen oraingoan, eta udaletxearen ateak zabaldu zizkion laugarren postua eskuratu zuen (32. taula).

32. TAULA: UDAL HAUTESKUNDEEN EMAITZAK 1911-11-12¹¹³

Hautagaiak	Boto kopurua
Enrique Urruticoechea Oleaga	112
Agustín Artaza Barroetabeña	99
Florentino Igartua Gambe	98
José Loroño Elejaga	28
Francisco Ondiz Zabala	6

110 BFAH, SOPELA 0077/001, Sopelako Udalak 1891tik 1915era bitartean eginitako bilkuren Akta Liburua. *Udal berriaren eraketa akta*, 1910-01-01.

111 Sopelako Udalaren 1908ko hauteskunde erroldatik ateratako datuak, BFAH, SOPELA 0062/022.

112 BFAH, AJ01924/009, *Diputatu probintzialen hautaketa - Bozketa akta* 1911-03-12.

113 BFAH, AR00284/002, *Sopelako zinegotzien hautaketarako boto kontaketaren akta*, 1911-11-16.

Udal berria 1912ko urtarrilaren 1ean eratu zen (33. taula), Enrique Urruticoechea alkatea buru zuela. *El Pueblo Vasco* egunkariko tokiko korrespontsalaren berbetan, itsasgizonak hauteskundeetan lortutako babesa izan zen “*herri jator honek bere lan administratibo bikainagatik dion estimazio handiaren*” ondorio. Agustín Artazari dagokionez, kronikariak nabarmendu zuen “*itsas makinista azkarra*” zela. Kronikaren amaieran, nabari da sopoloztarrek harrera beroa egin ziotela udal berriari: “*handiak dira herriak geure korporazio berrian dituen itxaropenak eta konfiantza*”¹¹⁴.

33. TAULA: UDALBATZA 1910-01-01 ¹¹⁵				
Kargua	Izen-deiturak	Filiazio politikoa ¹¹⁶	Lanbidea ¹¹⁷	Hautaketa urtea
Alkatea	Enrique Urruticoechea Oleaga	Kontserbadorea	Itsasgizona	1911
Alkateordea	Claudio Larrondo Ibarra		Bidezaina	1909
Sindikoa	Agustín Artaza Barroetabeña	Kontserbadorea	Itsasgizona	1911
Sindiko ordezkoa	Miguel Echaui Oderiz		Nekazaria	1909
Zinegotzia	Florentino Igartua Gambe	Kontserbadorea	Nekazaria	1911
Zinegotzia	Valentín Goirigolzarri Zaldondo		Nekazaria	1909
Zinegotzia	José Loroño Elejaga	Euskal nazionalista	Merkataria	1911

Ohi legez, hauteskunde dokumentazioak ez du ezelango informaziorik ematen zinegotzien filiazio politikoari buruz. *Bizkaitarran* argitaratutako informazio bati esker, badakigu zinegotzi berrietako bat abertzalea zela¹¹⁸. Berripaper jeltzaleak argitaratutako zerrendan EAJk Bizkaiko 27 udalerritan lortutako zinegotzien izenak agertzen ez baziren ere, jakin badakigu José Loroño Elejaga zela aitatzen zuten zinegotzi sopoloztarra. 1884ko abenduaren 20an Larrabetzun sortua¹¹⁹, 1907 inguruan heldu zen Sopelara¹²⁰, bere gain hartuta *Fonda Itxasondo* ostatuaren ardura, aurrerago ere aipagai izango duguna.

114 *El Pueblo Vasco* 1912-01-07.

115 BFAH, SOPELA 0077/001, Sopelako Udalak 1891tik 1915era bitartean eginiko bilkuren Akta Liburua. *Udal berriaren eraketa akta*, 1910-01-01.

116 Filiazioak: *Bizkaitarra* 1911-11-18 eta *El Nervión* 1911-11-13.

117 BAO, Sopelako hautesle errolda, 1909.

118 *Bizkaitarra* 1911-11-18.

119 Sopelako Erregistro Zibiletik lortutako datuak.

120 José Loroño aitatzen den lehen hauteskunde errolda 1909koa da. 1909an zinegotzi izateko hautagai izateak esan gura du urte bi baino gehiago zeramatzala Sopelan bititzen, Hauteskunde Legeak ezartzen zuen legez.

Udalbatzako gainerako kide hautatu berriei dagokienez, badakigu Enrique Urruticoechea alkatea eta Agustín Artaza eta Florentino Igartua zinegotziak kontserbadoreak zirela. Izan ere, 1912ko martxoaren 19an, jada aipatutako Sopolako Batzorde Kontserbadorearen zuzendaritzan sartu ziren, Fernando María de Ybarrak 1909an sortutako Alderdi Kontserbadorearen tokiko filialean¹²¹.

1913ko azaroko udal hauteskundeak ez ziren Sopolan egin, 29. artikulua aplikatu zelako eta hutsik zeuden hiru postuak betetzeko behar ziren hautagaiak aurkeztu zirelako. Hala, azaroaren 2an, Claudio Larrondo Ibarra, Pedro Bilbao Ibargaray eta Ciriaco Echaiz Exposito zinegotzi izendatu zituzten zuzenean¹²².

Udal berria honela osatu zen:

34. TAULA: UDALBATZA 1914-01-01¹²³			
Kargua	Izen-deiturak	Lanbidea¹²⁴	Hautaketa urtea
Alkatea	Enrique Urruticoechea Oleaga	Itsasgizona	1911
Alkateordea	Claudio Larrondo Ibarra	Bidezaina	1913
Sindikoa	Agustín Artaza Barroetabeña	Itsasgizona	1911
Sindiko ordezkoa	Florentino Igartua Gambe	Nekazaria	1911
Zinegotzia	Pedro Bilbao Ibargaray	Itsasgizona	1913
Zinegotzia	Ciriaco Echaiz Expósito	Itsasgizona	1913
Zinegotzia	José Loroño Elejaga	Merkataria	1911

1915eko irailean, udaletik kanpoko gertaera batek korporazioaren osaerari eragin zion. Hilaren 5ean, Bilboko Euzko Gaztedik bazkari bat antolatu zuen José Loroño zinegotziaren Itxasondo ostatuan. Handik hurbil, Edmundo Couto Portugalgo kontsularen etxea zegoen¹²⁵. Coutok ohitura zuen Espainiako bandera jartzeko bere etxeko balkoietako batean, *“ekitaldi edo festaren bat solemnizatzeko beti”*. Egun horretan, goizean, Victoria Eugenia erregina Donostiara joatekoa zela jakinda, bandera eskegi zuen etxeko balkoian, *“badaezpadan, erreginari Areetatik Plentziarako errepidea hartzea bururatzen bazitzaion”*. Gauean, Bizkaiko hiriburuko zereginetatik itzultzean, Portugalgo kontsula ohartu zen bandera balkoitik erauzi zutela¹²⁶. Biharamunean, Guardia Zibilar parte emateaz gain, gertakariaren albistea eman zion Urruticoechea alkateari, *“bere etxeko lorategiko horma batean zuen bandera nazionala”* ebatsi ziotela. Alkateak lapurretaren berri eman zion ere

121 *El Nervión* 1911-11-13 eta 1912-03-20; eta *El Pueblo Vasco* 1912-03-20.

122 BFAH, AR00294/045, *Sopolako Udaleko 1913ko azaroko udal hauteskunderako hautagaiak aldarrikatzeko espedientea*, 1913-11-02.

123 BFAH, SOPELA 0077/001, *Sopolako Udalak 1891tik 1915era bitartean eginiko bilkuren Akta Liburua. Udal berriaren eraketa akta*, 1910-01-01.

124 BAO, *Sopolako hautesle errolda*, 1913.

125 1920an, Hondurasko kontsula zen (*Bizkaiko Industria eta Merkataritzaren urtekaria*, 1920).

126 *El Liberal* 1915-09-08, *En Sopolana – Ultraje a la bandera española*.

gobernadore zibilar¹²⁷. *El Liberal* egunkariak, irailaren 8ko edizioan, Loroñoren ostaturako “bazkalkideak” jo zituen egiletzat, eta erantsi zuen ordurako jakina zela nortzuk parte hartu zuten gertakarian (“ezagunak dira, jakin izan dugunez”)¹²⁸. Egun horretan bertan, Plentziako Guardia Zibilak bazkarian izan zen Alfredo Etxabe idazlea atxilotu zuen, Sopelan, Bilboko Epaitegira eroan zuten, eta epaileak Larrinagako kartzelan sartzeko agindu zuen¹²⁹. Egun bi geroago askatu zuten, kargu barik¹³⁰. Hurrengo egunean, José Loroño atxilotu zuten. Epailearen aurrean deklaratu eta Larrinagan espetxeratu zuten. Gauza bera jazo zen Amador Martínez eta Eugenio Abrisketarekin¹³¹. Hilaren 10ean, atxilotuak “aske utzi zituzten, bi mila pezetako fidantza pagatu ostean”, eta José Lekue auzipetzeko eta espetxeratzeko agindua eman zuten, oraindik epailearen aurretik igaro barik zegoena¹³².

Egun horretan bertan, auziaren Instrukzio Epaileak Loroño zinegotzia kargutik kentzea agindu zuen. Erabaki judizial horren berri eman zion Gobernadore Zibilak Sopelako alkateari, hilaren 15eko data zuen ofizioaren bidez¹³³, udalbatzak irailaren 19ko osoko bilkuran izan zuen arren erabakiaren berri¹³⁴.

1916ko maiatzaren erdialdean, ahozko epaiketa egin zen, eta fiskalaren berbetan, 1915eko irailaren 5eko gauean, “*Itxasondo ostaturako oturuntzan parte hartu zuten batzuek euren disgustua adierazi zuten Edmundo Couto jaunak bere etxean Espainiako bandera eskegitzeagatik (...)*”. Hori horrela, ondorioen idazkiaren arabera, lau akusatuak kontsul portugaldarraren etxera joan ziren, eta “*José Lecue lorategiko hormaren kontra ipini zen, zeinaren atzean zegoen bandera, eta José Loroño, haren gainera igota, bandera erauzi zuen*”. Kontakizunari jarraikiz, bandera Loroñoren ostaturaino eroan zuten, lurretik arrastaka. Horren ostean, akusatuetak batek, Amador Martínezek, etxean gorde zuen, gero epaitegian entregatzeko. Fiskalak Espainiako banderari eginiko laido delitutzat jo zituen gertakari horiek, eta, “*urte bi, lau hilabete eta egun bateko espetxe zigorra*” eskatu zuen akusatuentzat. Eskaera horren aurrean, abokatuek, akusatuak legez, gertakariak ukatu eta absoluzioa eskatu zuten¹³⁵. Azkenik, epaiak auzipetu bi absolbitu zituen (Abrisqueta eta Martínez), eta sei hilabete eta egun bateko espetxe zigorra¹³⁶ ezarri zien José Loroñori eta José Lekuerei¹³⁷.

127 BFAH, SOPELA 0066/051, Sopelako alkateak Bizkaiko Gobernadore Zibilar helarazitako ofizioa, 1915-09-06.

128 *El Liberal* 1915-09-08, *En Sopelana – Ultraje a la bandera española*.

129 *El Liberal* 1915-09-09.

130 *El Liberal* 1915-09-11.

131 *El Liberal* 1915-09-10.

132 *El Liberal* 1915-09-11.

133 BFAH, SOPELA 0032/003, 1915ean jasotako jakinarazpenak, Gobernadore zibilak Sopelako alkateari igorritako ofizioa.

134 BFAH, SOPELA 0077/001, Akta Liburua 1891-1915, *Ohiko Bilkura* 1915-09-19.

135 *El Liberal* 1916-05-16 eta *La Gaceta del Norte* 1916-05-16.

136 Banderaren gertakariaren ondorioek luze iraun zuten Lekuarentzat: hain zuzen ere, 1940. urtera arte, Gerra Zibilaren ostean Bilboko Erantzukizun Politikoen Eskualde Auzitegiak epaitu zuen arte. Frogatutako egitateen artean, honako hau aipatu zen: “*nabarmendu behar da Bandera Nazionala oinpean erabili zuela publikoki egun jakin batez, Sopelan*” (Estatuko Aldizkari Ofiziala, BOE, 29. zk., 1940-01-29, 474. or.)

137 *La Gaceta del Norte* 1916-05-19

Udal bizitzari berriro helduz, Loroño kargutik kendu eta denbora gutxira, 1915eko azaroko udal hauteskundeak deitu ziren. 1913ko udal hauteskundeetan jazo legez, hutsik zeuden lau postuak betetzeko behar ziren hautagaiak aurkeztu ziren, eta ez zen bozketarik egin. Horrela, azaroaren 7an, zinegotzi izendatu zituzten Manuel Azcorra, Tiburcio Basterrechea, Enrique Urruticoechea eta Agustín Artaza¹³⁸, eta udal berria 1916ko urtarrilaren 1ean eratu zen.

35. TAULA: UDALBATZA 1906-01-01¹³⁹			
Kargua	Izen-deiturak	Lanbidea¹⁴⁰	Hautaketa urtea
Alkatea	Enrique Urruticoechea Oleaga	Itsasgizona	1915
Alkateordea	Claudio Larrondo Ibarra	Itsasgizona	1913
Sindikoa	Agustín Artaza Barroetabeña	Itsasgizona	1915
Sindiko ordezkoa	Ciriaco Echaiz Exposito	Itsasgizona	1913
Zinegotzia	Pedro Bilbao Ibargaray	Itsasgizona	1913
Zinegotzia	Tiburcio Basterrechea Ehandia	Nekazaria	1915
Zinegotzia	Manuel Azcorra Retureta	Nekazaria	1915

Korporazio honek euskal mugimendu autonomistan parte hartu zuen, azaldu dugunez, 1917ko martxoan euskal nazionalismoak hauteskundeak irabazi ostean sortu zena. Horrela, Sopelako Udala, Enrique Urruticoechea alkatea buru zuena, abuztuaren 9an Gernikako Juntetxean egin zen Bizkaiko Udalen Batzarrean izan zen, helburutzat zuena Bizkaiko Aldundiari helaraztea udalen iritziak prozesu autonomikoari buruz¹⁴¹.

1917ko azaroan berriro berritu beharreko hiru zinegotzigoetarako hautagaiak aurkeztu zirenez, ez zen tokiko hauteskunderik egin. Zuzenean izendatutako zinegotzi berriak izan ziren Felipe Bilbao Beitia, Ciriaco Echaiz Expósito eta Gabriel Galbarriartu Zavala¹⁴².

138 BFAH, AR00301/009, *Sopelako Udaleko 1915eko azaroko udal hauteskundeetarako hautagaiak aldarrikatzeko espedienteak*, 1915-11-07.

139 BFAH, SOPELA 0077/002, *Sopelako Udalak 1916tik 1921era bitartean eginiko bilkuren Akta Liburua. Udal berria eratzeko akta*, 1916-01-01

140 BAO, *Sopelako hautesle erroldak*, 1915 eta 1916.

141 *Euzkadi* 1917-08-09, *La Gaceta del Norte* 1917-08-09.

142 BFAH, AR00308/031, *Sopelako Hauteskunde Erroldaren Udal Hauteskunde Batzordearen akta*, 1917ko zinegotzien hauteskundeetarako hautagaiak aldarrikatzeari buruzkoa, 1917-11-04.

Korporazio berria eratu aurretik, gobernu taldeak albiste baten berri izan zuen, Manuel Azcorra zinegotziaren ahotik:

“(...) el acaudalado Don Antonio de Arechabaleta y Urrechaga (...) en vista del aspecto ruinoso que presenta la casa-taberna de este municipio y ocupar además un extenso lugar de la Campa por hallarse situada al centro de ella, haciéndola insuficiente para las grandes masas de gente que acuden a las romerías que en las mismas se celebran y deseando dedicar un recuerdo (a su) amado pueblo natal, ha resuelto edificar de su peculio particular y donarlo luego al Ayuntamiento una casa taberna de nueva construcción, de la que su planta baja y primer piso se destinarán a casa taberna, y el piso segundo para Salón de Ayuntamiento y otros departamentos necesarios”¹⁴³.

Udala “oso hunkituta” agertu zen albiste horren berri izan zuenean, eta “berba barik” geratu zen “bere esker on sakona adierazteko begirune ohoretsu horregatik”. Udalbatzaren esker ona adierazteko pertsonalki Arechabaleta “prestu eta agurgarriari”, erakutsitako “eskuzabaltasun desinteresatuagatik”, alkateak eta sindikoak eraturako batzorde bat osatu zen. Dohaintzaren garrantzia jasota geratu zen Akta Liburuan: “(...) egundo ez da nahikoa izango bere jaioterriaren esker ona, obra honek eginiko itzelezko mesedea kontuan harturik”¹⁴⁴.

Udal berria 1918ko lehen egunean eratu zen:

36. TAULA: UDALBATZA 1918-01-01¹⁴⁵			
Kargua	Izen-deiturak	Lanbidea¹⁴⁶	Hautaketa urtea
Alkatea	Enrique Urruticoechea Oleaga	Itsasgizona	1915
Alkateordea	Manuel Azcorra Retureta	Nekazaria	1915
Sindikoa	Agustín Artaza Barroetabeña	Itsasgizona	1915
Sindikoko ordezkaria	Gabriel Galbarriartu Zabala	Itsasgizona	1917
Zinegotzia	Tiburcio Basterrechea Echandia	Nekazaria	1915
Zinegotzia	Felipe Bilbao Beitia	Nekazaria	1917
Zinegotzia	Ciriaco Echaiz Expósito	Itsasgizona	1917

143 BFAH, SOPELA 0077/002, Sopelako Udalak 1916tik 1921era bitartean eginiko bilkuren Akta Liburua. *Ohiko Bilkura*, 1917-11-11.

144 Ibid.

145 BFAH, SOPELA 0077/002, Sopelako Udalak 1916tik 1921era bitartean eginiko bilkuren Akta Liburua. *Udal berria eratzeako akta*, 1918-01-01.

146 BAO, Sopelako hautesle errolda, 1918.

Gobernu talde berriak, Udaletxe berria eraiki eta dohaintzan emateagatik, esker onez oparitu zion Antonio Arechavaletari 192,50 metro koadroko lursail bat, forma irregularrekoa eta eraikitze balio ez zuena, Arechavaletaren lurren mugakide zen “Loyola izeneko lekuan” kokatua¹⁴⁷. Handik gutxira, “oroitzapenezko hilarri” bat erostea erabaki zen, udaletxe berriaren “ageriko leku” batean ipintzeko, “jaun honi eskerrak emateko, jaioterriarekiko erakutsi duen bikaintasun filantropikoagatik”¹⁴⁸. Azkenik, 1919ko uztailan, Udalak dohaintzan eman zion Arechavaletari herriko hilerrian “panteoiak eraikitzeo dauden lekuetako bat”, ordainsari gisa, “Udaletxea bere kontura eraikiz herri honi ekarri dizkion onurengatik”¹⁴⁹.

Udaletxe berriaren inaugurazio datari dagokionez, ez dugu zehazterik izan egun zehatza. Badakigu 1918ko ekainaren hasieran obrak oso aurreratuta zeudela, udalbatzak erabaki zuelako “usadiozko otordua ordaintzea arotzei, igeltseroei, harginei eta behargin denei, baita orgariei be (...), taberna-etxeari azken teila jarriko zaion egunean, udal funtsen bidez”. Osoko bilkura berean, aurretik aipatutako oroimenezko plaka erostea erabaki zen¹⁵⁰. Handik gutxira, uztailaren 14an, eraikina “eraikitzen amaitzen” ari zenez, alkateari eskatu zitzaion aseguru bat kontratatzeko, udal egoitza berria babestu eta edozein gorabeherari aurre egiteko, “berrogei mila pezetako oinarriaren pean”¹⁵¹.

Autonomiaren gaiari dagokionez, 1918ko martxoan Maura buru zuen Gobernuia izendatzeak guztiz geldiarazi zuen prozesua. Gobernu kontserbadoreak azarora arte iraun zuen, eta orduantxe egin ziren azken ahaleginak estatutu prozesuari bultzada emateko. Lehentxoago, 1839ko urriaren 25eko Legearen aldarrikapenaren urteurrenean, euskal lurraldeetako zinegotzi abertzaleek, Zinegotzien Batzarreko Batzorde Iraunkorren jarraibideei jarraituta, mozioak aurkeztu zituzten euren udaletan, legeria horren kontra protesta egiteko¹⁵². Ez dakigu Sopelan mozio hori aurkeztu zen ala ez, baina badakigu Barrikan Juan Bautista de Aresti zinegotziak aurkeztu zuela¹⁵³, eta Plentzian Eulogio Astovieta zinegotziak erregistratu zuela proposamena¹⁵⁴. Kostaldeko herri horretan, urriaren 28an eztabaidatu eta onartu zuen mozioa Udalak, “Durana jaun mauristaren” kontrako botoarekin, ezezkoa arrazoitzeko “Eguidazu alderdikideak Bilboko Udalean erabilitako termino berdinak edo antzekoak” erabili zituena¹⁵⁵.

147 BFAH, SOPELA 0077/002, bilkuren Akta Liburua 1916-1921, *Ohiko Bilkura* 1918-04-21.

148 *Ibid.*, *Ohiko Bilkura* 1918-06-02.

149 *Ibid.*, *Ohiko Bilkura* 1919-07-13.

150 *Ibid.*, *Ohiko Bilkura* 1918-06-02.

151 *Ibid.*, *Ohiko Bilkura* 1918-07-14.

152 *Euzkadi* 1918-10-23.

153 PLENTZIAKO UDAL ARTXIBO HISTORIKOA (PUAH). Zenbaki bako kutxa, *Barrika*, 1917-1918-1919 urteetako jakinarazpenak, mozio idatzia 1918-10-23. Barrikako Udalaren dokumentazioa bada be, Plentziako Artxibo Historikoan gordeta dago, ez dakizkigun arrazoiengatik.

154 PUAH, 388 karpeta, 19. zk., Instantzia, 1918, Muzio idatzia 1918-10-24.

155 *Euzkadi* 1918-11-06.

Sopelan, abenduaren 8ko osoko bilkuran, Bilboko Udalak 1839ko urriaren 25eko Legearen aurka hitzartutako protesta akordioa irakurri zen, baita Bizkaiko udal gutzietan eginiko deia ere, abenduaren 15ean Bilboko udaletxean egitekoa zen batzarrera joateko, jadanik aipatu duguna. Bilkura horren helburua zen, aipatutako legea gaitzesteaz gain, “*autonomiaren aldeko akordioak*” lortzea. Sopelako Udalak aho batez erabaki zuen Enrique Urruticoechea alkatea izendatzea batzarrerako ordezkari¹⁵⁶. Esan dugunez, Bilboko alkateak deitutako ekitaldian tirabirak izan ziren, ordezkari monarkikoen berbaldiengatik. Hala ere, nazionalistek eta karlistek osatutako gehiengoak aurrera atera zuen akordioa egun horretan bertan helarazi zitzaion Diputazio probintzialari. Udaletxe barruko liskar giroa kalera zabaldu zen, eta istiluen biharamunean Mario Arana Bilboko alkatea kargutik kendu zuten.

Arana kargubakotzeak protesta handiak piztu zituen Bizkaiko udal gehienetan. Berbarako, egun gutxi batzuk geroago, abenduaren 22an, Urdulizko Udalak “*gogor*” egin zuen kargubakotze horren kontra, eta “*alkate eredu garritzat*” jo zuen Bilboko lehen zinegotzia. Urdulizkoak legez, Deustuko Udalak ere bere protesta adierazi zuen, bere erabakiaren berri eman zien lurraldeko gainerako udalei, eta Mario Aranaren aldeko ekitaldi batera gonbidatu zituen, non plaka edo album bat emango zitzaion. Urdulizko udalbatza egitasmoari batu zitzaion, 25 pezeta jarri zituen oparirako eta Juan de Arambalza alkatea izendatu zuen ordezkari gisa entrega ekitaldirako¹⁵⁷. Sopelako Udalak ere bat egin zuen Deustuko zinegotzien akordioarekin, oparirako 20 pezeta jarri eta Urruticoechea alkatea izendatu zuen ordezkari¹⁵⁸.

Udal jarduerari dagokionez, 1920ko otsailerako ezarri zen hauteskunde deialdi berria. Sopelaren kasuan, azken hiru hauteskundeetako gauza bera jazo eta berri beharreko lau postuak betetzeko behar ziren hautagaiak aurkeztu ziren. Zinegotzi izendatu zituzten Alejo Marcaida Urrutia, Francisco Ondiz Zabala, José Elorriaga Zabala eta Victoriano Landeta Menchaca¹⁵⁹. Hauteskunde hauen berritasuna izan zen lau hautagaietatik hiru herriko *Comunión Nacionalista Vascan* afiliatuta zeudela. Logikoa denez, *Euzkadi* berripaper jeltzaleak Marcaida, Ondiz eta Elorriaga zinegotzien izendapenaren berri jaso zuen, baita ospatu ere, “*Elizate honetako nazionalismoaren garaipen berri*” gisa. Horrez gain, herrian ahoz aho zebilen zurrumurru baten berri eman zuen, zeinaren arabera, Liga Monarkikoak hautagairik aurkeztu ez bazuen, “*duda barik porrota espero zutelako*” izan zen¹⁶⁰. Tokiko abertzaleen arrakastak goia jo zuen Francisco Ondiz alkate izendatu zutenean aho batez¹⁶¹. Izendapen hori ez zen salbuespena izan, Landetak eta Echaizek babes bera jaso baitzuten alkateorde eta sindiko izateko¹⁶².

156 BFAH, SOPELA 0077/002, Bilkuren Akta Liburua 1916-1921, *Ohiko Bilkura* 1918-12-08.

157 SOMOKUETO PÉREZ, Koldo: *Urduliz: Euskal udalerrri baten historia Bigarren Errepublikaren garaian*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 2018, 38 or.

158 BFAH, SOPELA 0077/002, Bilkuren Akta Liburua 1916-1921, *Ohiko Bilkura* 1919-04-13.

159 BFAH, AR0318/020, *Sopelako 1920ko zinegotzi hauteskundeetako aldarrikapen akta*, 1920-02-01.

160 *Euzkadi* 1920-02-05.

161 *Euzkadi* 1920-04-21.

162 BFAH, SOPELA 0077/002, Sopelako Udalak 1916tik 1921era bitartean eginiko bilkuren Akta Liburua. *Udal berria eratzeako akta*, 1920-04-01.

37. TAULA: UDALBATZA 1920-04-01¹⁶³

Kargua	Izen-deiturak	Filiazio politikoa ¹⁶⁴	Lanbidea ¹⁶⁵	Hautaketa urtea
Alkatea	Francisco Ondiz Zabala	Abertzalea	Nekazaria	1920
Alkateordea	Victoriano Landeta Menchaca	Independentea	Zurgina	1920
Sindikoa	Ciriaco Echaiz Exposito	-	Itsasgizona	1917
Sindiko ordezkoa	Felipe Bilbao Beitia	-	Nekazaria	1917
Zinegotzia	Alejo Marcaida Urrutia	Abertzalea	Nekazaria	1920
Zinegotzia	José Elorriaga Zabala	Abertzalea	Nekazaria	1920
Zinegotzia	Gabriel Galbarriartu Zabala	-	Itsasgizona	1917

Urdulizko elizatean hauteskundeak egin ziren¹⁶⁶, aurretik saiatu baziren ere “*korporazioan dauden lau postu hutsak bete behar dituzten jaunak 29. artikulua bidez izendatzen*”. Verdadesen iritzian, artean *El Pueblo Vasco* egunkariko kronikari urduliztarra, prozedura hori egokia zen, “*horrela borrokak saihets daitezkeelako, erresuminak eta etsaitasunak sortzen dituztenak beti egunero elkarri mesederen bat eskatu behar diotenen artean*”¹⁶⁷. Ziurrenik, Sopelan printzipio hori bera aplikatu zen udal politikan 1913tik 1922ra bitartean, azken urte horretan tokiko hauteskundeak egin baitziren berriro Elizatean.

Plentzian, probintzia mailako tirabira politikoei oihartzuna izan zuten 1920ko tokiko hauteskundeetan. *Euzkadi* salatu zuen “*Liga monarkiko-errepublikano sozialistak*” osatutako “*plantxa*”, protesta egin zuenean “*geure lagun maite Manuel de Ondarra zinegotzi abertzale berriaren kontrako jarreragatik*”. Aurretik, beste hedabide jeltzale batek, *Getxotarra* egunkariak, Plentziako “*La Piñako ordezkarien aurkako kritika zehatz eta burutsu bat*” argitaratu zuen¹⁶⁸.

Hurrengo udal hauteskundeetan, 1922ko otsailekoak, tokiko tirabira politikoak berpiztu ziren kostaldeko herrian. Urtarrilaren erdialdean, nabarmena zen Plentzian hauteskunde aurreko giroa, eta abertzaleek lau zinegotzi postuetatik hiru lortzea espero zen. Ostera, kontserbadoreei dagokienez, zurrumurruek ziotenez, “*Erriberan kokatuko den Zirkulu Kontserbadore bat sortzeaz da hiribildu honetan*”¹⁶⁹. Abertzaleek hiru hautagai aurkeztu zituzten eta Liga Monarkikoak beste hiru, eta *El Noticiero Bilbaíno* egunkariak iragarri zuen borroka “*oso gogorra*” izango

163 Ibid.

164 *Euzkadi* 1920-02-05.

165 BAO, Sopelako hautesle errolda, 1920.

166 BFAH, AR000318/016.

167 *El Pueblo Vasco* 1920-02-03.

168 *Euzkadi* 1920-02-20. Zoritxarez, ez dugu aurkitu *Getxotarra* berripaperaren ale bakar bat ere.

169 *El Noticiero Bilbaíno* 1922-01-14.

zela¹⁷⁰. Hautagaitza monarkikoa izan zen garaile handia eta euren hiru hautagaiak hautatu zituzten. Nazionalistek, ostera, ordezkari bakar baten hautaketarekin etsi behar izan zuten¹⁷¹.

Sopelari dagokionez, hautagaien aldarrikapen aktan jasotako informazioari esker, badakigu hauteskundeak lehia giroan bizi izan zirela eta artegatasuna nagusitu zela udalean buru ziren nazionalisten artean. Hasiera batean, Udal Errolda Batzordeak sei hautagai onartu zituen, hainbat zinegotzi eta zinegotzi ohiren abala aurkeztu zutenak.

Dokumentazioan hautagaien filiazio politikoa aitatzen ez den arren, Timoteo Inchaurtietak, Antonio Aldecoak eta Santiago Ostolozagak jaso zituzten abalek arrasto batzuk ematen dizkigute, eta horiei esker koka ditzakegu euskal nazionalismoaren inguruan, edo honek sustatutako hauteskunde zerrenda batean. Edozelan ere, Inchaurtietak jaso zuen José Elorriaga zinegotzi abertzalearen eta Gabriel Galbarriartu zinegotziaren babesak. Ostera, Aldecoak aurkeztu zuen Elorriagak eta José Loroño zinegotzi abertzale ohiak sinatutako egiaztagiri bat. Azkenik, Ostolozagari dagokionez, Loroñok eta Galbarriartuk proposatu zuten¹⁷².

Beste hiru hautagaiak izan ziren Alejandro Legarreta, Felipe Bilbao eta José María Zuazua. Legarretak lortu zuen XIX. mendeko azken urteetan Sopelako zinegotzi izan ziren Ignacio Bilbaoren eta Julián Aldecoaren abala. Bere aldetik, Felipe Bilbao, zinegotzia 1917az geroztik, bere hautagaitza aurkeztu zuen aipatutako Aldecoaren babesarekin eta bere abal propioarekin. José María Zuazuak, amaitzeko, Beitia eta Aldecoaren kredentziala jaso zuen¹⁷³.

José Loroño zinegotzi abertzale ohiak Legarreta, Bilbao eta Zuazuaren izendapenagatik protesta egin izanak pentsarazten digu hautagaitza horiek monarkikoen bultzada izan zutela. Loroñok bere gaitzespenean adierazi zuenez, hautagaiak *“orain dela 28 urte zinegotzi izandakoek”* proposatu zituzten. Udal Errolda Batzarrak atzera bota zuen protesta, honako hau argudiatuta: *“edozein garaitan zinegotzi izan den pertsona orok du eskubidea hautagaiak izendatzeko”*. Alejandro Legarreta Marcaidaren kasuan, Loroñok adierazi zuen urte bi baino gutxiago zeramala Sopelan bizitzen, eta legearen arabera ezin zela zinegotzi kargurako proposatu. Udal Batzarrak hori egiaztatu eta baliobakotzat jo zuen Legarretaren hautagaitza¹⁷⁴.

170 *El Noticiero Bilbaino* 1922-02-01. Hautagai abertzaleak izan ziren: José Martín Uriarte, Carmelo Ugarteche eta Antonio Unibaso, *“azken hori independente gisa eta Zentro Nazionalistaren babesarekin”*. Liga Monarkikoaren hautagaiak izan ziren: Gregorio Renteria, Hilario Undabeitia eta Casimiro Olalde.

171 BFAH, A.422, Udaltzaren Akta Liburua 1921-1924, *Udal berriaren eraketa* 1922-04-01.

172 BFAH, AR00328/003, *Sopelako zinegotzien hautaketa - 1922. urtea* - Hautagaien aldarrikapen akta 1922-01-29.

173 *Ibid.*

174 *Ibid.*

38. TAULA: HAUTESKUNDEEN EMAITZAK 1922-02-05¹⁷⁵

Hautagaiak	Boto kopurua
José María Zuazua Sarria	61
Felipe Bilbao Beitia	60
Santiago Ostolozaga Bilbao	35
Timoteo Inchaurtieta Bilbao	32
Antonio Aldecoa Aldazabal	12

Edozelan ere, Udalak abertzaleen agintepean jarraitu zuen. José Elorriaga proposatu zuten alkate eta lau boto jaso zituen; alkatetzarako beste hautagaiari, Victoriano Landetari, 3 boto eman zizkioten. Francisco Ondiz alkate ohiak alkateorde izateko aurkeztu zuen bere burua, ezelango oposizio barik: 4 boto jaso zituen eta hiru boto zuri izan ziren. Ostolozagak aho batez hartu zuen sindikoaren postua¹⁷⁶.

39. TAULA: UDALBATZA 1922-04-01¹⁷⁷

Kargua	Izen-deiturak	Filiazio politikoa ¹⁷⁸	Lanbidea ¹⁷⁹	Hautaketa urtea
Alkatea	Francisco Ondiz Zabala	Abertzalea	Nekazaria	1920
Alkateordea	Victoriano Landeta Menchaca	Independentea	Zurgina	1920
Sindikoa	Ciriaco Echaiz Exposito	-	Itsasgizona	1917
Sindiko ordezkoa	Felipe Bilbao Beitia	-	Nekazaria	1917
Zinegotzia	Alejo Marcaida Urrutia	Abertzalea	Nekazaria	1920
Zinegotzia	José Elorriaga Zabala	Abertzalea	Nekazaria	1920
Zinegotzia	Gabriel Galbarriartu Zabala	-	Itsasgizona	1917

175 BFAH, AR00328/003, *Sopelako 1922ko udal hauteskundeei buruzko espedientea*.

176 SUA, Akordioen Liburua 1921-1924, *Udal berriaren eraketaren akta 1922-04-01*.

177 Ibid.

178 Filiazio datuak, kontuan izanik *Euzkadi* berripaperak 1920-02-05ean argitaratutako informazioa.

179 BAO, Sopelako hautesle errolda, 1922.

1.1.4. Bizkaiko Alderdi Kontserbadorea (1909-1913) eta Sopelako Batzorde Kontserbadorea

Dagoeneko aipatu dugunez, kontserbadoreen nagusitasun politikoa erabatekoa izan zen Sopelan Errestaurazio garai ia osoan. Lan honen lehen atalean, aipatu dugu *Bilboko Batzorde Liberalak* XIX. mendearen 80ko hamarkadan izan zuen boterea. 90eko hamarkadan, ostera, Eduardo Victoria de Lecearen erakunde politikoak bide eman zion “*La Piña*” izeneko industrialari kontserbadore handien elkarteari.

Kapitulu honetan, 1909-1913 aldiari erreparatuko diogu. Ikusi dugunez, Bizkaiko indar dinastikoei emaitza txarra lortu zuten 1909ko maiatzaren 2ko udal hauteskundeetan. Porrot horren ostean, erakundea berrantolatu eta Alderdi Kontserbadorea sortu zuten, Bilbon, 1909ko uztailaren 4an, Antonio Mauraren printzipioei jarraituta. Fernando María de Ybarra izendatu zuten presidente¹⁸⁰.

Alderdi hori sortu eta gutxira, “*Están verdes*” izeneko artikulua argitaratu zen *Euskalduna* berriraperean, alderdi kontserbadore berriaren sorrera aztergai zuena, tonu ironikoan. Artikuluak Sopelatik bidaltzen zituen José Domingo de Uribasterrak sinatu zuen idazkia. Kronikari horrek lagunduko digu Errestaurazioaren azken urteetan nazionalismoak Elizatean izan zuen bilakaera aztertzen. Oraingo honetan, artikulugileak idatzi zuenez, “*zirkulu, batzorde edo dena delako bat, kontserbadorea, sortu da herrian*”, eta horri gehitu zion: “*ez da bilbotarrak bakarrik kezkatzen dituen kontua*”. Alde horretatik, Uribasterrak adierazi zuen Sopelan ere bazegoela “*proiektuarekin gogotsu egonik, bere burua Don Antonioren jarraitzaile leialtzat jo duena, eta barruti horretako Gorteetarako diputatuaren buruzagitza edo lehendakaritza onartu eta haren aurrean errenditu eta belaunikatzen dena*”. Don Anacletoz ari zen, ustez herrian bizi zen indianoa, Uribasterraren kroniketan agertzen zena eta agian artikulugileak asmatutako pertsonaia izango zena, hainbat gairi buruz bere iritzia eman ahal izateko; kasu honetan, Ybarra buru zuen alderdiaren sorrerari eta etorkizunari buruzkoa. Kontakizunari jarraikiz, indianoak ziurtatu zuen Sopelan laster Tokiko Batzar bat antolatuko zela, eta haren parte izango zirela Don Anacleto bera, “*lehen hezkuntzako maisua (...) eta peoi bidezaina*”, eta horri gehitu zion: “*galtzeko zerbait duen oro kontserbadore bihurtzen da herrian*”¹⁸¹.

Dena dela, iragarpen hori betetzetik urrun zegoen, antolakunde kontserbadore sortu berria oraindik lehen urratsak egiten ari baitzen. Izan ere, 1910aren hasiera arte alderdia ez zen Bilbon eratu: urtarrilaren 9an, gazte adarra sortu zen (*Juventud Conservadora*), eta hil beraren 23an, Zirkulu Kontserbadorea inauguratu zen¹⁸².

180 *El Nervión* 1909-07-05.

181 *Euskalduna* 1909-07-22.

182 *El Nervión* 1910-01-10 eta 1910-01-24.

Alderdi Kontserbadorea 1911n hasi zen hedatzen Bizkaian: otsailaren 15ean, Santurtziko Batzorde Kontserbadorea sortu zen; ostera, kostaldeko herriko Zirkulu Kontserbadorea ekainaren 4an jarri zen martxan. Deustuko kontserbadoreek abenduaren 10ean bedeinkatu eta altxatu zuten euren bandera, eta gazteen atala 1912ko martxoaren 3an eratu zen¹⁸³.

Handik gutxira, martxoaren 19an, Sopelako Batzorde Kontserbadorea eratu zen, kide hauekin:

40. TAULA: SOPELAKO BATZORDE KONTSERBADOREAREN ZUZENDARITZA BATZARRA (1912-03-19)¹⁸⁴		
Kargua	Izen-deiturak	Lanbidea
Lehendakaria	Pantaleón Trifol Echevarria	Kontratista margolaria
Lehendakariordea	Agustín Artaza Barroetabeña	Itsasgizona
Idazkaria	José Quintana Vía	Merkataria
Batzordekideak	Enrique Urruticoechea Oleaga Ignacio Bilbao Expósito Florentino Igartua Gambe	Itsasgizona Nekazaria Nekazaria

Aurreko orrialdeetan adierazi dugun legez, Batzordeko hiru kide udalbatzako kide ziren: Enrique Urruticoechea alkatea eta Agustín Artaza eta Florencio Igartua zinegotziak. Bestetik, Ignacio Bilbao alkate eta zinegotzi izan zen XIX. mendeko azken hamarkadan. Pantaleon Trifol Batzordeko lehendakaria Sopelako *Jolas Elkarteko* presidentea ere bazen, aurrerago aipatuko duguna eta Batzordeko idazkari José Quintanaren establezimenduan zegoena.

Batzorde Kontserbadorea eratu zen egunean, Sopelan izan ziren “*alderdiko eta Bilboko Gazteria Kontserbadoreko ordezkariak*”, herriko “*elementu kontserbadoreek*” gonbidatuta. “*Bikain zerbitzatutako otordu intimo*” bat izan zen ekitaldi bakarra, Jolas Elkartearen egoitzan. Bazkaria amaitzean, “*alderdiaren etorkizuneko propagandari buruzko iritzi truke baten ostean*”, Batzordearen zuzendaritza eratu zen, “*Bizkaiko gainerako batzordeen araudi beraren arabera*”¹⁸⁵.

Alderdi Kontserbadoreak etengabe zabalkundea izan zuen 1912an: maiatzaren 27an, Zamudioko Zirkulu Kontserbadorea inauguratu zen ofizialki; ekainaren 23an, San Salvador del Valleko zirkulua. Loipun ere zirkulu bat sortu zuten¹⁸⁶.

183 *El Nervión* 1911-02-16, 1911-06-05, 1911-12-11 eta 1912-03-04.

184 *El Pueblo Vasco* 1912-03-20. 1912ko Hautesle Erroldan aipatutako lanbideak.

185 *Ibid.*

186 *El Pueblo Vasco* 1912-05-28 eta 1912-06-24.

Barakaldoko kontserbadoreek 1912ko urriaren 20an inauguratu zuten euren Zirkulua, eta tokiko batzorde ugaritako ordezkariak izan ziren ekitaldian; berbarako, Sopelako batzordeko ia kide guztiak izan ziren Ezkerraldeko industria udalerrian. Inaugurazio ekitaldian izan ziren batzordeko lehendakaria, lehendakariordea eta idazkaria, baita Florentino Igartua batzordekidea eta herriko alkatea ere¹⁸⁷.

Barakaldoko ekitaldia da Sopelako kontserbadoreen jardueri buruz aurkitu dugun informazio ia bakarra. Badakigu ere Batzordearen ordezkari bat – lehendakaria, idazkaria eta Urruticoechea alkatea– joan zela 1913ko ekainaren 11n Antonio Maurari Ybarraren etxean (“*Arriluce*”) egin zitzaion harrerara. Zamudion ere izan ziren, urte bereko abuztuaren 31n Espainiako bandera ohoratzeko egin zen ekitaldi batean¹⁸⁸.

1913ko urriaren amaieran, Antonio Maurak uko egin zion Alderdi Kontserbadorearen buruzagitzari, eta krisia piztu zen alderdian. Bilboko kontserbadoreek, baita gazteen adarrak ere, lehengo liderrarekin bat egitea erabaki zuten, Alderdi Maurista izena hartuta¹⁸⁹. Ez dakigu zer eragin izan zuen horrek Sopelako Batzorde Kontserbadorean, pentsa badaiteke ere kide bilbotarren pauso berberak egin zituztela.

1.1.5. Euskal nazionalismoaren agerpena eta garapena Errestaurazioaren azken urteetan

Abertzaletasunak Bigarren Errepublikan Sopelan izan zuen garrantzia dela-eta -herriko indar politiko nagusi bihurtu zen-, beharrezkotzat jo dugu azaltzea Errestaurazioaren azken urteetan Elizatean eta inguruko herrietan izan zuen agerpena, garapena eta ibilbidea. Horretarako, informazio dezente aurkitu dugu *Euzkadi* berripaperaren orrialdeetan.

Dagoeneko adierazi dugunez, 1898ko probintzia hauteskundeetan, Sabino Arana EAJren fundatzailea izan zen hautagai bozkatuena herrian, eta Bilboko Barrutiko diputatu akta lortu zuen. Aranaren ibilbide politikoa laburra izan zen, 1903ko azaroaren 25ean hil baitzen, 38 urte zituela. Garai hartan, abertzaletasunaren aita buru-belarri sartuta zegoen alderdi jeltzalearen “*bilakaera espainolistan*”. Bide hori baztertu egin zuen haren oinordeko Ángel Zabalak, Aranak berak Bizkai Buru Batzarreko buru izendatu zuena hil baino lehentxoago. EAJren barruko liskarrak areagotu egin ziren fundatzailea hil ostean. Liskar horien adibide dira José Domingo de Uribasterrak Sopelatik *Euskalduna* berripaper foruzalera bidaltzen zituen artikuluak. Uribasterrak bere burua aurkezten zuen ortuan aritzen zen itsasgizon sopoloztar erretiratu gisa, eta idatzi ugari argitaratu zituen; besteak beste, *Cartas a mi sobrino* izenburupean 1904ko otsailean argitaratutako lau gutun, non ezbaian jarri baitzituen Ángel Zabalak EAJko zuzendaritzako buruzagi nagusi gisa erabilitako formak. Uribasterrak erreplika jaso zuen *Patria* egunkari nazionalistatik; zehazki, *Joala* ezizenez sinatzen zuen José Arriandiagarengandik¹⁹⁰.

187 *El Pueblo Vasco* 1912-10-21.

188 *El Pueblo Vasco* 1913-06-12, 1913-08-31 y 1913-09-01. *El Nervión* 1913-08-30.

189 PLATA PARGA, Gabriel: *La derecha vasca y la crisis de la democracia española (1931-1936)*, Bilbao, Bizkaiko Foru Aldundia, 1991, 21. or.

190 *Euskalduna* 1904-02-07, 1904-02-14, 1904-02-21 eta 1904-02-28. *Patria* 1904-02-14, 1904-02-21, 1904-02-28 eta 1904-03-06.

Uribasterraren idazkien bolumena dela-eta, artikulugilearen biografian sakontzea erabaki genuen. Orain arteko ikerketek Uribasterra benetako pertsonaia izan zela uste izan duten arren, geure tesia da, berez, izengoiti bat zela eta atzean Nicolás Viar Egusquiza bilbotarra egongo litzatekeela, abokatu, idazle eta politikari nazionalista. Sabino Aranaren adiskide mina, EAJko kide izan zen, 1906an bere ideia liberalengatik kanporatu zuten arte¹⁹¹.

Geure hipotesiari eusteko, oinarri hartu ditugu batez ere Ángel Zabalak 1908ko uztailean *Aberrri* egunkarian argitaratutako artikulua bi, Uribasterrak *Euskaldunan* idatzitako hainbat idazkiri erantzuteko asmoz idatziak. Zabalaren lehen testuan irakur daitekeenez, ustezko itsasgizona “ez zen jaió nire herrixka herabeen” (Sopelari erreferentzia eginez)¹⁹². Askoz argigarriagoa da buruzagi nazionalistak 1908ko uztailearen 18an argitaratutako artikulua. Berbaz berba irakur daiteke:

*“Euskalduna (berripapera) (...) por única respuesta a mi último escrito (...) procura una salida habilísima, muy propia de quien siendo realmente Abogado afamado y escritor chispeante en Deusto, se ocupa en Sopelana, según viene afirmando él uno y otro día, no solo en tratar con indios de México que conoció allá cuando él fue Capitán de barco y se llamaba José Domingo de Uribasterra con el mismo derecho que me llamo yo Nicolás Viar o me atribuyo la triste gloria de ser la cizaña del partido (...)”*¹⁹³.

Ez zen hori izan Zabalak kontu horren inguruan eginiko aipamen bakarra, eta *Euskaldunako* artikulugilea izendatu zuen “*pseudo-Uribasterra*”, “*Deustuko abokatua, edo irakurleak hala gura izanez gero, José Domingo de Uribasterra*”, edota “*abokatu petoa, Espainiako itsas merkataritzako kapitain erretiratuaz gain*”¹⁹⁴.

Uribasterrak beste idazki baten bidez zarratu zuen eztabaida, eta “*nire esku bekatarien artean luma berriri ez hartzeko*” erabakiaren berri eman zuen¹⁹⁵. Kolaboratzailearen isiltasuna urriaren amaieran apurtu zen, ustez Sopelan egin eta *Euskalduna* berripaperean argitaratu zen elkarrizketa baten bidez. Elkarrizketan, EAJren barne egoerari buruzko Uribasterraren iritziak jaso ziren, horixe izanik kazetaritza testuaren *leit motiv* edo gai nagusia. Dena dela, hemen interesatzen zaiguna da geure teoria sendotzeko balio duen datu bat: elkarrizketatzaileak adierazi zuen Uribasterrari ez zitzaiola gustatzen argazkietan ateratzea. Argitaratutako elkarrizketari hiru argazki gehitu zitzaizkion, balio handikoak Sopelarentzat ikuspegi historikotik: argazki bi, marinel erretiratu bizi ei zen jauregiarenak; bestea, prozesio batena, San Pedro elizaren ondoan, non, ustez, elkarrizketatua agertzen den, “*bizar zuriko jaun*” lez aipatua¹⁹⁶.

191 <https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/viar-eguskiza-nicolas/ar-128997/>

192 *Aberrri* 1908-07-04, Zabala-Ozamiz “*Sábelo todo*”.

193 *Aberrri* 1908-07-18, Zabala-Ozamiz “*¡Qué apuro!*”.

194 *Ibid.*

195 *Euskalduna* 1908-08-13, José Domingo de Uribasterra “*No es eso. Sopelana, 11 de agosto*”.

196 *Euskalduna* 1908-10-29. V.G.: “*En Sopelana- Una Interview*”. Elkarrizketan jasotakoaren arabera, Arrosarioko kofradiakideek prozesioa egiten zuten urriko domeka guztietan, Meza Nagusiaren aurretik.

Bestetik, José Domingo de Uribasterraren bataio partida aurkitzen saiatu gara, Bizkaiko Eliz Artxibo Historikoko sakram/entu erregistroetan begiratuta, baina ez dugu ezer aurkitu. Azkenik, Sopelako 1907ko eta 1909ko hauteskunde erroldak berrikusi ditugu, eta ez dugu izen hori duen boto emailerik aurkitu¹⁹⁷.

Laburbilduz: oso litekeena da Uribasterra ezizenaren atzean Nicolás de Viar ezkutatzea. Ezin izan dugu zehaztu azken horren eta Sopelaren arteko harremana, eta horri buruzko hipotesi bi posible planteatu ditugu. Lehenengoa: litekeena da Viarrek udaldia Sopelan igarotzea edo bertan egonaldiak egitea, eta Uribasterraren pertsonaia asmatu izana nazionalismoaren bilakaerari buruzko bere iritzia emateko. Bigarrena: Sopela izatea Viarrek aukeratutako eszenatokia, marinel zahar erretiratuaren bizitza asmatzeko eta pertsonaia horren bidez bere iritzi politikoak zabaltzeko.

Berriro helduz abertzaletasunak Sopelan izan zuen zabalkundearen gaiari, nabarmentzekoa da, 1911tik eta batez ere 1915etik aurrera jeltzaleek hauteskundeetan izandako emaitza onen ondorioz, CNV indartuz joan zela udalerrian, abertzale getxoztarren babesean, aurrerago ikusiko dugun legez.

Antza, Getxo izan zen abertzaletasuna ofizialki finkatu zen Uribe Kostako lehen herria, Algortako Batzokiaren inauguraziorekin, 1905eko udazkenean¹⁹⁸. Horren ostean, jeltzale getxoztarrek bat egin zuten 1907tik 1908ra bitartean nazionalismoa indartu zuen propaganda ekitaldien ez tandarekin¹⁹⁹, eta *bira* bat antolatu zuten Plentzia eta Gorlizera, 1908ko uztailaren 19an. *Aberri* egunkariak honela deskribatu zuen txango hori, haren garrantzia nabarmendu guran: “*Euzkadiko alde honetan ospatuko den lehen jai abertzalea eta, halandaze, (...) garrantzi handiko ekitaldia*”²⁰⁰. Aipaturiko berripaperak bere jarraitzaileei hitzordura deitzeko eginiko deian azpimarratu zuenez, Plentzian eta Gorlizen nazionalismoak “*axolagabekeriaren kontra borrokatu behar du, geure Egiarekiko ezjakintasunaren kontra*”, eta ondorioz, “*beharrezkoa da han jakitea nor garen*”²⁰¹. Propaganda txango hori jeltzaleen azken ekitaldietako bat izan zen, abuztu hasieran bertan behera gelditu zirelako agindu

197 1907ko eta 1909ko hauteskunde erroldak berrikusi ditugu, bigarren arrazoi batengatik: 1909ko apirilko 15eko *Euskalduna* berripaperaren *Sirimiri* atalean irakur daitekeenez, “*Uribasterra, Sopelakoa, zenbait abertzalek proposatu dute hautagai gisa zinegotziak hautatzeko datozen hauteskundeetarako. Baina Udal Batzordeko lehendakariak esan du Don José Domingo ez dela abertzalea, ez dagoelako afiliatuta*”. 1909ko maiatzaren 2an, udal hauteskundeak egin ziren Bilbo edo Getxo legezko udalerrietan, baina ez Sopelan, non hilabete batzuk geroago egin ziren, abenduaren 12an. Bestetik, ez dugu aurkitu dokumentu bakar bat ere, garai hartan herrian EAJren Uri Batzar bat zegoela baieztatzen duenik. Azkenik, Uribasterra hautesleen zerrendetan ez agertzeak adieraziko luke ez zela egundo Sopelan hautagai izan.

198 *Patria* 1905-10-07 Erreferentzia: GOROSPE, Alberto: *Batzokis de Bizkaia: Txori Herri – Uribe Kosta*, Sabino Arana Fundazioa, Bilbo, 2002 187 or.

199 *Aberri* 1908-08-08. “*Azken garai honetan, lehen ez lez, hamabi edo hamalau hilabetez apenas izan da ekitaldi publikoetan izan ez garen domeka edo jai egunik*”.

200 *Aberri* 1908-07-11.

201 *Aberri* 1908-07-18.

bidez hilabete horretarako eta irailerako antolatutako jai guztiak²⁰². Agindu horren ondorioz, bertan behera gelditu zen Bilboko Euzko Gaztedik Sopela aldameneko Urduliz herrian antolatu behar zuen “*euskal erromeria*”²⁰³.

1909ko martxo inguruan, batzoki bat zabaldu zen Plentzian, baldin eta kontuan hartzen badugu hil horren 27an *Bizkaitarra* egunkarian argitaratu zen ohar bat. Informazio horretan, eskopeta baten zozketa aitatzen da, “*Plentziako Batzokiaren inaugurazioa dela-eta*”²⁰⁴. Egoitza horri buruzko berri gehiagorik aurkitu ez dugunez, pentsatzekoa da bizitza laburra izan zuela.

Sopelari dagokionez, esan dugunez, José Loroño 1907an iritsi zen herrira, eta protagonista izango zen gero abertzaletasuna sopoloztarren artean zabaltzeko ahaleginean. 1908. urte inguruan, bere gain hartu zuen *Fonda Itxasondoren* ardura, 1909ko *Guía Reparaz* delakoan *Café y Tienda de Ultramarinos* gisa agertzen dena²⁰⁵. Tokiko politikan izan zuen inplikazioaren lehen datua, esan dugun legez, 1909ko abenduko udal hauteskundeetan topa dezakegu. Loroñok ahoz eskatu zion Udal Errolda Batzarrari hautagai gisa onartzeko, nahiz eta ez zuen aurkezteko modurik izan, ez dakizkigun arrazoiengatik²⁰⁶. Zorte handiagoa izan zuen 1911ko azaroko udal hauteskundeetan, eta Udalean zinegotzi abertzale gisa sartzea lortu zuen, 28 boto jasota²⁰⁷. Nahiz eta kopuru hori nahiko txikia izan beste hautagaiek lorturiko botoekin alderatuz gero, ez dugu ahaztu behar hilabete batzuk lehenago, martxoko probintzia hauteskundeetan, abertzaletasuna bigarren indar bozkatuena izan zela Sopelan, babes handiena lortu zuten kontserbadoreengandik oso hurbil.

Itxasondo ostatua atoaan bihurtu zen herriko abertzaleen erreferentzia eta bilgune. Berba baterako, esan dugunez, 1915eko irailaren 5ean, Bilboko Euzko Gaztediko kideek oturuntza bat egin zuten ostatu horretan, euren “*Cuadro dramático*”aren omenez, Sopelako hondartza eta “*herriko leku pintoreskoak*” bisitatu ostean²⁰⁸. Apur bat lehenago, Getxoko abertzaleek maiatzaren 13an Sopelan antolatu zuten festan (aurrerago aipagai izango duguna), Loroñok zuzentzen zuen lokalak txosna bat ipini zuen ospakizuna egin zen zelaian. Txosna horretan, “*era guztietako freskagarriak*” zerbitzatu ziren, eta bertan eman zuten izena aurrekularien sariketan parte hartu zuten dantzariak²⁰⁹.

202 *Aberri* 1908-08-08, *Suspensión de fiestas*. Abertzaleen jaiak bertan behera uzteko arrazoiak aitatzen dira. Besteak beste, “*deskantsu beharra*” aitatzen da, “*indarra eta dirua batzeko*”, berberdika beste kontu bat aitatzen bada ere: “*oso gauza handia, oso garrantzitsua, hilabete horietatik bigarrenean jazoko dena*”. Halandaze, hizpide da hemen 1908ko urrian egitekoa zen Elgoibarko Batzarra, ezin ahaztekoa bada ere Bizkaiko Lurralde Batzarra egin zela abuztuaren erdialdean.

203 *Aberri* 1908-08-15.

204 GOROSPE, 289-292. or. *Bizkaitarra*, 1909-03-27.

205 *Guía Reparaz – Vizcaya en la mano. Completo y exacto anuario de toda la provincia*, 1909.

206 BFAH, AR00268/017, *Hautagaiak izendatzearen akta* 1909-12-05.

207 BFAH, AR00284/002, *Sopelako zinegotzien hautaketarako boto kontaketaren akta*, 1911-11-16.

208 *Euzkadi* 1915-09-06.

209 *Euzkadi* 1915-05-12 eta 1915-05-13.

Dena dela, Loroño ez zen izan abertzaletasuna hastapenetan herrian bultzatzen aritu zen bakarra, garai hartan Sopelan mugimendu nazionalistaren barruan oso ezaguna zen pertsona bat bizi zelako: Alfredo Echave Nazabal antzerkigilea²¹⁰, zalantza barik ekarpen handia egin ziona kostaldeko Elizatean ideia nazionalisten zabalkundeari²¹¹.

Loroñoren atxiloketak, Edmundo Coutoren etxean Espainiako banderaren inguruan izandako jazoerengatik, zinegotzi jeltzalearen kargubakotzea ekarri zuen, 1915eko irailean. Zalantza barik, ez zen berri ona izan herriko abertzaleentzat, baina ez dakigu zehatz-mehatz zer ondorio izan zituen. Dakiguna da 1916ko otsailean salaketa bat jarri zela Alfredo Echaveren aurka, haren ospea kaltetzeko asmo argiarekin. Hilabete horren amaieran, Gobernadore Zibila harremanetan jarri zen Sopelako alkatearekin, eta jakinarazi zion “*herri horretako zenbait bizilagunek*” salaketa jarri zutela idazlearen kontra, alarguna 1906az geroztik, “*halaberharrez bizi dena Elizate horretako baserri batean*”, lau seme-alaben ustezko “*abandonu moral eta materialarengatik*”. Sopelako alkateak irmo erantzun zuen, eta argi utzi zuen Echaveren seme-alabek “*jokabide eredugarria*” zutela eta aita “*arreta handiz*” zaintzen zutela, “*bai arropari bai elikadurari dagokienez*”. Alkateak antzerkigilearen amaginarrebaren testigantza jaso zuen, eta hark esan zion Echavek ez zuela “*ezelako disgusturik izan herriko ezekin bizilagunekin*” eta “*jaun eredugarritzat*” jotzen zuela. Datu horiek azalduta, Urruticoechea alkateak bere erantzuna amaitu zuen esanez ez zuela uste salaketa “*herri honetako inork*” jarri zuenik²¹².

Kontakizunari berriro helduz, badakigu 1915 inguruan Sopela, Urduliz, Barrika, Berango, Plentzia eta Gorlizko abertzaleak Algortako Uri Buru Batzarraren menpe zeudela²¹³. Jeltzale getxoztarrak, ikusiko dugun legez, Tokiko Batzarrak sortzeko beharretan aritu ziren inguruko zenbait udalerritan, baita euren ideologia zabaltzen ere. Berba baterako, “*Algortako abertzaleek propaganda nazionalistako festa ederra*” antolatu zuten maiatzaren 9an Sopelan²¹⁴, azkenean hilaren 13ra atzeratu bazen ere, eguraldi txarrarengatik²¹⁵. Hitzordu horren aurretik, Bilboko Euzko Gaztediko *mendigoizaleek* osterata bat antolatu zuten Urdulizko Santa Marinako haitzetara, maiatzaren 2an. Baseliza bisitatu, herriko parrokiaren meza entzun eta eliza ondoko zelaian bazkaldu ostean, oinez joan ziren Areetaraino, non bertako jeltzaleek “*Batzoki berriaren lokalak*” inauguratu zituzten. *Euzkadi* berripaperean

210 BFAH, SOPELA EPAITEGIA 0001/004, *Sopelako Udal Epaitegian eginiko etxegabetze epaiketa, non Elisa de Gambek auzitara eroan duen bere seme politikoa Alfredo Echave, demandatzailearen jabetzako “Amabegoñakoa” etxeko lehen solairua utz dezan, 1915eko abuztua*.

211 Badakigu Uribe Kostan aritu zela abertzaletasunaren zabalkundean; berbarako, hizlari aritu zen 1918ko ekainaren 2an Plentzian herriko batzokiaren inaugurazioa zela-eta egin zen mitinean (*Euzkadi*, 1918-06-03). Sabino Aranaren heriotzaren hamabosgarren urteurrenean, berbaldi bat eman zuen Getxoko Batzokian (*Euzkadi*, 1919-11-25).

212 BFAH, SOPELA 0034/002, Jasotako korrespondentzia, 1916. Gobernadore Zibilak Sopelako alkateari igorritako ofizioa, 1916-02-25. Alkatearen erantzuna, data barik.

213 EUSKAL ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGIA (AN), HAG-0009-40.

214 *Euzkadi* 1915-05-05.

215 *Euzkadi* 1915-05-10 eta 1915-05-12.

argitaratutako kronikaren arabera, *mendigoizaleak* Sopela eta Berangotik igaro ziren, Algortaranzko bidean, eta “*giro bikaina piztu zuten bizilagunen artean, eta horrelako bisitak errepikatzeko gogoa*”²¹⁶.

Egia esan, bai Urdulizko txangoa bai ondorengo Sopelako festa tokiko ordezkariak abertzaleen estrategia komun baten parte ziren. Izan ere, apirilaren 25ean, Bilboko Euzko Gaztediren *Mendigoizale-Bazkunaren* ekimenez, hainbat udalerritako *mendigoizaleen* ordezkariak bildu ziren Barakaldon, tartean Algortakoak. Bileran, “*zenbait erabaki hartu ziren, den-denak JEL propaganda egiteari begira, eta hainbat txango antolatu ziren*”²¹⁷. Zalantza barik, jeltzaleek urte horren martxoko probintzia hauteskundeetan lortutako garaipenak hauspotu egin zituen horrelako ekitaldi propagandistikoak, helburu zutenak abertzaletasuna behin betiko finkatzea Sopela edo Urduliz legezko herrietan, non indar bozkatuena izan zen.

Normalean, txangoak eta jaiak ospatu aurreko egunetan, prentsa abertzalea giroa “*berotzen*” aritzen zen, hainbat erakunderen bertaratzea iragarri eta ekitaldiak egingo ziren herrietan bizi zen gogoberotasuna deskribatuz. Ekitaldi ludiko-politiko horiek bitarteko ezin hobeak ziren jeltzaleek sustatzen zuten “*alderdi-komunitate*” ideia gauzatzeko, hainbat herritako nazionalistak eta jarraitzaileak biltzen zituztelako. Ideia hori ederto islatzen da maiatzaren 13an Sopelan ospatu zen *euskal jaiari* buruzko kronikan. Hala, Bilboko *mendigoizaleak*, goizeko bost eta erdietan Bariko San Nikolas elizan meza entzun ostean, oinez abiatu ziren Sopelarentz, Artxanda, Martiartu eta Unben barrena, eta Sestao, Barakaldo, Erandio eta Deustuko jeltzaleak batu zitzaizkien bidean. Herriaren sarreran, zain zituzten Areeta, Algorta, Leioa eta Portugaletetik etorritako abertzaleak, goizeko zortzietan Algortako Batzokitik abiatu zirenak. Denak elkarrekin, Sopelan sartu ziren, “*txistuaren eta danbolinaren akordeen erritmorra eta eskuetan Areetako eta Algortako batzokietako banderak zituztela*”, eta San Pedro elizara joan ziren, meza nagusia entzuterako. Bertaratutakoek, egunean zehar, trenean iritsitako jendea batu zitzaizen, “*jendez lepo zegoen*”²¹⁸.

Era honetako jaien ekitaldi programak egitura oso antzekoa zuen beti, hiru multzotan banatuta: alde erlijiosoa, alde ludikoa eta alde politikoa, hirurak estu-estu lotuta ideia nazionalistekin. Bisitatutako herrian meza nagusira joatea nazionalisten katolizismoa agerian uzteko modu bat zen, euskaldun izatearekin estuki lotutako zerbait. Alderdi ludikoari dagokionez, hainbat eratako ekitaldiak egiten ziren; berbarako, erromeriak, “*dantza lotua*” guztiz bazterturik, elementu “*exotikotzat*” hartzen baitzen. Bertso emanaldiak, euskal dantza erakustaldiak eta auresku sariketak ere antolatzen ziren. Azkenik, alderdi politikoari dagokionez, hainbat hizlariz osatutako mitina izan ohi zen. Elementu horiek guztiak izan zituen Sopelan ospatutako jaiak²¹⁹.

216 *Euzkadi* 1915-04-26, 1915-04-30 eta 1915-05-03.

217 *Euzkadi* 1915-04-26.

218 *Euzkadi* 1915-05-12 eta 1915-05-14.

219 *Euzkadi* 1915-05-14.

1917ko martxoko probintzia hauteskundeetan, lehen azaldu dugunez, CNVk lehen garaipen handia lortu zuen Bizkaian. Abertzaleak Aldundian nagusitu ziren eta Ramón de la Sota Aburto izendatu zuten erakunde horren buru. Garaipen hori, zalantza barik, aukera aparta izan zen jeltzaleen presentzia sendotzeko Uribe Kostan. Horri buruz idatzi zuen *Gixaldi* korrespontsalak *Euzkadi* berripaperaren orrialdeetan, hauteskundeak egin eta egun gutxira. Algortako berriemailearen ustean, “*euskal nazionalismoak azkenaldian lortutako garaipenaren*” ondorioz, “*orain arte lokartuta zeuden euskaldun askoren kontzientziak piztu dira*”, eta atsekabetuta agertu zen, “*oraindik erakunde abertzalerik ere ez duten herrixka ugari*” zeudelako. Gainera, *Gixaldik* gehitu zuenez, “*herri horietako nazionalista apurrek*” zailtasunak zituzten “*euskaldun zintzoen borondateak batzeko*” eta “*tokian tokiko jauntxo xurgatzaileen aurkako borrokara bideratzeko*”. Oztopo hori gainditzeko, Berangoren kasuan, non Mauraren hautagaitza gailendu baitzen, herriko abertzaleek (“*berangoztar saiatu gutxi batzuk*”) Algortako talde jeltzalearen gomendioak jaso eta Uri Buru Batzar bat eratu zuten, ibilbide ezegonkorra izan zuena²²⁰. Kronikari algortarrak, bestetik, Sopelan, Urdulizen eta Plentzian Udal Batzarrak eratzeko asmoaren berri eman zuen²²¹, nahiz eta ez ziren atoa sortu.

Urte bereko ekainaren erdialdean, *Sorgiña* kronikariak Plentziatik bidalitako idatzi baten arabera, “*herriko eta inguruetako elementu abertzaleek*” beharrezkotzat jo zuten “*udan propaganda ospakizunak*” egitea, oinarri bat sortzeari begira, “*Uri Buru Batzar edo Batzoki bat sortzeko*”. Hala ere, honako hau ere gehitu zuen: “*hasierako adore hori guztia axolabakokeria huts bihurtu da, herri honetako gaztedi abertzaleari eritasun sendaezin baten gisan erasaten dion ezaxola*”. Uztailaren amaieran, Lemoizen “*laster*” zabaltzekoa zen Batzokiaren albisteak akuilatuta, *Sorgiñak* bere buruari itaundu zion ea horrek balioko ote zuen “*plentziar abertzale uzkur eta patxadatsuak*” kitzikatzeko. Lemoizko batzokia atoa zabaltzera zihoazela ematen bazuen ere, azkenean 1917ko abenduaren 9an inauguratu zuen²²². Hilabete lehenago, azaroaren hasieran, Laukizko *Txiberri* korrespontsalak irekiera horren berri eman zuen, baita Plentzian zabaltzear zen batzokiaren berri ere. Kostaldeko herriko abertzaleek biltzeko leku bat izan zuten Ribera kalean gutxienez 1918ko otsailetik, 1918ko ekainaren 2an ofizialki inauguratu bazen ere²²³.

220 Berba baterako, 1918ko irailaren 22an, mitin bat egin zen Berangon, “*abertzale getxoztarrek*” antolatua. *Euzkadi*k argitaratutako informazioek ez dute ezer aitatzten Berangoko Uri Buru Batzarrak ekitaldian izan zuen inplikazioari buruz. Soil-soilik aipatzen da euskal dantzen erakustaldian “*Algorta eta Berangoko elementuak*” izan zirela (*Euzkadi* 1918-09-19 eta 1918-09-23).

221 *Euzkadi* 1917-04-01.

222 *Euzkadi* 1917-06-11, 1917-07-28, 1917-12-04 eta 1917-12-15.

223 *Euzkadi* 1917-11-04, 1918-02-11 eta 1918-06-03. Aitatzekoa da Plentziako *Euzkotar Batzokijaren* Araudiaren kopia bat dagoela herri horretako Artxibo Historikoan (PAH, 388 karpeta, 19. zk., Instantziak 1918, *Euzkotar Batzokija - Arautegia*).

Sopelari dagokionez, Uri Buru Batzarra eta haren egoitza ezartzeko prozesuak aipatu berri dugunarekiko antzekotasun handiak izan zituen, baina kasu honetan, denbora gehiago igaro zen Sopelan 1917ko probintzia hauteskundearen ostean CNVren tokiko batzar bat sortzeaz zela iragarri zenetik berriro horri buruzko berriak iritsi ziren arte. Beharbada, atzerapen hori jazo zen Plentziako jeltzaleena legezko jarrera uzkur bategatik, eta horrek azal lezake ere, Euzkadik 1919ko urtarrilaren erdialdean eginitako iragarpenak iragarpen (“sortzeaz dira Sopelan Uri Buru Batzarra eta Batzokia”)²²⁴, hori ez zela jazo geroago arte. Aipatzekoa da, gainera, berri hau ez zela Sopelatik iritsi, Getxotik baizik, eta ez da harriztekoa, antolakunde getxoartzarrek zeregin erabakigarria izan zuelako inguruko udalerrietan batzarrak sortzeko orduan. Horrela, urte bereko abenduaren hasieran, Erri ezizenez sinatzen zuen Algortako korrespontsalak Getxoko auzoko Euzko Gaztediri luzatu zion abertzale sopeloztar eta berangoztarrei laguntzeko proposamena, herri bi horietan Uri Buru Batzarrak sortze aldera²²⁵. Antza denez, deiak erantzuna izan zuen, aipatutako egunkari abertzalearen 1920ko urtarrilaren amaierako orrialdeetan topa dezakegulako Sopelako “Uri Buru Batzarrak” sinatutako iragarki bat, dei eginez afiliatuei “ezohiko batzar orokorrera”, José Loroñoren etxean²²⁶, gero herriko Batzokia izango zena²²⁷. Lehenengo Uri Buru Batzar horren osaerari dagokionez, soil-soilik dakigu Alejo Marcaida zuela buru²²⁸, eta beste kide guztien izenak falta zaizkigu²²⁹.

Bilera horren –eskura dugun informazioaren arabera, lehena– egitekoa izan zen otsaileko udal hauteskundeetarako hautagaitza prestatzea, jada aipatutako Alejo Marcaida, José Elorriaga eta Francisco Ondiz jaunek osatu zutena²³⁰.

Hauteskunde zerrenda osatu eta astebetara, Sopelako Uri Buru Batzarrak beste bilera batera deitu zuen, herriko Euzko Gaztedi sortzeko, bertako, Berangoko eta Urdulizko CNVko afiliatuekin. Zuzendaritza batzordeko kideen artean, Sopelako eta Berangoko gazteak zeuden. Zehazki, honako hauek²³¹:

224 Euzkadi 1919-01-16.

225 Euzkadi 1919-12-03. “Neuri otu yatan asmo bat emen argitaldu gura dot; Berango ta Sopelana'n abertzale taldiak dagoz zeleikete ixango onuratsuba erri bijotan U.B.B. ipintia? Algorta'ko Gastedijak egin lei erri orretako abertzaliekaz batuta itxeikixun batzuk atondu U.B.B. eralduteko. Neure eretxija auxe da Algortako Euzko-Gastedijak dauko itza”

226 Euzkadi 1920-01-24.

227 Euzkadi 1932-09-21. “Unas notas sobre el movimiento nacionalista en Sopelana”

228 Euzkadi 1920-04-21.

229 Euzkadi berripaperaren 1932-09-21eko alean irakur daitekeenez: “Garai hartan, Zuzendaritza osatzen zuten, besteak beste, José Elorriaga jaunak (alkate ohia), Francisco de Ondiz jaunak (alkate ohia), José Loroño jaunak eta Alejo Marcaida jaunak”. Ez dago informaziorik kide bakoitzaren karguei buruz.

230 Euzkadi 1920-01-28.

231 Euzkadi 1920-01-31 eta 1920-02-05.

**41. TAULA: SOPELA ETA BERANGOKO EUZKO GAZTEDIREN
ZUZENDARITZA BATZORDEA²³² 1920-02-01**

Kargua	Izen-deiturak
Lehendakaria	José Azarola Pérez
Lehendakariordea	Enrique Urruticoechea Echevarria
Idazkaria	Tomás Etxabe Kukullu
Diruzaina	Ángel Villalabeitia Inchaurtieta
Kidea	Cesáreo Apraiz Esesumaga
Kidea	Manuel F. Gastañaga
Kidea	Pedro Gibelondo

Erakunde horretako zazpi kideetatik lau sopoloztarrak ziren. Lehendakariordea, Enrique Urruticoechea, herriko aurreko alkate izandakoaren semea, Plentzian jaio zen, 1894ko apirilean²³³, Urduñako Antiguako Ama Birjinaren Ikastetxean egin zituen lehen mailako ikasketak eta Medikuntza ikasten ari zen, Madril²³⁴. Tomas Etxabe idazkaria Sopelan bizi zen, eta aipatutako Alfredo Etxaberen semea zen. Zuzendaritza batzordeko beste sopoloztar bi Ángel Villalabeitia eta Cesáreo Apraiz ziren²³⁵. José Azarola Pérez berangoztarra zen batzordeburua. Azarolaren ondorengo ibilbidea, 30eko hamarkadan, errepublikanismoaren eremu politikoari lotuta egon zen, eta Berangoko Udaleko alkateorde izatera iritsi zen, 1931 eta 1933 artean²³⁶. Berangoztarra zen ere Manuel F. Gastañaga, herriko medikuaren semea, Santo Domingo de Guzmán parrokiaren bataiatua 1900eko abuztuaren 30ean²³⁷. *Euzkadi* berripaperean, lehen deitura konposatua bakarrik erabiltzen zuten, Fernández Castañera (euskarara egokitua). Pedro Gibelondori dagokionez, ziurrenik Berangokoa ere zen.

232 *Euzkadi* berripaperean hasieran (1920-02-05) *Sopelako Euzko Gaztedi* izena erabili zuten arren, berripaper berean argitaratutako geroagoko berriak ikusita (1920-05-07 eta 1920-05-11), egokiagoa iruditu zaigu *Sopela* eta *Berangoko Euzko Gaztedi* erabiltzea. 1923ko eta 1928ko hauteskunde errolden bidez osatutako deiturak.

233 BIZKAIKO ELIZAREN HISTORI ARTXIBOA (BEHA), 3930/001-00, Plentziako Santa Maria parrokioko Bataio Liburua, 1891-1902. Enrique Urruticoechearen bataio data: 1894ko martxoaren 9a.

234 *Páginas Escolares*, martxo 1911; *Euzkadi* 1920-07-10 “*Sopela*”; eta 1933-04-13, Enrique Urruticoechea Etxebarriaren eskela eta “*Ecos de Sociedad – Notas Tristes*”.

235 1925eko Hauteskunde Erroldari esker, badakigu Apraiz, garai hartan 30 urte zituena, itsas makinista gisa aritu zela (*Sopelako Hauteskunde Errolda 1925, 1925-07-27*). Angel Villalabeitari dagokionez, 1928ko erroldan 25 urterekin agertzen da, eta lanbidez itsasgizona zen (*Sopelako Hauteskunde Errolda 1928, 1928-12-15*).

236 *El Liberal* 1932-04-15.

237 BEHA, 3903/001-00, Berangoko Santo Domingo de Guzmán parrokioko Bataio Liburua, 1897-1929.

Jada adierazi dugunez, Sopelan ez ziren egin 1920ko otsaileko udal hauteskundeak, kargu hutsak betetzeko adina hautagai kopurua aurkeztu zelako. Ondorioz, zinegotzi izendatu zituzten hautagaitza abertzaleko hiru kideak. Garaipen hori biribildu egin zen Francisco Ondiz Sopelako lehen alkate nazionalista bihurtu zenean. *Euzkadi* berripaperak izendapenaren berri eman, alkatea zoriondu, eta “*datu bitxi gisa*” adierazi zuen Enrique Urruticoechea Oleaga alkate ohiak “*karguan hogeita bi urte*” zeramatzala, eta parentesien artean gehitu zuen “*ez dago ezer gehiago esatekorik*”, alkate ohiari eginiko kritika esplizitu gisa²³⁸. Harrigarria da Sopelako korrespontsalak iritzi hori eman izana, kontuan hartuta dardoa herriko Euzko Gaztediko lehendakariordearen aitari jaurtitzen ziola.

Korporazio berria eratzean, Alejo Marcaidak dimisioa eman behar izan zuen CNVko Uri Buru Batzarreko lehendakari gisa, bateraezina zelako zinegotzi karguarekin²³⁹. Beste lehendakari bat izendatzeko eta maiatzaren 23an eta 24an Donostian egingo zen Aberri Batzarrerako ahalduna eta ordezkoa aukeratzeko, dei egin zitzaion Sopelako afiliatuei maiatzaren 9an egitekoa zen bilkurara²⁴⁰. Ondorengo informazioen arabera, tokiko batzarraren buruzagitza gelditu zen “*Echave jaunaren*” esku²⁴¹. Bestetik, badakigu Enrique de Oruetak bere gain hartu zuela komunistak sopoloztarren ordezkaritza Gipuzkoako hiriburuan egin zen batzarrean²⁴².

Herriko Euzko Gaztediri dagokionez, dei egin zitzaion gazte antolakundearen “*bazkide gisa izena eman zuten abertzale guztiei*” maiatzaren 30ean José Loroñoren etxean egitekoa zen bilerara²⁴³. Ez dakigu zer gai-zerrenda izan zuen bilerak, baina litekeena da gai bat izatea urte horretako apirillean Euzko Gaztediren Federazioak bere jarduerak finantzatzeko *Euzkadi* berripaperean egin zuen proposamena. Proposamenaren oinarria hauxe zen: “*Federazioaren bazkide babesleen -eugabizaleak- tokiko taldeen sare bat sortzea, piramide gisa, hamar laguneko taldeetan, astean 5 zentimo emateko taldeburuari*”. Taldeburuak udal ikuskatzaile bati emango zion bildutako dirua, eta udal ikuskatzaileak, eskualdeko ikuskatzaileari, Federazioko diruzaina izanik azken hartzailea. Finantzaketa sistema horrek ondo funtziona zezan, laguntza eskatzen zitzaion, gazteei ez ezik, abertzale guztiei²⁴⁴.

Ekainaren amaieran, *Euzkadi* berripaperak, Sopelari buruzko artikulua batean, “*eugabizaleen ikuskatzailearen*” haserrearen berri eman zuen, “*abertzaleen utzikeriagatik eta hemengo abertzaleek gai honi ematen dioten garrantzi txikiagatik*”.

238 *Euzkadi* 1920-04-21.

239 *Ibid.*

240 *Euzkadi* 1920-05-07.

241 *Euzkadi* 1932-09-21. “*Los progresos del nacionalismo en Sopelana*”. Ez dakigu Alfredo Echaveri edo haren seme Tomasi buruz ari ziren.

242 *Euzkadi* 1920-05-25.

243 *Euzkadi* 1920-05-29 eta 1920-05-30.

244 ZABALETA, Mikel: *Baluartea de J.E.L. Errenteria y el primer nacionalismo vasco (1904-1931): Vida política local, antecedentes, formación y evolución*, Errenteriako Udala, 2018, 194-195. or.

Kexa horren aurrean, tokiko kronikari anonimoak dei egin zien herriko “*abertzaleei*” talde gehiago sortzera, inor gera ez zedin “*Euzko Gaztediren Federazioaren obrari bost zentimoko ekarpena egin barik*”²⁴⁵. Sopelako jeltzaleen apatia ez zen salbuespena, eta antza denez antzeko zerbait gertatzen zen beste udalerrietan ere.

Badakigu abuztuaren erdialdean Sopelan beste *eugabizale* talde bat sortu zela, Francisco Barrenetxea buru zuena²⁴⁶. Hala ere, talde berri horren sorrerak ez zuen aldatu herriko abertzaleek gai honetan zuten itxurazko utzikeria. Berbarako, irailaren amaieran, Sopelako ikuskatzaileak ez zituen igorri ekaineko, uztaileko eta abuztuko diru bilketak, “*ekaineko eta uztaileko likidazio zerrendak*” helarazi baziren ere²⁴⁷. Halandaze, diru bilketa sistemaren arduradun nagusiek gutun bat bidali zioten ikuskatzaile sopoloztarrari urriaren hasieran. Hil beraren erdialdean, gutunak ez zuen arraposturik izan, “*nahiz eta 14 egun igaro diren*”²⁴⁸. Hilabete hori amaitzean, aipatutako hilabeteetako diru bilketak eskatu zitzaizkion berriro Sopelako arduradunari, iraileko likidazioarekin batera²⁴⁹. Azaroan, eskaerek jarraitu zuten, *Euzkadi* berripaperaren bitartez, sopoloztarrek euren zorra kita zezaten, antza denez alferrikakoak izan baziren ere. Dena dela, esan behar da sopoloztarren kasua ez zela bakarra izan eta jeltzaleen beste toki erakunde batzuek ere egin barik zituztela ordainketa horiek; halan zelan Plentzia, Mungia edo Deustuko antolakundekoek²⁵⁰.

Sopelako nazionalistek *eugabizaleen* aferan zuten etengabe isiltasunak garbikiro erakusten du bertako jeltzaleen nagikeria, eta berripaperetako informazio falta litzateke horren ondorioetako bat. Berba baterako, irailaren amaieran, urriaren 6a baino lehen batzartzeko agindu zien Bizkai Buru Batzarrak Uri Buru Batzarrei, azken horiek berritzeko. Zuzendaritza berriek izan behar zituzten lehendakaria, lehenengo eta bigarren bokalak eta ordezkoi bi, kargu denak hiru urterako hautatuak. Gainera, ordezkari bat hautatu behar zen urriaren 10ean Bilbon egingo zen lurralde batzarrerako²⁵¹. Ez dugu informaziorik topatu ustez helburu horrekin Sopelako Uri Buru Batzarrak egin zuen batzarrari buruz. Herriko Euzko Gaztediri dagokionez, ezin izan dugu baieztatu haren parte hartzea urriaren 31n egin zen Euzko Gaztediren II. Batzarrean. Badakigu bilkura horretan izan zirela Algortako eta Areetako gazte erakundeak; Plentziakoa, ez²⁵².

Berba gutxitan, esan daiteke Sopelan abertzaletasunak nahikotxo indarrez ekin ziola bere ibilbideari 1920an, baina indar hori apurka-apurka amatatzen joan zela urtearen erdialdetik aurrera. Agian, herriko alkatetza lortu izanak herriko abertzaleen asmo guztiak gogobete zituen. Alkate jeltzalearen eragina nabarmena izan zen

245 *Euzkadi* 1920-06-26.

246 *Euzkadi* 1920-08-10.

247 *Euzkadi* 1920-09-26 eta 1920-09-30.

248 *Euzkadi* 1920-10-15.

249 *Euzkadi* 1920-10-27 eta 1920-10-30.

250 *Euzkadi* 1920-11-04, 1920-11-11 eta 1920-11-21.

251 *Euzkadi* 1920-09-28.

252 *Euzkadi* 1920-11-02.

garai hartako abertzaletasunarentzat garrantzi handia zuen gaietako batean: jaietatik eta erromerietatik “exotikotzat” jotzen ziren musika eta instrumentuak ezabatzea. Horrela, urte horretako sanpedroetan, Francisco de Ondizek, “*kultura eta moraltasun froga bat emanez*”, galarazi egin zuen “*gu zibilizatu guran sartu diguten pianotxo biraderadun nardagarria, hainbeste urtetan geure jaietan horren leku garrantzitsua izan duena, pertsona zintzo denen nahigaberako*”. Euzkadi berripapereko korrespondentalak zoriondu egin zuen alkatea erabaki horregatik, abertzale sopoloztarren izenean antza denez, eta “*bide beretik jarraitzeko*” erregutu zion, “*geure aberrian utzikieriaz sartzen utzi ditugun ohitura exotiko denak baztertuz*”. Dena dela, horiek ez ziren jeltzale sopoloztarrak kezkatzen zituzten gai bakarrak. Egunkari bereko orrialdeetan, Larrabasterrako San Joan eguneko erromeriari buruzko ohar batean, honako hau irakur dezakegu: “*Atentzioa eman zuen, Manuel de Goikoetxea jaunaren edatekoen eta jatekoen establezimenduan, bere burua nazionalistatzat duena, edo hala dio sikiera, geure aberriarena ez den bandera bat jartzeak*”. Berriemaileak bere buruari itauntzen zion ea gertaera hura “*okerren bat*” edo “*eboluzioren bat*” izan ote zen²⁵³.

“*Euskal jaiak*” bultzatzeko ekinaldiak eta nazionalismoak ezarritako parametroak betetzen ez zituzten ospakizunen salaketak etengabeak izan ziren Euzkadi berripaperaren orrialdeetan. Berbarako, 1920ko irailean jakitera eman zen Plentziako sanantolinetako “*jai profanoen ia egitarau denak kutsu estranjerista oso nabarmena*” izan zuela²⁵⁴. Ostera, kronikari sopoloztarrak martxoaren 7an Larrabasterran “*Doña María Deliaeren establezimenduan*” egitekoak ziren “*euskal jaien*” berri eman zuen²⁵⁵, jai horietako ekitaldi nagusia izanik “*bertsolari sariketa handi bat*”. Berriemailearen kontakizunari jaramon eginez, egun horrek ikusmin handia piztu zuen²⁵⁶, baita, berbarako, Areetako Euzko Gaztediren lokalaren inaugurazioa zela-eta uztailako 11n Getxoko auzo horretan ospatu ziren jaiak ere: “*zoramen handia (...) piztu zuten elementu sopoloztar nazionalisten artean*”²⁵⁷.

Lehen esan dugunez, 1920ko abendutik aurrera ia ez da ezer argitaratzen prentsan Sopolako nazionalismoari buruz, eta Errestaurazioaren azken urteetan nagusituko den joera bat izango da hori. Ez da zaila susmatzea 1921eko iraileko CNVren zatiketa²⁵⁸, EAJ sigla zaharrak berreskuratu zituen alderdi abertzale berri baten osaketarekin, modu traumatikoan bizi izan zela herrian eta haren inguruan. Hala, Algortako Euzko Gaztedik bat egin zuen alderdi berriarekin²⁵⁹; ostera, antza denez nazionalista sopoloztarrek leial eutsi zieten CNV siglei, 1923ko martxoan Euzkadi berripaperean argitaratutako berri bati jaramon eginez gero. Informazio horri esker, badakigu Alejo Marcaidak eta José Loroñok osatutako batzorde batek parte hartu zuela CNVn antolatutako “*Euskal osotasunaren aldeko*” jaietan²⁶⁰. Jada esan dugunez, 1922ko udal hauteskundeetan Sopolako abertzaleek gehiengoa

253 Euzkadi 1920-06-26.

254 Euzkadi 1920-09-08 “*Gaminiz (Plencia) – Las fiestas de San Antolín*”.

255 Lokal hau izan zen Sopolako Batzokia Bigarren Errepublikan.

256 Euzkadi 1920-03-02 eta 1920-03-03.

257 Euzkadi 1920-07-10.

258 Aberrri 1921-09-10.

259 Aberrri 1921-10-08.

260 Euzkadi 1923-03-06.

mantendu zuten udalean, eta alkatetza José Elorriagaren esku geratu zen. Herriko jeltzaleei buruzko albiste faltak eragindako isilaldi luzea 1923ko martxoan argitaratutako berri horrek eten zuen.

Esan dugun legez, 1919tik aurrera areagotuz joan ziren nazionalismoaren kontrako jarrerak eta gertakariak, Uribe Kostan eta Mungialdean ere, eta polemika ugari izan ziren prentsan. Berba baterako, urte horren hasieran, Plentziako *Aurrera Jolas Elkartearen* zuzendaritzak erabaki zuen “*baja ematea*” *Euzkadi* berripaperaren harpidetzan, eta horrek eragin zituen “*komentario handiak eta (...) egundoko nahigabea*” elkarteko “*elementu abertzaleen artean*”²⁶¹. Handik gutxira, *El Pueblo Vasco* egunkariko Mungiako kronikariak gripearekin alderatu zituen nazionalistak, berba hauek erabili: “*hondamena eragiten jarraitzen du plaken ditxosozko gripeak, zeinaren mikrobioak diren: Gorria, Zuria eta Berdea*”²⁶². Berripaper berean, Algortako abertzaleek abuztuaren 31n antolatutako ekitaldi batzuk salatu zituzten. Programazioan sartu zituzten, besteak beste, ohiko meza, San Nikolas elizan, eta euskarazko irakurketa eta idazketa sariketa bat, Zaballako Eskoletan²⁶³. *El Pueblo Vasco* argitaratu zuenez, iragarritako mezan, “*goratzeko une solemnean, egundo ere irekitzen ez den elizaren ate bat zabaldu zuten, eta une horretantxe agertu zen ataripean Galdakaoko banda, euskal ereserki abertzalea jotzen*”. Ereserkiak, artikulua egilearen ustean, “*gozakaiztu egin zuen funtsean liturgikoa zen gurtza, eta, profanoaz gain, politikoa eta hertsiki alderdikoia ere baten*”. Halaber, aipatutako berripaperak adierazi zuenez, umeentzako euskarazko idatzien sariketako sarien banaketan, Alfontso XIII.a erregearen erretratua kendu eta Sabino Aranarena ipini zuten haren ordean, eta, bestetik, “*trapu bizkaitarra jarri zen eskolako arduradunaren mahai gainean*” eta “*pezeta espainolak banatu ziren, eta liburuak, gorroto sentimenduak pizteko ume gaixoen ariman*”²⁶⁴.

Ikurrina izendatzeko “*trapu*” berba erabiltzeak, garai hartan soilik jeltzaleen ikur zena, haserre handia piztu zuen Algortako abertzaleen artean²⁶⁵. Plentzian, 1922ko azaroan, “*hiru koloreko bandera*” erakusteak hiru beharginen atxilotzea eragin zuen, ikurrina ipini zutelako goi-goian, Astillero plazan eraikitzen ari ziren kioskoaren teilatua amaitzean. *Euzkadik* argitaratu zuenez, ez zen lehen aldia entseina abertzalea herriko obra baten gainean ipintzen zutela:

“*Cuando se colocó el tejado a la nueva Casa Consistorial de Plencia, los obreros pusieron una bandera tricolor. Lo hicieron en uso de su perfectísimo derecho, pues no hay nadie que pueda prohibirles legalmente esos colores, ni se puede obligar tampoco con ningún derecho a mostrar preferencias por otros*”²⁶⁶.

261 *Euzkadi* 1919-01-12.

262 *El Pueblo Vasco* 1919-01-31.

263 *Euzkadi* 1919-08-29.

264 *El Pueblo Vasco* 1919-09-05.

265 *Euzkadi* 1919-09-07.

266 *Euzkadi* 1922-11-01. “*Un pobre hombre que quiere ser personaje*”.

Beharginek egun bat igaro zuten atxilotuta Bilbon, eta aske utzi zituzten, baina gobernadoreak 125 pezetako isuna ipini zien obraren arkitekto zuzendari Antonio Araluceri eta kontratistari. *Euzkadi* berripaperak José Olano Rodríguez Plentziako alkate ohia jo zuen salaketaren eta atxilotetaren erantzule nagusitzat²⁶⁷. Egun batzuk geroago, harrera beroa egin zieten hiru beharginei, Plentziako Euzko Gaztedik Juan de Ugartetxeren ostatuan antolatutako “*ohorezko oturuntza batean*”²⁶⁸.

Hala ere, euskal nazionalismoa indartu egin zen Uribe Kostan Primo de Riveraren estatu kolpearen aurreko asteetan. 1923ko abuztuaren hasieran, Antonio Araluce arkitektoak proiektatutako Plentziako Batzoki berriaren inaugurazioa jaso zuen *El Noticiero Bilbaíno* egunkariak. “*Edukiera handiko*” eraikinak “*beheko solairua, egongela, idazkaritza, liburutegia eta sail osagarriak*” zituen, “*altzari tipiko eta egokiarekin*”²⁶⁹. Handik gutxira, hilaren 20an, Algortako *Euzko Etxearen* lokalak bedeinkatu zituzten²⁷⁰. Altxamendu militarra baino egun batzuk lehenago, *Euzkadi* berripaperak argitaratu zuenez, bere salmentak “*gogotik handitu*” ziren Algortan, “*azken hilabete hauetan, paketeroek esandakoaren arabera*”, eta “*ale gehiago ekarri behar izan dituzte jendeari saltzeko*”²⁷¹.

Jeltzale sopoloztarrei dagokienez, jada esan dugunez, ez dugu topatu irailaren 13ko altxamendu militarren aurreko asteetako albisterik. Altxamendu horren ondorioz, ikusiko dugunez, zarratu egin ziren abertzaleen egoitzak eta bertan behera gelditu zen CNVren eta EAJren lan politikoa. Estatu kolpeak amaiera eman zion nazionalismoak Sopelan izan zuen lehen etapa gorabeheratsuari, zeinak, geroagoko informazioen arabera, “*40 edo 42 jarraitzaile*” izan zituen²⁷².

1.2. Primo de Riveraren Diktadura (1923-1930)

1923ko irailaren 13an, Miguel Primo de Rivera Kataluniako kapitain jeneralak amaiera eman zion Berrezarkuntzaren sistemari, Bartzelonan emandako estatu kolpe baten bidez. Estatu kolpe horrek Alfontso XIII.a erregearen oniritzia jaso zuen, eta hurrengo egunean, jeneral kolpista direktorio militar baten buru izendatu zuten. Primo de Riverak gobernu hura aldi baterako izango zela eta hiru hilabete geroago presidentetza utziko zuela ziurtatu arren, sei urte baino gehiago eman zituen agintean²⁷³.

267 Ibid. Gai honetan sakontzeko, interesgarria da *Euzkadi* berripaperaren 1922-11-02ko alea kontsultatzea: “*Una carta y algunas consideraciones*”.

268 *Euzkadi* 1922-11-04 eta 1922-11-07.

269 *El Noticiero Bilbaíno* 1923-08-04.

270 *Euzkadi* 1923-08-17.

271 *Euzkadi* 1923-09-06.

272 *Euzkadi* 1932-09-21.

273 QUIROGA FERNÁNDEZ DE SOTO, Alejandro: *Haciendo españoles: la nacionalización de masas en la Dictadura de Primo de Rivera (1923-1930)*, Madril, Centro de Estudios Políticos y Constitucionales, 2008, 2-3 or.

Kataluniako kapitain jeneralaren kolpeak antz handia zuen Mussolinik 1922an Italian emandakoarekin. Altxamendu militarrek herrialde biek zituzten barne arazoei emandako erantzun autoritario gisa planteatu ziren, euren sistema demokratikoen krisi larria jasaten ari baitziren²⁷⁴. Italian ezarritako diktadura autoritario modernoa izan zen. Espainian ezarritako erregimena, ostera, sistema diktatorial klasikoa izan zen; Konstituzioa ezabatzea aldi baterako ekintzat hartu zen, estatuaren barne arazoei irtenbidea emateko²⁷⁵, halan zelan Espainiak Marokon zituen errebindikazio militarrei, 1917az geroztik etenbarik hazten ari ziren langile aldarrikapenei eta Kataluniako eta Euskal Herriko nazionalismoen gorakadari²⁷⁶.

Oro har, Primo de Riveraren kolpeak harrera ona izan zuen, bai estatuan, bai Euskadin. Ildo horretan, euskal hierarkia katolikoak begi onez ikusi zuen diktadura sistema bat ezartzea, talde politiko kontserbadoreak erregimen berriarekin kolaboratzera animatuko zituelako. Horrela, karlistek eta mauristek arazo barik onartu zuten egoera berria. Izan ere, azken horien kasuan, Primo de Riverak zabalduetako erregenerazionismo mezuak liluratuta zituen, bere garaian Antonio Maurak defendatu zituen planteamenduekin bat zetorrelako²⁷⁷. CNVren eta EAJren kasuan, aurrerago ikusiko dugun lez, alderdi biek euren jarduera politikoa ezabatzea erabaki zuten, eta jarduera kulturaleri eutsi zieten. Pablo, Mees eta Rodríguez Ranzek azaldu lez, Compañía Nacionalista Vascaz inaktibitate politikoaaren estrategiaren alde egin zuen, burukideek pentsatu baitzuten diktadura aldi baterako bakarrik mantenduko zela, estatuaren arazo politiko eta sozialak konpondu arte, baina, esan lez, hori ez zen horrela jazo²⁷⁸.

1.2.1. Sopelako Udala Primo de Riveraren erregimenean

Primo de Riverak bideratutako erregenerazionismoarekin bat etorritik, diktadoreak planteatutako lehen neurrietako bat estatua berrantolatzea izan zen, eta eskualdeko departamenduak sortu zituen, probintzietako jauntxoekin sareekin amaitzeko asmoz, baita *“Espainiako eskualde guztiei autonomia administratibo bera ezartzeko”* asmoz ere. Baina, handik gutxira, Primo de Riverak alde batera utzi zuen hasierako ideia hori, eta tokiko administrazioak estatua berregituratzeko, tokiko administrazioekin hastea erabaki zuen. Horrela, 1923ko irailaren 30eko Errege Dekretuaren bidez, udalak desegin zituen, eta militarren kontrolpean geratu ziren. Erabaki hori hartzeko arrazoi nagusia kazikeek udaletan zuten kontrola amaitzea izan zen. Horrela, maurista eta erregenerazionista aurrerakoien erreklamazio zaharrei erantzuten zitzaizkien; izan ere, Alejandro Quirogak dioenez, aspalditik salatzen zuten tokiko jauntxokeria, eta alderdi hori *“nazioa oinarritik biziberritzea eragozten zuen funtsezko gaia”* zela adierazi zuten²⁷⁹.

274 PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ, 149.

275 GARCÍA DE CORTAZAR, Fernando, eta MONTERO Manuel: *Historia Contemporánea del País Vasco. De las Cortes de Cádiz a nuestros días*, Donostia, Txertoa, 1995, 52.

276 PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ, 149.

277 GARCÍA DE CORTAZAR eta MONTERO, 52.

278 PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ, 149-150.

279 QUIROGA, 89-90 or.

Aipatutako Errege Dekretuan jasotako aginduari jarraikiz, urriaren 2an, Plentziako postuko Guardia Zibileko kabo komandante Evangelino Tato Sopelako udaletxean agertu zen, eta udal gobernuko taldea desegiteko eta udaleko kide elkartuek ordezkatzeko agindua irakurri zuen.

Eurek postuak bozkatu zituzten, eta udalbatza horrela osatuta geratu zen:

42. TAULA: UDALBATZA 1923/10/02 ²⁸⁰		
Kargua	Izen-deiturak	Lanbidea ²⁸¹
Alkatea	José de la Quintana Vía	Merkataria
Alkateordea	Gabriel Galbarriartu Zabala	Itsasgizona
Sindikoa	Claudio Larrondo Ibarra	Nekazaria
Sindiko ordezkoa	José Antonio Ansoleaga Arrieta	Nekazaria
Zinegotzi kontu-hartzailea	Juan Antonio Bilbao Ibargaray	Nekazaria
Zinegotzia	Lucas Galbarriartu Bilbao	Nekazaria
Zinegotzia	Pantaleón Trifol Echevarria	Pintorea

Ez dakigu José de la Quintana alkate berriak aurretik udal administrazioan esperientziarik zuen edo ez. Ikusi genuen lez, bazuen harremana politikarekin, 1912ko martxoan Sopelako Batzorde Kontserbadoreko zuzendaritzako kide izan baitzen. Lanbideari dagokionez, Quintanak ostalaritza establezimendu bat zuen, eta bertan, aurrerago ikusiko dugun lez, *Sociedad Recreativa* delakoa ezarri zen 1910eko hamarkadaren hasieran. Sopelako Udal Artxiboan gordetako gutun bati esker, jakin badakigu 1925ean Quintana familiaren zati bat Habanan (Kuba) zegoela, burdindegi baten buru²⁸². Gainerako zinegotzien kasuan, haietako bi aspaldiko ezagunak ziren udalean: Claudio Larrondo 1909an hautatu zuten zinegotzi, independente gisa. 1918ra arte egon zen udalean, 1912 eta 1918 bitartean alkateorde izan baitzen. Gabriel Galbarriarturi dagokionez, 1918 eta 1922 bitartean zinegotzia izan zen, baina ez dakigu bere filiazio politikoa zein zen. Azkenik, aipatzekoa da Pantaleón Trifol Sopelako Batzorde Kontserbadoreko presidente izan zela 1912an, baita herriko *Sociedad Recreativa*ko presidente ere, garai berean.

280 SUA 1921-1924ko Erabakien Liburua, *Udalaren eraketa-akta*, 1923-10-02.

281 B.A.O. Sopelako Hautesle Errolda, 1923.

282 SUA 1921-1924ko Erabakien Liburua. Aipatu dugun gutuna akta liburu honen orrien artean agertu zen. 1925eko apirilaren 19an Habanan datatua, Juan J. Quintanak Pascual Zalvidea udaleko idazkariari bidali zion. Goikaldean inprimatutako goiburua bat du, honako hau dioena: "*Ferretería Quintana. Ferretería, locería y efectos sanitarios. De Julián Quintana y Cº, S en Cº*". Wilson etorbideko 132. zenbakian, A 12 izkinan zegoen establezimenduak "*pinturetan, bernizetan, oheetan eta bastidoreetan eskaintza handia*" zuen, eta "*sukaldeetarako bateriak, aluminiozkoak*" egiten espezializatuta zeuden.

Korporazio berri horrek agerian utzi zuen diktadorekiko atxikimendua 1923ko urriaren 14ko osoko bilkuran, eta aho batez babestu zuen “*Direktorio Militarra, gure Espainia maitatu honen eginkizun birsortzailean egiten duen behar zirraraigarriari erantzunez, haren onerako eta aintzarako*”. Sopelako Udalak ere akordio hori baliatu zuen probintziako Aldundira batzeko, “*hura behatzen duen administrazio merezigarri eta laudagarria kontuan hartuta, Bizkaiko eta Espainiako jeneralen interesei begira*”²⁸³.

1923ko urrian eraturako udalek behin-behineko izaera zuten, udal bizitza arautuko zuen legeria berri bat egiteko zain. Misio hori José Calvo Sotelo politikari mauristak zuzendutako talde bati eman zitzaion, zeina 1924ko martxoaren 8an Direktorio Militarrek onartutako Udal Estatutua idazteaz arduratu zen²⁸⁴. Udal lege barriak ezartzen zuenez, zinegotzien erdiek korporatiboak izan behar zuten, hau da, erakunde eta elkarteetatik etorritakoak. Zinegotzien beste erdiek “*herriak hautatuak*” izan behar zuten, nahiz eta alderdi hori ez zen bete, gobernadoreek izendatu baitzituzten. Udal Estatutuaren aplikazioaren ondorioz, udal asko kargubakotu egin zituzten. Kargubakotze horien atzean helburu argi bat zegoen: Primo de Riveraren aldeko korporazioak lortzea, non bere kideak Unión Patriótica-ra afiliatuko baitziren, Erregimenaren Alderdian, hain zuzen, 1924ko apirilean estatu mailan sortua²⁸⁵, aurrerago ikusiko dugun lez.

Sopelan, Urdulizen jazo zen lez²⁸⁶, ez zen udalbatzaren kargubakotzerik izan. 1924ko apirilaren 6ko osoko bilkuran, martxoaren 28ko Errege Agindua irakurri zen, eta udalak alkateorde bakarra zuela egiaztatu ondoren, beste bat aukeratu zuen, “*Udal Estatutuaren 96. artikulua arabera*”. Kargu hori hautatzea behar-beharrezkoa zen, aipatutako legearen 39. artikulua ezartzen baitzuen udal batzorde iraunkor bat eratu behar zela, alkateak eta alkateorde bik osatua. José Antonio Ansoleaga Arrieta izendatu zuten bigarren alkateorde. Bestalde, Udal Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, 8 zinegotzik osatu behar zuten udalbatza. Ordura arte, Sopelako Udala zazpi zinegotzik osatu zuten, eta, halandaze, gobernadore zibilarri ezohiko egoeraren berri eman zioten, zer egin erabaki zezan. Udala horrela osatu zen²⁸⁷:

43. TAULA: UDALBATZA 1924-04-06	
Kargua	Izen-deiturak
Alkatea	José de la Quintana Vía
Lehen alkateordea	Gabriel Galbarriartu Zabala
Bigarren alkateordea	José Antonio Ansoleaga Arrieta
1. alkateordearen ordezkoko zinegotzia	Pantaleón Trifol Echevarría
2. alkateordearen ordezkoko zinegotzia	Claudio Larrondo Ibarra
Zinegotzia	Lucas Galbarriartu Bilbao
Zinegotzia	Juan Antonio Bilbao Ibargaray

283 SUA 1921-1924ko Erabakien Liburua, *Ohiko Bilkura*, 1923-10-14.

284 QUIROGA, 91.

285 PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ, 161. or.

286 SOMOKUETO, 339.

287 SUA 1921-1924ko Erabakien Liburua, *Udalaren osaera* 1924-04-06.

Bi hilabete geroago, ekainaren hasieran, gobernadore zibilak udalaren osaerari buruzko iritzia eman zuen. Pantaleón Trifol zinegotziak dimisioa aurkeztu zuela baliatuz, zinegotziak azaldutako arrazoiak “oso justifikatuak” zirelako onartua, zinegotzi bi berri izendatu zituen: Manuel Azcorra Retureta eta Fernando Oleaga Goirigolzarri²⁸⁸. Gogorarazi beharra dago Azcorra zinegotzi izan zela 1916tik 1918ra bitartean, eta alkateorde 1918tik 1920ra bitartean; Oleagak, ostera, ez zuen harremanik izan udal administrazioarekin ordura arte.

1926ko otsailaren 1ean, alkateak dimisioa aurkeztu zion gobernadore zibilari, “bere zeregin ugariak eta ziatikak eragindako erreumatismoa pairatzea” baliatuz. Horregatik, Quintanak azaldu zuen “ezinezkoa” zitzaiola “udal administrazioaren ardura behar den lez hartzea, Sopelako alkate gisa”; hori dela eta, “zin-zinez” erregutu zion gobernadoreari karguari uko egitea onar zezala. Alkateak honako hau kontuan hartzeko eskatu zuen: “(...) gaur egun eratuta dagoen Korporazioaren barruan, badira pertsona batzuk, euren kultura, administrazio jarrerak eta gure Espainia maiteari eta Errege-erreginei dioten maitasun handia dela eta, gaitasun handia dutenak Alkate kargua arrakastaz betetzeko”²⁸⁹. Gobernadoreak, bestalde, Quintanari adierazi zion bere korporazioko kideei dimisioaren gaiaren berri eman behar ziela, eurak “bidezkotzat” zer jotzen zuten erabaki zezaten²⁹⁰.

Jarraibide horiei jarraikiz, Quintanak dimisioa eskatu zuen otsailaren 18ko osoko bilkuran. Alkateak ostera azaldu zituen bere idazkian gobernadoreari adierazitako arrazoiak, horietan sakondu zuen, eta azpimarratu zuen “osasan faltak, batzuetan, ez diola Alkatetzari arreta ematen uzten, ezta bere merkataritzari ere, inork ez baitu ezagutzen erreumaren ondorioz zenbat sufritzen duen eta medikuak aginduta urtero bainuetxeetara jo behar izaten” zuela. Udalbatzak aho batez onartu zuen dimisioa, baina Quintanaren alde egiteagatik atsekabea agertu zuen; izan ere, horrelakoa izan zen bere jarduketa:

“(...) durante los dos años y medio que ha desempeñado el cargo de la Alcaldía ha sido acertadísima y digna de loor, que el pueblo de Sopelana, por mucho que lo haga, jamás podrá agradecer lo bastante los innumerables sacrificios que por sus propiedad y engrandecimiento ha hecho dicho Sr en el expresado tiempo”²⁹¹.

Quintanak osoko bilkura aprobetxatu zuen bere kideei eta udal idazkariari eskerrak emateko euren egitekoengatik, eta alkatetzan egindako lanaren balantze txiki bat egin zuen, “egokia eta herriaren gustukoa” zela esanez, eta egindako lan nagusiak zerrendatu zituen. Kargua utzitako alkateak bereziki nabarmendu zuen “herritarrentzako ur-horniduraren proiektua egiteko izapidetutako espedientea”²⁹²; aurrerago aztertuko dugu auzi hori.

288 SUA 1921-1929ko Udal Batzarraren Erabakien Liburua, *Ohiko Bilkura*, 1924-06-03.

289 BFAH, SOPELA 0075/032, *José de la Quintana Vía jaunak gobernadore zibilari bidalitako idazkia, Sopelako alkate karguari uko egiten ziola adierazten duena*, 1926-02-01.

290 BFAH, SOPELA 0036/001, Jasotako korrespondentzia 1926, *Gobernadore zibilaren ofizioa Sopelako alkateari*, 1926-02-06.

291 A.M.S. 1921-1929ko Udal Batzarraren Erabakien Liburua, *Ezohiko Bilkura*, 1926-02-18.

292 Ibid.

Quintanaren agurra gorabehera, kargubakotzea ez zen atoa jazo; aitzitik, ekainaren 30era arte itxaron behar izan zen, egun hartan eratu baitzen korporazio barria, Fernando Oleaga Goirigolzarri buru zuela, eta zinegotzi berri bat zuen: Isidoro Zamacona Charroalde²⁹³:

44. TAULA: UDALBATZA 1926-06-30 ²⁹⁴		
Kargua	Izen-deiturak	Lanbidea ²⁹⁵
Alkatea	Fernando Oleaga Goirigolzarri	Itsasgizona
Lehen alkateordea	Gabriel Galbarriartu Zabala	Itsasontziko makinista
Bigarren alkateordea	José Antonio Ansoleaga Arrieta	Nekazaria
1. alkateordearen ordezkotza zinegotzia	Claudio Larrondo Ibarra	Nekazaria
2. alkateordearen ordezkotza zinegotzia	Isidoro Zamacona Charroalde	Industrialaria
Zinegotzia	Lucas Galbarriartu Bilbao	Nekazaria
Zinegotzia	Juan Antonio Bilbao Ibargaray	Nekazaria
Zinegotzia	Manuel Azcorra Retureta	Nekazaria

Zamacona, Algortan jaioa, Bariko San Nikolas parrokiaren bataiatu zuten 1885eko apirilaren 6an²⁹⁶. Antonio Arechavaletaren alaba Josefina Arechavaletarekin ezkondua eta industrialaria lanbidez, 1926ko ekainean iritsi zen Sopelako udal politikara, baina ez zen izan hark alor horretan egindako lehen sartu-irtena. 1920an, Getxoko udal hauteskundeetara aurkeztu zen Areetako barrutitik, hautagai monarkiko gisa; 176 boto lortu zituen, baina ez zuen udalera sartzerik lortu²⁹⁷. Sopelan, zinegotzi izateaz gain, badakigu herriko Somateneko burua ere izan zela²⁹⁸, diktadurako indar zibil armatuarena; aurrerago egingo dugu berba horretaz.

Bere lan biografiari dagokionez, badakigu 1923ko uztailean Areetako Zamacona garajearen jabea zela. Garaje hartan “*luxuzko automobilen zerbitzu zabala*” eskaintzen zen, eta gasolina zerbitzatzen zen. Larrabasterran ere ematen zuten zerbitzu hori, eta bidoiko gasolina zuten salgai, 4 pezetako prezioan²⁹⁹. 1929an, enpresa abentura gutzit desberdin bati ekin zion: *Zamacona Cinemaren* eraikuntza eta irekiera, *Gran Cinema de Las Arenas* izenez ere ezaguna³⁰⁰.

293 BFAH, 0036/001, Jasotako korrespondentzia 1926, *Gobernadore zibilaren ofizioa Sopelako alkateari, Isidoro Zamaconaren izendapena jakinarazteko*, 1926-07-27.

294 A.M.S. 1921-1929ko Udal Batzarraren Erabakien Liburua, *Udalbatzaren eraketa* 1926-06-30.

295 B.A.O., *Bizkaiko Hautesle Errolda* 1925, 1925-12-12.

296 BEHA., 4157/001-00, Bariko San Nikolas parrokiako Bataio Liburua, Algorta (Getxo), 1882-1886.

297 *El Obrero Vasco* 1920-02-14.

298 *El Pueblo Vasco* 1927-04-26 eta 1927-05-21.

299 *El Noticiero Bilbaíno* 1923-07-19.

300 Hemendik ateratako informazioa: <http://getxosarri.blogspot.com/2011/11/cine-zamacona-gran-cinema-de-las-arenas.html> eta <http://getxosarri.blogspot.com/2015/09/el-zamacona-algo-mas-que-un-cine-de.html>

Udal bizitzara itzuliz, 1926ko abenduaren hasieran, Claudio Larrondok eta Manuel Azcorrak zinegotzi izateari uzteko dimisioa aurkeztu zuten³⁰¹, baina ez zituzten atoa ordezkatu, gobernadoreak Dionisio Osteicoechea, arotz lanetan ziharduena, eta Santiago Meré, itsasgizona, izendatu baitzituen zinegotzi berri, 1927ko apirilaren 28an. Korporazioa horrela osatu zen:

45. TAULA: UDALBATZA 1927-05-10 ³⁰²	
Kargua	Izen-deiturak
Alkatea	Fernando Oleaga Goirigolzarri
Lehen alkateordea	Gabriel Galbarriartu Zabala
Bigarren alkateordea	José Antonio Ansoleaga Arrieta
1. alkateordearen ordezko zinegotzia	Santiago Meré Saitua
2. alkateordearen ordezko zinegotzia	Isidoro Zamacona Charroalde
Zinegotzia	Lucas Galbarriartu Bilbao
Zinegotzia	Juan Antonio Bilbao Ibaragaray
Zinegotzia	Dionisio Osteicoechea Menchaca

Hori ez zen izan gobernu taldearen osaerak bizi izandako azken aldaketa, nahiz eta oraingo honetan beste arrazoi batzuegatik izan. 1929ko abenduaren 30ean, diktadura bere azken uneak bizitzen ari zenean, udalbatzak zinegotzi bi postu hutsi buruz jardun zuen. Lucas Galbarriartu zinegotzia azaroaren 10ean hil zen, eta Santiago Meré zinegotzia, ostera, “*absente*” zegoen, ez baitzekien “*non dagoen duela hilabete batzuetatik hona*”, antza denez, “*bere bizitza komertzialean izandako zorigaitzen ondorioz*”. Egoera gobernadoreari jakinarazi zitzaion³⁰³, eta urtarrilaren 16an Juan Bautista Urquiaga Ayo eta Santiago Ostolozaga Bilbao izendatu zituen zinegotzi³⁰⁴; ez dakigu euren filiazio politikoa zein zen, baina esan behar da Ostolozaga zinegotzi hautatu zutela 1922ko otsaileko hauteskundeetan. Zinegotzi berri horiek oso ibilbide laburra izan zuten udaletxean; izan ere, ikusiko dugunez, 1930eko otsailaren 26an, Primo de Riverak dimisioa eman eta gutxira, gobernu-talde berri bat eratu zen.

Udalak aldi hartan egindako administrazio lanari dagokionez, arestian aipatu dugu ur-horniduraren auzia. Obra hori urte horietan udalerrian egindako garrantzitsuena izan zen, sopoloztar udalak 1928ko amaieran egin zuen txostenean agerian geratu zen lez. Txosten horretan, 1923ko irailaren 13tik 1928ko irailaren 13ra bitartean egindako obrak eta inbertsioak jaso ziren. Hornidura lanak 1925ean egin ziren 60.000 pezetako aurrekontuarekin, eta 1926an aurrekontua handitu

301 BFAH, SOPELA 0036/001, Jasotako korrespondentzia 1926, *Gobernadore zibilarren ofizioa Sopolako alkateari, Claudio Larrondo eta Manuel Azcorra zinegotzien dimisioa onartu zuela jakinarazteko* 1926-12-07. Bi zinegotzien lanbideak 1928ko Bizkaiko Hautesle Erroldatik atera dira (B.A.O. 1929-01-31).

302 SUA, 1921-1929ko Udal Batzarraren Erabakien Liburua, *Ezohiko Bilkura* 1927-05-10.

303 SUA, 1929-1932ko Osoko Bilkurako Erabakien Liburua, *Ohiko Bilkura* 1929-12-30; eta BFAH, SOPELA 0040/002, Igorritako korrespondentzia, 1929, *Sopolako alkatearen ofizioa Bizkaiko gobernadore zibilarari, Santiago Meréri buruz jakinarazteko* 1929-09-30.

304 SUA, 1929-1932ko Osoko Bilkurako Erabakien Liburua, *Ezohiko Bilkura*, 1930-01-23.

behar izan zen, eta horretarako 55.000 pezeta inbertitu ziren. Udalaren diru kutxek ez zuten ezelango gasturik ordaindu behar izan ur-horniduraren eraikuntzan, Antonio de Arechavaleta herriko ongileak ordaindu baitzuen, oso-osorik³⁰⁵.

José de la Quintana alkateak, 1926ko otsailean, obra horren garrantzia nabarmendu zuen: *“auzotar gehienek (...) hasiera batean gauzaezina zela uste izan zuten”, eta proiektua gauzatzean “Antonio Arechavaleta jaun on eta kultuak” jokatuak papera balioetsi zuen:*

“(…) con sacrificios tan costosos y desinteresados que no ha menester enumerarlos por ser bien conocidos de todos, que gracias a su inagotable bondad se ven hoy convertidos en realidad lo que no era sino una quimera, un sueño, y que por tanto hoy al oír el nombre de D. Antonio Arechavaleta, como respeto, admiración y cariño a dicho Sr nos debíamos descubrir en su honor”³⁰⁶.

Obrak 1925eko udazkenean inauguratu zirela dirudi. Hala erabaki zen urte hartako ekainaren erdialdean, eta une horretan badakigu obrak *“oso aurreratuta”* zeudela, udalbatzak *“Sopela-bayo”*ra egindako bisitan egiaztatu zuen lez. Bertan zegoen *“herri honi laster edateko ura emango dion iturburua, haren behar handia baitu”*. *El Pueblo* Vascoko berriemaileak udaleko kideen poztasunaren berri eman zuen, *“iturri barritik xanpaina zaporea hartu zioten ur-trago bat edan ondoren”³⁰⁷.*

Aipatu dugun lez, 1926an jatorrizko proiektua zabaltzeari ekin zitzaion; izan ere, urte hartako udan, *“agorraldi betean Munarri mendian (...) kokatutako biltegi erregulatzailerak”* iristen ziren urak *“segundoko litro bateko ur emaria”* zutela egiaztatu zen. Horrela jo zen kopuru hori: *“gutxiegi, Sopelako bizilagunak behar den lez hornitzeko, biztanleriaren hazkundera kontuan hartuta, batez ere Larrabasterra auzoan, bertan ahalmen handiko etxebizitzak eraikitzen ari baitira”*. José Ballvé industria ingeniariak, 1925eko obrak eta handitze horretaz arduratu zenak, udalari ohartarazi zion ezin zela *“unean uneko beharrak betetzera mugatu”*, baizik eta epe luzerako begirada bat izan behar zuela, *“udatiarrak eta bizilagun egonkorak areagotu egingo baitira urteen poderioz”*. Hori dela eta, hornidura handitzea proposatu zion udalbatzari, *“Seyerre eta Acharaviñe iturburuetako urak”* aprobetxatuz, *“hamar urtez populazioaren hazkunde normala aurreikusteko”³⁰⁸.*

Sopelan ur-hornidura errazteko obrak egitea ez zen tokiko gertaera isolatua izan. Adibidez, Plentzian, 1925eko martxoaren hasieran, udalak *“ur-emaria handitzeko proiektua onartu zuen, hornidurarako”³⁰⁹*. Ondoko Urdulizko Elizatean, 1926an, herriko ur-hornidurarako beharrezko azpiegitura eraiki zen. Sopelan jazo zen lez, Urdulizen ere obraren gastuak ez zituen udalak ordaindu; aitzitik, *Sociedad de Aguas de Urduliz* sortu zuten hainbat herritar aberatsek, eta obrek 75.000 pezetako kostua izan zuten³¹⁰.

305 BFAH, SOPELA 0039/002, Bidalitako korrespondentzia, 1928, *Sopelako alkatearen ofizioa Bizkaiko gobernadore zibilarri*, 1928-12-10. Barne hartzen du *“udal honek egindako lanaren xehetasuna, bost urteko aldirian, 1923ko irailaren 13tik 1928ko irailaren 13ra bitartean”*, 1928-12-10.

306 SUA, 1921-1929ko Udal Batzarraren Erabakien Liburua, *Ezohiko Bilkura*, 1926-02-18.

307 *El Pueblo Vasco* 1925-06-23.

308 SUA, 1921-1929ko Udal Batzarraren Erabakien Liburua, *Ezohiko Bilkura*, 1926-08-11.

309 *El Pueblo Vasco* 1925-03-05.

310 SOMOKUETO, 344.

Sopelako Udalaren eta bere inguruko arteko harremanen kasuan, aipatzekoa da 1927 eta 1929 bitartean Plentziako Udalarekin izandako gatazka, Plentziako Guardia Zibilaren kuartel etxea mantentzeak eragindako gastuen gorakadaren ondorioz sortua, aipatutako kostaldeko hiribilduaren barruan gorputz armatua beste eraikin batera lekualdatu zelako.

Erakundeen arteko desadostasun hori ulertzeko, 1924ko apirilaren 6ra jo behar dugu. Data horretan, Sopela, Plentzia, Gorliz, Lemoiz, Barrika eta Urdulizko udalek akordio bat lortu zuten “*Guardia Zibilaren Kuartelaren eta Guardiaren eta euren familien asistentzia mediko farmazeutikoaren sostenguari laguntzeko moduari buruz*”. Ildo horretatik, Plentziako Udalak urtero gastuen % 57 bere gain hartzeko konpromisoa hartu zuen, eta Sopelakoak, oster, % 8, hau da, 65,60 pezeta urtean. 1926ko azaroaren hasieran, Plentziako Udalak 1924ko akordioa sinatutako gainerako udalei jakinarazi zien Guardia Zibila kokatuta zegoen etxearen jabeak errenta aldatu zuela etxea alokatzeagatik. Hori dela eta, Plentziako udalbatzak aurrekoaren funtzioa beteko zuen beste etxe bat aukeratu zuen, urtean alokairurako 1.800 pezetako zenbatekoarekin. Erabaki hori bakarka hartu zuen itsas hiribilduko gobernu taldeak, gainerako herriak kontuan hartu barik, eta Sopelak esleituta zeukan urteko kupoa nabarmen handitzea zekarren, aipatutako 65,60 pezetatik 144 pezetara igarotzen baitzen³¹¹.

Udalen protestak atoa iritsi ziren Plentziako Udalera, eta 1927aren hasieran, Plentziak tartean zeuden udalerriei zera eskaini zien: “*kontratu berri bat, gutxienez hogeit urteko epean ordaindu beharreko urteko kupoa*” ez zedin izan herri bakoitzak “*1925eko gastuei dagokien banaketan esleituta*” zuen kopurua baino handiagoa. Sopelako Udalak adierazi zuen proposatutako 20 urteko epea “*gehiegikeria*” zela. Urgentziatzko gaiei erantzun behar ziela eta baliabide gutxi zituela alegatuz, Sopelako udalbatzak 1927ko otsailean jakinarazi zuen ez zegoela kostaldeko hiribilduko gobernu taldearen asmoa “*onartzeko moduan*”, eta 1924ko apirilaren 6an “*sinatutako konpromisoa deuseztatzer*a” derrigortua zegoela, “*mila bederatziehun eta hogeita zazpigarren urte honetatik hasita barne*” Erabaki horrek ez zuen baztertzen Plentziako Udalarekin adiskidetasunezko akordio batera iristeko aukera. Akordio horren bidez, 1925ean ordaindutako urteko kuota bera ordainduko zen, “*ezelango konpromisorik sinatu barik*”, eta ez zen ezartzen ezelango denbora tarterik³¹².

1924ko akordioak, Julián Munsuri Sopelako Udaleko abokatuaren iritziz, ez zuen ezartzen oinarrien iraupen epea, eta, halandaze, edozein unetan berrikus zitezkeen. Bestalde, Plentziako Udalaren aldekarreko jardunak “*indar barik*” uzten zituen “*orduan hartutako konpromisoak*”. Sopelako Udalak onartutako deuseztapenaren ondorioz, Plentziakoak administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri zuen 1927ko apirilean³¹³, eta administrazio bien arteko desadostasun tirabiratsuak hasi ziren.

311 SUA, 1921-1929ko Udal Batzarraren Erabakien Liburua, *Ezohiko Bilkura*, 1927-04-19.

312 SUA, 1921-1929ko Udal Batzarraren Erabakien Liburua, *Ezohiko Bilkura* 1927-02-09 eta *Ohiko Bilkura* 1927-02-29.

313 SUA, 1921-1929ko Udal Batzarraren Erabakien Liburua, *Ezohiko Bilkura*, 1927-04-19.

1928ko apirilean, bazirudien egoera konpontzetik urrun zegoela, Sopelako alkate Fernando Oleagak Plentziakoari, Jose Olanori, helarazitako idazki batean islatu lez. Gutun horretan, Oleagak adierazi zuen Sopelako Udalak kuartelari eusten lagundu gura ez zuela zioen salaketa faltsua zela, eta akusazio hori horrela kalifikatu zuen:

“ (...) alevosa e imperdonable, y más, sabiendo como sabemos apreciar en lo que valen los meritisimos servicios que viene (sic) prestando este benemérito Cuerpo, al que siempre se le apreció aquí en muy mucho, y se le apreciará en lo sucesivo por hacerle acreedor a nuestro cariño y respeto sus buenos merecimientos”³¹⁴.

Sopelako alkateak azaldu zuenez, auzian inplikaturako udal bakar bat ere ez zen ados agertu kostaldeko hiribilduko udalaren asmoekin, hark esan arren Sopela zela Plentziako gobernu taldearen proposamenaren aurka agertu zen udalerririk bakarra. Bere idazkian, Oleagak gogorarazi zuen gobernadore zibilak esku hartu zuela gai horretan, alkate biak aipatuz, ezelango akordioak lortu barik, eta Plentziako alkateak bilera hartan izan zuen portaera azpimarratuz, Oleaga “zakarki” tratatu baitzuen “*probintziako lehen Agintaritzaren duinaren aurrean, Nagusitasun horrek bere arintasun desagokiagatik atentzioa deitu behar izan zion arte*”. Olanok erakutsitako jokabidearen ondorioz, Sopelako alkateak zera itaundu zuen: “*Hau al da zuk aipatzen duzun harmonia, arazoa konpontzeko erabili gura zenuen modu adiskidetsua?*”³¹⁵.

1928ko azaroan, Sopelako udalbatzak proposamen bat onartu zuen, “*Plentziako postuko Guardia Zibilaren Kuartelaren gai gogaikarriari amaiera emateko asmoz, eta hiribildu hartako eta Sopelako udalen artean orain arte egindako guztia ahazteko*”. Akordioak lehen aukera bat jasotzen zuen, eta bost urteko epea planteatzen zuen, Guardia Zibilaren Kuartelari eusteko gastuetan laguntzeko urteko 100 pezeta ordaintzeko konpromisoarekin. Plentziako Udalak proposamena onartuko ez balu, Sopelakoak, “*konpromiso jakin barik*”, “*gastu horiek diruz lagunduko lituzke, urtero ehun eta hemezortzi pezetarekin*”³¹⁶. Azkenik, bigarren aukera hori onetsi zuen Sopelako Udalak berak 1928ko abenduaren 15ean, eta Plentziako Udalak 1929ko urtarrilaren 31n onartu zuen, “*udalbatza bi banatzen zituzten desberdintasunei amaiera emanez*”³¹⁷.

314 BFAH, SOPELA 0039/002, Bidalitako korrespondentzia, 1928, *Sopelako alkatearen ofizioa Plentziako alkateari* 1928-04-30.

315 Ibid.

316 SUA 1921-1929ko Udal Batzarraren Erabakien Liburua, *Ezohiko Bilkura*, 1927-11-10. BFAH, SOPELA 0039/002, Bidalitako korrespondentzia, 1928, *Sopelako alkatearen ofizioa udaleko abokatu Julián Munsuriri* 1928-11-12.

317 BFAH, SOPELA 0039/002, Bidalitako korrespondentzia, 1928, *Sopelako alkatearen ofizioa Bizkaiko gobernadore zibilar* 1928-12-17; eta BFAH SOPELA 0034/002, *Jasotako korrespondentzia* 1928, *Bizkaiko gobernadore zibilaren ofizioa Sopelako alkateari*, 1929-02-01.

1.2.2. Erregimenaren erakunde politikoak: Somatena eta Unión Patriótica

Diktadura Militarrek erakunde bi nagusi ezarri zituen. Lehenik eta behin, **Somatena**, estatu mailan ezarritakoa, altxamendu militarra jazo eta gutxira. Milizia zibil hori agintari militar barrien laguntza tresna gisa eratu zen, eta haren atzean babes zitezkeen agintariek erresistentziaren bat aurkituz gero. Bestalde, 1924ko apirilean **Unión Patriótica** sortu zen, erregimen berriaren alderdi ofiziala, zeinaren helburu nagusia Diktadura finkatzea izan zen.

Somatenari dagokionez, adierazi beharra dago ez zela Primo de Riveraren erregimeneko sorkuntza izan, landaguneko milizia gisa Erdi Aroan baitzituen sustraiak. XX. mendean, Kataluniako langile mugimenduaren gorakadaren aurrean, Somatena Kataluniako hiriguneetan hedatuz joan zen, burgesiak babestuta. 1919an, Bartzelonako Somatena sortu zen, “*zaintza zibikoa, militarren begiradapean*”, eta,aldi berean, *Somatén Catalán*eko kide zen. Bartzelonako antolakundeak honako helburu hauek zituen: “*jabetza pribatua babestea, mehatxu boltxebikearen aurka borrokatzea eta greba kasuetan lantegiak eta zerbitzu publikoak martxan mantentzea*”. *Ciutat comtaleko* Somatenaren eredia estatuko beste hiri batzuetara zabaldu zen, enpresaburuek eta talde kontserbadoreek sustatuta. Agintari militarrek, bestalde, armak eta entrenamendu militarra eman zizkieten Bartzelonako Somateneko kideei, greben erpresioan erabili baitzuten. Hiri milizia honen jarduerak erabat asebetetzen zuten Primo de Rivera, eta 1919an jada Somaten Nazionala sortzearen alde agertu zen. Izan ere, 1923ko estatu kolpearen ondoren hartu zuen lehen neurrietako bat izan zen, irailaren 17ko Errege Dekretuaren bidez, Espainiako probintzia guztietan Somatena ezarri baitzuen. Hedapen horren helburua, esan lez, defentsa izan zen hasieran, “*Gobernua presiopean egonez gero, erregimenari laguntzeko gai izango zen milizia zibil bat ematea*” baitzen helburua. Baina, Alejandro Quirogak azaltzen duen lez, diktadoreak aintzat hartu zuen Somatenak “*antolakunde pedagogiko*” gisa funtzionatzea ere, hau da, “*herritartasun eskola*” gisa, non “*gizarte klase guztiak balio nazionalistetan doktrinatuko lirakeen*”³¹⁸.

Aipatutako Errege Dekretuak ezarri zuen Somatena zuzenean Armadaren kontrolpean geratzea, piramide formako egitura baten bidez antolatuz, eta egitura horren gailurrean Armadako kapitain nagusiak zeuden. Horietako bakoitzak Somateneko komandante jeneral bat izendatu behar zuen. Bestalde, eskualdeko kapitain jeneral bakoitzak erreserban zeuden ofizialen artean hautaketa bat egitea zuen eginkizun, Somateneko tokiko ordezkarietzan laguntzaile militarrek izendatzeko. Laguntzaile horien eginkizuna tokiko somatenak antolatzea izan zen, eta udalerriko bizilagun bat izendatu zuen lehenengo kabo³¹⁹.

318 QUIROGA, 265-267 or.

319 Ibid., 267. or.

Ez dakigu noiz ezarri zen Somatena Sopelan, baina 1923ko udazkenean ezarri zela uste da. Ildo horretan, Mariano Morenok, Somatenes de la Sexta eskualdeko ustekabeko komandante nagusiak, ofizio bat zuzendu zion Sopelako Udalari, Somatena eskualde horretan antolatzeko enkargua jaso zuela jakinarazteko. Horretarako, bere gutunean alkatearen eta “*udal horretako bizilagunen*” babesa eskatu zuen. Hain zuzen ere, alkateari eskatu zion bidalitako gutuna “*ahal zuen guztia*” zabaltzeko, “*gure asmoak ezagut daitezzen eta borondate oneko gizon horiek lagun gaitzaten, egintzarekin bat etor daitezzen*”³²⁰. Sopelako Somatenaren osaerari dagokionez, ez dugu horri buruzko datu askorik. Lehenago adierazi dugun lez, 1927ko udaberrian, Isidoro Zamaconak, udaleko zinegotzia baitzen 1926ko ekainetik, Somateneko tokiko kargu gorena zuen “*somatenisten kabo*” gisa³²¹. 1927ko apirilaren amaieran, Sopelako Somatena, besteak beste, honako pertsona hauek osatzen zuten:

46. TAULA: SOPELAKO SOMATENA (1927ko APIRILA)³²²

Kargua	Izen-Deiturak	Lanbidea
Kabo	Isidoro Zamacona Charroalde	Industrialaria
Somatenista	Plácido García Gutiérrez	Trenbideko Langilea
Ibíd.	Juan Bilbao Apraiz	Itsasgizona
Ibíd.	Ángel Villalabeitia Bilbao	Postaria
Ibíd.	Ambrosio Apellaniz Sáez	Maisu Nazionala

Badakigu 1929an Sopelako Somatenak 8 kide zituela guztira eta Bilbo-Erdialdeko Barrutian zegoela, eta guztira Somateneko 623 kide biltzen zituen. Hurrengo taulan Sopelatik gertu dauden udalerriei buruzko datuak bildu ditugu³²³:

47. TAULA: SOMATENA SOPELAN ETA INGURUAN (1929)

Udalerria	Somatenista kop.
Berango	8
Erandio	58
Gorliz	2
Getxo	116
Leioa	26
Plentzia	24
Sopela	8

320 SUA, SOPELA 0033/009, Jasotako korrespondentzia 1924, *Somatenen Komandantzia Nagusiaren 6. Eskualdeko komunikazioa Sopelako Udaleko alkateari (Burgos, 1923ko urriaren 9a)*.

321 BFAH, SOPELA 0041/04, Bidalitako korrespondentzia, 1927, *barruti honetako somatenisten kabo Isidoro Zamaconari*. 1927-05-14.

322 *El Pueblo Vasco* 1927-04-1927.

323 *Cinco años de Nuevo Régimen. Provincia de Vizcaya*, Bizkaiko Moldiztegi Probintziala, Bilbo, 1929, 80-81 or.

Unión Patrióticari dagokionez, esan lez, Primo de Riverak sortu zuen 1924ko apirilean, erregimenaren alderdi ofizial gisa. Hilabete horren hasieran, diktadoreak gobernu ordezkarietara agindu zien euren lurraldeetan UP antolatzeko. Handik gutxira, apirilaren 25ean, Primo de Riverak, zirkular baten bidez, gobernadoreei proposatu zien, gobernu ordezkarietara bidez, herritarrak alderdi berria antolatzerako gonbidatzea, tokiko eta probintziako batzarren bitartez³²⁴. Alejandro Quirogak adierazten duen lez, agindu horren betetze maila irregularra izan zen, eta, halandaze, abuztuan jarraibide berriak argitaratu ziren *“Espainiako probintzia guztietan UP eratzeko, eta propaganda ahalegina areagotzeko beharra azpimarratu zen”*³²⁵.

Upetisten Bulego Nagusiaren hamabostean behingo argitalpenak, *Unión Patriótica*rik, 1926ko abenduan adierazitakoari jarraituz gero, Primo de Riverak 1924ko maiatzean Bizkaian egin zuen bisita *“existitzen den Komite”* horren propaganda lanaren hasiera izan zen. Erakunde hori arduratu zen *“Kaudilloaren inspirazioak probintzia osoan zehar zabaltzeaz, arrakastak koroatutako berbaldi publikoekin, eta milaka pertsonen parte hartu zuten berbaldi horietan, geroago antolakundearen maila handituz joan zirenak”*. Horrela, *“sare hori herri guztietara hedatu zen”*³²⁶.

Bizkaiko alderdi bakarraren hedapenari buruzko kontakizun triunfalista hori alde batera utzita, badakigu Bizkaian UP osatzeko lehen bilera Gobernu Militarrean egin zela 1924ko maiatzaren 12an, Echagüe jeneralaren ekimenez. Bilera hark balio izan zuen deitutakoek batzar haren helburu nagusiari buruzko iritziak trukatzeko, behin betiko erabakiak hilabete bereko 24rako utzi baitzituzten³²⁷.

Bizkaian, UPren hastapenak ez ziren errazak izan, 1929an Primo de Riveraren diktaduraren zati handi batean Gobernadore Zibila izan zen César Ballarínek adierazi lez:

“La organización de la Unión Patriótica, tuvo, en sus comienzos, las indecisiones propias de una cosa nueva y no bien entendida, a pesar de la buena voluntad de los elementos que se pusieron a su frente; indecisiones agravadas por la fuerte organización de agrupaciones políticas que actuaban a la llegada del Directorio, y, a las que no era fácil hacer entender, que, su actuación, debía ser sustituida por otra de más amplia concepción de los deberes ciudadanos”.³²⁸

Probintziako udalerrietan tokiko batzarrak ezartzeari dagokionez, prozesua nahiko irregularra eta abiadura desberdinekoa izan zen. Ustez. Lehenik eta behin, adierazi behar dugu ez dugula informaziorik aurkitu Sopelan *Unión Patriótica*ko Tokiko Komitea eratu zeneko datari buruz. Dirudienez, udalerrri bakoitzean herritarrak

324 MARTÍNEZ SEGARRA, Rosa: *“La Unión Patriótica”, Cuadernos de la Cátedra Fadrique Furió Ceriol 1.* zk. Valentzia, 1992, 69-75 (aipua: 70. or.).

325 QUIROGA, 293.

326 *Unión Patriótica*, Hamabosteroko Buletina, Bulego Nagusiko Organoa, 1926-12-01.

327 *El Pueblo Vasco* 1924-05-13.

328 *Cinco años de Nuevo Régimen. Provincia de Vizcaya*, Bizkaiko Moldiztegi Probintziala, Bilbo, 1929, 9 (César Ballarinen hitzurrea)

Primo de Riveraren aldeko alderdiko ordezkartzetan afiliatzeko deia probintziako UP eratu ondoren jazo zen. Adibide bat jartzearen, Amorebietan, *Unión Patriótica*ko antolaketa batzordeak herritarrei dei egin zien 1924ko maiatzaren amaieran, hala gura zutenek ekainaren 15a baino lehen aurkez zezaten euren afiliazio orria³²⁹. Epe horren ostean UP ez zen atoa ezarri udalerrian, irailaren 26an izan baitzen³³⁰. Plentziaren kasuan, UPren tokiko antolakundea handik gutxira eratu zen, urriaren erdialdean. Egun horietan, El Pueblo Vasco egunkari monarkikoak Jose Olano alkateak deitutako bilera baten berri eman zuen, “*egunak igarota*”:

“(…) con el objeto de constituir la junta que ha de dirigir los trabajos de tan patriótica Unión, y que, como ya es sabido, tiende a formar no un nuevo partido político arcaico y desnaturalizado, sino a seleccionar entre los hombres de buena voluntad, los capacitados patriotas, amantes de las tradicionales glorias nacionales y entusiastas colaboradores del engrandecimiento de la patria, desligados de todo banderín o sector político, y consagrado única y exclusivamente al resurgimiento de una nueva España, prepotente, grande y esplendorosa”³³¹.

la urriaren amaieran, Plentziako kronikagileak UPko tokiko batzordeko zazpi kideen izenak eman zituen. Batzorde horretako buru Gregorio Renteria Garay izan zen³³², 1922an Liga Monarkikoaren ordezkari gisa zinegotzi aukeratua³³³. 1926ko abendu inguruan, Renteria ez zen jada tokiko buru, Pedro Ángel Mandaluniz, Armadatik erretiratutako koronela baizik³³⁴. Dirudenez, José Olano Plentziako alkatea Juan Ramón González Olaso *Unión Patriótica*ko probintzia buruaren Aholku Batzordeko kide zen. Barrikan, alkatetza eta tokiko buruzagitza pertsona desberdinek betetzen zituzten: Bernabé Hormaza zen alkatea, eta Pedro Olarra, ostera, kostaldeko elizate hartako *upetisten* presidentea. Sopela eta Urdulizen kontrakoa gertatzen zen, Fernando Oleaga eta Julián Llona alkateak, hurrenez hurren, *Unión Patriótica*ko tokiko buru ere baitziren³³⁵. 1929ko otsailean, Oleaga ez zen jada Sopelako UPko buru, baizik eta kargu hori “*Artaza jaunak*” zuen³³⁶, seguruenik Agustin Artaza zinegotzi ohiak. Ez dakigu noiz aukeratu zuten tokiko buru, baina Plentzian UP berrantolatzekeo datari erreparatuz gero, Sopelako batzorde *upetista* berria 1927ko irailean aukeratuko zen, edo, gutxienez, urte hartako udazkenean³³⁷.

329 *El Pueblo Vasco* 1924-05-29.

330 *El Pueblo Vasco* 1924-09-27. Amorebietatik bidalitako kronikan jaso zenez, herriko Unión Patriótíacak 977 afiliatu zituen sortu zenean.

331 *El Pueblo Vasco* 1924-10-11.

332 *El Pueblo Vasco* 1924-10-25. Plentziako *Unión Patriótica*ko komiteko gainerako kideak honako hauek izan ziren: Victoriano Bilbao Fullaondo, idazkari; eta bokalak: Ignacio Aramburu Mendieta, José Elortegui Bilbao, Francisco Uribarri Bilbao, Casimiro Nafarrate Arrieta eta Fermín Gorordo Ugarte.

333 *El Noticiero Bilbaíno* 1922-02-01.

334 1924-04-25ean *El Pueblo Vasco* egunkarian argitaratutako Plentziako kronikatik ateratako datua.

335 *Unión Patriótica*, Hamabosteroko Buletina, Bulego Nagusiko Organoa, 1926-12-01.

336 *El Pueblo Vasco* 1929-02-21.

337 *El Pueblo Vasco* 1927-09-07. Plentziako UPko batzordearen buru Angel Mandaluniz izan zen, eta aholkulari gisa Ignacio Aramburu, Victoriano Bilbao eta José Elortegui izan zituen.

Ordurako, Primo de Riveraren erregimeneko alderdi ofiziala “*Espainiako probintzia guztietan*” finkatuta zegoen³³⁸. Baieztapen hori indartuz, esan beharra dago *Unión Patriótica* argitalpenak bere orrietan jaso zuela alderdiaren filial bizkaitarra “*behar den lez hornituta eta zuzenduta*” zegoela, eta froga gisa Bizkaiko udalerrri guztietako tokiko buruen zerrenda bat erakutsi zuela. Are gehiago, zera aldarrikatzea ausartu ziren: “*probintzia honetan ez da elkarte politikorik egon antolakunde horrek duen garrantzi eta autoritatearekin, haren masa joera askotariko elementuek osatzen baitute, eta, hala ere, alderdiaren diziplinari modu eredugarrian erantzuten baitiote*”. Zalantza barik, baieztapen hori propaganda argiko helburu baten ondorio zen, eta amaieran nabarmentzen zen harrotasuna sentitzen zutela: “*auzorik urrunenean ere Unión Patriótica-ko Batzorde bat dabilela ikustea, eta batzar horretan biltzen direla afiliatuak*”³³⁹.

Ez dugu Sopolako *Unión Patriótica* izan zuen afiliatu kopuruari buruzko daturik. Plentziako kasura joz gero, ez dugu ezelango informaziorik aurkitu *Unión Patriótica*ren lerroak zenbat herritarrek osatu zituzten jakiteko. 1930eko hasieran, *Unión Patriótica* egunkarian, zifrarik eman barik, honako hau adierazi zen: “*Plentziako Unión Patriótica herri hartan egundo elkartu ez zen kopuruko talde bat du*”. Data horietan bertan, Mungiako filialak³⁴⁰ “*afiliatu kopuru errespetagarria*” zuela adierazi zen³⁴¹. Egia esan, tentuz jaso behar ditugu informazio horiek, lehenik eta behin, haietan afiliatu kopururik ez dagoelako; eta, bigarrenik, adierazpen horiek, ohi lez, propaganda helburu argia izango luketelako, alferrikakoa, argi eta garbi; izan ere, garai hartan, diktadura eta haren egiturak deskonposizio prozesu geldiezin batean sartuta zeuden. Erregimen diktatorialaren “*krisi terminal*” hura, Alejandro Quirogak definitzen duen lez, oso nabarmena izan zen “*1929ko abendu inguruan*”, eta *Unión Patriótica*ko estatu mailako afiliatu askok bertan behera utzi zuten “*ezinbestean hondoa jotzeaz zegoen itsasontzia*”. 1930eko urtarrilaren amaieran diktadoreak dimisioa eman zuenean etorri zen grazia kolpea³⁴².

Oro har, Estatu osoan, *Unión Patriótica*ren lerroak, lehenik eta behin, klase ertain eta ertain-baxuetako erakunde katolikoetako afiliatuak izan ziren. Bigarrenik, alderdi ofizialeko kide izan ziren estatu eta udal mailako funtzionarioak. Azkenik, hasierako mesfidantzak gorabehera, “*jauntxo zaharren kontrolpean zeuden gizabanako ugari*” upetisten lerroetan sartzea baimendu zen³⁴³.

Bizkaiari dagokionez, badakigu, adibidez, Gernikako Barrutian *Unión Patriótica*ko kide gehienak monarkiko independenteak zirela edo Liga Monarkikotik zetozela³⁴⁴. Handik gertu, Plentzian, aurreko lerroetan esan lez, Gregorio Renteria

338 MARTÍNEZ SEGARRA, 71.

339 *Unión Patriótica*, Hamabosteroko Buletina, Bulego Nagusiko Organoa, 1926-12-01.

340 Mungiako Unión Patriótica 1927ko uztailan inauguratu zituen bere lokalak (*Unión Patriótica*, Hamabosteroko Buletina, Bulego Nagusiko Organoa, 1927-07-15).

341 *Unión Patriótica*, Hamabosteroko Buletina, Bulego Nagusiko Organoa, 1930-01-01.

342 QUIROGA, 318.

343 *Ibid.* 294. or.

344 PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ, 167 or.

monarkikoa izan zen udalerriko UPren presidentea. Sopelako UPko afiliatuen jatorri ideologikoari eta maila sozialari dagokionez, oso informazio gutxi dugu, eta informazio hori guztia Gerra Zibilaren amaieran igorritako dokumentuetan jasotzen da, eta, halandaze, zuhurtasun apur batekin tratatu behar dugu. Aurkitu ditugun hiru kasuak funtzionario publikoei dagozkie: Pascual Zalvidea udal idazkaria, Ángel Villalabeitia Bilbao postaria eta Juan Bilbao Apraiz udaleko ariel zaindaria. Zalvideak 1937ko irailean adierazi zuen Primo de Riveraren diktadura garaian Unión Patrióticako kide izan zela³⁴⁵. Villalabeitiaren kasuan, alkateak 1937ko abuztuan jakinarazi zuenez, UPko eta Somaten Armatuko kide izan zen³⁴⁶. Gauza bera jazo zen Juan Bilbaorekin³⁴⁷. Ez litzateke zentzugabea izango pentsatzea hiru bizilagun horiek Primo de Riveraren aldeko erakunde politiko horietan derrigorrez sartu izana, funtzionario publikoak zirelako.

Egia esan, alderdi gehienek euren kideei erregimenaren alderdian afiliatzen utzi zieten, edo horretarako erabakia hartzeko askatasuna eman zieten. *Comuni6n Nacionalista Vascak*, aurrerago ikusiko dugun lez, ez zuen horri buruzko iritzirik eman, baina Pablo, Mees eta Rodríguez Ranzek dioten lez, zenbait nazionalista Erregimenaren antolakunde politikoan sartu ziren, baina zaila da gutxi gorabeherako kopuru bat zehaztea³⁴⁸.

1.2.3. Errepresio politikoa: euskal nazionalismoaren kasua

Ikusi genuen lez, Errestaurazioaren garaian ekitean, euskal nazionalismoak Sopelan tokiko egitura bat ezartzea lortu zuen 1920an, eta urte berean herriko alkatetza eskuratzea lortu zuen. Adierazi dugun lez, eta eskura dugun dokumentazioari helduta, badirudi CNV izan zela Primo de Riveraren diktaduraren aurretik herrian eratu zen alderdi politiko bakarra. Horregatik, komenigarritzat jo dugu antolakunde jeltzaleak Sopelan jasan zuen errepresioa lantzea. Ohartarazi behar dugu ez dugula horri buruzko informazio askorik, eta, halandaze, gai hori osatzeko, diktadura garaian Plentzian abertzaleekin jazotakoa aztertu dugu.

Diktaduraren etorrerak hasieratik geldiarazi zuen euskal nazionalismoaren bizitza politikoa, eta gogora dezagun alderdi bietan banatuta zegoela: CNV eta EAJ. Erakunde bietatik, Comuni6n izan zen bere jarduera politikoaren amaiera modu publikoan bizkorren onartu zuena, irailaren 16an, *Euzkadi* berripaperaren bidez. Alderdi nazionalistaren jarrera argi hori estatu kolpearen ondoren ezarritako erregimenari buruz buruzagiek egin zuten diagnostikoaren erantzuna zen: Comuni6n-eko arduradun gorenak uste zuten Diktadura egoera iragankorra izango zela, Estatuaren barneko eta kanpoko arazoei irtenbidea ematen zitzaien bitartean. Teoria horri jarraikiz, behin konpondu ondoren, Primo de Riveraren

345 BFAH, SOPELA 0075/003, *Sopelako Udaleko Depurazio Batzordeak izapidetutako espedientea, Pascual Zalvidearen 1937-09-10eko Deklarazioa*.

346 BFAH, SOPELA 0043/004, Bidalitako korrespondentzia, 1937, *Sopelako alkatearen ofizioa Getxoko teniente koronel komandante militarri 1937-08-24an*.

347 BFAH, SOPELA 0075/003, *Sopelako Udaleko Depurazio Batzordeak izapidetutako espedientea, 1937-09-10*.

348 Ibid. 166. or.

erregimena beste gobernu modu batek ordezkatu zuen, baina badakigu hori ez zela jazo. Direktorioaren hasieran, bazirudien Primo de Riverari “*erregionalismo osasuntsua*” deitu ziona gustatzen zitzaioa, baina laster ikusi zen jeneral kolpistak aplikatutako politikak erregionalismo horren aurkakoak izan zirela. Esan beharrik ez dago Direktorioko presidentek “*separatismo*” izendatutakoa Espainiako politika biziberritzeko plana gauzatzeko ezabatu beharreko arazo nagusietako bat zela uste zuela³⁴⁹.

Hori argi eta garbi geratu zen kolpea eman eta bost egunera, Direktorio Militarrek “*separatismoaren aurkako Errege Dekretua*” argitaratu zuenean, “*nazionalismo periferikoaren birusa premiaz eta larriki konpontzeko*” helburuarekin³⁵⁰. Javier Moreno Luzónek adierazi lez, Errege Dekretu honek Primo de Riveraren erabakiari erantzuten zion, “*98ko Hondamenditik hainbeste ahotsek eskatzen zituzten nazionalizazio politikak abiada bizian*” ezartzeko³⁵¹. Horrela, adibidez, gaztelaniaren derrigortasuna ezarri zen ekitaldi publikoetan, eta udalek eta probintzia erakundeek emandako erregistroetan. Bestalde, Espainiako bandera eraikin publikoetan erakustea derrigorrezkoa bihurtu zen, eta, aldi berean, tokiko eta eskualdeko intsigniak jartzea debekatu zen. Gauza bera jazo zitzairen euskal, katalan eta galiziar banderei “*bilera publikoetan eta jabetza pribatuetan*”, “*Espainiaren aurkako*” gisa katalogatu baitzen³⁵².

Legedi berriaren azken alderdi hau atoa aplikatu zen Bizkaiko probintzian: irailaren 24an, gobernadore zibilak debekatu egin zuen “*joera bereko Batzoki eta Zentroetan eta bere afiliatuek ospatzen dituzten txango eta jaietan erakutsi ohi izan diren banderak eta zintzilikarioak*” erakustea³⁵³. Debeku hori, Alejandro Quirogak adierazten duen lez, “*nazionalismo periferiko eta erregionalistei euren ikur eta propaganda kentzetik*” haratago zihoan, “*esparru publikoan espainiar nazionalismoari sinboloen monopolioa*” ematen baitzion³⁵⁴.

Diktadurak martxan jarritako errepresioak egoitza nazionalistei ere eragin zien, eta horietako asko zarratu egin zituzten. Sopolako Batzokia geratu zen egoerari dagokionez, *Euzkadi* berripaperean 1932ko irailean herriko abertzaletasunari buruz argitaratutako artikuluko batean emandako informazioa baino ez dugu. Idatzi horretan, zera ziurtatu zen: “*Batzokia diktadurak zarratu zuen, eta José de Loroño jaunaren aurkako jazarpen sutua hasi zen*”; Loroño Sopolako nazionalismoaren

349 PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ, 149-150 or.

350 QUIROGA, 96. or.

351 VILLARES, Ramón eta MORENO LUZÓN, Javier: *Restauración y Dictadura*, 7. liburukia, in: FONTANA, Josep eta VILLARES, Ramón (Zuzendariak): *Historia de España*, Madril, Marcial Pons Ediciones, 2009, 528. or.

352 QUIROGA, 96-97 or.

353 PAH, 411 karpeta, 1. zk. “*1923ko iraileko ofizioen kopiak*”, Plentziako jarduneko alkatearen jakinarazpena Bizkaiko Gobernadore Zibilar, irailaren 24ko 214. zenbakiko Aldizkari Ofizialean (1923-09-25) txertatutako Zirkularren berri emanez.

354 QUIROGA, 97. or.

figura nabarmena zen, eta, gogora dezagun, jeltzaleen egoitza han zegoen. Artikuluak dienez, Loroñoren etxea *“hainbat aldiz bisitatu zuten guardiek, eta behin atxilotu, eskuak lotu eta Larrinagako espetxera eroan zuten”*³⁵⁵. Ez dugu informazio hori osatzen duen dokumenturik aurkitu.

Plentziako Batzokiaren kasuan, gogoratu behar dugu kostaldeko hiribilduko nazionalistek 1923ko abuztuaren hasieran beren egoitza berria inauguratu zutela xede horretarako berariaz eraikitako eraikin batean. Denbora gutxian erabili ahal izan zuten. Azaroaren 29an, Bizkaiko gobernadore militarrek herriko Guardia Zibilaren postuko komandanteari agindu zion egoitza zarratu eta desegiteko, egun horretako goizeko 8etan³⁵⁶. Ixte hori, beste zentro nazionalista batzuen lez, ez zen oso eraginkorra izan. Ildo horretan, Durangoko Guardia Zibilak, 1924aren hasieran, agintari militarren aurrean salatu zuenez, *“legez kanpoko funtzionamenduetatik eta Espainiarekiko desamodio jardueretatik berriki zarratutako batzoki askok irekita jarraitzen zuten, eta jolas elkarte gisa agertzen ziren”*. Ziur aski, Plentziako Batzokiak irekita jarraitu zuen arrazoi berdinegatik, eta, halandaze, 1924ko urtarrilaren 6an, *“goragoko aginduak betez”*, Evangelino Tatok, *“postu horretako Guardia Zibilaren komandante jeloskorrak (...) herri honetako batzokia desegin zuten”*³⁵⁷. *El Noticiero Bilbaínok* informazio hori zehaztu zuen, eta honako hau azaldu zuen: *“Batzokiko bazkideek (...) postuko komandante-kaboaren lehendakaritzapean egindako batzarrean, hura desegitea erabaki zen, eta, horretarako, izakin guztiak hustu ziren lokaletatik, eta, Horrela, goiko agindua bete zen”*³⁵⁸.

José Loroñoren jatetxeari dagokionez, hark, 1923ko abenduaren 31n, bizi zen eraikinean zuen jatetxeari baja eman zion, Moreaga kaleko 63. zenbakian. Ziurtasun osoz, ostalaritza lokala zarratzeko arrazoia Sopolako Batzokia desegin izana zen; izan ere, aipatu dugun lez, establezimendu horretan zegoen, eta, dirudienez, ez zituen ateak berriro ireki. Negozio hori zarratu ondoren, Loroñok alor berean jarraitu zuen lanean, 1924ko ekainaren 1etik azaroaren 1era arte Sopolako hondartzan edari postu baten buru izan baitzen. Hala ere, 1925ean, urte hartako Hautesle Erroldari erreparatu gero, Loroño ez zen dagoeneko merkataria gisa agertzen, *“salerosle”* gisa baizik. Ezin dugu ziurtasunez esan zeri egiten zion erreferentzia lan okupazio horrek, baina baliteke obra publikoen kontratistaren ofizioa izatea, 1922an jada dedikazio hori izan baitzuen, edo, bestela, ganaduaren salmentari buruz berba egitea. Edozelan ere, 1925eko jarduera profesional bera zuen 1928ko Hautesle Erroldan³⁵⁹.

355 *Euzkadi* 1932-09-21 *“Unas notas sobre el movimiento nacionalista en Sopelana”*.

356 PAH, 411 karpeta, 2. zk. *“1923, Agintari Militarren Korrespondentzia”*, Plentziako Guardia Zibilaren postuko komandantearen jakinarazpena hiriko alkateari, 1923-11-28.

357 *El Pueblo Vasco* 1924-01-09. *“Batzokis clausurados”*; eta *“Crónica postal”* 1924-01-07an Plentziatik bidalia. Plentziako Batzokia zarratu baino egun batzuk lehenago, Evangelino Tatok Gorliz eta Lemoizkoak desegin zituen.

358 *El Noticiero Bilbaíno* 1924-01-16 *“Desde Plencia”*.

359 BFAH, SOPELA 0053/029, *1922ko kontribuzio industrial*a, SOPELA 0053/030, *1923ko kontribuzio industrial*a, eta SOPELA 0053/031, *1924ko kontribuzio industrial*a. 1925eko *Bizkaiko Hautesle Errolda* (BAO 1925-12-12); eta 1928ko *Bizkaiko Hautesle Errolda* (BAO 1929-01-31).

Plentziako Batzokiaren kasuan, agintariak oso zorrotzak izan ziren eraikinaren balizko erabilerari dagokionez. 1924ko otsailaren erdialdean, nazionalisten egoitza behin betiko zarratu eta denbora gutxira, Bibiana Gorordo Artaduyk, herriko bizilagunak, baimena eskatu zion udalari lehen “*Euzkotar-Batzokija*” elkarteak betetzen zuen lokalean kafe zerbitzu bat ezartzeko”, billarra ere izango zuena. José Olano alkateak, “*aipatutako lokala ixteko izan ziren inguruabar bereziak zirela eta*”, Gorordoren eskaeraren berri eman zion gobernadore zibilarari. Gobernadoreak, “*Guardia Zibilaren Institutu Benemertuak egindako txostena ikusita*”, kafetegia irekitzeko eskaera ezestea erabaki zuen³⁶⁰.

Egoera desberdina bizi izan zen 1925eko azaroan. Lehentxeago, urriaren erdialdean, Plentziako *Sociedad Deportiva* eratu zen. Elkarre horrek, sortu zenean, 200 bazkide baino gehiago zituen izena emanda, eta “*kirolaren arlo guztiak*” bere baitan hartzeko asmoz jaio zen. Kirol antolakundea “*batzokiko lokaletan jarri zen, gobernuaren aginduz zarratuta baitzegoen*”. *El Pueblo Vasco*k nabarmendu zuen, antolakundea ofizialki irekitzeko, “*eraikineko balkoietan bandera nazionalak eta klubaren banderak jartzeko lanak*” amaitzen ari zirela. Laurentino Zamora berriemaile eta herriko eskoletako maisuak Elkarrearen inaugurazioari buruzko artikuluan azpimarratu zuenez, “*bandera nazionala eta klubarena balkoi nagusian distiratsu zebiltzan kulunkan*”³⁶¹. Zalantza barik, Espainiako bandera bertako euskal nazionalismoaren ikur zen eraikin hartako buru izatea erregimenaren agintarien asmoen adierazpen bat zen, eta, gainera, ez zegoen Plentziako jeltzaleen aurkako nolabaiteko umiliazio zamatik salbuetsita.

Esan lez, euskal nazionalismoak, bere jardura politikoa etenda zuenez, kulturaren, erlijioaren, jolasaren eta kirolaren esparruetan babestea erabaki zuen. Kultur arloan, Santa Agata egunean koruak kantatzera ateratzea nazionalismoarekin lot dezakegu, baina ez harekin bakarrik. Adibidez, 1924an, Plentziako antolakunde jeltzalearen idazkari izandako Julian Ugarte Arrartek baimena eskatu zion alkatetzari egun horretako kantu tradizionalak abestera ateratzeko, alde aurretik koru bat osatu ondoren³⁶². Hurrengo urtean, Ugartek berriro eskatu zion baimena alkateari, *Euzkeltzalia* izen esanguratsuekin bataiatutako koru baten orde, eta badakigu 1926an atera zirela kantatzera³⁶³. Santa Agata egunaren tradizioa oso herrikoia eta finkatua izan arren, agintariei ez zien ihes egiten egun horrek euskal abertzaleentzat zuen esangurak. Horrek bakarrik azal dezake, urte hartako otsailean, Plentziako alkateak, Santa Agata egunean abesbatza bat kantatzera ateratzeko baimena ematean, bere oniritzia eman izana, “*betiere abestiek Aberria, Bandera, Erakundeak edo morala gutxien ez badituzte*”³⁶⁴.

360 PAH, 413 karpeta, 1. zk. “1924ko otsaileko ofizioen kopiak”, Plentziako alkatearen jakinarazpena Bizkaiko probintziako gobernadore zibiko-militarrari, 1924-02-21; eta 413 karpeta, 5. zk. “1924. urtea – Gobernu Zibiletik jasotako korrespondentzia. Hornidura Batzarra. Herri Lanak”, Bizkaiko Gobernadore Zibilar Plentziako alkateari 1924-03-18an egindako jakinarazpena.

361 *El Pueblo Vasco* 1925-10-14, 1925-11-22, 1925-11-25 eta 1925-12-04.

362 PAH, 413 karpeta, 7.1. zk. “1924 – Lehen seiñilekoa. Instantziak”, Julián Ugarte Arrartek 1924-01-29an eta 1924-02-04an aurkeztutako instantziak.

363 *El Pueblo Vasco* 1925-02-05 eta 1926-02-05.

364 PAH, 417 karpeta, 1.2. zk., “1926. urteko otsailean egindako ofizioen kopiak”, Plentziako alkateak Nicolás Unibasori egindako ofizioa, 1926-02-04.

Sopelan, eskatzaileen izenak ezagutzen ez ditugun arren, eta, halandaze, euren filiazio politikoa ere ez, badakigu 1924an “gazte talde batek” alkatetzari baimena eskatu ziola “*ohitura tradizionalaren arabera, herrian zehar ibiltzeko, Santa Agatari buruzko kantuak abestuz*”³⁶⁵. Ekitaldi erlijiosoen kasuan, Sopelan eta inguruko udalerrietan, halan zelan Urduliz, Barrika edo Plentzian, Sabino Aranaren heriotzaren urteurreneko mezak egin ziren, bai 1928an, bai 1929an³⁶⁶.

Aurrerago ikusiko dugun lez, abertzaletasunaren aktibitate politikorik ez zuen garai horrek CNV eta EAJren arteko harremanak lasaitzea ahalbidetu zuen, eta horrela, 1930eko azaroan, Bergarako Batzarrean alderdi biak batu ziren EAJ siglen pean.

1.2.4. Diktadurari atxikitzeko ekintzak

Ikusi dugunez, oso datu gutxi ditugu Somatenak eta *Unión Patriótica*k Sopelan izandako osaera eta jardueri buruz. Aldiz, diktaduraren ezaugarrietako bati buruzko informazio dezente daukagu: sinbolo patriotikoak sustatzea eta Erregimenari atxikitzeko hainbat ekintza ugaritzea, herritarren artean abertzaletasuna sustatzea eta berrestea helburu.

Bere agintaldian zehar, Primo de Riverak, bere figura sustatzeko asmoz, Estatu osoan zehar etengabe birak egiteari ekin zion, 1924ko maiatzaren hasieran Bizkaira egin zuen bisita, esaterako, eta badirudi *Unión Patriótica*ren probintzia ordezkaritza sortzeko pizgarria izan zela. Diktadorearen bidaia hartan programatutako jardueretako bat Uribe Kostan izan zen: Gorlizko erietxera bisita maiatzaren 2an. Ez dakigu presidentearen segizioa Sopolatik igaro ote zen ospitaleraino. Halaber, ez dakigu herria zehartzen zuen errepidetik Primo de Rivera igarotzean bat egiteko ekitaldiren bat antolatu ote zen. Plentziaren kasuan, badakigu tokiko agintariak, Direktorio Militarreko presidenteari Gorlizeko bidaian hiribildutik igaro behar zuela jakin zutenean, mobilizatu egin zirela harrera egiteko. Horrela, maiatzaren 2ko arrastiko seietan diktadorea Plentziara iritsi zenean, tokiko agintariak haren zain zeuden, Jose Olano alkatea buru zutela, Udal Bandak Errege Martxa jotzen zuen bitartean. Hiribilduko indar biziez gain, *El Pueblo Vasco* egunkariko berriemaileak azaldu zuenez, “*jende asko bildu zen, Direktorioko burua ezagutzeko irrikaz, Ontziolako Plaza ederrean, kasinoaren inguruan eta udaletxearen inguruan*”. Azpimarratzekoa da bildutako udal indarren artean *Unión Patriótica*ko etorkizuneko tokiko buruetako bat zegoela, Pedro Ángel de Mandaluniz, “*erretiratutako koronel beteranoa*”, Primo de Riverak “*oso adeitsu*” agurtu zuena. *La Gaceta del Norte*k argitaratu zuen kontakizunari jarraikiz, jeneral kolpistaren agurraren uneak aberriaren gorazarrea piztu zuen, “*alkate jaunak ‘gora Espainia!’ bat bota zuen, eta bero-bero erantzuna izan zen*”, eta haren ondoren etorri ziren txaloak. Hala ere, une gailena Laurentino Zamora Eskola Nazionalerako haur maisuak izan zuen, zera oihukatu baitzuen: “*Gora Espainiako Mussolini handia, Aberriaren salbamenerako probidentziak sortua*”, entzuleek amorruta gogo biziz erantzuten zutelarik. Primo

365 *El Pueblo Vasco* 1924-02-05.

366 *Euzkadi* 1928-11-25 eta 1929-11-24.

de Riverak, “inguruan zeuden haur batzuk laztandu bitartean”, horrela erantzun zion Zamora irakasleari: “Ez hainbeste, ez hainbeste; hauek egingo dute Espainia handi eta distiratsu”. Gorlizko Erietxera abiatu baino lehen, diktadoreak oraindik denbora izan zuen “haren bereizgarri ziren adeitasunez eta gizabideaz, plentziar emakume politen talde esaldi ederrak” esateko, “eta joan egin zen, egin zioten harrerarekin oso pozik”³⁶⁷.

Diktaduraren lehen garaietatik, ikur patriotikoen erakusketa sustatu zen, halan zelan bandera eta *Errege Martxa*. Adibidez, *El Pueblo Vasco*ko tokiko berriemaileak Sopolako alkatea zoriondu zuen “1924ko urtarrilaren 1ean gure udaletxean Espainiako bandera altxatzeko bere ekimen patriotikoagatik”, adieraziz “aspaldi ez genuela altxatua ikusten”³⁶⁸. Ildo horretatik, 1924ko maiatzean, udalbatzak, San Pedro jaietarako Musika Banda bat kontratatzearen gaia jorratzean, besteak beste, erabaki zuen San Pedro parrokiako Meza Nagusian “sagaratzearekin batera benetako martxa jotzea”³⁶⁹.

Diktadurako erregimenaren helburuak ere indarrez sartu ziren lehen hezkuntzan, ekintza patriotikoak sustatu baitzituen eskoletan, eta diktadurak babestutako zeremonia patriotikoetan parte hartu zuten ikasleek. Alejandro Quirogak azaltzen duen lez, ikasleek horrelako ekitaldietan eta eskoletan antolatutako ekitaldietan parte hartzeak helburu zuen haurrei “nazioari, erregimenari eta liderrari buruz” irakastea³⁷⁰. Premisa horri jarraikiz, Sopolako Eskoletako ikasleek oso modu aktiboan parte hartu behar izan zuten hainbat ekitaldi patriotikotan. Adibidez, 1927ko maiatzaren 17an Alfontso XIII.aren koroatzearen 25. urteurrena ospatzeko sexu bietako ikasleek presentzia nabarmena izan zuten Udaletxe Plazan erregearen izena zuen plaka inauguratu zenean. *El Pueblo Vasco* egunkarian jaso zenez, “sexu bietako haurrek garrantzi handia eman zioten zeremonia honi (euren irakasle duinaren aurrean), *Errege Martxa* behin eta barriz kantatuz, oso txalotuak izan zirelarik”. Gainera, “*Juanita Ansoleaga* neskatoak ekitaldiari buruzko zenbait bertso errezitatu zituen, eta oso txalotuak izan ziren”³⁷¹. Sopolako ikastetxeetako haurrak horrelako ekitaldietara joateaz gain, beste ekitaldi penagarriagoetara ere joan behar izan zuten, 1929ko otsailaren 16an jazo zen lez. Egun horretan, San Pedro parrokian egindako Maria Cristina erreginaren hileta elizkizunetan izan ziren, Eskoletako maisuarekin eta maistrarekin batera³⁷².

Sopolako eskoletan bertan egin ziren ekitaldien kasuan, informazio berantiarra dugu, 1929ko urrian egindako “*Liburuaren Jaia*” izenekoari egiten baitio erreferentzia. Ekitaldi hori 1926ko otsailaren 6ko Errege Dekretuaren bidez ezarri zen, Cervantes jaio zen egunean, urriaren 7an, egin behar zela ezartzen baitzuen. Dekretuaren aginduari jarraikiz, gutxienez ordubete erabili behar zen lehen hezkuntzako eskoletan ikasleei “*liburuek kulturaren, zibilizazioaren eta aberastasunaren tresna*

367 *La Gaceta del Norte* 1924-05-03, eta *El Pueblo Vasco* 1924-05-03.

368 *El Pueblo Vasco* 1924-01-04.

369 SUA, 1921-1924ko Akta Liburua, 1924-05-10eko *Bilkura Arrunta*.

370 QUIROGA, 211.

371 *El Pueblo Vasco* 1927-05-21.

372 BFAH, SOPELA 0040/002, Igorritako korrespondentzia 1929, Sopolako alkateak Gobernadore Zibilari helarazitako ofizioa 1929-02-16, eta *El Pueblo Vasco* 1929-02-21.

gisa duten garrantziaz” berba egiteko. Jai hori Gobernuaren planen arabera antolatzeko ezarritako premisetako bat zen udalek euren aurrekontuko partida bat herri liburutegietarako eta baliabiderik ez zuten haurrentzako liburuak erosteko erabili behar zutela. Alejandro Quirogak dioen lez, “*liburutegien sustapenak eta liburu dohaintzek ideia erregenerazionistari erantzuten zioten, hots, pertsona askoren hezkuntza patriotikoak nazioa bere osotasunean indartzen zuelako ideiarri*”. Horrez gain, urriaren 7ko ospakizunak gaztelania goraiatzea zuen helburu³⁷³. Lehen esan lez, Sopelako eskoletan 1929ko edizioan ospatutako jaiari buruzko zenbait datu ditugu. Ekitaldia “*erabat atsegina*” izan zen alkatearen ustez, eta udalak “*espainiar autore onenen liburu desberdinak, 90,40 pezetako baliodunak, dohaintzan eman zituen, horietako bakoitzean liburutegi txiki bat osatuz joateko, aginduta dagoen lez*”³⁷⁴. Litekeena da zeremonia honetan zehar *El Quijote*ko eta beste lan batzuetako paragrafoak irakurtzea, Plentziako eskoletan jazo zen lez, non, gainera, “*haurrei liburuaren mekanismo materiala azaldu baitzitzaizen, haren prestaketa eta erabilgarritasuna, inprentaren asmakuntzak gizateriari kultura eta aberastasunaren eta ongizatearen iturburu etengabea zabaltzeko bide gisa ekarri ziona*”³⁷⁵.

Estatuko sinbolo nagusien presentziari dagokionez, 1894ko maiatzaren 30eko Sustapen Ministerioaren Errege Aginduak arautzen zuen. Agindu horren arabera, “*ezkutu nazionala lokalen fatxadan jarri behar da, eta haurren eskola edo irakaskuntza orduetan bandera jarri behar da*”. Kolpe militarra jazo baino hilabete batzuk lehenago, zehazki 1923ko martxoaren erdialdean, Bizkaiko Lehen Hezkuntzako errege ordezkariak probintziako udalei 1894ko aginduaren indarraldia gogorarazi zien. Sopelan, armarría, bandera eta haren makila “*erabat narriatuta*” zeudela ikusita, udalak aho batez erabaki zuen berriak erostea “*haurren eskolaren kanpoaldean jartzeko, sarrerako atearen gainean*”³⁷⁶. Halandaze, Primo de Riveraren diktadura iritsi zenean, Sopelako Eskolek ezaugarri patriotiko berriak zituzten. Ez dugu informaziorik aurkitu herriko eskola instalazioetan Espainiako bandera ondartzeko ekitaldiei buruz, baina litekeena da ekitaldi horiek egin izana. Horien adibide bat Laukizko eskolan egin zen “*jai patriotikoan*” aurki dezakegu, 1924ko maiatzaren 2ko oroitzapenean, “*independentziako martirien oroimena*” gogora ekarriz. Egun hartako ekitaldi nagusia eskolarako Espainiako bandera bat bedeinkatzea izan zen, hura “*pabiloi nazionalan kulunkatzen den lehen aldia*” zela esanez. Herriko parrokoak, Santiago Ganboak, intsignia kontsokratu ondoren, haurrek “*bandera erdian zuten ilara bi osatu zituzten, intsignia horri ereserkia abestuz*”, eta eskolaraino desfilatu zuten. Bertan, Eusebio Brezosa maisuak testu bat irakurri zuen, “*aberria zer den, ekitaldiak eta banderak zer esan gura duten*” azalduz, “*oharrak eginez, iraindu eta mindu ez dezaten*”. Zeremonia “*Espainiari, Erregeari, Espainiako Armadari, Primo de Rivera jeneralari, independentziaren martiriei, Laukiniz auzoari eta parroko jaunari gorazarre eginez*” amaitu zen. Ondoren bandera altxatu zen, eta haurrei pastelak erregalatu zitzaizkien³⁷⁷.

373 QUIROGA, 212-213.

374 BFAH, SOPELA 0040/002, Igorritako korrespondentzia, 1929; Sopelako alkateak Bizkaiko Gobernadore Zibilarri helarazitako ofizioa, 1929-10-08.

375 *El Pueblo Vasco* 1929-10-09.

376 SUA, 1921-1924ko Osoko Bilkuren Akta Liburua, 1923-04-15eko *Bilkura Arrunta*.

377 *El Pueblo Vasco* 1924-05-06.

Udalek parte hartu zuten atxikimendu ekitaldi publiko gehienak ez ziren udalen ekimenetik sortu; aitzitik, goragoko instantziek antolatzen zituzten, halan zelan Gobernu Zibilak. Korporazioek bat egiten zuten eurekin, gogo handiagoz edo txikiagoaz. Urdulizko Udalak, adibidez, 1927ko martxoaren erdialdean, Victoria erregina izendatu zuen herriko ohorezko alkate, eta erreginaren erretratua erostea erabaki zuen, udaletxean jartzeko³⁷⁸. Sopelan ere erosi zuten erreginaren erretratua. Hala ere, adierazi dugun lez, ekimena ez zen udal bietan sortu, Gobernu Zentralean baizik, eta hark gobernadore zibilari jakinarazi zion. Honek, ostera, 1927ko urtarrilaren erdialdean, Bizkaiko udalei jakinarazi zien, iradokizun sotil gisa, Gurutze Gorriaren Madrilgo Batzar Gorenean 40 pezetatan salgai zegoela erreginaren erretratua, eta *“bertara jo dezaketela alkate jaunek, erretratua euren udaletako ekitaldi aretoan jartzea gura badute”*. Sopolako Udalak lamina otsailaren erdialdean erostea erabaki zuen eta, esan lez, Urdulizek martxoaren erdialdean erosi zuen. Hala ere, gobernadoreak udalei erretratua eskuratzeko egin zion gonbidapen adeitsua ez zen guztiz eraginkorra izan; izan ere, martxoaren 22ko datadun ofizioan, agintari probintzial gorenak adierazi zuen *“probintzia honetako udalerrri askok ez dutela argazki hori eskuratu”*, eta, ondorioz, adierazi zuen eurek jakinarazi behar ziotela *“erosi gura duten ala ez (...), erretratu horien tirada eginda baitago”*³⁷⁹.

Koroari laguntzeko ekintzen sustapena etengabea izan zen diktaduran zehar. Adibidez, Alfonsito XIII.aren erregealdiaren 25. urteurrena zela eta, *Unión Patriótico*ko buru probintzialak gutun bat bidali zien udalei, esanez, efemeride horren aurrean, *“denok gaudela behartuta esker ona eta atxikimendua adieraztera, eta, horretarako, egokia iruditu zaio herriek euren kale, plaza edo errepedeetako bat gure Erregearen izenarekin errotulatzea”*. Iradokizun horren helburua zen *“probintzia honetako (herri) guztietan Alfonsito XIII.aren izena daraman kale, plaza edo errepide bat egotea”*. Sopolako udalbatzak oso ondo hartu zuen Bizkaiko upetisten buruaren proposamena, eta honako hau adierazi zuen:

*“en el deseo ardiente de demostrar la profunda gratitud y adhesión de esta Corporación y de todo el pueblo de Sopelana en general a su muy amado Monarca en día tan grande para todo buen español, por unanimidad acordó rotular con el nombre de “Plaza de Alfonso XIII” la plaza de la Alhóndiga Municipal”*³⁸⁰.

1927ko maiatzaren 17a, Alfonsito XIII.ak monarka gisa Zilarrezko Ezteiak betetzen zituen eguna, izan zen, jakina, errotulatutako erregearen izena zuen plaka *“estalgabetu eta bedekatzeko”* aukeratu zuten eguna. Aldez aurretik, udalerriko

378 SOMOKUETO, 340-341.

379 BFAH, SOPELA 0034/003, Jasotako korrespondentzia, 1927, *Bizkaiko gobernadore zibilaren ofizioa Sopolako alkateari* 1927-01-14, eta *Bizkaiko gobernadorearen zirkularra Sopolako alkateari* 1927-03-22; eta BFAH, SOPELA 0041/004, Bidalitako korrespondentzia, 1927, *Sopolako alkatearen ofizioa Bizkaiko gobernadore zibilari* 1927-02-10.

380 SUA, 1921-1929ko Udal Batzarraren Erabakien Liburua, *Ezohiko Bilkura*, 1927-04-19.

hainbat agintari gonbidatu zituzten, halan zelan Sopelako Postuko karabineroak eta Somatena, baita Eskola Nazionalerako maistra eta maisua ere, eta ikasleekin erlijio ekitaldietara eta plakaren inauguraziora joateko eskatu zieten³⁸¹.

Jardunaldiari dagokionez iturri bi ditugu horren xehetasunak ezagutzeko: *El Pueblo Vasco* egunkariak argitaratutako kronika eta Oleaga alkateak gobernadore zibilar ospakizunaren berri eman zion ofizioa. Alkatearen iritziz, ekitaldiak “*bikainak*” izan ziren eta “*ezohiko konkurrentzia*” izan zuten. Eguna goizeko hamarretan hasi zen mezarekin, non “*Tedeum solemne bat kantatu zen*”, eta udala osorik izan zen, aipatutako agintariekin eta “*herria pilaka*”. Ekitaldi erlijiosoaren ondoren, bertaratutakoak Alondegiko plazara joan ziren, eta erregearen izena zuen plaka inauguratu zuten. Aurreko lerroetan esan dugun lez, Eskolako ikasleek aktiboki parte hartu zuten jardunaldiaren une horretan, “*Martxa Erreala behin eta berriz kantatuz, oso txalotuak izanik*”. Azkenik, alkateak berbaldi bat eman zuen: “*denbora asko eman genuen bere ezpainei begira, haren berba jariora oso elokuentea izan baitzen*”. Kronikariak, idazkiaren amaieran, esan zuen “*Espaniako Erregeari goraiapamen ugari egin*” zizkiotela. Badakigu, gainera, alkateak Bizkaiko agintari zibil gorenari bidali zion ofizioaren bidez, sinadurak ere jaso zirela “*udal osoko bilkuratik, agintariengandik eta udalerrri honetako bizilagunengandik, zeinak bat egiten baitute beroren maiestate Erregeari (jainkoak gorde dezala) TRONUArekiko zilarrezko ezteiak direla-eta egindako omenaldiarekin*”. Errubrika horien plegua gobernadore zibilar bidali zitzaion, eta, bestalde, telegrama bat bidali zitzaion Jauregiko Maiordomo Nagusiari, “*Udalaren, agintarien eta Sopelako herriaren*” partetik erregeari zorionak eman diezazkion³⁸². Handik gertu, Plentzian, ekitaldiak Sopelakoaren oso antzekoak izan ziren, nahiz eta *El Pueblo Vasco* egunkariko kronikaren irakurketatik ondoriozta daitekeen kostaldeko herrikoek ere aberri izaera handiagoa izan zutela. Adibidez, erregearen izena zuen plaka, berriemaileak “*oso artistikotzat*” jo zuena, “*kolore nazionalerako zerrendekin*”, alkateak estalgabetu zuen, “*Errege Martxaren akordeekin, eta jendetzaren txalo eta oihuen artean (...)* ekitaldia Nazioko Subiranoari gorazarre eginez amaituz”. Plaka berria inauguratu ondoren, Aurrera Kasinoan oturuntza bat egin zen, non mahaikideek “*muga barik gorazarre*” egin zuten. Eguna arrastian amaitu zen, Ontziola plazan erromeria eginez. Sopelaren kasuan lez, Plentzian ere erregeari atxikitzeko sinadurak bildu ziren, “*plegu askotan*” estanpatuta geratu zirenak, eta telegrama bat bidali zitzaion Errege Jauregiko maiordomoari³⁸³. Probintzia mailan erregeari egindako omenaldi horren osagarri, album bat sortu zen gerora, eta bertan jaso ziren “*Alfonso XIII.a*” izena daramaten plakekin errotulatu dituzten Bizkaiko herri guztietako plaza, kale edo errepedetako plaken argazkiak³⁸⁴.

381 BFAH, SOPELA 0034/003, Jasotako korrespondentzia, 1927, *Sopelako alkatearen ofizioa Sopelako elizate honetako postuko karabineroen kaboari; Sopelako alkatearen ofizioa barruti honetako Somateneko kabo Isidoro Zamaconari; Sopelako alkatearen ofizioa Sopelako Haurren Eskola Nazionalerako maisu jaunari; eta Sopelako alkatearen ofizioa Sopelako Nesken Eskola Nazionalerako maistrari, guztiak 1927-05-14an.*

382 BFAH, SOPELA 0041/004, Igorritako korrespondentzia 1927, *Sopelako alkateak Bizkaiko gobernadore zibilar helarazitako ofizioa 1927-05-18, eta El Pueblo Vasco 1927-05-21.*

383 *El Pueblo Vasco* 1927-05-19

384 BFAH, SOPELA 0034/003, Jasotako korrespondentzia 1927, *Unión Patrióticako buru probintzialaren ofizioa Sopelako alkateari, 1927-10-13.*

1927ko maiatzean Marokon gerra kanpainaren amaiera heltzean, 1909an hasitako gerra luze baten ondoren, urrezko aukera bat izan zen erregimenak aberriaren goraiatzeko egun bat antola zezan, urriaren 12an estatuko udalerrri guztietan egin zena. Rifeko gerraren amaieraren oroitzapenezko egun hura “*Bakearen Jaia*” izenez bataiatu zen, eta propaganda helburu bat ere bazuen, diktadurak bakea lortu zuela saltzeko. Zalantza barik, gatazkaren amaierak lasaitasun ikaragarria ekarri zion Espainiako gizarte osoari. Ildo horretan, agintariek uste zuten beharrezkoa zela “*herrialdeko bazterrik urrunenetan ere*” agerian uztea “*Espainia osoak sentitzen duen gogobetetasuna eta poza, familia guztien amesgaiztoa zen arazo bat erabat konpondu delako, eta eskerrak eman behar zitzaizkielako ahaleginarekin horretan lagundu zuten guztiei*”, “*alde guztietara iritsi baitira egindako lanaren onurak*”. “*Aurreikusitako omenaldia*” egiteko, Bizkaiko Gobernadore Zibilak agindu zuen “*premiak (...) herri bakoitzean batzorde bat izendatzeko, udalerriko, Somateneko, Unión Patrióticako eta agintaritzaren erlijioso eta militarreko ordezkariak osatua*”. Probintziako agintari zibil gorenak urriaren 12ko jardunaldiaren antolaketa buruz emandako jarraibideak argiak eta laburrak izan ziren, ezer ere ahaztu barik: udal batzordeek “*bazkari edo askari bat antolatu behar zuten, 1909an kanpainaren hasieratik Afrikan zerbitzatu zuten guztiak gonbidatuko zituen*”; eta “*herrialdeko estilo klasiko dantzak eta erromeriak*” ere egin behar ziren. Gainera, gobernadoreak irekita utzi zuen, derrigorrezko jardueretatik kanpo, batzordeek “*euren ardua eta berotasuna iradokitzen diena*” antolatzeko aukera. Hori bai, egintzen finantzaketa, oro har, udal kutxetatik lortu behar zen, eta iradoki zen komenigarria izango zela “*partikularrek eta erakundeek*” ekarpenak egitea. Ez zegoen xehetasunik erregimeneko agintariei ihes egiten zienik jardunaldiaren martxa bikainerako. Horrela, apaizek ere “*beren nagusien aginduak jaso zituzten, esker oneko Te-Deum bat ospatzeko*”³⁸⁵.

El Pueblo Vasco egunkarian argitaratutako kroniken bidez, badakigu zelan egin zen jardunaldia hainbat herritan. Gatikan, gobernadoreak agindutakoa bete zuen: elizkizunak ospatu, gerran borrokatu ziren herriko bizilagunak bazkari batekin ondratu, eta erromeria bat ospatzea agindu zuen. Plentzian, hitzartutako solemnitatea eman zitzaion egunari, nahiz eta kronikan harrigarria izan erromeriarik ez izatea eta arrastian Ontziola Plazan aire zabaleko bigarren meza bat ospatzea³⁸⁶; praktika hori kanpaina mezena zen, eta, bide batez, oso ohikoa izan zen hirian frankismoaren lehen konpasetan.

Sopelaren kasuan, alkateak gobernadore zibilari bidalitako ofizioa gordetzen da oraindik, non herrian egindako jardueren berri ematen den, “*bakearen jaia zela eta*”. Ospakizunak “*egunsentian*” hasi ziren, “*kanpai hotsa eta suzuriaren eta bonben tiroa*” nagusi zirela. Hori izan zen tokiko antolatzaileek sartu zuten ekitaldi bakarra, egitarauaren gainerakoa gobernadoreak bidalitako jarraibideei lotu baitzitzaien. Horrela, bederatzietan meza bat ospatu zen, eta horren ostean “*‘Te Deum’ solemne bat abestu eta erresponso bat errezatu zen*”. Eginkizun erlijioso horietara honako hauek joan ziren: “*Udal osoa, Aginte judiziala, Karabineroen Kidegoa eta*

385 BFAH, SOPELA 0034/003, Jasotako korrespondentzia, 1927, Bizkaiko gobernadore zibilaren ofizioa Sopelako alkateari, 1927-09-28.

386 *El Pueblo Vasco* 1927-10-15 eta 1927-10-16.

Somatenekoa, Eskoletako haurrak, euren maisu-maistrekin eta bizilagun ugarirekin". Arrastian, erromeria egin zen Alfontso XIII.aren plazan, eta *"iluntzean askari goxo bat eman zitzairen Afrikan aberriaren alde borrokatu ziren soldaduei, 1909ko ordezkapenez geroztik, egun hori barne"*. Herriko sei bizilagunek borrokatu zuten gerra hartan, eta ez zen ezelango heriotzarik izan. Urriaren 12ko omenaldian, lauk bakarrik hartu zuten parte, beste biak ez baitzeuden. Askaria *"gaueko bederatzietan amaitu zen, alaitasun handienaren erdian, Espainia eta bere errege-erreginek, Primo de Rivera jeneralak eta Espainiako Armadak goraiatze oihuak jaso zituztelarik"*³⁸⁷.

Ohiz kanpoko edozein gertaera aprobeztatzen zuen Erregimenak bere printzipio patriotikoen propaganda egiteko. Horixe izan zen Espainia eta Amerika arteko lehen hegaldiaren kasua, *Plus Ultra* hidrohegazkina protagonista zuena. Palos de la Fronteratik (Cadiz) 1926ko urtarrilaren 22an aireratu zen, eta otsailaren 10ean iritsi zen helmugara. Hurrengo egunean, *"Espainiako hegazkinlarien garaipena"* estatuko herri guztietan ospatu zen. Sopelaren kasuan, San Pedro parrokian *"Te Deum' solemnea egin zen, Espainia-Argentina raidean lortutako arrakastagatik esker onez"*. Bertara joan ziren *"bertako agintariak eta Don Ambrosio Apellaniz eta Efigenia Pascual maisu-maistra kultuak, bakoitza bere eskolako haurrekin"*. Ekitaldi erlijiosoaz gain, *"suziri ugari jaurti ziren, kanpaiak airean bota ziren eta bandera nazionala eraikin ofizialetan jarri zen"*. Kronikari anonimoaren iritziz, *"Sopelako herriak eta bertako agintariek, herritartasun ohar alai eta patriotikoa emanez, Espainia osoak hain balentria heroikoagatik ospatu zituen ekintza eta sentimenduei interpretatzen eta atxikitzen jakin zuten"*³⁸⁸.

Zaila da erregimenaren aurkako ekintzarik ba ote zen jakitea, baina Sopelaren kasuan badirudi gertakari subertsibo bat izan zela. 1927ko martxoaren 2an, *"energia elektrikoko hariak eroateko zutoinetan eta Tren Geltokian eta Eliza Parrokialeko Arkupean finkatuta"* zortzi paskin agertu ziren, eta alkateak adierazi zuenez, *"bizilagunengan sumindura orokorra eragin zuten (...), aurreko gauean jarriak izan zirelakoan"*. Alkateak gobernadoreari jakinarazi zionez, *"Guardia Zibila eta nire agintaritzako agenteak atsedean barik ari dira beharrean, jakiteko ideal gaizto eta zitäl horien egilea edo egileak eta euren konplizeak zein diren"*. Ez dakigu zer zegoen herriko hainbat tokitan ipinitako paskinetan, baina egun bi geroago probintziako gobernadore militarrek alkateari paskinak *"erabateko presaz"* bidaltzeko agindu zionez, pentsatzekoa da paskinen edukia diktadura erregimenaren kontrakoa zela³⁸⁹.

387 BFAH, SOPELA 0041/004, Bidalitako korrespondentzia, 1927, Sopelako alkatearen ofizioa Bizkaiko gobernadore zibilarari, 1927-10-24; eta Sopelako alkatearen ofizioa Bizkaiko Aldundiko presidenteari, 1927-03-14 (Ofizio honetan jakinarazi zen Marokoko Gerran ez zela Sopelako bizilagunik hil).

388 *El Pueblo Vasco* 1926-02-14.

389 BFAH, SOPELA 0041/004, Igorritako korrespondentzia, 1927; Sopelako alkateak Bizkaiko gobernadore zibilarari helarazitako ofizioak, 1927-03-02 eta 1927-03-04.

1.3. Belle Époquetik 1920ko Hamarkada Zoriontsura: gizartea eta kultura Sopelan

1.3.1. Egitura sozio-ekonomikoa

Sopelako elizateak, EAEn eta Nafarroan jazo zen lez, biztanleria hazkunde handia izan zuen 1900-1930 aldian, 1900. urtean 841 biztanle izatetik 1930. urtean 1.353 izatera igaro baitzen (48. taula). Orokorrean, Bizkaia eta Gipuzkoa izan ziren hazkunde demografiko horren onuradun nagusiak, immigrazioak berebiziko garrantzia izan baitzuen bertan. Gainera, jaiotza tasak gora egin, eta hilkortasunak behera egin zuen, ezarri ziren higie-ne eta osasun neurrirei esker, baita XIX. mendean zehar elikadura hobetu izanari esker ere³⁹⁰.

48. TAULA: BIZTANLERIAREN BILAKAERA SOPELAN (1900-1930) ³⁹¹			
1900	1910	1920	1930
841	915	1066	1353

Herriko bizilagunen lan okupazioen kasuan, ezinbestekoa da aldi horretan egin ziren hauteskunde erroldak kontsultatzea. Ohartarazi behar da zerrenda horiek informazio partziala ematen dutela, emakumeak eta 25 urtetik beherakoak kanpoan geratzen baitziren; ondorioz, Sopelan boto eskubidea zuten bizilagunen behar okupazioen argazki zehatza baino ez digu erakusten. 1901eko Hautesle Erroldak jasotzen dituen 181 hautesleetatik 101 laborariak ziren; 64, ostera, itsasgizonak. Zerrenda osatzeko, errementari 2, merkataria 2, apaiz 2, sakristau organista 1, galdatzaile 1, doitzaila 1, okin 1, enplegatu 1, jornalari 1, peoi bidezain 1, ikasle 1, mediku 1 eta idazkaria zeuden³⁹².

Ikus dezakegunez, 1901ean, Sopelako lan nagusi biak nekazaritza eta abeltzaintzako jardura ziren, eta, ondoren, nabigazioan aritzen ziren sopeloztar ugari. 1909ko hautesle erroldak, 25 urtetik gorako 221 bizilagunek osatuak, oso antzeko egoera erakusten digu, nahiz eta itsasoan aritzen ziren sopeloztarren kopuruak gora egin (94), laborari gisa agertzen direnetatik oso gertu (102)³⁹³. Itsasgizonaren lanbideak, aurrerago ikusiko dugun lez, goranzko ildoari eutsi zion hurrengo urteetan: adibidez, 1919ko hautesle erroldak (240 hautesle) dioenez, marinelaren lanbidea lehen aukera bihurtu zen 116 bizilagun erregistratuta zituen herrian, 93 nekazarien aldean³⁹⁴. Nabigazioan aritzen ziren bizilagunen kopurua handitze hori egonkortasun ekonomiko handiagoko ogibide bat bilatzearen ondorio izango litzateke, landa lanak berarekin zekartzan gorabeheren aurrean.

390 PICAVEA SALBIDE, Pedro: "La población en el País Vasco (1900-1930). Evolución, factores de crecimiento y estructura del colectivo social a principios de siglo" in Vasconia. Cuadernos de Historia-Geografía N.º 16, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 1990, 97-134 (Aipua: 100-116 or.).

391 Datuak www.ine.es webgunetik atera dira.

392 *Sopelako Hautesle Errolda, 1901* (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala (BAO), 1901-07-15).

393 *Sopelako Hautesle Errolda, 1909* (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala (BAO), data barik (1909)).

394 *Sopelako Hautesle Errolda, 1919* (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala (BAO), 1919-11-20).

Garai hartan, herriko nekazaritza ekoizpena Bilboko eta bertako industria eremuko eskariari erantzutera bideratuta zegoen, eta horrek azal dezake baratze produktuen gorakada. Eztanda horren jatorria XIX. mendeko 70eko hamarkadan kokatu behar da, Bilboko itsasadarraren inguruko industrializazio prozesu betearen. Sopelan ekoizitako giza kontsumorako labore nagusien kasuan, artoa, patata eta babarruna ziren³⁹⁵. 1906an, jakin badakigu Sopelako bizilagunek behar adina haragi, urdai, patata eta barazki lortzen zituztela beren hornidurarako, baina “zoritarrez, beste edozein artikulurekin ez zen horrela gertatzen”³⁹⁶.

Beste labore garrantzitsu bat bazka labore zen, ganadua elikatzeko erabiltzen zena. Abeltzaintzako txabolarik ugariena behia zen, eta XX. mendeak aurrera egin ahala hazi egin zen abelburu kopurua. Hiri eta industria eremuak okela eta esnea eskatzearen ondorioz jazo zen igoera hori. Kontuan izan behar dugu, halaber, Aníbal Malmierca dioen lez, behi azienda nekazaritza lanetarako ere erabiltzen zela³⁹⁷.

Adierazi dugunarekin bat, 1907ko Abere Erroldak erakusten digu behi azienda zela Sopelan ugariena, 230 abelbururekin. Bigarrenik, 57 txerri zenbatu ziren, familien kontsumorako. Azkenik, hiru asto eta zaldi bat zeudela jaso zen. Zerrenda horretan kezak zenez, Sopelan ez zegoen zaldi, ardi edo ahuntz saldorik, “*debehatuta zegoelako talde horiek mendian bazkatzea, oso urria zelako abere oheetarako otadia sortzeko*”³⁹⁸. Garai hartan, Sopelako mendien baso despokatzea Bizkaia osoan hedatutako zorigaitza zen: 1901eko amaieran, Bizkaiko mendien egoera “*tamalgarri*” gisa deskribatzen zuen “*tristeki txunditutako*” Aldundi probintzial batek, zeinak baso berritzea eragozten zuten arrazoiak “*artzaintza askea, (mendiaren) gehiegizko aprobetxamenduak eta suteak*” zirela adierazi baitzuen³⁹⁹.

Udalerriko merkataritza egiturari dagokionez, 1900. urtean, urte hartako *Riera* urtekarian jasotakoaren arabera, “*Comestibles y Quincallas*” izeneko bost establezimenduk osatzen zuten, gutxienez, eta Ramón Astica, Tomás Goicoechea, Matías Soria, Gerardo Ugarte eta Juan Ignacio Zalduek zuzentzen zituzten⁴⁰⁰. 1904an, argitalpen berean, merkataritza negozioen kopuruak pixka bat gora egin zuela ikusi zen. Astica, Goicoechea, Ugarte eta Zalduek zuzendutako lokalek beren jarduerarekin jarraitu zuten “*Abacerías*” eta “*Tabernas*” epigrafeekin, baina,aldi berean, “*Posadas*” gisa ere agertzen dira. Ramon Asticaren establezimenduan, gainera, tabako denda zegoen. Garai hartan, Sopelak okindegi bat zuen, Timoteo Inchaurtietak zuzendua, eta harategi bat Emeterio Camiruagaren eskuetan, berez udal hiltegia zena. Juan Garay, Juan Legarreta, Juan Tomás eta Francisco Zalduek zuzendutako 4 ur-errotek osatzen zuten zerrenda⁴⁰¹.

395 MALMIERCA GONZÁLEZ, Anibal: *Monografías de pueblos de Bizkaia: Barrika y Sopelana*, Bilbo, Bizkaiko Foru Aldundia, 1997, 80. or.

396 BIZKAIKO FORU AGIRITEGI HISTORIKOA (BFAH), SOPELA 0074/022, Kontsumo-artikulu nagusiak eta ordaintzen diren jornal motak adierazten dituen zerrenda, 1906ko lehen sei hilekoa.

397 MALMIERCA, 89. or.

398 BFAH, SOPELA 0064/017, *Sopelako udalerriko abereen errolda*, 1907-05-16.

399 BFAH, SOPELA 0030/007, *Jasotako korrespondentzia 1901, Probintziako Aldundiaren zirkularra 1901-12-20*.

400 *Anuario Riera. Anuario del comercio, de la industria, de la magistratura y de la administración*, 1900.

401 *Anuario Riera. Anuario del comercio, de la industria, de la magistratura y de la administración*, 1904.

Urtekari horietan ez da bestelako industriarik aipatzen, baina badakigu 1894an Jose Maria Otazuak zuzendutako kare fabrika bat bazela⁴⁰². Ez dakigu noiz hasi zen martxan industria establezimendu hori, ezta jarduera noiz utzi zuen ere⁴⁰³; Areetatik Plentziarako Trenbide Proiektuaren Memorian ere ez da aipatzen, 1888an. Trenbiderako azterlan honetan, Sopela, Urduliz eta Berangoko hareharrizko harrobiei egiten zaie erreferentzia. Harrobi horietatik “*aulkigintzarako eta hormagintzarako*” materiala ateratzen zen, baita “*burdinoletan oso preziatua den harea mehe ugari ere*”. Gainera, trenbidearen etorrerak ustiategi horiei mesede egingo ziela adierazi zen, baita eraiki beharreko trenbidearen inguruko beste negozio batzuei be⁴⁰⁴.

Zalantza barik, 1893ko irailean Areetatik Plentziarako trenaren inaugurazioa pizgarri izan zen Sopelarentzat eta garraibide berria igarotzen zen gainerako herrirentzat, besteak beste, baserriko produktuak hiri merkatuetara azkarrago ateratzea edo zenbait bizilagun Bilboko itsasadarraren ertz bietan kokatutako industrietan sartzea erraztu baitzuen.

1910etik 1923ra bitartean Sopelako auzoko lanbideak ezagutzeko, etapa horretan egindako hauteskunde erroldetara joko dugu berriro (48. taula). Lehen adierazi dugun lez, erolda horiek ematen duten informazioa ez da osoa, 26 urtetik gorako gizonezkoen datuak bakarrik jasotzen baitzituzten, emakumeak eta gazteak alde batera utzita. Botoa emateko eskubidea zuten sopeloztar gehienak itsasgizonak eta nekazariak ziren. Nabigazioan ziharduten auzotarren multzoak hazkunde iraunkorra izan zuen aldi horretan, eta 1915etik aurrera laborarien kopurua gainditu zuen, data hartan 100 laborari baino gutxiago baitzeuden.

Merkataritzan aritzen ziren sopeloztarren kopurua oso esanguratsua da, ziur asko, herriak izan zuen hazkunde demografikoarekin lotuta, baina baita nabigazioan aritzen ziren udalerriko bizilagunen kopuruaren hazkundearekin ere, euren familiek erosteko ahalmen handiagoa izango bailukete. Elizateko biztanleriaren zati bat nolabait “*burgestu*” egin zela esan liteke. Edozelan ere, 1912ko uztailean, Plentziako berriemaileak, Ramón de Echevarriostek, Sopela “*modu perfektuan administratutako*” udalerrri gisa deskribatzen zuen, baita “*pausoz pauso aurrera doan herritxo*” gisa ere⁴⁰⁵. Ildo horretan, urte hartako maiatzean, argindarra heldua zen Elizatera, eta, zehazki, taberna etxeetan eta eskoletan jarri zen⁴⁰⁶.

402 BFAH, AH05093/001, 1893tik 1894ra bitarteko urte ekonomikoko industria ekarpena, 1894-03-21.

403 1932an Sopelan bost langiledun kare-fabrika bat zegoen, baina ez dakigu 1894an dokumentatutako lantegi-establezimendu bera ote zen (MALMIERCA, 123. or.).

404 Zenbait egile: *Plentzia - Azterlanak - Estudios*, II. eranskina: “*Proyecto de Ferrocarril de Vía Estrecha de Las Arenas a Plencia. Memoria que acompaña al proyecto entregado en el Ministerio de Fomento al solicitar la concesión del expresado ferrocarril. Año 1888*”. (faksimile-erreproduktzioa). Bilbo, Plentziako Udala, 1985.

405 *El Pueblo Vasco* 1912-07-04 “*Crónica Postal - Plencia - Las romerías de San Juan y de San Pedro*”

406 BFAH, SOPELA 0077/001, 1891-1915eko Akta Liburua, 1912-05-05eko Bilkura Arrunta.

49. TAULA: LANBIDEAK HAUTESKUNDE ERROLDEN ARABERA

Lanbidea	Sopelako 1910eko hautesle errolda	Sopelako 1915eko hautesle errolda	Sopelako 1920ko hautesle errolda	Sopelako 1923ko hautesle errolda
Itsasgizona	97	122	121	138
Nekazaria	101	88	88	79
Jornalaria	6	7	0	1
Merkataria	3	4	11	10
Igeltseroa	0	0	0	1
Hargina	1	1	2	2
Bidezaina	1	2	0	0
Langileburua	1	1	0	0
Zurgina	0	1	4	4
Kontratista	0	1	0	0
Itsas artekaria	0	0	1	1
Enplegatua	0	0	1	2
Trenbide langilea	0	0	2	2
Errementaria	1	1	1	2
Irakaslea	1	1	2	1
Medikua	1	0	2	2
Meatzaria	0	1	0	0
Organista	0	1	1	1
Okina	0	0	0	1
Pintorea	0	0	1	1
Errentatzailea	1	0	0	0
Apaiza	2	2	2	3
Idazkaria	1	1	0	0
Saleroslea	1	1	1	1
Jaso barik	0	0	1	0

Primo de Riveraren diktaduraren garaia dagokionez, Sopelako lan dedikazioaren gaia osatzeko, 1925eko eta 1928ko hauteskunde erroldak ditugu. Etapa horretan, zerrenda horiek aldatu egin ziren, baina partzialki. Izan ere, 1924ko martxoaren 8ko Udal Estatutuaren onarpenari esker, bozkatzeko gutxieneko adina 23 urtekoa izan zen, eta, bestalde, emakume ezkongabeen eta alargunen botoa baimendu zen. Kanpoan geratu ziren, alde batetik, emakume ezkontutakoak, ezkontzaren barruan ustezko desadostasunak saihesteko aitzakiarekin; eta, bestetik, prostitutak. Aipatzekoa da Primo de Riveraren diktaduran ez zela hauteskunderik deitu, eta, ondorioz, argi eta garbi emakumeen boto mugatu hori ezin izan zen praktikan gauzatu⁴⁰⁷.

50. taulan ikus daitekeenez, errolda partzialak jasotzen zituen Sopelako emakumezko bizilagunen okupazioen artean, lanbiderik ugariena “*laboraria*” zen, eta, ondoren, etxeakoandreak. 51. taulan ikus daitekeenez, Sopelako bizilagunen lanbide nagusia, lehenik eta behin, nabigazioa zen, eta, bigarrenik, landa lanak. Aipatu behar da, “*itsasgizon*” epigrafearen barruan, 11 ontzi makinista eta Itsas Armadako kapitain bi sartu ditugula, errolda bietan agertzen direnak.

50. TAULA: SOPELAKO EMAKUMEZKO BIZILAGUNEN LANBIDEA 1925 ETA 1928an⁴⁰⁸		
Lanbidea	1925eko hautesle errolda: 92 emakume	1928ko hautesle errolda: 108 emakume
Nekazaria	58	73
Etxekoandrea	29	29
Neskamea	3	4
Sukaldaria	1	1
Jostuna	1	1

407 MORENO GALILEA, Diego: “*La Asamblea Nacional: un primer intento de participación femenina en la Dictadura de Miguel Primo de Rivera (1923-1930)* in *VII Congreso Virtual sobre Historia de las Mujeres*, 2015, Jaen, Jaengo Elizbarrutiko Artxibo Historikoa, 585-600 (aipua: 587-588 or.).

408 Ibid.

51. TAULA: SOPELAKO BIZILAGUNEN LANBIDEA 1925 ETA 1928an⁴⁰⁹

Lanbidea	1925eko hautesle errolda: 260 gizon	1928ko hautesle errolda: 294 gizon
Itsasgizona	127	148
Nekazaria	96	97
Merkataria	6	8
Igeltseroa	2	3
Bidezaina	-	1
Hargina	1	2
Harakina	-	1
Zurgina	5	5
Itsas artekaria	1	-
Enplegatua	1	3
Trenbide enplegatua	2	2
Industrialaria	1	1
Errementaria	1	1
Jornalaria	2	6
Irakaslea	1	1
Mekanikaria	1	1
Medikua	1	2
Metalurgialaria	2	3
Jaso barik	1	
Behargina	1	1
Pintorea	1	1
Ugazaba	1	
Erretiratu	-	1
Apaiza	3	3
Udal idazkaria	1	1
Udal Epaitegiko idazkaria	1	-
Abere saleroslea	1	1
Saltzailea	-	1

409 BAO, 1925eko *Hautesle Errolda* (1925-12-12) eta 1928ko *Hautesle Errolda* (1929-01-31).

Adierazi dugun lez, nabigazioan zebiltzan biztanleen kopuruak 1910-1923 aldian hasitako goranzko joerarekin jarraitu zuen, eta nekazarien kopurua egonkor mantendu zen, ehun baino gehiago izan barik. Hala ere, Primo de Riveraren diktaduran zehar egindako erroldetan emakumeak partzialki agertu izanak udalerriko gizarte osaeraren erradiografia zehatzago bat erakusten digu. Horrela, 1925ean nekazaritza eta abeltzaintzako lanetan aritzen ziren emakumezko eta gizonezko bizilagunen baturak 154 baserriar ematen zituen guztira, eta 1928an, 170. Zifra bi horiek herriko marinelen kopuru handia gainditzen zuten, eta, ondorioz, urte haietako lan okupazio nagusia bihurtu zen. Esan dezakegu, Sopelak nabigatzaile asko zituen arren, landa sektoreak pisu handia izaten jarraitzen zuela herrian. Horregatik agian, Sopelatik *El Pueblo Vasco* bidalitako kroniketan⁴¹⁰, bertako baserriarren eguneroko bizitzaren hainbat alderdi islatu ziren. Adibidez, 1924ko otsailaren 20an jausitako elurteak harrera ona izan zuen baserrietan: “*baserriarrek oso pozik daude elurtearekin, jakina baita elurrarekin soroak hobetzen direla*”. Aldiz, lehorteei aurre egiteko, laboreen gaineko ondorio negargarriek ikaraturik, Jainkoari euria egin zezan erregutzen zitzaion, aurreko orrialdeetan ikusi dugun lez. Garai lehorretan, euriaren etorrera aringarri handia zen. Hala jazo zen 1924ko ekainaren erdialdean: “*nekazariak pozarren ospatu dute ereindakoentzat oso beharrezkoa zen egun hauetako euria*”. Garai hartan, Sopelak *Sociedad de Socorros Mutuos* izeneko elkarte bat zuen, Manuel Azcorra presidentea zuena, eta elkarte horren bidez laguntza ematen zitzaion elkartutako baserriarren bati, ezustekorik jazoz gero. 1923an, ingresatutako 3450,75 pezetatik, 2723,50 bazkide kaltetuentzat bideratu ziren⁴¹¹.

Bestalde, azpimarratzekoa da emakume baserriar arduratzen zela inguruko azoketan esnea edo baratzeako produktuak saltzeaz, trenbidea erabiliz joaten baitziren hara, eta *vendejera* esaten zitzaien.

Azkenik, San Tomas eguna oso garrantzitsua zen nekazaritzan, egun horretan baserrien jabeei urteko errentak ordaintzen baitzitzaizkien, eta horrek baserriarren joan-etorri masiboa eragiten zuen, derrigorrezko ordainketa betetzeko. Adibidez, 1923ko abenduaren 21ean, Larrabasterrako “*ford*” zerbitzuak (aurrerago berba egingo dugu hari buruz) “*herrixketako jendea errentekin eta saskiekin sagar onez, udarez eta egun hauetako beste artikulu batzuek oso beteta*” lekualdatu zuen⁴¹². San Tomas egunez, nekazariak urteko errenta ematera hurbiltzen ziren herrietako bat zen Plentzia. 1925eko abenduaren 21ean, “*baserriar xumeak*” herri hartara iritsi ziren “*oilasko, sagar, oilo, untxi eta, are, loreekin egindako otarrekin*”, produktu guztiak “*ugariki*”⁴¹³.

410 *El Pueblo Vasco* Sopelako leku bietan saltzen zen: José Torrontegui Aranaren janari dendan eta herriko tabernan (*El Pueblo Vasco* 1924-01-18).

411 *El Pueblo Vasco* 1924-01-31, 1924-02-23 eta 1924-06-15.

412 *El Pueblo Vasco* 1923-12-23.

413 *El Pueblo Vasco* 1925-12-23.

1.3.2. Turismoaren sorrera eta garapena Sopelan

Lehenago adierazi dugun bezala, 1893ko irailean Areetatik Plentziarako trenaren inaugurazioa gertaera iraultzailea izan zen Sopelarentzat eta trenbideak zehartzen zituen gainerako herrientzat, horien eta Bilboren arteko komunikazioa hobetu baitzen. Alderdi hori funtsezkoa izan zen Sopelan eta Plentzian turismoa garatzeko; izan ere, udalerririk onura ateratu zioten 1895ean Abrako uda eremuaren gainbeherari, Bilboko kanpoko portuaren obrak zirela eta.

Bizkaiko ekonomiak Hirugarren Karlistaldia (1876) amaitu ondoren izan zuen eraldaketa sakonak, Jose Maria Beascocheak azaldu bezala, gizartearen erabateko berregituraketa ekarri zuen. Testuinguru horretan jaiotako burgesiak aisialdiko jarduerak berriak behar zituen, besteak beste, bainuetxeetako egonaldiak. Hori dela eta, "(...) udako estazioak sortu ziren Abra inguruan, halan zelan Portugaleten, Santurtzin, Algortan eta, denetan garrantzitsuenak, Areetan". Lehenago ere aipatu dugunez, kanpoko portuko obrak 1895ean hasi ziren eta Abraren morfologiari eragin zioten; Areetako eta Portugaleteko hondartzak izan ziren kaltetu nagusiak. Jarrillero herriak udako egonleku izateari utzi zion, eta Areeta eta Neguri bizitegi gune bihurtu ziren urte osoan zehar. Horrela, Algorta bakarrik geratu zen gune turistiko gisa uda garaian, eta espazio berriak behar izan ziren gero eta handiagoa zen "(...) udako aisialdirako eskaria" estaltzeko. Beascocheak dioenez, Plentziak egoera hori baliatu zuen, eta XIX. mendeko azken hamarkadan hainbat hobekuntza egin ziren itsas herria udako aisialdirako gune bihurtzeko⁴¹⁴.

Sopela ez zen Plentzia inguruko turismoaren fenomeno hasiberriaz kanpo gelditu. 1900. urteko uztaietan, Sopelako udalak jakinarazi zuen azken urteetan "bainularien kopurua nabarmen handitzen" ari zela, batez ere Atxabiribilgo hondartzan. Udalak jakinarazi zuenez, hondartza hori "(...) bainulari espainiar eta atzerritar askok erabiltzen dute udan; izan ere, bere hedadura oso handia ez bada ere, Kantauriko onenetakoa da, bere kokapen topografiko ederragatik". Udal gobernaren aurreikuspenen arabera, "bainularien kopurua" handitu egingo zen, "Bilboko kanpo portuko obrek aurrera egin ahala, eta, ondorioz, Getxoko Areetako olatuak galdu". Hala ere, garai hartan Atxabiribil hondartzara zeroan "bide hain kaskarra" lagungarria zen "turistak kikitzeko". Hori dela eta, Sopelako Udalak Bizkaiko Foru Aldundiari eskatu zion, auzo bideen plan probintzialaren barruan, 1,2 Km-ko bide bat eraikitzeko "(...) Getxo eta Urduliz arteko errepidetik abiatuta, Bareño puntuan, itsasora joateko, Atxabiribil izenarekin ezagutzen den hondartzara"⁴¹⁵. Udalak

414 BEASCOECHEA GANGOITI, José María: "De la estancia de baños al veraneo de clase media: el cambio de modelo urbano en Plentzia, Bizkaia (1890-1975)" in Scripta Nova. Revista Electrónica de Geografía y de Ciencias Sociales. Bartzelonako Unibertsitatea, XXI. lib., 568. zk., 2017ko ekainak 15, 560-580 (aipua: 571-572 or.)

415 BFAH, SOPELA 0039/003, Sopelako Udalak 1865 eta 1922 artean igorritako eta jasotako korrespondentzia, Sopelako Udalaren idazkia Bizkaiko Probintzia Aldundi txit gorenari 1900-07-18. Idatzi horretan, turismoa da bidea eraikitzeko eskaera egiteko arrazoi nagusia, baina bertan azpimarratu zen "nekazaritzarako eta herriko eta inguruko lanetarako hondar kantitate handia" ateratzen zela. Gainera, idazkian jaso zenez, hondartzan "'kaloka' (hau da, alga gorriak) izenez ezagutzen den belar bat" jasotzen zen, "eskualde honetako nekazariak oso estimu handiz erabiltzen dutena lantzen dituzten lurak ongarrizteko".

Aldundiari egindako eskaera hark ez zuen aurrera egin, eta, ondorioz, Udalak berak “*bere kabuz*” bidea eraikitzeko “*sakrifizioa inposatu zion bere buruari*”, bidearen “*premia handia ikusita*”, Urruticoechea alkateak 1908ko irailaren amaieran adierazi zuen lez⁴¹⁶. Badakigu 1906ko uztailaren hasierarako errepidea eraikita zegoela, ‘*El Noticiero Bilbaíno*’ egunkariko Ramón de Echevarrioste kronikariak jaso zuen lez, bide berria horrela definitu baitzuen: “*paseo eder bat, Sopelaren bizitza animatzen duena eta herriaren diruarekin eraiki dena, José Bilbao y Lopátegui jaunaren zuzendaritza adimentsuaren pean*”⁴¹⁷.

Bide hori egoera ezin hobean mantentzea oso irregularra izan zen, dirudienez: adibidez, 1914ko ekainaren 12an, euri jasa batek “*hondartza horretarako bidea ematen duen arrapala suntsitu zuen (...) eta bainu aldian herri honetatik eta mugakideetatik hondartza horretara*” joaten ziren “*bainulari ugariri ere bidea eragotzi zien*”. Sarbideak baldintza berberetan jarraitzen zuen 1915eko urtarrilean, eta, ondorioz, hura konpontzeko eskatu zitzaion probintziako Aldundiari⁴¹⁸. 1920ko udaren hasieran, *Euzkadi* berripaperak salatu zuen hondartzarako errepidearen egoera “*benetan lotsagarria*” zela, eta ez zekitela noiz izango zuen “*Aldundiak duela urtebete baino gehiago bertan gordetako harria zabaltzeko ontasuna*”. Eta hori guztia, nahiz eta “*hondartza gero eta jendetsuago ikusi, batez ere jaiegunetan*”, eta zera zehaztu zuen: “*pertsona asko etortzen dira eguzki bainuak hartzera eta aire garbia arnastera*”⁴¹⁹. Bestalde, aipatzekoa da 1917an Policarpo Eguiraunek eta Antonio Arechavaletak, beren ekimenez, probintziako errepidearen 20. kilometrotik aurrera Arrietara hondartzaraino iritsiko zen bide baten lanak ordaindu izana. Udalak, obra horrek “*zalantza barik herriari eta, oro har, bizilagunei, onurak*” ekarriko zizkiola jakitun, bere “*laguntza morala*” ematea erabaki zuen, eta proiektua aurrera atera zedin administrazio izapideak bere gain hartu zituen⁴²⁰.

416 BFAH, SOPELA 0039/003, Sopelako Udalak 1865 eta 1922 artean igorritako eta jasotako korrespondentzia, Sopelako Udalaren idazkia Bizkaiko Probintzia Aldundiari 1908-09-24. Gutun horren bidez, alkateak Aldundiari eskatu zion, urte hartako maiatzaren 22an probintziako erakundeak hartutako erabakiaren arabera, errepidea zaintzeaz arduratzeko.

417 *El Noticiero Bilbaíno* 1906-07-02.

418 BFAH, SOPELA 0077/001, 1891-1915eko saioen Akta Liburua, 1915-31-05eko Bilkura Arrunta. Arrapala konpontzeko arrazoi turistikoak alegatzeaz gain, Sopelako Udalak azaldu zuen, arrapala suntsitu zenez, ezin zirela “*hondarra eta beste ongarri batzuk atera, nekazariei mesede handia egiten zietenak simaurrak handitzeko eta lurrak ongarritzeko, baita hondarra ateratzeko ere eraikin barrietarako, bai lehendik zeudenak konpontzeko*”.

419 *Euzkadi* 1920-07-10.

420 BFAH, SOPELA 0077/002, 1916-1921eko saioen Akta Liburua, 1921-06-24ko Bilkura Arrunta.

Manuel Aranaz Castellanos idazlearen *'Pimientación'* izeneko kontakizun bati esker, El Sol egunkarian erreproduzitua, jakin dezakegu zelan igaro zen 1922ko abuztuko domeka bat Sopelako hondartzan. Goizeko hamarretako trenean iritsi ohi ziren *"ohiko domekazale pilatu"* gehienak. Ordu horretara arte, Aranazen kontakizunari erreparatzen badiogu, nudismoaren praktika ez zen arrotza jende goiztiarrenaren artean, *"eguzki bainuetako aditu"* baten eta bainu horietako hasiberri baten arteko elkarriketa honetan islatu zen lez:

"- ¿También el interior hay que quitar? - pregunta a don Juancho su nuevo discípulo.

- También.

Despojado de la camiseta, que deja sobre el lío que ya forman sus pantalones, sus botas, su camisa, su boina y su chaqueta, el alumno torna a preguntar humildemente:

- ¿Los 'calsonillos' también quito?...

- También.

- ¿Y cómo tapo?...

- No 'hase' falta ahora. Hasta que sea más tarde, de 'confiansa' 'semos' aquí todos. Mírate también aquellos.

- Sí, 'verdá' es. Pero, ya hay otros que llevan taparrabos. Esos dos que vienen.

- Porque son de la 'aristocracia'. Fíjateles 'despasio'. Todo el pelo 'patrás' como los ratones.

- 'Rasón' tiene 'usté'. 'Saguchus' 'paresen'.

- Y son.

Aunque supone la respuesta, el novicio, que ha madrugado tanto para aprovechar bien la lección, pregunta otra vez:

- ¿También quito los 'calsetines'?

- También, hombre, también. Ya te he dicho antes. En pelota del todo hay que quedar. Como yo. Y date prisas, que tengo que irme donde aquellos otros. Óyeles. Ya me están gritando.

Efectivamente. Desde las peñas más cercanas, asomando desnudos igualmente, diez o doce mocetones, llegados también temprano, a pie unos y en bicicleta otros, hacen señas a Puchetabeitia, el afamado maestro en esto de los baños de sol (...)"⁴²¹.

421 El Sol 1922-11-09. "Cuadros Vascos - Pimientación" - Relato del libro "Cuadros Vascos" de Manuel Aranaz.

“*Andreak, andre asko, eta bereziki neskato gazte ondraduak*” heldu izanak amaiera ematen zion gorputz maskulino biluzien erakustaldi hari. Eguerdian, Aranazen kalkuluaren arabera, “*bi mila pertsona inguru*” zeuden hondartzan, “*paseatzen ari diren taldeak, negozioak eztabaidatzen dituzten taldeak, salto egin eta Suediako gimnastika egiten duten koadrilak, futboleko jokatzen duten taldeak eta gizarteko bilerak, kasurako propio ekarritako gramofono baten akordeetara foxtrota dantzatzen dutenak*”. Hondartzako eremu ez hain agerikoetan (“*labarretarantz, kobazulo eta txokoetatik gertu*”) “*familia batzuk zeuden, gainerako hondartzazaleak baino biluziago, ahaideen artean ez baitute ezer ezkutatzeko*”, egurrekin eta landare ikatzarekin sua eginez, “*legatz eta bakailao kazolak, etxean prestatuak (...), berotzeko, eta mutil txikiak txosnetara joaten dira ogi eta ardo bila*”. Garai hartan, hondartzak txosna bi zituen, antza denez, Arrietara-Atxabiribil hondartzaren mutur bietan. Kontakizunaren arabera, aurreko domekan, batek 700 plater zerbitzatu zituen 4,50 pezetaren truke, eta besteak 800, prezio berean. Establezimendu horietan, “*plater arruntez, hau da, plater sendo eta mamitsuez*” gain, beste sukaldaritza gutzia batzuk ere eskaintzen ziren, halan zelan: “*txorizoak xerratan, sardinak eta atuna eskabetxean, xerrak eta izkirak goizaldean bertan, olibak eta abar*”, hori guztia ardo zuriz gozatua. Aranazek deskribapen hori errematatzen zuen esanez “*Bilboko taskarik ezagunenean ere ez dela bi txabola horien artean bezainbeste zerbitzatzen eguzki oneko igande batean*”⁴²².

Praktika nudistak aipatu barik, *El Noticiero Bilbaíno* egunkariko *Ignus* berriemaileak, 1923ko uztailaren hasieran argitaratutako artikulu batean, zera jaso zuen: “*domeketan hondartza horretara joaten diren bainulari askoren kexak, eta deitoratu egiten da zenbait lotsabako, bainujantzi laburretan, hondartzan ibiltzea edo inguruko muinoetan agertzea*”. Horregatik, berriemaileak dei egin zion Sopelako alkateari, “*moralaren hobe beharrez*”, gai horretaz arduratu zedin⁴²³. Egia esan, urte horretako ekainaren erdialderako Udala gai horretaz arduratu zen, “*hondartzarako zaindari*” izendatu baitzuen Alejandro Legarreta bizilaguna, eta hark lehendik zegoen Mariano Bilbaorekin bat egin zuen. Ikuskatzaile bi horien eginkizun nagusia “*Arrietara eta Atxabiribil hondartzak (...) udako jaiegunetan*” zaintzea zen, “*bertara biltzen diren ezin konta ahala bainularik moralaren eta ohitura onen aurkako ekintzak egin ez ditzaten*”. Lanegun bakoitzeko, 5 pezetako soldata eman zitzaien, eta, horrez gain, alkateak salaketaren ondorioz ezarritako isunen balioaren % 25 jaso zuten. Isun horiek “*hondartza horietan edo jurisdikzio honen barruko beste leku batean bainatzen diren edo geratzen diren pertsonen*” ezarri zitzaizkien, “*legeak ezarritako zintzotasun eta ohore arauak urratu baitituzte*”⁴²⁴.

1923rako, udaldiak erabat finkatuta zeuden Sopelan, eta udalerria udako hilabeteetan “*udako familiez beteta*” zegoen. Hondartza, ostera, “*jendez lepo zegoen bainurako orduan*”⁴²⁵. Aranazek bere kontakizunean Sopelako hondartzara ekarritako bisitarien kopuruari dagokionez, ez ziren, noski, asmakizuna: 1924ko

422 Ibid.

423 *El Noticiero Bilbaíno* 1923-07-06.

424 SUA, 1921-1924ko Akta Liburua, 1923-06-10eko Bilkura Arrunta.

425 *El Noticiero Bilbaíno* 1923-07-06.

uztailaren hasieran, *Ignus* kronikariak jakinarazi zuen ekainaren 29an, domekaz, Sopelako hondartzan bildu zirela “1500 edo 2000 kanpotar inguru, bainularien eta euren senideen artean”⁴²⁶.

Kanpotar horien jatorriari dagokionez, gehiengo zabala Bilbon eta inguruetan biziko litzateke, Bizkaiko hiriburuko Kirol Elkarteko presidente Juan Irigoyenek 1924ko maiatzaren amaieran idatzitako gutun bati erreparatuz gero. Irigoyenek horrela definitu zituen Sopelako hondartzak: “*Bilboko hondartza herrikoia, pobreaken udaldia*”, eta zera gehitu zuen: “*gure hondartza dotoreek gustura ikusten dute herri subiranoa txoko hartara joatea, askatasunak bere gorputzei eguzkiaren elikagaia eta uraren lastana ematen baitie bertan*”. Hala ere, komentario horiek ez ziren gutxiesgarriak, Kirol elkarte, presidentearen berbetan, “*Sopelaren propagandista nagusia*” baitzen⁴²⁷.

Primo de Riveraren diktaduraren urteetan, Elizateko turismoak bere garapen geldiezinari jarraitu zion. Izan ere, bertan kanpotarrak egotea ez zen udako denboraldira bakarrik mugatzen; urte osoan zehar, eguraldi ona egiten zuen egunetan, bisitariak iristen ziren herrira. Berba baterako, 1923ko abenduaren 16an, domekaz, “*hainbeste euri eta haizeren ondoren*”, herriak “*egun bikaina*” izan zuen, eta, horren ondorioz, “*kanpotar asko*” hurbildu ziren Sopelara, “*goizetik establezimendu guztiak jendez gainezka ikusiz*”. Domeka jendetsu hura arrastira arte luzatu zen, eta “*Achondovarri zumarkaleko paseoa eta zelaiko dantza oso animatuta zeuden*”. Aditzera eman dugunez, hura ez zen gertaera puntual bat. 1924ko martxoaren 2an, “*kanpotar asko*” agertu ziren, “*zalantza barik eguraldi ona aprobetxatuz*”, eta hil bereko 16an, domekaz, “*kanpotar askok*” desfilatu zuten, eta “*pasealeku eta establezimendu publikoetan jende asko ikusi zen*”⁴²⁸.

Garai hartan, *El Pueblo Vascon* agertutako informazioari erreparatzen badiogu, Sopelak “*hotel txiki*” bat ei zuen Atxabiribil hondartzan, Tomás Basarte Vidaurrazagaren jabetzakoa, 1924ko martxoaren erdialdean bere establezimenduan “*hobekuntza batzuk egiten*” ari zena, ziurrenik hurrengo udako denboraldiari begira. Aipatutako egunkarian Basarteren negozioari “*hoteltxo*” esaten zitzaion arren, 1924ko Industria ekarpenean “*janari-edarien postu*” gisa agertzen da. Edozelan ere, jakin badakigu urte horretako martxoaren lehen domekan ohiko udatiar askok eguraldi ona aprobetxatu zutela herrira hurbiltzeko, “*datorren udarako logelak kontratatzeko*”⁴²⁹. “*Logela*” terminoak, kasu gehienetan, txalet partikularren alokairuari egingo lioke erreferentzia, edo bertan kokatutako pisuen alokairuari.

426 *El Noticiero Bilbaíno* 1924-07-02. “Desde Sopelana”

427 Juan Irigoyenen gutuna, 1924-05-27ko data duena, seguruenik *Excelsius* egunkarian argitaratua, hemendik aterata: <https://memoriasclubdeportivodebilbao.blogspot.com/2021/02/los-primeros-socorristas-en-bizkaia.html>

428 *El Pueblo Vasco* 1923-12-18, 1924-03-05 eta 1924-03-18.

429 *El Pueblo Vasco* 1924-03-05 eta 1924-03-16. Industria ekarpenari dagokionez, ikus: BFAH, SOPELA 0053/031, *Industria ekarpena*, 1924.

Bada Sopelan turismoak garrantzi nabarmena hartu zuela erakusten duen froga bat: 1924ko urtarrilaren erdialdean *El Pueblo Vasco* egunkarian argitaratutako albistea. Bertan, eraikin bat eraikitzeke proiektuaren berri eman zuten, “*hondartzen aurrean, Sopelan, udan jatetxe gisa erabiltzeko*”, baita ostatu etxe gisa ere. Sukaldea eta jantokiak zituen gastronomia establezimendua eraikineran beheko solairuan egongo litzateke, eta “*altzariz hornitutako pisu bi alokairurako*” gorde ziren. Egunkariko tokiko berriemakak “*negozio ona*” izango zela iragarri zuten, “*ikusita hondartza horien garrantzia eta bertara joaten den jende kopuru handia*”. Proiektu hori aurrera eramateko, dirudienez, “*herri honetan zenbait lagunen arteko elkarte bat*” eratu zen, nahiz eta ekimen horren ageriko burua Daniel Arceniega del Val izan zen, lanbidez marinela eta, gainera, gaur egun ‘*ekintzailea*’ deituko genukeena; izan ere, hotelaren irekieran sartzeaz gain, badakigu urte bereko apirilean Sopelako udaletxean alta eman zuela “*aurretiaz egindako arropa saltzaile*” gisa⁴³⁰.

Hotel jatetxe berriaren lanak 1924ko martxoaren erdialdean hasi ziren ustez, eta badakigu maiatzaren amaierarako oso aurreratuta zihoazela. Azkenik, “*Ichaso Gane*” hotela, “*aurrerapen eta erosotasun guztiez hornitua*”, urte horretako uztailaren 20an inauguratu zen. Urriaren amaieran, *El Pueblo Vasco* egunkariko berriemakak sopoloztarrak “*zurrumurrak*” jaso zituen: negu hartan “*hondartzako hotelak eta 'ltzazogane' jatetxea irekita*” egongo zirela⁴³¹.

Ez dakigu orduko hartan zurrumurrua bete ote zen. Hondartzako janari eta edari establezimenduak ekainetik irailera bitartean bakarrik zeuden irekita; *Itxasgane* hotela, dirudienez, udako denboraldiaren amaieratik aurrera irekita egon zen zenbait urtetan. Horixe ondoriozta liteke 1924 eta 1930 bitartean Industria Ekarpinak sortutako dokumentazioak ematen dizkigun datuak aztertzean. Adibidez, 1927an, “*ostalari etxeak*” uztailaren 1ean ireki zituen ateak eta irailaren 30ean zarratu; 1928an, ostera, abenduan zarratu behar izan zituen, negozioaren urteko etena hilabete horren 31n erregistratu baitzen. 1926an, bai janari eta edariaren lokalak, bai hotelak, abenduaren 1ean amaitu zuten beren jarduera, eta hilaren 4an eman zuten alta taberna gisa. Azkenik, badakigu 1929an ostalari etxea udan bakarrik ireki zutela, eta gainerako urteetan taberna gisa aritu zirela, nahiz eta jabeak hilabete horiek nabigatzen ematen zituen, hori baitzuen lanbide, lehen adierazi dugun lez⁴³².

430 *El Pueblo Vasco* 1924-01-15 eta 1924-03-16. Hotel jatetxeko jabearen lanbideari buruzko datua, 1925eko Hauteskunde Erroldatik ateratakoa (BAO 1925-12-12). Arropa saltzaile gisa duen altari buruzko datua hemen agiri da: BFAH, SOPELA 0053/031, *Industria ekarpena*, 1924.

431 *El Pueblo Vasco* 1924-03-16, 1924-05-31, 1924-07-18 eta 1924-10-28.

432 BFAH, SOPELA 0040/002, Igorritako korrespondentzia, 1929, *Sopelako alkatearen ofizioa Bizkaiko Gobernadore Zibilar, 1929-02-23*; eta *Sopelako alkatearen ofizioa Espainiako Hotel Ganbera Ofizialeko EAeko eta Nafarroako Ordezkaritzako lehendakariari, 1929-08-12* (udal idazkariak emandako ziurtagiria barne) Industria ekarpinak ikusteko: BFAH, SOPELA 0053/033, *1926ko industria ekarpena*, SOPELA 0054/001, *1927ko industria ekarpena*, eta SOPELA 0054/002, *1928ko industria ekarpena*.

Tomás Basartek, aurreko lerroetan aipatu dugunak, udako denboraldia amaituta, zarratu egiten zuen bere “*edari eta janari postua (...) hondartzara inor ez joateagatik*”, eta urteko gainerako hilabeteetan nekazaritzan aritzen zen, 1929ko Matrikula Industrialean agertzen den lez⁴³³. Basarteren establezimenduz gain, hondartzako sukaldaritzaren eskaintza José María Ibarra Aldecoarekin osatu zen joan den mendeko 20ko hamarkadan; horiez gain, 1928an, Valentín Cajigasek zuzendutako beste lokal bat ireki zen⁴³⁴.

Bainularien segurtasuna izan zen udalaren kezka nagusietako bat. 1923ko abenduan, Udalak proiektatu zuen 1924ko udako denboraldirako hondartzan “*unama sorta bat (...) ezartzea, bertara joaten diren milaka bainulariek uneoro segurtasun elementuak izan ditzaten*”. Maiatzaren amaieran, *El Pueblo Vasco* egunkarian iragarri zen ekainaren hasierarako “*bainularien segurtasunerako jartzen ari diren unamen kokalekua amaituta*” geratuko zela⁴³⁵.

Segurtasun neurri berriak ezarrita, 1924ko uda hartako hondartza denboraldiaren hasierak etorkizun handikoa zirudien. Ekainaren 15ean, domekaz, *El Pueblo Vasco* egunkariko berriemaileak “*benetan aparteko egun*” gisa deskribatu zuen: “*bi sexueta milaka pertsonak gure hondartzan desfilatu dute*”. Horren erakusgarri izan zen “*jatetxeetako eta askaldegietako jabeak, zalantza barik gutxi prestatuta zeudenak, goiz-goizetik existentzia barik geratu izana*”. Zori hobea izan zuen “*Daniel ospetsuak*”, eta “*gauera arte jarraitu zuen txurroak egiten, beti ehun pertsona baino gehiago edukiz labekadaren zain*”⁴³⁶.

Hala ere, gertaera izugarri batek uda sasoi hartako ikuspegi alaia ilundu zuen: ekainaren 27an, Bilboko hiru gazte itota hil ziren Sopela eta Getxo udalerrietako *Salvaje* edo *Barinatxe* hondartzan. Hildakoak 15 eta 16 urteko anaia bi izan ziren, eta euren lagun bat, 17 urtekoa, korronteak arrastaka eroan zituenean eurak salbatzen saiatu baitzen. Bilboko prentsak asko zabaldu zuen gertaera, eta tragedia latzaz haratago, Sopolako hondartzak protagonista zituen kanpaina nahasi bat ere hasi zen. *El Pueblo Vasco* egunkariak itotze hirukoitzaren berri eman zuen, eta “*Sopolako hondartzan*” kokatu zuen, eta ez *Salvaje* hondartzan, esaldi izugarri batekin: “*berriro ere, Sopolako hondartzak doluz jantzarazi ditu familia bilbotarrak*”⁴³⁷.

433 BFAH, SOPELA 0040/002, Igorritako korrespondentzia, 1929; *Sopolako alkatearen ofizioa Bizkaiko Gobernadore Zibilaria*, 1929-02-23; eta *Sopolako alkatearen ofizioa Espainiako Hotel Ganbera Ofizialeko EAEko eta Nafarroako Ordezkaritzako lehendakariari*, 1929-08-12 (udal idazkariak emandako ziurtagiria barne).

434 BFAH, SOPELA 0054/002, *Industria ekarpena*, 1928.

435 *El Pueblo Vasco* 1923-12-11 eta 1924-05-31.

436 *El Pueblo Vasco* 1924-06-17.

437 *El Pueblo Vasco* 1924-06-28.

El Liberalek, adibidez, sentsazionalismo baliatu zuen gertaerak kontatzeko. Nahiz eta artikulua barruan zehaztu ez beharra ez zela Atxabiribil-Arrietara hondartzan jazo, baizik eta *Salvaje* hondartzan, edo “*Kaioen hondartzan*”, albistean hasieran, herriko hondartzak “*hondartza engainagarritzat*” jo zituen, horrela deskribatuz:

“Las playas de Sopelana, playas vírgenes, limpias, al parecer, de toda vigilancia, son escenario de no pocas tragedias sin aparato, tragedias que sepulta el mar.

Abiertas al Cantábrico, gozan de una aparente tranquilidad, que atrae a quienes huyen del bullicio cosmopolita de la playa de Algorta.

Antes, no ha muchos años, rara era la persona que se encerraba en la playa de Sopelana para hacer “vida salvaje”, libre de miradas inoportunas.

Hoy las cosas han cambiado. Sopelana se ve visitadísima, y ha comenzado a ser un mito para la “vida salvaje”. Su playa, playa engañosa, acoge amorosamente a los visitantes para después, al menor descuido, convertirlos en sus víctimas.

A la larga lista negra hay que añadir tres nombres más: los de otros tantos muchachos que, huyendo de la ola caliginosa, fueron buscando un poco de frescor en las aguas que les han servido de tumbas.

¿Servirá este nuevo drama de aviso a las autoridades descuidadas y de lección a los temerarios?”⁴³⁸

El Nervión egunkariak, bestalde, albistea horrela izendatu zuen: “*Zorigaitz hirukoitza Sopelako hondartzan*”, baina kontakizuna hasterakoan, zehaztu zuen itotzea “*Salvaje izeneko hondartzan*” jazo zela, “*ospe tristea hartzen*” ari zela, eta “*joan den udan hainbat zorigaitz*” jazo zirela bertan, atzerriar bien itotzeari erreferentzia eginez. Egunkariak zioenez, gainera, asko ziren hondartza horretara joaten ziren bilbotar gazteak: “*Badirudi hondartza honek gure hiribilduko gazteriarengan arriskuaren erakarpina eragiten duela, eta gero eta jende gehiagok bisitatzen du, gehienak kirol elkarteetakoak, bertara joaten baitira eguzki bainuak hartzera eta olatu traidoreen artean murgiltzera*”⁴³⁹.

El Noticiero Bilbaínok zehaztasun handiagoa erakutsi zuen gertakari tristea kontatzeko orduan, eta argi utzi zuen dena “*Sopelako Larrabasterra hondartzan*” jazo zela, “*Salvaje hondartza izenez ezagunagoa, eta Sopelana eta Berangoko jurisdikzioak mugatzen dituena*”⁴⁴⁰. Egunkari bilbotarrak jarraipen nahiko etengabea egin zien gertakariei, eta “*agintariek eta bizilagunek aho batez goraiatu zuten, El Noticiero Bilbaíno egunkariak zoritxar horri buruz argitaratu zituen informazioak egiazkoak zirelako, eta pozik ikusi zen informazio horietan ez dutela zurrumurrurik zabaldu*”, zalantza barik, Sopelako hondartzari kalte egin ziotelako. Hori dela eta, *Ignus* berriemaileak hondartzaren aldeko babesa egin zuen, uztailaren 2an agertutako artikulua baten bidez; esan zuen Atxabiribil-Arrietara hondartza “*erabat ezaguna zela, (...) ez oraingoagatik, betidanik baizik, udako aisialdirako leku gisa, eta Salvajeren jurisdikzioan jazo diren edo gerta daitezkeen gertaera trasteak (...) ez dira nahikoa argudio bainulariak eta udatiarrak urruntzeko*”. Artikulugileak gogorarazi zuen, gainera, aspaldi ezarri zutela agintariek pertsona biz osatutako

438 *El Liberal* 1924-06-28.

439 *El Nervión* 1924-06-28.

440 Azken datu hori okerra zen, hondartza Sopela eta Getxokoa baita; halandaze, erredaktorea “*Berango Erribera*” tokiko toponimo tradizionalak nahastu zuela susmatzen dugu.

zaintza zerbitzua, identifikazio uniformeekin, eta hondartzako 1.500 metroak oinez zeharkatzen zituztela gertakari latzei aurrea hartzeko. Neurri osagarri gisa, zera zegoen: “160 metroko kable bat, harresi itxuran eutsia, zorigaitzak saihesteko eta leku aurreratueta abisu gisa balio izateko. Kable horiei barrote sendoek eusten diete, eta hondartza bietan banatuta daude, bata 60koa eta bestea 100ekoa”. Ignusek hondartzaren alde egindako alegatu indartsuak, azkenean, jomugatzat hartu zituen “gertakariak eragindako iruzkinak” erantzukizuna “tokiaren gain” jartzen baitzuten, “eta ez bainu lekuetatik aldendu eta arrezife eta haitzetara hondartzako jurisdikziotik kanpo joaten diren pertsonen ausardiaren gain, hau da, arrisku larriaren gain”. Idazkia amaitzeko, kronikariak aipatu zuen ekainaren 29an, domekaz, “(...) jendea bainatzen den tokian, 1500 edo 2000 kanpotar izan zirela, bainularien eta euren familien artean”⁴⁴¹.

Barinatxe hondartzak kezka sortzen jarraitu zuen prentsaren aldetik: 1926ko uztailaren hasieran, *El Nervión* egunkariak “Salvaje hondartza deiturikoan bainua errotik debekatzeko” eskatu zuen, ezbeharrak saihesteko, “olatu bortitzek” biktimarik eragiten ez zuten urtea “arraroa” baitzen. Oraingo honetan, ikus dezakegunez, hondartzaren izena zehaztu zen. Hala ere, 1928ko uztailaren erdialdean, hedabide berak “Sopelako hondartza” aipatzen zuen berriz, eta bertan zaintza “hutsaren hurrengo” zela adierazten zuen: “bainu bat hartzera joan ziren gazte bi, erresakak arrastaka eroan zituen”, eta “gertakaria ikusi zuten beste batzuek” erreskatatu zituzten. Viriatok, *El Nervión*eko “Oyendo, viendo y apuntando” ataleko arduradunak, aukera aprobetxatu zuen Sopelako Udalarari dardo bat jaurtitzeko, honako hau adieraziz: “Bilbotik hondartza horretara eguna pasatzera joaten direnek eramaten duten ardoaren eskubideak kobratzeko erabiltzen den ardura handia erabili behar da (...) hondartza hori ezagutzen duten pertsonak zorigaitz posibleak saihesteko”⁴⁴².

Kronika hau agertu eta gutxira, Sopelako Udalak artikulua bat enkargatu zion *El Noticiero del Lunes* egunkariari, alde zurretik ordainduta, “hondartza honi ospe eta entzute gehiago emateko asmoz”⁴⁴³. Idazkiak Arrietara eta Atxabiribil hondartzaren defentsa sutua egiten zuen, kalte egin gura zieten iruzkinei aurre egiteko, eta hondartza horiek *Salvaje* hondartza arriskutsutik bereizten zituen:

“Desde hace algún tiempo se viene combatiendo a esta pintoresca playa por ciertos elementos que, al parecer, no ven con buenos ojos la extraordinaria afluencia de bañistas cada vez mayor que se nota en ella, achacándola de peligrosa, y añadiendo que en ella han perecido expertos nadadores, demostrando que desconocen en absoluto las condiciones de seguridad que tiene la playa.

Para corroborar la afirmación que hacemos, existen en esta localidad varios testigos ochentones que no recuerdan haber ocurrido en dicha playa una sola desgracia, y nosotros, que casi a diario concurrimos a ella, podemos asegurar sin temor a mentir, que la playa de Sopelana, es una de las playas más pintorescas y que reúne las mejores condiciones de seguridad de toda la costa cantábrica, y si no, díganlo los millares de bañistas que los domingos y días festivos concurren a ella desde las primeras horas de la mañana.”

441 *El Noticiero Bilbaíno* 1924-07-02 “Desde Sopelana”.

442 *El Nervión* 1926-07-05 eta 1928-07-16.

443 BFAH, SOPELA 0039/002, Bidalitako korrespondentzia, 1928, *Sopelako alkatearen ofizioa El Noticiero del Lunesko zuzendariari*, 1928-07-31.

La playa peligrosa para los bañistas es la conocida con la denominación “Berango-Ribera”, que se halla distante unos 600 metros al Oeste de la de Sopelana y es de la jurisdicción de Guecho y de este pueblo, y en ella se hayan fijados grandes cartelones haciendo notar al público el peligro inminente que existe para los bañistas”⁴⁴⁴.

1929ko udako denboraldiaren hasieran, *El Nervión* egunkaria bakegileago agertu zen “*Sopelako agintariekin*”, eta euri adierazi zien ez zuela harritzekoa izan behar espazio bat eskaintzeak “*muntatutako zaintza zerbitzua ahalik eta eraginkorrena egiten saiatzeko, bainulariei zorigaitzak saihesteko*”. Gainera, Bilboko egunkariak adierazi zuen “*oso komenigarria*” litzatekeela bainua debekatzea “*denek ‘Salvaje hondartza’ izenez ezagutzen duten tokian (...)*”. Abuztuaren hasieran, hartutako neurriak gorabehera, hiru gazte, “*igerilari bikainak*”, itotzear egon ziren aipatutako hondartzan, eta, horren ondorioz, *El Nervión*ek berriro eskatu zuen hondartza hartan bainatzeko debekua, “*eta, beharrezkoa izanez gero, baita pertsonak Salvaje hondartza deiturikoan egotea ere, Sopelako agintariek agindu dezakete eta*”⁴⁴⁵.

Esan lez, Sopelak jaiegunetan jasotzen zituen bisitari gehienak Bilbo aldetik etorritako hondartzako erabiltzaileak ziren, baina uda denboraldia igarotzera etortzen ziren familiak ere hartzen zituen herriak. Garai hartako prentsak *Notas de sociedad* edo *Ecós de Sociedad* izenekoetan aipatzen zituen izenak. Pertsona horiek, ziurrenik, herriko hotel establezimenduetan edo herrian eraikitzen joan ziren txalet edo etxeren batean hartzen zuten ostatu. Izen batzuk aipatzearen, 1924ko udan, Sevillatik Juan Iturri etorri zen, eta “*Landajoko andereñoak, ilobekin batera*”. Burgostik, “*Antonio Mena jauna, hiriko Lurralde Auzitegiko goi langilea*” eta bere familia etorri ziren. Burgostik bertatik Sopelara joan zen Alejandro Ruiz Gómez, “*Guardia Zibilaren Kidego benemertuaren kapitaina, bere andre eta familia ospetsuarekin*”. Bilbotik ere jende asko etortzen zen uda pasatzera. Horietako asko Bizkaiko hiriburuan bizi ziren sopoloztarrak edo bere garaian Bilbon finkatu ziren herriko bizilagunen ondorengoak ziren⁴⁴⁶.

Bestalde, prentsan kexak agertu ziren Sopelako hondartzan moralaren aurkako jantziak erabiltzeagatik. Hala, 1926ko uztaillean, *El Nervión*en orrialdeetan adierazi zen uste zutela kostaldeko herrietako agintariek, “*batez ere Sopelakoek*”, “*beharrezko neurriak hartu*” zituztela “*hondartza horietara joaten ziren guztiak eguzki bainuak hartzera behartzeko, behar den legezko jarrera ikus dezaten*”. Disuasio neurri horiek urtez urte errepikatu arren, bainulari askok ez zuten agintariek eskatutako bainujantzia jantzi gura izaten. Adibidez, aipatutako egunkarian, 1928ko uztailaren 15ean, hondartzara joaten ziren bisitariak, “*gehiak, sexu itsusikoak*”, hau da, gizonak, “*futboleko praka soil bat besterik ez zeramaten*”, eta janzkera horrekin “*hondar gainean paseatzen edo etzanda egoten ziren, inork euren janzkera okerra adierazi barik*”. Izan ere, egunkari berean urtebete geroago adierazi zen lez,

444 *El Noticiero del Lunes* 1928-08-06 “Sopelana”.

445 *El Nervión* 1929-07-01 eta 1929-08-07.

446 *El Pueblo Vasco* 1924-06-03, 1924-06-17, 1924-07-22 eta 1924-07-11; eta *El Noticiero Bilbaino* 1924-07-02.

uda bakoitzean ezarritako zaintza zerbitzua ez zen “nahikoa elementu gaitzesgarri batzuek gatz auzeraz gozatzera hondartzara joaten direnentzako keinu eta jarrera desegoki eta iraingarriak hartzea eraġozteko”⁴⁴⁷.

Ziurrenik, herrian kanpotarren kopurua handitu zelako, eta trenbidearen osagarri, 1923ko udazkenean *Compañía Unión de Larrabastera* sortu zen, “bidaiarien autokamioi” zerbitzua eskaintzen zuena. Sei Ford zituen garraio konpainia berria Sopelako “bizilagun batzuen ekimenari esker” jarri zen martxan. Udalerrri mugakideekin egiten ziren joan-etorriak, “bereziki Algortarekin, herri honetako bidaiarien autokamioi bat ateratzen baita orduoro, trenekin batera”, eta horiek Aduanako (Bilbo) tren geltokitik “ordu erdiro” ateratzen ziren. Zerbitzua urte horretako abenduan zabaldu zen, Areeta eta Portugalete lotzen dituen Zubi Esekiraino⁴⁴⁸. Autokamioiak Sopelan merkantzien garraioa erraztera ere etorri ziren, tren geltokian bazterbide baten faltan baitzeuden; 1924ko amaieran, proiektu hori “justuen ametsean” zegoen. Herriko merkataria eta industriariak nahiko pozik zeuden autokamioiek eskaintzen zuten “zerbitzu bikainarekin”, “salgaiak etxeko atean erosotasun eta ekonomia handiz uzten” baitzituzten⁴⁴⁹.

1.3.3. Soziabilitatea: aisia eta jaiak

XX. mendeko 10. hamarkadan Sopelaren gizarte osaera lantzean, Ramón de Echevarrioste berriemaileak 1912ko uztailean egin zuen udalerritari buruzko deskribapen txiki bat gehitu dugu. Ramón de Echevarrioste *El Pueblo Vasco* kronistaren iritziz, Sopela une hartan “herri txiki bat zen, (...) pauso handitan aurrera eġiten ari zena”⁴⁵⁰. Adierazi dugun lez, garai hartan gora egin zuen nabigazioan ziharduten biztanleen kopuruak, eta, ondorioz, handitu egin zen euren ahalmen ekonomikoa. Bestalde, herriko ehun komertzialak nolabaiteko hazkundera izan zuen, eta, gainera, herrira aurrerapen modernoak iritsi ziren, halan zelan argi elektrikoa. Aurrerapen horien beroan, sozializatzeko modu berri bat agertu zen Sopelan, **Sociedad Recreativa** sortu baitzen, baina ez dakigu noiz eratu zen, nahiz eta badakigun 1908ko azaroan herrian ez zegoela “kasino edo aisialdirako elkarterik”⁴⁵¹. Aurkitu dugun lehen albistea 1912. urtearen hasieran argitaratu zen, eta horri esker dakigu *Sociedad Recreativa* sopeloztarraren buru Pantaleón Trifol zela, eta elkarteak José Quintanaren jatetxean zegoela. Egin zituen jardueri buruz, adibidez, 1911. urteari agur esateko antolatu zuten gauaren berri dugu. Festa hari hasiera emateko, “Elena Urruticoechea eta Carmencita de Gambe ġazte atseginek maisuki eġindako pasodoble bat” dantzatu zuten. Emanaldi horren ondoren, Enrique Urruticoechea “Urduñako ikastetxeko ikasle bikainak”, “aparteko berbaldia” eman zuen, “eskolan ikasten ematen duen denbora asko aprobetxatzen duela erakutsiz”. Hirugarren ekitaldirako, “Plácido García sinpatikoak (...) hainbat esku joko” egin

447 *El Nervión* 1926-07-05, 1928-07-16 eta 1929-07-01.

448 *El Pueblo Vasco* 1923-11-20, 1923-11-24, 1923-12-06 eta 1924-01-22.

449 *El Pueblo Vasco* 1924-04-27.

450 *El Pueblo Vasco* 1912-07-04 “Crónica Postal – Plencia – Las romerías de San Juan y de San Pedro”

451 BFAH, SOPELA 0031/004, Jasotako korrespondentzia 1908, Batzorde Probintzialak Sopelako alkateari eġindako zirkularra, 1908-11-24koa, alkateak 1908-11-30ean emandako erantzuna barne.

zituen. Horrekin guztiarekin, “*pasta eta ardo oparoak*” izan ziren⁴⁵². 1915eko gabonetan, antzerki saio bi antolatu ziren Eguberri egunean eta Urteberri egunean, “*andereño eta ikasle amateurren parte hartzearekin*”. 1915eko abenduaren 25ean, horretarako sortutako antzerki taldeak⁴⁵³ “*Vivir para ver*” eta “*Campanilla en apuros*” antzezlanak taularatu zituen; 1916ko urtarrilaren 1ean, berriz, “*Basta de matemáticas*” sainetea eta “*Dichoso Tenorio*” obra interpretatu zituen. Egun hartan bertan, “*amateur ospetsu*” batek “*Oratoria fin de siglo*” bakarrizketa antzeztu zuen. Gauari amaiera emateko, “*dantza alaia*” izan zen, “*don Luis Navarro eta don Pablo de Zalvidea jotzaile atseginei esker*”⁴⁵⁴.

Badakigu, halaber, Sociedad Recreativa elkarte Sopolako San Pedro jaien antolaketa inplikatu zela, gutxienez 1912 eta 1914 bitartean. 1912koetan, alkatearen eta “*‘Recreativako’ bazkideen*” ekimenez, “*festetarako harpidetza bat ireki zen*”, oso emaitza onarekin, espero baino gehiago bildu baitzen. Lortutako zenbatekoa, Udalaren “*festetarako aurrekontu txikiarekin*” batera, nahikoa zela uste izan zen “*hau baino herri handiago askok berentzat gura lituzketen jaiak ospatzeko*”⁴⁵⁵. 1913an, “*jai batzuk adosteaz eta ordaintzeaz*” arduratu zen jolas erakundea⁴⁵⁶, eta gai hori aurrerago garatuko dugu. 1914an, Sopolako Udalak beste urrats bat eman zuen, jaietako kudeaketa *Sociedad Recreativaren* esku uztea. Aurretik, Sopolako Udalak erabaki zuen erromeriak Plentziako Musika Bandak girotzea, eta 19 musikaririk osatzen zutenez, “*aurreko urteetan baino dezente altuagoa*” izango zen kostua. Horrexegatik, Udalak erabaki zuen “*jolas elkarteari jai guztietarako udal funtsetatik laurehun pezeta ordaintzea, eta gainerakoekin elkarteak egoki deritzon moduan konpontzea*”⁴⁵⁷. Ez dugu *Sociedad Recreativari* buruzko informazio gehiagorik aurkitu, baina data ezezagun batean bertan behera utzi zuen jarduera. Aztarna garrantzitsua utzi behar izan zuen herriko bizilagunen artean; izan ere, 1924ko otsailaren hasieran, Sopolako *El Pueblo* Vascoko berriemaileak honako hau jakinarazi zuen: “*herriko Sociedad Recreativa zaharrak ateak irekiko ditu berriro, bazkide kopuru handi batek lagunduta, eta bazkide horiek merezi duen lekuan jarriko dute elkarte*”⁴⁵⁸. Hain baieztapen irmoa izan arren, egia esan, ez dugu aurkitu elkarte zaharra berriro irekitzeari buruzko ondorengo barririk.

Herrietako jaiak sozializatzekeko modu tradizionala ziren, eta udako hilabeteetan kontzentratzen ziren, orduan zeudelako baldintza meteorologiko onenak. Garai horretako **Sopolako** jaien egutegiak hiru jai biltzen zituen nagusiki: San Antonio, San Pedro, Elizateko patroia, eta Santa Marina; ikusiko dugunez, 1924an osatu ziren, Larrabasterra auzoan Karmengo Amaren omenezko jaiak sortu baitziren.

452 *El Pueblo Vasco* 1912-01-07.

453 Honako hauek osatzen zuten aktoreen zerrenda: Asunción García, Flora Barrenechea, Plácido eta Adolfo García, Miguel Álvarez, Ramón Barrenechea, Cesáreo Apraiz eta Antonio Ansoleaga.

454 *La Gaceta del Norte* 1915-12-31 eta *El Pueblo Vasco* 1916-01-03.

455 *El Pueblo Vasco* 1912-06-21.

456 BFAH, SOPELA 0077/001, 1891-1915eko Akta Liburua, 1913-06-08 eta 1913-06-22ko Bilkura Arrunta

457 BFAH, SOPELA 0077/001, 1891-1915eko Akta Liburua, 1914-06-28ko Bilkura Arrunta.

458 *El Pueblo Vasco* 1924-02-05.

1893an trenbidea martxan jarri zenean, bisitariak Sopelara hurbildu ziren udalerriko jaienez gozatzeko. Logikoa denez, jai ekitaldietara bertaratutakoen kopuruak gora egin izanak onura ekonomiko handiagoak ekarri zizkion herriari. Halandaze, ez da harritzekoa 1905ean Sopelako Udalak **herriko San Pedro zaindariaren jaiak** iragartzeko kartelean “*prezio merkeko tren*” egongo zela adieraztea, erromeroak elizatera joan zitezen sustatzeko. Hurrengo urtean, Sopelako alkate Enrique Urruticocheak kudeaketak egin zituen trenbidearen enpresak zerbitzu berezi bat jar zezan, “*jolasaldi eta alaitasun egun horietan herria bisitatu gura zuten kanpotarren sarbide erraza lortzeko*”⁴⁵⁹.

XX. mendeko lehen urte haietako festa programen kasuan, *El Noticiero Bilbaíno* egunkarian argitaratutako hainbat kronikari esker ezagutzen ditugu xehetasun batzuk. Berezi kontratatutako Musika Banda bat arduratzen zen musikaz, 1905ean jazo zen lez, eta emanaldia “*danbolindariekin eta filarmonikoen eta gitarren korroekin*” tartekatuta zuten⁴⁶⁰.

1906an, Sopelako Udalak Getxoko Udal Banda kontratatu zuen San Pedro jaietan jotzeko. Urte hartako ospakizunak arrakasta handia izan zuen, Ramon de Echevarrioste kronikariak idatzitako kontakizunari erreparatuz gero: “*Aurtengo erromeriak oso ondo antolatuta izan dira, eta jende asko izan da bertan, eta Getxoko udal banda laudatuaren akorde harmoniatsuak pozez zorutzen entzun dituzte, zelaietan kontzertu hautatua egin baitu, eta horri buruz egin dira baloraziorik eta gorapamenik handienak*”⁴⁶¹.

Badirudi 1907an ere ospakizuna oso arrakastatsua izan zela, “*alaitasun handikoa*”, nahiz eta “*santuaren egunean eguraldia behar den legezkoa ez izan*”. Urte hartako kronikan, erromeria dantzatzeaz gain, “*neska politek eta baserritar xumeek ez ezik, Plentzia, Gorniz, Algorta eta inguruko beste herri batzuetako andereño ugari ere parte hartu zuten*”; egun haietan kontsumitutako edaria ere zehaztu zen: “*zelaitik gertu zeuden salmahaietan eta bertan ezarritako txosnetan limonadak, txakolina, ardoak eta abar xahutu ziren*”⁴⁶².

1912ko San Pedro jaiak zelan igaro ziren oso ondo dakigu, eta, esan lez, herriko lehen aipatutako *Sociedad Recreativaren* laguntza izan zuten. *El Pueblo Vasco* egunkariko berriemaile sopoloztarrak azaldu zuenez, jaien aurreko egunetan sortutako espektatibak oso handiak izan ziren, eta adierazi zuen “*dirua barra-barra gastatuko zela, normalean esaten den lez*”. Adierazi dugun lez, bildutako aurrekontu oparoak askotariko ekitaldien programa bat egitea erraztu zuen, “*ziur aski inguru horietako jende gaztea erakarriko dutenak*”. Kronikariak aurreratu zuenez, Gornizko Musika Bandaren emanaldia, erraldoi eta buruhandien presentzia, su artifizialak eta herrira iristen ari ziren aurrerapenekin bat zetorren berrikuntza bat: “*aire zabaleko zinema egongo da, (fluido elektrikoa baitugu)*”⁴⁶³.

459 *El Noticiero Bilbaíno* 1905-06-28 eta 1906-05-26.

460 *El Noticiero Bilbaíno* 1905-06-30.

461 *El Noticiero Bilbaíno* 1906-07-02. “*Desde Plencia. Las fiestas de Sopelana*”.

462 *El Noticiero Bilbaíno* 1907-07-01. “*Carta de Sopelana*”.

463 *El Pueblo Vasco* 1912-06-21. “*Sopelana. Las próximas fiestas*”.

Jai ekitaldiak oso arrakastatsuak izan ziren: Echevarrioste, Plentziako kronista, bertan egon zen, eta bertaratze handiaren testigantza utzi zuen: *“landak ezin izan dio eutsi egun hauetan Sopelara klasizismoak eta festen distirak erakarrita iritsi den jendetza itzelari”*. Berriemailearen ustez, Sopelako kokapen geografikoak ere garrantzi handia izan zuen, eta urte hartako San Pedro egunaren arrakasta bultzatu zuen: *“Algorta eta Plentziako erdigunea hain leku edertzat har daiteke, han bildu baitziren herri bien handitasuna eta dotorezia, baita inguruko beste herri batzuetako andereño asko ere (...), gustu handiz eta dotorezia iradokitzailez jantzita”*⁴⁶⁴.

Sopelatik bidalitako kronikak festen arrakasta azpimarratu, eta jai giroa xehetasunez zehaztu zuen. *“Grazia artistikoz”* apaindu zituzten musika kioskoa, *“joan-etorri gehien zuten tokiak eta Sociedad Recreativaren fatxada biak”*. Era berean, *“(hain itxura poetikoa zuten) argiztapenak”* jarri ziren, *“ezen batek pentsa zezakeen Veneziako San Markos plaza handira eroana izan zela, gondolen irristatze leuna eta usoen zimur maitekorrak hautemanen”*⁴⁶⁵. Elizkizunen kasuan, Meza Nagusian egon ei ziren *“‘Recreativa’ horretako zenbait gazte, ‘bell canto’ zaleak (...)”*⁴⁶⁶. Ekitaldi ludikoen kasuan, Agapito Landa piroteknikoaren su artifizialek *“txalo zaparrada etengabeak ateratzea lortu zuten”*, eta kaleko zinema berritzaileak *“zirrara atsegina”* eragin zuen, *“aurkezpen perfektuagatik eta Benito Bilbatua jaun zinematografikoak erakutsitako film aukeratutakoengatik eta interesgarriengatik”*⁴⁶⁷.

1912ko herriko jaietako zinema emanaldia hain gustukoa izan zen, ezen 1913koetan esperientzia errepikatu baitzen. Hori dela eta, Sociedad Recreativak *“aire libreko zinema ikuskizuna”* sustatu zuen berriro bigarren jai eguneko eta errepikapen eguneko gauetan. Udalak kontratatutako Musika Bandaz gain, Plentziako bizilagun Manuel Espinek ere Udalaren baimena jaso zuen pianoa biraderaduna jotzeko, hiru musika piezarekin: *Pasodoblea, Habanera eta Jota*⁴⁶⁸. 1914ko San Pedro jaien kasuan, aurreratuko dugu Udalak Sociedad Recreativaren esku utzi zuela. Urte hartako edizioan ere, aire zabaleko zinema emanaldia egin zen⁴⁶⁹.

San Antonioko erromeriari dagokionez, badakigu XX. mendeko lehen hamarkadaren erdialdean gainbehera betean zegoela. Ez dakigu zerikusia izan ote zuen, baina Echevarrioste kronikariak 1906ko maiatzean jaso zuenez, garai hartan Sopelako Udalak idi probak kentzeko erabakia hartu zuen, *“ikuskizun hori ez zégokiolako mendeetako aurrerabideari eta animalien bizitza babesten duten nazio zibilizatueta legeen aurkakoa zelako”*. Ekainaren 13ko jaieguna indartzeko, Sopelako Udalak Algortako Musika Banda kontratatu zuen⁴⁷⁰.

464 *El Pueblo Vasco* 1912-07-04.

465 *El Pueblo Vasco* 1912-07-12.

466 *El Pueblo Vasco* 1912-06-21.

467 *El Pueblo Vasco* 1912-07-12.

468 BFAH, SOPELA 0077/001, 1891-1915eko Akta Liburua, 1913-06-08 eta 1913-06-22ko Bilkura Arrunta.

469 BFAH, SOPELA 0077/001, 1891-1915eko Akta Liburua, 1914-06-21eko Bilkura Arrunta.

470 *El Noticiero Bilbaíno* 1906-05-26.

Hurrengo urtean, Udalak Musika Bandarik ez kontratatzea erabaki zuen, musika talde bati ordaintzeak “*emaitzarik ez zuela ikusita*”, “*egun horretan erromeroak oso gutxi bertaratu zirelako*”. Horren ordez, gobernu taldeak “*irrintzilari, aurrekulari eta dantzarien lehiaketak*” antolatu zituen⁴⁷¹. Erabaki hura geratzeko iritsi zen, eta 1910ean ekainaren 13ko jaieguneko ekitaldi ludiko nagusia “*aurrekularien eta irrintzilarien lehiaketa*” ere izan zen⁴⁷². Hurrengo urtean, ordea, alkateak honako hau adierazi zien udalbatzako gainerako kideei:

“(...) en diferentes años y principalmente los tres últimos, ha intentado este Ayuntamiento de (sic) dar mas realce a la romería de la festividad de San Antonio, acordando verificar distintos concursos de aurrekularis, sansolaris y otros, y hasta contratar la Banda de Música de Algorta, sin que ninguno de dichos intentos diera el resultado apetecido, sin duda alguna porque los romeros tienen la tradicional costumbre de asistir este día a la romería que se celebraba en Martiartu, jurisdicción de Erandio, a donde asisten hasta los jóvenes de este mismo pueblo”⁴⁷³.

Hori dela eta, Sopelako Udalak erabaki zuen “*San Antonio egunean erromeria girotuko duen danbolin klasikoaz gain beste festarik eta musika gehiagorik ez egitea*”⁴⁷⁴. 1913an, jai hau suspertzeko beste saiakera bat proposatu zen: Claudio Larrondo zinegotziak idi probak “*ekainaren hamabostean, San Antonio egunaren hurrengo domekan*” egitea proposatu zuen, zalantza barik aipatutako Martiartuko erromeriarekin bat ez egiteko. Proposamenaren helburua ekonomikoa zen: “*udal arielen jasotzailearen onurarako kanpotarrak erakartzea*” zen asmoa. Larrondoren ideia onartua izan zen, nahiz eta Jose Loroño zinegotziak kontrako botoa eman zuen⁴⁷⁵. Hala ere, proiektua ezin izan zen gauzatu; izan ere, udal akordioa lortu eta gutxira, gobernadore zibilak debekua ezarri zuen “*horrelako frogak abeltzaintzarako garestiak zirela iritzita, gizarte arloko kontsiderazioez gain*”. Ustekabeko horren aurrean, alkateak bertsolari lehiaketa bat egitea proposatu zuen, eta aho batez onartu zen⁴⁷⁶. Data aldaketa egokia izango zen, hurrengo urtean ere ekainaren 13aren hurrengo domekarako jai ekitaldiak antolatzea proposatu baitzen.

Ordurako, eta alkatearen proposamenez, “*Jaunaren Igokundearen errepikapenean Urdulizen hainbeste nabarmendu zen Laukinizko ezpata dantzarien talde artistikoa*” kontratatzea erabaki zen⁴⁷⁷.

1914ko uztaillean, Lehen Mundu Gerra piztu zen, eta 1918ko azarora arte iraun zuen. Estatuak gatazkan parte hartu ez bazuen ere, ondorio ekonomikoak nabaritu egin ziren. Adibidez, 1916ko ekainaren erdialdean, Sopelako Udalak egiaztatu zuen udalerria egoera txarrean zegoela, “*bizibideak garestiak zirelako, Europako Gerraren ondorioz*”. Hori ikusita, herria ez zegoen “*gastu handiagoak egiteko*” moduan. Hori

471 BFAH, SOPELA 0077/001, 1891-1915eko Akta Liburua, 1907-20-05eko Bilkura Arrunta.

472 Ibid., 1910-05-29ko Bilkura Arrunta.

473 Ibid., 1911-06-04ko Bilkura Arrunta.

474 Ibid.

475 Ibid., 1913-05-25eko Bilkura Arrunta.

476 Ibid., 1913-06-01eko Bilkura Arrunta.

477 Ibid., 1914-05-01eko Bilkura Arrunta.

dela eta, jai aurrekontua musika emanaldietara mugatzea erabaki zuten, “*San Antonio egunerako danbolin klasikoa eta (...) San Pedro egunerako erromeriak girotzeko musika banda txiki bat*” ordaintzeko⁴⁷⁸.

Aurreko orrialdeetan, 1920ko San Pedro jaietan Francisco Ondiz alkateak antolatutako piano biraderaduna kendu izana aipatu dugu, erromerietako musikari dagokionez nazionalismoak defendatutako idealekin bat etortzeko. Urte hartako jaietako egun nagusirako antolatu ziren ekitaldiak ohiko ekitaldietara mugatu ziren: goizeko hamarretan, Udalbatza elizara joan zen meza nagusira joateko, “*herriko koru baliotsuek kantatua eta frantziskotar aita ospetsuak euskaraz predikatzen zuena*”. Ekitaldi erlijiosoaren ostean, “*Algortako ‘Euzko Gaztedijako’ ezpata dantzari bikainek (...) euren dantza tipikoak eta ohorezko aureskua*” dantzatu zituzten. Talde bera berriz aritu zen arrastian, Plentziako Musika Bandak eta danbolin jotzaileek dantzaldia girotu bitartean⁴⁷⁹. Jai giroa “*zabu, (...) pontxe ontzi, txurro saltzaile, baleztari eta joko gurpilen postuekin*” eta “*barkillogile, (...) jostailu, fruta, kakahuete, pastel eta urketarien saltzaileekin*” osatzen zen garai hartan⁴⁸⁰.

1921ean, egoera ez zegoen ospakizun handirik egiteko, Sopelako bizilagunak “*egungo uzta eskasiek eta bizitzaren garestitasun handiak zapalduta*” baitzeuden, Lehen Mundu Gerraren amaieraren osteko krisi ekonomikoak eraginda. Egoera horretan, alkateak adierazi zuen “*bititzen ari garen urte negargarriak kontuan hartuta eta auzoari dagozkion errekarquak saihesteko*”, San Pedro jaietan “*ahalik eta gastu gutxien*” egiteko, eta “*Bilboko banda partikularreko hamar musikari*” eta “*danbolin klasikoa eta atabala*” kontratatzerara mugatu ziren⁴⁸¹. Egoera ekonomikoa txarra zen oraindik 1923an, eta berriz urte hartako zaindariaren festetan eragina izan zuen, Udalak “*gastu handirik*” ez egitearen maxima aplikatu baitzuen, baita jaietako bigarren egunean musika kendu ere. 1923ko San Pedro jaietako ekitaldien programatik ezagutzen ditugu ospakizunen bigarren egunean, hau da, ekainaren 30ean, antolatu ziren “*herri josteta*” batzuk: “*zartagin hungariarra, pezeta bateko sari bakarrarekin*” eta “*begiak estalita lapiko bat apurtzeko joko, hiru pezetako sari batekin*”. Jaien hirugarren egunerako, uztailaren 1erako, beste lehiaketa bi adostu ziren: “*50 urtetik gorakoentzako aureskulariak, sari birekin, lehena 10 pezetakoa eta 5 pezetakoa bigarrena*”, eta “*elkarrengandik urrun samar jarritako poltsatxo batzuk hartzeko joko, begiak estalita, hiru sarirekin, bakoitza pezeta batekoa*”⁴⁸².

Santa Marina edo Santa Librada jaiari dagokionez, Urdulizko udalerrian ere ospatzen zen. “*Ohitura tradizionala*” zela-eta, Udalak Udalbatza gisa parte hartzen zuen Sopelatik Santa Marina Haitzetako ermitaraino abiatzen zen prozesioan, han Meza Nagusira joateko. Ekitaldi erlijiosoaren ondoren, Udalak “*udal funtsetatik*” ordaintzen zen bazkari bat egiten zuen; “*herri honetan antzina-antzinakoa den*

478 BFAH, SOPELA 0077/002, 1916-1921eko saioen Akta Liburua, 1916-06-11ko Bilkura Arrunta.

479 *Euzkadi* 1920-06-26.

480 BFAH, SOPELA 0077/002, 1916-1921eko saioen Akta Liburua, 1921-06-26ko Bilkura Arrunta.

481 BFAH, SOPELA 0077/002, 1916-1921eko saioen Akta Liburua, 1921-06-19ko Bilkura Arrunta.

482 SUA, 1921-1924ko Akta Liburua, 1923-06-17ko Bilkura Arrunta.

'oncena' delakoa"⁴⁸³ lez, prozesiora joandako "fededun guztiei" ardo zuriz eta galletaz harrera egiten zitzaien⁴⁸⁴. 1920ko uztailaren 20an egindako bazkaria ez zen "luxuzkoa izan, neurritsua baizik", eta zinegotziek erabaki zuten "meza ospatzen duen apaiza, sakristaia, udal epailea, haurren eskolako maisua, medikua eta gurutzea, estandartea eta bandera daramaten maiordomoak" gonbidatzea⁴⁸⁵.

El Pueblo Vasco egunkariko berriemaileak Sopelan 1923ko azarotik 1924ko uztailera bitartean egindako jarduera itzelak informazio ugari ematen digu elizatean denbora tarte horretan egin ziren jaiei buruz.

Lehenik eta behin, kronikariak 1923ko azaroaren 30eko **San Andresen** ospakizunaren berri eman zuen. Egun hartan, udalbatzako kideak eta herriko biztanle gehienak San Andres ermitara joan ziren prozesioan, goizeko zortzi eta erdietan, meza batera joateko. Meza horren ostean, "jendeari pastak eta txokolatea eman zizkioten". Arrastian, "ohiko erromeria egin zen zelaian, danbolin klasikoak girotuta, eta auzoko gazteek aurrekuak dantzatu zituzten"⁴⁸⁶. 1924ko ospakizunen egutegia urtarrilaren 20an hasi zen, **San Sebastian eguneko** ospakizunarekin, goizeko hamar eta erdietan kantatutako meza batekin osatutako egitarau oso tradizionalarekin, eta horren ondoren ohorezko aurreku klasikoak dantzatu zen. Arrastian, erromeria egin zen, danbolin jotzaileek alaituta⁴⁸⁷. **San Antonio jaiak**, urte batzuk lehenago igarotako une txarrak gorabehera, herriko jai egutegian jarraitzen zuen, tradiziozko egitarau batekin, non ezin zen falta goizeko hamarretan meza ospatzea, eta ondoren "ohorezko aurrekua", "gazteek zein eta zaharrek" dantzatu zutena. Ezin bestela izan, erromeria izan zen arrastiko protagonista, eta "danbolin jotzaileek eta beste instrumentu batzuek" jarri zuten musika⁴⁸⁸. Herriko **zaindari San Pedroren** 1924ko jaiak garai bateko distira berreskuratu zutela dirudi, zinema eta su artifizialak izan baitzituzten. Antolatutako ekitaldietan jende asko bildu zen: adibidez, hilaren 29ko Meza Nagusira "egundo ikusi ez den jendetza" joan zen. Arrastian, bisitari kopuruak gora egin zuen, Plentziako Musika Bandak eta Atxurra txistulari eta danbolin jotzaileak girotutako erromeriak erakarrita. Erromesen kopurua hain handia izan zen ustez, ezen "hondartzaren eta landaren artean ezinezkoa baitzen ibiltzea". *El Noticiero Bilbaíno* egunkariko *Ignus* berriemailearen kontakizunak gai horretan sakondu zuen, esanez "ehunka pertsonak hartu zutela domekan zelaia", eta "trenak eta 'Faunak' (...) Plentzia, Algorta eta Areetako bidaiariz beteta iritsi" zirela⁴⁸⁹.

483 Hamaiketakoa.

484 1900 inguruan, dirudienez, ohikoa zen "elizkoi asko" Santa Librada ermitara "etengabe" joatea, "beren promesak betetzeko". Gainera, "urtean bitan (...) prozesioan" igotzen ziren Urduliz eta Sopelako elizateetatik (BFAH, SOPELA 0039/003, 1865 eta 1922 bitartean jasotako eta igorritako korrespondentzia, Sopelako alkateak Bizkaiko Foru Aldundiari bidalitako jakinarazpena, San Pedroko parrokiatik Casarreinara bide bat eraikitzea eskatzeko, puntu horretan Bilbao-Plentzia errepediarekin lotzeko, 1900-07-30).

485 BFAH, SOPELA 0077/002, 1916-1921eko saioen Akta Liburua, 1920-07-11ko Bilkura Arrunta.

486 *El Pueblo Vasco* 1923-12-04.

487 *El Pueblo Vasco* 1924-01-18.

488 *El Pueblo Vasco* 1924-06-15.

489 *El Pueblo Vasco* 1924-06-26 eta 1924-07-02; *El Noticiero Bilbaíno* 1924-07-02 "Desde Sopelana".

Larrabastera auzoari dagokionez, Primo de Riveraren diktaduraren aurretik erromeria egiten zen ekainaren 24an, San Joan egunean. Ospakizun hori “‘Arriestra’ Policarpo de Eguiraun jaunaren txaleta eraikitzen amaitu zen urtean ezarri zen”. Hala ere, *El Pueblo Vasco* egunkariko berriemaileak azaldu zuenez, “gure udalek ez zuten egundo behar den lez baimendu, Barrikak egun honetan ospatzen baitu bere jaiak, eta inguruko herri horietan elkarri lehiarik ez egiteko ohorezko konpromisoa dago”. Horregatik, 1924ko urtarrilean, Sopelako Udalak Larrabasterako jaiak ospatzeko beste data bat aukeratzea planteatu zuen⁴⁹⁰.

Auzia *stand by* egoeran geratu zen maiatzaren hasierara arte. Garai hartan, “jaun txit agurgarriek, Larrabastera auzoko bizilagunek” osatutako batzordeak “ahoz” adierazi zion Juan de la Quintana alkateari “datorren uztailaren 16an, **Karmengo Andre Mariaren egunean**, auzo hartan festa bat egiteko” zuten desira. Horretarako, baimena eskatu zioten Udal Batzorde Iraunkorrari, eta Udalarari proposatu zioten “musika banda bat kontratatzeko, jaiari solemnitare eta garrantzi handiagoa eman ahal izateko”. Aho batez onetsi zen proposamena egiteko baimena, eta musika banda bat kontratatzea onartu zen. Larrabasterako jai berria babesteko erabakiak arrazoi bi zituen: alde batetik, “auzo horrek hartzen duen garrantzia kontuan” hartu zen. Bestetik, bertan “Sopelako herriak mesede asko zor dizkion Jaun Goren bat” bizi zela baloratu zen⁴⁹¹, Antonio Arechavaleta Urrechagari erreferentzia argia, lehen aipatutako herriko ongilea baitzen.

Egun batzuk lehenago, Larrabastera auzoan egingo zen jai berriaren berri eman zuen *El Pueblo Vasco*k. Une hartan, festen egitaraua prestatzen ari ziren. Uztailaren 16 hartako eguna goizeko 9etan hasi zen, Udalbatza udaletxetik atera zenean, erraldoi eta buruhandiek in bat, “danbolin klasikoaren doinuarekin, Larrabastera auzo jendetsura bidean, auzo horretan lehenengo erromeria inauguratzera”. Goizeko hamarretan auzoko kaperan ospatutako mezaren ondoren, “auzo horren sortzaile Antonio de Arechavaleta jaun ospetsuak pastak eta likoreak erregalatu zizkien bertaratutakoekin”. Lunch horren ondoren, “iragarritako ospakizunak ospatu ziren”, eta “ohorezko aureskua” dantzatu zen, “eta gazteek euren trebetasunak erakutsi zuten”. Arrastian, hiruretan, erromeria hasi zen. Bertan, Plentziako Musika Bandak jo zuen, baita “akordeoiak eta beste instrumentu batzuk ere, eta gaueko hamarretan amaitu” zen⁴⁹².

Handik gutxira, uztailaren 20an, **Santa Marinako** erromeria izan zen, eta *El Pueblo Vasco*n jaso zenez, urte hartan “parrokiako arkupean txangozale asko bildu ziren”. Handik, goizeko zortzietan abiatu ziren, “estandarteak eta gurutzeak jasoa zituen prozesioan”, Udaletxeko kideak eta “jende ugari, danbolinaren aurretik. Suzirien tiro zaratatsuaren artean, goizeko bederatzietan iritsi ziren ermitara, eta jarraian meza solemne kantatu bat ospatu zuten”. Elizkizuna amaitu ondoren, Udalak “pastak

490 *El Pueblo Vasco* 1924-01-22.

491 SUA 1921-1924ko Erabakien Liburua, Udal Batzorde Iraunkorraren 1924-05-10eko Bilkura Arrunta.

492 *El Pueblo Vasco* 1924-07-11 eta 1924-07-17.

eta *likoreak*” eman zizkien bertaratutakoei, ohitura tradizionalari jarraikiz. Udalak eskatu ohi zuen bazkariak 60 mahaikide bildu zituen oraingoan, eta “*horien artean harmoniarik handia izan zen nagusi*”. Erromeria “*gauera arte luzatu zen, eta ordu honetan denak egun alai eta dibertigarri bat pasa izanaz pozik itzuli ziren*”⁴⁹³.

Kirolari dagokionez, **futbola** nabarmentzen da, benetako arrakasta baitzuen, Bizkaian zehar bertako hamaika talde sortu ziren eta. Sopelan, 1913ko uztaillean, **Sportivo de Sopelana** zegoela topatu dugu, hilabete horretako 6an *Plentzia F.C.*ren aurka jokatu zuena. Garai hartan, ez dirudi taldeek eskualde edo probintzia mailan antolatutako lehiaketa batean parte hartuko zutenik, baizik eta taldeek prentsaren bidez elkarri botatako erronken bidez antolatzen zirela topaketak⁴⁹⁴. Aurrerago ikusiko dugunez, hamar urte geroago horrela funtzionatzen jarraitzen zuten.

1923ko ekainean, Sopelako futbol taldeak **Aberri F.C.** zuen izena, baina ez dakigu noiz sortu zen. Talde horri buruz aurkitu dugun lehen erreferentzia ekainaren 3an, domekaz, Gornizko *Guztik Bat* taldearen aurka jokatu zuten partida da, egun hartan bertan Ondragango zelaia estreinatu baitzen. Ez dakigu talde sopoloztarraren hamaikakoa, baina badakigu jokalaria bi nabarmendu zirela: Gondra eta Ansoleaga⁴⁹⁵. Handik gutxira, uztailaren 8an, beste partida bat jokatu zuten Berangoko *Azkatasun Club*aren aurka, eta horrek “*interes handia piztu zuen herri bietan eta inguruetan*”. Kasu honetan ere ez dakigu partida hartan parte hartu zuten jokalaria sopoloztarren izena⁴⁹⁶. Irailaren hasieran, Sopelako taldearen eta Bilboko *Ur-lurdia F.C.*ren arteko beste partida bat antolatua zegoen, baina ezin izan zen jokatu, jokalaria bilbotar “*batzuk falta zirelako*”⁴⁹⁷.

1923ko azaroa eta 1924ko uztaila bitartean artikulista anonimo batek Sopelatik *El Pueblo Vasco* egunkarira bidalitako idazkietan behin eta barriz aipatu zituen bertako taldeak jokatutako futbol partidak. Kronikariaren interes hori, zalantza barik, kirol honek herritarren artean pizten zuen pasioaren erakusgarri garbia zen. Kronika hauei esker, badakigu futbol partidak “*Palacioko zelaian*” egiten zirela eta, dirudienez, ikusle asko erakartzen zituztela, 1924ko urtarrilaren 13an *Aberri* eta erreserbaren artean jokatutako partidaren kasuan jazo zen lez, “*matchera joan zen jende asko berotu zuten emoziozko jokaldiek*”⁴⁹⁸.

Futbolaren gorakada hori Sopelako **lñurri** izeneko beste talde baten sorreran islatu zen; urte hartako otsailaren 10ean Aberriaren aurka jokatu zuen lehen partida. Horretaz gain, 1924ko martxoaren hasieran, *Aberriko* haurren kategoria topatu genuen, eta Algortako *Casino F.B.C.*ren haurren aurkako norgehiagokan,

493 *El Pueblo Vasco* 1924-07-22

494 *Euzkadi* 1913-07-07.

495 *El Noticiero Bilbaíno* 1923-06-08. Partida Gornizko taldeak irabazi zuen 4-0eko emaitzarekin.

496 *Euzkadi* 1923-07-11. Berangokoek 5-3 irabazi zuten topaketa. *Azkatasun* taldeko jokalariren deiturak ezagutzen ditugu: Uribe, Azarola (J.), Landeta, Sangroniz, Arrieta, Castro, Bareño, Azarola (E.), Uranga, Gibelondo eta Bilbao.

497 *Aberri* 1923-09-04 eta 1923-09-06. Zehaztu zuten, *Ur-lurdia F.C.* “*bilbotar patriotek*” osatzen zuten.

498 *El Pueblo Vasco* 1924-01-15.

hilaren 2an, honako lerrokatze hau aurkeztu zen: “*J. Madariaga, E. Urrutia, A. Garay, Z. Idelfonso, E. Muñoz, A. Hormaechea, F. Astolozaga, J. Iraguren, J.F. Quintana, P. Bilbao eta Juan Bilbao*”⁴⁹⁹.

Esan lez, garai hartan ere topaketak antolatzen jarraitu zuten, prentsaren bidez abiarazitako erronken bidez. Adibidez, 1924ko martxoaren 14an, *El Pueblo Vasco* tokiko berriemaileak Sopelako talde nagusiak proposatutako erronka jaso zuen bere kronikan. Talde horrek erronka bota zion Getxoko *Arlotes* taldeari domekaz, hilaren 16an, partida bat jokatzeko, eta gaineratu zuen “*erronka hori onartuz gero, Sopelako Klubari erantzun diezaioketela*”⁵⁰⁰.

1928ko udaberriaren parean, *El Liberal* egunkarian jaso zenez, futbola izugarritzko garapena jasaten ari zen Bizkaian, eta ez zegoen “*herri edo txokorik, nahiz eta oso urrun egon, ingeles kirol gizona gurtzen ez zuenik*”. Bertako taldeak “*futbolearen ikusi eta beragatik grinatu diren mutil batzuk biltzen diren tokian*” sortzen ziren. “*Apaltasun gehiago edo gutxiagoko klub bat*” sortu ostean, “*bazkideei ezarritako kuotekin atoa eskuratzen dute baloi bat gertuen duten zelaian entrenatzeko eta hurbilen duten bizilagunari desafio egiteko, taldea osatu dutenean*”. Hori izan zen **Larrabasterako Sociedad Deportiva Aurrera Mutillkok** taldearen sorrera. 1928ko maiatzean sortu zen, eta “*Santiago Meré Klubeko diruzain ezagunaren jatetxean du egoitza. Bilbotarren eta udatiarren artean ezagunagoa da Santi txikigarriarekin*”. Elkarre honen futbol zelaia, “*hondartzara daraman bidean kokatua*”, oraindik eraikitzen ari ziren, eta bazkideek berek egiten zuten lan. Domekaro, goizeko 10etatik eguerdiko ordu 1era lan egiteko konpromisoa hartu zuten, eta “*pezeta bateko isuna ezarriko zaio joateari uzten dionari*”. Proiektu honetan Antonio Arechavaleta ongilearen figura agertzen da berriro, 40.000 pezeta inbertitzeko konpromisoa hartu baitzuen zelaia zarratu eta hesitzeko eta tribuna bat eraikitzeko, egiten ari ziren “*lurbetetze eta betelaneke atariko lanak*” amaitu ondoren. Adierazi behar da beharrezkoa zela “*baldintzak betetzen zituen zela*” bat izatea, Federazioaren eskakizunetako bat baitzen taldeek bertan izena eman ahal izateko⁵⁰¹.

Kirol jarduera osasuntsu horren aurrean, badakigu Sopelan, 1920ko apirilean, 150 **erretzaile** inguru zeudela. *Euzkadi* berripaperak herrian zuen berriemaileak azaldu zuenez, hilabete hartako egun batean, “*arrastiko seieta 0,25eko mila pakete, 0,50eko laurehun pakete eta orriko zenbait libera jarri ziren salgai*”, eta ordubete geroago “*izakinak agortu*”, eta bizilagun batzuk tabako barik geratu ziren. Kronikariak bere haserrea adierazi zuen esanez “*lotsagarria*” zela “*hilabete bi ingururako iritsitako tabakoa*” ordubetean agortu izana, eta “*hogeita hamar pakete eroan zituzten gizabanakoak egon zirela*” salatu zuen⁵⁰².

499 *El Pueblo Vasco* 1924-02-09 eta 1924-03-01.

500 *El Pueblo Vasco* 1924-03-14.

501 *El Liberal* 1928-05-30.

502 *Euzkadi* 1920-04-21.

Azkenik, **ehizarako zaletasuna** nahiko zabalduta egongo zen herrian, *El Pueblo Vascon* argitaratutako albisteetatik ondoriozta daitekeenez. Adibidez, 1923ko abenduaren hasieran, zera jakinarazi zen: “*aurten ehiztariak zorionekoak dira, erbiak eta azken aldian oilagorrek eta igaroan dauden beste hegazti batzuk pilatu dituztelako*”. 1924ko otsailaren erdialdera, beste idazki bat agertu zen, ehiza zaleen zorte ona azalduz, “*berriz agertu baitziren oilagorrek eta ehiza debekatuta ez duten beste hegazti batzuk*”⁵⁰³. Sopelak leku egokia izan behar zuen ehizan aritzeko; izan ere, 1928ko maiatzean, herriko hainbat bizilagunek salatu zutenez, “*kanpotar ehiztariak udalerrri osoa inbaditzen dute, eta ez dituzte errespetatzen hegazti intsektujaleak (horiek ehizatzea debekatuta egon arren), etxeko usoak eta oiloak, eta, gainera, kalte larriak eragiten dituzte fruta arboletan*”. Hori dela eta, alkateari eskatu zioten “*udalerrri osoko lurrak*” ehizarako debekatutzat jotzeko beharrezko kudeaketak has zitzala, “*ehiza sustatzeko*” eta herritik kanpoko ehiztarien “*gehiegikeriak erroitik mozteko*”⁵⁰⁴.

1.3.4. Erlijioa

Kontu espiritualei buruz lortutako datuek erakusten digute Sopela, oro har, oso udalerrri erlijiosoa zela. Adibidez, Ramon de Echevarrioste, *El Pueblo Vascoko* berriemailea, 1915eko San Pedro jaietara joan zen, eta ikusi zuen “*otoitzen unean, ‘Angelusaren’ kanpaiak jo zituztenean, mundu guztiak jai profanoa utzi zuela otoitz egiteko*”⁵⁰⁵. Erlijiotasunaren beste erakusgarri bat topatzen dugu udal agintarien ekimenez errogatibak egiteko ohitura tradizionalen, Jainkoari euria egin zezala eskatzeko eta euri gabeziaren egoerari amaiera emateko. Horrela, 1906ko uda hasieran, Sopela eta eskualdea “*lehorte iraunkorra*” jasaten ari ziren, eta “*soroa ur onaren beharrean zegoen, erabat gal ez zedin*”. Hori dela eta, “*eta auzokideen zurrumurru orokorren arabera*”, Urruticoechea alkateak “*Jainkoaren karitate jainkotiarra arren eskatzeko*” erregu ospakizunak egitea proposatu zuen. Alkatearen ekimena aho batez onartu zen⁵⁰⁶. Beste behin ere, 1913ko abuztuan, Sopela “*sekulako lehortea*” pairatzen ari zen, eta landak hondatzen ari ziren. Egoera ikusita, Agustín Artaza zinegotziak “*komenigarritzat*” jo zuen errogatibak egitea. Baina orduko hartan Udalbatzaren erabakia ez zen 1906an bezain sutsua izan, eta proposamena atzeratu egin zen, udalerrri mugakideek ekimena hartu eta errogatibak antolatzen zituzten ikusteko zain⁵⁰⁷. Erabaki hori *stand-by* egoeran uzteko akordio hori pentsamolde erlijiosoa jazotako zenbait aldaketaren sintoma izan liteke, aldaketa txikiak izan arren.

503 *El Pueblo Vasco* 1923-12-06 eta 1924-02-23.

504 BFAH, SOPELA 0034/004, Jasotako korrespondentzia, 1928, *Sopelako Elizateko zenbait bizilagunek herriko alkateari egindako idazkia* 1928-05-17.

505 *El Pueblo Vasco* 1915-07-06.

506 BFAH, SOPELA 0077/001, 1891-1915eko Akta Liburua, 1906-06-23ko Bilkura Arrunta.

507 BFAH, SOPELA 0077/001, 1891-1915eko Akta Liburua, 1913-08-03ko Bilkura Arrunta.

Ildo beretik doa “*Herriko Gazteen Batzordeak*” 1913ko otsailaren 9an Sopolako alkateari egindako eskaera. Topaketa hartan, herriko gazteen ordezkariak horrek alkateari jakinarazi zion “*egun horretan ohitura tradizionalako Santa Agatako askaria ospatzeko asmoa*” zutela. Horretaz gain, baimena eskatu zuten “*askari horren ondoren gaueko hamabiak arte dantzatzeko*”. Eskaera udalbatzan azaldu ondoren, Agustín Artaza zinegotziak ondorioztatu zuen egun hartan “*Piñata Domeka*” zenez, “*Garizuman egon arren, alde guztietan dantzak egiten*” zirela, eta, halandaze, gazteei dantza egiteko baimena eman behar zitzaizela. Aldiz, Jose Loroño zinegotzi nazionalistak esan zuen “*Garizuma errespetatzea tradizioa*” zela, eta baimena emanaz gero “*ohitura tradizionalak bertan behera*” utziko zirela, eta, halandaze, ekimenaren aurka agertu zen. Azkenik, Udalak, Loroñoren kontrako botoarekin, dantza egitea baimendu zuen, baina gaueko hamarrak arte⁵⁰⁸. Garizuma garaiko dantzen kontua nahiko ohikoa izango zen: adibidez, 1915eko martxoan, *Euzkadi* berripaperean salatu zen Deustun “*Garizumako garai santu honetan*” erromeria egin zela, “*profanazio oso larria*” zela esanez⁵⁰⁹. Geroago, 1919ko martxoan, eta egunkari berean, Barrikako alkateari dei egin zitzaion zaintza areagotu zezan eskatzeko, izan ere, “*Txakur zulotik gertu, eta Garizuma-aldi santuari iseka eginez, jaiegun klandestino guztietan dantzak ospatzen dira*”⁵¹⁰. Garizumaren inguruko desberdintasunek aurrera jarraitu zuten hurrengo hamarkadan. Horren adibide da 1924ko otsailean Plentziako Udaleko zinegotzien artean Garizuma garaiko dantzen gai eztabaidatsuari buruz izandako ika-mika. Antonio Pascual zinegotziak defendatu zuenez, “*domeketan eta Garizumako jaietan Ontziolan akordeoi eta gitarra taldeak jotzen jarraitzea onartu beharko litzateke*”. Proposamen horri Luis Manene zinegotziak erantzun zion ez zuela “*Garizuman halako korrerik onartu behar, herri honetan garai hartan erromeriarik ez egiteko ohitura antzinakoa delako eta ohitura hori errespetatu behar delako*”. Olano alkateak Udalbatzaren behin-behinekotasun aurreikusgarria eskatu zuen, hark ez zuelako gomendatzen “*antzinako ohituretan erreformak sartzea*”. Pascualen erantzuna nahiko adierazgarria izan zen: “*hain zuzen ere, zaharrak direlako desagertu behar dute, lehen telefonorik eta telegraforik ere ez zegoelako, eta gaur egun oso gauza arrunta delako; horrek erakusten du modernismorantz goazela, eta Manene jaunak proposatzen duena guztiz kontrakoa da*”. Antonio Pascualen proposamena atzera bota zen, aurkako 4 boto eta aldeko 3 botorekin⁵¹¹.

San Pedro parrokian egindako ospakizun erlijiosoen kasuan, azpimarratzekoa da horietako batzuk 1923 eta 1924 bitartean *El Pueblo Vascon* argitaratutako kroniketan jaso zirela, eta udalerrian erlijiotasun handiko giroa islatzen zuten. Berba baterako, 1924aren hasieran, bertako berriemaileak adierazi zuen 600 pertsona baino gehiago joaten zirela San Pedro parrokiako mezetara “*jaiegun guztietan*”; urte hartako Aste Santuko ekitaldi erlijiosoetara, osterara, “*herria pilaka*” joan zela. Hain zuzen ere, egun horietako kronika osatu bat egin zen, Eguen Santuko prozesioak deskribatzen dituen, “*San Joan eta Andre Maria Doloretakoaren*

508 BFAH, SOPELA 0077/001, 1891-1915eko Akta Liburua, 1913-02-09ko Bilkura Arrunta.

509 *Euzkadi* 1915-03-19.

510 *Euzkadi* 1919-03-30.

511 PAH, A.422, 1921-1924ko Osoko Bilkuren Akta Liburua, 1924-02-23ko Bilkura Arrunta.

irudiekin, udaletxetik buelta emanez”; eta Bariku Santukoa, non “*San Joan, Kristo eta Doloretakoaren*” irudiak atera ziren. “*Azken honek urrez brodatutako zetazko kapa bat zeroan, Josefina de Arechabaleta andre agurgarriaren oparia*”, Antonio de Arechabaleta ongilearen alabarena, hain zuzen⁵¹².

1924ko Aste Santua baino lehentxeago ospatutako haurren Lehen Jaunartzeetan, Efigenia Pascual maistraren eta Ambrosio Apellaniz maisuaren laguntza izan zen, eta hori irakasleen erlijiotasun erakusgarritzat interpreta dezakegu. Hala ere, irakasleak ikasgela barruan eta ikasgeletatik kanpo ikasleen erlijio betekizuna bermatzeko ezarritako ohiturari ere heldu behar diogu. Kristau adierazpenaren beste adibide bat “*maiatzeko Arrosarioak*” izenekoetan aurkitzen dugu. Hilabete horretan, Sopelan, “*Sortzez Garbia*” lore naturalekin apaintzen zuten, eta lore horiek egunero aldatzen ziren, “*goraipatzeko moduko konbinazioak eginez*”. Amaitzeko, Larrabasterrako Jesusen Bihotz Santuaren Misiolarien Komentuko kaperan 1923ko Gabon gauean ospatutako *Oilarraren Meza* aipatuko dugu. Zentro erlijiosoak neskatoen umezurtz etxe gisa ere funtzionatzen zuten, eta horiek aktiboki parte hartzen zuten goizalde hartako elizkizunean: “*komentu honetan zeuden neskatoek gabon kantak abestu zituzten*”. Meza hartara joan zirenek, gainera, “*misiolari horiek nahierara prestatutako argi konbinazioaz eta jaiotzaz*” gozatu ahal izan zuten⁵¹³.

1.3.5. Euskararen egoera

1890-1930 aldian euskarak Sopelan izan zuen egoerari buruzko erradiografia zehatza lortzea ez da lan erraza, ez baitugu informazio askorik. Eskasia horri aurre egiteko, beharrezkoa izan da inguruko herrietan hizkuntzaren auziarekin gertatzen zena behatzea.

Garai hartan Sopelan eta inguruan euskararen egoera zelakoa zen ezagutzeko orduan balio handienekotzat jotzen ditugun dokumentu iturrietako bat 1918ko parrokiako estatistikak dira, non parrokoek homilietan erabiltzen zuten hizkuntza jaso zen. Sopelako San Pedro Apostoluaren parrokiako apaiz ekonomo Juan Ignacio Goirik bere sermoiak euskaraz esaten zituen, “*homilia azken hamar urteotan euskaraz predikatu*” zela adieraziz⁵¹⁴. Gauza bera gertatzen zen Berango⁵¹⁵, Lemoiz edo Urdulizko parrokiatan. Azken herri honetan, parrokoak gomendatzen zuten “*parrokia honetako izendapenak euskararen jabe diren apaizek egitea eliztarrek berba egiten duten hizkuntza delako eta beti egin izan direlako euskararen jabe diren apaizen izendapenak*”⁵¹⁶. Barrikako predikua ere euskaraz egiten zen. Hala ere, katekesia talde bietan ematen zen: bata gaztelaniaz eta bestea euskaraz,

512 *El Pueblo Vasco* 1924-01-09, 1924-04-20.

513 *El Pueblo Vasco* 1924-04-13, eta 1924-05-10; eta 1923-12-27.

514 BIZKAIKO ELIZAREN HISTORI ARTXIBOA (BEHA), 6725/002-00, Parrokia-estatistika, San Pedro Apostol parrokia (Sopela), 1918.

515 BEHA, 6725/001-00, Parrokia-estatistika, Santo Domingo de Guzman parrokia (Berango), 1918-11-25.

516 BEHA, 6725/002-00, Parrokia-estatistika, Jasokundeko Andre Mariaren parrokia (Lemoiz) eta Andre Mariaren parrokia (Urduliz), 1918.

“berba egiten duten hizkuntzaren arabera”⁵¹⁷. Plentzian, aldiz, Juan de Egaña apaizak adierazi zuenez, homilia “azken hamar urte hauetan gaztelaniaz” predikatu zen. Hala ere, apaizak adierazi zuen “*beharrezkoa edo behintzat oso komenigarria*” zela izendatzen ziren apaizek euskaraz jakitea⁵¹⁸. Gorlizko ekonomoak ere eskaera hori egin zuen, esanez “*homilia azken hamar urte hauetan euskaraz predikatu da*”, nahiz eta “*batzuetan komenigarritasunagatik gaztelaniaz*” egiten zen⁵¹⁹.

Laburbilduz, 1918ko estatistika hauek marraztu zuten argazkiak Sopela, Urduliz eta Berangoko hizkuntza nagusia euskara zela islatuko luke. Plentzian, aldiz, herritarrek erabiltzen zuten ohiko hizkuntza gaztelania litzateke, eta eragin hori Gorliz eta Barrika udalerrri mugakideetara hedatuko litzateke. Zentzu horretan, Plentzian euskara galtzeko prozesua, Jorge Zamorak emandako datuen arabera, Lehen Karlistaldiaren ondoren hasiko zen, eta XIX. mendean zehar sendotu. Horrela, 1866an hiriko ia gazte guztiek gaztelaniaz egiten zuten berba. Zamoraren iritziz, jokabide hori ondoko Gorliz herrian imitatua izan zen. 1898an, elizate hartako parrokoak onartu zuen populazioak denbora zeramala erdalduntze prozesu batean murgilduta. Hori dela eta, apaizak gaztelania eta euskara erabili behar zituen erlijio eginkizunetan, “*gertatzen zaigulako euskaraz otoitz egitean denek edo gehienek gaztelaniaz erantzuten digutela*”. Apaizaren testigantza arabera, egoera hori etxean eta eskolan ere gertatzen zen⁵²⁰.

Herri horietan, gaztelaniaren hedapenean ere berebiziko garrantzia izan behar zuen nabigazioan aritzen ziren auzotarren kopuru handiak, beren lanbidea zela-eta gaztelaniaren ezagutza handiagoa edo txikiagoa izango baitzuten. Gauza bera jazoko zen, noski, Sopolako marinelen artean, hauek, ustez, nolabaiteko eragina izango baitzuten herrian gaztelaniaren erabilera handiago batean. Gaztelania zabaltzen lagunduko luketen beste faktore batzuk ere aipatu beharrean gaude. Berba baterako, XIX. mendearen amaieran trenbidea iritsi zenean, harreman sozio-ekonomikoak areagotu egin ziren Uribe Kostako eremuaren eta Bilboko hirigunearen artean, non gaztelania baitzen hizkuntza nagusia. Zentzu horretan, ezin dugu alde batera utzi Bilboko ingurutik zetozen udatiar gero eta gehiago, gehienak erdaldunak, XX. mendeko lehen konpasetan Plentzia oporretarako leku bihurtu zutenak, edo Sopela legezko herrietako etxe eta txaletetan kokatu zirenak. Era berean, Euskadi kanpotik iritsitako herrian finkatu ziren etorkinek izan zuten eragin maila ere baloratu beharko litzateke, nahiz eta horien kopurua oso txikia izan, Bilbon eta Nerbioi itsasadarraren ertz bietako herri industrialetan bizi izan ziren kanpoko langileen familia ugariekin alderatuta.

517 BEHA, 6725/001-00, Parrokia-estatistika, Santa Maria parrokia (Barrika), 1918.

518 BEHA, 6725/002-00, Parrokia-estatistika, Santa Maria Magdalena parrokia (Plentzia), 1918.

519 BEHA, 6725/001-00, Parrokia-estatistika, Sortze Garbiaren parrokia (Gorliz), 1918.

520 ZAMORA LANDAZURI, Jorge: *Gorliz 1900*, Bilbo, Gorlizko Elizateko Udala, 2001, 128-131 or.

Bada ahaztu behar ez dugun beste alderdi oso garrantzitsu bat: Eskola Nazionalak deiturikoetan emandako irakaskuntza, Sopelan zein inguruan, gaztelaniaz bakarrik eman behar zen. Azken horren harira, 1904. urtearen hasieran, Sopelako “*aita batzuk*” Lehen Hezkuntzako Tokiko Batzarraren aurrean “*ahozko salaketak maiz*” egiten aritu ziren, hura baitzen hezkuntzaren martxa ona zaintzeaz arduratzen zen tokiko erakundea. Kexa horiek Juliana Beascoechea neskatoen eskolako maistrak zuen jarrera jakin baten ondorioz etorri ziren. Besteak beste, ikasleak “*derrigortzen*” zituen “*kristau doktrinaren irakaspenak euskaraz ematera, hizkuntza horretan berba egiten ez dutenei edo ikasi ezin dutenei berba iraingarriak jaurtiz*”. Batzarrak Beascoecheari ohartarazi zionez, “*kristau doktrinaren irakaspenak gaztelaniaz eman behar dira, hain zuzen ere, eta gehienez denbora pixka bat eman ahal izango duzu doktrina hori euskaraz irakasten, esatekoak gaztelaniaz behar den lez ezagutzen dituzten neskatoei*”. Gainera, maistrari agindu zitzaion ez ziezaiola “*neskato bati ere iraingarria izan dakioken esapiderik bota*”. Ez dakigu zergatik erabaki zuen Beascoecheak kristau doktrina euskaraz ematea, dokumentazioak ez baitu argi egiten. Egia esan, aipatu dugun lez, herriko familiako guraso batzuek aurkeztutako kexak ez ziren hizkuntzaren gaira bakarrik mugatu, baizik eta beste gai batzuk ere jorratu zituzten, halan zelan eskoletarako ezarritako ordutegiak ez betetzea edo “*neskak eskolara sartu ondoren*” maistrak “*eskoletarako denboraren zati handi bat kantu lausoetan inbertitzea*”⁵²¹. Gurasoek doktrina katolikoaren irakaskuntzan euskara erabiltzeari buruz egin zuten protestaren ondorioz, beren seme-alabak gaztelaniaz erraztasunez berba egiteko desira agertu zuten, etorkizun profesionala ziurtatzeko, nahiz eta alderdi hori gehiago errepikatzen zitzairen semeei. Dena dela, argi dago ikasle kopuru zehaztugabeko batek ez zekiela euskaraz edo ez zela ondo moldatzen hizkuntza horretan. Hori Sopelan zifratu ezin dugun biztanle erdaldunen zati baten existentziaren isla izan liteke; edo, bestela, herrian gaztelania hedatzeko balizko prozesu baten adierazle.

Edozelan ere, aurreko lerroetan adierazi dugunez, 1908-1918 aldian, San Pedro parrokian egindako sermoiak euskaraz esan ziren. Datu hori, printzipioz, gehienbat euskaldunak diren biztanleez ari zaigu, baina 1915eko maiatzaren amaieran *Euzkadi* berripaperean agertutako idazki batek hipotesi hori berrogeialdian jartzera gonbidatzen gaitu. “*Nire gozua pozuan*” izeneko artikuluan, *Katarra* algortar kronikariak Sopelara egindako bisita bat kontatu zuen, eta herriko egoera linguistikoan sakondu zen. Alde horretatik, berriemaileak honako hau adierazi zuen: “*Sopelana’rrak beti ixan dira erdelzaletxuak*”, eta gaineratu zuen haurtzaroan sarritan entzun zuela herria “*Sopelana Madril chiquito*” izendatzen. Horrexegatik, *Katarrak* herrian egindako ibilaldi bat kontatu zuen; pozarren harritu zen Itxasondo jatetxera sartu zenean, eta jabea, Jose Loroño zinegotzi nazionalista⁵²², eta familia

521 BFAH, SOPELA 0039/003, 1865 eta 1922 artean jasotako eta igorritako korrespondentzia, Lehen Hezkuntzako Tokiko Batzarraren komunikazioa Elizate honetako Neskatoen Eskolako irakasleari, 1904-02-03. Maistraren izena Guía Reparaz – Vizcaya en la mano 1903 liburutik atera da.

522 “*Yabea abertzale zintzo da*”

euskaraz ari zirela ohartu zenean. Horrek asko poztu zuen kronikaria (“*Biotza pozez beterik urten nintzan*”), Sopela “*bide onean*” zebilela ondorioztatuz, baina poztasun hark ez zion asko iraun. Eskoletatik pasatzean, haurrak gaztelania nahaspilatuan berba egiten entzun zituen, euskarazko berbez beteta⁵²³:

“(…) Ara zer entzun neban:

- ¿A pelotas?
- Lejos tienes casa, tarde ases
- Casa lejos si... ¡miedo!
- Si te pego un plastaso, sapaburu...
- Callar aste, vallar, artobero, kopiedario

Beste aldra batean:

- ¿Padre y'aido a feria?
- Vinir tamén si, y traer sekorras de erri txalas

Aurreratxuago:

- Nido de sosoabi, tienes biribilduri
- ¡Ene, pa qu'es eso! Yo de silgaro con cuatro buebos umatiendo

Ta abar (...)”

Lehen hezkuntzan gaztelania bakarrik erabiltzen zen udalerrri gehienetan euskaldunetan, eta horrek eragotzi egiten zien ikasleei emandako irakasgaiak behar den lez ulertzea. Hori izango litzateke Sopelaren kasua, non, ziurtasun osoz, ondoko herriko eskoletan gertatzen zenaren antzeko egoera bat errepikatuko litzatekeen. 1920ko maiatzaren erdialdean, *Euzkadi* berripaperak udalerrri hartatik bidalitako idazki bat argitaratu zuen, eta bertan honako hau salatu zen:

*“aunque (...) a los niños se les enseña en castellano en las escuelas (...), nosotros opinamos que de todo lo que aprenden en tal idioma no entienden casi nada; que podrán manifestarse como verdaderas cotorras, pero sin darse cuenta de ciertos conceptos o palabras, que los expiden como carga pesada”*⁵²⁴.

Ilido horretan, gogoratu behar da 1874ko uztaileko dekretu batek indargabetu egin zuela udalerriek tradizioz izandako maisu-maistrak izendatzeko ahalmena. Alderdi hori jasota zegoen 1857ko Moyano Legean. Lege horren aurka agertu ziren euskal aldundiak, eta instantzia bat aurkeztu zuten Koroaren aurrean, “*instrukzio legeak herrialdean dituen ondorioak*” bertan behera uztearen alde. Euskal probintzia erakundeek beren idazkian azaldu zituzten ondorioen artean, euskarak jasan zezakeen narriadura aipatu zen. Zentzu horretan, legeak foru administrazioak zuen maisu-maistrak izendatzeko eskuduntza kentzea ezarri gero, “*herrialde honetako hizkuntzaz eta ohitura bereziaz kanpoko irakasleek beteko dituzte eskolak*”. Hiru

523 *Euzkadi* 1915-05-31. “*Algorta - Nire gozua pozuan*”.

524 *Euzkadi* 1920-05-02. “*El euzkera en la Iglesia. A “Un feligrés de Getxo*”.

aldundien ustez, beharrezkoa zen irakasleek euskara jakitea⁵²⁵. Beldur hura bete egin zen, Euskaditik kanpoko irakasleak izendatu baitziren, eta ez zekiten euskaraz. Halandaze, egoera horretan, ikasle euskaldunen berezko hizkuntza ezaugarriak ulertzea irakaslearen sentsibilitatearen mende egongo litzateke, eta sentsibilitate hori ez zen orokorra irakasle guztien artean. Dokumentazioan ez dugu topatu Sopolako eskoletan euskararekiko gorroto kasurik aldi honetan. Handik gertu, Laukizen, ostera, 1918ko ekainean, *Txiberrik, Euzkadi* berripapereko tokiko berriemaileak, salatu zuen Laukizko eskoletako maisuak bere ikasleei zera ohartarazi ziela: “*eskolan euskaraz gehiago entzuten badizuet makila ahotik sartuko dizuet*”⁵²⁶.

1917ko martxoko hauteskunde probintzietan nazionalismoak lortutako garaipenari esker, Ramón de la Sota Bizkaiko Diputazio Probintzietako presidente izendatu zuten. Probintzia mailako erakundetik, abertzaleek euskararen erabilera maila instituzionalean eta irakaskuntzan sustatzera bideratutako politikak bultzatu zituzten. Ez dakigu neurri horiek Sopolan zelan eragin zuten, baina badakigu hur, Plentzian, 1918ko uztailetik aurrera, San Jose ikastetxeak euskara eskolak emateko dirulaguntza jaso zuela. Liga Monarkikoa Diputazioko presidentetzara iritsi zenean, laguntza hori kendu egin zen, eta, halandaze, kostaldeko herri horretako Udalak ikastetxe horretan euskara eskolak ematen jarraitu behar zen ala ez etabaidatu zuen. Etabaida luze baten ondoren, erabaki zen “*euskara irakastea, ez derrigorrez, baizik eta borondatez ikasi gura duteneri*”⁵²⁷. Dirulaguntza desagertu bazen ere, ikasle askok euskara ikasten jarraitu zuten: 1922-1923 ikasturtean 47 ikaslek; 1923-1924 ikasturtean, 25 ikaslek; eta 1924-1925 ikasturtean, 37 haurrek⁵²⁸.

Euskara ere Errestaurazio garaiko gatazka politikoaren parte izan zen, euskararen sustapena abertzaletasunaren estandarteetako bat izan baitzen. Hori dela eta, hedabide jeltzaleetako berriemaileek mezetan euskararen erabilera nabarmendu ohi zuten euren informazioetan, adibidez, 1920ko San Pedro egunean Sopolan “*euzkeraz*” predikatzen zuten lez⁵²⁹. Bestalde, elizkizunen batean gaztelania agertu izana ere salatzen zuten. Zentzu horretan, *Getxotarra* hilabetekarian jaso zenez, 1920ko San Jose egunean, “*euzkeldun herri*” Urdulizko apaizak gaztelaniaz predikatu zuen, eta zehaztu zen hori horrela jazo zela maisuak eta tren geltokiko buruak hala eskatu zutelako. Egunkari nazionalistatik zehaztu zuten, salaketa hura “*pena handiz eta bihotza penatuta*” argitaratu zuten, predikua “*gure milaka urteko hizkuntzaren aurkako atentatutzat*” jo zutelako, “*biztanle guztiak euzkaldunak diren udalherri batean, doktrina gaztelania torero eta arruntean irakasten baita*”. *Getxotarrak El Pueblo Vasco* egunkari monarkikoaren erantzuna jaso zuen, Verdades berriemaile urduliztarraren bitartez, *Los nacionalistas no respetan ni a los sacerdotes*

525 ARRIEN BERROJAEHEVARRIA, Gregorio: *Educación y escuelas de barriada en Bizkaia (Escuela y Autonomía. 1898-1936)*, Bilbo, Bizkaiko Foru Aldundia, 1987, 37-39 or.

526 *Euzkadi* 1918-06-13.

527 PAH, A.422, 1921-1924ko Osoko Bilkuren Akta Liburua, 1923-03-17ko Bilkura Arrunta, 1923-04-02ko Bilkura Arrunta eta 1923-04-21eko Bilkura Arrunta.

528 PAH, 415 karpeta, 8. zk., Hainbat dokumentu, 1925, *Euskararen matrikula. 1922-3-4-5 ikasturtea, 1925-01-15*.

529 *Euzkadi* 1920-06-26. “*Fiestas de San Pedro en Sopolana*”.

izeneko idazkiarekin. Kronikariak azaldu zuenez, gaztelaniaz predikatzen erabakia erretorearen aldebakarreko erabakia izan zen, “*bere mendean utzi zaizkion ardiak artzain espiritual lez, beharrezko jakia eman behar dielako, erdaldunok euskaldunek bezainbeste merezi dugulako*”⁵³⁰.

Primo de Riveraren diktaduraren garaiari dagokionez, erregimen berriak estatuko gainerako hizkuntzekiko zituen asmoak laster geratu ziren argi: “*Separatismoaren aurkako Errege Dekretuak*”, kolpe militarra jazo eta egun gutxira argitaratuak, gaztelania ezarri zuen estatuko hizkuntza ofizial gisa, eta hori izan zen ekitaldi publikoetan, probintzia erakundeen erregistroetan eta udal erakundeetan erabil zitekeen bakarra. Errege Dekretuak jaso zuen, halaber, “*hizkuntzetan edo euskalkietan berba egitea edo idaztea*” ez zela “*ezelako debekuaren xede*”; eta baimenduta zegoela euskara erabiltzea “*behartuta dauden tokiko edo eskualdeko korporazioen barne bizitzan, nahiz eta liburu ofizialak, erregistroak eta aktak gaztelaniaz eroan, nahiz eta agintariei ez dagozkien abisuak eta komunikazioak eskualdeetako hizkuntzetan idatzi*”⁵³¹.

Daukagun dokumentazioarekin, ezin dugu ebaluatu diktadura erregimenak zelako eragina izan zuen Sopelako hizkuntza errealitatean. Ez dugu elizateko euskaldunen eta erdaldunen proportzioa ezagutzen lagunduko digun iturririk. Arestian aipatu dugun gaztelaniaren hedapen prozesuak bere bidea jarraitu zuen ziurrenik, baina ezin dugu zehaztu zein neurritan jazo zen. Badakigu 1925eko apirilean, urte horretako urtarrilaren 6an Aquilino Arriola hil ondoren mediku berria aukeratzeko prozesuan, Udalak oso kontuan hartu zuela, Landa doktorearen merituen artean, “*euskara edukitzea*”⁵³². Zalantza barik, euskararen ezagutza oinarritzakoa zen gehienbat euskaldun izaten jarraituko zuen udalerrri bati arreta eskaini ahal izateko. Hala ere, uste dugu gaztelaniak Sopelan eta bere inguruan garai horretan izan zuen aurrerapena ez zela txikiagoa izan: 1924ko martxoan, Pedro Ellauri herriko parrokiako koadjutoreak euskara eta gaztelania erabili zituen eliztarrei beste parrokia batera joan aurretik agur esateko, eta horrek adierazten zigen euskara eta gaztelania lekua partekatzen hasi zirela San Pedro elizan. Elebitasun horren arrazoia hauxe litzateke: entzulego bati arreta eman behar izatea, eta, entzule horien artean, zehaztu bako fededun kopuru batek gaztelania ohiko hizkuntza izango luke. Hizkuntza dualtasun hori inguruan ere ikus dezakegu, Urdulizen: adibidez, 1927ko urriaren 2an, Urdulizen ospatutako *Día Misionalean*, “*hizlari sakratuek fededunei euskaraz eta gaztelaniaz berba egin zieten*”⁵³³. Argigarriagoa da gertu, Lemoizen, bizi izan zen hizkuntza gatazka. 1925eko ekainean abiatu zen, herriko hiru bizilagunek osatutako batzorde batek euskara eta gaztelania predikuan txandakatzeko eskatu zuenean, berrogei lemoiztarrek baino gehiagok “*euskal dialektoa*” ez zekitela argudiatuta. Herriko erretoreak zifra hauek

530 *El Pueblo Vasco* 1920-04-30. “*De Urdúliz. Los nacionalistas no respetan ni a los sacerdotes*”. Artikulu honetan *Getxotarran* argitaratutako idatziaren zatiak jasotzen dira.

531 QUIROGA, págs. 96-97; eta TORREALDAI, Joan Mari: “*El libro negro del Euskera*”, Donostia, Txartalo, 1998, 70. or.

532 SUA, 1921-1929ko Udal Batzarraren Erabakien Liburua, 1925-04-11ko *Bilkura Arrunta*. Aquilino Arriolaren heriotzaren datua *El Noticiero Bilbaín*on agertu zen 1925-01-07an.

533 *El Pueblo Vasco* 1924-03-26 eta 1927-09-27.

gezurtatu zituen, eta euskaraz berba egiten ez zutenen kopurua bederatzira jaitsi zuen. Gaia amaitutzat eman zen arren, 1929ko otsailan, beste emakume talde bat kostaldeko herriko alkateari zuzendu zitzaion apaizak predikua euskaraz eta gaztelaniaz egin zezan, Lemoizen “*bai hizkuntza nazionala bai eskualdekoa*” berba egiten zela aipatuz, nahiz eta pertsona batzuek ez zuten ulertzen “*euskara, eta beste batzuek, nahiz eta berba egin eta euskaldunak izan, ez dituzte ondo ulertzen haren irakurketa, kantu eta sermoiak*”. Udalak eskaera horren berri eman zion apaizari, eta horretaz arduratzeko eskatu zion. Apaizak, kasua nagusiei kontsultatu ondoren, euskaraz predikatzen jarraitu zuen, “*gure Erljio Katolikoa pribatuki irakasteko euskara ez dakiten nire eliztar guztiei*”. Esaldi honekin, Joaquín Perearen iritziz, Lemoizko erretoreak “*ematen du aditzera euskara ezagutzen ez dutenen kopurua oso urria dela*”⁵³⁴. Azkenik, Plentzian, Laurentino Zamora herriko haurren maisuak 1927-1928 ikasturteko memorian idatzitakoaren arabera, “*euskal hizkuntza oraindik mintzatzen da, baina Hiribilduan gutxi*”. Datu hori adierazi zuen irakasleak, hogeitau hurrek baino gehiagok “*ahoskeran zituzten zailtasun handienak gaituzten*” irakurtzen ikasi zutela aipatuz, “*bereziki c letra, s soinuarekin ahoskatzen zutena, zalantza barik, eskualdeko arrazoiengatik*”, hau da, euskaragatik, kostaldeko hiribilduan gutxi erabili arren, oraindik ere gaztelaniaz aritzean sisipasa eragiteko adinako eragina baitzuen⁵³⁵.

1.3.6. 1918ko gripearen epidemia

Interesgarria iruditu zaigu 1918ko gripe izurriteak Sopelari eta inguruari zelan eragin zion aztertzea, urte hartako udagoienera erregistratu baitzen intzidentziarik handiena. Dirudienez, gaixotasuna maiatzean iritsi zen penintsulara, eta lehen bolada hark eragin arina izan zuen Euskadin. Anton Erkorekak, 1918ko pandemiaren garapenari buruzko bere ikerketan, ondorioztatu zuen udako klima beroaren etorrerak gaixotasunaren garapena geldiarazi zuela. Hala ere, irailaren hasieran, tenperaturen jaitsierak eta euriteak gripea ostera agerrarazi zuen Irunen eta Hondarribian. Bigarren bolada hori bat-batean iritsi zen Bilbora eta Itsasadarraren ertz bietako herrietara urrian, eta azaroan behera egin zuen kasuen kopuruak, abenduan erabat desagertu arte. Bilbon bakarrik, urrian birusak eragindako 675 heriotza erregistratu ziren, eta azaroan 320ra jaitsi zen heriotza kopurua⁵³⁶.

Oro har, gazteenak izan ziren heriotza tasa handiena izan zutenak, eta, bestalde, gripe izurritearen ondorioak nabariagoak izan ziren “*hiri aglomerazio handietan, hala zelan Bilbon eta itsasadarraren industrialdean, eta arinagoak izan ziren landetan*

534 PEREA. Joaquín: *El modelo de iglesia subyacente en la pastoral del clero vasco (1918-1936)*, Bilbo, Elizbarrutiko Teologia eta Pastoralta Institutua. Desclee de Brower argitaletxea, 1991, II. liburukia, 728-730.

535 PAH, 422 karpeta, 8. zk., Agintari eta partikularrengandik jasotako komunikazioak, 1928, *Memoria. 1927tik 1928ra bitarteko ikastaroa, Laurentino Zamora Eskola Nazionalako haurren maisuak egina*, 1928-07-10.

536 ERKOREKA, Antón: *La pandemia de gripe española en el País Vasco (1918-1919)*, Leioa, Medikuntza eta Zientzia Historiaren Euskal Museoa, 2006, 33-51 or.

eta hiribilduetan”⁵³⁷. Erkorekak gaixotasunaren garapena aztertu zuen Plentzian, eta babestu zuen gaixotasuna Bilboko eremutik iritsiko zela kostaldeko herrira, “*hari baitzegoen, eta oraindik ere bai, oso lotuta eta trenarekin ondo komunikatuta*”. Ikerketa horren arabera, pandemiaren eragin handiena azaroan izan zen, eta guztira 18 heriotza izan ziren⁵³⁸. Aldameneko herrian, Urdulizen, azaroan izan ziren heriotza gehienak, 10 guztira; halandaze, Plentzian lez, azaroan izan zen gaixotasunaren intzidentzia maila handiena. Guztira, 12 bizitza eroan zituen pandemiak Urdulizen⁵³⁹.

Sopelaren kasuan, Udalaren Akta Liburuak informazio apur bat ematen du, gaixotasunak herrian izan zuen garapenari buruzko xehetasun batzuk ezagutzeko aukera ematen digu. Liburu honetan jasotakoaren arabera, izurritea “*nahiko oldartsua*” izan zen hiru hilabetez. Gaixo asko zeudenez, Aquilino Arriola Calleja medikuaren lana biderkatu egin zen⁵⁴⁰, eta Udalak zaldi bat utzi behar izan zion, “*epidemia horrekin pilatutako lan eskerga eroangarriagoa izan zedin, agertzen zitzaizkion kasu ugariak erregulartasunez bisitatu ahal izateko*”. Arriolaren lana hain handia izan zen, non Udalak, ondoren, aho batez, medikuari eskerrak ematea erabaki zuen, “*izurrite horretan zehar gau eta egun atseden hartu bako egindako lan gehiegizkoagatik*”⁵⁴¹.

Pandemian zehar, bizilagun batek bere burua eskaini zuen gripearen ondorioz hildakoen “gorpuak gidatzeko eta lurperatzeko gastuak” ordaintzeko; bizilagunaren borondatez, izena anonimatuan geratu zen, eta alkateak “*pertsona filantropiko, karitatezko eta sentimendu humanariodun*” gisa definitu zuen. Hileta lan horri ekiteko, alkateak “*adin nagusiko*” bizilagun bat izendatu zuen, kutsatzeko “*arrisku gutxiago*” zuelako; izan ere, adierazi dugun lez, “*gazteriak*” birusaren “*erasoa pairatzeko joera handiagoa*” zuen. Urruticoechea alkateak keinu solidario anonimoaren berri eman zien gainerako zinegotzietan, epidemia amaitu eta gero. Gertaeren berri izan ondoren, udalbatzak, oro har, alkateari eskatu zion pertsona hari eskerrak emateko⁵⁴².

537 ARBAIZA, Mercedes, GUERRERO, Ana, eta PAREJA, Arantza: “*Mundo rural y mundo urbano en la transición de la mortalidad vizcaína (1770-1930)*” in *Boletín de la Asociación de Demografía Histórica*, XVI, II, 1996, 19-56 (aipua: 52-53 or.).

538 ERKOREKA, 50 or.

539 SOMOKUETO, 565-566.

540 Arriolak 1918ko gripearen pandemian Sopelan egindako lan zailaz gain, medikuaren ibilbidea oso estimatua izan zen herrian, eta 1932ko martxoaren 28an elizateko Udalak etorbide bat eskaini zion. Proposamena Andrés Ercoreca zinegotziak aurkeztu zuen, eta hark, berba erabiliz “*elizate honetako mediku titularra izan zen Aquilino Arriola Callejaren portaera onaren historia egin zuen, (...) bere dohain eta bertute personal zein profesional bikainena, izaki aberatsenarekin zein umilenarekin izan zuen tratu adeitsuarena, hain kargu zailan izan zuen jarduera eta iraunkortasunarena, gaineratuz zorigaitzokoarentzat eta zoriaren behartsuarentzat ez zela bakarrik mediku bat izan, baizik eta aldi berean aita maitale eta maitekor bat, eurengeatik hamaika aldiz sakrifikatu baitzen diru zigorragatik, oraindik bere heriotza oso sentituagatik negar egiten duten familia samingarrietara kontsolamendua eroanez (...)*” (SUA, 1929-1932ko Osoko Bilkuren Akta Liburua, 1932-03-28ko Bilkura Arrunta).

541 BFAH, SOPELA 0077/002, 1916-1921eko saioen Akta Liburua, 1919-01-05eko Bilkura Arrunta.

542 BFAH, SOPELA 0077/002, 1916-1921eko saioen Akta Liburua, 1919-02-16ko Bilkura Arrunta.

Nahiko ondo ezagutzen dugu urriaren 19tik azaroaren 24ra bitartean gaixotasunak izandako intzidentzia, herriaren osasun egoerari buruzko eguneroko parteak gorde direlako (51. eta 52. Taulak); izan ere, horiek egiteko agindua eman zuen urriaren erdialdean gobernadore zibilak⁵⁴³. Txosten horietako 37 gorde dira, baina badakigu guztira 43 bidali zirela. Pascual Zalvidea arduratu zen gaixo, sendatu eta hildakoen eguneroko datuak jasotzeaz eta bidaltzeaz. Emandako zerbitzua kontuan hartuta, Udalak 50 pezeta ordaindu zizkion gerora⁵⁴⁴. Parte horien bidez, badakigu urriaren 19tik azaroaren 24ra bitartean 99 pertsona gaixotu eta 9 hil zirela.

52. TAULA: 1918ko GRIPEA SOPELAN: OSASUN EGOERAREN EGUNEROKO KONTUA. URRIA (19tik 31ra)⁵⁴⁵			
Eguna	Kasu kopurua	Alta kopurua	Heriotza kopurua
19	2	4	0
20	8	5	1
21	6	2	0
22	3	3	0
23	3	0	0
23	4	5	1
25	5	2	0
26	3	3	0
27	5	5	1
28	5	3	2
29	3	3	0
30	3	3	0
31	2	4	0
Guztizkoa	52	42	5

543 BFAH, SOPELA 0033/003, Jasotako korrespondentzia, 1918, *Bizkaiko gobernadore zibilaren ofizioa Sopelako alkateari*, 1918-10-17.

544 BFAH, SOPELA 0077/002, 1916-1921eko saioen Akta Liburua, 1919-01-12ko Bilkura Arrunta.

545 BFAH, SOPELA 0033/003, Jasotako korrespondentzia, 1918, Sopelako osasun egoeraren eguneroko parteak, urriaren 19tik azaroaren 24ra bitartekoak, telegrafoaren bidez bidaliak.

53. TAULA: 1918KO GRIPEA SOPELAN: OSASUN EGOERAREN EGUNEROKO KONTUA. AZAROA (1ETIK 24RA)⁵⁴⁶			
Eguna	Kasu kopurua	Alta kopurua	Heriotza kopurua
1	1	5	0
2	2	4	0
3	1	2	1
4	4	4	0
5	3	0	0
6	1	3	0
7	4	0	1
8	3	2	0
9	3	0	0
10	1	0	0
11	1	4	0
12	4	0	0
13	4	0	0
14	1	4	0
15	3	2	1
16	1	0	0
17	1	3	0
18	4	2	0
19	2	0	1
20	2	4	0
21	0	5	0
22	0	2	0
23	0	2	0
24	1	1	0
Guztizkoa	47	49	4

546 Ibid.

2. BIGARREN ERREPUBLIKA (1931-1936)



2.1. Udal politika eta hauteskunde portaerak

2.1.1. Berenguerren gobernutik 1931ko apirilko udal hauteskundeak arte

1930eko urtarrilaren 28an, Primo de Rivera jeneralak dimisioa aurkeztu zuen, eta bere diktadurazko agintaldia amaitu zen. Gobernu berriak, Berenguer jenerala buru zela, etapa berri bati ekin zion: “*La Dictablanda*” esaten zioten garai berri horri; 1876an ezarritako konstituzio esparrua berreskuratu gura zuten agintari berriek, Primo de Riveraren diktadura existitu izan ez balitz lez. Edozelan ere, asmo hori errealitatetik urrun samar zegoen: Alfonso XIII.a diktaduraren erregimenaren alde agertu izanak nabarmen ahuldu zuen monarkia; hainbestearaino ahuldu zen, ezen, Primo de Rivera desagertu zelarik, monarkia ere gainbehera abiatu baitzen. Sistema politikoak okerrera egin ahala, gizartearen nahigabea gero eta handiagoa izaki, errepublikanoen oposizioak gora egin zuen, eta euren asmoak *Donostiako Itunean* jaso zituzten. Errepublikanoek eta katalanistek 1930eko abuztuaren 17an Gipuzkoako hiriburuan egindako bilera horretan Espainian Errepublika ezartzeko eta, sistema errepublikanoaren barnean, Kataluniari autonomia emateko oinarriak ezarri ziren. Urrian, PSOEk eta UGTk bat egin zuten akordioarekin. Bestalde, euskal nazionalismoak ez zuen bileran parte hartu; izan ere, José Luis de la Granjak dioenez, jeltzaleen katolikotasuna eta kontserbadurismoa ez ziren ondo ezkontzen Espainiako errepublikanismoaren laikotasunarekin eta aurrerakoitasunarekin. Eta horri gehitu behar zaio abertzaletasunak neutraltasunaren aldeko jarrera hartu zuela Estatuan ezarri beharreko erregimen politikoaren auzian⁵⁴⁷.

Berenguerren Gobernuaren hastapenetara itzulita, agintaritza berriak hartutako lehen erabakietako bat izan zen Primo de Riveraren Diktaduran izendatutako udalbatzak desagitea eta euren ordeztu behin-behineko beste batzuk ezartzea. Gobernuaren araudiaren arabera, 1923a baino lehenagoko hauteskundeetan boto gehien jaso zituzten zinegotzi ohiek eta herriko zergadun handienek bete zituzten udalbatza berrietako postuak. Euskal abertzaletasunaren adar biek (EAJ eta CNV), jaimistek eta errepublikanoek erabaki zuten ez zutelako posturik onartuko udalbatza horietan, “*herritarrek beren botoekin hautatzen ez zituzten bitartean*”. De Pablo, Mees eta Rodríguez Ranz autoreek diotenez, ez da erraza jakitea erabaki hori oso osoan bete ote zen. Nazionalisten kasuan, adibidez, barne diziplina ez zegoen oraindino sendotuta, Diktadura ezarri zenetik ez zutelako jarduera politikorik izan. Horretaz

547 GRANJA SAINZ, José Luis de la: *El Oasis Vasco: el nacimiento de Euskadi en la República y la Guerra Civil*, Editorial Tecnos, Madrid, 2007, 85-86 or.; eta GARCÍA DE CORTAZAR, Fernando eta MONTERO, Manuel: *Historia Contemporánea del País Vasco. De las Cortes de Cádiz a nuestros días*, Txertoa, Donostia, 1995, 54. or.

gain, zinegotzi berriak izendatzeko erabilitako sistemak beharbada bultzatu zituen zenbait jeltzale zinegotzi kargua onartzera⁵⁴⁸. Horixe jazo zen, antza, Sopelan; izan ere, Francisco Ondiz eta José Elorriaga alkate ohi nazionalistek eta Alejo Marcaida zinegotzi ohi jeltzaleak onartu baitzituzten karguak udalbatza berrian.

Taulan ikus dezakegunez, udalbatza berriko kide gehienek bazuten esperientzia aldeaz aurretik udal kudeaketan. Ez, ordea, Antonio Arechavaleta alkate berriak, baina gogoratu behar dugu izendatu aurreko urteetan izan zuela loturarik toki administrazioarekin, ongile gisa; berba baterako, 1918an Udaletxea eraikitzeo obrak ordaindu zituen bere dirutik, edo 1925. eta 1926. urteetan ur-horniduraren obrak.

54. TAULA: SOPELAKO UDALBATZA 1930EKO OTSAILAK 27⁵⁴⁹				
Kargua	Izen-deiturak	Izendapenaren kontzeptua	Lanbidea	Aurretiazko ibilbide politikoa
Alkatea	Antonio Arechavaleta Urrechaga	Zergadun handiena	Itsasgizona	Ezer ere ez
1. alkateordea	Francisco Ondiz Zabala	1920ko hauteskundera	Nekazaria	Alkatea: 1920-1922 Alkateordea: 1922-1923 (euskal nazionalista)
2. alkateordea	José Elorriaga Zabala	Zergadun handiena	Tratantea	Zinegotzia: 1920-1922 Alkatea: 1922-1923 (euskal nazionalista)
1. alkateordearen ordezkoa	Victoriano Landeta Menchaca	1920ko hauteskundera	Zurgina	Alkateordea: 1920-1922 Zinegotzia: 1922-1923 (Independentea)
2. alkateordearen ordezkoa	José María Zuazua Sarria	1922ko hauteskundera	Errementaria	Zinegotzia: 1922-1923
1. zinegotzia	Cesáreo Apraiz Olaguibel (uko egin zion)	Zergadun handiena	Itsasgizona	Ezer ere ez
2. zinegotzia	Felipe Bilbao Beitia	1917ko eta 1922ko hauteskunderak	Nekazaria	Zinegotzia: 1918-1923
3. zinegotzia	Alejo Marcaida Urrutia	1920ko hauteskundera	Nekazaria	Zinegotzia: 1920-1923 (euskal nazionalista)
4. zinegotzia	Manuel Azcorra Retureta	Zergadun handiena	Nekazaria	Zinegotzia: 1916-1918 Alkateordea: 1918-1920
5. zinegotzia	Carlos Videa Bilbao	Zergadun handiena	Itsasgizona	Ezer ere ez
6. zinegotzia	Ignacio Egusquiza Goya (uko egin zion)	Zergadun handiena	Merkataria	Ezer ere ez

548 PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ, 195-196 or.

549 SUA, 1929-1932ko Osoko Bilkuren Akta Liburua, *Zinegotzien aldarrikapen akta* 1930-02-25, *Udal berriaren Eratze Akta* 1930-02-26, *Alkateorde bien hautaketaren akta* 1930-02-27.

Izendapenaren kontzeptua BFAHtik atera dugu: SOPELA 0063/014, Sopelako Udalak zinegotziak izendatzeko izapidetutako espedientea, 1930, Sopelako udal idazkariak egindako ziurtagiria 1930-02-22. Lanbideak Sopelako 1930eko Hautesleen Erroldatik atera ditugu.

Udalbatzaren osaera aldatu egin zen handik gutxira, Cesáreo Apraiz eta Ignacio Egusquiza zinegotziek uko egin baitzieten karguari. Lehenengoak dimisioa aurkeztu zuen, *“urte asko eta zeregin ugari zituelako”*, eta Egusquizak, ostera, uko egin zion karguari *“Txileko Errepublikara eta Linares hirira joan behar zuelako, han baitu saltokia, eta hara joateko eskatu ziotelako”*. Udal Batzorde Iraunkorrak otsailaren 1ean aztertu zituen uko egite horiek bi, eta Cesáreo Apraizena onartu egin behar zela erabaki zuten, *“publikoki jakina zelako alegatzen duena egia dela”*. Ignacio Egusquizaren kasuan, Udal Batzorde Iraunkorrak ez zuen uko egitea onartu, zinegotziak ez zituelako justifikatu azaldutako arrazoiak. Azkenik, dimisio biak onartu zituzten eta, hurrengo asteetan, Sopolako zergadun handienen zerrendako zenbait hautagaik ere egin zieten uko hutsik geratutako postu biak betetzeari⁵⁵⁰.

Martxoaren erdialdean, Galo Oleaga Goirigolzarri proposatu zuten Cesáreo Apraizen ordezkotza izateko, baina karguari uko egin zion *“gaixo zegoelako”*. Ignacio Egusquizak utzitako postua betetzeko, 1923tik 1926ra bitarte alkate izandako José de la Vía Quintana proposatu zuten lehenik, eta uko egin zion, artikulazioetan erreumatismoa zuela argudiatuta. Haren ordezkotza, apirilaren hasieran, Pantaleón Trifol Echevarria izendatu zuten zinegotzi, eta hark ere egin zion uko karguari, *“Bilbon eta Areetan dituen pintura tailerrez arduratu behar duelako”*⁵⁵¹.

Udalbatzaren egoera apirilaren erdialdean egonkortu zen: José Torrontegui Arana, zinegotzi abertzalea izango zena, lehen zinegotzi izendatu zuten; eta Francisco Ossorio Rodríguez, ostera, seigarren zinegotzi⁵⁵². Hala ere, abuztuaren hasieran, Ossoriok karguari uko egin behar izan zion, udal epaile izendatu zuten. José Domingo Ansoleaga Argaluzak izendatu zuten haren ordezkotza zinegotzi 1930eko irailaren 2an, baina ez zegoen herrian, itsasoan baitzebilen eta, halandaze, ezin izan zuten kargua hartzera joan. Hori dela eta, zinegotzi abenduaren 31n izendatzea erabaki zuen Udalak⁵⁵³, otsailaren amaieratik gertatzen ari zen izendapenen gorabehera amaituta.

Estatuko egoera politikora itzulita, 1931ko urtarrilean, Berenguer jenerala buru zuen Gobernuak, Primo de Riveraren diktaduraren aurretik indarrean zegoen sistema konstituzionalera itzuli guran, hauteskunde orokorren deialdia egin zuten hurrengo martxorako. Ez zen hauteskunderik izan, ez aurkeztea erabaki zutelako ezkerreko alderdi guztiek eta zenbait alderdi monarkikok. Euskadin, EAJK bai erakutsi zuen bozketetan parte hartzeko gogoia. Horrekin monarkia babestu gura ez bazuten ere, nazionalistek, antza, uste zuten sistema monarkikoak iraun egingo zuela. Hauteskundeetako deialdien porrotak eraginda, Berenguer eta bere gobernuak kanporatuak izan ziren atoa, eta Gobernu berria ezarri zen, monarkiko guztiak baturik eta Juan Bautista Aznar almirantea izanik buru. Kabinete berriak

550 BFAH, SOPELA 0063/014, Sopolako Udalak zinegotziak izendatzeko izapidetutako espedientea, 1930, *Udal Batzorde Iraunkorraren Erabakien Ziurtagiriak* 1930-03-04.

551 Ibid., *Udal Batzorde Iraunkorraren Erabakien Ziurtagiriak* 1930-03-22 eta 1930-04-10.

552 SUA, 1929-1932ko Osoko Bilkuren Akta Liburua, 1930-04-23ko *Bilkura Arrunta*; eta BFAH, SOPELA 0063/014, Sopolako Udalak zinegotziak izendatzeko izapidetutako espedientea, 1930, *udal idazkariak Francisco Ossoriori zuzendutako Ofizioa* 1930-04-26.

553 BFAH, SOPELA 0063/014, Sopolako Udalak zinegotziak izendatzeko izapidetutako espedientea, 1930, *Udal Batzorde Iraunkorraren Erabakien Ziurtagiria* 1930-08-08; eta SUA, 1929-1932ko Osoko Bilkuren Akta Liburua, 1930-12-31ko *Bilkura Arrunta*.

udal hauteskundeak deitu zituen 1931ko apirilaren 12rako eta, oraingoan bai, alderdi guztiek onartu zituzten. Baina bozketa horiek, zentzu administratiboa barik, Monarkia eta Errepublikaren arteko hautua ebazteko bide bihurtu ziren⁵⁵⁴.

Apirilaren 5ean, Erroldaren Udal Batzarrak zinegotzi izateko hautagaiak aldarrikatu zituen. Sopelan, bederatzi hautagai aurkeztu ziren, Udalbatzako postuak betetzeko adina eta, halandaze, 1907ko Hauteskunde Legearen 29. artikulua arabera, zuzenean izendatu zituzten zinegotzi⁵⁵⁵. Beste horrenbeste jazo zen, halaber, Barrikan, Berangon edo Urdulizen ere. Zergatik erabaki zuten udalerrri horietan 29. artikuluari atxikitzea? Erantzuna *Euzkadi* berriraketa Urdulizi buruz argitaratutako berri batean aurki dezakegu; horren arabera, “herriak (...) liskar oro saihestu gura izan du hauteskunde borroka honetan”, eta horregatik aukeratu ziren zinegotziak 29. artikuluari jarraikiz⁵⁵⁶. Sopelan, ziur aski, alboko udalerrian jarraitu zen printzipio bera aplikatu zen.

Sopelako udalbatza zazpi zinegotzi nazionalistak eta independente bik osatu zuten:

55. TAULA: SOPELAKO UDALBATZA 1931KO APIRILA-1933KO URTARRILA⁵⁵⁷			
Kargua	Izen-deiturak	Filiazio politikoa	Lanbidea
Alkatea	Antonio Arechavaleta Urrechaga	Independentea	Itsasgizona
1. alkateordea	Pantaleón Trifol Echevarria	Independentea	Pintorea
2. alkateordea	Elías Aguirregoitia Vidaurrezaga	Euskal nazionalista	Itsasgizona
Sindikoa	Florencio Urrengochea Expósito	Euskal nazionalista	Zurgina
Sindiko ordezkoa	Teodoro Bilbao Zarraga	Euskal nazionalista	Itsasgizona
Zinegotzia	Justo Barrenechea Lecuona	Euskal nazionalista	Enplegatua
Zinegotzia	Pedro Urruchua Larrazabal	Euskal nazionalista	Itsasgizona
Zinegotzia	José Torrontegui Arana	Euskal nazionalista	Jornalaria
Zinegotzia	Andrés Ercoreca Zuazo	Euskal nazionalista	Nekazaria

554 PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ, 206. or.

555 BFAH, AR00340/014, *Sopelako zinegotzien hautaketa, 1931. Zinegotziak aldarrikatzeko akta 1931-04-05.*

556 *Euzkadi* 1931-04-11.

557 SUA, 1929-1932ko Osoko Bilkuren Akta Liburua, *Udal berriaren Eraketa Akta* 1931-04-18. Filiazio politikoak hemen: BFAH, SOPELA 0043/002, Sopelako Udalak igorritako korrespondentzia, 1932, *Sopelako alkateak Bizkaiko Gobernadore Zibilarari helarazitako ofizioa*, 1932-10-01. *Sopelako Hauteskunde Erroldatik ateratako lanbideak*, 1930.

Ikus dezakegunez, Antonio Arechavaletak alkate izaten jarraitu zuen; 1930eko otsailaz geroztik zen alkate, eta aurreko udalbatzako kideen artetik udalean jarraitu zuen bakarra izan zen. Sopelako Udalak 1932ko urrian gobernadore zibilar bidalitako datuei erreparatuz gero, Arechavaletak “*independente*” gisa hartu zuen kargua, Pantaleón Trifol lehen alkateordeak lez. Hala ere, *Euzkadi* berripaperak 1931ko apirilaren 14ko edizioan argitaratu zuenez, Sopelako zinegotzi berrien artean monarkiko bi zeuden⁵⁵⁸. Izen-deiturarik zehaztu ez zuten arren, ez da esan beharrik Arechavaleta eta Trifoli buruz ari zirela. Eskuarlean dugun informazioaren arabera, esan dezakegu azken horrek soilik zuela kontserbadurismo monarkikoarekin lotutako iragan politikoa, Berrezarkuntza garaian, 1912ko martxoan sortu zen *Sopelako Batzorde Kontserbadorearen* lehendakari izan baitzen. Arechavaletari dagokionez, ez dirudi tokiko politikan ibili zenik 1930eko urtarria baino lehen⁵⁵⁹.

Aipatu behar da zinegotzi sopoloztar horiek bi filiazio politikoa aldatu izana ez zela soilik herri horretan jazo. Alboko herrian, Urdulizen, *Euzkadi* berripaperean 1931ko apirilaren 11n argitaratutako informazioaren arabera, 29. artikuluaen arabera hautatutako zinegotziak “*hiru nazionalista, hiru independente eta hiru monarkiko edo Torrecillako markesaren maizterrak*” izan ziren. Hala ere, 1932ko *Udal Estatistika Administratiboan*, zinegotzi horiek honela agertzen ziren: sei nazionalista, errepublikano bi eta komunista bat⁵⁶⁰. Plentzian, apirilaren 12ko hauteskundeetan hiru zinegotzi nazionalista, hiru monarkiko, independente bi, EAE/ANVko bat eta beste errepublikano bat izan ziren hautatuak. Herri horretan hauteskundeak errepikatu zituzten maiatzean, eta udalbatza berria honela geratu zen eratuta: zazpi nazionalista, errepublikano bi eta EAE/ANVko bat; halandaze, monarkismoak Udalean ordezkari izateari utzi zion. Igor Barrenetxeak dioenez, zinegotzi monarkikoen desagertze hori “*ia Euskal Herri osoan errepikatu zen (...), erregimen aldaketaren ondorioz*”⁵⁶¹.

Sopelan eta Urdulizen ez zituzten hauteskundeak errepikatu, baina arestian aipatu ditugun filiazio politikoen aldaketak, ziurrenik, erregimen errepublikano berrira egokitzearen ondorio izango ziren.

Edozelan ere, Sopelako Udaleko gainerako zinegotziak, gobernu taldearen gehiengo osoa, euskal nazionalistak ziren, eta ez zuten beren atxikimendu politikoa aldatu kargudun izan ziren bitartean. Gehientsuenak herriko EAJren zuzendaritza organoetan sartuta zeuden hautatuak izan zirenean. Berba baterako, Elías Aguirregoitia bigarren alkateordea Sopelako *Euzko Gaztediaren* zuzendaritzako kide zen 1930eko abenduaz geroztik, eta José Torrontegui zinegotzia, ostera, lehendakariorde zen garai beretik. Bestalde, Florencio Urrengochea, Teodoro Bilbao eta Andrés Ercoreca zinegotziak Sopelako EAJren Uri Buru Batzarreko

558 *Euzkadi* 1931-04-14.

559 *El Pueblo Vasco* 1912-03-20.

560 *Euzkadi* 1931-04-11 eta SOMOKUETO PÉREZ, Koldo: *Urduliz: La historia de un municipio vasco durante la Segunda República*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 2018, 350. or.

561 BARRENETXEA MARAÑÓN, Igor: “*Plencia y el Estatuto de Estella. La Proclamación de la II República y la autonomía en un municipio vizcaíno*” in *Sancho el Sabio*, 14, 2001, 126., 128. eta 136. or.

lehendakari, diruzain eta idazkari izan ziren 1930ean⁵⁶². Harrigarria izan daiteke Antonio Arechavaleta alkate izendatu izana, Udalean jeltzaleak nagusi zirela kontuan izanik; baina, aurrerago ikusiko dugunez, herrian ospe handiko gizona zen, herriaren alde etengabe aritzen baitzen ongintzan. Arechavaletak herriko jeltzaleen artean zuen izen onaren adierazgarri, 1932an udalbatzak sustatutako omenaldia aipa dezakegu, Udaletxeko plazari alkatearen izena jartzea erabaki baitzuten. Gainera, lehen zinegotziaren izena zuen plaka inauguratu zen egunean, urte horretako martxoaren 19an, Batzokiko dantza taldeek ere parte hartu zuten. Aurrerago egingo dugu berba horren gainean⁵⁶³.

2.1.2. Bigarren Errepublika aldarrikatetik 1933ko azaroko Gorteetarako hauteskundeetara

Aipatu dugunez, udal hauteskundeak sistema politiko biren arteko aurrez aurrekotzat planteatu ziren: monarkia edo errepublika. Espainia guztian, monarkikoak boto kopuruan izan ziren garaile, baina Estatuko hiriburu gehienetan, ostera, Errepublika ezartzearen aldeko indarrak nagusitu ziren. Horren ondorioz, Alfontso XIII.a erregeak erbestera joatea erabaki zuen, eta 1931ko apirilaren 14an Bigarren Errepublika aldarrikatu zen. Aipatzekoa da Eibarren inon baino lehenago aldarrikatu zela, Estatu osotik, erregimen berria. Bartzelonan, Francesc Maciàk Kataluniako Errepublika aldarrikatu zuen “*Iberiar Federazioa*” delakoaren barruan, eta Getxoko alkate José Antonio de Aguirrek ere beste horrenbeste egin zuen Euskal Errepublikarekin. Niceto Alcalá-Zamoraren behin-behineko Gobernuak oso bestelako erantzuna eman zien adierazpen bi berdintsu horiei: Katalunian, Generalitatea ezartzea ahalbidetu zuen, autonomia aurreko erakunde gisa; Euskal Herrian, ostera, alkate nazionalistak Gernikan elkartzea galarazi zuen. Alkateen bilkura horren helburua Bizkaiko Batzar Nagusiak berpizteari buruz eztabaidatzea zen, eta, Errepublikaren barnean, euskal gobernu baten sorrera eskatzea⁵⁶⁴.

Huts egindako ekitaldiaren ondorioz, alkateek indarrak batu zituzten Hego Euskal Herrirako Estatutu bat sortzeko, eta Eusko Ikaskuntzari manatu zioten Estatutua prestatzeko. Aipatzekoa da Estatuaren testua idatzi zuten erredaktoreetako bat Ramón Madariaga errepublikanoa zela, eta artikulua gehienak idazteko ardura hartu zuela; maiatzaren 31rako prest zuten testua. Estatutuaren testua onartzeko, alkateen mugimenduak deialdia egin zuen lau probintzietako udalek batzar handia egin zezaten, Iruñean, ekainaren 14an. Bilkura baino lehen, Estatutuan aldaketa bi sartzeari onetsi zuen EAJren batzarrak ekainaren 7an. Batetik, gogortu egiten zen euskal lurraldean jaio bakoek herritartasuna lortzeko baldintza, urte bitik hamar urtera igoz eskualdean bizi beharreko urteak. Beste alde batetik, klausula erlijioso bat sartu zuten, zeinaren bidez Euskal Herriak beretzat hartzen zuen Vaticanoarekiko harremanak edukitzeko eskumena. Gobernuak Errepublikarekiko desafioa iritzi zion horri, zuzen-zuzen egiten zuelako talka Gobernuak defendatzen zituen balio laizistekin⁵⁶⁵.

562 *Euzkadi* 1930-12-10.

563 SUA, 1929-1932ko Osoko Bilkuren Akta Liburua, 1932-03-14ko Bilkura Arrunta.

564 GRANJA, 87. or.

565 FUSI, 79. or.

Sopelako Udalari dagokionez, maiatzaren 11ko udalbatzan Getxo, Mundaka, Elorrio eta Bermeoko alkateek sinatutako idazki bat irakurri zen, *“Euskal Udalerriek Euskal Herriari kendu zizkioten askatasun eta eskubide sakratuen alde”* abiarazitako kanpainaren berri emateko. Sopeloztar zinegotziek adierazi zuten *“aho batez ados zeudela”* goian aipatutako alkateek adierazitako nahiekin, eta *“irakurritako idazkiaren edukia kontuan hartzea eta euskal udalerriek abiarazitako kanpainarekiko atxikimendu irmoena azaltzea”* erabaki zuten. Erabaki hori *“Getxoko alkateari”* jakinarazi zioten, *“ofizio adeitsu bidez (...), jakinaren gainean egon zedin”*⁵⁶⁶.

Hurrengo osoko bilkuran, maiatzaren 18an, lehen aipatutako alkateen beste idazki bat irakurri zen, *“Euskal Udalerriek Euskal Estatutua onartzeko Iruñean egin behar duten bilkura nagusira joan dadin Udala”*. *“Idazkiaren edukia atxikitzea eta euskal foruak ostera ere ezartzeko kanpainaren alde indar guztiz jardutea”* adostu zuen Udalbatzak. Hala ere, ez zuten ordezkariarik izendatu Iruñeko bilkurara joateko, eta horrek ez zuen ezelango protestarik eragin Udaleko gehiengo jeltzalearen aldetik. Aipatu behar da gai hori ez zela hurrengo osoko bilkuretan ere landu. Maiatzaren 18an, ordea, Udalbatzak *“aho batez”* erabaki zuen *“Gernikako Arbolaren koadro sinboliko bat erostea udaletxeko bilkura-aretorako”*, garai hartako irrika autonomikoekin bat. Ez dakigu azkenean erosketa hori egin zen ala ez, baina egia dena da, urtebete geroago, udaldia herrian igarotzen zuen José Álvarez Ormiluguek *“Gernikako Arbolaren koloretako estanpa bat oparitu ziola Udalari, bilkura aretoan jartzeko”*. Udalbatzak, oro har, oso ondo hartu zuen opari hura, eta aktan jaso zuten oso eskertuta zeudela *“Álvarez jaunarekin(...) hain opari preziatua egiteagatik”*⁵⁶⁷.

Dena dela, ekainaren 14ko batzar hori, azkenean, ez zen Iruñean egin, nafar hiriburuan mitina egin behar baitzuen egun berean Bloke Katoliko-Fueristak, eta EAJk ez zuen oraindino harekin bat egin. Horregatik, euskal udalen bilkura Lizarran egin zen, eta Hego Euskal Herriko 548 alkateetatik 427k parte hartu zuten. Baina zenbateko harrigarri hori zehatz-mehatz aztertu beharrekoa da: alde batetik, hiriburuetako alkateak falta ziren, horiek izanik Hego Euskal Herriko biztanleria osoaren % 30. Eta, beste alde batetik, beste udalerrri garrantzitsu batzuetako ordezkariarik ere ez zen izan, halan zelan Barakaldo, Sestao, Eibar edo Arrasate, guztiak ere ezkerreko alderdien gobernupean egonda. Absentzia horiek agerian uzten zuten bilkuraren kontrako oposizio garrantzitsu bat zegoela. Alkateen mugimenduak bazekien udalerrri garrantzitsu askok bilkurara ez joatea erabaki zutela eta, absentzia horien larritasunaz jabeturik, egoera konpentsatze aldera, Batzorde Kudeatzaileei eskaini zieten Lizarrako Bilkuraren lehendakaritza; Batzordeek, orduan, batzarra geroratzeko eskatu zuten. Ez zen, ostera, elkar aditzerik izan, jarrera horien atzean *“lehia gogor bat zegoelako eskualdeko lidergo politikoagatik”*, eta lehia hori areagotu egin zen hilaren amaieran izango ziren Gorteetarako hauteskundearen eraginez⁵⁶⁸.

566 SUA, 1929-1932ko Osoko Bilkuren Akta Liburua, 1931-05-11ko Bilkura Arrunta. Aipatzen den idazki hori, seguruenik, *Euzkadi* berripaperean 1931-04-22an argitaratu zena izango zen.

567 SUA, 1929-1932ko Osoko Bilkuren Akta Liburua, 1931-05-18ko Bilkura Arrunta, 1932-09-26ko Bilkura Arrunta.

568 FUSI, 77-78 eta 91. or.

Batzarra egin eta hilabetera, Sopelatik igorritako artikulua bat argitaratu zen *Euzkadi* berriraparean, eta hor argi geratzen da Elizateko Udalak ez zuela ordezkariarik bidali Nafarroako herrira, eta salbuespen izan zela zonaldean, Sopela inguruko herrietako udal guztiak egon baitziren bileran⁵⁶⁹. Ez dakigu absentsia hori zerk eragin zuen.

Lizarrako Batzarren bezperan, Bizkaiko Foru Aldundiko Batzorde Kudeatzaileak mugimendu bat egin zuen, eta probintziako udaletara gutun bana igorri zuen, ekainaren 19an Bilbon egingo zen bilera baterako deialdia eginez, “Gorte Konstituziogileetan aurkeztu beharreko Euskal Estatutuaren proiektuari buruz; alderdi sozialistak, nazionalistak eta jaimistak aurkeztu zituzten eta aurrerantzean ere aurkeztuko diren zuzenketei buruz, eta proiektu horrek interesdunei iradokitzen dizkien gainerako ekimen eta oharrei buruz eztabaidatzeko”. Sopelako Udaltzaren aurreko egunean aztertu zuen gai hori, eta erabaki zuen “*Udalbatza honen ordezkarietarako Getxoko alkate José Antonio de Aguirre y Lecube jauna eskuordetzea, Udal honen izenean Batzarrean parte har dezan*”⁵⁷⁰. Erabaki berbera hartu zuten Urdulizko eta Plentziako udaletan ere, baina azken horren kasuan, Casimiro Olalde zinegotzi errepublikanoak protesta egin zuen gehiengoak uko egin ziolako Bizkaiko Batzorde Kudeatzailearekin zuten hitzordura joateari; izan ere, Olalderen berbetan, Udalak Lizarrara ordezkari bat bidalia zuenez, beste horrenbeste egin behar zuen Aldundiko bilerara joanda⁵⁷¹.

Errepublikako behin-behineko Gobernuak ekainaren 28rako egin zuen Gorteetarako hauteskundeak deia. Xedea, Konstituzioa onartzea, erregimen errepublikanoaren euskarri. Euskadin, ostera, hauteskunde lehia gai biren inguruan korapilatu zen: erlijio auzia eta autonomiaren auzia, biak lotu-lotuak Lizarrako Estatutuari⁵⁷².

Halandaze, bloke bi sortu ziren, mutur-muturrekoak eta elkarren aurkakoak. Alde batetik, eskumen blokea, nazionalistek, karlistek eta katoliko independenteek osatua. Lizarrako Estatutuaren klausula klerikalaren inguruan egin zuten aliantza, Konstituzio berriak ezarri gura zuen antikerikalismoaren kontra baitzeuden. Eliza katolikoaren eta ordena sozialaren defentsak batzen zituen, alde horretatik. Hala guztiz, blokea osatzen zutenek ikuspegi desberdinak zituzten autonomiaren gaiari zegokionez: EAJrentzat, Estatutua lehenengo pausua zen Euskadiren subiranotasunaren eraikuntzan; karlistentzat, ostera, erregimen errepublikanoa leherrarazteko tresna. Logikoa denez, ezkerrek Estatutua gaitzesten zuten haren klerikalismoagatik, eta Eusko Ikaskuntzak prestatuturiko Estatutuaren lehen proiektuaren alde egin zuten, irmoki. Gauza guztien gainetik gura zuten Euzkadi gotorleku klerikal eta antierrepublikanoa bihurtzea galarazi, eta Errepublika defendatu⁵⁷³.

569 *Euzkadi* 1931-07-18; eta *La Gaceta del Norte* 1931-06-15.

570 SUA, 1929-1932ko Osoko Bilkuren Akta Liburua, 1931-06-18ko Ezohiko Bilkura.

571 SOMOKUETO, 358. or.; eta BARRENETXEA, 138. or.

572 GRANJA, 226. or.

573 FUSI, 81. or.; eta GRANJA, 176. or.

Horregatik guztiagatik, politika erlijioso eta autonomikoari buruzko bozketa bihurtu ziren hauteskundeak Euskal Herrian. Eskumen blokea jazo zen garaile, 15 diputatu eskuratuta, eta ezkerrek 9 jesarleku eskuratu zituen. Eskumek 5 diputatu atera zituzten Bizkaian, 5 Nafarroan, 4 Gipuzkoan eta 1 Araban; ezkerrekoek, aldiz, 4 Bizkaian, 2 Nafarroan, 2 Gipuzkoan eta 1 Araban. Bloke kontserbadorearen garaipena gorabehera, nabarmentzekoa da errepublikanoek eta sozialistek osaturiko multzoak lau hiriburuetan irabazi zuela, baita Bizkaiko eta Gipuzkoako industria eremuetan, Arabako Errioxan eta Nafarroako Erriberan ere. Estatuaren gainerakoan, ezkerreko blokeak garaipen handia lortu zuen eskuma txarto antolatuaurrean⁵⁷⁴.

Sopelan, 298 hauteslek osatzen zuten Hautesle Errolda une hartan, eta 217 hauteslek eman zuten botoa, hau da, hautesleen % 27 inguruk abstentzioaren alde egin zuten. EAJ izan zen lehen indarra, baina 14 botoko aldea baino ez zuen lortu koalizio errepublikano-sozialistaren hautagaitzarekiko; izan ere, koalizio horrek emaitza ona atera zuen herrian, 56. taulan ikus daitekeenez. Sopela inguruko herrietan (57. taula), EAJ izan zen boto gehien jaso zituen alderdia, alde handiz, Gorkizen izan ezik, koalizio errepublikano-sozialista izan baitzen garaile, EAE/ANV bigarren izanik oso alde txikiarekin, eta hirugarren nazionalistak.

56. TAULA: GORTEETAKO DIPUTATUEN HAUTESKUNDEETAKO EMAITZA. SOPELA (1931-06-28)⁵⁷⁵

Hautagaiak	Botoak
José Horn Areilza (EAJ)	113
Manuel Eguileor Orueta (EAJ)	113
Cosme Elguezabal Urrengoechea (EAJ)	113
Manuel Robles Aranguiz (EAJ)	113
Indalecio Prieto Tuero (PSOE)	99
Luis Ariqueistain Quevedo (PSOE)	99
Vicente Fatrás Neira (Errepublikanoa)	99
Ramón M. ^a Aldasoro Galarza (Errepublikanoa)	99
Luis Urrengoechea Aguirre (EAE/ANV)	2
José Ignacio Arana Erezumaga (EAE/ANV)	2
Miguel Mandiola Azcarate (EAE/ANV)	2
Cosme Duñabeitia de la Mota (EAE/ANV)	2
José Bullejos Sánchez (PCE)	2
Manuel Adame Misa (PCE)	2
Leandro Carro Hernández (PCE)	2
Dolores Ibarruri Gómez (PCE)	2
Zuriak	1

574 GRANJA, 175-176 or.

575 BFAH, AJ02064/010, *Sopela udalerrian 1931ko ekainaren hogeita zortziko Gorteetako Diputatuen Hauteskundeetarako buruzko espedientea.*

57. TAULA: 1931-06-28KO HAUTESKUNDEETAKO EMAITZAK SOPELA INGURUAN)⁵⁷⁶

Udalerrria	José Horn (EAJ)	Indalecio Prieto (PSOE)	José Bullejos (PCE)	Luis Urrengoechea (EAE/ANV)
Barrika	106	20	0	0
Berango	168	93	3	0
Gorliz	74	86	0	80
Getxo	1730	1138	80	49
Laukiz	113	16	0	0
Plentzia	250	109	0	57
Sopela	113	99	2	2
Urduliz	187	19	0	0

Lehen aipatu dugunez, estatutuaren auziari buruzko bozketatzat aztertu ziren hauteskundeetako emaitzak. Horrela, bada, Lizarrako Estatutuaren aldeko eskumen blokeak beren Estatutua onetsizat jo zuen, botoen % 56 eskuratuta. Bestalde, aliantza errepublikano-sozialistak eta EAE/ANVk, hau da, Eusko Ikaskuntzarenaren aldekoak zirenek % 42ko babesba lortu zuten, eta PCEk, autonomia proiektu bien kontra, % 2 baino ez⁵⁷⁷.

Lizarrako Estatutua onetsizat hartuta, bloke kontserbadorea Madrilen Gorteetan aurkezteko prestatzen hasi zen, eta irailaren 22a hautatu zuten ekitaldi hori egiteko. Aurkezpenari garrantzi handiagoa ematearren, Euskadiko eta Nafarroako alkateei Estatuko hiriburura joateko eskatu zieten. Sopelako Udalean, abuztuaren 24ko udalbatzan aztertu zuten eskaera, eta Zangoza, Getxo, Azpeitia eta Laudioko alkateen komunikazio bat irakurri zen, eskatzen zuena *“alkate jauna Udalaren ordezkari izendatzeko, Madrileran joan dadin Euskal Estatutuaren aurkezpena, ekitaldi ahalik eta distiratsuen izan dadin”*; adierazten zenez, *“bidaia hori egiteko aparteko tren bat antolatuko da, prezio merkeagoan”*. Arechavaleta alkatea eta Pantaleón Trifol zinegotzia ordezkari hori izendatzearen aurka agertu ziren, eta adierazi zuten nahikoa izango zela Udalak 1931ko maiatzaren 11n eta 18an adostutako Estatutuari atxikitzeak akordioak berrestea, *“eta Alkateen Batzordeari horri buruzko ziurtagiri bat bidaltzea”*. Alkatearen eta Trifolen ezezkoaren argudioa zen *“Udala estu zebilela Madrileran joateko izendatzen den ordezkariaren bidaia gastuak ordaindu ahal izateko”*⁵⁷⁸.

Jarrera horren aurreran, Andrés Ercoreca zinegotzi jeltzaleak erantzun zuen bidaiaren kostua *“hutsala”* zela eta, halandaze, bere ustez *“irakurri berri den idazkia sinatzen duten alkateek eskatzen duten ordezkaria izendatu behar zela”*. Gainerako

576 <https://www.euskadi.eus/informazioa/bigarren-errepublikako-emaitzak-1931eko-hauteskundeak-vizcaya-hiriburua-udalerriak/web01-a2haukon/eu/>

577 GRANJA, 242. or.

578 SUA, 1929-1932ko Osoko Bilkuren Akta Liburua, 1932-08-24ko Bilkura Arrunta.

zinegotzi nazionalistek bat egin zuten berba horiekin, eta adierazi zuten *“Ercoreca jaunaren iritzi berekoak direla, eta bere egiten dute hark egindako proposamena”*. Desadostasuna sortu zen Udalbatzako gehiengoaren eta alkate eta ordezkoren artean: Arechavaletak eta Trifolek udal altxorraren egoera delikatuaz azpimarratu zuten, eta *“premiazko hainbat obra egin behar direnez, ez litzateke ordezkariak izendatu behar gastuak eta erantzukizuna saihesteko”*. Ercoreca zinegotziak baliatu zuten, ostera ere, erantzuteko aukera, eta ziurtatu zuten berak hartuko zituela bere gain *“bidaia horren gastuen kontura etor litezkeen ondorioak”*. Azkenik, gehiengo nazionalistak Elías Aguirregoitia zinegotzia izendatu zuen Udalaren ordezkari, Euskal Estatutua Madrilen entregatzeko ekitaldira joan zedin, *“bidaia Udalaren kontura izanik”*. Aurreikus zitekeenez, alkateak eta Trifol zinegotziak aurka bozkatu zuten, eta ohartarazi zuten *“bidaia horren gastuak ordezkariak berak ordaindu beharko litzukeela, bere poltsikotik, baina egundo ez Udalak”*⁵⁷⁹.

1931ko irailaren 22an, guztira 427 alkate eta udal ordezkari joan ziren Madrilerara, behin-behineko Gobernuko lehendakari Niceto Alcalá-Zamoraren eskutan uzteko onetsitako Estatutuaren testua. Hura bazter geratu zen hiru egun geroago, Konstituzioaren aurkakotzat jo baitzen Alcalá-Zamorak berak aurkeztutako zuzenketa baten ondorioz, Vatikanorekiko harremanek Estatuaren eskuetan behar zutela argudiatuta. Dena dela, Juan Pablo Fusik nabarmentzen du erlijio auzia ez zela izan Lizarrako Estatutuak porrot egiteko arrazoi bakarra; gehiago ere baziren, halan zelan euskal indar politikoen aho bateko sostengurik ez izatea. Beste alde batetik, Alcalá Zamorak berak euskal alkateei egindako adierazpenen arabera, Errepublikako Gobernuaren ikuspegian kontu bik baldintzapetuko zuten autonomien auzia: etorkizuneko Konstituzioak emango zion tratamendua edo, bestela, Donostiako Itunean hartutako konpromisoa izatea, Kataluniako kasuan bez. Gogoratu behar da, ordea, EAJ ez zela izan Donostian 1930eko abuztuan egindako bileran⁵⁸⁰.

Bestalde, aipatu behar da Estatutuaren testua idatzi zenean ez zegoela Euskal Estatutua prestatzeko eta onesteko prozesua arautuko zuen araudirik. 1931ko abenduaren 8an argitaratu zen Indalecio Prietok erredaktaturiko dekretu bat, euskal estatutua mamitzeko eta onesteko prozeduraren araudia ezartzen zuena. Modu horretan, konponbidea ematen zitzaion horren gaineko arautegirik ezak zekarren arazoari. Dekretuaren arabera, Euskal Diputazioen Batzorde Kudeatzaileei zegokien testua egitea eta, horren ondorioz, EAJri kendu zitzaion ordura arte kudeaketa autonomikoan izan zuen protagonismoa. Beste alde batetik, dekretuak moldatzen zituen Estatutua onesteko eman beharreko pausuak: hasteko, probintzia bakoitzeko udalen batzarrek erabaki behar zuten lau probintzietarako Estatutu bakarra gura zuten ala ez, edo bakoitzak berea egingo zuen. Eredua Estatutu bakarra izanez gero, Euskadiko eta Nafarroako udalek, batera oraingoan, batzar bat egin behar zuten, eta horren ostean erreferenduma egin lau probintzien lurraldean. Azkenik, Parlamentuak onetsi behar zuen testua⁵⁸¹.

579 Ibid.

580 FUSI, 82-84 or.

581 Ibid., 80-90 or.

EAJk, ekimen estatutarioaren kontrola galdu eta probintzietako Batzorde Kudeatzaileen esku uzten zen arren, dekretua onartu zuen. Abenduaren 9an erakutsi ahal izan zuten jeltzaleek beren borondate ona, erregimen errepublikanoa onartu baitzuten, Alcalá-Zamorari botoa emanda Errepublikako lehen lehendakari izan zedin. Zenbait egun geroago, Alkateen Batzarrak ere bat egin zuen borondate horrekin, Prietoren dekretua onartu zuen, eta gainera lankidetzatza eskaini zien Batzorde Kudeatzaileei⁵⁸².

1932ko urtarrilaren 31n, Euskadiko eta Nafarroako udalak batzar berezietan bildu ziren, bakoitza bere hiriburuan. Egun batzuk lehenago, urtarrilaren 25ean, Sopelako Udaltzaren Elías Aguirregoitia zinegotzia izendatu zuen probintziako batzarrerako ordezkari, *“batzarrean bozka dezan Euskadiko eta Nafarroako lau probintzietarako Estatutu bakarraren proposamenaren alde”*⁵⁸³.

Probintzietako lau batzarren emaitza Euskadi eta Nafarroarako Estatutu bakarraren aldekoa izan zen, aho batez, eta egun berean dei egin zitzaion Estatutu berria idazteko batzordeari. Behin betiko testua, hau da, Batzorde Kudeatzaileen Estatutua martxoaren 21ean entregatu zen eta, Lizarrako testuaren aldean, bazeukan berritasunik: kendua zen Euskal Herriaren eta Vatikanoren arteko harremanen puntu gatazkatsua. Estatutuaren testu berriak apirilean jaso zuen Alkateen Batzordearen eta Batzorde Kudeatzaileen onespena⁵⁸⁴. Hurrengo urratsa izan zen maiatzaren 22an *“Euskadiko eta Nafarroako udalen baterako batzarren”* deialdia egitea, Iruñeko Gayarre antzokian. Sopelako Udalak, oraingoan, aho batez hautatu zuen Antonio Arechavaleta alkatea bilkura hartara joateko ordezkari⁵⁸⁵.

Batzarra ekainaren 19a atzeratu behar izan zuten, Nafarroako Diputazioko Batzorde Kudeatzaileak bertan behera utzi baitzuten deialdia, probintzia horretako *“zenbait sektore politikotan” “desorientazioa”* zelako nagusi. Desorientazio hori Estatutuaren proiektuarekiko gaitzespen gero eta handiagoan gauzatu zen, karlisten eta ezkerrekoen aldetik. Berba baterako, Iruñeko Udalak Estatutuaren kontrako botoa eman zuen ekainaren 17an. Panorama hori izanik, erraz aurreikus zitekeen Nafarroako udalek zer bozkatuko zuten ekainaren 19an⁵⁸⁶.

Eta halaxe izan zen: Nafarroako 247 udaletatik 123k, hau da, gehiengoak aurkako boza eman zioten Estatutuari. Emaitza hori probintziaren beraren ezaugarri politikoen ondorio izan zen: karlismoak indar ikaragarria zuen, harenak baitziren botoen % 60; nazionalismoak, aldiz, indar txikia zuen Nafarroan eta, halandaze, euskaltzaletasuna ahul zebilen. Horregatik, edozein proiektu politiko mamitu gura izanez gero, gehiengo tradizionalistaren babesa izatea ezinbestekoa zen, 1931n Lizarrako Estatutuarekin jazo zen lez; izan ere, garai hartan karlistek eta jeltzaleek osatu zuten blokearen sostengua lortu baitzen. Egia esan, Juan Pablo Fusik azaldu duenez, itun hori hauskorregia zen, jarrera bi ideologikoen erlijio auzia

582 Ibid., 90. or.

583 SUA, 1929-1932ko Osoko Bilkuren Akta Liburua, 1932-01-25eko Bilkura Arrunta.

584 FUSI, 90-92 or.

585 SUA, 1929-1932ko Osoko Bilkuren Akta Liburua, 1932-05-09ko Bilkura Arrunta.

586 GRANJA, 111. or.; eta FUSI, 92-93 or.

baino ez zutelako partekatzen, baina, lehen aipatu dugunez, tradizionalisten eta nazionalisten xede politikoak ez zetozen bat. Karlismoaren xede politikoa erregimen errepublikanoa suntsitzea zen; eta EAJ, ostera, indarreko legeak onartzeko prest zegoen, euskal autonomia lortzearen. Aipatu behar da 1931ko udazkenerako lehen desadostasunak sortu zirela indar bien artean, eta 1932ko ekainean udal nafarrek Estatutuari uko egin ziotenean apurtu zen tradizionalisten eta EAJren arteko aliantza hori⁵⁸⁷.

Euskadiko udalek babes berebizikoa eman zioten Batzorde Kudeatzaileen Estatutuari, baina Nafarroakoen arbuioaren ondorioz ez zen erreferendumik egin; proiektu estatutarioa geldirik geratu zen uda osoan, harik eta, 1932ko irailean, Indalecio Prietok ostera ere bere gain hartu zuen arte. Prietok proposatuta, Gobernuak Donostia aukeratu zuen Kataluniako Estatutuaren sinaduraren agertoki izateko. Hautu horrek asmo politiko bikoitza zuen: alde batetik, hiriak bazuen kutsu sinbolikoa, bertan gauzatu baitzen 1930ean indar errepublikazaleen ituna. Beste alde batetik, Errepublikako lehendakaria Estatutu katalanaren sinaduran egongo zela aprobetxatuta, itzuli bat antolatu zioten euskal lurraldeetan zehar, argi utzita Gobernu Euskadiri autonomia emateko prest zegoela, eta Kataluniarako onetsitako testuaren ildo nagusiei jarraitu behar ziela, hau da, xehea eta zehatza izan behar zuela. Alcalá-Zamorak asmo onak adierazi zituen arren, liskar latzak izan ziren Euskadin nazionalisten eta errepublikano-sozialisten artean, Bizkaian batez ere, 1932ko urritik hasi eta ia urtebetez, eta prozesua ostera ere geldiarazi zen⁵⁸⁸.

Juan Pablo Fusiren arabera, borroka horien sustraia politikoa zen, izan ere, *“ezkerrak ez baitzuen gura nazionalismoak hegemonizatutako autonomia bat”*. Helburu hori lortzeko, 1932ko urritik aurrera, jeltzaleen aurkako kanpaina abiatu zen, xede garbi batekin: Euskadin errepublikazaletasuna sendotzea, EAJren hazkundera geldiaraztea eta kostaldeko eta barnealdeko herrietan zuen botereari mugak jartzea. Nazionalismoaren jazarpen hori, batik bat, gobernadore zibilen bitartez gauzatu zen. Adibide adierazgarri bat jartzearen, ildo horretatik zihoazen Bizkaiko gobernadore zibil José María Amilibiari hartu zituen lehen neurriak. Urriaren 13an agindu zuen bandera errepublikanoa zabaltzeko udal guztietan, eta desafiotzat hartu zuten hori EAJk kontrolatzen zituen udalengan. Ildo berari jarraikiz, jeltzaleen kontrolpean zeuden Bermeoko eta Mundakako udalak bertan behera utzi zituzten⁵⁸⁹.

Egun horietan, Errepublikako Gobernu lege bat prestatzeko lanetan zebilen, 1931. urtean 29. artikulua arabera aldarrikatutako udalak baliogabetzeko eta, horien ordean, behin-behineko Batzorde Kudeatzaileak ezartzeko harik eta, hauteskunde bidez, demokratikoki aukeratutako udalbatzak eratu arte. Nabarmendu behar da 1907ko Hauteskunde Legearen 29. artikulua hori, 1931ko apirilean udal hauteskundeak egitea eragotzi zuen artikulua hori baliobakotuta zegoela urte bereko maiatzaren 8an Hauteskunde Dekretua argitaratu zenetik⁵⁹⁰.

587 FUSI, 92-95 or.; eta GRANJA, 111. or.

588 GRANJA, 111-112 or.; eta FUSI, 100-101 or.

589 FUSI, 101-103 or.

590 ESPIN, Eduardo: *“Crisis de Gobierno y confianza presidencial en la Segunda República”* in *Revista de Estudios Políticos (Nueva Época)*, 17. zk., 1980ko iraila-urria, 87-115 or. (aipamena: 89. or.).

Estatuko Gobernuaren asmoen aurrean, EAJren Bizkai Buru Batzarrak bilkura batean batu zituen probintziako uri buru batzarrak, urriaren 9an, tartean izanik Sopelako ordezkari nazionalista bat, baita Urduliz, Barrika edo Berangokoak ere. Bilkurak larri-larritzat eta bidegabetzat jo zuen Errepublikako Gobernuaren asmoa, nazionalisten ustez 29. artikulua arabera eraturako Udalak *“herriaren borondatearen adierazgarri zirelako, zalantza barik”*; izan ere, eratu zirenean ez baitzen oposiorik izan *“udalerrietako iritziaren beste ezein sektoreen aldetik”*. Gobernua prestatzen ari zen legeak estatu mailako aplikazioa izan behar bazuen ere, abertzaleek lortutako udal boterearen aurkako erasotzat hartu zuten. Alde horretatik, jeltzaleen kezka nagusietako bat zen ea benetakoa izango ote zen udal batzorde kudeatzaileen behin-behinekotasuna, beldur baitziren Foru Aldundietan jazotakoa ez ote zen udaletan errepikatuko, batzorde kudeatzaileen esku baitzeuden Bigarren Errepublika etorri zenetik. Egoera horretan, EAJren uri buru batzarren bilkurak erabaki zuen eraginpeko udalbatzetara helaraztea protesta, baldin eta Errepublikako Gobernuak abiarazitako prozesuak aurrera jarraitzen bazuen, sor zitezkeen udal batzorde kudeatzaile horiek *“erakunde antieuskaldun eta antidemokratikotzat”*⁵⁹¹ hartuta.

Estatuko Gobernuak aurrera egin zuen 29. artikulua arabera eraturako udalak desegiteko ideiarekin. Ez dugu izan Sopelako Udalak horregatik protestarik egin izanaren berri, Urdulizkoak ez legez; izan ere, Urdulizen 1932ko azaroaren 6an egin zuten protesta⁵⁹². Sopelako udalbatzan egun horietan proposatu zena protesta akordio bat izan zen, Mundakako eta Bermeko Udaletako kargugabetzeengatik. Andrés Ercoreca zinegotzi nazionalistak egin zuen proposamena, eta zinegotzi jeltzaleen babesla lortu zuen, baina ez Arechavaleta alkatearena, ezta Trifol zinegotziarena ere; horien bien esanetan, *“ez zuten auzi horretan parte hartuko eta ez zuten bat egingo (...) kargugabetzeak zergatik jazo ziren ez zekitelako”*⁵⁹³.

Azkenean, 1933ko urtarrilaren 6ko Legearen bitartez xedatu zen 29. artikulua horren arabera hautatutako zinegotziak kargugabetu egingo zirela eta Batzorde Kudeatzaile bat eratu zela horien ordeiz. Urtarrilaren 25ean, Bizkaiko gobernadore zibilak, Zirkular baten bitartez, urtarrilaren 6ko Legean xedatutakoa bete zedin agindu zuen. Aginduari jarraikiz, Sopelan, zinegotziak kargugabetu egin ziren eta hilaren 19an Batzorde Kudeatzaile bat ezarri zen gobernadore zibilak izendatutako hiru kide hauekin: Concordia Moral maistra, funtzionario moduan; Avelino Garay, zergadun moduan; eta Pedro Luis Terrones, behargin moduan. Garayk ez zuen izendapena onartu, eta uko egin zion, *“atzera bota ezin den erabakia”* izanik. Egoera ikusita, Gobernadore zibilari egin zioten kontsulta telefonoz, eta hark adierazi zuenez, *“uko egin duenari jakinarazi behar zaio kargua onartzen ez badu, nahiz eta une batez baino ez izan”*, *“gobernuak zigorra”* ezarriko ziola. Ohartarazpena

591 *Euzkadi* 1932-10-11.

592 *Euzkadi* 1932-11-08.

593 SUA, 1929-1932ko Osoko Bilkuren Akta Liburua, 1932-11-07ko *Bilkura Arrunta*.

gorabehera, Garayk uko egin zion izendapena onartzeari, “*baita akta sinatzeari ere*”, eta idatziz aurkeztu zuen uko egiteko idazkia⁵⁹⁴. Ez dakigu Avelino Garayk aurkeztutako testuak zer zioen, baina ziur aski bere ideologia abertzaleak zeresan handia izango zuen karguari uko egiteko garaian. Bestalde, ez dugu jakin jarrera horrek ezelango ondorioz ekarri ote zion.

Gorabeherak gorabehera, udalbatza berria eratu zen, Concordia Moral buru zuela; aipatzeko moduko datua da lehen aldia zela Sopelako Udalean emakume bat zena buru. Garayk uko egin zionez, kudeatzailearen postua hutsik geratu zen, eta Udal Batzordeak zozketa bidez bete zuen otsailaren 4an; Remigio Esesumaga Elorduy izan zen izendatua, eta hil horren 7an jabetu zen karguaz⁵⁹⁵; halandaze, Batzorde Kudeatzailearen behin betiko osaera honako hau izan zen:

58. TAULA: SOPELAKO UDALEKO BATZORDE KUDEATZAILEA (1933KO URTARRILA-MAIATZA)			
Kargua	Izen-deiturak	Izendapenaren kontzeptua	Lanbidea
Lehendakaria	Concordia Moral Varga	Funtzionarioa	Maistra
Kudeatzailea	Pedro Luis Terrones Basterrechea	Behargina	Jornalaria
Kudeatzailea	Remigio Esesumaga Elorduy	Zergaduna	Zurgina

Udal hauteskunde partzialak apirilaren 23an egin ziren, azkenean, eta emakumeek lehen aldiz baliatu ahal izan zuten botoa emateko eskubidea. Badakigu, gainera, Sopelako emakume ikuskatzaile bi lanetan aritu zirela hauteskunde horietan: Constancia Diez Aguirregoitia eta Antonia Egusquiza Arechavaleta, biak ala biak ideologia abertzalekoak⁵⁹⁶.

Hurrengo taulan ikus dezakegunez, EAJk gehiengo osoa eskuratu zuen Udalean, 6 zinegotzi lortu baitzuen, eta errepublikanoek, ostera, 3. Jeltzaleek garaipena lortu zuten Ugeragako sekzioan (2. *sekzioa*) ateratako emaitzei esker; izan ere, Moreagako sekzioan (1. *sekzioa*) hautagaitza nazionalistak eta errepublikanoak (*demokratak*) babes oso parekatua lortu baitzuten. Parte hartzeari dagokionez, oso handia izan zen, sekzio bi horietan hautesleen % 80 inguruk parte hartu baitzuten. Abstentzioari dagokionez, Moreagan % 20 inguru izan zen, eta Ugeragan % 16 baino apur bat handiagoa.

594 SUA, 1932-1934ko Osoko Bilkuren Akta Liburua, *Batzorde Kudeatzailearen eratze akta* 1933-01-29.

595 SUA, 1932-1934ko Osoko Bilkuren Akta Liburua, *Remigio Esesumaga kudeatzailearen kargu hartze akta* 1933-02-07.

596 BFAH, SOPELA 0062/020, *Sopelako Udalak izapidetutako espedientea, 1933. urteko zinegotzien hautaketari buruzkoa*.

59. TAULA: PARTEHARTZEA UDAL HAUTESKUNDEETAN (1933-04-23)⁵⁹⁷

	Moreaga sekzioa	Ugeraga sekzioa	Guztira
Hautesle kop.	359	332	691
Boto emaile kop.	289	277	566
Abstentzio kop.	70	55	125

Zinegotzi berriek maiatzaren 10ean hartu zuten kargua, eta Udalbatza honela geratu zen eratuta:

60. TAULA: SOPELAKO UDALBATZA 1933 MAIATZA - 1934 IRAILA⁵⁹⁸

Kargua	Izen-deiturak	Filiazio politikoa (honen arabera: Euzkadi 1933-04-25)	Filiazio politikoa (1933ko abendua)	Lanbidea	Botoak moreaga sektzioan	Botoak ugeraga sektzioan	Guztira Lortutako botoak
Alkatea	Constantino Zurbano Bilbao	Euskal nazionalista	Euskal nazionalista	Itsasgizona	144	167	311
1. alkateordea	Jesús Marcaida Maurica	Euskal nazionalista	Euskal nazionalista	Nekazaria	143	167	310
2. alkateordea	Pedro Saitua Urrutia	Euskal nazionalista	Euskal nazionalista	Hargina	142	166	308
Sindikoa	Francisco Ondiz Zabala	Euskal nazionalista	Independentea	Nekazaria	141	167	308
Zinegotzia	Silverio Areitio Torre	Euskal nazionalista	Euskal nazionalista	Nekazaria	141	164	305
Zinegotzia	José Ángel Larrazabal Zalvidea	Euskal nazionalista	Euskal nazionalista	Ebanista	140	165	305
Zinegotzia	Francisco Galbarriartu Sarria	Sozialista	Errepublikano ezkerzalea	Enplegatua	147	112	259
Zinegotzia	Ciriaco Echaiz Expósito	Sozialista	Errepublikano ezkerzalea	Nekazaria	142	113	255
Zinegotzia	Julián Gorostola Uribe	Errepublikanoa (Nazionalista ohia)	Errepublikano ezkerzalea	Itsasgizona	141	112	253

597 BFAH AR00347/009, 1933ko apirilean Sopolako Udalean izandako udal hauteskundearen espediente orokorra.

598 SUA, 1932-1934ko Osoko Bilkuren Akta Liburua, Udal berriaren Eraketa Akta 1933-05-10. Filiazio politikoak hemen: Euzkadi 1933-04-25, eta BFAH, SOPELA 0042/002, Sopolako Udalak igorritako korrespondentzia, 1933, Sopolako alkateak Bizkaiko gobernadore zibilarri igorritako ofizioa, 1933-12-30. Lanbideak honako honen arabera: Sopolako Hauteskunde Errolda 1932.

Ordezkaritza barik geratu ziren hiru hautagai errepublikanoei dagokienez, Santiago Ostolozaga Bilbao horien artean sartu izana nabarmendu behar da; izan ere, *Euzkadi* berripaperaren arabera, “*zinegotzi monarkikoa izan baitzen Diktadura garaian*”. Eta egia bazen ere Ostolozaga zinegotzi izan zela garai hartan, zehaztu behar da denbora oso laburrez bete zuela kargua, 1930eko urtarrilaren 16an izendatu eta urte bereko otsailaren amaiera aldera kargugabetu baitzuten, Udaltza berria eratu zenean. Hori baino lehen, 1922ko udal hauteskundeetan zinegotzi hautatua izan zen, eta udalbatzako gainerako kideekin batera kargugabetu zuten 1923ko irailean, Primo de Riveraren estatu kolpearen ondoren.

Gerora izandako ibilbide politikoan argi ikusten da Ostolozaga eskumako ideologiatik gertu zebilela. Horrela, bada, 1934ko irailaren 12an gobernadore zibila udal batzorde kudeatzailearen (ez zen lanean hasi ere egin) zinegotzi izendatu zuen, hauteskundeetan herriak hautatutako Udalak Ardoaren Estatuaren gatazkaren ondorioz dimisioa aurkeztu ostean (aurrerago aztertuko dugu gai hori). Hipotesi hori berreste aldera, Diktadura frankistaren garai bete-betean ere izan zen zinegotzi Ostolozaga, zehazki, 1939ko urtarrilaren hasieran.

61. TAULA: ORDEZKARITZARIK LORTU EZ ZUTEN HAUTAGAIEK JASOTAKO BOTOAK⁵⁹⁹

Izen-deiturak	Hautagaitza	Filiazio politikoa (honen arabera: Euzkadi 1933-04-25)	Lanbidea	Botoak moreaga sekzioan	Botoak ugeraga sekzioan	Guztira Lortutako botoak
Fidel Legarra Bengoechea	Errepublikanoa	Independentea	Itsasgizona	141	111	252
Santiago Ostolozaga Bilbao	Errepublikanoa	Zinegotzi monarkikoa Diktadura garaian	Itsasgizona	142	110	252
José María Barrenechea Echevarria	Errepublikanoa	EAE/ANV	Enplegatua	140	109	249

Gehiengo nazionalistaren eta gutxiengo errepublikanoaren arteko desadostasunak izan ziren nagusi Udaltzaren hasierako hilabeteetan. Desadostasun horiek aurrerago aztertuko ditugu, Sopelan errepublika garaian izandako gatazka politiko eta sozialei buruzko kapituluari. Hala ere, beharrezkoa iruditu zaigu zinegotzi jeltzaleek 1933ko maiatzaren 13an aurkeztu zuten mozioa hemen aipatzea, lotura estua zuelako aztertzen ari ginen estatuaren gaiarekin.

599 BFAH, SOPELA 0062/017, *Zinegotzi izateko hautagaien aldarrikatze akta*, 1933-04-16; eta BFAH, ARO0347/009, *1933ko apirilean Sopelako Udalean izandako udal hauteskundearen espediente orokorra*. *Euzkadi* 1933-04-25.

Zinegotzi nazionalistek aurkeztutako proposamenean, 1839ko urriaren 25eko Legeari buruz EAJK zuen aldarrikapen klasiko bat jarri zen osterera ere mahai gainean, “*Errepublikako botereei*” eskatzen zitzaizenez lege hori bidegabe deklaratzeko. Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiko Batzorde Kudeatzailea desegitea eta alkateen batzorde batek ordezkatzeari ere eskatzen zuten, harik eta “*herri bozketak*” egin arte. Mozioa aurrera atera zen gehiengo nazionalistari esker, eta hiru zinegotzi errepublikanoek aurkako botoa eman zuten⁶⁰⁰.

Apur bat lehenago, 1933ko apirilean, Batzorde Kudeatzaileek aginduta Estatutua prestatzeko ardura zuen batzordeak konponbidea aurkitu zion Nafarroako udalek 1932ko ekainean Estatututik aparte gelditzeko hartutako erabakiak sortutako egoerari. Batzordearen proposamenak bide bat asmatu zuen Nafarroak euskal autonomiarekin bat egin ahal izateko etorkizunean horrela erabakiz gero. Proposamen hori aplikatu ahal izateko, 1931ko abenduaren 8ko Dekretua aldatu behar izan zen⁶⁰¹.

Maiatzaren erdialdean, Bilboko Udalak hil hasieran Autonomia Estatutuari buruz hartutako erabakiaren berri izan zuen Sopelako Udalbatzak. Akordio horren terminoak aho batez onartu zituzten sopoloztar udal ordezkariak, eta Bizkaiko Aldundiaren Batzorde Kudeatzaileari honako hau eskatu zioten:

*“Autonomia Estatutua probintzia honetako udalek lehenbailehen onar zezaten (...), eta, udalek onartu ostean, data bat zehaztea, hurrengo uztailaren 30a baino lehen, gobernuaren 1931ko abenduaren 8ko Dekretuan aurreikusitako erreferenduma egiteko”*⁶⁰².

Bilboko Udalak, halaber, “*Nafarroa Estatutuan sartzeko*” egiten ari ziren gestioen berri ere eman zuen, eta adierazi zuen “*Nafarroak lau probintzia senideen Estatutu komun batera biltzeko duen borondatearen ekarpena*” lor zedin gura zuela. Sopelako Udalbatzak erabat babestu zuen borondate hori, eta Bilboko zinegotziek azaldutako argudioak onartu zituen: Nafarroak Estatutuaren parte izan behar zuen, borondate hori adierazi baitzuten euskal udal gehienek 1932ko ekainaren 19an Iruñean egindako bilkuran; eta, bestalde, adierazi zen “*funtsezkoa zela Euskal Herrirako euskal herritar guztiak Estatutu bakar batean batzea*”⁶⁰³.

Azkenik, abuztuaren 6an, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako udalek batzarra egin zuten Gasteizen, eta Constantino Zurbano alkatea bertaratu zuen Sopelako Udalbatzaren ordezkari. Bileran Estatutuaren proiektua eztabaidatu eta bozkatu zen, eta udalen babes argia eskuratu zuen. Hala ere, bozketa probintziaren arabera aztertzen badugu, ikusiko dugu Arabako udalen herenak kontrako botoa eman zutela⁶⁰⁴.

600 SUA, 1932-1934ko Akta Liburua, 1933-05-13ko *Bilkura Arrunta*.

601 FUSI, 109-110 or.

602 SUA, 1932-1934ko Akta Liburua, 1933-05-20ko *Bilkura Arrunta*.

603 *Ibid.*

604 SUA, 1932-1934ko Akta Liburua, 1933-07-22ko *Bilkura Arrunta*; eta *Euzkadi* 1933-08-08.

1933ko irailean, Azañaren Gobernuak dimisioa eman zuen eta, horren ondorioz, sozialista eta errepublikanoek beren karguak utzi zituzten Euskal Herriko aldundietako batzorde kudeatzaileetan, eta Alderdi Erradikalaren ordezkarien esku geratu ziren. Autonomiaren auziari jarrera guztiz positiboarekin ekin zioten kudeatzaile berriek, eta ziztu bizian abiatu ziren erreferenduma prestatzera. Azaroaren 5erako egin zen deialdia. Data hori aukeratu zen, hain zuzen, Gorteetarako hauteskundeak baino lehentxeago, EAJren guraria zelako; Martínez Barriosen Gobernuak egin zion men EAJren gura horri, euskal nazionalistek eta Alderdi Erradikalak 1933ko udazkenetik 1934ko udaberrira bitarte bizi izan zuten barealdiaren barruan. Aurrerago ikusiko dugunez, erradikalek estatutuaren proiektuaren alde egite horrek bazuen arrazoirik⁶⁰⁵.

Nabarmendu behar da 1933ko azaroaren 5 hura izan zela emakumeek hiru euskal probintzietan, oro har, botoa eman ahal izan zuten lehen aldia. Erreferendumean, hiru lurraldeetako boto guztien % 84 baiezkoa izan zen. Hala ere, Bizkaian eta Gipuzkoan, hautesleen % 98k bozkatu zuten Estatutuaren alde, parte hartzea % 90 izanik. Zentzu horretan, Granja Sainzek dioenez, ehuneko handi horiek lortzea *“ezinezkoa zen iruzurrezko prozeduren laguntza barik”*. Araban, aldiz, oso bestelakoak izan ziren emaitzak: aldeko botoa eman zuten hautesleen % 46,5ek, ehuneko hori abstentzioen (% 41,5) eta kontrako botoen (% 12) batura baino handiagoa izanik. Aipatu behar da karlistek sustatu zutelako izan zela abstentzioa hain handia, karlistak probintziako lehenengo indarra zirenez⁶⁰⁶.

Erreferendumak Sopelan eta inguruan (61. taula) izan zituen emaitzak bildu ditugu; guztira, sei udalerritako emaitzak aurkeztuko ditugu. Oro har, Bizkaiko probintziarako adierazi ditugun batez bestekoaren inguruko zenbatekoak dira, hau da, parte hartzea oso handia, eta aldeko botoak nagusi; zenbait herritan, zenbatutako botoen % 100 ere izan ziren aldekoak, halan zelan Sopelan, Urdulizen eta Berangon. Abstentzioa txiki-txikia izan zen herri horietan, Plentzian izan ezik: hautesleen ia % 24k ez zuen bozketan parte hartu, eta ez dakigu jokabide horren arrazoa zein izan ote zen. Hala ere, kostaldeko herri horretan ere baiezko botoak izan ziren nagusi, alboko herrietan legez.

605 GRANJA, 113. or.; eta FUSI, 113. or.

606 GRANJA, 113-114 or.

62. TAULA: EUSKAL ESTATUTUAREN GAINKO ERREFERENDUMAREN EMAITZAK (1933-11-05)⁶⁰⁷

Udalerrria	Hautesle kop.	Emandako boto kop.	Aldekoak	Aurkakoak	Zuriak	Baliogabeak	Abstentzioa
Barrika	479	470 (% 97,70)	468 (% 99,57)	2	0	0	9
Berango	746	723 (% 96,91)	723 (% 100)	0	0	0	23
Getxo	9318	9242 (% 98,44)	9173 (% 99,25)	55	8	6	76
Plentzia	1438	1105 (% 76,84)	1077 (% 97,46)	19	9	0	333
Sopela	700	688 (% 98,28)	688 (% 100)	0	0	0	12
Urduliz	541	528 (% 97,59)	528 (% 100)	0	0	0	13

Gorago aipatu dugunez, Alderdi Erradikalak Estatutuaren gainko erreferendumari eman zion erabateko sostenguak Alejandro Lerroux-en alderdiaren interes politikoak ezkutatzen zituen. Erradikalak ez zeuden batere erroturik Euskadin, eta bazekiten ez zutela ordezkari bakar bat aterako euskal probintzietan azaroaren 19ko hauteskunde orokorretan. Halandaze, ez zuten nahikoa indar etsai nagusiari aurre egiteko: sozialisten eta errepublikanoen blokeari. Zentzu horretan, Alderdi Erradikala jabetzen zen EAJK soilik egin ziezaiokeela aurre ezkertiarren blokeari; horra, halandaze, Martínez Barrioren Gobernuak zergatik arindu zuen euskal autonomia prozesua, Estatutuaren gainko erreferendumaren arrakastak nazionalistek abantaila emango zielakoan hauteskunderi begira eta, hain zuzen ere, “Estatutuaren hautagai zerrenda”⁶⁰⁸ gisa aurkeztu zuen bere burua EAJK.

607 Emaitzak hemendik atera ditugu: https://www.euskadi.eus/web01-a2haukon/es/contenidos/informacion/w_em_ref_result_mun_viz_1933/eu_def/index.shtml

608 GRANJA, 142. or.

Aipatu behar da egoera politikoa aldatu zela 1931ko ekainean izandako Gorteetarako hauteskundeetatik. Garai hartan, bloke bi ziren nagusi. 1932an nazionalisten eta karlisten arteko hausturaren ondorioz, euskal hauteskunde esparrua hiru korrontetan zatitu zen: ezkerra, oso banatuta Bizkaian izan ezik, bloke errepublikano-sozialistari eutsi ziotelako; EAJ, politikoki zentroan; eta eskumen koalizioa, monarkiko eta tradizionalisten bilgune. 1931ko hauteskundeetan lez, erlijio auzia eta autonomia auzia izan ziren gai nagusi biak. Bai eskumako indarrak, bai nazionalismoa lehian zebiltzan katoliko independenteen botoak nor bereganatuko. Hautesle horiek erakarri guran, EAJ estu-estu lotu zitzaion erlijioari, xede horretan *La Gaceta del Norte*⁶⁰⁹ egunkari katolikoaren laguntza izanik.

Euskal nazionalisten estrategia emankorra izan zen, Bigarren Errepublikaren garaiko garaipenik handiena eskuratu baitzuten: 12 diputatu, guztira, eurretatik sei Bizkaian. Karlista eta monarkikoen blokeak ere emaitza onak izan zituen: 10 diputatu, gehienak Nafarroan. Azkenik, ezkerrek izan zuen porrotik handiena, diputatu bi baino ez zituenez lortu, Bilbon: Manuel Azaña eta Indalecio Prieto. Ezkerreko indarren porrota orokorra izan zen estatu osoan, eguneko garaile nagusien aldean: Lerrouxen Alderdi Erradikala, eta eskumakoen eta katolikoen arteko CEDA koalizioa, José M.^a Gil Robles buru; zentrokoa bata, eskumakoa bestea⁶¹⁰.

Sopelan, (63. eta 64. taulak) hautesleen ia % 75ek parte hartu zuten, eta EAJk jaso zituen boto gehien, probintzia osoko dinamikari jarraikiz. Errepublikano-sozialisten koalizioa izan zen hautesleen bigarren aukera, eta eskumakoen blokea hirugarren postuan geratu zen. Geure ikuspegia zabaldu eta Sopela inguruko herrietara begiratzuz gero (65. taula), ikusiko dugu nazionalisten garaipena erabatekoa eta argia izan zela herri guztietan. Hala ere, errepublikano eta sozialisten blokea ez zen herri guztietan geratu bigarren, eskumako indarrak iritsi baitziren postu horretara Getxon eta Plentzian, eta Berangon, aldiz, sei botoko aldea izan zuten ezkerrekoekin.

609 Ibid., 177-178 or.

610 Ibid., 178. or.

63. TAULA: GORTEETAKO DIPUTATUEN HAUTESKUNDEEN EMAITZA. SOPELA (1933-11-19)⁶¹¹			
Hautagaiak	Moreaga sekzioa	Ugeraga sekzioa	Guztira
José Horn Areilza (EAJ)	176	163	339
Manuel Robles Aranguiz (EAJ)	176	162	338
Ramón Vicuña Epalza (EAJ)	176	162	338
Juan Antonio Careaga Andueza (EAJ)	176	162	338
Manuel Azaña Díaz (errepublikanoa)	67	67	134
Marcelino Domingo Sanjuán (errepublikanoa)	67	67	134
Indalecio Prieto Tuero (PSOE)	65	67	132
Julián Zugazagoitia Mendieta (PSOE)	65	67	132
M ^o del Pilar Careaga Basabe (Renovación Española)	26	19	45
Luis Lezama-Leguizamon Zuazola (tradizionalista)	26	19	45
Adolfo Glez. Careaga Urquijo (monarkiko independentea)	26	19	45
Hermogenes Rojo Barona (tradizionalista)	26	19	45
Zuriak	2	0	2

64. TAULA: HAUTESKUNDEETAKO PARTE HARTZEA (1933-11-19)⁶¹²			
	Moreaga sekzioa	Ugeraga sekzioa	Guztira
Hautesle kop.	364	336	700
Boto emaile kop.	271	249	520
Abstentzio kop.	93 (% 25,54)	87 (% 25,89)	180 (% 25,71)

611 BFAH, AJ02077/002, *Sopela udalerrian 1933ko azaroaren 19ko Gorteetako Diputatuen Hauteskunderi buruzko espediente*.

612 Ibid.

**65. TAULA: 1933-11-19KO HAUTESKUNDEETAKO EMAITZAK
SOPELA INGURUAN⁶¹³**

Udalerrria	José Horn (EAJ)	Indalecio Prieto (PSOE)	M.ª Pilar Careaga (Renovación Esp.)	Facundo Perezagua (PCE)
Barrika	298	33	7	0
Berango	307	131	125	0
Gorliz	179	66	15	0
Getxo	4275	1474	1701	88
Laukiz	219	7	0	0
Plentzia	740	97	230	5
Sopela	339	132	45	0
Urduliz	369	47	25	0

2.1.3. Heriotza, arrakastaren ondorio: estatutu prozesuaren porrota

Euskal Estatutuaren gaineko Erreferendumaren arrakasta itzalpean geratu zen bozkatutako testua 1933ko abenduaren 21ean Gorteetan aurkeztu ostean. Hurrengo egunean, José Luis de Oriol arabar diputatu tradizionalistak Arabako hainbat udalek sinatutako idazki bat aurkeztu zuen, probintziako gehiengoaren ordezkariak beren gain hartuta. Idazkian, Araba estatutuaren testutik kanpo uztea eskatzen zuten udal horiek, plebiszitan probintzia horretan izandako parte hartzearen zenbatekoetan oinarrituta; izan ere, 56.056 hautesleko erroldatik 32.710 hauteslek eman zuten botoa, abstentzioa, halandaze, % 40 izanik. Bestalde, baiezko botoak ez zuten % 50a gainditu⁶¹⁴.

Legebiltzarrean egindako hurrengo urratsa Estatutuen Batzordea eratzea izan zen, 1934ko urtarrilaren 9an; 21 kidek osatu zuten, Jose Antonio Agirre jeltzalea izanik idazkari. Biziki baikorra izaki, Agirre sinetsita zegoen Oriolen jarrera ez zela aurrera aterako, baina CEDA, Renovación Española eta Partido Agrario alderdiek beren egin zuten Oriolen proposamena. Gainera, bai sozialistek bai Alderdi Erradikalak beharrezkotzat jo zuten arabarrek atzera ere beren iritzia agertzea, beste erreferendum batean⁶¹⁵.

613 https://www.euskadi.eus/web01-a2haukon/eu/contenidos/informacion/w_em_result_mun_cap_viz_1933/eu_def/index.shtml

614 GRANJA, 115. or., eta: https://www.euskadi.eus/web01-a2haukon/eu/contenidos/informacion/w_em_ref_result_circunsp_1933/eu_def/index.shtml

615 FUSI, 116-117 or.

Hasieran, mahai gainean zebilen eztabaida zen ea Arabak “*benetan gura ote zuen euskal erkidego autonomo bateko kide izan*”, baina, José Luis de la Granjak dioenez, legebiltzarreko eztabaidan, funtsean, “*Estatutuaren alde edo kontra egitea* zen kontua. Zentzu horretan, hiru jarrera bereiz daitezke, argi eta garbi, legebiltzarrean ordezkari zuten alderdi politikoaren artean. Alde batetik, Euskal Herriko eta Kataluniako abertzaleak, zenbait errepublikanorekin batera, autonomiazaleak ziren, argi eta garbi. Beste alde batetik, tradizionalistak eskuma monarkiko eta katolikoekin batera, euskal estatutuaren aurkakoak ziren. Azkenik, PSOE eta errepublikano gehienak autonomien alde agertu ziren, baina epe⁶¹⁶.

Gorteetan eztabaida bi egin ziren Arabako arazoaren gainean. Urtarrilaren 27an eta 28an izan zen lehena, eta CEDAko diputatu batek proposamen bat aurkeztu zuen Araba behin betikoz Estatututik kanpora gera zedin. Proposamen hori bozkatu eta atzera bota zuten, ozta-ozta: 136 diputatu aurka eta 125 alde. Bigarren eztabaida apirilaren 5ean izan zen, Araban osterara ere bozketa egitearen aurka EAJK emandako boto partikular baten ondorioz. Diputatu jeltzaleen gurariak bazter geratu ziren, eta aurrera egin zuen erradikal eta sozialisten ideiak, arabarrei itauntzeko estatutu proiektuan jarraitu gura ote zuten. Juan Pablo Fusiren berbetan, azken erabakiak berarekin zekarren *sine die* atzeratzea Estatutuaren onespena, eta hori porrot itzela izan zen euskal nazionalistentzat⁶¹⁷.

Euskal estatutua onesteko prozesuak legebiltzarrean izan zuen bidea ikusita, EAJK egiaztatu zuen ezinezkoa izango zela euskal autonomia bat ezartzea, zentro-eskumako gehiengoa zuen parlamentu batean, ezta Lerrouxen Alderdi Erradikalaren laguntza izanik ere. Alderdi horrekin 1933ko azken hiruhilekoan izandako harreman ona gaiztotzen hasi zen, eta behin betiko haustura 1934ko udan etorri zen⁶¹⁸. Aurrerago ikusiko dugunez, Ogasun Ministerioa lantzen ari zen lege proiektu baten berri izan zuen iritzi publikoak, zeinaren bitartez Euskadiko udalei debekatuko zitzairen ardoaren gaineko zerga zuzenean jasotzea. Euskadiko probintzietako udalen diru iturri nagusia zen zerga hori; horregatik, udalen mugimendu bat sortu zen, Gobernuaren asmoaren kontrakoa, eta “*Ardoaren Estatutua*” esan zaion gatazkari eman zitzaion hasiera.

Sopelako Udalari dagokionez, 1934an berrikuntza hauek izan ziren: otsailaren 28an, Francisco Ondiz zinegotzi-sindikoak dimisioa aurkeztu zuen Udalbatzako kideei zuzendutako idazki batean; testuan zioen ezin izan zuela osoko bilkuretara joan “*gaixorik zegoelako*”. Ondizen gaitzak ez zuen “*ezelango hobekuntzarik*” izan eta, halandaze, ez zegoen kargua betetzeko moduan. Gobernu taldeko kideek bazekiten “*haren osasun egoera delikatu zela denbora batetik hona*” eta, halandaze, aho batez onartu zuten dimisioa martxoaren 3an; gobernadore zibilar jakinarazi zioten udalbatzaren erabaki hori⁶¹⁹.

616 GRANJA, 115. or.

617 FUSI, 117. or.

618 GRANJA, 115-116 or.

619 BFAH, SOPELA 0037/001, Jasotako korrespondentzia, Francisco Ondiz Zabalak aurkeztutako idazkia, 1934-02-28, eta SUA, 1932-1934ko Akta Liburua, 1934-03-03ko Bilkura Arrunta.

Bestalde, Constantino Zurbano alkatearen osasuna ere ez zegoen egoerarik onenean. Martxoaren 17an, alkateak “*ondoezik*” zegoela jakinarazi zien korporazioko kideei eta, horregatik, “*erregimen oso zorrotz bati jarraitu behar ziola aste biz edo gehiagoz*” eta ohean egon behar zuela ezinbestean. Hori zela eta, osoko bilkurari baimena eskatu zion “*zortzi egunez baino gehiagoz kargua uzteko, osasun egoera delikatua behar lez zaintzeko*”. Logikoaenez, Udaltzako aho batez onartu zuen Zurbanoren eskaera, eta “*haren osasun preziatua lehenbailehen osatzea opa zioten*”. Alkatea eriondo egon zen bitartean, Jesús Marcaida lehen alkateordea jardun zen alkate lanetan⁶²⁰. Zurbano alkatearen absentsia hori aurreikusitakoa baino askoz luzeagoa izan zen, Akta Liburuan ikus daitekeenez, uztailaren 28ra arte ez baitzen osterara ere osoko bilkura bateko buru izan; edozelan ere, badirudi osterara ere atseden hartu beharrean izan zela.

2.1.4. Ardoaren Estatutuaren gatazka eta horren ondorioak

1934ko udaberrian, Companys buru zuen Kataluniako *Generalitat*aren eta Samperren Estatuko Gobernuaren arteko harremanetan tentsio handiko uneak bizitzen ari ziren. *Generalitat*ak laborantza kontratuei buruzko Legea onetsi zuen, eta testu berriak aukera ematen zien *rabasaire* edo mahastizain partzuerrei lantzen zituzten mahastien jabetza eskuratzeko. 1934ko ekainean, Konstituzio Bermeen Epaitegiak lege hori ezeztatu zuen eta EAJK, Esquerra Republicana de Catalunyaarekiko elkartasuna adierazteko, Gorteetatik alde egin zuen ekainaren 12an⁶²¹.

Gorago aipatu dugunez, egun horietan, estatuko gobernua lege proiektu bat prestatzen ari zen, Euskadiko foru aldundiei eta udalei debekatu gura baitzieten “*ekoizpen nazionalako ardoen sarrerari, zirkulazioari, ikuskapenari eta kontsumoari ezein zerga edo ariel ezartzea*”. Debeku hori aplikatzen hasteak zekartzan ondorio ekonomikoak ez ziren positiboak, ezelan ere, euskal udaletarako. Sopelako Udalean ere egiaztatu zuten ardo arruntaren gaineko arielengatik jasotako diru kopurua diru sarreraren guztizko aurrekontuaren % 60 zela. Halandaze, “*Ardoaren Estatutua*” deitu zitzaion lege horren balizko ezarpenak “*errekara bidaltzen zituen Euskal Herriko toki ogasunak*”. Sopelako Udalaren arabera, egoera bertsuan egongo ziren “*Jaurerriko gainerako udalerrak ere, (...) diru sarrera nagusi baita ariel hori udalerrri guztietan*”. Ardoaren gaineko udal zerga hori “*antzinako garaietatik*” aplikatzen zen, eta zergadunek hobekien onartzen zutena zen. Ariel hori ezabatzearen ondorioak arinduko zituzten ordezkiko diru sarrerak bilatzea nekeza zen, ardoari aplikatutako zergarekin lortzen zen adina diru ezin izango baitzen beste ezelan bildu⁶²².

Euskal Udalek lege berriari buruz egiten zuten diagnostikoa oso argia zen: Kontzertu Ekonomikoaren kontrako eraso zuzena zen. 1933ko urriaz geroztik Alderdi Erradikalaren eskutan zeuden Batzorde Kudeatzaileek bat egiten zuten udalen ikuspegi horrekin, eta ekainaren 12an Donostian egin zuten bilkuran argi

620 SUA, 1932-1934ko Akta Liburua, 1934-03-17ko Bilkura Arrunta.

621 GRANJA, 250. or.

622 SUA, 1932-1934ko Akta Liburua, 1934-07-02ko Bilkura Arrunta.

laga zuten legearen aplikazioak Kontzertuei egiten ziela eraso, argi eta garbi. Batzorde Kudeatzaile horietaz gain, beste hainbat erakundetan ere egin zituzten bilkurak Ardoaren Estatutuari buruz eztabaidatzeko: ekainaren 25ean Hemezortzien Batzordea bildu zen⁶²³; hilaren 27an gauza bera egin zuen Bilboko Udalak⁶²⁴, eta Euskal Udalen batzarraren deialdia egin zuen uztailaren 5erako, bertako Udaletxean. Sopolako Udalbatzak Francisco Galbarriartu zinegotzi errepublikanoa⁶²⁵ bidali zuen ordezkari.

Bilboko Udaletxean egindako euskal udalen Batzar horretan, aldundiak gobernatzen zituzten Batzorde Kudeatzaileen dimisioa eskatzea erabaki zen, batzordekideak ez zirelako hauteskundeetan hautatu; aitzitik, Gobernuak izendatu zituen. Bestalde, Kontzertu Ekonomikoa defendatzeko Udalen Bitarteko Batzorde bat izendatu ere egin zen. Batzorde Kudeatzaileen dimisio eskaerari dagokionean, Gobernuko lehendakari Samperrek onartu zuen udalek moralki arrazoia zutela, Errepublikako hiru urtetan ez zelako probintziako hauteskunderik egin, Konstituzioaren 10. artikuluan horrela ezarri arren. Udalen Bitarteko Batzorde horren sorrerak ezer gutxi zuen legez kanpokotik, izaera ekonomiko-administratiboa zuelako, ez politikoa⁶²⁶.

Udalen Bitarteko Batzordea uztailaren 29an bildu zen, eta erabaki abuztuaren 12rako zeharkako hauteskundeak egitea Behin betiko Batzordeko kideak izendatzeko. Gobernadore zibilaren erantzuna atoanakoa izan zen eta, abuztuaren 1ean, debekua ezarri zien udalei hauteskunde horiek egiteko, baita mehatxatu ere erantzukizunak eskatuko zituela agindua urratuz gero. Juan Pablo Fusik azaltzen duenez, Gobernu zentralak ez zuen asmatu, euskal udalek deitutako hauteskundeak oker baloratu baitzituen, hau da, ez ziren ohiko hauteskundeak, baizik eta zinegotziei baino ez zegozkien, xede izanik Udalen Behin betiko Batzordea izendatzea. Hortaz, bozketa hura indarreko tokiko legeari atxikitako eskubide bat zen. Alabaina, Samperren gobernuak bestela hartu zuen auzia, udalak beren eskumen eremua gairiditzen ari izango balira lez, alegia. Estatuko gobernuak uste horretan tematuta, *“ezin izan zuen atzera egin”*⁶²⁷.

Sopolako Udalak abuztuaren 4an erabaki zuen Bitarteko Batzordeak abuztuaren 12rako proposatutako bozketa egitea, eta egun horretan goizeko 9etarako finkatu zuten hitzordua zinegotziek. Udal idazkariak Udalbatzari ohartarazi zion egintza legez kanpokoa zela gobernadore zibil jaunak agindutako debekuaren ondorioz, baina udalbatzak tinko eutsi zion asmoari. Abuztuaren 10ean, bozketa baino egun bi lehenago, gobernadore zibilak ostera ere gogorarazi zien Bizkaiko zinegotziei

623 Hemezortzien Batzordea Gasteizen eratu zen, eta helburu zuen 1933ko urriaren 15erako aurreikusitako Autonomia Estatutuari buruzko herri erreferenduma gainbegiratzea eta koordinatzea; Azañaren Gobernuak dimisioa eman zuen, ordea, 1933ko irailean, eta horrek eragin zuen erreferenduma ez egitea aipatutako egunean. Ezkerrak erabateko gehiengoa zuen Batzorde horretan (FUSI AIZPURUA, 110-111 or.)

624 FUSI AIZPURUA, 122. or.

625 SUA, 1932-1934ko Akta Liburua, 1934-07-02ko Bilkura Arrunta.

626 FUSI AIZPURUA, 122-123 or.

627 Ibid., 124-125 or.

hauteskundeak legez kanpokoak zirela, eta hauteskundeak egiteak izan zitzakeen ondorio judizialen berri eman zien. Hala ere, Sopolako Udalak bozketari eusteko konpromisoa berretsi zuen⁶²⁸.

Hilaren 12an, Sopolako Udalak hauteskundeak egin zituen, eta udal idazkariak ostera ere ohartarazi zien egin gura zen *“egintza legez kanpoko”* zela⁶²⁹. Sopolako alkatea ere agertu zen botoa ematera, gaixorik egon arren, eta jaso zuten horren berri *Euzkadi* berripaperean:

“En Sopolana.

El alcalde, enfermo, se levanta y va al Ayuntamiento.

*Un gesto digno de ser consignado. El alcalde de esta Anteiglesia está retirado en su casa por hallarse enfermo. Pero tiene en más la salud de su pueblo que la suya propia y acude al Ayuntamiento. El desenlace, ¿qué importa?. Por encima de todo queda este rasgo que dice mucho en pro de la entereza y el entusiasmo ejemplar de nuestros alcaldes bizkainos”*⁶³⁰.

Beste zenbait Udaletan ezin izan zuten bozketa egin, amore eman zutelako edo indar publikoek eragotzi zitelako. Berba baterako, Barrikako Udaletxean, *“zinegotziak bildurik zeudela, Bilkuren aretoan guardia zibil bikote bat agertu zen atetik, fusilak aurpegi parera eroan, eta guardietariko batek arropa artean miatu zituen zinegotziak”*. Zinegotzietariko batek adierazi zuen egoera hori ez zuela ezerk justifikatzen, eurek asteko bilera arrunta egiteko baino ez zirelako batzartu eta, orduan, udalbatzarekin jarraitu zuten guardia bien zaintzapean. Alkateak jakinarazi zuenean bilkura bereziaren txanda zetorrela Bitarteko Batzordearen eskaera betetzeko, guardiek eraikina hutsarazi zuten orduan. Udaletxea giltzaz zarratu zuten eta maisuaren eskutan utzi, eraikin berean bizi baitzen, giltza Udalbatzako inori emateko debekuekin; udalerriko epaileari bakar-bakarrik⁶³¹.

Gobernadore zibilak ohartarazitako ondorioetako bat izan zen Bizkaiko hainbat alkate atoa hartu zituztela atxilo, tartean Sopolako lehen zinegotzia, eta Auzitegi eskudunen esku utzi zituzten; egun hartan bertan hartu zieten deklarazioa⁶³².

Constantino Zurbano zinegotzia desobedientzia delitu bategatik auzipetu zuten eta, abuztuaren 27an, Bilboko Instrukzioko 3 zenbakiko epaileak alkate kargutik kendu zuen. Gobernadore zibilak Sopolako Udalarari jakinarazi zionez, Jesús Marcaida lehen alkateordeari zegokion, legez, Alkatezta bere gain hartzeko betebeharra. Hala ere, irailaren 1eko osoko bilkuran, Marcaidak uko egin zion karguari, *“ezin zuelako ezelan ere onartu”*. Idazkariak lehen alkateordeari ohartarazi zion, indarreko legearen arabera, izendapena nahitaez onartu behar zuela, *“bestela, erantzukizunpean geratuko zela horrela egiten ez bazuen, gobernadore zibilari*

628 SUA, 1932-1934ko Osoko Bilkuren Akta Liburua, 1934-08-04ko eta 1932-08-11ko *Bilkura Arruntak*.

629 SUA, 1932-1934ko Osoko Bilkuren Akta Liburua, 1934-08-12ko *Ezohiko Bilkura*.

630 *Euzkadi* 1934-08-14.

631 *El Liberal* 1934-08-14; eta *Euzkadi* 1934-08-15.

632 *Euzkadi* 1934-08-14; eta *El Liberal* 1934-08-14.

horren berri eman behar ziolako eta atsekabe handia izateko arriskuan zegoelako". Idazkariak ohartarazi zion arren, Marcaidak tinko eutsi zion ezezkoari, eta osoko bilkura amaitutzat jo behar izan zen, ez zegoenez buru izango zen inor. Zinegotziek, gainera, uko egin zioten akta sinatzeari⁶³³.

Irailaren 2an, Euskal Herriko eta Kataluniako parlamentarien batzarra egin zen Zumarragan, Indalecio Prietok buru egiten zuela, euskal udalei elkartasuna adierazteko. Bilerak alderdi sinbolikoa izan zuen, mahai berean jesarri zirelako Prieto sozialista eta EAJko diputatuak, baina, horretaz aparte, ez zuen garrantzi politikorik izan, ez zelako ezelango erabakirik hartu. Zumarragako ekitaldian ez zen gorabeherarik izan. Aitzitik, Gernikan piztu ziren istiluak, EAJk parlamentari katalanei antolatu zien omenaldian. Gobernadore zibilaren aginduak betez, poliziak ekitaldia eten zuen, eta horrek ika-mika latzak ekarri zituen diputatu eta polizien artean, erasoak eta irainak ere eginez elkarri. Poliziaren jokabide horrek ekarritako polemika areagotu egin zen prentsan hurrengo egunetan, adierazpen gogor-gogorrek gurutzatu baitziren gobernadorearen eta José Antonio Aguirre eta Manuel de Irujo diputatu nazionalisten artean⁶³⁴.

Abuztuaren 12ko zeharkako hauteskundeak izan zirenetik jazotakoak ikusita, euskal udalek irailaren 7tik aurrera guztiak batera dimititzeko erabakia hartu zuten. Sopelan, zinegotziek egun hartako arratsaldeko zortzietan egindako bilkuran eman zuten dimisioa, eta "22 orduak eta 40 minutu" zirenean entregatu zizkioten Udaleko idazkariari dimisioaren idazkiak. *Euzkadi* berripaperean argitaratutakoaren arabera, zinegotzien erabaki hori "pozarren hartu zuten herritarrek"⁶³⁵.

Hurrengo egunean, xedatutakoari jarraikiz, osoko bilkura arrunta egin behar zen Udaletxean, baina ez zen zinegotzi bat bera ere azaldu, logikoa denez. Ez bertaratzearen arrazoiak zeintzuk ziren jakin arren, idazkariak bilkura subsidiario baterako deialdia egin zion zinegotziei hilaren 10erako, baina bilkura horretara ere ez ziren joan; idazkaria "ordubetez baino gehiagoz" egon ei zen Osoko Bilkuren Aretoan zain. Horixe jakinarazi zion gobernadore zibilari irailaren 12an⁶³⁶, eta egun horretan izendatu zuen probintziako agintaritzak Batzorde Kudeatzailea, herritar hauek bitarteko zinegotzi izendatuta:

633 SUA, 1932-1934ko Osoko Bilkuren Akta Liburua, 1934-09-01eko *Bilkura Arrunta*.

634 FUSI, 128-129 or.; eta GRANJA, 252-252 or.

635 *Euzkadi* 1934-09-08; eta BFAH, SOPELA 0042/003, Igorritako korrespondentzia, 1934; *Udaleko idazkariak gobernadore zibilari igorritako ofizioa* 1934-09-08.

636 BFAH, SOPELA 0042/003, Igorritako korrespondentzia, 1934; *Udaleko idazkariak zinegotziei igorritako ofizioak*, 1934-09-08; eta *Gobernadore zibilak izendatutako bitarteko zinegotziei Udaleko idazkariak igorritako ofizioa*, 1934-09-12.

66. TAULA: BATZORDE KUDEATZAILEKO BITARTEKO ZINEGOTZIAK (1934-09-12)⁶³⁷

Agustín Artaza Barroetabeña
Juan de la Quintana Basauri
Julián Iragüen Arrarte
Cirilo Ansoleaga Argaluz
Santiago Ostolozaga Bilbao
Ignacio Eguisquiza Goya

Proposatutako sei izenen artean, udal politikan aspaldiko ezagun bat zegoen: Agustín Artaza, 1904tik 1920ra bitarte Sopolako Udaleko zinegotzi izandakoa, eta 1912an herriko *Batzorde Kontserbadorearen* lehendakariorde ere izan zena. Bestalde, Santiago Ostolozaga 1922an aukeratu zuten zinegotzi, eta karguan jarraitu zuen 1923ko irailean Udala desegin zen arte. Geroago, 1930eko urtarillaren erdialdean, zinegotzi izendatu zuten, baina oso denbora gutxi eman zuten udaletxean, otsailaren amaieran desegin baitzen. Ordura arteko ibilbide politikoa 1933ko apirilko tokiko hauteskundeetan amaitzen zen, errepublikanoen hautagai izan baitzen, baina ez zen hautatua izan. Ignacio Eguisquizen iragan politikoari dagokionez, 1930eko otsailaren amaieran zinegotzi izendatu zuten, baina uko egin zion karguari.

Sei zinegotzi berriak hilaren 14an deitu zituzten Udaletxera, eguerdiko hamabietan, baina pixka bat lehenago, Pascual Zalvidea idazkariak izendatu berrien uko egiteko idazkiak jaso zituen. Udaleko idazkariak arren erregutu zien dimisio egileei udaletxera ager zitezen, eta “*atoan bertaratu dira*”. Zalvideak uko ez egiteko eta karguak onartzeko eskatu zien, baina sei herritarrek erantzun zuten “*ezin zutela horrelakorik egin, beren idazkietan azaldutako arrazoiengatik*”. Ez dakigu zein izan ziren arrazoi horiek, gutun horien kopiarik ez baita gorde Udal Artxiboan⁶³⁸.

Euzkadi berripaperean zehatz-mehatz aztertu zituzten Bizkaiko udalerrri bakoitzean zinegotzi nazionalisten eta errepublikanoen dimisioaren ondoren bizi izan ziren egoerak, eta elementu komun bat aipatu zuten kasu guztietan: elementu monarkikoen parte hartzea kudeatzaile berriak antolatzeke garaian edo horietan karguak betetzeko garaian. Sopolaren kasuan, kronista anonimo batek Primo de Riveraren diktaduraldian kargudun izan ziren herritar bi aipatu zituen, izenik eman barik: Jose de la Quintana Vía, 1923-1926 aldian alkate izandakoa, eta Isidoro Zamacona, 1926-1930 aldian zinegotzi izandakoa eta 1930eko martxoan sortutako Sopolako *Kontsumoko Kooperatiba Elkarte*ko presidentea; aurrerago egingo dugu berba elkarte horri buruz. *Uno cualquiera* delako batek sinatutako artikuluan adierazten zenez, bata zein bestea “*armak eta jakintzak hartuta pasatu*

637 BFAH, SOPELA 0042/003, Igorritako korrespondentzia, 1934; *Gobernadore zibilak izendatutako bitarteko zinegotzietan Udaleko idazkariak igorritako ofizioak*, 1934-09-13.

638 BFAH, SOPELA 0042/003, Igorritako korrespondentzia, 1934; Udaleko idazkariak gobernadore zibilari igorritako ofizioa, 1934-09-14.

ziren” errepublikanoen aldera erregimen hori ezarri zenean. Quintanari buruz zioen “ezkertiarren aldeko protesta ugari egin behar izan zituela”, hainbestearino, ezen herriko errepublikanoek Sopelako Zentro Demokratiko bihurtu baitzuten haren etxea. Zamaconari dagokionez, honako hau adierazi zen: “Marxen doktrinak predikatzen zituen, bere erara, noski, milioidun izateko hautagai den aldetik, eta hori zorigaitza izan zen sozialistentzat, haren entzule orok izena ematen baitzuen... beste alderdiren batean”. Azken horrek, ikusiko dugun lez, lotura izan lezake Zamaconak kooperatiba horretako presidente gisa bete zuen eginkizunarekin. Amaitzeko, berripaper jeltzalearen idazkiaren arabera, Quintana eta Zamacona elkarren aurkako pertsona bi ziren, udalbatza demokratikoaren dimisioaren ondoren bat egin zutenak “hainbeste malko botarazi dien beren monarkiaren alde lan egiteko”⁶³⁹.

Sopelako Udala zinegotzi eta alkate barik egon zen irailaren 14tik azaroaren 7ra arte. Tarte horretan, idazkariak sinatu zituen Udalak igorritako jakinarazpen guztiak. Udalbatzen egoera berez korapilatsua baldin bazen, urriaren 5eko goizaldean Urriko Iraultza piztu zen; aurrerago helduko diogu gai horri, Sopelan errepublikaren garaian izandako gatazka politiko-sozialei buruzko kapituluan. Zalantza barik, gertaera iraultzaileek atzeratu egin zuten Sopelako Udalaz arduratuko zen Batzorde Kudeatzaile berri baten eraketa. Esan lez, azaroaren 7ra arte ez zuen kargua hartu gobernadore zibilak izendatutako udaleko gobernu talde berriak; hauek izan ziren kideak:

67. TAULA: SOPELAKO BATZORDE KUDEATZAILEA (1934-11-07)⁶⁴⁰

Kargua	Izen-deiturak	Lanbidea
Alkatea	Juan de Dios Uriarte Uriaguereca	Itsasgizona
1. alkateordea	Donato Basauri Alboniga	Nekazaria
2. alkateordea	Alejo Egusquiza Bilbao	Merkataria
Prokuradore sindikoa	Gabino Duñabeitia Bilbao	Nekazaria
Zinegotzia	Julián Iragüen Arrarte	Jornalaria
Zinegotzia	León Bajabar Zabala	Nekazaria
Zinegotzia	Juan de la Quintana Basauri	Merkataria
Zinegotzia	Isidoro Zamacona Charroalde	Mekanikaria

Ikus dezakegunez, udalbatza berrian irailean proposatutako sopoloztar bi zeuden: Julian Iragüen eta Juan de la Quintana, azken hori José de la Quintana alkate ohiaren semea. Bestalde, 1926tik 1930era bitarte, Primo de Riveraren diktadura garaian zinegotzi izandako Isidoro Zamacona zinegotzi izan zen ostera ere. Handik hilabete bi eskasera, 1935eko urtarrilaren hasieran, udalbatzaren osaera aldatu egin zen; izan ere, Juan de la Quintanak dimisioa aurkeztu zuen zinegotzi kargutik, adierazi zuenez ezinezkoa zitzaiolako kargua betetzea, baina

639 *Euzkadi* 1934-09-23.

640 SUA, 1932-1934ko Osoko Bilkuren Akta Liburua, *Udal honetako bitarteko zinegotzien kargu hartzearen eta Batzorde Kudeatzailearen eraketaren akta*, 1934-11-07.

ez dakigu zein arrazoi argudiatu zituen uko egitea justifikatzeko⁶⁴¹. Litekeena da beharrarekin lotutako arrazoiengatik utzi izana, baina susmoa dugu Juan de la Quintanaren eta Udaltzako gainerako kideen arteko harremana okertu zela, Isidoro Zamaconak 1934ko azaroaren amaieran aurkeztu zuen proposamenaren ondorioz; izan ere, Ur Zerbitzuko diru biltzaile zen Avelino Garay Amechazurra, eta Urriko Iraultzaren ondoren atxilotu zuten, diru biltzaile kargutik kentzeko proposamena aurkeztu zuen. Bigarren Errepublikaren garaian Sopelan izandako gatazkak aztertzean ikusiko dugunez, Quintana izan zen Zamaconaren ekimenaren aurka agertu zen eta aurka bozkatu zuen zinegotzi bakarra, bidegabea eta legez kanpokoa zela adierazita. Eta egia da legez kanpokoa zela, udal idazkariak berretsi zuenez, ez baitzizaion zegokion espediente ireki eraginpekoari⁶⁴².

1934ko irailaren hasieran dimisioa eman zuten Udaltzako demokratikoko zinegotzietan dagokienez, urte bereko abenduaren 3an hiru urte, lau hilabete eta egun bateko desgaitasuna ezarri zitzaion zigor modura, funtzio publikoak bertan behera uzteko delitua egotzita. Zinegotzi sopoloztarrei ezarritako zigorra auzipetutako gainerako zinegotzietan ezarri zitzaion berbera izan zen⁶⁴³.

1934ko azaroaren amaieratik 1939ko urrira bitarteko Akta Libururik ez dagoenez, ezin dugu zehatz-mehatz jakin Udalak zer jardura izan zuen, baina gordetako dokumentazioa –berezi 1934ko azarotik 1936ko urtarrilera bitarte igorritako eta jasotako gutunak– kontuan hartuta, badirudi Udala administrazio zereginari lotu zitzaioela.

2.1.5. 1936ko otsaileko Gorteetarako hauteskundeak eta horien ondoriozkoak

1936ko otsailaren 16an, errepublika garaiko Gorteetarako hauteskundeak egin ziren hirugarren eta azken aldiz, eta hauteskunde horien emaitzek, ikusiko dugunez, eragina izan zuten euskal udaletxeetan. Ezkerreko indar nagusien koalizio zen Fronte Popularrak jaso zituen boto gehien Estatu osoan. Euskal lurraldeetan, EAJk boto asko galdu zituen 1933ko azaroan izandako hauteskunde orokorrekin alderatuta; guztira 9 diputatu atera zituen: 5 Bizkaian eta 4 Gipuzkoan. Eskumen blokeak diputatu 1 lortu zuen Araban, eta Nafarroan 7. Azkenik, Fronte Popularrak lau diputatu lortu zituen Bizkaian, 2 Gipuzkoan eta 1 Araban. José Luis de la Granjaren arabera, Euskadik ezaugarri bereziak izan zituen Estatuarekin alderatuta: alde batetik, zentro politikoak bizirik iraun zuen Euskal Herrian EAJren eskutik; eta, bestetik, ezkerreko alderdien batura izan zen “sektorerik ahulena” euskal esparru politikoa osatzen zuten hiru blokeen artean⁶⁴⁴. Euskal esparru geografikoan izandako babes jaitiera horren azalpena da eskumako indarrek eta

641 BFAH, SOPELA 0042/004, Igorritako korrespondentzia, 1935; *Sopelako alkateak Bizkaiko Gobernadore Zibilarik helarazitako ofizioa*, 1935-01-08.

642 SUA, 1932-1934ko Akta Liburua, 1934-11-24ko *Bilkura Arrunta*.

643 *El Liberal* 1934-12-04 eta *La Gaceta del Norte* 1934-12-04.

644 GRANJA SAINZ, José Luis de la: “Cinco años de República en Euskadi” in *Historia Contemporánea*, 1. zk., 1988, 95-108 or.; aipua: 107. or.

beren hedabideek nazionalismoaren aurkako kanpaina egiten zutela etengabe; izan ere, ezkertiarrekin bat zetorrela leporatzen zioten eta, bide batez, EAJren nortasun ezaugarrietako bat zalantzan jartzen zuten: alderdiaren katolizismo errotua.

Sopelako hauteskundeetako emaitzei dagokienez (68., 69. eta 70. taulak), alderdi bozkatuena EAJ izan zen, Euskal Herri osoan lez, baina 1933ko azaroko hauteskundeekin alderatuta botoak galdu zituen herrian. Adibidez, José Horn jeltzaleak 339 boto izan zituen 1933an, eta 1936an, ostera, 270 boto, hau da, 69 boto gutxiago. Ezkerreko indarren taldeak ez zituen emaitza txarrak atera Elizatean, babes berriak gehitu zitzaizkion aldetik. Horrela, Indalecio Prietok 196 boto lortu zituen, eta 1933an, ordea, 132; alegia, 64 boto emaille gehiago izan zituen. Azkenik, eskumen blokeak ere gora egin zuen boto kopuruan: 1933an *Renovación Española*ko hautagai M.^a Pilar Careagak 44 boto lortu zituen, eta 1936an, alderdi bereko ordezkari zen José María de Areilzak 77 boto eskuratu zituen, hau da, 33 boto gehiago. Halandaze, badirudi hautesle sopeloztar gutxi batzuegan eragina izan zuela estatu mailako eskumako indarren kanpaina antinazionalistak, baina ez dugu ahaztu behar estatuko eskumako indarrek erabilitako balizko hertsapenek ere eragina izan zezaketela segmentu horretan. Bestalde, ez litzateke burugabekeria izango pentsatzea herriko beste boto emaille batzuek herrian zegoen polarizazioan oinarrituta erabaki zutela nori eman botoa, eta azkenean ezkerreko hautagaitzaren alde egin zutela.

**68. TAULA: GORTEETARAKO HAUTESKUNDEEN EMAITZAK.
SOPELA (1936-02-16)⁶⁴⁵**

Hautagaiak	Moreaga sekzioa	Ugeraga sekzioa	Guztira
José Horn Areilza (EAJ)	133	137	270
Manuel Robles Aranguiz (EAJ)	133	137	270
Francisco Arregui Fernández (EAJ)	132	137	269
José M. ^a Izaurieta Echevarria (EAJ)	132	137	269
Indalecio Prieto Tuero (Fronte Popularra - FP)	99	97	196
Mariano Ruiz Funes (FP)	99	97	196
Julián Zugazagoitia Mendieta (FP)	99	97	196
Leandro Carro Hernández (FP)	99	95	194
Jose M. ^a Areilza Martínez Rodas (Eskumak)	47	30	77
José María Juaristi Landaída (Eskumak)	47	30	77
Joaquín Adán Satué (Eskumak)	46	30	76
Miguel Golaracena Goya (Eskumak)	46	30	76

645 SUA, signaturarik bako kutxa, espedientea: *Gorteetarako diputatuen hautaketa*, 1936-02-16.

69. TAULA: GORTEETARAKO HAUTESKUNDEETAN IZANDAKO PARTE HARTZEA. SOPELA (1936-02-16)⁶⁴⁶

Hautagaiak	Moreaga sekzioa	Ugeraga sekzioa	Guztira
Hautesle kop.	399	341	740
Boto emaile kop.	278	266	544
Abstentzio kop.	121 (% 30,32)	75 (% 21,99)	196 (% 26,48)

70. TAULA: 1933KO ETA 1936KO GORTEETARAKO HAUTESKUNDEEN KONPARAZIOA. SOPELA

Hautagaiak	Filiazioa	Boto kopurua 1933	Boto kopurua 1936	Botoen alde
José Horn Areilza	Nazionalista	339	270	-69
Indalecio Prieto Tuero	Sozialista	132	196	+64
M. ^a Pilar Careaga Basabe (1933)	Eskumak	45		+32
José María Areilza Martínez Rodas	Eskumak		77	

Sopelako hauteskundeetako emaitzak eta inguruko herrietakoak konparatuz gero (71. taula), ikusiko dugu herri gehienetan joera berdina izan zutela: EAJk boto jaitziera nabarmena izan zuen, eta Fronte Popularrak eta Eskumen Blokeak, ostera, babes handiagoa lortu zuten. Ezkerrak botoak galdu zituen Getxon eta Laukizen, eta Urdulizen, aldiz, 1933an adina boto jaso zituen. Gorlizen ez zen errepikatu nazionalismoaren beheranzko joera, 1933an baino boto gehiago lortu baitzituen.

71. TAULA: 1936-02-16KO HAUTESKUNDEETAKO EMAITZAK SOPELA INGURUAN⁶⁴⁷

Udalerrria	Horn (EAJ) (1933)	Horn (EAJ) (1936)	Prieto (PSOE) (1933)	Prieto (PSOE) (1936)	M. ^a Pilar Careaga (Renovación Esp.) (1933)	José M. ^a Areilza (Renovación Esp.) (1936)
Barrika	298	230	33	45	7	50
Berango	307	210	131	147	125	177
Gorliz	179	335	66	112	15	110
Getxo	4275	3316	1474	1906	1701	2091
Laukiz	219	157	7	3	0	78
Plentzia	740	598	97	115	230	341
Sopela	339	270	132	196	45	77
Urduliz	369	309	47	47	25	67

646 Ibid.

647 <https://www.euskadi.eus/informazioa/bigarren-errepublikako-emaitzak-1936ko-hauteskundeak-vizcaya-hiriburua-udalerriak/web01-a2haukon/eu/>

Lehen esan dugunez, Fronte Popularraren garaipena laster nabaritu zen euskal udaletan. Otsailaren 21ean, Azañaren Gobernuak amnistia eman zien “*delitu politiko eta sozialengatik zigortuta eta auzipetuta daudenei*”, neurri hori “*epai irmo bidez kondenatutako Euskadiko udaletako zinegotziei*” ere aplikatzen zitzaie la zehaztuta. Horrek esan gura zuen herriak hautatutako zinegotziak karguaz ostera ere jabetuko zirela, eta 1934ko udazkenetik udaletan buru ziren Batzordeak kargugabetzen zirela. Hilaren 22ko amnistiaren dekretua prentsan argitaratu ostean, hurrengo egunean *Euzkadi* berripaperaren azalean zinegotzien itzulera iragartzen zen, titular honekin: “*Justísima reparación - Hoy vuelven a los Ayuntamientos vascos los concejales populares*”⁶⁴⁸.

1934tik 1939ra bitarteko Osoko bilkuraren Akta Libururik ez dagoenez, ezin dugu jakin Sopolako zinegotziek kargua ostera ere hartu zuten egunean zer jazo zen. Hala ere, badakigu otsailaren 23an hamaiketako bat antolatu zela “*Udaletxera joan ziren herritarrentzat, herriak hautatutako Udalaren berrezarpenagatik*”. Osoko bilkurara bertaratu zirenei eskaini zitzaizen mokadua “*askotariko gaileten lau kaxa, finak*” eta 8 litro ardo zuri⁶⁴⁹ izan ziren. Pentsatzen dugu Sopolako ospakizun ekitaldi bakarra aipatutako hamaiketako hori izan zela. Beste udalerrri handiago batzuetan, zinegotzien berrezarpena modu ikusgarriagoan ospatu zen; berba baterako, Plentzian segizio bat antolatu zen, kargua ostera ere hartuko zuten zinegotziak buru zirela. “*Jende askok*” lagunduta, hiribilduko Geltokiko auzotik segizio bat irten zen Udaletxerantz, Musika Bandarekin eta txistulariekin⁶⁵⁰.

Martxoaren 13an, Gobernuak udal hauteskundeak deitzea erabaki zuen apirilaren 12rako, 1935eko urriaren 31ko Udal Legearen arabera arautu beharrekoak. Lege horren 76. artikuluan xedatutakoaren babespean, alkatea hautatzeko, 50 hauteslek sinatutako eskaera aurkeztu behar zitzaion udal idazkariari “*zinegotzi izateko hautagaien izendapenaren aurreko astean*”. Aurkeztu ondoren, alkateak horren berri eman behar zion Erroldako Udal Batzordeko lehendakariari, hurrengo egunean aurretiazko bozketa egin zedin. Bozketa hori “*proposatu enenak dituzten boto txartelen bitartez*” egingo zen, eta “*hautesleen hamarren bat adina boto lortzen dutenak*” izendatuko dira hautagai. Alkate izateko hautagaiak “*zinegotziak izendatu eta hurrengo domekan*” izendatuko dira⁶⁵¹.

Ez dugu aurkitu Sopolako 50 hauteslek aurkeztutako idazkia, baina badakigu garai hartan lehen zinegotzia zen Constantino Zurbano proposatu zutela alkate izateko aurretiazko bozketarako, eta apirilaren 2an egin zen bozketa hori, Herrialdeko Hauteskunde Batzordeak aginduta⁶⁵².

648 *Euzkadi* 1936-02-22 eta 1936-02-23.

649 BFAH, SOPELA 0024/003, *Sopolako Udalaren 1936. urteko aurrekontuaren kontu orokorra*, Tabernako errematatzaile Tomás Basartek aurkeztutako faktura, 1936-06-12.

650 *Euzkadi* 1936-02-28; eta *El Liberal* 1936-02-28.

651 1935eko azaroaren 3ko BOE, 1935eko urriaren 31ko Udal Legea.

652 *Euzkadi* 1936-04-02.

Zurbanorena izan zen proposamen bakarra eta, agian horregatik, bozketaren egunak ez zuen irrika handirik piztu; izan ere, oso herritar gutxik parte hartu baitzuten:

72. TAULA: SOPELAKO ALKATE IZATEKO AURRETIAZKO BOZKETAREN EMAITZAK, CONSTANTINO ZURBANO (1936-04-02)⁶⁵³			
	Moreaga sekzioa	Ugeraga sekzioa	Guztira
Hautesle kop.	399	341	740
Boto emaile kop.	56	83	139
Abstentzio kop.	343	258	601

Hauteskunde prozesua eten egin zen aurretiazko bozketaren biharamunean, Gobernuak hauteskundeak bertan behera uztea erabaki zuelako, epe berririk ezarri barik. Horren arrazoa, Gorteetan hasitako eztabaida parlamentarioa Konstituzioaren 87. artikuluari buruz, hau da, Errepublikako lehendakariaren eskumenei buruz. Gaiaren garrantzia zela eta, Gobernuari egokia iruditu zitzaion bozketak geroratzea, diputatuek Parlamentuko saioretara huts egin ez zezaten hauteskunde kanpainan parte hartu behar izateagatik⁶⁵⁴.

Autonomiaren auziari dagokionez, Fronte Popularrak otsaileko hauteskundeetan lortutako garaipenak aldi berri bat ekarri zuen ezkerren eta nazionalismoaren arteko harremanean, Euskal Estatutua atakatik atera zuena. EAJ konturatuta zegoen Estatutua ez zela sekula onartuko eskumako gobernu batekin, eta ezkerrengana hurbiltzen hasi zen, Manuel Azaña buru zuen Gobernuaren izendapenaren aldeko bozka emanik. Apirilaren 14an, Francesc Macià-ri Bilbon egindako omenaldian parte hartu zuten Indalecio Prietok eta Jose Antonio Agirrek, Fronte Popularraren eta EAJren ageriko buru ziren aldetik, eta berbaldi bana eman zuten. José Luis de la Granjak nabarmentzen duen legez, buru biak ekitaldi berean egoteak alderdi bien arteko *“entente cordial”*a gauzatu zuen, estatutua izanik izendatzaile komun txikiena. Ez zen kasualitatea izan egun bi beranduago, Estatutuen Batzordea osatu zela Gorteetan, Prieto buru eta Agirre idazkari zituela. Denbora gutxi behar izan zuen Arabako arazoa konpontzeko, ontzat hartu baitzuten 1933ko azaroko erreferenduma, 1934ko lehen sei hilekoan tradizionalistek eta eskumek auzitan jarri ostean. Oraingoan, Prietok eta ezkerrek Estatutuari eman zioten bultzada argia izan zen, onspen azkar baterako baldintza ipinita laburra eta katalanaren ahalik eta antzekoena izan zedila. Puntu bi horiek onartuak izan ziren batzorde parlamentarioan, baita EAJk ere. Euskal Estatutua onspenaren azken fasean zegoen uztailaren 18ko Estatu kolpea jo zutenean; ikusiko dugunez, 1936ko urriaren 1era atzeratu zuten, baina Gerra Zibil bete-betearen garaia zen hori⁶⁵⁵.

653 SUA, zk bako kutxa, *“Alkatearen aurretiazko bozketa 1936”* espedientea.

654 *Euzkadi* 1936-04-04; eta *La Gaceta del Norte* 1936-04-04.

655 GRANJA: *El oasis vasco...*, 119. or.; eta MEES, Ludger: *“Tras el fracaso de Estella: las pautas y las claves del Estatuto de 1936”* in *Iura Vasconiae*, 10. zk., 2013, 461-490 or.

2.2. Ideologiak eta alderdi politikoak Sopelan

Ikusi dugunez, 1933. urtean eta 1936. urtean izandako hauteskunde orokorren emaitzek adierazten dute Sopelako hautesleak hiru korrante politikoetan banatzen zirela: euskal nazionalismoa, indar politiko nagusia eta gehiengo zuena besteen aurretik; errepublikanismoa, hautesleen babes garrantzitsua zuena; eta Estatuko eskuma, babesa urria lortu zuena hautesleen aldetik. Nazionalistek eta errepublikanoek herriko egiturak osatu zituzten; eskuma kontserbadoreak, ostera, ez dirudi herrian antolakunderik ezarri zuenik; ez dugu, bederen, horri buruzko dokumentaziorik aurkitu. Aitzitik, EAE (Eusko Abertzale Ekintza) alderdiak bai lortu zuen egitura Elizatean, baina, ikusiko dugunez, ez dakigu noiz sortu zuten.

Nazionalismoak eta errepublikanismoak Sopelan izan zuten ezarpenari eta garapenari dagokionez, hutsune handiak topatu ditugu kasu bietan, eta gabezia horiek hipotesien bitartez minimizatzen saiatu gara.

2.2.1. Euskal nazionalismoa

Abertzaletasunak Bigarren Errepublika garaian Sopelan izan duen historia berreraikitzeo aurkitu ditugun datuak osatu samarrak dira 1930eko azarotik 1933ko abendura bitarte, baina 1934tik Gerra Zibila hasi zen arte, ordea, hutsune eta gabeziak topatu ditugu, eta ustezko azalpenak planteatu ditugu horiek betetzeko. Gure informazio iturri nagusia *Euzkadi* berripapera izan da, garai hartan EAJren organo ofiziala zen aldetik; eta, hein txikiagoan, Sopelako Udal Artxiboko zenbait dokumentu, Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoan daudenak. Aipatu behar da herriko EAJk errepublikaren garaian sortutako dokumentaziorik ez dugula aurkitu, tropa "*nazionalak*" herrian sartu baino lehen ezkutatu egingo zituzten eta. Izan ere, 1937ko ekainaren amaieran, herriko *F.E.T. y de las J.O.N.S.* falangisten buruak "*Batzoki*" izeneko *lokala konfiskatu zuenean (...)* ez zuen *altzaririk aurkitu, ezta agiririk ere*"⁶⁵⁶. Hala ere, 1937ko azaroko informazio bati esker, badakigu Guardia Zibilak herriko "*Bachoqui* (sic) *delakoaren*" afiliazio fitxak berreskuratu⁶⁵⁷ zituela, baina ez zituzten gorde, antza, edo desagertuta daude. Informazio hori ez izateak esan gura du ez dugula daturik 1930etik 1936ra bitarte afiliazioan izan zen bilakaera zehatz-mehatz ezagutzeko.

Baliatu dugun dokumentazioari buruzko ikuspegi orokorra azaldu ostean, Primo de Riveraren diktaduran nazionalismoak bizi izan zuen egoera gogoratzea komeni da, labur-labur. 1923ko iraileko kolpe militarren ondoren, euskal nazionalismoak ordura arte garatutako jarduera politikoa eten egin zen, eta egoitza gehienak zarratu ere egin zituzten. Diktadura garaian, CNV eta EAJ alderdien jarduera politikoa eten zen eta alderdi biek euskal kultur jardueren sustapenean hartu zuten aterpe.

656 BFAH, SOPELA 0043/004, Igorritako korrespondentzia, 1937ko ekaina-abendua; *Sopelako alkateak Bilboko 4 zenbakidun Kapitain Epaille Bereziari helarazitako ofizioa*, 1937-11-18.

657 SUA, signaturarik bako kutxa 'F.E.T. y de las J.O.N.S.', Eskualdeko Buruzagitzatik jasotako eta erantzundako ofizioak" karpeta, Sopelako tokiko buruak Getariako tokiko buruzagitzari helarazitako ofizioa, 1937ko azaroa.

Egoera horrek alderdi bien arteko tentsio politikoa baretu zuen, ia erabat desagertu baitziren *“eztabaida doktrinalak eta adar bien arteko liskarrak”*, eta aldi horretan alderdi biak elkarrengana gehiago hurbildu ziren; horrela, 1930eko urtarrilean Primo de Riveraren gainbeherarekin, euskal abertzaleek batasuna lortzera bideratu zituzten ahalegin guztiak.

2.2.1.1. Nazionalismoaren berrantolaketa eta lehen urratsak (1930-1931)

Abertzaletasunak hainbeste desiratzen zuen batasuna lortzeko bidea ez zen erraza izan. Bateratzea lortzeko planteamenduetan bazen oztoporik: alde batetik, *aberrianoek* doktrina aranista bere osotasunean mantendu gura zuten. *Comunionisten* barruan, ostera, jarrera kontrajarriak zeuden: batzuek ideologia aranista berrikusi gura zuten, eta besteek batasunera jo, nahiz eta programa *aberrianoa* onartu behar izan, gero, behin alderdia batuta, *“irizpide moderatuagoak aplikatzen”* joango zirelakoan⁶⁵⁸.

1930eko apirilean ekin zioten CNVk eta EAJk negoziazio prozesuari, eta hilabete horren amaieran bertan heldu ziren oinarrizko akordio batera; horren arabera, *aberrianoen* asmoak gailendu ziren, doktrina aranistari eustea erabaki zuten eta. Akordioaren beste puntu bien arabera, batasunaren ondorioz sortutako alderdi berrirako EAJ izena eta 1914ko antolakuntza mantenduko ziren. Hala eta guztiz, negoziazioak ez ziren hor amaitu, beste kontu batzuk baitzeuden mahai gainean, besteak beste prentsa abertzalearen kontrola. Alde horretatik, *aberrianoek* gura zuten prentsa herrialdeko kontseiluen mende egotea, eta *comunionistek*, ordea, pentsa idatzia alderdiaren organo gorenak kontrolatzea, hau da, *Euzkadi Buru Batzarrak*. Ez zen edozelango kontua, zeren, *aberrianoak* Bizkaian nagusi zirenez, beren proposamena aurrera ateratzen bazen eta *Bizkai Buru Batzarrak* lortzen bazuen alderdiaren prentsaren gaineko kontrol doktrinala, alderdia bera mantenduko zen estu-estu ortodoxia aranistaren barruan. Aldiz, EAE/ANVren asmoak nagusitzen baziren eta EBBk prentsaren kontrola eskuratuz gero, eskuratuko zuten boterea alderdiaren barruan, nagusi zirelako Gipuzkoan, Araban eta Nafarroan⁶⁵⁹.

Doktrina aranista berrikustearen aldeko sektore *comunionistak* beste urrats bat egin zuen aurrera, eta *“talde erreformista”* bat eratu zuten. Sektore horrek bazuen zelan asmoak bete, *“Bilboko prentsa abertzalearen zati handi bat”* kontrolatzen zutelako. Horren adibide, 1930eko ekainaren erdialdean, *Euzkadi* berripaperean inkesta bat argitaratu zuten eta, bertan, proposatzen zuten *Hogeien Batzordea* eratzea, 20 kideekin, helburua honako hau izanik: *“Batzar Orokorraren aurretik, nazionalismoaren programa eta antolakuntza berrikustea”*. Urriaren amaieran ponentzia bat onartu zuten abertzaletasuna berritzea helburu, politika pragmatikora hurbiltzeko, besteak beste, akonfesionaltasunaren gaia aintzat hartuta. Ponentzia horiek urriaren 26an aurkeztu zituzten Bizkaian eta Gipuzkoan egindako herrialdeetako batzarretan, eta ez zuten garaipenik izan. Azaroaren 1ean CNVren

658 PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ, 195-197 or.

659 Ibid.

Batzar Orokorrerako deialdia egin zen, eta aurretik bileraren funtzionamendua zuzenduko zuen araudi bat prestatu zuten, ponentzia berritzaile horiek aurkeztea galarazita. Bilkura hartan, CNVk erabaki zuen sabindar doktrina aldatu barik *aberrianoekin* batzea, eta 1930eko azaroaren 16an Bergarako Batzarrean gauzatu zen alderdi bi nazionalisten batasuna. Egun gutxi behar izan zituzten erreformistek erreakzionatzeko, eta, azaroaren 30ean, galtzaile irtendako sektore erreformista banandu egin zen: ANV *Acción Nacionalista Vasca* / EAE *Eusko Abertzale Ekintza* sortu zuten. Alderdi horren printzipioak *San Andresko Manifestuan* jaso ziren; dokumentu horrek *Hogeien Batzordeak*⁶⁶⁰ onartutako ponentzia jasotzen zuen bere osotasunean. Lehen esan dugunez, EAE/ANVk izan zuen antolakunderik Sopelan.

Batasunaren osteko EAJri dagokionez, berrantolaketa izan zen batasunaren osteko lehenengo zeregina; alderdi bietako kargudunek karguak utzi, eta herrialdeetako bitarteko batzordeak izendatu ziren. Euren egiteko nagusia herrialde bakoitzean alderdi berriaren afiliazioa sustatzea zen, 1923a baino lehenagoko Uri Buru Batzarrei dei eginez, herri bakoitzeko jeltzaleen artean afiliazio orriak jasotzeaz arduratzeko⁶⁶¹. *Euzkadi* berripaperaren arabera, Sopelako bitarteko Udal Batzordeko kide hauek izan ziren: Ignacio Oyarzabal, Gabriel Berreteaga eta Florencio Urrengoetxea⁶⁶².

Batzorde horrek “*Sopelako eta inguruko nazionalista guztiak*” deitu zituen azaroaren 23rako, “*JUVENTUD VASCA DE SOPELANA izeneko elkarte bat sortzen saiatzeko*”. Bilkura Larrabasterrako *Bar Santi* tabernan egin zen, herriko jeltzaleen egoitza izan baitzen lokal hori Bigarren Errepublikaren aldi osoan⁶⁶³.

1930eko azaroaren 23 hura egun biribila izan zen, bilkura hori egiteaz gain, beste ekitaldi bi ere izan baitziren. Alde batetik, San Pedro parrokian meza egin zuten goizeko zortzietan Sabino Aranaren heriotzaren urteurrena zela eta, baita “*zendutako gainerako nazionalista sopeloztarren alde*” ere. Beste alde batetik, batzarraren ostean, “*Euzko Gaztediko propagandista bik*” berbaldia egin zuten, Artolozagak eta Izaguirrek, “(...) “*Nazionalismoa*” (euzkeraz) eta “*Sabino de Arana y Goiri*” (erderaz)”⁶⁶⁴ izanik gaiak.

Ez dakigu zenbat jende bildu zen, baina, egun haietan, *Euzkadi* berripapereko Urdulizko berriemaile *Txiberrik* argitaratu zuenez, Sopelako nazionalistek bazituzten ordurako 60 bazkide⁶⁶⁵. Badakigu, aldiz, batzar hartan ez zela *Euzko Gaztedia* elkartearen sorrera formalizatu, eta ez zela ezelango gorabeherarik izan, Francisco Ossoriok jakinarazi zuenez; Ossorio alkateak izendatutako ordezkaria zen, eta

660 Ibid., 197-199 or.

661 Ibid., 199-201 or.

662 *Euzkadi* 1930-11-30.

663 BFAH, SOPELA 0035/001, Jasotako korrespondentzia 1930, *Ignacio de Oyarzabal Bastidak Sopelako alkateari aurkeztutako instantzia*, data barik; eta *Euzkadi* 1930-11-20.

664 *Euzkadi* 1930-11-20, 1930-11-21 eta 1930-11-22.

665 *Euzkadi* 1930-11-20 “*SOPELANA'KO ABERTZALEAK. Diñeuzen lez urduri da biltzez auzoko erri onetan abertzaleak ba ustia ei dabe Euzko Batzoki bat iriteko ta irurogeitatik bazkide dirala, ia ba mutillak geure laguntasuna ere izango dozue ta*”.

ekitaldia indarreko legearen barruan gertatzen zela ikuskatzea zegokion. Berbaldiei dagokienez, hizlariak *“gaia azaldu zuten, modu oso adierazkorrean eta doktrinaren ikuspegi argia eskainita”*. Euzkadi berri-paperean argitaratutako kronika laburrean ez da aipatzen zenbat jende bildu zen, baina bai *“abertzale asko elkartu zirela, baita Algortako eta Areatzako zenbait ere, paseoan etorri zirenak hizlariak entzutera”*⁶⁶⁶.

Handik gutxira, abenduaren 7an, *Bar Santi* tabernan beste bilkura bat egiteko deialdia zabaldu zen, *“Uri Buru Batzarren behin betiko izendapenak egiteko, eta hurrengo herrialdeko eta nazioko Batzarretarako ahalduak izendatzeko”*. Behin-behineko batzordeak deialdi berezi bat egin zuen, *“afiliazio orriak oraindik sinatu ez dituztenek”* sina zitzaten batzarra baino lehen. Izapide hori errazteko, bitarteko batzordeko kideek jakinarazi zuten *“Bar Santi” tabernan egongo zirela, hamaiketarik hamabi eta erdiak arte, eta batzarrerako finkatutako ordua baino ordubete lehenago*. Gainera, lelo bat ere asmatu zuten sinatzea atzeratzen ari zirenak animatzeko:

“¡Abertzales, la patria reclama vuestro concurso y los vascos nunca deben faltar al llamamiento de la misma!

Demostremos que en Sopelana hay nacionalismo, entregando las hojas y acudiendo a la asamblea como un solo hombre”

*¡Aurrera, sopelatarras!”*⁶⁶⁷.

EAJren bitarteko Batzorde Probintzialaren agindua betetze aldera, Uri Buru Batzarreko behin betiko kideak izendatu ziren:

73. TAULA: URI BURU BATZARRA SOPELA (1930-12-07)⁶⁶⁸

Kargua	Izen-deiturak	Lanbidea	Adina (1930-10-21ean)
Lehendakaria	Florencio Urrengoechea Expósito	Zurgina	39 urte
Idazkaria	Andrés Ercoreca Zuazo	Nekazaria	31 urte
Diruzaina	Teodoro Bilbao Zarraga	Itsasgizona	34 urte

666 BFAH, SOPELA 0042/001, Igorritako korrespondentzia 1930, *Sopelako alkateak Bizkaiko Gobernadore Zibilarari helarazitako ofizioa* 1930-11-25; eta *Euzkadi* 1930-11-26.

667 *Euzkadi* 1930-12-07.

668 Taula osatzeko, 1930-12-10eko *Euzkadi* berri-paperean argitaratutako datuak hartu ditugu. Lanbideei eta adinari buruzko datuak, ostera, *Hautesle Erroldatik*, 1930-10-21.

Batzar hori osatu ostean, bertan ziren alderdikideek “*Euzko Gaztedi Sopeloztarra*” elkarteko kargudunak izendatu zituzten; hona hemen kideak:

74. TAULA: EUZKO GAZTEDIA SOPELAKO ZUZENDARITZA BATZORDEA (1930-12-07)⁶⁶⁹			
Kargua	Izen-deiturak	Lanbidea	Adina (1930-10-21ean)
Lehendakaria	Gabriel Berreteaga	-	-
Lehendakariordea	José Torrontegui Arana	Jornalaria	35 urte
Idazkaria	Ignacio Oyarzabal Bastida	Enplegatua	28 urte
Kontularia	Isidro Ercoreca Zuazo	Nekazaria	33 urte
Diruzaina	Jesús Marcaida Maurica	Nekazaria	(Hautesle Errolda 1932-10-15: 24 urte)
Kidea	Elías Aguirregoitia Vidaurrazaga	Itsasgizona	41 urte
Kidea	Julián Ayo Arri	Igeltseroa	27 urte
Kidea	Santos Ercoreca Zuazo	Nekazaria	31 urte
Kidea	Julián Bilbao Amunategui	-	-

Sopelako Batzokia izenaren ordezt *Sopelako Euzko Gaztedia* izena aukeratzearen arrazoia izan daiteke 1920. urtean jeltzaleek herriko lehen antolakunde nazionalista sortu zutenean izen hori erabili zutela. Hala ere, badirudi 1930eko abenduan aukeratutako izena bigarren maila batean geratu zela luze barik; izan ere, urtebete geroago, *Euzkadi* berripaperak batzarraren berritzearen berri eman zuenean *Batzoki* terminoa erabili baitzuen.

Berripaper jeltzale nagusiaren korrespontsalak biziki baloratu zuen Uri Buru Batzarra eta Euzko Gaztediaren Batzarra eratzea, eta “*herriko abertzaletasunarentzat benetako garrantzia duen ekintzat*” jo zuen. Berriemaileak gaineratu zuenez, “*ezin harroago gaude halako gertaera zoragarriagatik, abertzale sopeloztarren artean aspaldi sumatzen ari zen hutsunea bete baita*”. Hala ere, albistearen egileak ohartarazi zuen “*urrats hori eman ostean*” beharrezkoa zela “*irmo eustea*”, eta gomendatu zuen “*nazionalismoa sustatzea, eskura ditugun bitarteko guztiak baliatuta*”. Zentzu horretan, herriko jeltzaleei dei egin zien eta, bereziki, abertzaletasunaren aldeko gazteei⁶⁷⁰.

669 Ibid.

670 *Euzkadi* 1930-12-10.

Abenduaren 21ean EAJren Bizkaiko Batzarra egin zen Bilbon, eta bertan *Bizkai Buru Batzarra* eratu zen; Sopelako antolakundetik Santiago Ercoreca joan zen ahaldu gisa⁶⁷¹. Horrez gain, *Euzkadi* berripaperean ez dugu aurkitu abertzaleek Sopelan egindako jardueri buruzko informaziorik, 1931ko apirilaren 14rako udal hauteskundeetarako deialdia iragarri zen arte. Hauteskunde horietarako prestatze aldera, martxoaren 21ean alderdikideen batzar orokorra egin zen lehen aipatutako *Bar Santi* tabernan, eta “*proposatutako hautagaiak zeintzuk ziren jakinarazi zen, eta aho batez onartu*”. Hauteskunde kanpainari dagokionez, apirilaren 5ean, domekan, Bilboko *Euzko Gaztediko* “*hizlari bik*” mitina eman zuten euskaraz eta gaztelaniaz, eta “*gaurkotasun politikoko gaiak*” izan zituzten hizpide. Dakigunez, egun hartan bertan izendatu ziren zinegotzi izateko hautagaiak. Sopelan, 29. artikulua araberan, udaleko karguak betetzeko adina hautagai aurkeztu zirenez, zinegotzi hautetsizat jo ziren, bozketarik egin barik⁶⁷². Ikusi genuenez, udal berrian gehiengo abertzalea izan arren (9 zinegotzitik 7), Antonio Arechavaleta independentea hautatu zuten alkate.

Azaldu dugunez, sei zinegotzi abertzaleetatik bost 1930eko abenduan eratutako EAJren herriko exekutibako kide ziren: Elías Aguirregoitia Sopelako *Euzko Gaztediaren* zuzendaritzako kidea zen eta José Torrontegui lehendakariordea. Bestalde, Florencio Urrengoechea, Teodoro Bilbao eta Andrés Ercoreca Uri Buru Batzarreko lehendakaria, diruzaina eta idazkaria ziren. Zinegotzi izendatzeak herriko jeltzaleen antolamenduan aldaketaren bat ekarri ote zuen baieztatzen duen informaziorik ez dugu; dena dela, logikoa izango litzateke aldaketaren bat eragitea, EAJren irizpide tradizionala kontuan hartuta: “*karguak bikoizketak saihestea, hau da, Alderdiaren egituraren postu bat betetzea eta, aldi berean, beste postu bat kanpoan, herriak hautatuta*”⁶⁷³. Hala ere, badirudi Teodoro Bilbaok eta Elías Aguirregoitiak Alderdiko postuei eutsi zieten zinegotzi izendatu arren. Izan ere, geroago, 1931ko abenduan hautatutako Batzokiko Buru Batzar berriko kide izan ziren, lehendakariorde eta diruzain, hurrenez hurren.

Sopelako EAJK udal hauteskundeen ondoren egindako jarduerari buruzko daturik ez dugu aurkitu. Herriko nazionalisten itxurazko isiltasun hori maiatzaren amaierara arte luzatu zen, orduan aurkeztu baitzituzten udal epaile eta fiskal izateko hautagaiak; ekainaren 7an egin zen hautaketa, eta azken orduan aurkeztu zen beste hautagaitza baten aurrean lortu zuten garaipena. Arrakastaren ondorioz, “*herrikide ugari (...)* bildu ziren *Gaztediko lokaletan*”, eta “*aspaldian ez ziren hain pozik egon*”⁶⁷⁴. Esaldi horrek adierazten digu, agian, ordura arte alderdikideek zelanbaiteko apatiaz jokatzeko zutela.

671 *Euzkadi* 1930-12-22.

672 *Euzkadi* 1931-03-21, 1931-03-28, 1931-04-02, 1931-04-05 eta 1931-04-07.

673 TÁPIZ, José María: *El PNV durante la II República (organización interna, implantación territorial y bases sociales)*, Bilbo, Sabino Arana Fundazioa, 2001, 64. or.

674 *Euzkadi* 1931-06-06 eta 1931-03-13

Badirudi, garai hartan, Sopelako jeltzaleak beren lan politikoari dinamismo handiagoa eman guran zebiltzala. Adibidez, 1931ko ekainaren hasieran iragarri zuten autobus bat kontratatzeko gestioak egiten ari zirela *“Urdulizko abertzaleekin batera”*, ekainaren 14an Estatutuaren testua onartzeko egingo zen Batzarrera joateko Iruñera; azkenean, Lizarran izan zen ekitaldi hori. Hilabete haren hasieran ere, badakigu *“Dantza Batzorde”* bat zegoela erata, *“ezpata dantzarien taldeak”* sortzeko ardura zuena, San Pedro jaietan *“talde bat, gutxienez, atera zedin herria animatzera”*. Herriko jaiak baino egun batzuk lehenago, ezpata dantzarien talde bi egunero biltzen ziren entseatzeko eta, *Zabal-Alda*⁶⁷⁵ korrespontsalaren iritziz, maila ona lortu zuten, nahiz eta prestatzen *“hilabete pasatxo”* baino ez zeramaten. Artikuluan, berriemaileak ez zuen ezkutatu *“datorren urterako”* orain dauden talde biak bikoiztea gura lukeela, baita goruleen beste bat ere. Sopelako Batzokiko dantzariak ekainaren 29an debutatu zuten, eta *“Cayero”* Getxoko *ezpata dantzari sinpatikoaren* laguntza izan zuten, baita *aurrekoa bezain sinpatikoa den “Atxurra Txiki”rena ere (...)*⁶⁷⁶.

Iñaki berriemaileak euskal dantzarien talde bi horiek sortzea ahalegin handia izan zela nabarmendu zuen, eta *Zabal-Oyar*⁶⁷⁷ sinatutako beste artikuluko batean, ostera, *“ezpata dantzako taldeak sortzeko gaintitu behar izandako eragozpenak”* gogoratu zituen. Egia esan, eragozpen horiek nazionalismoaren beste alderdi batzuetan ere sumatzen ziren Sopelan. Nahiz eta, lehen aipatu dugunez, ekainaren hasieran, jeltzaleek ostera ere arrakasta lortu zuten herrian udal epaile eta fiskal karguak lortu zituztelako, sopoloztar antolakunde jeltzalea ez zebilen bete-betea, antza. Hilaren amaieran, dantza talde biak martxan zeudela, *Zabal-Alda* berriemaileak *“mendigoixale talde bat”* sortzeko aukera planteatu zuen, eta ez zitzaion zaila iruditzen, *“egunero”* ikusten baitzuen *“gazte talde bat”* biltzen zela *Euzko Gastedijaren* lokalean. Bestalde, herriko buruzagi abertzaleei iradoki zien Sopelan *Euzkadi* berripaperaren harpidetza sustatu behar zutela; izan ere, *“Sopela herri nagusiki abertzalea izanik, geure berripaper handia beste ez baita hemen irakurri behar”*, eta, halandaze, *“behin eginda, gainerakoa ere etorriko da”*⁶⁷⁸.

Aipatutako *Zabal-Aldak* euskal nazionalismoaren egoeraren azterketa sakona egin zuen Sopelan, eta *Euzkadi* berripaperaren ekainaren 30eko edizioan argitaratu zen. Artikulugileak herrian *“egun batzuetako egonaldia”* egin ostean ateratako *“iritzi oso-oso onak”* transmititu zituen, *“edonon arnasten den giro abertzalea”* nabarmenduta; horregatik, *“aberriarentzat zorioneko egunak”* iristear zeudela aurreikusten zuen. Bere sentsazioak *“ezin onagoak”* zirela esan arren, artikulugileak ondorioztatu zuen ez zirela *“guztiz lasaigarriak”*, Elizatean bazelako oraindik *“euskaldun galdurik”*, nahiz eta *“alderdikide onek ahalegin patriotiko handia egin”*.

675 *‘Zabal-Alda’* goitzenaren atzean Julián Aldazabal zegoen, sestaoarra izatez, baina uda garaia Sopelan igarotzen zuena. Ikus *Euzkadi* 1933-07-07, Sestaori buruzko artikuluko batean, *“Veraneo”* atala.

676 *Euzkadi* 1931-06-06, 1931-06-24, 1931-06-26 eta 1931-07-18.

677 *Zabal-Oyar* goitzenaren atzean Ignacio Oyarzabal jeltzale sopoloztarra zegoen.

678 *Euzkadi* 1931-06-13, 1931-06-24, 1931-06-26 eta 1931-07-18.

Egoera horri aurre egiteko, kronistak gomendio hau egin zien herriko jeltzaleei:

*“Es menester multiplicarse, compatriotas. Redoblar la propaganda en conversaciones, aprovechando cualquier acto público, visitando en grupos los caseríos para explicar e ilustrar a sus moradores en nuestras doctrinas. Es una cosa que no se debe dejar de hacer. Al baserritarra se le convence y gana para la patria, hablándole de agricultura, del caserío, de las leyes sociales, de la honrada administración, de la cuestión económica y religiosa, de la libertad. Sed apóstoles, sopelanatarras”*⁶⁷⁹.

Zabal-Aldak adierazi zuen ez zela “asko eskatzea”, dibulgazioko zeregin horri esker, hilean hiru afiliazio lortzea eta, hartara, “hiru urtean (...), herri osoa” egongo litzatekeela herriko EAJn “izena emanda”. Gainera, propaganda lana Sopelara soilik ez mugatzea aholkatu zuen, baizik eta inguruko herrietara zabaltzea, hau da, Berangora, Barrikara eta Urdulizera, herri horietako abertzaleei “Uri Buru Batzarra eta Batzokia osatzen” laguntzeko. Gainera, Iñaki berriemaileari eskatu zion bere “lan patriotikoarekin” jarrai zezala egunkari jeltzalearen orrialdeetan, eta gazteengana zuzen zedila, “geure idealaren propagandista irmo bihur daitezten”⁶⁸⁰.

Bestalde, artikulugileak agiraka txiki bat egin zien Euzko Gaztediaren Batzarreko kideei, oraindik ez zutelako finkatu lokalak inauguratzeko datarik, baina adierazi zuen bazekiela “egoera ekonomikoa ez dela oraindik gehiegikeriatan ibiltzeko modukoa”. Azkenik, Zabal-Aldak proposatu zuen Euzko Gastedijaren establezimendua ofizialki inauguratzen zen egunean José Loroño “nazionalista betetera omentzea (...), denok ikusi baitugu egun batean baita hurrengoan ere bai amorrutaz jazarria eta espeteratua izan dela, bere idealei irmo eusteagatik”⁶⁸¹.

Zabal-Aldak herriko abertzaletasunari buruzko ikuspegi nahiko baikorra transmititu zuen, baina ikuspegi hori zalantzan geratu zen Sopelako Euzko Gaztedia elkartearen bazkide oso-oso gutxi joan baitziren uztailaren 12an euskal diputatuei Gernikan egin zitzaizen omenaldira. Zabal-Oyar berriemaileak zenbait egun geroago argitaratutako kronika batean azaldu zuenez, “Sopelana’ko Euzko Gastedijak dituen laurogeitik gora bazkideetatik hiru baino ez ziren egon Gernikan”.

679 Euzkadi 1931-06-30.

680 Ibid.

681 Ibid.

Kopuru txiki hori are txikiago geratzen da alboko herritik, Urdulizetik, etorritako 30 parte hartzaileekin alderatuz gero. Sopolako jeltzaleen “ordezkaritza barregarria” herriko egitura nazionalistaren barruan une hartan, antza, nagusi izaten ari zen apatiaren erakusgarri argia zen⁶⁸². Zabal Oyarek honela adierazi zuen bere etsipena:

“Con motivo de los actos que se celebraron el domingo pasado en la villa foral, saludamos en ella a varios y distinguidos compatriotas de diversos pueblos, y sinceramente debo decir cuando alguno de ellos, y fueron varios, me preguntaban: ‘qué, ¿estáis muchos de Sopolana?’, no solamente me daba vergüenza, sino que, mi corazón se sentía dolorido al forzosamente tener que responder: ‘no, muchos no; solo estamos tres’.

Si dolor sentía yo al responder, asombro grande causaba en los patriotas de Urduliz, Lejona, Getxo, Arenas, Plencia, etc que me hicieron la pregunta.

Pero que se va a hacer: la realidad era esa”⁶⁸³.

Gernikan jazotakoak balio izan zion Zabal-Oyari Sopolako abertzaleei eskatzeko dinamikoagoak izan zitezten eta herrian euren presentzia dibertsifikatu zezaten mendigoixale talde bat sortuta; izena ere proposatu zuen, *Itxarkundia*, proposamena aurrera eramateko gazte nahikoa bazirela gogorarazita. “Sopela atzartzen hasi dela” ikusita, korrespontsalari egoki iruditu zitzaion “gazteak edozelan erakartzea, gazteak baitira etorkizunaren oinarri sendoa”. Baina gazteei ez ezik, jeltzale adinekoei ere egin zien eskaera, “zaharrei ere badut zer esan eta, batez ere, benetan direna baino zaharragoen modura jokatzeko dutenei”. Azkenik, artikulugileak iradoki zuen urratsak egin behar zirela herrian *Emakume Abertzale Batza* sortzeko, hau da, EAJko emakumeen antolakundea; honako hau idatzi zuen: “entre los socios hay quién tiene novia, hermanas, etc., y ¿quién nos dice que con este aliciente no se pueda llegar a formar también el Emakume Abertzale Batza? Poco a poco, pero decididamente firmes, adelante, con la mirada al frente”⁶⁸⁴.

Horri dagokionean, komeni da adieraztea pixka bat lehenago, 1931ko ekainaren 4an, hainbat bilkura egin ostean, Bizkaiko emakumeek beren berrantolaketaren oinarriak ezarri zituztela Bilbon egindako batzar batean; batzar horretan EABren araudia onartu zuten. Berretsitako araudia 1922an EAB sortu zenean argitaratu zenaren ia berdina zen, zenbait aldaketa txiki eginda. Gobernu Zibilak araudi berria onartu ostean, beste bilera bat egin zuten 1931ko ekainaren 23an Zuzendaritza Batzordea aukeratzeko⁶⁸⁵.

682 *Euzkadi* 1931-07-17 eta 1931-07-18.

683 *Euzkadi* 1931-07-18.

684 *Ibid.*

685 UGALDE SOLANO, Mercedes: *Mujeres y nacionalismo vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza*. 1906-1936, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitaipen Zerbitzua, 1993, 245-250 or.

2.2.1.2. Abertzaletasuna sendotzea Sopelan (1932-1933): Emakume Abertzale Batzaren eta 'Mendigoxale Astidunak' antolakundearen sorrera

Zabal-Oyarek 1931ko uztailean egindako proposamenetako batek ere ez zuen atonako erantzunik jaso urtea amaitu baino lehen. Ez dirudi herriko jeltzaleek jardura askorik egin zutenik garai hartan: alde batetik, Batzokiko ezpata dantzari talde biek San Inazio egunean Bilbon ospatu zen dantza jaialdian parte hartu zuten, baita abuztuaren 9an Plentziako Batzokia inauguratzeko ekitaldian ere. Berbaldiei dagokienez, urriaren 31n Batzokiaren lokalean izan zen berbaldi bakarra aurkitu dugu, Bernardo de Mugarra eta Juan Akarregi izanik hizlari. Bukatzeko, azaroaren 29an, San Pedro parrokiaren Sabino Aranaren arimaren aldeko ohiko meza egin zen, eta "Sopelako Euzko Gaztediaren Abesbatza"⁶⁸⁶ aritu zen kantuan.

Sopeloztar nazionalistek Batzokiko Zuzendaritza Batzordearen berrikuntzarekin amaitu zuten 1931. urtea, nahitaez egin beharreko tramitea zen aldetik; batzarra abenduaren amaieran egin zuten, eta 9 alderdikidek osatu zuten batzorde berria. Horietatik, Teodoro Bilbao eta Elías Aguirregoitia 1930eko abenduan hautatutako zuzendaritzako kide ere izan ziren, eta Federico Aguadok, ordea, 1919ko urtarrilean Getxoko Batzokian hautatutako Batzordean parte hartu zuen, batzordekide gisa⁶⁸⁷.

75. TAULA: BATZOKIKO ZUZENDARITZA BATZORDEA SOPELA 1931-12-26⁶⁸⁸

Kargua	Izen-deiturak	Lanbidea	Adina
Lehendakaria	Enrique Fernández Barturen	Itsasgizona (1930) / Jornalaria (1932)	26 (1932ko urrian)
Lehendakariordea	Teodoro Bilbao Zarraga	Itsasgizona (1930) / Jornalaria (1932)	37 (1932ko urrian)
Idazkaria	Federico Aguado Sustacha	Enplegatua (1930) / Zurgina (1932)	41 (1932ko urrian)
Idazkariordea	Juan Urrutia Iturriaga	Jornalaria (1934)	23 (1934ko apirilean)
Diruzaina	Elías Aguirregoitia Vidaurrazaga	Itsasgizona (1930) / Nekazaria (1932)	53 (1932ko urrian)
Kontularia	Avelino Garay Amechazurra	Jornalaria (1932)	23 (1932ko urrian)
Kidea	Juan de Dios Uriarte Egusquiza	Itsasgizona (1932)	28 (1932ko urrian)
Kidea	Francisco Villalabeitia Rola	Jornalaria (1932)	23 (1932ko urrian)
Kidea	Agustín Urquiaga Bilbao	Jornalaria (1932)	22 (1932ko urrian)

686 *Euzkadi* 1931-08-01, 1931-08-13, 1931-10-31 eta 1931-11-27.

687 *Euzkadi* 1919-01-21.

688 *Euzkadi* 1932-01-08.

Batzokiko Zuzendaritza Batzordea eratu eta biharamunean, Bilboko *Euzko Gaztediko* kide bik berbaldi bat eman zuten: Iñaki Arluzea eta Segundo Amezaga izan ziren hizlariak, eta aurkezlea, ostera, Jose Egusquiza jeltzalea. Ez dakigu zertaz egin zuten berba, baina badakiguna da berbaldien ondoren Sopolako “*zenbait andereño*” bildu zirela eta herrian “*EAB antolatzen saiatu zirela*”⁶⁸⁹.

Badirudi batzar hark fruituak eman zituela; izan ere, 1932ko otsailaren amaieran, *Euzkadi* berripaperak jaso zuenez, Sopolako “*emakumeak*” euskal antzerkiaren emanaldi bat prestatzen ari ziren martxoaren 28rako. Herriko *Eusko Gastedija* elkarteko kideek lagunduta, obra bi antzestu ziren: Nicolás de Viar-en “*Maite*” eta Isidro Paradaren “*Los calmosos*”⁶⁹⁰.

Sopelan emakumeen antolakunde abertzale bat sortzea ez zen fenomeno isolatu bat izan, baizik eta 1932. urte osoan inguruko beste herri batzuetan ere ordezkariak sortu ziren, errepublikaren lehen bi urteetan EABk izan zuen zabalkunde handiarekin guztiz bat etorrira. Urdulizen, esaterako, 1932ko apirilaren 24an egin zen emakumeen lehen ekitaldia, eta ekainaren erdialdera 120 alderdikide ziren jada. Urte hartako uztailaren 24an Urdulizko EAB ofizialki inauguratu zenean, 140 bazkide baziren guztira⁶⁹¹.

Badirudi Sopolako EABn bazkide kopurua apalagoa izan zela; izan ere, 1932ko irailaren erdialdean, “*nahiz eta denbora gutxi daraman eratuta*”, “*50 alderdikide baino gehiago*”⁶⁹² zituen.

Mendigoixaleei dagokienez, 1932ko martxoaren amaieran jada antolatuta zeuden herrian *Astidunak* izenarekin. Garai hartan, lehen Aberri Eguna zela eta, herriko mendigoixaleak arduratu ziren Santa Marina haitzetako sua pizteaz. *Euzkadi* berripaperean argitaratu zenez, ekitaldi hori Sopolako mendigoizaleen “*lehen txangoa*” izan zen⁶⁹³.

Batzokiko dantza taldeari dagokionez, badakigu ekainaren hasierarako “*dantzari txikien talde bat*” martxan zela, eta *Ixaso* artikulugilearen arabera “*arrakasta itzela*”⁶⁹⁴ izan zuen harpidetza baten bitartez erosi ahal izan zituzten hornigaiak.

Azkenik, Sopolako hiru antolakunde jeltzaleak ofizialki inauguratzeko data jarri zen: irailaren 18a, domeka. Giroa berotzeko, bezperan, gaueko zortzietan, Bergarako dultzaineroak eta Batzokiko txistulariak herriko kaleak alaitzen ibili

689 Ibid.

690 *Euzkadi* 1932-02-24 eta 1932-03-31.

691 *Euzkadi* 1932-04-24, 1932-05-03, 1932-06-12, 1932-07-23 eta 1932-07-31.

692 *Euzkadi* 1932-09-21.

693 *Euzkadi* 1931-06-24, 1931-07-18 eta 1932-03-31.

694 *Euzkadi* 1932-06-09.

ziren eta, horren ostean, Batzokian, José Aurrekoetxeak berbaldi bat eman zuen, “*Euzkadiko Historia*”⁶⁹⁵ izanik gaia. Hurrengo egunean, ekintza hauek antolatu zituzten:

76. TAULA: EUZKO BATZOKIJA, EAB ETA ‘ASTIDUNAK’ MENDIGOXALEAK INAUGURAZIO EKITALDIEN EGITARAUA SOPELA (1932-09-18)⁶⁹⁶
07:00etan, diana gaitero eta txistulariekin
10:00etan, Meza Nagusia eta banderak bedeinkatzea
12:00etan, ezpata dantza eta gorularien erakustaldia, Sopela, Berango eta Plentziako ezpata dantzarien eta Berangoko gorularien eskutik
13:30ean, herri bazkaria, Bergarako gaiteroen bandak girotuta
16:30ean, mitina Eleizaldeko zelaian eta mendigoxaleen desfilea. Hizlariak: -Alejandro Gallastegi -Miren Nekane Legorburu -José María Izaurieta
Jarraian, euskal erromeria gaitero, txistulari eta trikitixarekin.

Euzkadi berripaperean argitaratutako kronikan ez da aipatzen irailaren 18ko egun hartan zenbat jende bildu zen Sopelan, baina ematen diren datuengatik, jende andana hurbildu zela ondoriozta genezake. Adibidez, San Pedro elizara meza nagusia entzutera joateko sortu zen segizioan “*jendetza itzela*” bildu zen, eta ordezkari politikoei “*ezpata dantzarien bost talde eta ehun bat mendigoxale*” gehitu ei zitzaizkien. Bazkari ofizialean ehun mahaikide baino gehiago bildu ei ziren, besteak beste, Luis Arana Goiri Bizkai Buru Batzarreko lehendakaria, herriko euskal nazionalistak eta Urduliz, Plentzia, Berango, Sestao edo Larrabetzuko Batzokietako ordezkariak. Harrigarria da Sopelako orduko alkate Antonio Arechavaleta bazkarian egon izana, zeren, esan dugunez, ez baitzen abertzalea.

Arrastiko lehen orduan kanpotar gehiago helduko ziren, trenez, autobusez eta auto partikularretan. Batzokiaren inguruan eratu zen segizioak, berripaper jeltzalearen kalkuluaren arabera, “*errepidean kilometro erdi baino gehiago*” okupatu zuen, eta horrelakorik “*herrian egundo ezagutu barik*” ziren. Azkenik, Eleizaldeko zelaiko mitinera bertaratu zirenak “*milaka eta milaka*” izan ei ziren.

695 *Euzkadi* 1932-09-20.

696 *Euzkadi* 1932-09-18 eta 1932-09-20.

Ekitaldi horri dagokionez, Enrique de Urruticoechea medikuak aurkeztu zituen hizlariak, eta, aldez aurretik, Jose Loroño Uri Buru Batzarreko lehendakariaren figura goraiatu zuen: nabarmendu zuen *“irmotasunez eroan zituela diktaduraren aldetik jasan zituen jazarpenak”*⁶⁹⁷. Miren Nekane Legorburuk egin zuen lehenik berba, eta emakumeek *“aberriaren aldeko idealen lorpenean”* egindako lana goraiatu zuen; gainera, *“mendigoxaleak eta gixonak”* animatu zituen kausa nazionalistaren *defentsan ahalik eta ekarpen handiena egiten jarrai dezaten*. Alejandro Gallastegi izan zen bigarren hizlaria, eta euskaraz zuzendu zitzaion publikoari; *“bizimodu nazionalistaren alderdi interesgarriak”* aipatu zituen, eta *“Euskal Herriaren arerioei”* iruzkin ironikoak ere egin zizkien. Azkenik, José María de Izaurieta Algortako Euzko-Etxiako lehendakari gazteak hartu zuen berba; gai sozialei buruzko berbaldia eman zuen, eta adierazi zuen komenigarria zela *“langileek beren bidezko asmoak defendatzea, baina aberriarekin lotutako asmoak ahaztu barik”*. Izaurietak ondorio honekin amaitu zuen bere berbaldia: *“Euzkadik bere askatasunak berreskuratzen ditueanean, arazo sozialak izateari utziko diogu”*.

Handik egun gutxira *Euzkadi*⁶⁹⁸ berripaperean argitaratutako artikulu bati esker, badakigu Sopolako jeltzaleen antolakundeen zuzendaritzako kideak nor ziren une hartan. Uri Buru Batzarreko kideak hauek ziren, Jose Loroño *historikoa* izanik buru:

77. TAULA: ZUZENDARITZA BATZORDEA SOPELAKO URI BURU BATZARRA 1932KO IRAILA⁶⁹⁹			
Kargua	Izen-deiturak	Lanbidea	Adina
Lehendakaria	José Loroño Elejaga	Tratularia	49 urte (1934-04-06an)
Idazkaria	José Garay Amechazurra	Enplegatua	26 urte (1932-10-15ean)
Diruzaina-Kontularia	José Egusquiza Arechavaleta	Merkataria	31 urte (1932-10-15ean)

697 Antza, Loroñok Guardia Zibilaren hainbat miaketa jasan zituen bere etxean Primo de Riveraren diktadura garaian (GOROSPE, Alberto: *Batzokis de Bizkaia: Txori Herri – Uribe Kosta*, Bilbo, Sabino Arana fundazioa, 2002, 244. or.).

698 *Euzkadi* 1932-09-21 *“Unas notas sobre el movimiento nacionalista en Sopolana”*

699 Taula osatzeko, 1932-09-21eko *Euzkadi berripaperean argitaratutako datuak hartu ditugu. Lanbideei eta adinari buruzko datuak, ostera, 1932-10-15eko eta 1934-04-06ko Hautesle Erroldatik. Errolda baliatu dugu, halaber, berripaperean argitaratutako informazioan agertzen ez ziren deiturak osatzeko.*

Euzko-Gaztedija edo, berdina denez, herriko *Euzko-Batzokijari* dagokionean, 75 alderdikide zituen garai hartan, eta zifra hori “oso garrantzitsutzat” jo zen, kontuan hartuta “*Sopelan ideal nazionalistekin bat egiten duten itsasgizon asko bizi direla, baina ez direla alderdikide egiten, lanbideagatik luzaroan egoten direlako kanpoan*”. Batzokiko zuzendaritza hauek osatu zuten:

78. TAULA: ZUZENDARITZA BATZORDEA SOPELAKO URI BURU BATZARRA 1932KO IRAILA⁷⁰⁰			
Kargua	Izen-deiturak	Lanbidea	Adina (1932-10-15ean)
Lehendakaria	Enrique Fernández Barturen	Jornalaria	26 urte
Lehendakariordea	Teodoro Bilbao Zarraga	Jornalaria	37 urte
Idazkaria	Federico Aguado Sustacha	Zurgina	41 urte
Kidea	Francisco Villalabeitia Rola	Jornalaria	23 urte
Kidea	Juan Urrutia Iturriaga	Jornalaria	(Hautesle-errola 1934-04-06an: 23 urte)
Kidea	Agustín Urquiaga Bilbao	Jornalaria	22 urte
Kidea	Avelino Garay Amechazurra	Jornalaria	23 urte

Sopelako emakumeei dagokienez, aipatu dugu 1932ko irailaren erdialdean “50 kide baino gehiago” zirela. Herriko EABko zuzendaritza batzordea zortzi kidek osatzen zuten, eta Elena Urruticoechea zen buru, 1899tik 1920ra bitarte Sopelako alkate izandako Enrique Urruticoechearen alaba. Emakume horiek guztiak etxekoandreak ziren, eta hautesle erroldaren arabera, “etxeko lanak” dituzte lanbide.

700 Taula osatzeko, 1932-09-21eko *Euzkadi berripaperean argitaratutako datuak hartu ditugu. Lanbideei eta adinari buruzko datuak, oster, 1932-10-15eko eta 1934-04-06ko Hautesle Erroldatik. Errolda baliatu dugu, halaber, berripaperean argitaratutako informazioan agertzen ez ziren deiturak osatzeko.*

79. TAULA: EMAKUME ABERTZALE BATZA SOPELA ZUZENDARITZA BATZORDEA 1932KO IRAILA⁷⁰¹

Kargua	Izen-deiturak	Lanbidea	Adina (1932-10-15ean)
Lehendakaria	Elena Urruticoechea Echevarria	Etxeko lanak	32 urte
Lehendakariordea	Antonia Egusquiza Arechavaleta	Etxeko lanak	34 urte
Idazkaria	Emilia Terán Gárate	Etxeko lanak	25 urte
Idazkariordea	Constancia Díez Aguirreigoitia	Etxeko lanak	23 urte
Diruzaina	Mercedes Loroño García	Etxeko lanak	22 urte
Kidea	Brígida Bilbao Gorostola	Etxeko lanak	23 urte
Kidea	Carmen Marcaida Maurica	Etxeko lanak	31 urte
Kidea	Victoria Echevarria Ayo	Etxeko lanak	23 urte

Azkenik, *mendigozale* sopoloztarren zuzendaritza hauek osatzen zuten:

80. TAULA: "ASTIDUNAK" MENDIGOZALE TALDEA SOPELA 1932KO IRAILA⁷⁰²

Kargua	Izen-deiturak	Lanbidea	Adina (1932-10-15ean)
Burua	Agustín Urquiaga Bilbao	Jornalaria	22 urte
Idazkaria	Elías Díez Aguirreigoitia	Jornalaria	24 urte
Banderaduna	Juan Garay Aguirreigoitia	-	-

1932. urtea amaituta, nazionalistek urte hartan egindako jardueren balantzea argitaratu zuten *Euzkadi* berripaperean: 579 berbaldi eta 68 mitin soilik Bizkaian. Sopolaren kasuan, zenbatekoak oso diskretuak dira, berbaldi 2 eta mitin 1 baizik ez zuten egin; alboko herrian, Urdulizen, adibidez, 6 berbaldi eta mitin 2 egin zituzten⁷⁰³.

701 Taula osatzeko, 1932-09-21eko *Euzkadi* berripaperean argitaratutako datuak hartu ditugu. Lanbideei eta adinari buruzko datuak, ostera, 1932-10-15eko *Hautesle Erroldatik*. Hautesleen zerrenda hori baliatu dugu, halaber, zuzendaritza batzordeko kide ziren emakumeen deiturak osatzeko, *Euzkadi* berripaperean argitaratutako informazioan emakume horien lehen deitura baizik ez baitzen agertzen eta, zenbait kasutan, baita senarraren deitura ere, baina taulan ez ditugu senarren deiturak sartu.

702 Taula osatzeko, 1932-09-21eko *Euzkadi* berripaperean argitaratutako datuak hartu ditugu: "*Unas notas sobre el movimiento nacionalista en Sopolana*". Lanbideei eta adinari buruzko datuak, ostera, 1932ko *Hautesle Erroldatik*.

703 *Euzkadi* 1933-01-01.

EAJk batzar batekin eman zion hasiera 1933. urteari; urtarrilaren 29an, Tolosan, alderdiaren antolaketa eztabaidatzeko batzarra egin zuten, gai ideologikoetan sartu barik. Bilkura hartan hainbat erabaki hartu zituzten, besteak beste “*euskal lurraldean jaiotako edonor onartzea, jatorria edozein dela ere*”, bandera nazionaltzat *ikurriña* onartzea, edo emakumeek gizonen eskubide berberak izatea alderdiaren barruan. Bizkai Buru Batzak, bere aldetik, martxoaren 12an Bilbon egindako batzar batean onartu zuen antolakundea. Bi aste lehenago, otsailaren 25ean, probintziako zuzendaritzak xedatutakoari jarraikiz, jeltzale sopoloztarrek alderdikideen herri batzarra egin zuten, Herrialdeko Antolakuntza Proiektua aztertu, eztabaidatu eta onartzeko, herrialdeko batzarrera joan behar zuen ahalduna bideratzearren; aipatzekoa da ahaldun horrek berba egin zuela ekitaldian, baina ez dakigu zer esan zuen⁷⁰⁴.

Bestalde, herriko emakumeak ere ezohiko batzar orokor batean bildu ziren otsailaren 26an, *Euzkadi* berripaperean argitaratutako berriari zehazten ez diren “*garrantzi handiko gaiak*” lantzeko. Beste horrenbeste gertatzen da martxoaren 9an Sopelako mendigoixaleen batzarrak deitutako bilkurarekin, “*garrantzi handiko*”⁷⁰⁵ gai bat aztertu behar baitzuen. Udal hauteskundeak handik gutxira izango zirenez, logikoa dirudi pentsatzea bilera bi horietako “gai garrantzitsua” apirilaren 23ko hauteskundeekin lotuta zegoela.

Herriko hauteskunde horiei begira, berbaldi pare bat antolatu zituzten Sopelako Batzokian. Lehenengo berbaldia martxoaren 11n eman zuen Luciano de Ozerinek; bigarrena, oster, hil bereko 25ean izan zen, Isidoro Dorronsororekin. Azken horri buruz, *Euzkadi* berripaperak kronika txiki bat argitaratu zuen, eta horri esker dakigu berbaldia eman zuen lokala lepo bete zela, “*jende asko kanpoan geratu behar izateraino*”. Bere azalpenean, Dorronsorok “*nazio bat osatzen duten elementu nagusiak azaldu zituen eta, gero, Euzkadiri aplikatu zizkion; ondorio gisa, Euzkadi nazio perfektua dela aipatu zuen*”. Horren ostean, hizlariak “*Euzkadin dauden eskumako eta ezkerreko indarrei*” egin zien eraso, *Euzkadiko indarrak izan arren, euskalduntasunaren aurka aritzen direlako beti*”. Horregatik, Dorronsorok esan zuen “*horien aurrean, EAJren doktrina (...) dela Euzkadiri bere askatasunak berreskuratzeke aukera ekarriko dion bakarra*”. Kronika horren arabera, entzuleen txaloen ondorioz hizlariak hainbat aldiz eten behar izan zuen mintzaldia, eta Dorronsorok berba egiten amaitu zuenean “*txalo zaparrada ederra*” jaso zuen. Berbaldiaren ondoren, Sopelako EAJko orduko presidente Vicente Arbeloak eskatu zien bertaratutakoei “*hurrengo hauteskundeetan atsedean barik egin zezaten beharra*”⁷⁰⁶.

704 TÁPIZ, 111-113 or.; eta *Euzkadi* 1933-02-24 eta 1933-03-14.

705 *Euzkadi* 1933-02-24 eta 1933-03-09.

706 *Euzkadi* 1933-03-11, 1933-03-25 eta 1933-04-06.

Apirilaren 9an, hauteskunde kanpaina bete-betean, mitina egin zen *Antonio Arechavaleta plazan*: María Teresa Zabala, Antonio Ruiz de Asua “*Ogoñope*” eta José Antonio Aguirre izan ziren protagonista. Ekitaldi horretarako aukeratutako espazioa oso-osorik bete zen eta, halandaze, zenbait ikus-entzulek errepidetik eta alboko lurretatik jarraitu behar izan zuen mitina. *Euzkadi* berripaperean jasotakoaren arabera, “*Bizkaiko hainbat tokitatik etorritako kanpotar asko baziren bertan, bilbotar eta abandoar ugariz gain*”. Herriko jeltzaleen lehendakariak aurkezpenak egin ostean, hiru hizlariak egin zuten berba eta, oro har, hautagai nazionalistak goraiatu zituzten, indar errepublikanoek aurkeztutakoaren aurrean⁷⁰⁷.

Lehendik aipatu dugunez, sopoloztar abertzaleak izan ziren garaile herriko hauteskundeetan, eta gehiengoa lortu zuten udalean: nazionalistek sei zinegotzi eta errepublikanoek hiru. Garaipen hori ospatzeko, maiatzaren 14an “bazkari bat egin zuten alderdikide eta zaleentzat”; hona hemen menua:

**81. TAULA: UDAL HAUTESKUNDEETAKO GARAIPENA OSPATZEKO
MENUA 1933-05-14⁷⁰⁸**

Zizka-mizkak
Paella
Bakailaoa Bizkaiko erara
Txahal txuleta piperrekin
Postrea, kafea eta likoreak

Bazkari horretatik kanpo utzi zituzten emakumeak, eta egun hartan bertan askari bat egin zuten hauteskundeetako garaipena ospatzeko, herriko zaleak ere gonbidatuta⁷⁰⁹.

1933ko ekainetik 1934ko urrira bitarte Sopolako EAJri buruz jasotako berriak kontuan hartuta, aldi horretako jarduera diskretua izan zela esan dezakegu. 1933ko uda hasieran alderdikideen batzar orokorra egin zuten, ekainaren 23an, baina ez dakigu zer gai landu zituzten. Bestalde, jakin badakigu “*Larrabasterrako Batzokiko ezpata dantzarien*” taldeak aktibo jarraitzen zuela garai hartan, eta urte bereko San Pedro jaietan emanaldia egiteaz gain, San Inazio egunean Bilboko San Mamesen egin zen Bizkaiko ezpata dantzarien jaialdian hartu zuten parte. Jaialdian 275 talde aritu ziren. Ekitaldi hartan, Sopolako Batzokiko ezpata dantzari helduek ez ezik, haurren taldeak ere parte hartu zuen; gorago aipatu dugunez, 1932ko ekainean sortu zen haurren taldea. Ziur aski, dantzari txikien talde hori izango zen gerora herriko *gastetxu*⁷¹⁰ taldearen ernamuina; aurrerago aipatuko dugunez, 1934ko ekainean dokumentatua agertzen da, jada, talde hori.

707 *Euzkadi* 1933-04-07 eta 1933-04-11.

708 *Euzkadi* 1933-05-14. Menuaren prezioa: 5 pezeta lagun bakoitzeko.

709 *Ibid.*

710 *Euzkadi* 1933-06-22, 1933-06-29, 1933-07-30 eta 1933-08-01.

Batzokiko ezpata dantzariak San Pedro jaietan eskainitako emanaldiak liskarra eragin zuen Udaleko gehiengo abertzalearen eta zinegotzi errepublikanoen artean (aurrerago egingo dugu berba horri buruz). Ez zen hori izan nazionalistak inplikaturik egon ziren polemika bakarra herrian: irailaren amaieran, EAJren Uri Buru Batzarrak Sopelako herritar bi eraginpean hartzen zituen auzi administratibo bati buruzko idazki bat argitaratu zuen *Euzkadi* berriraperean, eta 1933ko apirila baino lehen herria administratu zuten Gobernu taldeak aipatzen zituzten; idazki horren ondorioz, Constantino Zurbano udalburuaren eta herriko ohiko ongile Antonio Arechavaleta alkate ohiaren arteko harreman onak pikutara joan ziren. Errepublika garaian Sopelan izandako gatazkei buruzko kapituluan ikusiko dugunez, jeltzaleen herriko antolakundeak *Euzkadi* berriraperean gerora argitaratutako barkamen eskaera publikoak ere ez ziren aski izan egoera onbideratzeko⁷¹¹.

Estatutuaren bozketari eta Gorteetarako Diputatuen hauteskundeei (azaroaren 5ean eta 19an izan ziren, hurrenez hurren) begira egin zen hauteskunde kanpaina, logikoa denez, EAJren Uri Buru Batzarrak mobilizatu ziren. Sopelako nazionalistak, EAJren Herrialdeko Hauteskunde Batzordearen bisita jaso ostean, urriaren 25ean bildu ziren Batzar Orokorrean, hurrengo hauteskunde biei buruz berba egiteko, ziurrenik. Handik zenbait egunetara, Estatutuaren aldeko mitin bat egin zuten Sopelan, eta Isidoro de Dorronsoro eta Alejandro Gallastegui izan ziren hizlari. Ikusi dugunez, hiru euskal probintzietan, oro har, estatutuari buruzko erreferendumak boto emaileen % 84ren babesa izan zuen, eta arrakasta hori kapitalizatzea lortu zuen EAJk azaroaren 19ko hauteskundeei begira. Sopelan, gorago aipatu dugunez, nazionalistak izan ziren indar bozkatuena⁷¹².

Puntu honetatik aurrera, Sopelako EAJri buruzko berriak urriak dira prentsan. Udal Artxiboan ere ez dago horri buruzko dokumentaziorik. 1933ko abenduaren 3an, Sabino Aranaren omenez San Pedro parrokian meza izango zela iragartzeaz gain, ez dugu aurkitu ezelango jarduerarik egin zutenik, ezpada antolakunde sopoloztarraren eta Bizkai Buru Batzarreko herrialdeko idazkaritzaren arteko korrespondentziari buruzko erreferentziarik, administrazio zereginen gainekoak, 1934ko urtarrilean⁷¹³.

Maiatzaren amaierara arte ez zen informaziorik kaleratu *Euzkadi* berriraperean. Hil horren 30ean, *Aberri-Aldezko Eguna* antolatzen ari zen batzordeak *Euzkadi* berriraperean argitaratu zuen atsekabe handia zuela 12 uri batzarrekin, 14 batzokirekin eta emakumeen 12 antolakunderekin, “ez zituztelako oraindik izendatu dirua biltzeko mahaiak osatzeko ordezkariak”, eta ahalik eta lasterren egiteko eskatzen zien. Aipatutako antolakunde horien artean zeuden Sopelako Uri Batzarra, Batzokia eta Emakumeak, eta atoan erantzun zioten, antza, eskaera horri, dirua biltzeko mahaiak osatu eta 132 pezeta bildu zituelako, jeltzaleen berrirapereak ekainaren 6an argitaratutako zerrenda baten arabera. Egun hartan bertan, Batzokiko lokaletan alderdikide guztiei irekitako batzar orokor bat egin

711 *Euzkadi* 1933-09-24 eta 1933-10-04.

712 *Euzkadi* 1933-10-25 eta 1933-10-31.

713 *Euzkadi* 1933-12-03, 1934-01-23 eta 1934-01-27.

zen, baina ez dakigu zertaz egin zuten berba. Beste horrenbeste gertatzen zaigu ekainaren 14an egindako batzarrarekin; izan ere, alderdikideak deitu zituzten, ostera ere, Batzokiko Batzar Orokorra egiteko. Azkenik, aipatu behar da ekainaren 1ean Batzokian berbaldi bat antolatu zutela, eta Miren Nekane Legorburu eta Isidoro Dorronsoro izan zirela hizlariak⁷¹⁴.

Garai bertsuan, Sopolako EAJko gazteen sailaren berri ere aurkitu dugu: Algortako *Euzko Gastetxu Batzaren* inaugurazio ekitaldietan parte hartu zuten Urdulizko edo Berangoko *gastetxuekin batera*⁷¹⁵.

2.2.1.3. 1934ko udatik Gerra Zibila piztu arte: apatia nagusi

Ikusi dugunez, 1934ko uda gorabeheratsua izan zen, euskal udalen eta Gobernu zentralaren artean sortutako Ardoaren Estatutuaren gatazka zela eta; izan ere, ardoaren gaineko zerga baitzen udaletxeen diru iturri nagusia. Sopelan, gorago azaldu dugunez, Hitzarmen Ekonomikoa defendatzeko euskal udalen Batzordeko kideak aukeratzeko abuztuaren 12an egindako bozketaren ondorioz, Sopolako alkate Constantino Zurbano jeltzalea atxilotu eta auzipetu zuten. Aurrerago, irailaren 7an, Sopolako udalbatzako gainerako kideek dimisioa eman zuten, bai zinegotzi nazionalistek, bai errepublikanoek. Ia hilabete geroago, '*Urriko Iraultza*' piztu zen, eta horren ondorioetako bat izan zen Bizkaiko egoitza nazionalista guztiak ixtea, José María Tapizen berbetan, lehenik Gerra Egoera eta, geroago, Alarma Egoera dekretatu ostean. '*Urriko Iraultza*' horren ondoren, Sopolako Batzokia zarratzeari buruzko informaziorik ez dugu aurkitu, baina kontuan hartuta inguruko herrietan, hau da, Urduliz edo Plentzian jeltzaleen egoitzak zarratu egin zituztela, logikoa da pentsatzea abertzale sopoloztarren lokalak ere antzeko bilakaera izango zuela. 1935eko apirilean egoitza nazionalistak berriro irekitzen hasi ziren. Ez dakigu noiz ireki zen ostera ere, hipotetikoki, Sopolako Batzokia; Urdulizko, Plentziako, Areetako, Leioako egoitzen eta beste 46 lokalen kasuan, aldiz, maiatzaren 7an ireki ziren ostera ere, Gobernadore Zibilaren aginduei jarraikiz⁷¹⁶.

Nazionalismoaren tokiko antolakundeak maiatzaren 26an berraktibatu ziren. Egun horretan, *Bizkai Buru Batzarrak* agindu legez, udal batzarrak bildu ziren beren ahaldunak izendatzeko Bizkaiko EAJren eskualdeko batzarrerako. Bilkura hura Bilbon egin zen, 1935eko ekainaren 2an, 1934. urteko abenduan ezin izan baitzuten egin "(...) *pasatu ditugun ez ohiko egoerak direla eta*". Sopolako nazionalistek Felipe Marcaida bidali zuten ordezkari⁷¹⁷; Marcaida bera herriko EAJko buru hautatu zuten 1935eko irailaren 14ko Batzar Orokorrean. Bilkuraren helburu bakarra Sopolako EAJren Zuzendaritza Batzordea berritzea zen, eta "*hamabost bat alderdikide*"⁷¹⁸ bertaratu ziren; kopuru hori txikitatz jo dezakegu, eta Sopolako talde jeltzalea igarotzen ari den krisialdiaren adierazgarri izan liteke,

714 *Euzkadi* 1934-05-30, 1934-06-01, 1934-06-06 eta 1934-06-10.

715 *Euzkadi* 1934-06-17 eta 1934-06-20.

716 TAPIZ FERNÁNDEZ, 286. or.; eta *Euzkadi* 1935-05-08.

717 *Euzkadi* 1935-05-26 eta 1935-06-04.

718 BFAH, SOPELA 0042/004, Igorritako korrespondentzia, 1935; *Sopolako alkateak Bizkaiko Gobernadore Zibilari helarazitako ofizioa*, 1935-09-15.

edo alderdikideen zelanbaiteko apatiaren erakusgarri. Egia esan, 1935eko udan herriko nazionalistek egindako jardueri buruz ditugun berriak eskasak dira. Jakin badakigu, adibidez, Batzokiko ezpata dantzarien talde batek parte hartu zuela uztailaren 31n Bilbon Iñaki Deunaren egunerako ospakizunaren barruan egin zen euskal dantza erakustaldian⁷¹⁹. Edozelan ere, irailean hautatutako Batzorde berriko kideak hauek izan ziren:

82. TAULA: SOPELAKO EAJren ZUZENDARITZA BATZORDEA 1935-09-14⁷²⁰		
Kargua	Izen-deiturak	Adina (1934ko eroldaren arabera)
Lehendakaria	Felipe Marcaida Maurica	Ontzi makinista
Lehendakariordea	Victor Barrenechea Bilbao	Jornalaria
Diruzaina	Elias Aguirregoitia Vidaurrazaga	Nekazaria
Idazkaria	José Garay Amechazurra	Enplegatua
Kidea	Juan Garay Aguirregoitia	(Ez da eroldan ageri)

Udako jardueri buruz esan dugun legez, 1935eko azken hiruhilekoan ere ez dugu ia berririk aurkitu Elizateko jeltzaleek egindako ekintzei buruz. Alderdikideen balizko desmobilizazioa aipatu behar da ostera, nahiz eta Sopolako nazionalisten kasua ez den bakarra. Azaroaren erdialdera, *Aberri-Aldezko Eguna* antolatzen ari zen Batzordeak atsekabea adierazi zuen, 20 Uri Buru Batzarrek, 21 Batzokik eta 10 herritako EABren ordezkariak “ez zituztelako oraindik izendatu dirua biltzeko mahaiak osatzeko ordezkariak”. Atzeratuta zebiltzan antolakundeen zerrendan agertzen ziren Sopolako Uri Buru Batzarra, Batzokia eta EAB. Egun haietan, ohikoa zen lez, Sabino Aranaren heriotzaren urteurren mezak egin zituzten herri askotan, herrietako antolakunde nazionalistek deituta. Sopolako jeltzaleak ez ziren gutxiago izan, eta abenduaren 1ean EAJren sortzailearen aldeko meza egin zuten San Pedro parrokian⁷²¹.

Hil horren amaieran, 28an, *Bizkai Buru Batzarrak* agindu legez, Sopolako alderdikideen batzarra egin zuten, eta José Garay Amechazurra aukeratu zuten ahaldun, hurrengo egunean Bilbon egingo zen EAJren Herrialde Batzarrera joan zedin. Batzar horretan, “*BBBko kideen kudeaketa onartu zen*”⁷²².

719 *Euzkadi* 1935-07-17, 1935-07-26 eta 1935-08-01.

720 BFAH, SOPELA 0042/004, Igorritako korrespondentzia, 1935; *Sopolako alkateak Bizkaiko Gobernadore Zibilarari helarazitako ofizioa*, 1935-09-15. Lanbideei buruzko datuak 1934ko *Hautesle Erroldatik* atera ditugu.

721 *Euzkadi* 1935-11-22 eta 1935-12-01.

722 BFAH, SOPELA 0042/004, Igorritako korrespondentzia, 1935; *Sopolako alkateak Gabino Duñabeitia Bilbaori igorritako ofizioa*, *Sopolako EAJren bilkurara joateko ordezkari izendatzeko*, 1935-12-26; eta *Euzkadi* 1935-12-31.

Otsailerako hauteskunde orokorren deialdiak jeltzaleen hauteskundetarako makineria jarri zuen martxan. Herrialdeko Hauteskunde Batzordeak *tour* handi bat egin zuen probintzian Batzokiz Batzoki urtarrilaren 25ean eta 26an, eta, alde zuzenetik, “*bazkide eta emakumeei*” dei egin zien bilkura horietara joan zitezkeen. Sopelako Batzokiaren kasuan domekan izan zen, hilaren 26an. Handik gutxira, hilaren 29an, herrialdeko batzarra bildu zen Bilbon, etorkizuneko hauteskundera eta hautagaitzei buruz berba egiteko, eta 102 ahaldunek parte hartu zuten, tartean Sopelakoak: 1934ko irailean Ardoaren Estatutuaren gatazkaren ondorioz kargugabetutako Constantino Zurbano alkate jeltzale ohiak⁷²³.

Hauteskunde kanpainaren barruan, otsailaren 15ean mitin bat egin zen Elizateko Batzokian, eta José María Cazaña, Manuel Robles Aranguiz eta “*Ogoñope*” jauna izan ziren hizlari. Bertaratutakoen kopuruari dagokionez, jende asko hurbildu zen, antza, “*Euzkadi*” berripaperak argitaratutako kronika txiki batean jaso zenez; izan ere, “*Batzokiko ekitaldi areto handian sartu ezinik geratu ziren iragarritako ekitaldiaren garrantziak erakarrita iritsitako abertzale ugari*”. Hainbestera, ezen jendeak “*alboko korridore eta aretoetan*” sartu behar izan baitzuen⁷²⁴. Ikusi dugunez, EAJK jaso zituen boto gehien Sopelan, baina Euskal Herri osoan lez, nazionalismoak botoak galdu zituen herrian 1933ko azaroan egindako Gorteetarako hauteskundera alderatuta. Berba baterako, José Horn jeltzaleak 339 boto lortu zituen 1933an, eta 1936an 270 boto. Euskal Herri osoan orokorra izan zen boto jaitsiera horren arrazoia da eskumako alderdiek eta euren komunikabideek etengabeko kanpaina egiten zutelako nazionalismoaren aurka, ezkerrekin elkar hartua ibiltzeaz leporatuta, eta zalantzan jartzen zuten jeltzaleen katolizismoa, EAJK alderdiaren bereizgarritzat zuen arren. Sopelaren kasua aztertuz gero, ikus dezakegu 1933ko azaroan Adolfo González de Careaga hautagai monarkikoak 45 boto lortu zituela, eta 1936ko otsailean José María de Areilzak 77 boto jaso zituela, Renovación Española alderdiaren ordezkari lez. Hala ere, Fronte Popularrean biltzen ziren ezkerreko indarrek ere gora egin zuten botoetan Elizatean (Indalecio Prieto 1933an 132 boto jasotzetik 1936an 196 boto jasotzera izatera igaro zen). Halandaze, badirudi argi dagoela Estatuko eskumen kanpaina antinazionalistak eragina izan zuela sopoloztar hautesle gutxi batzuegan, baina ez litzateke astakeria pentsatzea beste zenbait boto emailek une horretan zegoen polarizazioan oinarrituta erabaki zutelako nori eman botoa, eta ezkerreko hautagaitzaren alde egitea.

Edozelan ere, 1936ko otsailetik ekainaren hasierara bitarte ez dugu sopoloztar nazionalistek buruzko berririk aurkitu, ezta, Maiatz Pazko egunarekin bat, maiatzaren 31n egindako Aberri Egunari buruz ere. Aurreko Aberri Egunetan ez lez, ospakizuna ez zen leku zehatz batean egin, deszentralizatu egin zen. Modu horretan, Uri Buru Batzar bakoitzari egokitu zitzaion bere herrian egun hartako ospakizuna antolatzea. Urduliz edo Plentziako ospakizunei buruzko kronikak jaso ziren *Euzkadi* berripaperean, baina ez dugu topatu Sopelako Aberri Eguneko ekitaldien informaziorik; dena dela, horrek ez du esan gura ospakizunak egin ez zutenik, aurrerago azaltzen saiatuko garen moduan.

723 *Euzkadi* 1936-01-22 eta 1936-01-30.

724 *Euzkadi* 1936-02-15 eta 1936-02-16.

Handik egun gutxira, ekainaren 7an, domekan, Batzokiko bazkideen Batzar Orokorra egin zen, eta ez dakigu zer gai landu zituzten⁷²⁵. Laburbilduz, 1935eko uztailetik Gerra Zibila hasi bitarteko aldiari, Sopelako nazionalistek ez zituzten alde batera utzi antolakundeari eusteko beharrezkoak ziren tramite administratiboak, ezta jeltzaleek herrialdean egin zituzten batzarretara joateko betekizunak ere. Hala ere, ekitaldi propioei buruzko berririk ia ez egoteak pentsarazten digu EAJren herriko antolakundeak ez zuela lortu Urriko Iraultzaren ondorioz jarduerak bertan behera utzi behar izateak eragindako etenaldia gainditzea, alderdikideen gehiengoak apatikotzat jo dezakegun egoera batean geratu zenez eta, ikusi dugun moduan, 1934ko hasieratik zetorren egoera zen hori. Hala ere, harrigarria da 1936ko Aberri Egunari buruzko berririk ez izatea. Ez dugu uste herriko jeltzaleek euskal abertzaleentzat hain garrantzitsua den jaia ospatzeko ekitaldirik antolatu ez zutenik eta, halandaze, hipotesi bat aurkeztuko dugu: alderdikideen artean nagusi den apatia horren ondorioz⁷²⁶, Sopelako nazionalismoak ez izatea *Euzkadi* berripaperera berriak bidaltzeaz arduratzen zen kronistarik eta horregatik ez zen argitaratu 1936ko Aberri Egunari buruzko kronikarik.

2.2.2. Ezkerreko indarrak: errepublikanoak eta sozialistak

Sopelako indar errepublikanoen eta ezkertiarren ibilbidea berreraikitze lan honetan, informazioaren zatirik mardulena *El Liberal* egunkariko orrietatik atera dugu eta, hein apalagoan, Bizkaiko Foru Agiritegi Historikotik eta Sopelako Udal Artxibotik lortutako dokumentazioa ere erabili dugu.

2.2.2.1. Errepublikanismoaren lehen urratsak Uribe Kostan

Aurreko orrialdeetan adierazi dugunez, 1931ko apirilaren 12ko udal hauteskunderik ez zen egin Sopelan 29. artikulua arabera, Udaltzako kideak berritzeko hautagai kopuru zehatza aurkeztu zelako, eta hauteskunderen data ofiziala baino egun batzuk lehenago, zinegotziak aldarrikatu zituzten. Hauteskunde horietan ez dirudi Sopelako errepublikanoak mobilizatu zirenik edo, mobilizatu baziren, ez da horren berri inon jasota geratu. Plentziaren kasuan, badakigu itsas hiribilduko “*bloke antidinastiko*” horrek deialdia egin zuela martxoaren 26rako, “*ezkertiar guztiak*” *Palas*⁷²⁷ *tabernara gonbidatuta, hautagaiak izendatzearen*. Alboko elizatearen kasuan ere, hau da, Urdulizen ere ez zen hauteskunderik egin Sopelako arrazoi berdinegatik, eta hautagaiak behin betiko zinegotzi izendatu zituzten apirilaren 5ean. Sopelan aldarrikatutako zinegotzietako bat bera ere ez zetorren bat errepublikanismoarekin; Urdulizen, oster, udalbatza berriko zinegotzi bi errepublikanoak ziren. Urdulizko zinegotzi errepublikano biek ibilbide bat eginda zeukaten Udalean, zinegotzi izendatuak izan baitziren 1930eko otsailean, Primo

725 *Euzkadi* 1936-06-05.

726 Sopelako EAJk 51 alderdikide zituen Gerra Zibila hasi aurretik, Isidoro Zamaconak, herriko alkateak, 1939ko urtarrilean adierazitakoari erreparatuz gero (BFAH, SOPELA 0044/002, Igorritako komunikazioa, 1939, Sopelako alkateak Epaila Militar Bereziari helarazitako komunikazioa, E letra, Bilbo, 1939-01-18).

727 *El Liberal* 1931-03-25.

de Riveraren gainbeheraren ondoren. Horietako bat, Cipriano Inchaurtieta Abaroa aspaldiko ezaguna zen Sopelako politikan: 1897an zinegotzi aukeratua izan zen, sopoloztar udaletxean 1905era arte egonda, eta gutxienez 1904tik alkateorde izanik. Urdulizen, Inchaurtieta alkatea izana zen 1930eko otsailetik 1931ko apirilera bitartean, eta bigarren alkateorde apiril horretatik 1933ko urtarrilera bitarte⁷²⁸.

1931ko maiatzaren hasieran, Plentziako errepublikanoek atxikimendu bilketa bat egingo zutela iragarri zuten, herriko Kasino Errepublikanoa eratzeko, eta herriko “Palas” tabernako lehenengo solairuan ezarri zuten. Garai bertsuan, EAE/ANV ere antolatuta zegoen kostaldeko herri horretan. *El Liberal* berrirapereko artikuluan errepublikanismoaren garapenari buruzko informazioa emateaz gain, azaldu zen, halaber, “*Plentziako irakurle demokratek*” mugimendu politiko horren herriko berririk ez izatearen arrazoa zela “*egunkari ezagun honetan ezer argitaratu ez izana*”. Artikuluaren egileak agindu zuen egoera hori konponduta geratuko zela une hartatik aurrera, “*geure herritarren intereseko albiste guztien berri ematen saiatuko zelako ‘gure’ LIBERAL egunkariko zutabeen bitartez*”⁷²⁹. Herri gehiago ere baziren egoera berean, berri barik, halan zelan Sopela, Barrika edo Urduliz.

Ekainaren hasieran, egunkari horretan eman zuten Plentziako Kasino Errepublikanoko Zuzendaritza Batzordearen behin betiko izendapenaren berri, eta ekainaren 21ean egin zen Kasino Errepublikanoaren inaugurazio ofiziala. Antolakunde berriko Erregelamenduaren lehenengo artikulua zioenez, lokalaren xedea zen “*familia errepublikanoari aisialdirako eta biltzeko toki bat eskaintzea*”, bertan bazeudenez, nonbait, “*(...) ezkerrera jotzen duten batzuk, baina eskumakoak ere bai*”⁷³⁰. Printzipio horri jarraitu zioten, zalantza barik, inguruko gainerako herrietako errepublikanoek beren antolakundeak eratzeko garaian; izan ere, aurrerago ikusiko dugun lez, herri bakoitzeko ezkertiarren bilgune gisa funtzionatuko baitzuten.

Bai Plentzian bai Gorkizen, maiatzaren 31n udal hauteskundeak errepikatu zituzten, eta emaitzak guztiz itxaropentsuak izan zirela esan dezakegu, eskualdeko errepublikanoen multzoaren etorkizunari begira. Plentzian errepublikanoek hiru zinegotzi lortu zituzten, eta EAJk 7. Gorkizen, ostera, Udal berria multzo errepublikanoaren eskutan geratu zen: sei zinegotzi EAE/ANVk, errepublikano bat eta sozialista bat –horiek ziren hautagai errepublikanoak–, aurrean EAJren zinegotzi bakarra zutela⁷³¹.

Hilabete geroago, 1931ko ekainaren 28an, Gorteetarako hauteskundeak egin ziren, eta errepublikanoentzat nahiko argigarriak izan ziren, agerian geratu baitzen Uribe Kostako herrietako errealitatea zein zen hauteskunderi zegokienez. Ikusi genuenez, hauteskunde orokor horietan, errepublikanismoak

728 SOMOKUETO, 349-350 or.

729 *El Liberal* 1931-05-09.

730 *El Liberal* 1931-05-28, 1931-06-03 eta 1931-06-19.

731 *El Liberal* 1931-06-03 eta 1931-06-04.

emaitza oso bestelakoak lortu zituen eskualdeko herrietan. Gogora dezagun, adibidez, Sopelan EAJk garaipen estu-estua lortu zuela, errepublikanoei boto gutxiko aldea aterata; Urdulizen, aldiz, jeltkideen garaipena eztabaidaezina izan zen, ezkerreko hautagaietako batek ere ez baitzituen 20 boto baino gehiago lortu⁷³². Errepublikanoek Sopelan ateratako emaitza nabarmendu zuten *El Liberal* egunkarian: “*eredugarritzat*” jo zuten, eta “*gehiengo jeltkideari orpoz orpo*” segitzen ziotela nabarmendu. Urdulizen edo Barrikan bildutako boto kopuru diskretuaren ondorioz, *Cantaclaro* berriemaileak gomendatu zien “*herri txikietako zale sutsuei*” ez zitezela larritu “*gaur boto gutxi lortu izanagatik*”, eta borrokan jarraitzera animatu zituen, bakoitzak bere herrian “*askatasunaren bidea*” urratu zutelako. Oro har, Gorteetarako hauteskundeak neurgailu zuzena izan ziren errepublikanoek Bizkaian zuten indarrari tamaina hartzeko. *Cantaclaro* berriemaileak horrela adierazi zuen: “*Azken hauteskundeek frogatu digute uste genuena baino askoz gehiago garena*”⁷³³.

Plentzian lortutako botoak ere ospatu zituzten *El Liberal* berripapereko orrialdeetan, eta errepublikanoen eta sozialisten batura bigarren geratu zen itsas kostaldeko herrian: Indalecio Prietok 109 boto lortu zituen, eta José Horn edo Manuel Eguileor hautagai jeltzaleek, ostera, bakoitzak 250 boto. Uribe Kostan nazionalismoa nahikoa errotuta zegoela, erregimen demokratikoaren lehen urte horietan errepublikanismoak eskualdeko udalerrietan izan zuen presentzia oso bestelakoa izan zen, eta lortutako emaitza gorabeheratsuak presentzia horren adierazgarri izan ziren. Emaitzetan gorabeherak izatearekin zerikusia izango zuen, ziurrenik, Sopelako inguruan egindako hauteskunde kanpaina diskretuak, propagandako ekitaldi bi baino ez zituztenez egin. Lehena Plentzian izan zen ekainaren 21ean, Kasino Errepublikanoaren inaugurazio ofizialarekin batera, eta Santiago Aznar, Feliciano Fariñas eta Luis López Mújica izan ziren hizlari. Beste ekitaldia Berangon egin zen, hilaren 26an, eta Luis Aldecoa eta Juan Gracia aritu ziren berbetan. Esan beharra dago ez dugula topatu Sopelan mitinen bat egin zenik. Egia esan, *Cantaclaro* kronistak aitortu zuenez, horrelako ekintzak “*ez ziren oso ohikoak herri hauetan*”. Gorlizko korrespontsala, ostera, kexu zen herri horretan ez zutelako “*propagandisten bisita*” jaso, nahiz eta aipatu zen “*hauteskundeetako propaganda iritsi ez zen herriak*”⁷³⁴ gutxi izan zirela.

Edozelan ere, hauteskundeen ostean, uztailaren hasieran, *El Liberal* berripaperetik inguruko herrietako errepublikanoei deialdia egin zitzaizen “*elkarte errepublikanoak, batzorde edo azpibatzerde sozialistak eratzeko herri guztietan*”, eta aholkatu zieten “*herri bakoitzean indar nahikorik izan ezean*” “*bi edo hiru herri*” elkartzeko. Azken aukera lez, aurreko proposameneak porrot eginez gero, ideia bat proposatu zuten: “*herri guztiak elkartuta*” “*benetako elkarte bat osatzea eta Plentzia izatea kokaleku, badagoelako bertan lehendik ere Kasino Errepublikanoa*”⁷³⁵.

732 BFAH, AJ02064/010, *Gorteetako Diputatuen Hauteskunderi buruzko Sopelako espedientea* 1931-06-28; eta AJ02604/011, *Gorteetako Diputatuen Hauteskunderi buruzko Urdulizko espedientea* 1931-06-28.

733 *El Liberal* 1931-07-05.

734 *El Liberal* 1931-06-20, 1931-06-26, 1931-06-28 eta 1931-06-30.

735 *El Liberal* 1931-07-05.

El Liberal egunkariaren deialdiak uda amaieran izan zuen erantzuna. Iraileko lehenengo hiru asteetan, herri gehienetako errepublikanoak elkarte edo batzorde gisa eratu zuten batasuna, ia denak Partido Republicano Radical (PRR) alderdiari lotuta. Horixe jazo zen Laukiz, Gorniz, Maruri, Urduliz, Barrika eta Plentzian, eta Lemoizko errepublikanoek, aldiz, *Partido Republicano Radical Socialista* alderdiari atxikitzea erabaki zuten⁷³⁶.

2.2.2.2. Sopelako Zentro Demokratikoa (1932) eta Sopelako Elkarte Sozialista (1933)

Sopelan eta Berangon 1932ko udaberrian lortu zuten antolakunde errepublikano bat izatea. Azken herri horren kasuan, badakigu 1931ko abenduaren hasieran Berangoko errepublikanoak ez zeudela oraindino antolatuta, eta horrek eragin zuen *El Liberal* egunkarian artikulua bat agertzea, “*demokrata berangoztarrei*” ohartarazpena egitearren. Mezua argia zen: “*horrela ezin dugu jarraitu*”. Horregatik, “*bizi seinaleak emateko*” gonbidapena egin zitzaion, Berangon elkarte errepublikano bat sortzeko eta honela jende askori erakusteko badela errepublikanorik Berangon. Hilaren amaieran eratuta zegoen “*Elkartasun Demokratikoaren aldeko Batzordea*”, herriko errepublikanoak bilduko zituen erakunde bat osatzeko asmoz. Sopelako errepublikanoen kasuan, suposatzen dugu berangoztarren antzeko prozesua izango zutela, baina ez dugu dokumentaziorik lortu. 1932ko apirilaren erdialdera badugu Sopelako eta Berangoko elkarte errepublikanoen berri, Plentziako Kasino Errepublikanoak inguruko antolakundeetara igorritako gonbidapenean agertzen direlako; izan ere, Bigarren Errepublikaren aldarrikapenaren lehen urteurrena ospatzeko Bilbon egingo ziren ekitaldietara joateko gonbidapena zen⁷³⁷.

Azkenean, 1932ko ekainaren 18an, Sopelako *Zirkulu* edo **Zentro Demokratikoa** inauguratu zen, “*lokalak José Quintana merkatariaren etxean ezarrita*”; Quintana Sopelako alkate izana zen Primo de Riveraren diktaduran, zehazki 1923tik 1926ra bitarte. Haren etxeak “*Aranoa*” zuen izena, eta elkarte sortu zuen Batzordeak Zirkulurako egoitza bat topatzeko aukera bakarra izan ei zen, *El Liberal* egunkariko orrialdeetan argitaratu zutenez, ez baitzen lan erraza izan:

*“Todos sabéis muy bien los inconvenientes con que ha tropezado esta Comisión para encontrar un local donde poder instalar nuestro Círculo, debido a la obstrucción que han hecho los caciques del pueblo; pero ha podido más nuestro entusiasmo y buena voluntad que sus manejos caciquiles”*⁷³⁸.

736 *El Liberal* 1931-09-04, 1931-09-12, 1931-09-19 eta 1931-09-20.

737 *El Liberal* 1931-12-02, 1931-12-26, 1932-04-10 eta 1932-04-13.

738 *El Liberal* 1932-06-15.

Errepublikanoek beren lokala paratzeko leku bat aurkitzeko zituzten zailtasun horiek *Euzkadi* berripaperean ere jaso zituzten handik gutxira, establezimenduaren jabearen irudia nabarmenduta. 1934ko irailaren erdialdean argitaratutako artikulua batean, “*Ardoaren Estatutuaren*” gatazkaren testuinguruan, idazkiaren egileak adierazi zuen Quintana “*Bigarren Errepublika helduta pasatu zela erregimen berrira*”, “*armak eta jakintzak hartuta, bertakoen eta arrotzen harrigarri*”, eta:

*“tanteando lo que se se avecinaba en aquellos días, tan buena maña se dio y tantas protestas de izquierdismo debió de hacer, que los republicanos y socialistas locales, ante la imposibilidad de dar con otro sitio para sus reuniones, optaron por el salón de dicho señor y constituyeron el Centro democrático”*⁷³⁹.

El Liberal berripaperaren arabera, Sopolako Zentro Demokratikoa “konbikzio demokratikodun hainbat gizonek sortu zuten”, eta “kostaldeko herri atsegin honetan sumatzen zen hutsunea betetzera dator”, “espíritu liberala, astiro bada ere, bertako biztanle zintzoen, itsasoko eta lurreko langileen bihotzetan” barneratzen ari da eta. Zentro sortu berriaren eginkizun nagusia zen “kontzientzia askotan oraindino enbrioi egoeran dagoen espíritu hori maitasun osoz lantzea, hazia baserririk ezkutuenetaraino hel dadin, gure baserritar arduratsuen buruetan ernatu eta fruitua eman dezan”. Helburu hori lortzeko, bertako errepublikanoek “propaganda kanpaina bizia” egitea proposatu zuten, “baliabide apalek ahalbidetzen zuten neurrian, Bizkaiko demokraziaren” laguntzarekin. Kanpaina horren oinarria izango litzateke “berbaldi instruktibo eta politikoak egitea (...)”, ahal den maiztasunarekin⁷⁴⁰.

Mintzaldi horietako lehena Sopolako Zentroaren inaugurazio egunean bertan izan zen, Alderdi Sozialistako hiru kideren kontura: José Calvo, *Algortako Gazte Sozialisten* lehendakaria; Cesar Moja, Leioako zinegotzia; eta Felipe Bizcarrondo, “*Juan Socialista*” ezizenez ere ezaguna. Zentro Demokratikoko buruek iragarri zuten uda hartan “*hainbat ekitaldi*” antolatuko zituztela, baina garai hartako prentsan ez dugu horri buruzko informaziorik aurkitu. Aldiz, *El Liberal* egunkarian bai jaso zen Sopolako zirkuluko zuzendaritzak Gobernuari bidali zion telegrama, Sanjurjo jeneralak abuztuaren 10ean emandako estatu kolpea zapuzteagatik zoriontzeko⁷⁴¹. Are interesgarriagoa da herriko errepublikanoek uztailaren erdialdean Sopolako alkateari aurkeztu zioten eskaera; Lan Poltsa bat sortzeko eskatu zioten, herriko “*beharginen nukleoari*” laguntzeko, “*bizi dugun krisialdi larriaren ondorioz behar barik baitaude*” eta, “*ahal den neurrian, beharrendaren faltagatik etxe askotan sortzen ari den egoera tamalgarría leuntzearen, gosea eta miseria arazo latz bihurtzen ari direnez*”. Instantzia horri esker badakigu Zentro Demokratikoaren lehendakaria Ciriaco Echaiz Expósito⁷⁴² zela, 1914tik 1920ra bitarte Sopolako Udalean zinegotzi izana, eta 1933ko apirilko hauteskundeetan zinegotzi hautatua izango zena. Ez dakigu zuzendaritzako gainerako kideak nor ziren.

739 *Euzkadi* 1934-09-23.

740 *El Liberal* 1932-06-18.

741 *El Liberal* 1932-06-15, 1932-06-18 eta 1932-08-17.

742 BFAH, SOPELA 0035/003, Jasotako korrespondentzia, 1932, Ciriaco Echaizek Sopolako alkateari zuzendutako instantzia, 1932-07-14.

Gorago aipatu dugun Plentziako Kasino Errepublikanoaren kasuan lez, Sopelako Zentro Demokratikoa Elizateko ezkertiar guztiak biltzeko sortu zen, aurrerago ikusiko dugun lez. Beste horrenbeste jazo zen 1932ko irailaren 11n inauguratutako Berangoko Elkarte Demokratikoaren lokalarekin, *El Liberal* egunkarian argitaratu zenez, “ezker asmoko guztiei” bertan lekua ematearren ireki baitzuten⁷⁴³.

1932ko udazkenean Sopelan egindako mintzaldi errepublikanoei dagokienez, bi baino ez ditugu topatu *El Liberal* egunkarian. Lehenengoa urriaren erdialdean izan zen, eta ez zen berez ekintza errepublikano bat izan. “*Nekazaritza kooperatibistaren aldeko propaganda*” egiteko mitina izan zen, *Bizkaiko Abeltzain eta Nekazarien Ermandadeen Federazioak* antolatuta. Antonio Arechavaleta plazan egin zen, eta federazioko lau kidek egin zuten berba: Luis Llona eta Ángel Salvidea euskaraz mintzatu ziren, eta Tomás Aldama eta Antonio Otegui, gaztelaniaz. Ez zen lehen aldia nekazarien elkarte horrek inguruan ekitaldiak antolatzen zituen: martxoaren 13an mitina egin zuen Berangon, apirilaren 17an Urdulizen, eta irailaren 17an ostera ere Berangon⁷⁴⁴. Ekitaldi horiek *El Liberal* egunkarian iragarri izana oso esanguratsua da, hizlariren batek errepublikanismoarekin zuen lotura argi eta garbi adierazten baitzuen. Darío Anselen arabera, Federazioa entitate neutrala zen, politikari bagagozkio, kideen % 80 nazionalista baziren ere, aipatutako Luis Llona bera, esaterako. Hala ere, 1932an, hizlari jeltzale horrek EAJri ohartarazi zion Federazioaren barruan “(...) *elementu sozialisten infiltrazio jarraitua*” jazotzen ari zela⁷⁴⁵. Agian horregatik, Urdulizko ekitaldiaren kasuan, *Euzkadi* berripaperak baserritar guztiei jakinarazi zien “*Federazio horretan agertzen diren pertsonak ez digutela ezelango konfiantzarik ematen, ez ikuspuntu abertzale batetik ezta herriaren interesen aldetik ere*”⁷⁴⁶. Horrek adierazten du, halaber, euskal nazionalismoa prest zegoela laborarien gehiengo zabalean zuen nagusitasuna kolokan jarri gura zuen ahalegin orori aurre egiteko. Inguru hartako errepublikanismoa, nahiz eta gutxiago izan, prest zegoen, antza, gai horretan borroka egiteko: adibidez, 1933ko hasieran, *El Liberal* berripaperetik, berangoztar errepublikanoak “*Sopelako nekazariei*” zuzendu zitzaizkien, jakin zezaten “*Errepublikako Gobernuak eman dizkizuen lege justu eta ekitatiboak*” esker beren baserri eta zelaiez “*Jainkoak agintzen duen moduan*” balia zitezkeela, eta “*zuen soroak askatasun osoz lantzeko*” aukera ematen duten “*legeak dituela gaur egun baserritarrak edo nekazariak*”. Gainera, gogorarazten zen gobernuak aldarrikatutako lege horiek aukera ematen zietela “*zuen bekokiko izerdiz urreztatu dituzuen soro eta baserri horien jabe egiteko*”. Gerta zitekeenez nekazariak lege horien berri ez izatea, esaten zitzaien “*Etxearen Aldezleagana jotzeko, hark guztiaren berri emango dizuelako, geure Baskonia maiteko herritar duinak izan zaitezten*”⁷⁴⁷.

743 *El Liberal* 1932-07-15 eta 1932-09-10.

744 *El Liberal* 1932-03-10, 1932-04-10, 1932-09-16 eta 1932-10-15.

745 ANSEL, Darío: “Los Nekazaris vascos durante la Segunda República” in *XIII Congreso de Historia Agraria. Congreso Internacional de la SEHA, Sesión III: Politización, democracia y mundo real*, 2011, Lleida, 1-31 or. (Oharra: 14., 21. eta 22. or.).

746 *Euzkadi* 1932-04-16.

747 *El Liberal* 1933-01-05.

Gorago aipatu dugun bigarren konferentziara itzulita, 1932ko abenduaren erdialdean egin zen, eta nekazaritzaren gaia izan zuen hizpide. Ekitaldia Sopelako errepublikanoen lokalean egin zen oraingoan, eta *“Arturo España propagandista kultua, Partido Republicano Radical Socialistako Probintziako Batzordeko lehendakaria”* bere alderdi politikoaren idearioaz eta nekazaritzaren arazoaz mintzatu zen. Hain zuzen ere, arazo horretaz egingo zelako berba, zuzendaritza errepublikanoak gonbidapen berezia egin zien *“geure nekazari zuzen eta sufrituei, eurentzat bereziki interesgarria delako bai berba egingo duen hizlariagatik, bai nekazaritza zelako erabili beharreko gaietako bat”*⁷⁴⁸.

1932ko udazken hartan probintzia mailako hiru bilkura ere egin ziren, eta Bizkaian zeuden Zirkulu Demokratikoak bildu ziren. Areetako Zentroaren lokalean izan zen lehen topaketa urriaren 9an, eta bertan izan ziren Sopela eta Berangoko Zirkuluetako ordezkariak gain, Lutxana, Barakaldo, Errekaldebarri, Retuerto, Zorrotza, Olabeaga, Deustu, Larraskitu eta Areetako ordezkariak ere. Bileran hainbat gai landu zituzten, halan zelan *“Zirkulu Demokratikoek duten bizimodua, propaganda, egin beharreko jarduerak, egoera politikoa”*, eta *“bertako propaganda bateratzeko eta elkarri laguntzeko Zirkuluen federazio bat sortzea komeni ote den”* planteatu zen. Gai horiek guztiak Zirkulu bakoitzaren herriko batzarretan aztertuko zituztela erabaki zuten, eta beste bilkura baterako deialdia egin zen, urriaren 16rako. Sopelako ordezkaria ez zen bilera hartan izan, Abeltzain eta Nekazarien Ermandadeen Federazioak antolatutako mitinarekin bat zetorrelako. Bertaratutako ordezkariak jakinarazi zuten beren herriko batzarrak ados zeudela *“Bizkaiko Zentro Demokratiko guztien Federazio bat”* eratzearekin, eta Federazio hori urriaren 30ean Lutxanan (Barakaldo) egindako beste bilkura batean gauzatu zen; Sopelako Zirkuluko ordezkari bat bertan izan zen⁷⁴⁹.

Sopelako Zentro Demokratikoak Batzar Orokor batekin eman zion hasiera 1933. urteari, urtarrilaren 22an. Batzar horretan hainbat gai azertu zituzten: kontuak berrikustea, karguak berritzea eta *“bazkideen definizioa”*; azken gai horri dagokionean, bazkideak alderdi politiko errepublikanoetako bati atxikitzeari buruz aritu ziren. Horregatik, ez da kasualitatea egun hartan bertan herriko **Elkarte Sozialista** eratu izana, eta *“propaganda sozialistako mitina”* ere egin zen, Aurora Arnaiz eta Felipe Vizcarrondo (*“Juan Socialista”*) izanik hizlari. Arnaizek *“Sopelako emakumeei eta, bereziki, une hartan lokalean zeuden emakumeei”* zuzendu zien berbaldia, eta *“beharginaren erabateko emantzipazioaren bidetik”* jarrai zezaten animatu zituen. Hizlari sozialistak *“gogor”* egin zien eraso eskumako alderdiei, emakumeen botoaren alde *“alderdiaren mesedetan soilik”* egin izanagatik, eta bertaratutako emakumeei eskatu zien bozkatzeko *“gogoa eta pentsamendua askatasunean jarrita, aitorlekuan jasotako aholkuak alde batera utzita”*. Vizcarrondok, bere aldetik, UGT sindikatuan afiliatuzera animatu zuen jendea, CNTren eta «Eusko Langileen Alkartasuna» sindikatu abertzalearen taktikak kritikatu⁷⁵⁰.

748 *El Liberal* 1932-12-11.

749 *El Liberal* 1932-10-12, 1932-10-19 eta 1932-11-02.

750 *El Liberal* 1933-01-20 eta 1933-01-21; eta *La Lucha de Clases* 1933-02-02.

Sopeloztar Elkarte Sozialistaren sorrera 1933ko urtarrilaren 20an *El Liberal* egunkarian iragarri bazen ere, Bizkaiko Federazio Sozialistak ez zuen gertaera horren berri izan, antza, handik hiru hilabete ingurura arte. Horren erakusgarri, maiatzaren hasieran, Federazioaren Batzorde Eragileak, “*Sopelan Elkarte Sozialista bat eratu izanaren berri estraofizialki jaso ostean*”, “*Getxoko Elkarteari idaztea*” erabaki zuen, gai horri buruzko informazioa eman ziezaien⁷⁵¹.

Sopelako Elkarte Sozialista sortu zenean herrian beste alderdi politiko errepublikanoren bat ba ote zegoen argituko digun informaziorik ez dugu, baina litekeena da halan izatea⁷⁵². Edozelan ere, Sopelako errepublikanoen lokalean egin zen hurrengo berbaldian ere, martxoaren 12an, militante sozialista bat izan zen hizlari: Pantaleón León, Portugaleteko udal epailea eta Portugaleteko elkarte sozialistako kidea⁷⁵³.

2.2.2.3. 1933: apirileko udal hauteskundeetatik azaroko hauteskunde orokorretara

Herriko politikaz aritu garenean adierazi dugun lez, 1933ko urtarrilaren 6an Gobernuak lege bat onetsi zuen, eta lege horren bitartez kargubakotu ziren 1907ko Hauteskunde Legearen 29. artikulua arabera 1931ko apirilean aldarrikatutako Udalak. Sopelako Udalbatzan kargua utzi zutenen orde, Batzorde Kudeatzaile bat ipini zen herria administratzeko, hauteskundeen bitartez hautatutako Udalbatza berria osatu arte; horrela, bada, beste aukera bat zuen errepublikanismoak Sopelan eta inguruan. Udal hauteskundeen deialdia apirilaren 23rako egin zen. Egun batzuk lehenago, apirilaren 15ean, Acción Republicana, Partido Socialista eta Partido Radical Socialista alderdiek eratutako Hauteskundeetako Batzordeak deialdia egin zien herrialdeko elkarte errepublikanoei –eta tartean Sopelakoari– elkarteetako ordezkari bana Bilboko Kasino Errepublikanora hurbil zedin hauteskunde kanpainarekin zerikusia duten jarraibideak jasotzera⁷⁵⁴.

Apirilaren 16an, Hautesle Erroldaren Udal Batzarrak hautagaiak izendatu zituen. Egun berean mitinak egin zituzten Sopelan, Berangon, Urdulizen edo Armintzan. Sopelan eta Berangon egindako mitinen kasuan, azpimarratzekoa da herri bietan hizlari berberak parte hartu zutela: Ángel Pascual, Acción Republicanako kidea; Eustaquio Cañas, Partido Socialistako kidea; eta Jacinto Montellano, Partido Radical Socialistako afiliatua. Herri bi horietan ekitaldi gehiago ere egin ziren kanpainan; izan ere, zapatuan, hilak 22, mitin bana egin baitzen, eta hizlari hauek hartu zuten parte:

751 *La Lucha de Clases* 1933-05-11.

752 Zentzu horretan, *El Liberal* egunkariaren 1933-02-08ko artikulua batean argitaratutako akats bat aipatu behar da. Artikulu horren arabera, Acción Republicanak Lehen Errepublikaren aldarrikapenaren urteurrena gogoratzeko ekitaldi bat antolatu zen Sopelan, baina, berez, ekitaldia Soperetan izan zen, 1933-02-10eko eta 1933-02-11ko egunkarietan egiazta daitekeenez.

753 *El Liberal* 1933-03-10; eta <https://fpabloiglesias.es/entrada-db/leon-duchement-pantaleon/> .

754 *El Liberal* 1933-04-15.

Luis Aldecoa (Acción Republicana), Aurora Arnaiz (PSOE), Arturo España (Partido Republicano Radical Socialista) eta Victorina Vela (Acción Republicana barruko Unión Femenina Republicana)⁷⁵⁵. Zalantza barik, nabarmentzekoa da emakume bik parte hartu zutela hauteskundeetako ekitaldi horietan.

Zalantza barik, errepublikanismoak dena eman zuen hauteskunde horiei begira, baina Uribe eskualdean lortutako emaitzak oso desberdinak izan ziren. Sopelan eta Berangon hiruna zinegotzi atera zituzten, eta Urdulizen eta Barrikan, ostera, abertzaleen esku geratu zen udal ordezkari osoa. Errepublikanoek Sopelan edo Berangon ateratako emaitza lorpen handitzat baloratu zuten *El Liberal* egunkarian, eta “*hain puntu erreakzionarioetan*”⁷⁵⁶ gutxiengoa lortu izana nabarmendu zuten. Esan lez, hiru hautagai errepublikano izan ziren zinegotzi Sopelako Udalean: Ciriaco Echaiz Expósito, Francisco Galbarriartu Sarria eta Julián Gorostola Uribe. Aurrerago ikusiko dugun lez, zinegotzi horiek oso aktibo jardun ziren kargua hartu eta lehen asteetan, baina ekainaren erdialdean, «*La Lucha de Clases*» astekari sozialistaren Sopelako korrespontsalak herriko Zentro Demokratikoko buruzagiei iradoki zien ez ziotela erne egoteari utzi behar hauteskontzietan lortutako arrakastaren ostean: “*¿Qué hace la Directiva del Centro Democrático después de las pasadas elecciones? ¿Cree que por haber elegido tres concejales está todo hecho? No, compañeros, por ese camino no vamos a ninguna parte*”⁷⁵⁷.

Udal hauteskundeak izan zirenean nazionalisten eta errepublikanoen artean tentsio handia zegoen, eta hauteskundeen ostean tentsioa baretu baino areagotu egin zen. Horrela, bada, 1933ko udaberria oso gorabeheratsua izan zen; berba baterako, maiatzaren 14an, Usansolon, errepublikanoen eta nazionalisten arteko buruz buruko bortitz batek hainbat zauritu ekarri baitzituen alde bietatik, eta hildako bi, tiro trukeen ondorioz: Iñaki San Miguel *gaztetxea* eta Esperanza Zapata, Begoñako Comité Radical Socialista batzordeko lehendakariaren emaztea.

Ez da harritzekoa errepublikanismoa beldur izatea indarkeriazko gertaera horiek inguruko herrietako Zentro Demokratikoen desagerpena ekarriko ote zuten. Errepublikanoek adierazi zuten beldur zirela, “*ezelango babes barik*” zeudenez, elkarreterako kideek “*baja emango ote zuten eta, halandaze, elkarre horiek desagertuko ote ziren*”. Deriba posible hori konpontzeko, Uribe Kostako eta Nerbioi itsasadarreko herrietako errepublikanoek Batzar baten deialdia egin zuten, Berangon, maiatzaren 21erako. Bilkura hartan Sopelako Zentro Demokratikoko ordezkari bat izan zen, eta protesta egin zuten Usansoloko gertakariengatik; eta Errepublikako Gobernuari eskatu zioten “*neurri garrantzitsuak har zitzala Euzko Alderdi Jeltzalearen eta Erregimenaren kontrako gainerakoek mehatxuekin, hertsapenarekin eta pistolismoarekin amaitze aldera*”. Gainera, Batzorde bat sortzea erabaki zen,

755 *El Liberal* 1933-04-15, 1933-04-16 eta 1933-04-20. Victorina Velaren filiazioa: *El Liberal* 1933-03-28.

756 *El Liberal* 1933-04-25.

757 *La Lucha de Clases* 1933-06-15.

Batzorde horren eginkizun nagusia izanik Alderdiarteko Batzordean, UGTn eta “ezkerreko gainerako alderdietan” babesa bilatzea, “herrietako demokrazian” babesa eman ziezaioten⁷⁵⁸. Ez dakigu gestio horiek zer bilakaera izan zuten.

Badakiguna da 1933ko udan Uribe Kostako zenbait herritako errepublikanoek euren antolakundeak birplanteatu zituztela. Berbarako, Plentzian, abuztuaren hasieran, Kasino Errepublikanoko bazkideek alderdi errepublikanoren bati atxikitzeari buruz eztabaidatu zuten, eta botoen gehiengoz, Partido Republicano Radical Socialista alderdiarekin bat egitea erabaki zuten. Erabaki horrek errespetatu egiten zituen Kasinoan egon zitezkeen gutxiengoak eta, horretarako afiliatu kopuru nahikoa izanez gero, euren Batzordeak eratzeko gonbitea egin zitzaion. Handik egun batzuetara, *Berangoko Elkarte Demokratikoan* Plentziako errepublikanoek izan zuten eztabaida berdina proposatu zuten, eta Elkarte batuko ziren hiru antolakundeen hiru Batzordea sortzea erabaki zuten: Elkarte Sozialista, Elkarte Erradikal Sozialista eta Acción Republicanaren Elkarte. Berangoztar sozialistek zituzten afiliatu gehien⁷⁵⁹. Sopolako errepublikanoei dagokienez, ez dugu ezelango informaziorik aurkitu une hartan berrantolatatu ote ziren argitzeko, baina ez dirudi logikoa denik, 1933ko urtarrilean Elkarte Sozialista bat eratu baitzen herriko Zentro Demokratikoan.

Zehazki 1933ko azaroaren 11n, Sopolako lokal errepublikanoan mitin bat egin zuten egun batzuk geroago izango ziren Gorteetarako hauteskundeak zirela eta. Ekitaldian hiru hizlarik parte hartu zuten: Díaz, Barakaldoko Partido Radical Socialista Independiente alderdikoa, Chapartegui eta Felipe Vizcarrondo⁷⁶⁰. Aipatzekoa da *El Liberal* egunkarian Sopolako Zentro Demokratikoa aipatzen den azken aldia dela hori.

Estatu mailan, ezkerreko alderdiek kolpe itzela hartu zuten hauteskunde horietan, eskuma izan baitzen garaile. Deskalabrua handiagoa izan zen Euskadin eta Nafarroan, Gobernuaren neurri antiklerikalek eragina izan baitzuten hain katolikoa zen gizartean. Sopelan, Indalecio Prietok 1931ko eta 1933ko hauteskunde orokorretan jasotako botoak alderatuz gero, gorakada txiki bat badagoen arren (99 boto 1931n, eta 134 boto 1933an), kontuan hartu behar dugu Bigarren Errepublikako Gorteetarako lehen hauteskundeetan herriko hautesle erroldan 298 pertsona zeudela, denak gizonezkoak, eta 1933ko hauteskundeetan, ostera, emakumeek botoa emateko eskubidea baliatu ahal izan zuten, hautesleen guztizko kopurua 520 zen. Halandaze, Sopolan errepublikanoen boto igoera nahiko diskretua izan zela esan dezakegu. Eta ondorio hori are gehiago indartzen da José Horn hautagai jeltzaleak jaso zituen botoen gorakada harrigarria ikusita, 1931n 113 boto jasotzetik 1933an 339 jasotzera igaro baitzen.

758 *El Liberal* 1933-05-24.

759 *El Liberal* 1933-08-06 eta 1933-08-17.

760 *El Liberal* 1933-11-10.

2.2.2.4. 1934-1935: errepublikanismoaren krisialdia

Ezkerreko indarrek Estatu osoan pairatu zuten botere galeraren ondorioz, euren antikerikalismoa eztitu behar izan zuten. Hauteskundeetako porrot horren ondorioetako bat Alderdi Errepublikano Erradikalak jasandako krisialdia izan zen; izan ere, ikusi dugunez, Uribe Kosta osoan elkarte gehien zituen alderdi politikoa zen. Jon Pencheren arabera, 1933ko azaroko hauteskundeen ostean, PRR alderdiko zenbait kidek alde egin eta Partido Republicano Radical Autónomo sortu zuten, ezkertiarra goa, erradikalismoa eskuma aldera egiten ari zen hurbilketaren ondorioz. Faktore horretaz gain, PRRk gobernu ardurak bere gainean hartu izanagatik, alderdia erabat jota geratu zen, kasik desagertzearaino⁷⁶¹.

Ez zen hori izan hauteskundeen porrotaren ostean ezkerreko alderdian izan zen aldaketa bakarra. Madrilen, Madrilen, 1934ko apirilaren 1ean eta 2an, bai Acción Republicana alderdiak, bai Partido Republicano Radical Socialista Independiente alderdiak desagitea erabaki zuten alderdi berri bat sortzeko: **Izquierda Republicana**. Errepublikaren defentsa zen alderdi jaio berriaren xedea, eta prest agertu zen ezkerreko indar politikoekin aliantzak eratzeko. Handik egun gutxira, 1934ko apirilaren 8an, Acción Republicana eta PRRS alderdiko kideek bilkura bat egin zuten Bilbon alderdi biak desagiteko, eta behin-behineko batzorde bat sortu zuten alderdi berria Bizkaian behin betiko eratu bitarte. Anartean, herrietako batzarrak berrantolatu ziren. Adibidez, zenbait egun geroago, Plentziako errepublikanoek, 1933ko abuztuan PRRS alderdiari atxiki ostean, elkarteak desagin eta Izquierda Republicana alderdiari atxikitzeko erabakia hartu zuten. Bestalde, Armintzako PRRSko alderdikideek Plentziako urratsei jarraitu zieten eta, maiatzaren 19an, IR sortu zuten arrantzaleen auzo hartan. IR alderdiaren antolakunde probintziala, berriz, uztailaren 9an eratu zen⁷⁶². Sopolaren kasuan ez dugu horri buruzko informaziorik, baina logikoa da, antza, herriko errepublikanoek Plentziako eta Armintzako kideen urratsei jarraitu zietela pentsatzea. Hipotesi hori berrestearren, aipa dezakegu 1933. urtearen amaieran Udaleko gutxiengo errepublikanoko hiru zinegotziak “*errepublikano ezkertiar*” gisa agertzen zirela⁷⁶³.

Herriko ezkertiarren etxe komunari dagokionez, Sopolako Zentro Demokratikoari dagokionez, zaila da jakitea 1933ko azaroaren hasieratik zer bilakaera izan zuen; izan ere, esan dugun lez, data horretan aurkitu baitugu antolakunde horri buruzko azken erreferentzia *El Liberal* egunkarian. Herriko alkateak 1937ko azaroan emandako informazioaren arabera, “*Zentro Demokratikoa*” izenekoa (...) “*1934. urtearen hasiera aldera desagin zen (...), bertsioen arabera, “bazkideek ez zutelako politikoki definitu gura izan*” eta lokalaren jabeak, José de la Quintanak, “*lokala bilkura horiek egiteko erabiltzeko baimena ukatu zielako*”⁷⁶⁴. Ez dugu lortu desagite hori egiaztatzen duen aurreko dokumenturik aurkitzea, ezta garai hartako prentsan horri buruzko informaziorik topatzea ere.

761 PENCHE GONZÁLEZ, Jon: *Republicanos en Bilbao (1868-1937)*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 2010, 176-179 or.

762 Ibid. 188-191 or.; eta *El Liberal* 1934-04-11 eta 1934-05-23.

763 BFAH, SOPELA 0042/002, Igorritako korrespondentzia, 1933, *Sopolako Udaleko zinegotzien zerrenda*, 1933-12-30.

764 BFAH, SOPELA 0043/004, Igorritako korrespondentzia, 1937, *Sopolako alkateak Bilboko 4 zenbakidun Kapitain Epaiile Bereziari helarazitako ofizioa*, 1937-11-18.

Dena dela, euskal nazionalismoari jazo zitzaion legez, badakigu ezkerreko indarren jarduera galgatuta utzi zuela 1934ko Urriko Iraultzak. Dinamika hori nabarmenagoa izan zen, antza, Sopelan eta beste zenbait herritan, errepublikanoen indarra nahiko xumea baitzen, itxuraz, bederen.

1935eko uztailaren erdialdean, badakigu Sopelan “*elkarte errepublikano*” bat zegoela, eta hori da horri buruz aurkitu dugun berri bakarra. Aurreko lerroetan adierazi dugun lez, antolakunde hori Izquierda Republicana alderdiari lotuta egongo litzateke. Izan ere, aipatutako sopoloztar elkarteak IRko buru Manuel Azañak uztailaren 14an Barakaldoko Lasesarre zelaian eman zuen mitinera joan zen, eta 70.000 lagun inguru bildu ziren. Topaketa horren bezperan, *El Liberal* berripaperaren bitartez, Plentziako elkarteak dei egin zien “*Lemoizko, Gorlizko eta Barrikako alderdikide eta irizkideei*” Lasesarreko mitinera joateko Plentziatik eguerdiko ordu batean irteten zuen trenean. Gainera, erregu egin zitzaian “*Urdulizko, Sopelako eta Berangoko elkartei, tren horrekin bat egin zezaten, antolakuntzari erraztasun handiagoak ematearren eta gure tokiak garaiz okupatzeko moduan heltzearren*”⁷⁶⁵. Horixe da Sopelan Gerra Zibila hasi aurretik IR elkarte bati buruz aurkitu dugun azken erreferentzia.

2.2.2.5. 1936: otsaileko hauteskunde orokorretatik Gerra Zibilaren hasierara

1936ko otsailaren 16ko Gorteetarako hauteskunde orokorren deialdiarekin badirudi zelanbaiteko berpizte bat bizi izan zuela Sopelako eta inguruko ezkerrean eta errepublikanismoaren multzoak, ordura arte ez baitzuten bizi seinalerik ia eman. Adierazi dugun legez, ezkerrek Fronte Popularra blokean bildu eta aurkeztu ziren. Alboko herrian, Plentzian, Fronte Popularraren herriko batzorde bat eratu zen, eta Bizkaiko beste herri batzuetakoarekin batera, otsailaren 5ean Bilboko IRren egoitzan izandako bilkura batean parte hartu zuen, hauteskunde kanpainako propaganda antolatuz. Ez dugu ezelango informaziorik Sopelan ere Fronte Popularraren batzorderik antolatu ote zen jakiteko, baina egun hartan bertan, *El Liberal* egunkarian, María Irazolak –ez dugu haren filiazioaren berririk— dei egin zien “*Larrabasterrako eta Sopelako kideei*” botoa ezkerreko alderdien alde eman zezaten. Handik zenbait egunetara, egunkari berean, Armintzako IRko lehendakariak aitortu zuen arrantzale portu herriko horretan errepublikanoek gorde zuten isiltasunak beharbada pentsarazi ziela halango batzuei ez zirela existitzen, “*denbora honetan guztian bizi seinalerik eman ez dugulako*”, baina ziurtatu zuen “*Armintzan oraindik badela eta izango dela gure Izquierda Republicana elkarte maitea*”, baina onartu zuen gutxiengo zirela, “*lau katutxo*”⁷⁶⁶ zirela esanez.

Fronte Popularraren hauteskunde kanpaina otsailaren 8an heldu zen Sopelara, arrastian. Herriko frontoian, hau da, Kooperatiba Elkartearen frontoian, mitin bat egin zuten eta hiru hizlari jardun ziren: Miguel Basterrechea sozialista eta UGTko kidea, Victorina Vela errepublikanoa eta Arsenio Bueno komunista. Hirurek egun berean beste ekitaldi batean ere parte hartu zuten, Plentziako Cinema aretoan,

765 *El Liberal* 1935-07-13, 1935-07-14 eta 1935-07-16.

766 *El Liberal* 1936-02-05, 1936-02-07 eta 1936-02-08.

goizean. Berangon, egun berean, “*Fronte Popularra osatzen duten alderdietako kide eta zale guztiei*” bilkura baterako deia egin zitzaizen, “*Benito Urangaren taberna-kafetegian*”, hauteskundeetara begira argibideak jaso zitzaizten. Handik gutxira, hilaren 13an, mitin bat egin zen herri horretan, hiru hizlari hauekin: Unión Republicanako Juan Soloaga –euskaraz egin zuen berba–, Izquierda Republicanako Fermín Santos, eta lehen aipatutako Arsenio Bueno⁷⁶⁷.

Ikusi dugunez, Fronte Popularra beste indarrak baino gehiago izan zen Estatu osoan, eta Sopelan, ostera, bigarren geratu zen nazionalismoaren atzetik. Indalecio Prieto hautagai sozialista erreferentetzat hartzen badugu, Sopelan ezkerreko indarrek 1933ko azaroko hauteskundeetan baino boto gehiago lortu zituztela ikus dezakegu, 132 boto jaso baitzituen Prietok orduan, eta 196 botori iritsi baitzen.

Otsaileko hauteskunde orokorren ondoren, ez da Fronte Popularrari buruzko berri askorik eskualdean. Itxura guztien arabera, bozketen ostean, Plentzia bilakatu zen Uribe Kostako ezkerreko mugimenduaren erdigune. Adibidez, martxoaren 14an, dei egin zitzaizen “*Fronte Popularrak Plentzian, Gorkizen eta Barrikan dituen zaleei*” kostaldeko herri horretako “*El Bodegón*” lokalera joan zitezten. Garai hartan, Plentzian Izquierda Republicanaren elkarte bat eta Elkarte Sozialista bat ere baziren, eta azken horretan Gorkizeko eta Barrikako alderdikideak ere biltzen ziren. Jarduera politikoei dagokienez, azpimarragarriena Barrika Bason antolatutako *Langileen Eguna* izan zen, aipatutako antolakunde sozialistak bultzatuta⁷⁶⁸.

Sopelari bagagozkio, aipatu behar dugu *El Liberal* egunkarian kontsulta eginda ez dugula ia informaziorik lortu. 1935eko uztailean ziurrenik Izquierda Republicanari atxikitako antolakunde bat bazegoela egiaztatuta badago ere, 1936ko lehen seihilekoan ez dugu horri buruzko aipamenik aurkitu. Berririk ez dagoenez, pentsa dezakegu garai horretan Sopelan ez zegoela IRren egiturarik jardunean. Tesi horren arabera, litekeena da Elizateko alderdikideak Berangoko IR antolakundearen mende egotea; izan ere, antolakunde horri buruzko aipamen bat aurkitu dugu 1936ko apirilaren erdialdera, Bizkaiko IRren ezohiko batzar orokor baten deialdian. Deitutako elkarten zerrendan daude Berangoko eta Plentziako elkarteak, baina ez da ezelango erreferentziarik egiten Sopelako ezein antolakunde errepublikanori buruz⁷⁶⁹.

Sopelako Elkarte Sozialistari dagokionez, 1936ko udaberrian jardunean zegoen, eta Julio Gallego Gómez zen lehendakari, jorنالaria lanbidez. Idazkari lanetan Fernando Rodríguez Duque aritzen zen, Compañía de los Ferrocarriles de Santander a Bilbao enpresako latorrigilea. Zuzendaritza batzordeko gainerako

767 *El Liberal* 1936-02-08 eta 1936-02-12. Basterrechearen filiazioa hemendik atera dugu: ‘Censo de Represaliados’ de la UGT - ‘Fundación Francisco Largo Caballero’: <https://censorepresaliadosugt.es/s/public/page/home>; Arsenio Buenoren filiazio politikoari buruzko datuak hemendik: *El Liberal* 1931-04-11; Juan Soloagari buruzko datuak: *El Liberal* 1935-11-12; eta Fermín Santosi buruzko datuak: *El Liberal* 1935-12-10.

768 *El Liberal* 1936-03-13, 1936-04-10 eta 1936-04-28.

769 *El Liberal* 1936-04-15 eta 1936-04-16. Deialdian honako elkarte hauek agertzen dira: Abantozierbena, Alonsotegi, Barakaldo, Basauri, Berango, Bilbo, Erandio, Getxo, Muskiz, Plentzia, Portugalete, Trapagaran, Santurtzi, Ortuella, Sestao eta Zamudio.

karguak diruzaina eta bokala ziren, eta kargudunak honako hauek ziren 1937ko otsailean: Luis Zalvidea Menchaca itsasgizona eta Manuel Lugaesaresti Uria hargina, hurrenez hurren. Garai hartan, Sopelako antolakunde sozialistak 13 afiliatu, gutxienez, bazituen. Egokia iruditu zaigu elkartekideen zerrenda hemen aipatzea, Gerra Zibilaren garaia bazen ere⁷⁷⁰. Hauek ziren kideen izenak:

83. TAULA: SOPELAKO ELKARTE SOZIALISTA 1937KO OTSAILA⁷⁷¹			
Kargua	Izen-deiturak	Bizilekua	Lanbidea (1934ko erroldaren arabera)
Lehendakaria	Julio Gallego Gómez	Larrabasterra	Jornalaria
Idazkaria	Fernando Rodríguez Duque	Larrabasterra	Latorrigilea - C ^a de ferrocarriles de Santander a Bilbao ⁷⁷²
Diruzaina	Luis Zalvidea Menchaca	Sopela	Itsasgizona
Kidea	Manuel Lugaesaresti Uria	Sopela	Hargina
Alderdikidea	Lauriano Aguirregoitia Aguirre	Sopela	Ez da erroldan ageri
Alderdikidea	Pedro Aguirregoitia Urrechaga	Sopela	Idem.
Alderdikidea	José M. ^a Aristegui Larrinaga	Sopela	Itsasgizona
Alderdikidea	Juan Badiola Anillo	Sopela	Itsasgizona
Alderdikidea	Julio Basterrechea Videia	Sopela	Jornalaria
Alderdikidea	Juan Echegaray Bilbao	Sopela	Ez da erroldan ageri
Alderdikidea	Gonzalo Julián García Fernández	Sopela	Zizelkaria ⁷⁷³
Alderdikidea	Aurelio Hormaechea Murua	Sopela	Ez da erroldan ageri
Alderdikidea	Manuel Larrazabal Bilbao	Sopela	Idem.
Alderdikidea	Andrés Momoitio Aristegui	Sopela	Idem.
Alderdikidea	Ángel Momoitio Aristegui	Sopela	Idem.
Alderdikidea	Leandro Urriolaveitia Ayo	Bareño-Goiko (Sopela)	Idem.
Alderdikidea	Leandro Zurbano Bilbao	Sopela	Itsasgizona

770 MHDZ, PS Bilbo, 215-22 eta PS Bilbo, Signatura: 0102_019.

771 MHDZ, Funtsa: Servicios Documentales de la Presidencia del Gobierno, Sección Político-Social, Bilbo, Signatura: 0102_019.

772 A.I.M.N., Fondo Bilbao, Kausa: 13210-43.

773 BFAH, SOPELA 0044/002, Igorritako korrespondentzia, 1939, Sopelako alkateak 6. Eskualde Militarren Auditoriako Instrukzioko Epaileari helarazitako komunikazioa, 1939-06-20.

Azkenik, Gerra Zibila hasi aurretik Fronte Popularraren ordezkari bat Sopelan antolatu izanari buruzko informaziorik ia ez dugu aurkitu. Berangon, apirilaren erdialdean, batzorde frontepopulista bat agertzen da dokumentatuta; Sopelan, berriz, balizko antolakunde bati buruzko informazioa beranduagokoa da, ekainaren erdialdekoa, baita nahasi samarra ere: ekainaren 13an, zapatua, Getxoko Fronte Popularrak batzar baten deialdia egin zuen, eta “*Fronteko alderdiak osatzen dituzten kideak*” zeuden deituta. Gainera, bilkura horretara “*Berangoko eta Sopelako ordezkariak batek joan behar zuen*” Getxoko Fronte Popularraren arduradunekin berba egitera. Komatxo arteko goiko esaldi hori irakurrita, ondoriozta daiteke Berangoko eta Sopelako ezkertiarrek Fronte Popularraren batzorde bakarra osatzen zutela eta, bestalde, antolakunde hori Getxoko Fronte Popularraren mende egongo zela ere pentsa dezakegu⁷⁷⁴.

Gerra Zibil bete-betean, Izquierda Republicana ostera ere eratuta zegoen Sopelan; halandaze, Elizateko Fronte Popularraren sartzen ziren Elkarte Sozialista, Izquierda Republicana eta EAE/ANV. Hala ere, 1939ko hasieran Isidoro Zamacona alkateak egindako adierazpenei erreparatuz gero, gerra garaian Sopelan “*Fronte Popularrak osatzen zuten antolakundeen artean indar handiena zuena UGT zen*”⁷⁷⁵. Ziur aski, herriko Elkarte Sozialistari buruz ariko zen alkatea, bertako kide gehienak, ziurrenik, sindikatu horretara afiliatutako langileak eta itsasgizonak izango baitziren. Azkenik, ez dirudi Elizatean Alderdi Komunistaren ordezkariarik eratu zenik, ez gerra aurretik, ez gerra garaian, ez dugunez topatu hori egiaztatzen duen dokumenturik.

2.2.3. Eusko Abertzale Ekintza (EAE/ANV) Sopelan

Gorago adierazi dugun legez, 1930eko azaroaren 16an alderdi nazionalista bien batasuna gauzatu zen Bergarako Batzarrean, baina azaroaren 30ean, sektore erreformistak banantzea erabaki zuen, eta alderdi berri bat sortu zuten: *Eusko Abertzale Ekintza*. Alderdi horren printzipioak ‘*San Andresko Manifestuan*’ jaso ziren eta, besteak beste, akonfesionalitatea defendatzen zuten, baita beste alderdietara hurbiltzeko politika pragmatikoa ere⁷⁷⁶.

1931. urte osoan, alderdi berriak hedapen prozesua bizi izan zuen hasieran, eta hainbat herri batzar antolatu ziren; horien artean Barakaldoko ‘*Euzko Gaztedi*’ nabarmendu zen, ezarpen handia lortu zuelako. Uribe Kostan eta Mungialdean, EAE/ANV Gorlizen, Plentzian eta Marurin eratu zen⁷⁷⁷, eta Sopelan, ostera, ez dugu berririk garai hartan herriko egitura eratu ote zen jakiteko.

774 *El Liberal* 1936-04-23 eta 1936-06-11.

775 BFAH, SOPELA 0044/002, Igorritako korrespondentzia, 1939

776 PABLO, MEES eta RODRÍGUEZ RANZ, 197-199 or.

777 GRANJA SAINZ, José Luis de la: *Nacionalismo y II República en el País Vasco. Estatutos de Autonomía, partidos y elecciones. Historia de Acción Nacionalista Vasca: 1930-1936*, Madril, Siglo XXI, 2008, 60. or.

Zentzu horretan, Elizatean EAE/ANVren existentziari buruzko lehen berriak 1933ko apirilekoak dira, herrian udal hauteskondeak egin ziren garaikoak. Sopelako errepublikanoek bultzatutako hautagai ‘demokrata’ bat EAE/ANVko José María Barrenechea izan zen, baina ez zuen lortu Udalean sartzeari⁷⁷⁸.

Aurrerago, Elizateko gatazkak aztertzen ditugunean ikusiko dugun lez, hauteskundeen egunean Barrenecheak protesta bat aurkeztu zuen Larrabasterrako eskoletan zegoen hauteslekuan, eta salatu zuen botoa emateko garaian “*derrigortzeak eta borondaterik eza jazo zirela hautesleku barruan, zenbait boto emaille botoa ematera behartu baitzituzten beren borondatearen aurka*”. Hauteslekuaren kanpoaldean ere derrigortzeak jazo zirela gaineratu zuen EAE/ANVko hautagaiak⁷⁷⁹.

Euzkadi berripapereko –EAJren berripapereko– berriemaile sopoloztarrak Barrenechearen protestaren berri eman zuen maiatzaren 18an argitaratutako artikuluko batean, eta adierazi zuen Barrenecheak nazionalistek leporatu zizkiela salatutako derrigortze horiek. Informazio horren harira, berripaper jeltzaleko berriemaileak aukera baliatu zuen Barrenechea ANVko kide ote zen zalantzan jartzeko, izan ere, “*haren berbetan, Eusko Ekintzako kide da, baina guk ez dugu sinesten, Barakaldoko Euzko Gazteditik igaro ezean abertzale onengandik ikasteko*”⁷⁸⁰.

1933ko apirileko udal hauteskundeetan EAE/ANVko hautagai bat egon arren, garai hartan ez zegoen EAE/ANVren herriko batzorderik Sopelan. Urte hartako urrira arte itxaron behar izan zen Elizatean herri batzar bat eratzeke, Euskal Estatutuari buruzko plebisituaren babesean, eta Eusko Abertzale Ekintzak gogo guztia jarri zuen Estatutuaren onarpenean. 1933ko urriaren 28an, zapatua, Sopelako Behin-behineko Batzordeak dei egin zien “*herriko afiliatu eta zale guztiei Argaluzea-Barri etxean (Larrabasterra auzoa) biltzeko, Eusko Abertzale Ekintzaren Udal Batzordearen eraketari buruz berba egitearren*”⁷⁸¹.

Adierazi dugun moduan, Euskal Estatutua lortzeak Sopelako Batzordearen osaketa bultzatu zuen, ‘*Ekindarra*’ artikulugileak EAE/ANVren ‘*Tierra Vasca*’ berripapereko orrialdeetan egin zuen deialditik ondoriozta daitekeenez; izan ere, “*Sopelako demokratei, euskaldunak guztiak*” dei egin baitzien Argaluzea-Barriko bilera horretara joan zitezten, “*aberriaren mesederako, Estatutuaren alde, denok bozkatu behar dugulako eta geure herrian aho batez onartzea lortu behar dugulako*”⁷⁸².

778 BFAH, SOPELA 0062/017, *Zinegotzi izateko hautagaien aldarrikatze akta*, 1933-04-16; eta BFAH, ARO0347/009, *1933ko apirilean Sopelako Udalean izandako udal hauteskundeen espediente orokorra*. *Euzkadi* 1933-04-25.

779 BFAH ARO0347/009, *1933ko apirilean Sopelako Udalean izandako udal hauteskundeen espediente orokorra*.

780 *Euzkadi* 1933-05-18.

781 *Tierra Vasca* 1933-10-28, ‘*Desde Sopolana*’. EAE/ANVren egunkariaren ale horretan jakinarazi zen lez, hurrengo egunean (urriak 29) Plentziako EAE/ANVren lokalak inauguratu zituzten: ‘*Euzko Indarra*’.

782 *Ibid.*

Nahiz eta estatutuaren gaineko kontsulta izan EAE/ANVren herriko antolakundeak sortzea eragin zuen pizgarri nagusia, 'Ekindarra' berriemaileak aitortu zuen *"aspaldi da" "Elizate honetan igartzten zela euskal elkarte abertzale baten beharra, orain arte ohituta geunden hertsapen guztietatik libre"*⁷⁸³.

Azaroaren 5eko Erreferendumean Autonomia Estatutua onartu ostean, Eusko Abertzale Ekintza hurrengo hauteskunde orokorrei begira jarri zen, hil bereko 19an izango ziren eta. Batzorde Nazionalak, alderdiaren organo gorenak, agindu zuen herri batzar bakoitzak ezohiko bilkura bat egin zezala hilaren 10ean, alde batetik, kideek eztabaida zezaten EAE/ANVk zer jarrera hartu behar zuen Estatuko hauteskunde horien aurrean; eta, beste alde batetik, Nazio Batzarrerako ordezkaria izenda zezaten, bizkaitarren kasuan azaroaren 11n izango zenez Batzarra, Bilbon. Agindu hori betez, Batzorde sopoloztarrak egun horretarako egin zien dei afiliatuei⁷⁸⁴.

Ez dakigu Sopolako EAE/ANVren bilkurak zer emaitza izan zuen, baina litekeena da hilaren 11ko Bizkaiko ordezkarien batzarrean agertutako jarreraren berdina izatea. Batzar horretan, hiru agertoki posible aurkeztu ziren alderdiak azaroaren 19ko Estatuko hauteskundeetan parte hartzeari begira. Lehena, gehiengo onartua, alderdi politikiko bakar bat ere baztertzeko ez zuen hauteskunde koalizio bat bilatzean zetzan. Aukera horrek aurrera egiten ez bazuen, bigarren aliantza bat planteatu zen EAJrekin eta Partido Radical alderdiarekin, eta ordezkarien gehiengoak bat egin zuen proposamen horrekin ere. Azkenik, hirugarren aukera bat planteatu zen: EAJrekin soilik egitea koalizioa, eta aho batez onartu zen. José Luis de la Granjak dioenez, *"1933ko azaroan, EAE/ANVren afiliatuak EAJrekin aliantza egitearen aldekoak ziren, baina prest zeuden horri uko egiteko Gorteetan Euskal Estatutua onartzea ahalbidetuko zuen hauteskunde koalizio baten alde, hori baitzen alderdiaren helburu nagusia"*⁷⁸⁵.

Estatutuaren aldeko fronte bakarraren aukerak porrot egin zuen, ezinezkoa zenez hauteskundeetarako akordio bati eustea *"hain desberdinak eta aurkakoak ziren indarren artean, hau da, tradizionalisten, nazionalistak, errepublikanoen eta sozialisten artean"*. Planteatutako beste koalizio bi posibleen aukerak ere txarto irten ziren, De la Granjaren ustez, *"EAJk ez zuelako hauteskunde aliantza bat lortzeko borondaterik izan"*, eta EAE/ANVri egotzi zioten *"erradikalekin eta katolikoekin zituen akordioak apurtu izanaren errua"*, nahiago izan zuelako *"hauteskundeetara bakarrik aurkeztea, Estatutuaren berriki lortutako arrakastari etekin handiena ateratzeko"*. Bizkaian, EAE/ANVk ez zuen hautagairik aurkeztu, eta alderdikideei gomendatu zieten botoa EAJri emateko, lehen aipatu dugun *"fronte abertzalea osatzeko interes handia zuela baieztatuta"*⁷⁸⁶.

783 Ibid.

784 *Tierra Vasca 1933-11-08 eta 1933-11-10.*

785 GRANJA, 418-420 or.

786 Ibid., 421. or.

Hauteskunde orokorren egunean, Barakaldoko *Euzko Gaztedi* egoitzan sozialisten eta nazionalisten arteko tiroketa jazo zen, eta Hermenegildo Alvariño, ANVko alderdikidea, larri zauritu zen; azkenean, hil egin zen⁷⁸⁷. Alvariñoren familiari laguntzeko, herri harpidetza bat antolatu zuten; eta *Tierra Vasca* egunkariak horren berri eman zuen, egindako ekarpenak aipatuta. Besteak beste, 1934ko otsailaren 1eko edizioan, emaileen zerrenda bat argitaratu zen, Sopolako 'Euzko Etxea'ri emandako diru kopuruekin batera; azkenean, 22 pezeta batu zituzten. Aipatzekoa da EAE/ANVren antolakunde sopoloztarraren jarduera hori baino ez dugula topatu 1933ko azaroan egindako Estatuko hauteskundeen ostean. Hona hemen Emaileen eta emandako kopuruen zerrenda⁷⁸⁸:

84. TAULA: SOPELAKO EUZKO ETXEAK ALVARIÑOTARREN ALDE EGINDAKO HARPIDETZA (1934-02-01)	
Emailea	Emandako dirua
R. Esesumağa	0,50 zentimo
J M Barrenetxea	Pezeta 1
J. Larrondo	Ibid.
V. Ortiz de Zárate	2 pezeta
J. Sans	0,50 zentimo
F. Momoitio	Ibid.
M. Larrazabal	Ibid.
J M Ibarra	Ibid.
J.L. Torrontegui	Pezeta 1
J. Curpión	0,50 zentimo
J. Larrazabal	Ibid.
J. Bilbao	Ibid.
J.D. Uriarte	Pezeta 1
J. Garaizar	Ibid.
P Saitua	Ibid.
XX	3 pezeta
C. Zurbano	1,50 pezeta
A. Bilbao	Pezeta 1
E. Aguirregoitia	2 pezeta
J. Larrondo	0,50 zentimo
M. Mandaluniz	2 pezeta
Guztira	22 pezeta

787 Ibid., 350. eta 445. or.

788 *Tierra Vasca* 1934-02-01. Zerrendan 'J. Larrondo' ageri bi dira. Gerra Zibil bete-betean 'Tierra Vasca' berripapera argitaratzen jarraitzeko laguntza eman zutenen zerrenda txiki bat argitaratu zelako, badakigu inizial horiek Justo eta Juan Larrondori dagozkiela (*Tierra Vasca*, 1937-02-09).

Zerrendan, 21 deitura agertzen dira, izenaren inzialekin batera; datu horiei esker, badakigu, alde batetik, Sopelako EAE/ANVko afiliatuak daudela, halan zelan 1933ko udal hauteskundeetan zinegotzi izateko hautagai aurkeztu zen José María Barrenechea, gerora zinegotzi izan zen José María Ibarra, edo Justo Larrondo, ikusiko dugun legez, 1936ko otsailen herriko elkarteko Zuzendaritzako kide izango zena. Bestalde, Elizateko jeltzale ezagunek ere egin zituzten dohaintzak, halan zelan Constantino Zurbano alkateak, Pedro Saitua zinegotziak edo Elías Aguirregoitiak, 1935eko urtarrilean EAJren Uri Buru Batzarreko diruzain izendatu zutenak. Zerrenda horretan herriko euskal nazionalista garrantzitsuak agertzeak esan gura du garai hartan, Sopelan, jeltzaleak eta EAE/ANVko kideak ez zirela txarto moldatzen, Alvariño koitaduaren senideekiko elkartasunaren erakusgarri izateaz gain.

1936ko otsailera arte, aurrerago ikusiko dugunez, ez dugu izango Sopelako EAE/ANVren antolakundeari buruzko beste berririk. Apur bat lehenago, urtarrilaren hasieran, Gorteak desegin zituzten eta hauteskundeak deitu ziren otsailaren 16rako. José Luis de la Granjak dioenez, Eusko Abertzale Ekintzaren Batzorde Nazionalak, kideen gehiengoa ezkertiarak izanik, ez zuen ezkututzen gurago zuela ezkerreko indarrekin bat eginda aurkeztu hauteskundeetara, beti ere hauteskundeetan garaila irteten baziren euskal Estatutua onartzeko baldintzapean⁷⁸⁹.

Fronte Popularraren (FP) batutako ezkerrek programan txertatu zuten *“Konstituzioan jasotako printzipio autonomikoak”* garatzeko konpromisoa. Promesa horrekin pozarren, EAE/ANV Fronte Popularraren hautagaitzetan txertatu zen Gipuzkoan, Araban eta Nafarroan, baina ez Bizkaian, ez baitzen akordiorik lortu, alderdiaren lurraldeko antolakundearen asmoa zelako EAE/ANVren hautagai bat aurkeztea FPko zerrendetan Bilboko barrutiari dagokionean. Hori posible ez balitz, beste aukera bat proposatu zuten: *“FPri eskatzea probintziako barrutirako hautagai bakar bat aurkez zezan”*, eta hori ere lortzen ez bazen, *“afiliatuei boto askatasuna emateko”* aukera aztertuko zuten⁷⁹⁰. Azkenik, urtarrilaren 26an, EAE/ANVko Bizkaiko ordezkarien batzarrak akordioa lortu zuen Fronte Popularrarekin, baina ez zuen lortu ezkerreko indarren hautagaitzan sartzeari, orduko osatuta baitzeuden hautagaien zerrendak. Egoera horretan, otsailaren 9an, hauteskundeetan hautagairik ez aurkeztea erabaki zuen Bizkaiko batzarrak, alderdikideei boto askatasuna utzita. Afiliatuek Fronte Popularrari edo EAJri eman zizkioten botoak⁷⁹¹.

Eusko Abertzale Ekintzak ezkerraldera egindako norabide aldaketa nabarmena alderdiak garai hartan zuen komunikazioko organoak bultzatutako kontsulta baten bitartez ebaluatu zen: *Acción Vasca* astekariak alderdikideei eskatu zien adierazteko ados zeuden ala ez argitalpenaren norabide politikoarekin. De la Granjak dioenez, 1936ko otsailetik martxora bitarte herri batzarretatik jasotako erantzunen arabera, *“Acción Vasca”* astekariaren ildo editorialarekin erabat ados zeuden, eta horrek babes handia eman zien alderdia berritzeke⁷⁹².

789 GRANJA SAINZ, 557. or.

790 Ibid., 558-561 or.

791 Ibid., 561-562 or.

792 Ibid., 611-612 or.

Sopelako EAE/ANVko antolakundearen erantzunak 1936ko otsailaren 26ko data du, eta 'Acción Vasca' astekariaren ildoaren aldekoa izan zen. Salamancako Memoria Historikoaren Dokumentazio Zentroan gordetako gutun horretan, José María Barrenechea, Justo Larrondo eta Antonio Aizpururen baiezko botoen berri jasotzen da; hiru horiek osatzen zuten, ustez, Sopelako EAE/ANVren Zuzendaritza Batzordea garai hartan⁷⁹³.

Aipatu behar da Salamancako artxibo horretan data bako dokumentu bat ere gordetzen dela, hainbaten Gerra Zibila baino lehen egindakoa; dokumentu horretan, EAE/ANVko herriko batzordeetako zuzendaritzako kideen izenak jasotzen dira, eta haiei bidali behar zitzaizkien "*herriko ohiko nahiz ezohiko batzarren*" Gorteetarako deialdiak. Sopelaren kasuan, San Andres auzoko 'Etxe Chiqui' etxean bizi zen Eduardo Gómezi bidali behar zitzaizkion deialdi horiek⁷⁹⁴.

Gerra Zibil bete-betean, aurrerago ikusiko dugunez, José María Ibarra Aldecoa, Sopelako ANVko kidea, Elizateko Udaleko zinegotzi izendatu zuten 1936ko azaroaren 23ko gauean, EAE/ANVko ordezkariaren eta Izquierda Republicana eta PSOE alderdietako herriko antolakundeetako ordezkarien artean luze eztabaidatu ostean. Ibarra izendatuta, udalean hutsik zegoen kargua bete zen, eta azaroaren 29an hartu zuen ofizialki zinegotzi kargua⁷⁹⁵.

Azkenik, esan behar da ez dugula ezelango daturik aurkitu EAE/ANVk Sopelan izan zuen afiliatu kopuruari buruz eta, halandaze, ezin dugu baloratu herrian zenbaterainoko ezarpena izan zuen. Ez zuen kopuru aipagarririk lortu behar, kontuan hartzen badugu herriko agintari frankistek ez zutela aipatu ere egin EAE/ANVren herriko antolakundea, Bigarren Errepublikan eta Gerra Zibilean Elizatean egon ziren alderdi politikoei buruzko informazioa eskatu zitzaientean.

2.2.4. Estatuko eskumak Sopelan

Bloke honen hasieran adierazi dugun lez, ez dirudi Estatuko eskumek Sopelan ezelango elkarterik osatu zutenik; dena dela, komenigarria iruditu zaigu estratu politiko horri atal bat eskaintzea, 1933an eta 1936an egindako hauteskunde orokorretan herriko zenbait hautesleren babesa jaso zutela kontuan hartuta.

Gogoan izan ideologia kontserbadoreko erakunde politiko bat eratu zela Sopelan Errestaurazio garaian. Zehazki, 1912ko martxoan *Sopelako Batzorde Kontserbadorea* eratu zen, Bizkaiko Alderdi Kontserbadorearen (1909-1913)

793 MHDZ, PS Bilbo, 0191/023.

794 MHDZ, PS Bilbo, 0130/009. Dokumentuan Iruñeko eta Gasteizko herriko batzordeen posta helbideak agertzen dira; halandaze, pentsa dezakegu idazki hori Gerra Zibila hasi baino lehen igorri zela.

795 BFAH, SOPELA 0044/003, Igorritako korrespondentzia, 1936, Sopelako alkateak Euzkadiko Toki Administrazioko zuzendari nagusiari igorritako ofizioa, 1936-11-23; eta *Sopelako alkateak Euzkadiko Toki Administrazioko zuzendari nagusiari igorritako ofizioa*, 1936-11-29.

herriko filiala, Fernando María de Ibarra izanik buru. Sopolako kontserbadoreek *Aranoa* etxean finkatu zuten egoitza, José de la Quintanaren tabernan, berau baitzen herriko *Batzorde Kontserbadorearen* idazkaria⁷⁹⁶.

Ikusi dugunez, Pantaleón Trifol izen zen antolakunde kontserbadore hartako lehendakari. Hemeretzi urte geroago, 1931ko apirilean, Sopolako Udaleko zinegotzi izendatu zuten, garai hartan indarrean zegoen Hauteskunde Legearen 29. artikulua araberak; hartara, ez zen udal hauteskunderik egin beharrik. *Euzkadi* berripaperaren 1931ko apirilaren 14ko edizioan, Sopolako Udaleko zinegotzien filiazio politikoari buruzko datuak argitaratu zituzten: zinegotzi bi monarkiko zeuden, eta gainerako zazpiak abertzaleak ziren⁷⁹⁷. Informazioan izen-deiturarik aipatzen ez bazen ere, berripaper jeltzaleak monarkikotzat jo zituen zinegotzi biak, zalantza barik, Antonio Arechavaleta eta Trifol bera ziren, alkatea eta lehen alkateordea, hurrenez hurren, nahiz eta Udalaren gehiengo osoa abertzalea izan. Arechavaletaren kasuan, esan dugun legez, herrian itzal handiko gizona zen, ongintzako ekintzengatik, eta horrek alkate izateko bidea erraztuko zion. Zelan edo halan, gerora Arechavaleta eta Trifol zinegotzi “*independente*” gisa aurkeztu ziren. Adierazi dugun lez, zinegotzien filiazio politikoetan horrelako aldaketak euskal lurralde gehienetan jazo ziren, erregimen errepublikano berrira egokitzeko edo erregimen berriarekin bat egiteko asmoz.

Errestaurazioaren garaiko azken urteetara atzera eginez, komeni da gogoratzea monarkikoak *Liga Monarkikoaren* inguruan antolatu zirela, ederto antolatu ere, baina ez zen masa alderdi bat izateko pentsatu, ezpada “*industria gizon handiekin lotutako (...) handikiena*”, eta “*euren eragin eta diru guztia*” erabili zuten euskal nazionalistak garaitzeko. Primo de Riveraren diktaduraren ezarpenak eta garapenak desaktibatu egin zuen monarkikoen multzoa, *Unión Patriótica* ezarri baitzen erregimenaren alderdi bakartzat, eta Administrazioan karguren bat betetzen zuen oro alderdi horretan afiliatu behar zen. 1930eko urtarrilean Primo de Rivera jausi zenean, monarkikoak erabat desantolatuta zeuden eta egoera horretan iritsi ziren 1931ko apirilean egin ziren udal hauteskundeetarako deialdira. Hauteskunde haiei begira, monarkikoek eta tradizionalistek *Candidatura de Concentración Monárquica y de Derechas* sortzea erabaki zuten, sektore katoliko eta eskumako guztiak atzera ere elkartu guran. Hala ere, helburu hori ezin izan zen bete nazionalistek eta tradizionalista jaimistek euren hautagai zerrendak aurkeztu zituztelako. Horregatik, katolikoak beharturik egon ziren botoak aukera guztien artean sakabanatzera. Monarkikoen hautagaitzak emaitza oso irregularrak atera zituen Bizkaian, eta nolabaiteko nagusitasunari eutsi zion probintziako landa eremuan, 6.000 biztanle baino gutxiagoko zenbait herritan, monarkikoen kontrolpeko kazikismoaren sare tradizionalak bizirik zirauten seinale⁷⁹⁸.

796 *El Pueblo Vasco* 1912-03-20.

797 *Euzkadi* 1931-04-14.

798 REAL CUESTA, Javier: “*Los partidos monárquicos en Vizcaya durante la Segunda República*” in *Estudios de Deusto*, 57/1 liburukia, Bilbo, 2009 urtarrila – ekaina, 209-235 or., (aipamena: 214-215 or.); eta REAL CUESTA, Javier: *Partidos, elecciones y bloques de poder en el País Vasco 1876-1923*, Bilbo, Deustuko Unibertsitatea, 1991, 215-218 or.

Lehenago esan dugun legez, 1931ko maiatzean udal hauteskundeak errepikatu ziren zenbait herritan, eta emaitza orokorrak agerian utzi zuen zelan desagertu ziren zinegotziak, lehendik ataripe monarkikoaren azpian edo independente moduan aurkeztu ostean, haietako asko nazionalismoan edo errepublikanismoan txertatu ziren aldetik. Hori nahikoa ez izan eta, beste kolpe batek jarri zuen kolokan monarkikoek oraindik zuten botere apurra: apirilaren 21ean, euren kontrolpean zituzten Probintzietako Aldundiak kargugabetu zituzten, eta behin-behineko Batzorde Kudeatzaile ezarri ziren arren, Bigarren Errepublikak iraun zuen denbora guztian eutsi zitzaien⁷⁹⁹. Egoera horretan, euskal sektore monarkikoak ez zuen lortu 1930eko hasieratik jasaten ari ziren zatiketa eta batasunik eza gainditzea, eta horrela jarraitu zuten 1933ko hasierara arte, *Renovación Española* eratu zen arte; aurrerago helduko diogu gai horri.

Bigarren Errepublikaren hasierako hilabeteetan monarkikoek Sopelan bizi izan zuten egoerari dagokionez, *Euzkadi* berripaperean argitaratutako datuen arabera, herriko dinastikoek ere egoera politiko berrietara egokitzea erabaki zutela. Horrela, bada, 1931ko ekainaren amaieran, *Zabal-Alda* berriemaileak “*lehen monarkiko zarratuak*” ziren “*kazikeak*” aipatu zituen, eta erregimen errepublikanoarekin bat egin gura izatea leporatzen zien, Primo de Riveraren diktaduran bete zituzten karguetan agertu zituzten portaerak errepikatzeke. Artikulugilea, logikoa denez, 1923tik 1930ra bitarte toki administrazioa bideratu zuten Udalbatzetako kide ohiez ari zen, izen zehatzik aipatzen ez zuen arren⁸⁰⁰.

Handik hilabetera, *Sopelanatarra Bat* goitizena azpian ezkututzen zen kronista anonimo batek 1923tik 1926ra bitartean herriko alkate izan zen José de la Quintana merkataria ibilbide politikoa laburbildu zuen artikuluan batean. Quintana Sopelan XX. mendearen hasieran iritsi zen Sopelara, eta ostalaritzako negozio bat ireki ostean, buru-belarri aritzen zen bertan. Denbora bat igaro ondoren, artikulugile ezezagunaren arabera, “*jaun hau, arrotza herrialdean*”, “*egunez egun euskalduntasunaren aurka jardunean ari direnekin*” ibiltzen hasi zen. Kontakizunaren arabera, merkataria, “*boteretik kendutako monarkiaren babesean, hazi egin zen, autoritate bilakatu zen, eta lehen kargua bete zuen diktadura garaiko aldi jakin batean*”, eta “*bere establezimendua orain herrian elkarbitzen egon ezin direnen bilgune eta zentro*” bihurtu da. Alkate ohiaren lokalera maiz joaten zirenei dagokienez, *Sopelanatarra Batek* salatu zuen “*apirilaren 14ra arte erabat monarkiko izan ziren horiek errepublikanoen aldera pasatzeko ezelango eragozpenik ez zutela izan*”⁸⁰¹.

799 REAL CUESTA, Javier: *Partidos, elecciones y bloques de poder en el País Vasco 1876-1923*, Bilbo, Deustuko Unibertsitatea, 1991, 218-219 or.

800 *Euzkadi* 1931-06-30.

801 *Euzkadi* 1931-07-30.

Bigarren Errepublikaren lehen garaian, José de la Quintanaren lokalak topaleku politiko izaten jarraitu zuen. Hori ondoriozta daiteke *Sopelanatarra Batek Euzkadi* berripaperean idatzitakoa irakurrita; izan ere, “*establezimendu horren jabeari eta bere seme-alabei, lagunei eta lagun ez diren beste batzuei*” ohartarazi zien axolabako ager zitezen eta “*herriaren borondatea*” errespetatzen⁸⁰².

1934ko irailean egunkari berean argitaratu zen beste artikulua baten arabera, Errepublika iritsi zenean, Quintana erregimen berrira pasatu zen “*armak eta jakintzak hartuta (...), bertakoen eta arrotzen harrigarri*”. Kontakizunak zioenez, Quintanaren ideologia aldaketa ideologikoa erabatekoa izan ei zen eta, halandaze, aurreko orrialdeetan azaldu dugun lez, 1932ko ekainean Sopelako errepublikanoek euren *Zentro Demokratikoa* alkate ohiaren lokalean eratzea onartu zuten. Antza, Elizateko errepublikanoentzat lokal bat bilatzeaz arduratu zen Batzordeak topatutako aukera bakarra izan ei zen, “*eragozpen*” aurka borroka egin ostean, eta *El Liberal* egunkariko orrialdeetan argitaratu zuten, “*herriko kazikeek jarritako traben*” ondorioz⁸⁰³.

1932ko ekainean *El Liberal* egunkarian aipatzen ziren “*kazike*” horrek nortzuk ziren jakin beharko genuke. Agian, herriko nazionalistei buruz ari ziren, errepublikanoen arerio politiko nagusiak ziren aldetik, zeren, urtebete lehenago, ikusi dugun lez, Quintanaren eta bere inguruaren aurka azaldu baitziren publikoki. Baina ezin dugu baztertu agian herriko monarkikoei buruz zirela. Zentzu horretan, 1931ko irailaren hasieran, aipatutako *El Liberal* egunkarian idazle ezezagun baten, “*baserritar baten*” artikulua bat agertu zen, “*diktadura garaiko kazike ohi*” bat izaten ari zen jarrera salatzeke, baina izenik eman barik. Idazkiaren protagonista nor izan zitekeen espekulatzeko moduko datu biografikorik ere ez zuen aipatu, baina berriemaile anonimoa, antza, diktadura garaian udalean kargudun izandako norbaiti buruz ari da, eta erregimen errepublikanoa iritsi zenean egoera berrira ideologikoki aldatu ei zen. Zentzu horretan, “*kazike ohiari*” leporatu zioten “*komeni zitzaionaren arabarako politikari*” jarraitzen ziola eta “*herria pozoitu besterik ez zuela egiten*”, eta ohartarazi zioten “*orain, badakigunez zelakoa den, saiatzen den guztia alferrikakoa izango da*”⁸⁰⁴.

1933ko apirileko udal hauteskundeetan, ikusi dugunez, hautagaitza bi izan ziren aurrez aurre: nazionalista eta errepublikanoa, azken hori “*hautagaitza demokrata*” izenarekin. Errepublikanoen zerrenda osatzen zuten izen gehienak korrante ideologiko horrekin erabat identifikatzen baziren ere, horietako bat, Santiago Ostolozaga, monarkikoa izan zen iraganean, Primo de Riveraren diktaduraren amaieran zinegotzi izan baitzen. Ostera izan zuen ibilbidea ikusita, Ostolozaga kontserbadoretzat har daiteke; izan ere, 1934ko irailean Batzorde Kudeatzaileko zinegotzi izateko proposatu zuten (Batzordea ez zen sortu) eta 1939an zinegotzi izendatu zuten⁸⁰⁵.

802 *Euzkadi* 1931-07-30.

803 *El Liberal* 1932-06-15; eta *Euzkadi* 1934-09-23.

804 *El Liberal* 1931-09-06.

805 *Euzkadi* 1933-04-25.

Lehen aipatutako José de la Quintana erabat inplikatu ei zen herriko hautagaitza errepublikanoarekin, *Euzkadi* berripaperean argitaratutako informazio baten arabera. Idazkian zioenez, merkatariak, hauteskunderen egunean, “*otana, bakailaoa eta beste gauzatxoren bat*” banatu zituen “*bere boto emaleen*” artean. Bestalde, artikuluan, Sopolako Udaleko zinegotzi izandako Isidoro Zamaconak Primo de Riveraren diktadura garaian, 1926tik 1930era bitarte, jokatu zuen papera ere aztertu zen, lehendik ere hautagai monarkikoa izan baitzen 1920ko otsailean Getxoko Areetako Barrutian. Berripaper jeltzaleak salatu zuenez, Zamaconak, hauteskunderen bezperan, “*botoa demokraten alde emateko aholkatu zien bere aita politikoaeren maizterrei*”, eta hauteskunde egunean bere autoa eskaini ei zuen boto emaleak botoa ematera eroateko⁸⁰⁶.

Ikusi genuenez, 1933ko azaroan izan ziren Gorteetarako hauteskundeetan, eskumen blokea hirugarren indarra izan zen Sopolan. Herriko 45 hauteslek (gutzizkoaren % 6 pasatxok) hautagai kontserbadoreen alde egin zuten: *Renovación Española* alderdiko María del Pilar Careaga, Luis Lezama-Leguizamon eta Hermógenes Rojo tradizionalistak, eta Adolfo González Careaga monarkiko independentea. Horrenbestez, egun hartan, Sopolako hautesleek Estatuko kontserbadoreei emandako babesa oso txikia izan zen.

Azaldu dugun moduan, José de la Quintana eta sopoloztar errepublikanoen arteko idilioa 1934ko hasieran amaitu zen, antza, *Zentro Demokratikoa* desegin zenean. Sopolako alkateak 1937ko azaroan jakinarazi zuenez, zentro errepublikanoa desegiteko arrazoiak izan ziren “*bazkideek ez zutela politikoki definitu gura izan, eta bilkura horiek egiteko lokala ukatu izana*” jabeak⁸⁰⁷.

Quintanaren ezezkoa merkatariaren beste ideologia aldaketa baten ondorio izan ei zen, eta horrek berretsi egiten du 1934ko irailaren erdialdean *Euzkadi* berripaperean argitaratutako kronika, non Sopolako egoera politikoa aztertu baitzen, *Ardoaren Estatutuaren* gatazkaren ondorioz hil bereko 7an Udalak dimisioa eman ostean. Izenik aipatu barik, baina datu oso zehatzak emanda, artikulugile anonimoak elementu “*monarkizatzailetzat*” deskribatu zituen Quintana eta Zamacona, “*egin behar ez direnak ere egiten*” hasi zirelako “*etsipenez oroitzen zuten euren Monarkiaren alde*” lanean hasteko. Esaldi horiek idatzi baino lehen, berriemaileak gogoratu zuen Errepublika aldarrikatu ostean, biak ala biak “*armak eta jakintzak hartuta pasatu zirela erregimen eratu berrira*”. Esan dugun legez, badirudi Quintana ezkerreko ideietara hurbildu zela, aldaketa horren adierazgarri izanik herriko errepublikanoen egoitza bere establezimenduan hartu izana. Zamacona sozialismoarekin lotu zen, honela: “*ez zen geldirik egon, eta bere ezagumen, hau da, bere buru izugarriarekin, Marxen doktrinak predikatzen zituen, jakina, bere erara, milioidun izateko bidean baitoa, eta hori zorigaitza izan zen sozialistentzat*” Sopolan⁸⁰⁸.

806 *Euzkadi* 1933-05-18; eta *Obrero Vasco* 1920-02-14.

807 BFAH, SOPELA 0043/004, Igorritako korrespondentzia, 1937, *Sopolako alkateak Bilboko 4 zenbakidun Kapitain Epaiile Bereziari helarazitako ofizioa*, 1937-11-18.

808 *Euzkadi* 1934-09-23.

Artikulan aipatu zen sozialismoarekiko ustezko loturaren oinarria, nahiko ironikoki azaldu zen lotura horren oinarria izango zen, ziurrenik, Zamacona 1930eko martxoan sortutako Sopelako *Kontsumoko Kooperatiba Elkarteko* presidente zela. Hala ere, *Kooperatibak* joera katolikoa zuen argi eta garbi; izan ere, 1935eko ekainaren amaieran *Elkartearen* eraikin berriaren inaugurazio ekitaldietako bat izan baitzen San Pedro parrokiaren kantatutako Meza bat egitea eta, gero, lokalak bedeinkatzea⁸⁰⁹.

Dena dela, Gobernadore Zibilak 1934ko azaroan izendatutako Batzorde Kudeatzailean parte hartu zuen Zamaconak, irailaren hasieran dimisioa aurkeztu zuten zinegotzi hautetsien ordeiz. Zinegotzi gisa egindako lanari buruz aurrerago jardungo gara, herriko gatazkak aztertzen ditugunean.

Esan lez, 1933ko hasieran *Renovación Española* (RE) sortu zen euskal eskumaren eskutik. Handik gutxira, martxoan, *Confederación Española de Derechas Autónomas* (CEDA) sortu zen Estatu mailan, erregio eremuko eskumako alderdi multzo bat elkartuta, eta Estatuko indar eskumati garrantzitsuena bihurtu zen, *masa alderdi* bat izateraino. 1933ko azaroko hauteskundeetarako, CEDAk koalizioa osatu zuen zenbait alderdirekin, besteak beste Renovación Españolarekin; Bizkaian, Renovación Españolak ahaleginak egin zituen EAJ bloke kontrairaultzailean sartzeko, alderdi biek partekatzen zuten katolizismoaren izenean, baina ahalegin horiek porrot egin zuten. Handik aurrera antiseparatismoa sartu zuten euren programan. Ostera, tradizionalistenganako hurbilketak hautagai zerrenda bateratua ekarri zuen, hautesbarruti bi hauetan: *Bizkaia-Hiriburua* eta *Bizkaia-Probintzia*. Ikusi dugunez, EAJ izan zen euskal lurraldeetan garaile, baina, Estatu mailan, eskumako koalizioa beste indarrak baino gehiago izan zen bototan, eta 115 diputatu lortu zituen. Zenbaki horrek, ostera, ez zien bakarkako gobernu osatzeko aukerarik ematen. Horregatik, CEDAk sostengua eman zion Partido Radical alderdiko buru Lerrouxek osatutako Gobernuari, eta ezkerreko gobernuak abiarazitako erreformak geldiaraztea onartu behar izan zuten; halandaze, aurrera egin barik geratu ziren nekazaritzaren, armadaren eta hezkuntzaren erreformak⁸¹⁰.

CEDAREN planteamendu nagusietako bat legeria errepublikanoaren onarpena zenez, printzipio horrek eskuma monarkiko eta karlismo gero eta erradikalizatuagotik bereiztea ekarri zuen. Modu horretan, aurreko urteko azaroko hauteskundeetarako eraikitako hauteskunde koalizioa 1934ko maiatzean apurtu zen. Urriko Iraultzaren ostean, CEDA Gobernuan sartu zen, eta *Renovación Española* eskuma muturreko alderdi minoritario baten itxura hartu zuen⁸¹¹.

809 BFAH, SOPELA 0054/004, *Sopelako herritarrek 1930eko ekitaldi ekonomikoan aurkeztutako kontribuzio industrialaren alta eta baja aitortpenak*; BFAH, SOPELA 0073/008, *Sopelako Udalak izapidetutako espedientea, Isidoro Zamaconak herriko Kontsumoko Kooperatiba Elkartearen izenean aurkeztutako instantzia bategatik; instantzia horretan, Moreaga auzoko bere jabetzako lurretan eraikin bat eta frontoi bat eraikitzeke baimena eskatzen du, 1934; eta La Gaceta del Norte, 1935-07-28.*

810 REAL, 225-226 or.

811 Ibid., 227. or.

Egia esan, *Renovacion Española* ez zen gai izan gizartearen maila zabalagoetara iristeko, eta Bizkaiko oligarkia dinastikoetan baino ez zen zabaldu. Horrenbestez, estrategia aldaketa bat aplikatu beharra zuten sektore moderatuak erakartzeko. Hori dela eta sortu zuten *Unión Vascongada* (UV), eta lehenengo zirkulua Karrantzan ireki zuten, 1934ko maiatzaren 31n⁸¹².

Alderdi kontserbadoreak zabaltzen jarraitu zuen eta, abuztuaren amaieran, Erandion elkarte bat sortu zuten, baina Urriko Iraultzak eta haren ondorioek alderdiaren jardura geldiarazi zuten; 1935ean berriro ekin zioten lanari. *Unión Vascongada* alderdiak 1935eko uztailaren 14an bere lehen Probintzia Batzarra egin zuenean, lau Zentro zituen jada: aipatu dugun Karrantzakoa, eta Erandiokoa, Santurtzikoa eta Larrabetzukoa. Bestalde, antolatze bidean zeuden Zalla, Zornotza, Durango eta Gernikakoak⁸¹³.

Carlton hotelean egindako bilera hartan, Bizkaiko 77 herritako ordezkariak izan ziren, besteak beste, Berango, Plentzia eta Urdulizekoak. Barrikakoak jakinarazi zuen ezin zela hitzordura joan, eta Sopelatik, ostera, ez zen ordezkariarik agertu; horrek esan gura du, ziurrenik, *Unión Vascongada* alderdiak ez zuela batzorde antolatzaileirik Elizatean. Izan ere, lehen urteko Batzar horretan, alderdiko buruek adierazi zuten euren asmoa zela urtea amaitzerako Bizkaiko herri denetan izatea Batzordea. Bestelako asmoa zuten, ostera, Zentroak edo Zirkuluak sortzeari dagokionez, euren ustez “*zentro edo zirkuluen funtzionamendu erabatekoa, normala eta aberasgarria bermatzen duten herrietan*” soilik eratu behar baitziren⁸¹⁴. Ez dakigu azkenean Sopelan *Unión Vascongadaren* Batzorderik eratu ote zen, baina ez dugu aukera hori baztertu behar.

Unión Vascongada jardun desberdinetan ibili zen herrietan sostenguak eskuratzearren; bazeukan Idazkaritza Sozial bat eta, bertan, jardunean, lan poltsa bi “*lanpostuak emateko, bata lehorrean eta bestea itsasoan*”. Bestalde, karitatezko ekintza paternalistak ere egin zituzten, halan zelan Gabonetan arropa eta jatekoak banatzea. Berbarako, 1935eko Errege egunean, Karrantzako Zirkuluak arropak eta jostailuak banatu zituen behartsuenen artean. Urtebete geroago, Plentzian, UVren zaleek bakailao idorrak eta tomate latak banatu zituzten herriko familia txiroen artean⁸¹⁵.

812 PLATA PARGA, Gabriel: *La derecha vasca y la crisis de la democracia española (1931-1936)*, Bilbo, Bizkaiko Foru Aldundia, 1991, 76. or.; eta *El Pueblo Vasco* 1934-06-01.

813 *El Pueblo Vasco* 1934-08-26 eta 1935-07-16.

814 *El Pueblo Vasco* 1935-07-16.

815 *El Pueblo Vasco* 1935-01-06, *El Liberal* 1936-02-09; eta *Euzkadi* 1936-01-22.

Unión Vascongada Bizkaia osoan hedatu bazen ere, ezin da gauza bera esan CEDAri buruz, probintzian CEDAren ezarpena urria edo hutsaren hurrengoia izan baitzen. Hutsune hori bete guran sortu zen *Derecha Vasca Autónoma*, 1935eko urrian, baina haren diskurtsoa autonomista zen, ez hain muturrekoa, eta ez zuen arrakastarik izan Estatuko biritza politikoan nagusi zen polarizazio testuinguru hartan; gainera, 1936ko otsailerako hauteskunde deialdiak areagotu egin zuen egoera. Eskumak eta ezkerak bloke banatan batu ziren, eta euskal lurretan, berriz, egoera politikoa hiru korrontetan banatzen zen: ezkerreko indarren Fronte Popular, eskumen Bloque Contrarrevolucionario, eta zentroan EAJ. Bizkaian, eskuma espainolista indar guztiak fronte batean bateratu ziren hauteskundeetarako, eta erradikaltasuna izan zen euren kanpainaren bereizgarri, marxismoari eta laikotasunari aurka eginda. EAJ ere izan zen euren erasoan jomuga; zalantzetan jartzen zuten jeltzaleen katolizismoa, eta iraultzarekin eta ezkerrekin elkar hartua ibiltzea leporatzen zioten. Gorago azaldu dugun lez, aldari horiek eragina izan zuten Euskadiko hautesleen alderdi batengan: euskal nazionalismoak nabarmen egin zuen behera, eta neurri berean egin zuen gora eskumen blokeak⁸¹⁶. Horixe bera jazo zen, ikusi dugunez, Sopelan ere.

Otsailaren 18ko hauteskunde orokorren aurreko kanpainari dagokionean, eskumak ez zuen Sopelan mitinik egin, antza. Plentzian, berriz, UVk ekitaldi bat antolatu zuen otsailaren 2an hauteskunderi begira *Cinema Plencia* aretoan, eta “*jende asko bildu zen*”; hizlariak Concha García Valenzuela eta Antonio Díaz Romero izan ziren⁸¹⁷.

Azkenik, hauteskunde haietan kazikekeriak erabili izanari buruz aurrerago egingo dugu berba, baina, antza, Sopelan eta inguruko herrietan izan ziren horrelako gertakariak, hilabete batzuk geroago, Gerra Zibil bete-betean, igorritako dokumentazioari erreparatuz gero. Adibidez, monarkikoekin lotura zuen Antonio Arechabaleta herritar eta jabea aipatu zen, eskumako hautagaitza indartzeko azpikeriatan ibili ei zelako. “*Maizterrei*” gutunak igorri izana leporatu zitzaion, “*hautagaitza monarkikoari*” botoa emateko esanez, eta mehatxu eginez “*kaleratu egingo zituela ez bazioten botoa hautagaitza horri ematen*”⁸¹⁸. Jokabide hori ez zen Sopelan bakarrik jazo; izan ere, Getxon, Enrique Balparda Merkataritza Ontzidiko kapitaina, “*monarkikoa betitik*” aipatu zen; hartaz esan zen agindu ziela “*bere maizterrei eskumen hautagai zerrendari botoa eman ziezaioten*”⁸¹⁹.

816 REAL CUESTA, 230-234.

817 *El Pueblo Vasco* 1936-02-04.

818 MHDZ, PS Bartzelona 93,1,111, *Sopelako Udal Ikerketa Batzordeak erregimenaren kontrakoa deklaratzeko espedientea. Izena: Antonio Arechabaleta, 1936-12-20.*

819 MHDZ, PS Bartzelona 93,1,108, *Sopelako Udal Ikerketa Batzordeak erregimenaren kontrakoa deklaratzeko espedientea. Izena: Enrique Balparda, 1936-12-20.*

2.3. Bizikidetzeta eta gatazka politikoa eta soziala

2.3.1. Adiskidetasunetik desadostasunera

Bigarren Errepublikaren etorrera, José Luis de la Granjak kontatzen duen lez, euskal hiriburuetan ospatu egin zuten, eta kaleetan egindako manifestazioetan errepublikanoak, sozialistak eta nazionalistak bildu ziren; udaletxeetan, ostera, ikurrina eta bandera errepublikanoa batera altxa zituzten⁸²⁰. Ez dakigu zelan bizi izan zen Sopelan Bigarren Errepublikaren aldarrikapena, baina badakigu zelan jazo zen gertaera historiko hura Plentzian, *Euzkadi* berripaperean argitaratutako kronika bati esker. Radio Barcelonaren bitartez iritsi zen hiribildura Francesc Maciá buru zuen Kataluniako Errepublika ezarri zenaren berria, eta honela jaso zuten egunkari hartan:

“La noche se llena de aclamaciones. Un grupo de muchachos recorre las calles gaminiztarras y rompe la placa que da el nombre de Alfonso XIII a la plaza, comienzan a verse los colores nacionalistas; “¡Gora Euzkadi!”, gritan.

El nuevo día nos trae nuevas satisfacciones. Bicicletas, motos y coches circulan con las banderas republicana y nacionalista. Por la tarde, apoteosis. Las insignias de Euzkadi y de la República son izadas en el Ayuntamiento, mientras la Banda ejecuta los acordes del “Gernikako Arbola”, que el público escucha de pie y descubierto para aplaudir después lleno de entusiasmo. En el Casino Aurrera se iza asimismo la bandera tricolor del nuevo régimen y suenan más aplausos. A continuación y dentro del mayor orden, se celebró una romería, que resultó muy animada”⁸²¹.

Sopelan, egun batzuk geroago agertu zen ikurrina hiru koloreko banderaren ondoan, izan ere, udaletxean apirilaren 27ko udalbatzan adostu zen *“Errepublikanoaren alboan bandera Nazionalista udalean altxatzeko bandera makila bat”* eroste. Bilkura hartan erabaki zen ere udal alondegiko plazari *“Alfontso XIII. aren plaza”* izena kentzea eta *“Antonio de Arechavaleta jaunaren plaza”* izena jartzea, aurrerago ikusiko dugun lez⁸²².

Euskal lurraldean Bigarren Errepublikaren lehen egunetan nagusitu zen adostasuna irudikeria hutsa izan zen; izan ere, laster sortu ziren hainbat gatazka, agerian utziz erregimen berria ez zela mamituko Euskadiko gizarteko sektore garrantzitsuetan, Errepublika aldarrikatu zen lehen tokia Eibarren izan bazen ere. Euskal iritzi publikoaren zati handi bat egoera politiko berriaren aurka egotearekin lotutako faktore garrantzitsuenak erlijioarekin du zerikusia. Gobernuak eta Gorte Konstituziogileek onartutako neurri laizistek eta antikerrikalek talka egin zuten oso katolikoa zen euskal gizartearen gehiengoaren iritziarekin. Hori dela eta, zenbait gertaerek, halan zelan Mateo Múgica Gasteizko Gotzaina kanporatzeak edo Kleroaren Aurrekontua kentzea ezartzen zuen Konstituzioaren 26. artikulua erregimen berriaren aurkako jarrera hedatzea eragin zuten⁸²³.

820 GRANJA: *El oasis vasco...*, 48. or.

821 *Euzkadi* 1931-04-17.

822 SUA, 1929-1932ko Akta Liburua, 1931-04-27ko Bilkura Arrunta.

823 GRANJA, 48. or.

Erljiioaren auzia eta errebindikazio autonomikoa izan ziren Bigarren Errepublikan zehar euskal politika egituratu zuten ardatzak. Alde batetik, aurreko orrialdeetan adierazi dugun lez, hauteskunde-kanpainetan gehien errepikatu zituzten gaiak izan ziren eta, bestetik, garai historiko horretan jazo ziren gatazken kausa nagusia izan ziren. Hain zuzen ere, 1931ko udan, euskal nazionalistek eta eskumatarrek Eusko Ikaskuntzak egindako Estatutuan sartu zuten klausulak Euskadik Vatikanoarekin harreman zuzenak izango zituela ezartzen zuen, eta liskar larri bat eragin zuen ezkerreko euskal indarrekin eta Errepublikako behin-behineko Gobernuarekin. Ekaiztsua izan zen halaber 1932ko udagoienaren eta 1933ko udaren arteko aldia, zeinetan nazionalistek eta errepublikano-sozialistek elkarri aurre egin baitzieten, erlijio eta autonomia gaitan zituzten desberdintasun argiengatik. Aldi horretan, hainbat gertakari bortitz jazo ziren. Horien artean, aitzatekoak dira 1933ko maiatzeko istiluak, Niceto Alcalá-Zamorak, Errepublikako presidentea, Bilbora egindako bisitarekin bat etorritik jazotakoak, edo Usansolokoak. 1934ko udan, Sopelako Udalak Bigarren Errepublikan zehar izan zuen ibilbidea jorratu dugunean azaldu lez, gatazka handiko beste une bat bizi izan zen, Estatuko Gobernuak ezarri gura zuen *Ardoaren Estatutua* deritzonaren eraginez: haren bitartez, udalei ardoaren gaineko zerga biltzea debekatu gura zieten, hura izanik udalen diru sarrera iturri nagusia. Mehatxu horrek mugimendu munizipalista bat bultzatu zuen, zeinetan batu egin baitziren Samper buru zuen Gobernuari aurre egin zioten zinegotzi nazionalistak eta errepublikano-sozialistak. Uda amaitu ondoren, Urriko Iraultza piztu zen, eta indar handia hartu zuen Bizkaiko industrialdean eta meatzaldean⁸²⁴.

Gatazka kausa nagusiak eta Euskadiri eragin zioten aldi arazotsuenak modu orokorrean azaldu ondoren, toki mailara jaitsiko gara, gai horiek Sopelan izan zuten eragina eta herrian bizi izan ziren beste liskar mota batzuk aztertzeko.

2.3.2. Tradizioaren eta garai berrien artean: gatazkak Sopelan 1931ko apiriletik 1933ko apirila bitartean

Lehenik eta behin, gogorarazi beharra dago 1931ko apirilean 29. artikulua bidez eraturako Sopelako udalbatzak ez zuela zinegotzi errepublikanorik eta, halandaze, udalean, 1931ko apiriletik 1933ko urtarrilera bitartean ez zirela jazo nazionalistak eta ezkertiarrek elkartzen ziren udaletan ohikoak ziren desadostasunak. 1933ko apirilean udal hauteskunde partzialak egin ondoren, panorama aldatu egin zen, hiru zinegotzi errepublikano sartu baitziren. Aipatzekoa da Sopelako jeltzaleek eta errepublikanoek eztabaidaren bat edo beste izan zutela 1931 eta 1933 artean *Euzkadi* eta *El Liberal* egunkarien orrialdeen bitartez, geroago ikusiko dugun lez.

1931ko apirilean Sopelan eraturako udalbatzan zinegotzi errepublikanorik ez zegoenez, ez zen ezelango polemikarik sortu udalaren barruan erlijioaren auziaren inguruan eta, halandaze, erregimen errepublikanoaren lehen konpas horietan, ez zen bertan behera laga zinegotziek ekitaldi erlijiosoetan zuten parte hartzea. Adibidez, adostu zuten “*udalbatza gisa joatea, Corpus eguna dela eta*” 1931ko

824 GRANJA, 46-47. or.

ekainaren 4an eta 7an San Pedro elizan “*egingo ziren prozesioetara, aurreko udalbatzen ohitura tradizionala errespetatuz*”⁸²⁵. Horren harira, ohiturara joz, ondoan zegoen Urdulizko Udalak ere erabaki zuen udalbatza lez joatea Santa Marina ermitako Mezara, urte bereko uztailaren 20an, eta gutxiengo errepublikanoak ez zuen ezelango eragozpenik jarri⁸²⁶.

Plentzian, egoera bestelakoa izan zen udal ardurak behin-behineko kudeatzaile baten esku egon ziren aldi laburrean. Kudeaketa Batzordea 1931ko apirilaren 12ko hauteskundeetako emaitza baliobakotu ondoren ezarri zen, eta maiatzaren amaieran beste hauteskunde batzuk egin arte jardun zuen. Erljioari dagokionez, gehiengo errepublikanoa zuen kudeaketa organoak izaera laizista nabarmeneko hainbat erabaki hartu zituen, halan zelan Musika Bandak Corpusaren Jaian egiten zuen emanaldia bertan behera lagatzea, organo jotzailea eta sakristaua mantentzeko udal funtsak kentzea, edo Jesusen Bihotzaren irudia udal artxibotik kentzea⁸²⁷. Neurri horiek, zeinak 1931ko maiatzaren amaieran hautatutako zinegotzi berriek kargua hartu zutenean baliobakotu baitzituzten, errepublikanismoak Estatuan ezarri gura zuen akonfesionaltasunaren erakusgarri txiki bat ziren. Gogo bizi hori urte hartako abenduaren 9an onetsitako Konstituzioan gauzatu zen, zeinak laikotasuna erregimen errepublikanoaren funtsezko oinarrietako bat bihurtu baitzuen, Elizaren eta Estatuaren arteko erabateko banaketa ezarriz.

Udal eremuan legegintza errealtate berria ezartzeko, udalek hainbat jarraibide jaso zituzten, halan zelan, Bizkaiko Gobernadore Zibilak 1932ko martxoaren 18an emandako agindua. Mandatu hartan, probintziako agintari gorenak udalei adierazi zien “*eraikinetan ez edukitzeko publikoki, kanpoan zein barruan, edozein kultu edo konfesiorekin lotutako ezelango zeinu, ikur eta irudi, eta arau hausleei Estatuko legeei men ez egitearren ezar dakizkioken zigorrak ezarriko zaizkie*”⁸²⁸. Neurri horren ondorioz, erlijioarekin lotutako irudiak udaletxeetatik desagertu egin ziren, halan zelan hain ohikoa zen Jesusen Bihotza.

Handik gutxira, apirilaren 2an, José Calviñok, “*Hiru Probintzietako eta Nafarroako Gobernadore Nagusi*” legez, “*udalbatzan agintari lez izendatutako banako edo taldeetako agintariei*” agindu zien “*ez daitezela joan agintari lez erlijio izaerako ekitaldi publiko edo pribatuetara, doktrina edozein dela ere*”. Norberaren izenean, “*euren erlijioaren erritu eta adierazpenetara*” joan zitezkeen, betiere argi geratzen bazen “*euren ordezkaritza indibidualean dela, ez kargudun lez*”⁸²⁹. Neurri horrek, halandaze, amaiera eman zion udalbatza gisa, besteak beste, San Pedro edo Santa Marina jaietako mezetara joateko tradizioari, harik eta Diktadura frankistaren etorrerarekin berriro ekin zitzaion arte.

825 SUA, 1929-1932ko Akta Liburua, 1931-06-01eko Bilkura Arrunta.

826 SOMOKUETO, 166 or.

827 BARRENETXEA, 133-134 or.

828 SUA, 1929-1932ko Osoko Bilkuraren Akta Liburua, 1932-03-28ko Bilkura Arrunta.

829 *El Liberal* 1932-04-03.

Bestalde, Konstituzio errepublikanoaren 27. artikulua hilerrien sekularizazioa ezarri zuen. 1932ko urtarrilaren 30ean Hilerriei buruzko Legea onetsi zen, zeinean ezarri baitzen nekropoli guztiak udal titulartasunekoak izatea, eta agindu zen horien barruan ez zedin ezelango bereizketarik egin sinestunen hilobien eta hilobi zibilen artean. Horretarako, kanposantuetako hilobi zibilak eta sinestunen eremua bereizten zituzten hormak botatzea erabaki zen. Sopelan, “*hilerri katolikoa eta zibila banantzen zituen hormaren eraispena*” 1932ko ekainean egin zela pentsa daiteke, udalak José Loroño Elejaga kontratistak aurkeztutako faktura uztaillean onartu zuela kontuan hartuz gero. Eraspenerako 8 egun eta erdi behar izan zituzten, eta “*harria hilerriko leku apropos batean*” pilatu zen⁸³⁰. Dirudienez, pilatutako harri edo hondakin horiek aipatzen zituzten urriaren amaieran *El Liberal* aldizkarian argitaratutako artikulua batean, non salatzen zen, banantzeko horma —“*apur bat berandu eta nahiko gogo txarrez*”— kendu ondoren, “*beste garai batean ehorzketa zibiletarako erabiltzen zen lur zatia (...) hondakindegia*” bihurtu zela, “*belar, sasi eta abarrek babestuta, han aterpea duten suge, sugandila eta beste piztia batzuen zorionerako*”. Kronikaren egilearen arabera, utzikeria horrek “*eragina izan zuen espiritu liberaleko auzotar askoren sentikortasunean*”, eta, halandaze, agintariei dei egin zien “*hondakinak kentzeko*” eta “*garbiketa orokor bat*” egiteko agindu zezaten. Horrez gain, udalari “*Udal Hilerria*” esakunea zeukan errotulua jartzeko eskatu zion⁸³¹.

Laikotasunaren ezarpenak ikastetxeetan sinbolo erlijiosoak kentzea eta horietan doktrina kristaua irakasteari uztea ere ekarri zuen. Bestalde, errepublikano eta ezkertiar askok erregimen akonfesional berriaren alde egin zuten beren eredu propioarekin, bide zibila soilik aukeratuz jaiotzei, ezkontzei eta heriotzei dagokienez. Horren ondorio izan zen, adibidez, jaioberriak bake epaitegian soilik inskribatzea, elizan bataiatzea saihestuz; edo ezkontzak maila zibilean bakarrik egitea. Sopelan eta eskualdean gutxiengo bat izan ziren jarrera horiek izan zituzten errepublikanoak, oso noizean behin jazo ziren halakoak, zalantza barik, inguru hareetan katolizismoa oso ezarrita zegoelako, baita boto emaile errepublikanoen artean ere. Sopelako errepublikanoen kasuan, oso argigarria da *Txiberrik, Euzkadi* berripaperak Urdulizen zuen korrespontsalak, 1931ko uztaillean Sopelan izandako Gorteetarako hauteskundeetako emaitzei buruz egin zuen analisisa. Izan ere, ironiaz esaten baitzuen Sopelan Indalecio Prietori babesa eman zioten 98 boto emaileetatik, bizpahiru izan ezik, gainerakoak domekatan Meza entzutera joaten zirela⁸³².

Bataioaren sakramentua saihestuz Erregistro Zibilean bakarrik inskribatu zituzten Sopelako jaioberriei dagokienez, ez dugu aurkitu prentsan, *El Liberal*en zehazki, garrantzi publikoa izan zuen kasurik. Idatzizko hedabide horretan, inguruko herrietan jazotako kasu bi jaso ziren. Lehenengoa 1932ko uda amaieran jazo zen, Armitza auzoan (Lemoiz): bertan bizi ziren Diputazioko arielen kobratzailea eta haren emaztea, eta semearentzako bataio urak saihestea erabaki zuten. Bigarren

830 SUA, 1929-1932ko Osoko Bilkuraren Akta Liburua, 1932-07-04ko Bilkura Arrunta.

831 *El Liberal* 1932-10-27.

832 *Euzkadi* 1931-07-17.

kasua Urdulizen jazo zen, urte bereko urrian, Elizate hartako Zentro Errepublikanoko presidenteak eta haren emazteak Armintzan bizi ziren senar-emazteen antzera egitea erabaki zutenean. Zer esanik ez, bikote bi horiek beren haurrekin hartutako erabakiak eskandalua eta murmurioak piztu zituzten herri bietako auzo katolikoen artean. Cantaclaro artikulugileak ekintza laiko horiek serie luze bateko lehenak izango zirela iragarri bazuen ere, egia esan, ez zen gehiegi hedatu eta jarrera horiek gertaera isolatueta mugatu ziren⁸³³.

Sopelako udalerrian soilik bide zibiletik egindako ezkontzei dagokienez, gutxienez bat egon zen, 1932ko otsailean. Hil horren 4an, Udal Epaitegira etorri ziren Fernando González Pérez, 31 urtekoa, sortzez eta bizilekuz Bilbokoa, eta Agueda Felisa Mendizabal Bilbao, 22 urtekoa, sortzez Urdulizkoa eta bizilekuz Sopelakoa. Bikoteak epaileari jakinarazi zionez, *“bien artean adostuta dute ezkontzea, eta ezkontza horrek zibila izan behar du, ez baitute profesatzen erlijio katolikoa”*; horrela, euren batasun zibila gauzatzeko tramiteak hasi zituzten⁸³⁴.

Errepublikanismoak aukera izan zuen bakoitzean erakutsi zuen bere egunkari nagusia zen *El Liberal*-en orrialdeetan Bigarren Errepublikaren sinbolo propioak errespetatzearekiko zuen kezka. Berba baterako, 1932ko urriaren amaieran, kontatu zen Sopelako Udalak, aspalditxo, *“Errepublikako presidente jaunaren erretratu zen koadro bat erosi zuela, batzar aretoan amaitutako erregimena ordezkatzan zuten irudiak ordeztzeko”*. Hala eta guztiz ere, salatu zenez, Niceto Alcalá-Zamoraren erretratuak ez zuen aurrekoen zorte bera izan, horiek *“presidentearen aulkiaren buruko ohorezko lekuak eta altuera egokia zutelako”* eta Errepublikako presidentearena, ostera, *“zokoratuta eta zoru santuaren gainean”* zegoelako. Artikulugile anonimoak egoera horri eman zion azalpena galdera baten bidez planteatu zuen: *“Gure korrejidoreek pentsatu al zuten ordezkapena iragankorra izango zela, eta, beraz, ez al zuen merezi eskua besteek hartu zuten lekuan jartzeko neke txikia?”*. Idazki horretan, jaiegunetan udaletxeko balkoian ipintzen ziren bandera bien kontserbazio egoera aztertu zen: errepublikanoa eta ikurrina ziren (“jelista” izena jaso zuena); salatu zen lehenengoa *“tindua galduta”* zegoela, eta bigarrenak, ostera, itxura *“dotorea”* zuela. Kronikariaren arabera, irudi horrek ez zuen ezer berezirik, *“antzeko kasu mordoak ikusten baita herri askotan”*. Atentzioa ematen ziona zera zen, *“Eolok putz egin bezain laster, nazionala makilan biribiltzen da eta, lotsatuta lez, bestearen dotoreziari begiratzen dio, hark kulunketan jarraitzen duela, ondokoari zera esan guran lez: “Hemen ez zara nagusi izango (...)” eta bere buruari galdetzen zion: “Hau adierazgarri izango al da, Sopelako demokratok? Ezetz espero dut”*⁸³⁵. Egia esan, udalak, urriaren 17an egindako udalaren bilkuran, bandera errepublikanoaren egoera jorratu zuen, eta adierazi zuen *“tindua apur bat galduta zuela jaiegunetan*

833 *El Liberal* 1932-09-04, 1932-09-13 eta 1932-10-15.

834 SUA, Udal Epaitegia, zk. bako kutxa, Sopelako Udal Epailearen aurrean aurkeztutako instantzia, 1932-02-04.

835 *El Liberal* 1932-10-27.

udaletxeko balkoitoxoan ipintzen den bandera nazionalak, balkoi hura hain gogor astintzen duten denboraleak eta erdipurdiko kalitatea direla eta". Hori dela eta, bandera hori Haurren Eskolara eramatea eta udaletxeko balkoirako *"ilupa oneko beste bat"* erostea adostu zuen⁸³⁶.

Uribeko eskualdean, banderen auziak polemika ugari eragin zituen: Urdulizen 1932ko martxoan, apirilean eta uztailean salatu zen bandera errepublikanoa ez zela, legez zegokion lez, balkoian jartzen jaiegunetan. Salaketa berbera egin zen Lemoizen urte horretako irailean. Bestalde, 1932ko urtarrilaren 1ean, Plentziako udaletxean ikurrina bandera errepublikanoaren eta bertako banderaren ondoan jarri zenean —hiribilduko emakumeen estandarte bedeinkatu zen egunean—, bertako errepublikanoek Gobernadore Zibilari abisua eman zioten, eta Guardia Zibila udaletxera joan zen. Gorputz armatuak aginduta, *"Espainia ordezkatzeko ez zuten bandera bietatik bat jaitsi behar zen"* eta Plentziako alkateak hiribildukoa kentzea eta ikurrina mantentzea erabaki zuen, herriko errepublikanoen atsekaberako⁸³⁷.

1933an, Gobernadore Zibilak martxoaren 16an emandako agindu batek amaiera eman zion banderen auziari, zera ezarriz, *"zentro ofizialetan, eta batez ere udaletan"*, bandera bakarra jarri behar zela, *"nazionala, dagokion udalerriko bandera tradizionalarekin batera, hura duten lekuan, zeina errepublikanoaren ezker aldean jarri ahal izango baita"*. Horrekin, halandaze, *"guztiz debekatuta dago udaletxe eta zentro ofizialetan alderdi politiko jakin baten ordezkari den beste edozein bandera jartzea"*⁸³⁸.

Bigarren Errepublikako lehen konpasetatik, euskal nazionalismoak bere borroka partikularrarekin jarraitu zuen, euskal idiosinkrasiaren funtsezko zatitzat jotzen zituen elementu tradizionalak defendatzeko. Berba baterako, *Zabal-Oyar Euzkadi* berripapereko korrespontsalak adierazi zuen Sopelan, Primo de Riveraren diktaduraren garaitik, galdu egin zela *"erromeria ospatzen den landan aginte makilak paratzeko eta handik agintariak ekitaldiak ikusteko ohitura zahar eta tradizionala"*. Aldiz, *"antzina-antzinako ohitura euskaldun-euskaldun hori"* mantendu egiten zen, bai Getxon, bai Urdulizen. Kronikariak 1931ko San Pedrotan aginte makilen presentzia berreskuratzea proposatu zuen, zinegotzi abertzaleei desafio eginez. *Zabal-Oyarren* proposamena *"oso polito"* hartu zuten zinegotzietatik, eta adierazi zioten aginte makilak jaietan berriro erotea erabaki zela. Hala ere, ez zen agintearen sinbolo horien izpirik egon, *"udaletxeko aretoan zokoratuta"* geratu baitziren, ondorioz, korrespontsalaren haserrea eraginez⁸³⁹.

836 SUA, 1929-1932ko Osoko Bilkuraren Akta Liburua, 1932-10-17ko Bilkura Arrunta.

837 *El Liberal* 1932-01-07, 1932-03-20, 1932-04-29, 1932-07-13 eta 1932-09-04.

838 SUA, 1932-1934ko Akta Liburua, 1933-03-18ko Bilkura Arrunta.

839 *Euzkadi* 1931-06-13 eta 1931-07-18.

Tradizioen aldeko borrokak musika eta instrumentu exotikoen aurka jarri zituen abertzaleak, euskalduntasunetik kanpo jotzen baitzituzten. Sopelan, gai horrek eztabaidak eragin zituen prentsan, bertako jeltzaleen eta errepublikanoen artean, herriko bizilagun batek herriko jaietan eta beste jardunaldi batzuetan piano biraderaduna jotzeko eskatutako baimenaren harira. Polemika 1931ko ekainaren 14an hasi zen, Manuel Antonio Elorriagak udalari instantzia bat aurkeztu zionean, 33 gazte sopoloztarren sinadurarekin batera, zeinetan eskatzen baitzuen *“San Pedroko eta Karmengo Andre Marietako erromerietan, herriko landetan, eguen gauean eta domeka arratsaldeetan piano biraderadun bat jotzeko baimena”*⁸⁴⁰. Udalbatzak ekainaren 22ko osoko bilkuran jorratu zuen gaia, Pantaleón Trifol buru zela, jarduneko alkate legez. Trifol eta José Torrontegui eta Pedro Urruchua zinegotzi jeltzaleak Elorriagaren eskaria onartzearen alde agertu ziren; Elias Aguirregoitia eta Andrés Ercoreca zinegotzi abertzaleek, ostera, esan zuten ez zela baimendu behar *“ezelan ere ez, Sopelan ezelango piano biraderadun dantzarik, musika tresna ez delako hain atsegina eta jada ez delako ia inon jotzen”*. Gaia bozkatu ondoren, eskaera ukatu egin zen aurkako bost botorekin eta aldeko hiru botorekin⁸⁴¹.

Aurreikus zitekeen lez, gai hori *Euzkadi* berripaperaren orrietara heldu zen, *Zabal-Alda* kronikariaren eskutik, ekainaren 30eko edizioan, *“Hau lotsa!”* izenburu esanguratsuarekin. Artikuluan, egileak eskabidearen sinatzaileak *“herri honetako bizilagun diren zalduntxo harro batzuek”* zirela esan zuen, proposamenak eragiten zion atsekabea adieraziz eta zera esanez, *“ez dugu egundo halako lotsagabekeriarik ikusi, ezta lotsa gutxiagorik ere, gazteak izateagatik edo etxean aditzen dutenagatik gauza jasoagoetan pentsatzeko aukerarik ez dutenei halakoak eginarazten dizkieten jauntxo jakin batzuegan”*. Artikulugileak bere idazkian alde batera laga zuen udalbatzan desadostasunak egon zirela Manuel Antonio Elorriagari baimena ukatzeko orduan, eta honako hau besterik ez zuen kontatu: *“jakina, idazkiari ezezkoa eman zioten, musika harroputz horren dantzari dotoreak bertan egon baziren ere; beharrezkoa izan zen, ordea, zinegotzi abertzale batek aipatutako idazki eta proposamenarekin batera agertutako argudio pobre eta barregarriei kontra egitea”*⁸⁴².

Kronikaria ez zen horretara mugatu eta eskatu zien *“herri honetako zinegotzi abertzale duinei ez uzteko azpiratzen”*, eta sendotasuna eskatu zien *“maleziarekin eta fede txarrarekin herriaren administrazio zintzoaren eta kulturaren bide zuzena oztopatzen saiatzen direnen”* aurrean. Zentzu horretan, *Zabal-Aldak* Primo de Riveraren diktaduran karguak bete zituzten *“jauntxoak”* aipatzen zituen erantzule nagusi lez, eta *“euren etxeetan sartzeko”* aholkatzen zien, baita herriari *“bere burua gobernatzen uzteko, bere sentimendu euskaltzaleak eta ondo ulertutako demokrazia eta askatasun sentimenduak askatzeko”* ere⁸⁴³.

840 BFAH, SOPELANA 0035/002. Jasotako korrespondentzia, 1931, Manuel Antonio Elorriaga Aldecoak aurkeztutako instantzia, 1931-06-14.

841 SUA, 1929-1932ko Osoko Bilkuraren Akta Liburua, 1931-06-22ko Bilkura Arrunta.

842 *Euzkadi* 1931-06-30.

843 *Ibid.*

Euzkadi berripaperak argitaratutako artikuluaen aurreko ondorioak laster etorri ziren. Uztailaren 3an, *El Liberalek* “*Sopelako gazte batzuen protesta*” izeneko atal bat argitaratu zuen. Bertan azaldu zutenez, aurreko egunean herriko gazte batzuk aipatutako egunkariaren erredakziora joan ziren “*protesta egitera, “Zabal-Alda” izeneko batek “Euzkadi” berripaperean, udalari dantza publikoetan piano bat erabiltzeko baimena eskatzeko idatzi bat sinatu zutelako, eurei aurre egitean erabilitako berbengatik*”. Artikuluaren egile anonimoak gazteen iritzia berri eman zuen, honela islatuz:

“Nuestros comunicantes, hombres libres, no sujetos a los caciquillos locales, con o sin sotana, quieren hacer constar que su actitud al dirigirse al Municipio con tal demanda en nada empaña su honorabilidad y honradez, y que, por tanto, son tan dignos de respeto, por lo menos, como aquellos que, guiados de un espíritu intransigente y viejo, quieren imponer su opinión parapetándose en las “sensillas” costumbres del país”⁸⁴⁴.

Egunkari errepublikanoak berriro heldu zion gai horri handik egun batzuetara, *Euzkadi* berripaperaren idazkiaren egile *Zabal-Aldari* zuzenean zuzendutako eta *Pachi* ezizenarekin sinatutako artikulua batean. Kronikari jeltzalearen idazteko modua modu sarkastikoan jorratu ondoren, gazte sopoloztarrak Manuel Antonio Elorriagaren eskaria sinatzera eroan zituen arrazoia azaldu zuen: “*aspalditik lan barik dagoen gizon koittau bat lagundu gura*” izatea. Asmo “*errukior*” horren froga gisa, *Pachik* adierazi zuen “*sinatzaileen artean JELeke abertzale batzuk*” zeudela, hau da, nazionalistak, “*eta, hala izanik, ez dira pekatuzko ezer egiteko gai, ezta alderdiaren kredoaren aurka matxinatzeko gai ere*”. Artikulugileak ironiaz berba egin zuen horri buruz, esanez jakin bazekiela sinatu zuten gazte jeltzaleen jarrera horixe zela eta, ondoren, honako hau eransten zuen: “*ederto ezagutzen zaituztet, eta badakit asmo horren atzetik atoa zetorrela bestea, harrotutako nota horien soinuarekin kulunkatzekoa. Orain, Ángel jaunaren eskusoinuaren soinu goibel samarrekin egiten jarraitu beharko duzue*”; hau da, Ángel Villabeitiaz ari da, dantzaldiko edo ‘*jolas*’eko soinu jotzaile ofizialaz. Azken horren harira, *Pachik* honako galdera egiten zion *Zabal-Aldari*: “*¿Me puede usted ilustrar sobre la diferencia, en orden a transgresión de preceptos divinos, entre bailar un ‘schotis’ ejecutado por el acordeón de referencia o el pianillo de Manu Antón, pongamos por caso?*”. Azkenik, *El Liberalek* artikulugileak *Euzkadi* berripaperekoari aholkatu zion era horretako gaiei buruz idazteari ekin aurretik, informazioa biltzeko, “*gogotik, jorratu behar dituzun gauzen eta pertsonen gainean, oraingo honetan legez, euren zuzentasunagatik eta sentimenduen nobleziagatik, zure gainetik dauden mutikoak iraindu ez ditzazun*”⁸⁴⁵.

Lau egun geroago, *Patxikon* izeneko bat arduratu zen *Euzkadi* berripaperean argitalpen errepublikanoan argitaratutako artikulua biei erreplika emateaz, baieztatuz “*herri honetako gazte eta aholkulari batzuek hartu duten jarrerak errukia eta pena ematen duela*”, eta haserrea agertuz “*apaizenari*” eta “*ohitura ‘sensilloei’...*” egindako aitamenengatik. *Pachiren* artikuluari dagokionez, esan zuen bazekiela

844 *El Liberal* 1931-07-03, “*La protesta de unos jóvenes de Sopelana*”.

845 *El Liberal* 1931-07-12.

esaten zuena ez zela egia eta bere idazkiarekin nazionalistei propaganda egitea lortu zuela, izenak ematea baino falta izan ez zitzaizola adieraziz, “*abertzale on izatea gurako genukeen pertsona batzuk arazteko edo agerian uzteko eta zuk, ziurrenik, zehar-esan horiekin, benetako bidera eroango dituzula, galdu samar daudela baitirudi*”. Euzkadiko artikulugileak onartu zuen “oso gizatiarra zela ditxosozko idazkian proposatutakoaren parte bat”, baina adierazi zuen “ez zela zilegi pertsona bati ezkutuan aurre egitea, pertsona horri ondasun bat kendu gura zaionean, beste bati emateko”, Sopelako dantzak animatzearen arduradun ofiziala zen Ángel Villabeitia soinu jotzaileari erreferentzia eginez, seguru asko. Berrito ere, “*ohituren ustelkeria*” aipatu zen, “*gose denari jaten emateko*” bitarteko bidegabe lez, Manuel Antonio Elorriagak jo gura zuen piano biraderadunari erreferentzia argia eginez. Patxikonek baieztatu zuenez, batzuk “*euren fede onean harrapatu zituzten*”, eta instantzia hura sinatu zuten abertzaleak aipatu zituzten. Ondorio gisa, “*Euzkadi*” berripapereko erantzunaren egileak adierazi zuen askoren benetako asmoa ez zela izan “*gizon koittau bati*” laguntzea, baizik eta “*herriaren gehiengo zabalaren sentimendu sakratuak erasatea, despitez, ez karitatez, batzuek egin zuten moduan, (eta) Sopela deseuskalduntzeko (...), benetan lagundu gura ez duten koittau bat aurretik jarriz*”. Zabal-Aldak egun batzuk lehenago egin zuen legez, Patxikonek esan zuen Elorriagari emandako babesaren atzean “*lehen monarkikoak eta orain errepublikanoak direnak*” zeudela. Dirudienez, polemika *Euzkadi* berripaperaren idazki honekin amaitu zen, ez baitzuen erantzunik jaso *El Liberal* egunkarian⁸⁴⁶.

Erregimen berria ezarri ondoren errepublikanismoa igaro ziren Sopelako monarkikoei buruzko horrelako aitamenak pare bat bider errepikatu ziren 1931ko udan zehar *Euzkadi* berripaperean. Aurreko lerroetan azaldu dugun *Zabal-Aldak* idatzitako artikulua horren adibide on bat da. Kronikariak salatu egin zuen lehen “*monarkiko zarratuak*” zirenak Primo de Riveraren diktaduran herria “*zapaltzen*” aritu zirela, eta garai hartan udalean zuten boterea aprobetxatu zutela. *Zabal-Aldak* oso modu irmoan adierazi zuen garai batean monarkikoak zirenek portaera bera errepikatu gura zutela: “*¡Vergüenza os debiera dar, dictadorzuelos, que, terminada aquella mina que explotabais cuando Primo de Rivera, pretender hacer ahora lo mismo con la República! ¡Cuánta farsa!*”⁸⁴⁷.

Hilabete geroago, komunikabide abertzale berean, kronikari anonimo batek, *Sopelanatarra Bat* ezizenekoak, are gehiago doitu zuen *Zabal-Aldak* abiarazitako erasoaldia, arreta José de la Quintana Viarengan jarriz, zeina 1923 eta 1926 artean herriko alkate izan baitzen. Idazkian Quintanaren biografiaren errebaso txiki bat egin zuen, Sopelara XX. mendearen hasieran iritsi zela esanez, “*mendialdetik*”, hau da, bere sustrai ez euskaldunak nabarmentzeko. Herrira iritsi zenean, dirudienez, Quintanari harrera ona egin zioten, eta ostalaritza establezimendu bat edegi zuen *Aranoa* etxean, familia aurrera ateratzeko. Geroago, artikulugilearen arabera, merkataria “*egun batean baita hurrengoan ere euskalduna den guztiaren kontra egiten dutenekin*” nahasten hasi zen eta herriko politikan igotzen hasi zen, harik eta “*diktaduraren aldi jakin batean zehar kargu gorena*” betetzera iritsi zen arte. Hala ere, *Sopelanatarra Bati* “*lotsagarriena eta onartezinena*” iruditu zitzaion gertakaria

846 *Euzkadi* 1931-07-16.

847 *Euzkadi* 1931-06-30.

zera izan zen, Quintanaren lokala “*pertsona “sensilloek” Abertzaletasunaren argitan begiak zabaldu dizkiotelako orain herrian bizi ezin diren horien biltoki eta zentro*” izatea⁸⁴⁸.

Idazkiaren egileak ez zuen adierazi nortzuk ziren Quintanaren lokalera maiz joan ohi ziren eta “*orain herrian bizi ezin diren*” horiek. *Sopelanatarra Baten* arabera, Aranoa etxean ohikoak zirenen artean, “*apirilaren 14ra arte guztiz monarkikoak izan arren, eremu errepublikanora pasatzeko ezelango erreparorik izan ez zuten horiek*” zeuden⁸⁴⁹. Garai hartan, herriko errepublikanoak antolatu barik zeuden oraindino eta, ikusi dugun legez, ez ziren 1932ko ekainera arte antolatu, orduan eratu baitzuten Zentro Demokratikoa, Quintanaren establezimenduan, hain zuzen ere. Gogoratu behar da, artikulua argitaratu baino hilabete lehenago, Gorteetarako hauteskundeak egin zirela, eta Sopelan errepublikanoen eta sozialisten arteko bat-egitearen emaitza oso ona izan zela, euskal nazionalistengandik oso hurbil geratu baitziren; horrek, zalantza barik, dezente kezkatuko zituen herriko jeltzaleak.

Hauteskundeen ondoren, *El Liberal*etik Uribe Kostako herrietako errepublikanoak herriko elkarteak eratzea gonbidatu zituzten⁸⁵⁰. Eskaera hori inguruko herri askotan gauzatu zen iraillean, baina, esan lez, ez zen hala izan Sopelan; izan ere, errepublikanoek bertan talde bat osatzeko zenbait oztopo izan zituztela onartu zuten. Beharbada, zailtasun horien artean legoke *Sopelanatarra Batek Euzkadi* berripaperetik egindako ohartarazpena, izan ere, “*establezimendu horren jabeari eta bere seme-alabei, lagunei eta lagunak ez diren beste batzuei*” aholkatu zien “*euren jarrera alde batera uzteko*” eta “*herriaren borondatea*” errespetatzeko, horrela izan ezean, ez bailegoke “*bakerik Sopelan*” eta eurak ez bailirateke “*hain onik*” irtingo⁸⁵¹.

Azkenik, aipatzekoa da *El Liberal*en orrietan Elizateko jauntxokeriari ere heldu ziotela. 1931ko irailaren hasieran, kronikari anonimo batek, “*Un aldeano*” izengoitiarekin, idazki bat zuzendu zion Sopelako “*jauntxo diktatorial ohi*” bati, zeina, antza denez, “*bere subiranotasun galeragatik penatuta*”, “*irainez betetzen ari baitzen oso duinak diren pertsonak*”, “*Primo de Rivera dohakabearen jarraitzaileen kudeaketarekin*” egundo ados egon ez direnak. Gutun haren egileak ez zuen datu zehatzik eskaini nori buruz ari zen jakiten laguntzeko, baina orain arte azaldu duguna ikusita, Primo de Riveraren erregimenean udalbatzako kide izandako bati buruz ari dela pentsa dezakegu, zeinari buruz esan baitzuen “*herrian dagoen pertsona zitalena*” zela. “*Jauntxo*” anonimoak “*herria pozoitu besterik egin ez zuen politika*” egin zuela “*bere onurarako*”. *El Libera*leko artikulugileak ohartarazi zuenez, “*orain, ezagutzen dugunez, alferrekoak izango dira bere ahalegin denak*”. Azken horrek, dirudienez, idazkiko protagonistak erregimen berrira egokitze egindako ariketa bati egiten dio erreferentzia; izan ere, bere uste monarkiko sendoak alde batera utzi eta eremu errepublikanora pasatu zen, tokiko politikan eragina izaten jarraitu ahal izateko⁸⁵².

848 *Euzkadi* 1931-07-30.

849 *Ibid.*

850 *El Liberal* 1931-07-05.

851 *Euzkadi* 1931-07-30.

852 *El Liberal* 1931-09-06.

2.3.3. 1933ko asalduzko udaberria

Azaldu dugun legez, 1933ko udaberria tentsio politiko eta sozial handieneko uneetako bat izan zen Bizkaian. Egoera horretan egin zen apirilaren 23ko udal hauteskundetarako kanpaina.

Apirilaren 8an, goizean, ekitaldi jendetsu bat egin zuten Bilboko zezen plazan. Bertan, Manuel Azaña gobernuburuak, Indalecio Prieto Herri Lanetako ministroak eta Marcelino Domingo Nekazaritza ministroak parte hartu zuten. Bazkalostean, gobernuko ordezkariak eta euren segizioa autoz joan ziren Gorlizko erietxera, hainbat udalerrri zeharkatuz, halan zelan Sopela eta Berango. *El Liberal* egunkariak lekualdaketa haren xehetasunak jaso zituen, eta baieztatu zuen herri bi horietan “*jendetzak, errepidean pilatuta, gogo handiz ikusi zuela auto ilara ikusgarri hura*”. Egunkari errepublikanoak kontatu ez zuena zera izan zen, Azañak eta bere laguntzaileek Sopelan aurkitu zuten jendetza hura Maria Teresa Zabala, *Ogoñope*, eta José Antonio Aguirre protagonista zituen mitin nazionalista batean zegoela. *Antonio Arechavaleta plaza*, tribuna jarri zen lekua, bertaratutako ikusleentzako txiki geratu zenez, “*errepidea eta ondoko lurrak*” bete behar izan zituzten. *Euzkadi* berripaperak ez zuen bertaratutako kopuru zehatzik eskaini, “*jendetza benetan handia*” eta “*Bizkaiko hainbat tokitatik*” etorritako “*kanpotar ugari*” aipatu zituen, “*bilbotar eta abandotar kopuru handia*” azpimarratuz⁸⁵³.

Jeltzaleen organo nagusiak ez ziren erantzunik eman *El Liberalek* gobernuko auto ilara Sopelatik igarotzearen inguruan egindako baieztapenei. Erreplika *Jagi-Jagi* astekaritik heldu zen, Pedro Basalduak idatzitako artikulu baten bidez. Bertan adierazi zuenez, egunkari ezkertiarak isilarazi egin zuen benetan zein izan zen Elizateko ekitaldi nazionalistara bertaratu zirenek Azañari eta haren segizioari egin zieten harrera. Antza denez, gobernuaren konboiaren agerpenak mitina moztu egin zuen eta “*jendetza (...) errepidera joan zen*”, bandera errepublikanoa zuen udaletxe ondokora. Basalduaren arabera, segizioa, bandera “*eta jendea pilatuta ikusirik, ia gelditu eta agurtzen hasi zen*”, baina amore eman zuen “*oihu burrunbatsuekin*” topo egin zuenean, non hainbat aldarrikapen nahasten ziren: “*¡Gora Euzkadi Azkatuta...!, ¡Viva la República vasca...!, ¡Abajo las Gestoras...!, ¡Fuera los traidores...!, ¡Viva Euzkadi libre...!*”. Artikulugilearen berbetan, jazotakoa “*emozio une deskribaezin bat izan zen, eta harrigarriena ministroen aurpegia eta gidarien eta konpartsen beldurra izan ziren*”⁸⁵⁴.

La Gaceta del Norte egunkariak modu diskretuagoan jorratu zuen gai hori; Sopela “*gure kostaldeko herri txiki*” bat legez aipatu, eta jazotakoa “*auto ofizialen segizioa igarotzean*” egindako txistu batzuetara murriztu zuen. Egunkari katolikoaren arabera, gertakari horiek ondorioak izan zituzten, Poliziak esku hartu baitzuen, “*txistu egin zutenetako bi atxilotuz, zeinak azkenean (...) filiazio nazionalistakoak baitziren*”. Atxiloteta horien berri eman zuen ere ‘*La Voz de Cantabria*’ egunkariak, herriaren izena azalduz⁸⁵⁵.

853 *El Liberal* 1933-04-11 eta *Euzkadi* 1933-04-11

854 *Jagi-Jagi* 1933-04-15. Neurri txikiagoan, *Tierra Vascak* ere jorratu zuen gai hori, 1933-04-11n.

855 *La Gaceta del Norte* 1933-04-11 eta *La Voz de Cantabria* 1933-04-11.

Ziur aski, Azañaren segizioa Sopelatik igarotzean jazotakoa erabakigarria izan zen egun bi geroago Gobernadore Zibilak San Pedro elizako erretoreak Eguen Santuko eta Bariku Santuko prozesioetarako (apirilaren 12rako eta 13rako, hurrenez hurren) eskatutako baimena ukatzeko⁸⁵⁶.

Hauteskundeak baino apur bat lehenago, Sopelako Udalak, zeinetan, esan lez, behin-behineko Kudeaketa Batzorde batek gobernatzen baitzuen, Plentziako Guardia Zibila bozketa egunean bertaratzeko eskatu zuen, “*ordena publikoaren nahasmenduak egon daitezkeelako*”, hauteskundeetan “*lehia nahiko handia*” egongo zela zirudien eta. Gorputz armatuak adierazi zuen ezinezkoa zitzaiola apirilaren 23an Elizatera joatea eta, halandaze, kudeatzaileek Gobernadore Zibilarengana jo zuten, “*udal honek dituen hautesleku bietarako, bata bestearengandik 800 bat metrora dauden horietarako, behar den indarra*” bidaltzeko eskatuz⁸⁵⁷.

Hauteskunde eguna, dirudienez, gorabehera aipagarririk barik igaro zen Sopelan; dena den, *Euzkadi* berripaperak salatu zuenaren arabera, herrian “*pistolak jendaurrean erakusteko lotsarik izan ez zuten estremisten*” bisita izan zuten⁸⁵⁸. *El Pueblo Vasco* egunkarian argitaratutako informazio grafiko bati esker, badakigu Guardia Zibilak esku hartu zuela Elizateko hautesleketako baten atarian ordena berrezartzeko⁸⁵⁹, baina ez dago inon jasota istilu handiagorik sortu zenik. Berangoko udalerrira ere gerturatu ziren *Euzkadi* berripaperak aipatutako “*estremista*” armatu horiek, baina herri horretan egoera larriagoa izan zen, izan ere, *El Nervión* egunkariak jaso zuenez, “*zaplaztekoak egon ziren errepublikanoen eta abertzaleen artean*”⁸⁶⁰.

Aipatu behar da Larrabasterrako eskoletan jarritako Ugeragako hauteslekuan, José María Barrenechea Echevarria ANVko hautagaiak protesta egin zuela, argudiatuz bozketan zehar “*hertsapena eta borondaterik eza egon zirela Eskola barruan, boto emaille jakin batzuk bere borondatearen kontra bozkatzera behartu zituztelako*”. Barrenecheak salatu zuen hertsapenak eskolaren kanpoaldean ere jazo zirela. Ez zen izan Ugeragan egindako protesta bakarra, izan ere, Narciso Ansoleaga Zugazaga kontu hartzaileak erantsi zuen hautesle bik euren boto paperak “*Presidente jaunaren eskuetara heldu barik*” sartu zituztela hautetsontzian. Protesta horien aurrean, Victoriano Landeta hauteskunde mahaiko presidentek, José María Zuazua eta Antonio Aldecoa mahaikideek, eta Juan de Dios Uriarte

856 BFAH, SOPELANA 0042/002, Bidalitako korrespondentzia, 1933, *Sopelako alkateak Bizkaiko Gobernadore Zibilari zuzendutako jakinarazpena*, 1933-04-08; eta BFAH, SOPELANA 0036/002, Jasotako korrespondentzia, 1933, *Bizkaiko Gobernadore Zibilak Sopelako alkateari zuzendutako ofizioa*, 1933-04-10.

857 SUA, 1932-1934ko Akta Liburua, 1933-04-17ko Bilkura Arrunta.

858 *Euzkadi* 1933-04-27.

859 *El Pueblo Vasco* 1933-04-25 eta 1933-04-27. Aipatu beharra dago *El Pueblo Vasco*ren apirilaren 25eko edizioan argitaratutako argazkiaren oinean argi eta garbi adierazten zela, oker bazegoen ere, argazkia Urdulizen egindakoa zela. Irudiaren egileak, Espiga erreportari grafikoak, nahasmenaren berri eman zion egunkariari, zeinak honako zuzenketa hau argitaratu zuen apirilaren 27an: “*Nuestro amigo y reportero gráfico don E. Espiga nos comunica con referencia a la fotografía titulada ‘La Guardia civil despejando los grupos en Urduliz durante las elecciones’, que publicamos el martes, que, por error material, puso Urduliz donda debía decir Sopelana*”.

860 *El Nervión* 1933-04-24.

eta Alejandro Legarreta kontu hartzaileek zera adierazi zuten, “*erabat faltsua dela Eskolan autoritaterik eza egon izana, eta hautesleren batek bere botoa hautetsontzian sartu badu, presidenteari eman barik, ezjakintasunagatik edo arduragabekeria nabarmenagatik izan dela*”. Mahaiaren gehiengoak ebatzi zuen gaia, eta protestak ez zuen bide luzerik izan⁸⁶¹.

Euzkadi berripaperak Barrenechearen protestaren berri eman zuen, EAE-ANVko kide zela zalantzan jartzeko aprobetxatuz, eta azalduz plantxa demokrataren hautagaiak hertsapenak abertzaleei egotzi zizkiela. Salaketa horien aurrean, egunkari jeltzaleak erasoari ekin zion, baieztatuz Ciriaco Echaiz Sopelako Zentro Demokratikoko presidente eta gutxiengo errepublikanoaren zinegotzi hautetsiak “*bere alabak mehatxatu ei zituela, etxetik botako zituela, botoa bere zerrendari ematen ez bazioten*”. Jokabide horren aurrean, *Euzkadik* “*don Vicente de Arbeloa aberkideak*” Echaizen alabetako batekin, bere etxean lan egiten zuenarekin, ustez izandako portaera azaldu zuen. Antza denez, Arbeloak “*askatasun osoa eman zion gura zuenari botoa emateko*”⁸⁶².

Ez zen hori izan egunkari jeltzaleak herrian salatu zuen hertsapen bakarra. Isidoro Zamacona ere seinalatu zuten, zera esanez, “*hauteskunde bezperan, bere aitaginarrabaren*”, Antonio Arechavaletaren, “*errentadoreei aholkatu zion botoa hautagai zerrenda demokratikoari emateko*”, eta bere autoa laga zuela, “*koitaduak’ jaso eta hauteslekura eramateko*”. Bestalde, beste kasu bat ere kontatu zuten, “*Larrabasterrako andre batek, antza, interes handia zuen Txabarri etxeko administraria zen ‘P’atrás’ jaunak babestutako hautagaitzaren alde bozka zedin (...)*”. Dirudenez, emakume horrek esnea ematen zioen esne saltzaileari deitu eta “*botoa nori eman zion*” itaundu zion. Bere gustukoa ez zen erantzun bat jaso ondoren, “*horniduraren zenbatekoa ordaindu eta hara berriz ez itzultzeko esan zion, ez zuelako esne euskaldunik gura, errepublikanoa baizik*”. Azkenik, José de la Quintana merkataria, etxean “*hain famatua den Zentro Demokratikoa*” zuenak, “*hauteskunde egunean, bere boto emaleei ogi biribila, bakailaoa eta gauzatxoren bat gehiago (...) oparitu ziela*” jaso zen⁸⁶³.

«*La Lucha de Clases*» astekari sozialistako Sopelako korrespontsalak ere salatu zuen hauteskunde prozesuan “*amarruak, hertsapenak eta mehatxuak*” egon zirela herrian, eta nabarmendu zuen “*gure etsaiek Larrabasterrako txalet batean hauteskunde bezperan izandako bisita, errepublikanoa dela dioen arren ondoren abertzaleei botoa ematen dien eta euren maizter baserritarrei guztiek nazionalistei botoa emateko agintzen dien jaun batekin*”⁸⁶⁴.

Ikusi dugun legez, jeltzaleek gehiengoa lortu zuten udalean, Ugeragako Barrutian lortutako hauteskunde emaitzari esker batik bat. Moreagan, hautagaitza nazionalistak eta errepublikanoak boto kopuru oso antzekoa lortu zuten, eta horrek erakusten digu lehia oso handia izan zela hautetsontzietan izandako hitzorduan.

861 BFAH, AR00347/009, 1933ko apirillean Sopelako Udalean izandako udal hauteskundearen espediente orokorra.

862 *Euzkadi* 1933-05-18.

863 *Ibid.*

864 *La Lucha de Clases* 1933-06-15.

Tokiko hauteskundeak egin eta egun gutxira, Errepublikako presidente Niceto Alcalá-Zamorak probintzia bisitatu zuen. Concordia Moral buru zuen Sopelako Kudeaketa Batzorde hura apirilaren 30ean Bilbon Alcalá-Zamorari egindako harrerara joan zen. Gainera, kudeatzaileek, jakinda Errepublikako Presidenteak Gorkizko Erietxea bisitatu zuela, “*elizate honetako errepidetik igaroz*”, adostu zuten “*udaletxearen aurrean perkal zurizko oihalean egindako kartel bat jartzea, honako idazkun honekin: “Sopelako herriak Errepublikako Presidenteari agur esaten dio”, Estatuburuarekiko estimuaren eta errespetuaren erakusgarri”*. Maiatzaren 4a izan zen Alcalá-Zamorak Gorkizera bisita egiteko aukeratu zuen eguna eta presidentearen segizioak hainbat udalerrri zeharkatu zituen, helmugara iritsi arte. *El Liberal* egunkariaren arabera, “*Sopelan (...) ikusle asko atera ziren, baita apaiz bat ere, sexu bietako pertsona talde batekin, presidentearen autoa eta segiziokoak pozarren agurtuz*”. Nonbait, Berangon aurrez egin zioten harrera ikusgarriagoa izan zen, segizioa gelditu behar izan zelako, “*errepublikanoek eta sozialistek, euren banderak hartuta presidentearen autoaren aurrean errepidean jarrita, geldiarazi eta inguratu egin zutelako, Alcalá Zamora jaunari eta harekin zihoan ministroari gorazarre eginez*”⁸⁶⁵. Ez dirudi abertzale sopoloztarrek Errepublikako presidentea udalerritik igarotzearen aurkako manifestaziorik egin zutenik, ezta probintziako beste leku batzuetan jazo lez, egun hartan istilurik egon zenik ere.

Alcalá-Zamoraren bisitaren ondoren, gauzek ez zuten hobera egin eta indarkeriaren gorakadak goia jo zuen maiatzaren 14an, egun horretan errepublikanoek eta abertzaleek Usansoloko Batzokiaren aurrean buruz buruko bat izan zutenean, zeinetan Iñaki San Miguel *gaztetxea* eta Esperanza Zapata errepublikanoa hil baitziren. Aurreko orrialdeetan ikusi dugun lez, Uribe Kostako eta Bilboko itsasadarraren inguruko hainbat udalerritako zentro errepublikanoek bilera bat egin zuten Berangon maiatzaren 21ean, probintzian bizitzen ari zen gatazka maila handiak eragindako kezka zela eta. Usansolon jazotakoagatik protestatzeaz gain, Gobernuari eskatu zioten amaiera emateko “*Euzko Alderdi Jeltzalearen eta Erregimenaren aurkako beste guztien mehatxu, hertsapen eta indarkeriari*”. Azkenik, “*neurri adoretzuak*” hartzea eskatu zuten, Zentro Demokratikoak desagertu ez zitezen, “*orain gauden lez, defentsa barik*”, izan ere, “*beldur gara gure kideak baja hartzen joango ez ote diren apurka-apurka*”⁸⁶⁶.

Geure buruari galde diezaiokegu zer gatazka maila egon zen Sopelako inguruetan garai hartan. Aurreko lerroetan iradoki dugunez, nazionalisten eta errepublikanoen arteko harremanak nahiko gaiztotuta zeuden, orduko prentsaren analisitik ondorioztatzen denez. Adibidez, *Euzkadi* berripaperean maiatzaren 18ko edizioan argitaratutako artikulu batean, Sopelako Zentro Demokratikoa honela definitu zuten: “*euskalduna den guztiarekiko gorrotoa duten guztiek dute han lekua, gorroto zenbat eta handiagoa izan, orduan eta hobeto*”. Apur bat lehenago, apirila amaieran, egunkari berean, Urdulizko EAJK udal hauteskundeetan lortutako garaipen erabatekoaren berri eman zuten, udal ordezkaritza osoa lortu

865 SUA, 1932-1934ko Akta Liburua, 1933-04-29ko Bilkura Arrunta; eta *El Liberal* 1933-05-04.

866 *El Liberal* 1933-05-24; eta MHDZ, PS Bilbao, 164. kutxa, 13. zk.

baitzuen, azpimarratuz udaletik kanpo geratu zela “gutxiengo urri bat”, bertako errepublikanoei erreferentzia eginez, “gehien-gehiengoz aberriaren arerioek osatutakoa” zela esanez⁸⁶⁷.

Maiatza gatazkatsu hartan, gertaera bortitz batzuk jazo ziren inguruetan. Adibidez, hilaren 5ean, mozorrotutako lau morroik Tomás Hernando, Urdulizko Acción Republicanako idazkaria, gerarazi zuten Urduliz eta Sopela artean. Gizon horiek aholku eman zioten erakunde errepublikanoa uzteko eta Batzokian izena emateko, “*modu horretan herrian hobeto begiratuko didatelako*”. Horrez gain, 15 eguneko epea eman zioten bere semea bataiatzeko, Erregistro Zibilean baino ez baitzuen inskribatu. Maiatzaren 18ko gauean, lau ezezagunek berriro harrapatu zuten Hernando eta, oraingoan, itaundu zioten ea lehenengo topaketaren ondoren hausnartu ote zuen. Urdulizeko errepublikanoen idazkariak adierazi zuenez, “*zer pentsaturik ez zuela*” esan zuen eta, ondorioz, *El Liberal* egunkarian argitaratutako kontakizunaren arabera, hiltzeko mehatxua ere egin zioten⁸⁶⁸.

Prentsan jaso zen beste kasuetako baten protagonistak “*zenbait abertzale sopoloztar*” eta Berangoko Zentro Demokratikoko kideak izan ziren. *Euzkadi* berripaperak kontatu zuenez, maiatzaren 7an, Sopolako zenbait abertzale Berangora gerturatu ziren, arratsaldean zegoen erromeria batera joateko. Hura amaitu ondoren, itzuli aurretik, “*freskagarri bat hartzera sartu ziren Zentro Demokratikoaren eraikinean dagoen lokalera*”, baina “*sasi-demokrata batek atoa hanka egiteko*” eskatu zien eta, halandaze, “*abertzaleak, arazoak saihesteko asmoz, horixe egin zuten*”. Kanpoan, Sopolako abertzaleetako batek “*irrintzi egin zuen, herria agurtzeko, eta erantzun talde bereko beste batek*”. Egunkari jeltzalearen arabera, keinu hori ez zen José de Uranga Berangoko gutxiengo errepublikanoaren zinegotziaren gustukoa izan, eta bigarren irrintziaren egilearengana gerturatu zen, 17 urteko Jose de Urrutxuarengana, eta “*modu mehatxagarrian*” zera esan zion, “*Niri ez dik inork burla egiten!*”. Hori ikusita, Urrutxuak itaundu zion zinegotziari “*irrintzi egitea iraina ote zen (...)*”. Urangak, orduan, esan zutenaren arabera, “*pistola bat atera zuen eta Zentro Demokratikoko lokalera igotzeko agindu zion*”. Gazte jeltzaleak ezetz esan zion eta “*horren aurrean*”, zinegotzi errepublikanoak “*arma kargatu eta gaztearen bularrera zuzenduta, igotzera behartu zuen, baita, beste morroi batzuk bertan zeudela, Biba Espainiako Errepublikak!*” garrasi egitera ere. Gertakariak ikusi zituztenen artean, *Euzkadi* berripaperak “*Azarola antinazionalista itzaltsua*” nabarmendu zuen⁸⁶⁹. Ez zen kasualitatea izan hura aipatzea, izan ere, apirila amaieran, hedabide berean, Berangoko udal hauteskunderi buruzko artikulu batean, José de Uranga ere aipatu zuten, “*Leioan gobernuaren ordezkari kargua bete zuen garaian abertzaleen kontra egindako zapalketengatik ezaguna zena*”, baita José María de Azarola ere, zeinari kanpoan gomendatu baitzioten “*bere berekoikeriak asetzeko moduko beste alderdiren batean kokatzea*”⁸⁷⁰. Azarolaren kasuan, jeltzaleen artean pizten zuen herra Errestaurazioaren azken urteetan abertzaletasunarekin izan zuen loturagatik izan zen, Sopolako Euskal Gazteriaren buru izatera iritsi baitzen, 1920an eratu zenean.

867 *Euzkadi* 1933-04-26 eta 1933-05-18.

868 *El Liberal* 1933-05-31.

869 *Euzkadi* 1933-05-18.

870 *Euzkadi* 1933-04-27.

Hori dela eta, ez da harrizkoa Azarola bera izatea *El Liberal* egunkariko orrietan Sopelako nazionalistei erantzuna eman ziena, *Euzkadi* berripaperean kontatutako gertakariak egia esaten ez zutela aipatu baitzuen. Azaldu zenez, egunkari jeltzaleak “gaztetxo errubakoen” eta “sasi-demokraten” arteko desadostasunari buruz egindako kontakizuna zehaztasun faltaz beteta zegoen. Alde batetik, Azarolak azaldu zuen Berangoko Zentro Demokratikoan ez zegoela “edari establezimendurik”, baizik eta “bazkideentzako zerbitzu propioa zutela, kontrolatuta, bertako atezainaren ekimenez”. Beste alde batetik, ukatu egin zuen “bazkideentzako eta euren familientzako dantzaldi sozial bat egiten ari ziren lokalean sartzeko ausardia izan zuen jeltzaleen taldea” kanporatzearekin mehatxatu zenik, baizik eta lokaletik irteteko agindua eman zitzaizela, “zerbitzatu zitzaizena” hartu ondoren, “dantza pribatua baita bazkideentzat eta euren familientzat”. Era berean, adierazi zuen faltsua zela Urrutxua destatu zutenik “aretoaren erdian, arma batekin, Espainiako Errepublikaren alde oihu egin zezan. Lekukoek, ehun baino gehiagok, besteak beste, musikariek, inpartzialak direnak, ez direlako herrikoak, horren fede eman dezakete”. Azarolak ironiaz azaldu zuen Berangoko Zentro Demokratikoan sartu ziren gazte nazionalista sopoloztarrak, zirudienek, alkoholaren eraginpean zeudela:

“Es ‘exacto’ que la inteligencia de los osados jeltzales no estaba iluminada en aquellos momentos por ideas patriotas de ninguna clase, sino que padecía los horrores de una fermentación de caldos no de procedencia euskaldun, sino de origen muy ‘maqueto’, lo que hacía que no diesen irrinxis (sic) heroicos, sino gritos estentóreos contra todo lo que bullía en su pobre mente en aquellos momentos.

Es ‘exacto’ que a pesar de su ‘alumbramiento’ el joven Urrechua, dándose cuenta de su situación, no solo se brindó a gritar ‘viva el Socialismo’, sino que gritó espontáneamente ‘viva la R.E.’ y para conmemorar su triunfo de no verse maltratado pidió ‘un chiquito más’ (...).”⁸⁷¹.

Azarolak, *Euzkadi* berripaperetik egindako salaketak erabat ukatuz, argi utzi zuen, ez berak, ez bere kideek ez zutela “ezelango ‘mortairurik’ behar ezelango ausartik isilarazteko, edozein ideologiatakoa izanda ere”, ziurtatuz lehenak zirela “zuzentasun errespetagarrienaren barruan” egoten. Hala eta guztiz ere, ohartarazi zuen “beharrezko zentzabideak” emango zizkietela errespetu bera izaten ez zekiten horiei. Azkenik, errepublikano berangoztarrak, bere ideiez baliatuz, nazionalismoari kritika bat egin zion, honako gonbidapen hau eginez:

“(...) a quien de ‘antinacionalista’ me ha tildado a demostrar, en el terreno que desee, si se hace más patria a fuer de insultos y vejaciones o tratando de convivir dentro de las ideologías que las realidades modernas de relación entre los pueblos establecen para que sean ya utopías toda esa serie de antigüedades que quieren mantener a toda costa una legión de señores que no quieren dar su brazo a torcer, pues ello implicaría el perder el banderín de enganche que los mantiene en pedestales desde los cuales manejan a su antojo a gentes que, por su incultura, son fáciles de manejar”⁸⁷².

871 *El Liberal* 1933-05-20.

872 *Ibid.*

2.3.4. Tirabirak udalean: gehiengo nazionalista versus gutxiengo errepublikanoa

1933ko maiatzaren 10ean Sopolako Udal berria eratu ondoren, laster sortu ziren gehiengo nazionalistaren eta gutxiengo errepublikanoaren arteko desadostasunak: hilaren 13ko osoko bilkuran, zinegotzi jeltzaleek mozio bat aurkeztu zuten, non proposatzen zen udalak 1839ko urriaren 25eko Legearen aurka protesta egitea eta “*Errepublikako botereei*” eskatzea lege hori bidegabe deklaratu zezaten. Beste alde batetik, Foru Aldundiko Batzorde Kudeatzailea desegitea eskatzen zuten, Bizkaiko udalerrien batzar batek izendaturiko alkateen batzorde batek ordezkatzeko, harik eta hauteskunde demokratikoak egin arte. Azkenik, eskatzen zen “*gobernuaren atxiloketa umiliagarri eta gehiegizkoak amaitzeko, gaur egun Bizkaian horiek pairatzen dituzten herritar guztientzako berehalako askatasuna aginduz*”. Francisco Galbarriartu eta Julián Gorostola zinegotzi errepublikanoek argi adierazi zuten “*ez zeudela ados proposamenaren edukiarekin*” eta, halandaze, bai eurak, bai Ciriaco Echaiz zinegotziak aurka bozkatu zuten, eta mozioa gehiengo nazionalistaren aldeko botoekin onetsi zen⁸⁷³.

Hurrengo liskarra maiatzaren 20an izan zen, Udal Batzorde bat izendatzean. Batzorde horri Antonio de Arechavaletarekin elkarrizketatzea agindu zitzaion, Larrabastera auzoan eskola batzuk eraikitzeko finantzaketa lortzeko. Egiteko horretarako Francisco Ondiz eta Pedro Saitua zinegotzi nazionalistak eta Francisco Galbarriartu zinegotzi errepublikanoa izendatu zituzten, batek berak ere ezelango eragozpenik jarri barik⁸⁷⁴. Hala ere, maiatzaren 27ko osoko bilkuran, Galbarriartuk azaldu zuen “*azaltzea ez dagokion arrazoiak direla-eta, ezinezkoa zaiola azken bilkuran izendatutako batzordean parte hartzea*”, eta bere ordezkari zinegotzi bat izendatzeko eskatu zuen. Silverio Areitio zinegotzi abertzaleak erantzun zionez, esanez ordura arte:

“(…) la mayoría que compone este Ayuntamiento ha tenido (...) las máximas consideraciones con la minoría, pero que ésta, no sabe si por cuestión política o por qué no quiere formar parte de la Comisión que (...) se nombró en la pasada sesión, siendo designado como uno de los miembros de la misma el Sr. Galbarriartu, que aceptó el cargo”⁸⁷⁵.

Areitio, Galbarriartuk azalduakoa kontuan hartuta, udalari “*gutxiengo horrentzako zentsura boto bat aktan jasotzea*” proposatu zion. Alpatutako zinegotzia harrituta agertu zen gehiengo nazionalistak akordio hori har zezakeelako, bazekitelako Batzordean parte hartzeari uko egin izana ez zela “*ez begirunerik ezagatik, ez arrazoi politikoengatik, baizik eta horrekin guztiarekin zerikusirik ez zuten beste arrazoi batzuegatik*”. Hala ere, gehiengoak aurrera atera zuen Silverio Areitio zinegotziaren proposatutako zentsura botoa⁸⁷⁶.

873 SUA, 1932-1934ko Osoko Bilkuraren Akta Liburua, 1931-05-13ko Bilkura Arrunta.

874 SUA, 1932-1934ko Akta Liburua, 1933-05-20ko Bilkura Arrunta.

875 SUA, 1932-1934ko Akta Liburua, 1933-05-27ko Bilkura Arrunta.

876 Ibid.

Gai horrek jarraipena izan zuen ekainaren 3an egindako ohiko bilkuran. Bertan, Galbarriartuk gehiengoari zentsura botoa kentzeko eskatu zion, “*berba bete ez izana*” bere erantzukizuna baino ez zela esanez, eta esanez gutxiengo errepublikanoko beste kide biri ezin zitzaiea “*ezelango errurik bota*”. Zinegotzi nazionalistek ez zuten onartu zinegotzi errepublikanoaren eskaera, eta hark zentsura botoa, “*irrigarritzat eta zentzugabekotzat*” jo zuen⁸⁷⁷.

Espero zitekeen lez, berba horiek erantzuna izan zuten hurrengo osoko bilkuran, ekainaren 10ean. Oraingo honetan, Jesús Marcaida zinegotzi abertzaleak hartu zuen berba, eta adierazi zuen gutxiengoaren kontrako zentsura botoak “*ez daukala irrigarria edo zentzugabekoa den ezer, irrigarria eta zentzugabekoa dena ematen den berba ez betetzea delako*”. Galbarriartuk bere burua defendatu zuen, argudiatuz “*emandako berba bete ez izana ganorabakokeriatzat har daitekeela, baina egundo ez gauza irrigarritzat, eta gutxiengo baten aurkako zentsura botoa aurkeztu izana, haren kapitular batek falta hura egin duelako, ezin dela beste modu batean ikusi*” ekainaren 3ko udalaren bilkuran egin lez. Marcaidak erantzun zuenez, “*ganoragabekeria hura zentsura botoa baino irrigarriagoa da, gutxiengotik datorren unetik beretik*”. Alkateak eztabaida amaitutzat jo zuen, adieraziz “*gaia behar adina eztabaidatu zenez, amaitutzat jotzen zela eta ez zela onartuko gaiari buruzko eztabaida gehiagorik*”⁸⁷⁸.

1933ko San Pedro eta Karmengo Andre Mariaren jaien programaren onespeneak ere tirabirak sortu zituen udalean zeuden alderdi bi politikoen artean puntu zehatz batengatik, ezpata dantzagatik, zeina, aurreko urteetan lez, Sopelako Batzokiko dantza taldeari eskatu baitzitzaion. Horri dagokionez, Galbarriartu zinegotzi errepublikanoak “*esan zuen ezpata dantza, izaera politikoa izateagatik, Batzokiak doan egin beharko lukeela, udalak ordaindu ordez*”. Alkateak erantzun zion “*ezpata dantza ez dela ezelango ekintza politikoa, baizik eta Hiru Probintzietako dantza erregional bat eta, horregatik, udalak ordaindu egin behar duela, aurreko urteetan lez*”. Beste zinegotzi errepublikanoetako batek, Gorostolak, adierazi zuenez, “*eurak, gutxiengoak, ez dute udalera ezelango gai politikorik ekarri gura izan, baina gehiengoa behin eta berriro ari dela horretan eta, hori dela eta, aurrerantzean ezingo dutela guztien atseginerako jardun*”. Eztabaida hor amaitu zen eta, programatutako jaiak bozkatu ondoren, gehiengo jeltzaleak onetsi egin zituen, gutxiengo errepublikanoaren kontrako botoarekin. “*La Lucha de Clases*” astekariak uztailaren 6ko edizioan eman zuen gai horren berri, jakinaraziz Sopelako Udal “*dotoreak*” San Pedroko erromerietarako “*solteko dantzak eta ezpata dantza bazter guztietan egotea*” adostu zuela, eta Constantino Zurbano alkateari honako berbok egotzi zizkion: “*Musikariak, denak euskaldunak*”. Egunkari sozialistako berriemaileak galdera batekin eta erantzun batekin erantzun zion esaldi horri: “*Nork ordaintzen du? Maketoek eta euskaldunek*”⁸⁷⁹.

877 SUA, 1932-1934ko Akta Liburua, 1933-06-03ko Bilkura Arrunta.

878 SUA, 1932-1934ko Akta Liburua, 1933-06-10eko Bilkura Arrunta.

879 SUA, 1932-1934ko Akta Liburua, 1933-06-17ko Bilkura Arrunta; eta *La Lucha de Clases* 1933-07-06.

Karmengo Andre Mariaren jaietako erromeria egiten zen landan edari postuak jartzeak ere polemika piztu zuen nazionalisten eta errepublikanoen artean. Uztailaren 8an egindako osoko bilkuran, Juan Torres getxoztarrak aurkeztutako idazki bat irakurri zuten, non baimena eskatzen zuen uztailaren 16an landa horretan freskagarriak saltzeko postu bat jartzeko. Jaietarako barrutiaren tamaina txikia zela eta, bertan zeuden zinegotzi guztiek, Galbarriartu eta Gorostola errepublikanoek barne, eskaerari ezezkoa eman zioten. Torres ez zen izan Larrabasterrako jaietan edariak saltzeko gune bat jartzeko baimena eskatu zuen pertsona bakarra; izan ere, Sopolako bizilagun bik, Valentín Cajigasek eta Federico Aguadok, zegozkien instantziak aurkeztu zituzten, eta udalbatzak uztailaren 15ean egindako bilkuran aztertu zituen. Oraingo honetan, zinegotzi errepublikanoek ez zuten onartu gehiengo nazionalistak emandako zelaiaren neurri txikiaren argudioa, eta Cajigasen eskaera defendatu zuten, *“justizia kasu bat”* zela esanez, *“seme-alaben mantenua irabazteko beharra”* zuen herritar bat zelako. Pedro Saitua zinegotzi jeltzaleak adierazi zuen jaietako ekitaldiak egiten ziren eremua jabetza partikularrekoa zela eta bere jabeak ez zuela *“gustuko edaria saltzeko postuak bertan jartzea”*. Galbarriartu errepublikanoak zalantzan jarri zuen baieztapen hori. Azkenean, gehiengo nazionalista nagusitu zen, Cajigas eta Aguadoren eskaerei ezezkoa emanaz. Gai hori aipatutako *“La Lucha de Clases”* egunkariaren orrialdeetara ere iritsi zen. Bertan, herriko korrespontsalak azaldu zuen udalak ezezkoa eman ziola *“Karmengo Andre Mariaren erromerian freskagarri postu bat jartzeko baimena eskatzeko idazki bati”*. Kronikariaren iritziz, udaleko zinegotzi abertzaleek edari postuak jartzeari ezezkoa eman izana herriko jeltzaleen egoitzako taberna jaiak egiten ziren landatik gertu egotearekin lotuta zegoen. Galdera bat erabili zuen: *“Ez al daki eskatzaileak bertan abertzaleen taberna eta kuartel nagusia daudela?”* Artikulugileak, zeharka bada ere, abertzaleei leporatu zien eragotzi egin zutela partikularrek edariak saldu ahal izatea, horrek Sopolako Batzokiko establezimenduaren interesei kalte egin liezaiekeelako⁸⁸⁰.

Ez ziren horiek izan udalean herriko jaiekin zerikusia zuten arrazoiengatik izan ziren desadostasun bakarrak. Santa Marina eguna zela eta, eztabaida uztailaren 20an ermitaren inguruan egiten zen *“bazkari tradizionala”* mantentzearen ingurukoa izan zen. Egun batzuk lehenago, gutxiengo errepublikanoak janari hura kentzea eta dirua *“eskoletako haurrentzako txango bat”* antolatzeke erabiltzea proposatu zuen. Galbarriartu zinegotzi errepublikanoak adierazi zuen uste osoa zuela ideia hori ondo irudituko litzaiekeela herritar guztiei, eta haurrak eta gurasoak oso esker oneko agertuko lirakeela. Echaiz zinegotziak proposamenarekin bat egin zuen, eta gaineratu zuen bera bazkaria egitearen aldekoa zela, betiere zinegotzi bakoitzak bere zatia ordaintzen bazuen. Alkateak adierazi zuen ez zitzaizela ondo iruditzen *“antzina-antzinatik”* egiten zen bazkari bat kentzea, horren kostuak ez zuela *“ezer”* esan gura *“udalaren interesentzat”*, eta Ugeraga auzoko bizilagunek *“arrazoiarekin protesta”* egingo zutela bazkaria kenduz gero. Gainera, lehenengo zinegotziak esan zuenez, Santa Marina eguna zen auzune hartan ospatzen zen ospakizun bakarra *“eta, bazkari hori egiten ez bada, esan daiteke jai desagertu*

880 SUA, 1932-1934ko Akta Liburua, 1933-07-08ko Bilkura Arrunta eta 1933-07-15eko Bilkura Arrunta; eta *La Lucha de Clases* 1933-07-20.

egiten dela, inor ez litzatekeelako bertara joango, oso leku urruna delako eta sarbide deserosoa duelako". Argudio horiek azalduta, errepublikanoen proposamena bozkatu egin zen, eta gehiengo nazionalistak baztertu egin zuen, otordua *"udalaren kontura"* mantentzearen alde agertzeko⁸⁸¹.

2.3.5. Haustura baten kronika: Antonio de Arechavaletaren eta bertako nazionalisten arteko harreman zapuztua

Merezi du Sopelako EAJK eta Antonio de Arechavaletak Errepublikaren garaian zehar izandako harremanen analisiari atal bat eskaintzea. Aurreko orrialdeetan adierazi dugun lez, 1931ko apirilean eraturako udalaren burua Arechavaleta *"independentea"* izan zen, zinegotzi gehienak abertzaleak izan arren. Horrek agerian uzten zuen auzokideen artean lortu zuen prestigio handia, Errestaurazioaren azken urteetatik behintzat udalerriko ongile gisa egindako lan emankorra zela eta. Aipatzekoa da alkate izan zen garaian, Elizatean egindako hainbat hobekuntza bere sakelatik ordaintzen jarraitu zuela.

Arechavaletaren ibilbide eskuzabalaren aitortza gisa, udalbatza hartako zinegotziek egindako lehen proposamenetako bat udaletxeko plazaren izena aldatzea izan zen, eta *"aho batez"* adostu zuten *Alfontso XIII.aren plaza* izena kendu eta *"Antonio de Arechavaleta Herriaren ongilearen plaza"* izena jartzea. Alkateak erabaki horren aurka protestatu zuen, *"plaza horri bere izena ematen zaiolako, baina gainerako zinegotziek irmoki eutsi zioten erabakitakoari"* eta akordioa ezelango aldaketarik barik mantendu zen⁸⁸².

Iñakik, euskal abertzaleen organo nagusia zen *Euzkadi* berripapereko Sopelako korrespontsalak, udalaren akordio horren berri eman zuen, eta adierazi zuen, zalantzarik barik, erabaki horrekin *"zinegotziek herriaren begikotasun osoa lortu dutela, politikazaleena eta apolitikoena"*. Kronikariak kontatu zuenez, *"Sopelako herriak don Antonioren zor dizkion onura ugariak direla eta, omenaldi baten hartzekodun da, baina denborak aurrera egiten zuen eta inor, udaletako bat ere —diktadura ilun hark aukeratutakoei horrela deitu ahal bazaie— ez zen hori egiteaz oroitzen"*. Primo de Riveraren garaiko udalbatza horien aurrean, *Iñakik* balioan jarri zuen orduko udalak, *"Euzko Alderdi Jeltzalearen gehiengo absolutua zuenak"*, Arechavaleta ohoratzeke lehenengo urratsak eman zituela. Korrespontsal jeltzaleak, ekainaren 13an argitaratutako bere kronikan, jaso zuen alkateari omenaldi publiko bat egingo zitzaiolako zurrumurruak zeudela; bestalde, udaletxeko plazako plaka berria *"harpidetza publikoak"* ordaindu beharko lukeela proposatu zuen, bere iritziz, Arechavaletari gorazarre egiteko ekitaldia guztiz herrikoia izan zedin, egokiena errotulu berria herritarrek ordaintzea zelako. Azkenik, *Iñaki* udalari zuzendu zitzaion, esanez *"nire ustez, plazari Don Antonioren izena ematea ez da nahikoa omenaldi"* eta, halandaze, honako ideia hau bota zuen: *"horretaz gain, ezin al da herriko seme kutun edo ongile izendatu?"*⁸⁸³.

881 SUA, 1932-1934ko Akta Liburua, 1933-07-15eko Bilkura Arrunta.

882 SUA, 1929-1932ko Osoko Bilkuraren Akta Liburua, 1931-04-27ko Bilkura Arrunta.

883 *Euzkadi* 1931-06-13.

Dirudienez, *Euzkadi* berripapereko korrespontsalak zuzenean zuen bertako EAJK garai hartan prest izan behar zuen proiektu baten berri; izan ere, egun bi geroago, ekainaren 15ean, Justo Barrenechea zinegotzi abertzaleak lehen zinegotziari Seme Kutunaren titulua emateko proposamena aurkeztu baitzuen udalbatzan. Barrenecheak, egin zuen azalpenean, Arechavaletak udalerriri egindako ekarpenak zerrendatu zituen, halan zelan udalaren eraikina eraikitzea, urak ekartzea, San Pedro parrokiari “*organo eder bat*” dohaintzan ematea edo Larrabasteran behin-behineko lokal bat lagatzea, auzoko Eskola Nazional lez erabiltzeko. Zinegotzi jeltzaleak ondorioztatu zuenez, “*Arechavaleta jaunak egindako sakrifizio horiek eta beste asko bere jaioterri honen onerako, herria hobetzeko eta goratzeko eginak izan dira, eta Sopelak ezin izango dizkio egundo behar beste eskertu*”. Hori dela eta, udalak “*bere txera eta estimu sakona nolabait*” erakusteko, Arechavaleta alkatea Seme Kutun izendatzeko ideia mahai gainean jarri zen, eta bertaratutako udalbatzako kideek “*aho batez*” onartu zuten, bertan ez zegoen lehenengo zinegotziak izan ezik⁸⁸⁴.

1932ko martxoaren 19ra arte itxaron behar izan zen Arechavaletaren izena zuen plakaren inaugurazio ofiziala ikusteko. Herriko abertzaleen inplikazioa erabatekoa izan zen inaugurazio ekitaldi horretan, izan ere, egun batzuk lehenago Sopelako *Euzko Gastedijak* gutun bat bidali zion udalari, bere burua eskainiz “*ospakizun bat*” antolatzeko, “*(...) ezpata dantza, adibidez, txistulariaren gastuak bakarrik izanik Udalaren kontura*”. Horrez gain, jeltzaleek eskatu zuten plaka martxoaren 19an estalgabetzea, Meza Nagusiaren ondoren. Proposamenaren berri izan zuenean, Arechavaleta alkatea “*ekitaldi hura egitearen kontra agertu zen, tinko*”, eta udalbatzako kideei eskatu zien haren ezetzarekin bat egiteko, baina ez zieten jaramonik egin lehenengo zinegotziak “*behin eta berriro egindako eskaerei*”. Halandaze, udalak onartu egin zuen inaugurazioa *Euzko Gastedijak* eskatutako egunean eta orduan egiteko egindako eskaria, “*ekitaldiari solemnitete eta bikaintasun handiagoa*” emanez, “*danbolin eta atabal klasikoaz*”⁸⁸⁵.

Ezer gutxi dakigu Plazako plakaren inaugurazio egunari buruz. *Euzkadi* berripaperean egindako erreferentzia txiki bat baino ez dugu topatu eta, bertan, “*ekitaldiak garrantzi handia izan zuela*” baino ez zen jaso⁸⁸⁶.

Euzko Batzokija, Emakume Abertzale Batza eta Sopelako mendigoxale taldearen inaugurazio ofizialaren egunean ere agerian geratu zen abertzaleek Arechavaleta alkatearekin zuten harreman ona. 1932ko irailaren 18ko egun hura Batzokian egindako oturuntza batekin biribildu zen, non lehen zinegotzia ere egon zen⁸⁸⁷.

884 SUA, 1929-1932ko Osoko Bilkuraren Akta Liburua, 1931-06-15eko Bilkura Arrunta.

885 SUA, 1929-1932ko Osoko Bilkuraren Akta Liburua, 1932-03-14ko Bilkura Arrunta. Sopelako *Euzko Gastedijak* bidalitako gutuna, aktan aipatzen dena, 1932ko martxoaren 10ekoa da.

886 *Euzkadi* 1932-03-31.

887 *Euzkadi* 1932-09-20.

Dakigunez, 1933ko urtarrilean udala agintetik kendu eta Kudeaketa Batzorde batek ordezkatu zuen, zeina herria administratzeaz arduratu baitzen apirilaren 23ko hauteskundeak egin ziren arte. Maiatzaren erdialdean, *Euzkadi* berripaperak artikulu bat argitaratu zuen, ‘*Sopelako oihartzunak*’ izenburuarekin. Bertan, aurreko hauteskunde prozesuari buruzko hainbat iruzkin jaso ziren, besteak beste, Isidoro Zamacona Arechavaletaren suhiari buruzko bat. Hari buruz baieztatu zen hauteskunde egunaren bezperan “*bere aitaginarrebaren errentadoreei hautagai zerrenda “demokratikoari” (errepublikanoari) botoa emateko*” aholkatu zela⁸⁸⁸.

Ez dakigu zer iritzi eragin zion Arechavaletari zeharka aipatzen zuen iruzkin hark, baina ez da zentzugabekeria bat pentsatzea ez zuela gustuko izan. Edozelan ere, alkate ohiak ongile izaten jarraitu zuen, 1933ko uztailearen amaieran udaleko ordezkariekin izandako bilera batean agerian geratu zen lez, non Larrabasterra auzoan eskola batzuk eraikitzeak ekarriko zuen kostu ekonomikoa aztertu zuten. Arechavaletak adierazi zuenez, udalari “*era guztietako erraztasunak*” emango zizkion proiektu hura aurrera eramateko, “*mailegu moduan*” behar beste diru jarritz. Handik egun gutxira, eskaintza hori idazki batean formalizatu zuen, non konpromisoa hartzen zuen obretarako 30.000 pezeta emateko, eta 35 urteko epea ezarri zuen udalak mailegatutako zenbatekoa itzul ziezaion⁸⁸⁹.

1933ko irailaren 24an, nazionalisten eta Antonio de Arechavaletaren arteko harremana hankaz gora jarri zen. Egun hartan, *Euzkadi* berripaperean, Sopelako EAJren udal batzarrak sinatutako idazki bat argitaratu zuen, “*Kanpaina bati erantzunez*” izenekoa. Bertan, ikusiko dugunez, Arechavaleta inplizituki zipriztintzen zuten erreferentziak zeuden. Kronika hartan, herriko zuzendaritza jeltzaleak salatu zuen “*kanpaina ezkor bat (...)*” hasi zela “*herri honetan hura saihestera behartuen daudenen aldetik*”, Constantino Zurbano buru zuen udalak Elizateko bizilagun biri eragin zieten gai biri buruz onartutako ebazpenen ondorioz (Pedro Ercoreca eta Fernando Oleaga ziren bizilagunak)⁸⁹⁰.

Pedro Ercorecari buruzko gaia jorrazteko, 1924ko otsailaren hasierara arte egin behar dugu atzera. Garai hartan, José de la Quintanak zuzendutako udalbatzak “*Aumetegui*” izeneko iturrian ur biltegi bat eraikitzea erabaki zuen, “*Pedro Ercoreca jaunaren jabetzako lurretan*” zegoen hartan, udal hiltegia urez hornitzeko. Erabakia hartu ondoren, Ercorecari itaundu zitzaion “*prest al zegoen udalari uren bilketa eta ekarpena lagatzeko*”. Onartuz gero, udalak konpromisoa hartzen zuen hari lagatzeko “*gogora ekarritako iturrirako pasagunea; bertan, proiektuan dagoen depositua eraikitzean, ur-giltza bat utziko zaio planoan adierazten den legez*”. Gerora, baldintza horiek aldatu egin zituzten, 1932ko ekaina hasieran, Antonio de Arechavaleta buru zuen udalak ukatu egin baitzion Pedro Ercorecari “*Aumetegui*” iturburuko

888 *Euzkadi* 1933-05-18.

889 SUA, 1932-1934ko Osoko Bilkuraren Akta Liburua, 1933-08-05eko eta 1933-08-19ko Bilkura Arrunta.

890 *Euzkadi* 1933-09-24.

urak aprobetxatzeko eskaera, kaltetuaren jabetzakoa den Etxebarri baserrira eroan ahal izateko. Udalbatzaren erabaki horren ondorioz, bere semeak, Andrés Ercoreca zinegotzi jeltzaleak, protesta egin zuen udalbatzako kideen aurrean. Ez zitzaion arrazoirik falta zinegotziari, izan ere, bere aita, aurretik, iturri horren jabe izatera pasatu baitzen *“handik gertu sortzen den beste iturburu garrantzitsuago baten truke”*, zeina Pedro Ercorecak *“Sopelako Udalari laga baitzion, baldin eta iturri zaharreko urak (...) erabilgarri bazeuden”* Etxebarri baserriaren jabeak eman gura zien erabileretarako⁸⁹¹.

Urtebete geroago, 1933ko ekainaren hasieran, Ercorecak beste eskaera bat aurkeztu zuen berriki aukeratutako udalaren aurrean, Zurbano alkate nazionalistak buru zuenaren aurrean. Eskaerak eztabaida zabala piztu zuen hilaren 3an egindako osoko bilkuran egon ziren zinegotzien artean. Zinegotziak, maila handiago edo txikiagoan, *“Aumetegui”* iturriaren erabilera eskatzaileari lagatzearen alde agertu ziren, betiere hiltegitirako eta alboko aska publikorako ur hornidura bermatuta geratzen bazen. Azkenik, udalak Batzorde bat izendatu zuen *Etxebarri* baserritik gertu zeuden iturburu bik ikuskatzeko eta ondorioztatu zuen hiltegiaren hornidura behar beste asetzen zela beste iturburuarekin. Halandaze, udal gobernu taldeak Pedro Ercorecak eskatutakoa onartu zuen, baina ez zuen aho batez onartu, Francisco Ondiz zinegotziak kontrako botoa eman baitzuen⁸⁹².

1926 eta 1930 artean, Primo de Riveraren diktaduran zehar Elizateko alkate izandako Fernando Oleagari eragin zion gaiaren jatorrian 1931ko maiatzaren hasieran Antonio de Arechavaleta buru zuen udalbatzak hartutako erabakia zegoen. *“Triangelu formako herri lur”* bat zegoen, hegoaldean Sopelako eskola nazionaletako irakasleen gela-etxearekin mugakide zena, eta Oleagaren jabetzako lorategiko hormarekin ere muga egiten zuena. Udalak lursail hori alanbre lauez zarratzea erabaki zuen, *“irakasleek erabil zezaten, aurretik zegoen lez”*. Erabaki horren arabera, alkate ohiak hesitu behar zen lursailerako sarbidea zen *“bere jabetzako lorategiko atea”* zarratu behar zuen. Konponbide moduan, udalak atea *“aipatutako triangelu formako lursailaren amaierara”* eramatea proposatu zion. Arechavaleta alkateak maiatzaren amaieran egin zuen berba Oleagarekin gai hori aztertzeke, baina, dirudienez, bileran tentsio handia izan zen, ekainaren 1ean egindako osoko bilkuran antzeman zen lez. Bertan, udalbatzak adierazi zuen *“atsekabe handiz”* ikusi zituela *“gizon hark alkate jaunari egindako adierazpenak”*. Hain izan ei zen handia Fernando Oleagaren haserrea, ezen uztailaren erdialdean, bere lorategiaren ondoko lursaila hesitzeko akordioari jaramonik egin barik, ez baitzuen lursail horretara ematen zuen atea zarratu, eta 30 eguneko epea eman zioten horretarako. 1933ko abuztuaren erdialdean, udal administrazioa zuzentzen zuen udal berri batekin, Oleagak baimena eskatu zuen *“bere jabetzako lorategiko atea zabaldu ahal izateko, Maisuen gela-etxearen hegoaldeko triangelu formako lursaila zeharkatuz Aquilino Arrola etorbiderako irteera baitu”*. Instantzia horretan,

891 SUA, 1921-1924ko Akordioen Liburua, 1924-02-03ko Bilkura Arrunta; SUA, 1929-1932ko Akta Liburua, 1932-06-06 eta 1932-06-13ko Bilkura Arrunta; eta SUA, 1932-1934ko Osoko Bilkuraren Akta Liburua, 1933-06-03ko Bilkura Arrunta.

892 SUA, 1932-1934ko Osoko Bilkuraren Akta Liburua, 1933-06-03ko eta 1933-06-10eko Bilkura Arrunta.

lehen zinegotzi ohiak gogoratu zuen *“aurreko udalak”* sarrera hori zarratzera behartu zuela, *“hainbat urtez erabili arren eta, ondorioz, jabetzari kalte handia eragin zitzaiola”*. Zurbano buru zuen udalbatzak ez zuen ezelango eragozpenik izan eskari hori onartzeko, eta baimena eman zuen atea berriro irekitzeko, eta 10 pezetako urteko kanona ezarri zuen udal lur horretatik igarotzeko emakidaren truke, udalak behar duen arte *“bertan etxebizitzaren bat eraikitzeko edo saltzea adosten badu”*⁸⁹³.

Adierazi lez, EAJren udal batzarrak *Euzkadi* berripapereko idazkian gai biei heldu zien, aurreko udalbatza, oro har, eta Arechavaleta alkate ohia leku ez oso onean uzten zituzten termino eta berba batzuk erabiliz. Zurbano buru zuen udalak Pedro Ercorecaren eskariari buruz onetsitako ebazpena justizia egintzatzat jo zen, eta Udalak Etxebarri baserriaren jabeari *“eragindako kaltea konpondu zuen, jauntxoan eta lekaioan haserreari irmoki aurre eginez, eta jabeari bidegabe kendutakoa itzuliz”*. Sopeloztar zuzendaritza jeltzalearen iritziz, *“konponketa hori horrelako baldintzetan egin denez, Erkoreka jauna ez da kaltetuta geratzen eta ez dira kaltetzen auzi desatsegin horretan aitzakia lez hainbeste erabili ziren udal interesak”*⁸⁹⁴.

Fernando Oleagarekin jazotakoari dagokionez, udalbatzarrak *“oraindino okerragoa den gaia”* dela esan zuen, *“aurreko Udalarari”* leporatzen baitzitzaion *“argi eta garbi, Oleagane etxearen jabearen kontrako gorroto pertsonalek eraginda”* jokatu izana, *“don Aquilino de Arriola etorbideko atea zarratzera eta hesitzera”* behartu zutelako. Hipotesi horri jarraikiz, udal lur horren itxiera *“pezeta partida handi bat kostatu zen lorategi txiki baten eraikuntza simulatuz”* egin zela esan zuten, baina ez zituela bete *“haurren aisiarako leku”* lez aurreikusitako egitekoak, eta *“maisuek erabiltzeko orube berezi”* bilakatu zela, *“sasi eta zikinkeria ugarirekin”*. Halandaze, honako hau ondorioztatu zuten: *“herriak ez zuen ezelango onurarik lortu aldaketa horren ondorioz, baina kalte nabarmena eragin zitzaion Oleaganeren jabeari”*. Dirudienez, gai horrek hautsak harrotu zituen herrian, zuzendari jeltzaleek udalari eta EAJri berari egindako gomendioari erreparatzen badiogu, *“txarto esaka ari direnei”* jaramonik ez egiteko aholkatuz, *“justizia hutsez eta guztiontzako errespetu osoz jokatzuz”*. Horri dagokionez, bidezkoa iruditu zitzaion Oleagari *“pasabideaz gozatzeagatik kanon baten ordainketa”* ezarri izana, *“jaun horren kolore politikoari (...) begiratu barik eta mendeku kanpainei eta bultzatzaileei jaramonik egin barik”*. Sopelako EAJko buruzagi nagusiek euren idazkia honako hau ohartaraziz amaitu zuten:

*“No quisiéramos vernos en la necesidad de insistir en estos asuntos, sacando a colación otros; pero si continuara la rastrera campaña iniciada con tan fútiles motivos, nos veríamos obligados a desenmascarar a esos “independientes” que tanto añoran las épocas en que este querido “baserri” fue dominado y escarnecido por ellos”*⁸⁹⁵.

893 SUA, 1929-1932ko Akta Liburua, 1931-05-04ko, 1931-05-18ko, 1931-06-01eko eta 1931-07-21eko *Bilkura Arrunta*. SUA, 1932-1934ko Osoko Bilkuraren Liburua, 1933-08-19ko *Bilkura Arrunta*.

894 *Euzkadi* 1933-09-24.

895 *Ibid.*

Arechavaleta EAJren udal batzarrak sinatutako artikulua hainbat pasarterekin minduta sentitu ahal izan bazen ere (horietan “jauntxoak eta lekaioak” edo “txarto esaka ari direnak” aipatzen baitziren), badaude erreferentzia bi, zalantzarik barik, haserrea eragingo ziotenak. Lehenengoa, Fernando Oleagari eragiten zion gaian udalak “argi eta garbi, gorroto pertsonalek eraginda” jardun zuela zioena zen. Bigarrenik, bazirudien “independentek” terminoak alkate ohinari egiten zioela erreferentzia zuzenean, izan ere, gogoan izan behar da hori izan zela dokumentazio ofizialean udalaren buru izan zenean bere ideologia politikoa definitzeko erabili zen berba.

Edozelan ere, laster etorri ziren ondorioak. Artikulua argitaratu eta egun gutxira, Antonio Arechavaletak gutun bat bidali zion udalari, esanez *Euzkadi* berripaperean irakurri zuela herriko EAJren zuzendaritzak sinatutako testua. Ongileak, testuaren edukiarekin nabarmen haserre, udalari jakinarazi zion Larrabasterako eskola berriak eraikitzeko lursail baten dohaintza bertan behera uztea erabaki zuela, baita proiektu hori gauzatzeko agindutako 30.000 pezetako mailegua ere⁸⁹⁶.

Arechavaletak eskolen proiektuari emandako laguntza ekonomikoa kentzeko hartutako erabakiak “oso egoera deserosoan” uzten zuen udala, izan ere, aipatu dugun legez, ez zuen behar beste diru lanak egiteko eta, halandaze, uko egitera behartuta egongo zen. Ikastetxe berri baten premia handia zuten, herriak “eskola arazo” larria baitzuen, behar besteko edukiera zuen eskolatarako lokalik ez zegoelako. Hori dela eta, “dozenaka dira heziketa jasotzeko adinean eskoletara joaterik ez duten gazteak”⁸⁹⁷.

Arechavaletaren haserrea ikusita, Constantino Zurbano alkateak gutun bat bidali zion, esanez “udalbatzako kide bakar batek ere ez duela zerikusirik izan, ez banaka, ez taldean, herri honetako Alderdi Jeltzalearen udal batzarrak sinatutako eta *Euzkadi* berripaperean argitaratutako kronikarekin”, eta agerian utzi zuen udaleko zinegotzietako bat bera ere ez zela batzorde horretako kide. Alkateak, orobat, adierazi zion zinegotzi guztiek erabat gaitzesten zutela *Euzkadi* berripapereko artikulua, Francisco Ondizek izan ezik, ez baitzegoen bertan. Urriaren 3an egindako ezohiko bilkuran erabaki zutenez, udaleko kideek argi utzi gura izan zuten “ez zutela bat egiten aipatu kronikarekin eta indar guztiarekin” gaitzesten zutela, “baldin eta benetan V. iraintzeko asmoz idatzi bazen”. Horrez gain, adierazi zuten “minduta eta atsekabetuta sentitzen zirela, V.k aipatu kronikaren aitatasuna eta, ondorioz, iraintzeko asmoa egotzi zizkienaren uste hutsagatik”. Gai hori azpimarratuz, udalbatzako kideek adierazi zuten ezin zutela “ulertu V. jaun hain errespetagarria laidoztatzearen eskergabetasunaren aurkako krimen hori egiteko gai izan zitezkeela

896 SUA, 1932-1934ko Akta Liburua, 1933-10-03ko Bilkura Berezia. Akta horretan Antonio Arechavaletak 1933-09-30ean Sopelako Udalari bidalitako gutunaren transkripzioa jaso zen.

897 BFAH, SOPELANA 0042/002, Bidalitako korrespondentzia, 1933, *Sopelako alkateak Antonio Arechavaletari zuzendutako jakinarazpena*, 1933-10-04.

pensatzea, bere bihotza eta ondasunak herri kutun honen mesederako hain eskuzabalki eskaini zituenean". Zinegotzien taldearen berba horien helburua oso argia zen: behar adina argi uztea euren "*jokabide zuzena eta hutsik bakoa*", Arechavaletak bere erabaki gogorra berraztertu eta atzera egin zezan⁸⁹⁸.

EAJren udal batzarrak, udalaren norabide berean arraun eginez, artikulua idatzi zuen, zeina aipatutako *Euzkadi* berripaperaren urriaren 4ko edizioan argitaratu baitzen. Testuaren goiburua, "*Okerreko interpretazio bat argitzen*", oso argi uzten zuen buruzagi jeltzaleen helburua: hilaren 24ko artikulua eragindako sutea itzaltzen saiatzea. Hasteko, "*herri honetako zenbait pertsonari okerreko interpretazio bat egin izana*" egotzi zieten, "*don Antonio de Aretxabaleta herriko merezimendu handiko auzokidearen aurka zuzenduta zegoela pentsatuz eta, hain zuzen ere, bera zela sinetsarazi arte*". Egia esan, ikusi genuenaren arabera, egunkari jeltzalean argitaratutako artikulua hark oso aipamen esplizituak zituen Antonio Arechavaleta buru izan zuten udalbatza biri buruz. Hala ere, herriko EAJren zuzendaritzak argitu gura izan zuen "*ez genuela ezertarako erreparatu solte hura idazterakoan (...) don Antonio de Aretxabaletarekin, gizon on eta prestigjotsua izanik, hori ez baita egundo zalantzan jarri, Sopelako herriaren alde egindako lan hain txalogarriak gogoan hartzeokoak baitira beti*". Azkenik, buruzagi jeltzaleek argi utzi gura izan zuten "*ez zela Aretxabaleta jauna mindu gura izan, ezta inolaz ere, aipatutako hilaren 24ko solte hartan, baizik eta, aitzitik, beste batzuk aipatzen zituela, eurena maite duten pertsonak, azken finean, herriaren mesederako diren obrak egin ez ditzaten saiatzen direnak, ñabarduren eta ideologiaren bereizketarik barik*"⁸⁹⁹.

Ez zuten ezertarako balio izan EAJren udal batzarraren jendaurreko argibideek, ezta Udalak Arechavaletari bidalitako gutunak ere. Urriaren 21ean, alkateak gainerako zinegotzietan iragarri zien ez zela jaso gutunaren erantzunik eta, halandaze, adierazi zuen komenigarria litzatekeela Batzorde bat izendatzea ongilearekin berba egiteko, eskola berrien proiektuaren egoera larria konpontzeko. Zeregin horretarako, Pedro Saitua eta Silverio Areitio zinegotziak izendatu zituzten, eta Arechavaletarekin bildu ziren, "*jaun hori nahiko jarrera onean aurkitu zuten eta udalaren ofizioari erantzungo ziola agin du zuten*", urria hasieran bidalitakoari. Berba eman bazuen ere, azaroaren erdialdean, udalak oraindino ez zuen ezelango erantzunik jaso eta, hori dela eta, adostu zuten hilaren 18a baino lehen "*don Antonio Arechavaletari arren eskatuko ziotela*" 30.000 pezetako mailegua udalarekin itunduko ote zuen jakinarazteko, 1933ko abuztuaren erdialdean udal gobernu taldeari bidali zion idazkian adierazten zuen konpromisoan jasota zegoenaren arabera. Udalbatzak Arechavaletari ohartarazi zionez, hala ez bazen, "*euren borondate on guztiaren kontra eta min eta sentimendu sakonez*", bide judiziala erabiliko zuen, "*hartutako konpromisoa betetzera behartzeko*"⁹⁰⁰.

898 Ibid.

899 *Euzkadi* 1933-10-04.

900 SUA, 1932-1934ko Osoko Bilkuraren Akta Liburua, 1933-10-21eko eta 1933-10-28ko eta 1933-11-11ko *Bilkura Arrunta*.

Arechavaletaren erantzuna, azaroaren 17koa, abenduaren 2ko osoko bilkuran irakurri zena, laburra izan zen, baina oso argia. Tokiko ongileak ezezkoari eutsi zion, eta adierazi zuen ez zuela uste “*maileguaren eskaintza betetzera behartuta zegoenik*”, izan ere, “*udal horrek ez baitu aurretik onartu eta gaur egun ere ezin delako onartu*”. Zinegotziek adierazi zuten “*atsekabe handiz jaso zutela Arechavaleta jaunaren erabaki erradikala, udalbatzaren aldetik ez baita horretarako ezelango arrazoirik izan*”. Ongilearen erabakiak “*udala egoera zail eta deserosoan*” uzteaz gain, “*udalerriri eta, oro har, bertako bizilagun guztiei kalte larriak*” eragingo zizkien, “*orain oinarririk barik ukatzen zaion maileguarekin egin gura zen obra handia kontuan hartuta*”⁹⁰¹.

Ondorio horiek ikusita, udalbatzak, ohartarazi lez, kasua Tomás Eguidazu letraduaren esku uztea erabaki zuen, zeinak gutun bat bidali baitzion Antonio Arechavaletari, gaia jorratzeko. Abenduaren 6an, abokatuaren bulegora joan ziren Isidoro Zamacona eta Josefina Arechavaleta senar-emazteak, Arechavaletaren suhi eta alaba, Arechavaleta bera ezin izan baitzen bertaratu, “*bere osasun egoera delikatu zela eta*”. Eguidazu jaunak ikastetxe berriaren proiektua zer egoeratan geratu zen azaldu zion bikoteari, baita udalari obren kostua bere gain hartzea ezinezkoa zitzaiola ere. Azalpen horien ondoren, “*Arechavaleta jaunaren alabak*” erantzun zuen, “*bere aitak eskaintako kopurua eman zezan, ezinbestekoa zela udalak (...) diktadura aldian hartutako erabakien kontra egindako akordioetan atzera egitea eta, gainera, egunkarietan argitaratzea*”. Abokatu tentsioa murrizten saiatu zen, baina argudiaketa guztiak alferrikakoak izan ziren, senar-emazteak minduta baitzeuden “*udal horrek aurrekoaren kontra izandako jokabideagatik*”⁹⁰². Arechavaletaren alaba eta suhia, ziurrenik, Zurbano buru zuen udalak Pedro Ercorecari eta Fernando Oleagari eragin zieten gaiei buruz hartutako erabakiei buruz ari ziren, gai horiek izan baitziren 1933ko irailean *Euzkadi* berripaperean argitaratutako idazki polemikoaren protagonistak. Josefina Arechavaletak mailegua emateko ezinbesteko baldintza lez udalak Ercorecari eta Oleagari buruzko akordioak desagitea eta prentsak horren berri ematea aipatu izana, zalantzarik barik, egunkari jeltzaleko artikulua eurengean eta Antonio Arechavaletarengan eragin zuen haserrearen erakusgarri da.

Tomás Eguidazuk egoera modu adiskidetsuan konpontzeko egindako bitartekaritzak porrot egin ondoren, bazirudien bide judiziala zela geratzen zen bakarra, Arechavaletaren aurkako demanda bat jartzea, alegia. Hala ere, abokatuak zera adierazi zuen: “*gaia, dagoen lez, itxura txarra ikusten diot udalarentzat*”. Izan ere, Auzitegi Gorenaren epai batzuetan eman zen irizpenaren arabera, eskritura publikoa behar zen lursail bat dohaintzan emateko. Halandaze, Antonio Arechavaletak egindako orubearen dohaintza baliogabea litzateke, “*bere garaian ez zelako, beharrezkoa zen moduan, zegokion eskritura publikoa eman*”. Lurraren dohaintza baliogabea zenez, mailegua ere baliogabea zen, “*bigarren mailakoa delako eta lursailaren izaerari jarraitzen diolako, hori baita garrantzitsuena*”⁹⁰³.

901 SUA, 1932-1934ko Osoko Bilkuraren Akta Liburua, 1933-12-02ko *Bilkura Arrunta*.

902 SUA, 1932-1934ko Osoko Bilkuraren Akta Liburua, 1933-12-23ko *Bilkura Arrunta*.

903 *Ibid.*

Auzibidea baztertu ondoren, inguruko Lehen Irakaskuntzako ikuskatzaile Santos Samperrekin jorratu zen gaia eta hark, 1934ko otsailaren hasieran, Sopelako Udalari eskatu zion idatziz jakinarazteko Larrabasterrako eskolak eraikitzeko prest ote zegoen, baldin eta Arechavaletak 30.000 pezetako mailegua lagatzen bazuen. Izan ere, Samperrek ongilearekin berba egiteko asmoa zuen, ezezkoa alde batera utz zezan saiatzeko. Ikuskatzailearen kudeaketak alferrekoak izan ziren, Arechavaletak udalari mailegua ez emateko erabakiari eutsi baitzion⁹⁰⁴. Ez dirudi Zurbano buru zuen udalbatzak gaiari berriro heldu zionik eta, Bigarren Errepublika garaiko Sopelako hezkuntza jorratzen dugunean ikusiko dugunez, proiektua aurrera atera zen Ardoaren Estatutuaren gatazkaren ondoren ezarritako Udal Kudeatzailearen garaian, zeinak Isidoro Zamacona kide baitzuen.

2.3.6. Ardoaren Estatutuaren gatazka eta 1934ko urriko iraultza eta horien ondorioak

Sopelako Udalak Errepublika garaian izan zuen bilakaerari buruz berba egin dugunean aipatu lez, 1934 oso urte gatazkatsua izan zen Euskadin, udako hilabeteetan batez ere, **Ardoaren Estatutua** deritzona ezartzeko proiektuaren ondorioz euskal udalen eta Estatuko Gobernuaren arteko liskarrak egon baitziren. Gatazkak garrantzi handiagoa hartu zuen abuztuaren 12tik aurrera: egun horretan, udalek zeharkako hauteskundeak egin zituzten behin betiko Udalen Batzorde bat aukeratzeko, baina Gobernadore Zibilak debekatu egin zituen. Horren ondorioz, hainbat alkate atxilotu eta auzipetu zituzten, tartean Sopelakoa. Iraila hasieran, 7an hain zuten ere, euskal udaletako zinegotzi abertzale eta ezkertiar guztiek batera aurkeztu zuten euren dimisioa. Postu huts horiek betetzeko, Kudeaketa Batzordeak izendatu zituzten, baina zailtasunak egon ziren kideak aukeratzeko orduan, izan ere, kasu askotan berehalako dimisioa aurkeztu zuten, udalerrietan bizitzen ari ziren egoera tirabiratsuen ondorioz. Horrela jazo zen Sopelan, non kudeatzaile izendatu berriek dimisioa aurkeztu zuten irailaren 14an, eta udala udalbatza barik geratu zen azaroaren 7ra arte.

Urriaren 5eko egunsentian **Urriko Iraultza** piztu zen Bizkaian, Estatuko hainbat lekutan —Asturiasen eta Katalunian batik bat— eragina izan zuen greba orokorra. Bizkaian astebeteko iraupena izan zuen mugimendu iraultzaileak eta batez ere Bilbori, Nerbioi itsasadarraren inguruko industrialdeari eta meatzaldeari eragin zien. Sopelan eta inguruan grebak izan zuen eraginari dagokionez, hasiera-hasieratik nabaritu zen, adibidez, trenbideetako garraioan. Hilaren 5ean bertan, goizean, trenak modu irregularrean ibili ziren eta, azkenean, zerbitzua bertan behera geratu zen. Egoera hori hilaren 6ra eta 7ra ere luzatu zen⁹⁰⁵. Isidoro Zamacona Sopelako alkateak 1939ko ekainean egindako txosten bati erreparatuz gero,

904 SUA, 1932-1934ko Osoko Bilkuraren Akta Liburua, 1934-02-10eko eta 1934-02-17ko *Bilkura Arrunta*.

905 *La Gaceta del Norte* 1934-10-09.

1934ko gertakari iraultzaileetan zehar, Bilbotik Plentziarako errepidean hainbat pertsona ibili ziren autoak geldiarazten, eurak miazteko. Horien artean Gonzalo Julián García Fernández Sopolako bizilaguna zegoen, filiazio sozialistakoa, zeina Getxon atxilotu baitzuten ekintza hartan parte hartzeagatik⁹⁰⁶.

Bilboko “*eta probintziako herrietako*” establezimenduei dagokienez, guztiak zarratuta egon ziren hilaren 5ean, “*bankuak eta telefono eta telegrafo bidezko komunikazioen zerbitzuak*” izan ezik, horiek “*ahalik eta normaltasun handienarekin*” egin baitzuten lan⁹⁰⁷.

Sopolako prozesu iraultzaileari buruzko zenbait datu ezagutzeko, ezinbestekoa da Sopolako Udal Ikerketa Batzordeak (JMI) Gerra Zibilean sortutako dokumentaziora jotzea. Batzorde hori izan zen udalerrian ondasunak zituzten hainbat jabe erregimenari atxikitzea edo desatxikitzea ebatzteaz arduratu zen toki erakundea, horretarako hainbat espedienteri hasiera emanaz. Horixe izan zen Antonio Arechavaleta alkate ohiaren kasua, zeinari buruz zera baieztatu baitzen:

“Este individuo en Octubre del año 1934 tenía establecido el cuartel de la Guardia Civil en su casa a donde les daba orden de detener a los que él creyó conbeniente (sic), llegando a ser detenidos tres nacionalistas por orden expresa de este señor, y un sin número de cacheos domiciliarios a otros significados como socialistas, llegando asta (sic) el atropello personal, no pudiendo circular de noche por la calle por correr el peligro de ser fusilado. Todo esto lo ordenaba el arriba citado con la ayuda de su yerno y su hija llamados Isidoro Zamacona y Josefina Arechavaleta”⁹⁰⁸.

Aipatutako Zamaconari dagokionez, espedientea 1937ko apirilean ireki zitzaion, honako hau adieraziz: “*Este individuo fue el que en Octubre del 34 dio aviso a la Guardia Civil para que fueran encarcelados barrios (sic) individuos de esta localidad llebando (sic) a efecto un sin número de cacheos a domicilio de los nacionalistas y componentes de los partidos del Frente Popular*”⁹⁰⁹. Aurreko orrialdeetan azaldu lez, 1933ko apiriletik behintzat, Zamaconak ez zuen ospe on handirik Sopolako bizilagunen artean eta, ikusiko dugunez, sentimendu horrek ez zuen behera egin. Aitagarrebari dagokionez, herriko abertzaleekin zituen harremanak ez ziren oso onak jazotako desadostasunen ondorioz, ikusi dugun lez, EAJren udal batzarrak 1933ko irailaren amaieran sinatutako artikulua bat *Euzkadi* berriparean argitaratu ondoren.

Amaitzeko, espediente bi horietan Antonio de Arechavaleta eta bere suhia greba iraultzailearen ondoriozko errepresioaren zuzeneko erantzule gisa aipatzen zituzten. Ez daukagu ezelango informaziorik *Urriko Iraultzak* Sopolan zer nolako

906 BFAH, SOPELANA 004/002, Bidalitako korrespondentzia, 1939, *Sopolako alkateak 6. eskualde militarreko auditoretzako instrukzioko epaileari zuzendutako jakinarazpena*, 1939-06-20. Zamaconak dokumentu horretan adierazi zuenez, Gonzalo Julián García “*Sopolako Zentro Gorriaren sortzaileetako bat izan zen, Sozialista edo Komunista moduan*”.

907 *La Gaceta del Norte* 1934-10-09.

908 MEMORIA HISTORIKOAREN DOKUMENTAZIO ZENTROA (MHDZ), PS Barcelona 93,1,111, *Sopolako JMik erregimenaren aurkakotzat jotzeko espedientea*. Izena: Antonio Arechavaleta, 1936-12-20.

909 MHDZ, PS 93, 1, 112, *Sopolako JMik matxinatutzat jotzeari buruzko espedientea*. Izena: Isidoro Zamacona Charroalde, 1937-04-05.

eragina izan zuen baloratzeko, baina ez dirudi istilurik sortu zenik eta, azaldu berri dugun informazioaren arabera, ondoriozta dezakegu ordena publikoko indarrek kontrolpean izan zutela herria matxinadaren lehen konpasetatik.

Aipatzekoa da une hartan Sopolako bizilagunek eta Guardia Zibilak ez zekitela herriko etxebizitza bat *Urriko Iraultzarako* armategi baten gordeleku gisa erabiltzen ari zirenik. Geroago izan zen gertaera horren berri, 1935eko abenduaren 4an, hain zuzen ere. Egun hartako arratsaldean, Plentziako Guardia Zibilak miaketa bat egin zuen Ángel Libanoren *Itxasondo* etxean, eraikinaren lehen solairuan, zehazki, zeina Sestaoko Alfonso Guerrero Garrote izeneko bizilagun bati alokatuta baitzegoen. Pisu haren barruan, agenteek 3 kutxa aurkitu zituzten, “*hutsik zeuden burdinurtuzko 152 bomba zilindriko, malguki bat, hutsik zegoen pistola kargagailu bat eta liburuxka iraultzaile ugariekin*”. Guerrero bertan zegoen miaketa egiten ari zirela eta atoan atxilotu zuten. Sopolako alkateak jakinarazi zuenez, Alfonso Guerrero Longinos Pérez Fuente Elizateko bizilagunaren laguna zen, zeina une hartan kartzelan baitzegoen, *Banco de Vizcayak* Ezkerraldean zuen sukurtsalean egindako lapurreta batean ustez parte hartzeagatik. Pérezek zuen erregistratutako gelako giltza, antza denez, Guerrerok eman baitzion, urtebete zeramalako etxebizitzan agertu barik eta “*etxeko aireztapena zaindu zezan*”⁹¹⁰.

Prentsak, logikoa den lez, zehatz-mehatz jorratu zuen gaia, eta haren irakurketak informazio osagarria ematen digu. Antza denez, Plentziako Guardia Zibilak egun batzuk zeramatzen lehergaien biltegi horren aztarnaren atzetik eta, *La Gaceta del Norte*k adierazi zuenez, “*34ko mugimendu iraultzailerako*” prest zegoen. Bestalde, *El Pueblo Vasco*k adierazi zuen Alfonso Guerrero “*izaera marxistakoa*” zela eta “*jada atxilotuta egon zela urriko gertakariak zirela eta*”. *El Noticiero Bilbaíno* egunkarian zehaztu zuten atxilotua CNTkoa zela eta, azaldu zuten, ezagutzen ez zuen pertsona batek eman ei zizkion bonbak Bilbon; 104 liburuxka iraultzaileak, ostera, “*Valentziara joan zen beste pertsona batek*” eman zizkion⁹¹¹.

Iraultza piztu ondorengo egunetara itzulita, jakin badakigu herriko bizilagun guztiei eragin zien grebaren ondorioetako bat elikagai batzuen hornidurarik eza izan zela. Horrela, urriaren 11n, Kontsumoko Kooperatiba Sozietatearen ordezkari bat udal idazkariarengana joan zen eta jakinarazi zion “*behar-beharrezko artikuluen izakin batzuk agortu egin zitzaizkiela*”. Gabeziei irtenbide bat emateko, ordezkariak jakinarazi zuen “*Areetako establezimendu batean, zaldidun gurdi batekin*” elikagaiez horni zitezkeela, “*baldin eta nork zainduko zuen bazuten, edozein gorabehera desatsegin saihesteko*”. Eskera horri erantzunez, idazkariak laguntza eskatu zion Plentziako Guardia Zibilaren postuari⁹¹².

910 BFAH, SOPELA 0042/004, Bidalitako korrespondentzia, 1935; *Sopolako alkateak Bizkaiko Gobernadore Zibilarari helarazitako jakinarazpena*, 1935-12-04. Longinos Pérezi buruzko informazio osagarria: *La Gaceta del Norte* 1935-11-28 eta 1936-01-26.

911 *El Liberal* 1935-12-05 eta 1935-12-06, *El Noticiero Bilbaíno* 1935-12-05 eta 1935-12-06, *El Pueblo Vasco* 1935-12-05, *Euzkadi* 1935-12-05 eta 1935-12-06, eta *La Gaceta del Norte* 1935-12-05 eta 1935-12-06.

912 BFAH, SOPELANA 0042/003, Bidalitako korrespondentzia, 1934, *Sopolako Udal Idazkariak Plentziako Guardia Zibilaren Postuko Kabo Komandanteari zuzendutako ofizioa*, 1934-10-11.

Egun berean, Gobernadore Zibilak telefonoz agindu zuen José Garay Amechazurra udaleko idazkaritzako laguntzaileari lana eta soldata eteteko, “beste agindurik jaso arte, egun hauetako greba iraultzailean Udal Bulegoetara ez joateagatik”⁹¹³.

Ez zen grebaren ondoren errepresio neurriak jasan zituen bizilagun bakarra izan. Badakigu Avelino Garay Amechazurra, EAJ-PNVko afiliatua, Sopelako Ur Zerbitzuko zerga biltzaile gisa ziharduena, azaroaren hasieran atxilotu eta “*Probintziako Agintaritza Militarraren esku*” utzi zutela. Azaroaren 17an egindako osoko bilkuran, Isidoro Zamacona zinegotziak azaldu zuen Garayk, espetxeratuta zegoenez, atzeratuta zituela Ur Zerbitzuaren kontuak eta kobrantzak. Zamaconak gainerako zinegotziei azaldu zenez, Antonio de Arechavaleta “*bere aitaginarreba*” eta zerbitzu horren esleipenduna zenaren “*nahia*” bitarteko zerga biltzaile bat izendatzea zen, “*diru bilketak gehiago atzeratu ez daitezten eta jaun-andre abonatuaren kontagailuak berrikusi ahal izan daitezten, kontsumitutako ur-kopuruak kobratzeko*”. Udalak, proposamena arrazoizkoa zela ikusita, Arechavaletari berari eskatu zion bitarteko zerga biltzaile baten izendapena kudea zezan⁹¹⁴.

Hala ere, azaroaren 24an egindako hurrengo osoko bilkuran, Zamacona harago joan zen, eta Avelino Garay kargutik kentzeko eskatu zuen, argudiatuz hilabete bi zirela ez zirela ur-kontagailuak berrikusten eta horrek, hitzartutakoaren arabera, urriaren amaieran eginda behar zuela. Gainera, Zamaconak erantsi zuen Garayk zuela iraileko diru bilketa (556,50 pezeta), eta ez zuela “*likidazioa egin, urriaren 15a baino lehen eginda eduki behar bazuen ere*”. Zinegotziaren iritziz, “*Garay jaunak zuzen jokatu gura izan balu, Guardia Zibilak atxilotu zuenean, indarrean den hilabetearen hasieran, Alkatetzari edo zerbitzuaren esleipendun den Antonio de Arechavaleta jaunari eman behar zion aipatutako kopurua eta, egin ez duenez, kargutik kendu beharko genuke*”. Zamaconaren proposamenari Juan de la Quintana zinegotziak erantzun zion, Avelino Garayren alde ateraz, zera esanez,

*“(…) justo ni legal, destituir al Sr. Garay del cargo de Recaudador del Servicio de Aguas en la forma fulminante que pretende el Sr. Zamacona, pues a su juicio debía formarse el oportuno expediente en que se de audiencia y oiga al interesado y ello no puede tener lugar en estos momentos por hallarse detenido éste, por tanto cree debe esperarse a que quede en libertad y entonces adoptar el acuerdo conveniente, pero siempre mediante la instrucción del expediente mencionado”*⁹¹⁵.

Isidoro Zamaconak mantendu egin zuen Garay kargutik kentzeko proposamena, eta udalak onetsi egin zuen, idazkariak udalbatzari ohartarazi bazion ere hartutako erabakia legez kanpoko zela; aurkako boto bakarra zenbatu zen: Juan de la Quintana zinegotziarena⁹¹⁶.

913 BFAH, SOPELANA 0042/003, Bidalitako korrespondentzia, 1934, *Sopelako Udal Idazkariak José Garay Amechazurrari zuzendutako ofizioa*, 1934-10-11.

914 SUA, 1932-1934ko Akta Liburua, 1934-11-17ko Bilkura Arrunta.

915 SUA, 1932-1934ko Akta Liburua, 1934-11-24ko Bilkura Arrunta.

916 Ibid.

1935eko martxoaren 12an *Euzkadi* berripaperean argitaratutako artikulua bati erreparatuz gero, Avelino Garay ez zen izan une horretan zinegotzia zen Zamaconak hartutako erabakien eragina jasan zuen bizilagun bakarra. “*Jauntxokeria ekinean*” tituludun idazkian salatuenez, “*zoritarrez ezaguna den Zamakona udal kudeatzaileari*” ez zitzaion nahikoa “*elizate honetako hainbat bizilagun biktima egin dituen erasoarekin*” eta, horregatik, “*begitan dituen guztiak leherrarazten jarraitzeko prozeduren bila eta bila dabil. Horiek nazionalistak direla esatearekin zurrizten dute*”. Hala ere, artikuluan ez zen gai horretan sakondu, eta agintzen zuten etorriko zela unea, “*jauntxo honen jardunaz askatasun handiagoz berba egin ahal izateko*”⁹¹⁷.

Seguru asko, egile anonimoa 1935eko otsailaren amaieran izandako Federico Aguado Sustacha abertzalearen atxiloketaz ari zen ezkutuan, baita Leandro Urriolabeitia Ayogarenaz ere, zeina 1937ko otsailean afiliatu sozialista lez agertzen baitzen. 1935eko otsailaren 21etik 22rako gauean *Antonio de Arechavaleta* plazako 14 zuhaitz moztu eta bota izana leporatu zieten biei. Zuhaitz horiek eskoletako umeek landatu zituzten hil beraren 9an, “*Zuhaitzaren Jai*” delakoaren ospakizunaren barruan. Apirilaren 8an, Udal Epailak ebatzi zuen Plentziako Guardia Zibilak egindako atestatuak ez zuela “*Enkarterrikoen erruduntasunaren froga fede emaille nahikorik*” eta, halandaze, akusatuak absolbitu egin zituen⁹¹⁸.

Euzkadi berripaperaren idazkira itzuliz, “*bete-bete osasun jurisdikzioan geratzen den kasu bat, edozeinen esku egon ezin daitekeena*” jorratu zen, Zamaconari erreferentzia argia eginez, zeinari buruz baieztatu baitzen “*bizitza eta ondareen ugazaba*” zela. Antza denez, “*eskubide ororen kontra*”, Larrabasterako bizilagun bati ur-hornidura moztea erabaki zuen, “*aurretik ere ezaguna zen bere oldarkortasunagatik, eta hala jokatu du auzo baketsuan harridura orokorra eta eskandalua sortuz*”. Kaltetuak, zeinaren izenaren berri ez baitugu, helegitea jarri zuen Osasuneko Udal Batzordean eta jazotakoaren berri eman zitzaion Batzorde Probintzialari, erakunde horrek, “*kudeatzaile zakarrak jazarritakoaren higijenea eta arrazoia zainduz, lehen zentzatu du, jokabide arbitrarioagatik hartzekodun den zigorrak ezarriz*”⁹¹⁹.

2.3.7. 1936: Gerra Zibilaren aurreko gatazkak

1935eko martxoaren erdialdean, *Euzkadi* berripaperean Isidoro Zamaconari buruzko artikulua argitaratu ondoren, ez dugu berriro aurkitu Arechavaletaren suhiaren eta haren ingurua aipatzen duen ezelango informaziorik. 1936ko otsaileko hauteskunde orokorrak baino egun batzuk lehenago, *El Liberal* egunkarian solteko bat argitaratu zuten, non Sopelako maizterrek jasandako hertsapenak salatzen ziren: ezkutuan Zamacona seinalatzen ari ziren susmoa dugu. María Irazola delako batek sinatutako idazkia “*Larrabastera eta Sopelanako adiskideei*” zuzenduta

917 *Euzkadi* 1935-03-12.

918 BFAH, SOPELANA 0042/004; Bidalitako korrespondentzia, 1935; *Sopelako alkateak Bizkaiko Gobernadore Zibilar* egindako jakinarazpena, 1935-02-24; eta *Sopelako alkateak Bizkaiko Diputazio txit goreneko Basoetako Zerbitzuko ingeniari buruari egindako jakinarazpena*, 1935-04-08.

919 *Euzkadi* 1935-03-12.

zegoen eta, ohartarazten zienez, “*badabil berriro ere azeria, kontzientzia bako gizona, eskumentzako botoen bila. Badabil berriz maizterrak engainatzen, ezkertiarrek irabazten badute baserriak salduko dituztela mehatxatzen*”. Artikuluaren egileak mehatxu horiei jaramonik ez egiteko eta aurreko hauteskundeak, 1933ko azarokoak, gogoratzeko iradoki zien bere irizkideei. Irazolaren arabera, “*koitadu*” askok orduan amore eman zuten egin zizkieten promesen aurrean, botoa eskumei emanez. Hala ere, hautetsontzietan kontserbadoreak babestu bazituzten ere, boto emaile horien baldintzek, antza denez, okerrera egin zuten, izan ere, artikulgilearen arabera, “*lurrak salduz, errentak igoz eta botata utzita*” ordaindu zieten. María Irazolak ohartarazpen batekin amaitzen zuen idazkia: “*azeria eta bere adiskideak zelatan dabilta, euren apatxarekin, gu galtzen amaitzeko*”. Hori dela eta, bere adiskideei batasuna eta botoa “*ezkerrei*” ematea eskatu zien⁹²⁰.

Aurreko orrialdeetan ikusi dugun lez, hauteskunde garaian herrian jazotako hertsapenen salaketak ez ziren berriak, 1933ko maiatzaren erdialdean *Euzkadi* berripaperak María Irazolak geroago aipatu zituenak legezko amarruak salatu baitzituen. Bestalde, Gerra Zibil betean, Sopelako Udal Ikerketa Batzordeak (JMI) argi eta garbi leporatu zion Antonio Arechavaletari jardunbide txar horiek egitea. 1936ko abenduan abiarazi zuten espedientearen adierazitakoaren arabera, hauteskundeetan zehar, “*bere maizterrei gutunak eman zizkien, botoa hautagaitza monarkikoari emateko gomendatuz, betiere bere nortasuna arriskuan jarri barik eta gonbidapen hori sinatu barik (sic), baina mehatxatuz, hautagaitza hori bozkatu ezean kaleratuak izan daitezkeenarekin*”⁹²¹. Ez zen izan JMik hertsapen mota horren egile gisa seinatu zuen jabe bakarra, izan ere, data horietan Enrique Balparda Getxoko bizilagunari eta lanbidez Merkataritzako Nabigazioaren kapitaina zenari abiarazi zioten espedientearen, adierazi zuten “*bere bizitza osoan monarkikoa*” izan zela eta “*bere maizterrei hautagaitza monarkikoaren alde bozkatzeko agindu ziela*”⁹²². Aipatu beharra dago era horretako jardunbideen salaketak ez zirela soilik Sopelako udalerrian jazo, baizik eta baita inguruko herrietan ere, halan zelan Urdulizen edo Barrikan⁹²³.

Azaldu genuen lez, 1936ko otsailaren 16ko hauteskunde orokorretan Fronte Popularrak garaile izan ondoren, Azaña buru zuen gobernuak amnistia eman zien delitu politiko eta sozialengatik zigortutako eta auzipetutako guztiei. Neurri hori mesedegarria izan zen Ardoaren Estatutuaren gatazkaren ondorioz kondenatuak izan ziren euskal zinegotzientzat, zeinak euren karguetara itzuli, eta batzorde kudeatzaileetako kideak kargutik kendu baitzituzten. Horrela, azaroaren 23an demokratikoki hautatutako zinegotziek euren karguak hartu zituzten Sopelako Udalean.

920 *El Liberal* 1936-02-05.

921 MHDZ, PS Barcelona 93,1,111, *Sopelako JMik erregimenaren aurkakotzat jotzeko espedientea*. Izena: Antonio Arechabaleta, 1936-12-20.

922 MHDZ, PS Barcelona 93,1,108, *Sopelako JMik erregimenaren aurkakotzat jotzeko espedientea*. Izena: Enrique Balparda, 1936-12-20.

923 SOMOKUETO, 156-157 or.

Otsailaren 29an, Gobernuak 1934ko urriko grebaren ondorioz kaleratutako langileak berriz hartzeko agindua eman zuen. Agindu horri jarraikiz, egun hartan bertan, udalak José Garay Amechazurra berriro onartu zuen Idazkari laguntzaile postuan, 17 hilabetez enplegu eta soldata barik —eta ezelango diru sarrerarik jaso barik— egon ondoren. Eusko Langileen Bizkaiko Federazioak (STV) —Garay kideen artean zuela— eskatu zutenaren arabera, aipatutako dekretuaren 3. artikuluari jarraikiz, Sopelako Udalarri enplegatuari kalte ordainak ematea zegokion, 1934ko urritik 1936ko otsailera bitartean jaso ez zituen soldatak ordaintzeko. Horri dagokionez, Eusko Langileen Bizkaiko Federazioko presidentek Sopelako Udalarri gogorarazi zion bazegoela horri buruzko jurisprudentzia, Bilboko Udalak 34ko urriko *“grebaren ondorioz kaleratutako langileei sortutako eta ordaindu bako soldata guztiak ordaindu baitzizkien”*. Garayk kalte ordaina jaso zuela pentsatu behar dugu, kontuan hartzen badugu udalean apirilaren erdialdean *“langile horrek planteatutako gaiaren ebazpena izapidetzen”* ari zirela⁹²⁴.

Avelino Garay Amechazurra, 1934ko azaroan Sopelako Ur Zerbitzuko zerga biltzaile kargutik kendu zutena, STV sindikatu nazionalistaren atal baten bazkide ere bazen: Eusko Langileen Bizkaiko Federazioarena. Aurreko kasuan lez, erakunde horrek udalarri langilea bere karguan berriz onar zezan eskatu zion eta, kalte ordain lez, kargua utzi zuen aldian jaso ez zituen soldatak jaso zitzaizkien. Gogoan izan behar dugu, kasu horretan, Garay kargutik kentzea ez zela legezkoa izan, Udal Kudeatzaileak ez baitzion, Legeak agintzen zuen lez, aurretiko espedienterik ireki. Halandaze, martxoaren 14an, udalak baliogabetzat jo zuen kaleratze hura, eta langilea kargura itzultzea erabaki zuen. Horrela, apirilaren 1ean itzuli zen kargura, Uren Zerbitzuko esleipendun Antonio Arechavaletak haren betebeharra eta eginkizunak berrikusi ondoren⁹²⁵.

1936ko udaberriak polemika berria ekarri zuen herrira. Apirilaren 9an, Larrabasterra auzoko Eskolara joaten ziren haurren 21 gurasok alkatearen aurrean salatu zuten hainbat irregulartasun pedagogiko gertatzen ari zirela Concordia Moral irakaslearen ardurapean zegoen ikastetxe hartan. Aita-amek adierazi zuten ez zekitela ikastetxean zer ordutegi zituzten, haurrak *“goizeko bederatzietan zein hamarretan sar daitezkeelako, eta sartu bezain laster jolas ordura ateratzen*

924 BFAH, SOPELANA 0036/004, Jasotako korrespondentzia, 1936, *Eusko Langileen Bizkaiko Federazioko presidentek Sopelako alkateari zuzendutako instantzia*, 1936ko martxoa; eta *Eusko Langileen Bizkaiko Federazioko presidentek Laneko Bizkaiko Lurralde Ordezkaritari zuzendutako instantzia*, 1936-03-10; eta BFAH, SOPELANA 0044/003, Bidalitako korrespondentzia, 1936, *Sopelako alkateak Laneko Bizkaiko Lurralde Ordezkaritari zuzendutako jakinarazpena*, 1936-04-15.

925 BFAH, SOPELANA 0036/002, Jasotako korrespondentzia, 1933, *Eusko Langileen Bizkaiko Federazioko presidentek Sopelako alkateari zuzendutako instantzia*, 1936-03-03. (Dokumentu hori akats batengatik dago espediente honetan jasota, okerreko data duelako: 1933. urtea agertzen da, baina 1936koa da).

BFAH., SOPELANA 0044/003, Bidalitako korrespondentzia, 1936, *Sopelako alkateak Avelino Garayri zuzendutako ofizioa*, 1936-03-18, eta *Sopelako alkateak Laneko Bizkaiko Lurralde Ordezkaritari zuzendutako ofizioa*, 1936-03-31.

BFAH, SOPELANA 0075/025, *Sopelako Udalak izapidetutako espedienteak, Antonio Arechavaleta Urrechagak, udalerrri horretako ur-zerbitzuaren esleipendunak, 1932ko urriaren 17an Avelino Garay Amechazurra ur-zerbitzuko zerga biltzailearen betebeharrak eta eginkizunei buruz egindako hitzarmena zuzentzeko egindako proposamenari buruzkoa*.

direlako” eta andereñoa, berriz, “*bere etxeko lanak egitera joan eta gogoak ematen dionean itzultzen delako*”. Bestalde, adierazi zuten “*beste herri batzuetatik etorritako*” hainbat ikasle zeudela, eskola horretara “*irakurtzen zekitela iritsi arren, gaur egun, silabaz silaba modu kaskarrean ahoskatzen besterik ez dakitenak*”. Antza denez, irakasleak “*irakurtzen irakatsi beharrean, umeek, horretarako adinik ez dutelako, jakin behar ez dituzten gauzak irakasten ari dela, abortuei eta erditzeei buruz berba egiten baitie, eta gurasoei*” ez zitzaien hori gustatzen. Azkenik, salatu zuten eskolan, Errepublika “*erregimen guztiz laikoa*” izan arren, bazegoela “*irudi bat, eta hurrei haren aurrean belaunikatzera eta eskola orduetan haren aurrean otoitz egitera behartzen zituztela*”. Gurasoek, irakaslearen jarduteko moduarekin ados ez zeudenez, “*atoan eta bat-batean kanporatzeko*” eskatu zuten, “*ezinezkoa delako jokabide horiek onartzea*”⁹²⁶.

Sopelako Udalak apirilaren 11n egindako osoko bilkuran eztabaidatu zuen salaketa. Idazkian maistraren aurkako “*egozpen larriak*” egiten zirela ikusirik, Probintziako Lehen Hezkuntzako Ikuskatzaileari jakinaraztea erabaki zuten eta, ahal izanez gero, salaketa jarri zuten gurasoekin biltzeko eskatu zioten, “*jaiegun batean, langileak zirelako eta, bestela, kaltea eragingo zitzaielako egun bateko jornaia galdu beharko zutelako*”. Eskaera hori betez, elkarrizketa apirilaren 26an egin zen, domekan, eta gurasoek salatutako gertakariak berretsi zituzten⁹²⁷.

Bestalde, maiatzaren hasierara arte behintzat, Lehen Hezkuntzako Tokiko Kontseiluak, herriko hezkuntzaren egoera ebaluatzeaz arduratzen zen erakundeak, ez zekien ezer gai horren inguruan. Argi geratu zen maiatzaren 6an egindako bileran, Kontseiluko kideek adierazi baitzuten “*bide estraofizialen*” bidez izan zutela Concordia del Moralen aurkako salaketaren berri. Horrez gain, jasota utzi zuten Kontseiluak ez zuela jaso “*ez ahozko, ez idatzizko kexarik maistra andrearen kontra*”⁹²⁸.

Aipatu maiatzaren erdialdean, gai horri buruzko albisterik egon ezenez, salatzaileak ordezkaten zituzten hiru gurasok osatutako Batzorde batek alkatearengana jo zuen, Lehen Irakaskuntzako Ikuskatzaileak Concordia Morali irekitako espedientea “*behar lez izapidetu eta zegokion bidea eman zion*” jakiteko, “*jardungo dugun modurako jakitea interesatzen baitzaigu*”. Batzordeak oso argi utzi zuen gaia presakoa zela, eta alkateak nahiko azkar egin zituen zegozkion kudeaketak, egun bi geroago ofizio bat bidali baitzuen Larrabasterrako maistraren espedientearen egoeraren berri izateko⁹²⁹.

926 BFAH, SOPELANA 0072/020, Sopelako Udalak Larrabasterra auzoko eskolako haurren gurasoek eskolako maistraren aurka jarritako salaketa baten ondorioz izapidetutako espedientea, 1936-04-09ko salaketa.

927 BFAH, SOPELANA 0044/003, Bidalitako korrespondentzia, 1936, Sopelako alkateak probintzia honetako 3. eremuko Lehen Hezkuntzako ikuskatzaileari bidalitako ofizioak, 1936-04-15 eta 1936-04-22.

928 BFAH, SOPELANA 0078/002, Sopelako Udaleko Lehen Irakaskuntzako Tokiko Kontseiluaren aktak, 1932-1936 urteak, Ohiko Batzarraren akta, 1936-05-06.

929 BFAH, SOPELANA 0038/002, Jasotako korrespondentzia, 1936, Larrabasterrako Eskolako haurren gurasoen Batzordeak Sopelako alkateari zuzendutako gutuna, 1936-05-16; eta BFAH, SOPELANA 0044/003, Bidalitako korrespondentzia, 1936, Sopelako alkateak probintzia honetako 3. eremuko Lehen Irakaskuntzako ikuskariari bidalitako ofizioa, 1936-05-18.

Badirudi kudeaketa horiek ezer gutxirako balio izan zutela; izan ere, ekainaren 3an, lehenengo zinegotziak gurasoen Batzordearen beste idazki bat bidali zion Bizkaiko Gobernadore Zibilarri, probintziako agintaritzaren gorenari eskatuz “*haren bitarteko*” izan zedin, Rafael Galarraga ikuskatzaileak izapidetutako espedientearen “*egoeraren berri izateko*”⁹³⁰.

Sopelako Elkarte Sozialistak handik gutxira Bizkaiko Federazio Sozialistari bidalitako gutun batek maistraren espedientearen kudeaketan izandako atzerapena argitzen du. Herriko sozialistek azaldu zuten, izapideten atzerapena ikusita, lehen aipatu dugun idazkia bidali zioten Gobernadore Zibilarri. Euren gutuna probintziako erakunde sozialistara bidali zuten egunean, jakinarazi zuten bezperan jakin zutela “*bigarrenez bidalia izan zela Madrilerara (sic) Lehen Irakaskuntzako Zuzendari Nagusiaren txostena*”, eta “*lehen aldian ezagutzen ez ditugun eta hemen jazo diren eta gertatzen diren gauzen egiazkotasuna desitxuratzeko duten pertsonen eragin ziotela*”⁹³¹.

Herriko sozialistek euren gutunean argi utzi zuten Concordia Morali irekitako espediente “*herriko gai bat*” zela, “*alderdi politiko guztietako sinatzaileak daudelako*”. Adierazi zuten, egun batzuk lehenago, gainera, Ezker Errepublikanoaren Bizkaiko Batzorde Probintzialak esku hartu zuen, Madrilen hariak mugituz, ziurrenik Sopelako Udalean zituzten hiru zinegotziek Horrela eskatuta. Sopelako Zuzendaritza Sozialistak, “*aipatu salaketa hori sinatu duten gure Elkarteko afiliatuaren defentsan*”, Bizkaiko Federazio Sozialistari eskatu zion “*zuzenean eta premiaz Madrilen esku hartzeko, Erregimenaren defentsan Justizia Legeak eskatzen duten gure afiliatuak eta herria asetzeko*”. Bizkortasuna eskatzen zuten, “*espediente epaiaren bezperan dagoelako eta guztiok eskatzen dugun zigorra, gutxienez, maistra kargutik kentzea delako, hori egin ezean, herri horretan ditugun indar politikoak murriztuko lirakeelako*”. Azken horri dagokionez, herriko sozialistek adierazi zuten euren nahia zela erakunde probintzialaren kudeaketak baliagarriak izatea “*kontsolamenduren bat izateko, nahikoa sufrizten dugulako gai hauengatik eta beste batzuegatik herriko jauntxo/aberatsaren eta haren lekaioen aldetik jaso ditugun mehatxu eta hertsapenekin*”⁹³².

Sozialisten idazkian azken gai horretan sakontzen ez bazuten ere, Antonio Arechabaleta eta Isidoro Zamacona suhia aipatzen zituzten. Gerra Zibilean Udal Ikerketa Batzordeak abiarazitako espedienteetan, Larrabasterrako maistraren gaian biek izandako inplikazioa ere jaso zen. Arechabaletaz adierazi zen, “*nabarmendu zen herriaren aldetik herrian maistra lez jarduten zuen pertsona baten kontrako espediente izapidetu zenean, espediente hau hasi zutenak haren agindupean zituen jauntxoaren kontra jarri*”. JMIn arabera, Zamaconak jokatu zuen papera oso antzekoa izan zen, “*herri erdia beste erdiaren aurka jarri, subjektu horren ekimenez elkar joka hasiz*”⁹³³.

930 BFAH, SOPELA 0044/003, Bidalitako korrespondentzia, 1936; Sopelako alkateak Bizkaiko Gobernadore Zibilarri helarazitako ofizioa, 1936-06-03.

931 MHDZ, PS Bilbao, 215-22.

932 Ibid.

933 MHDZ, PS Barcelona 93,1,111, Sopelako JMik erregimenaren aurkakotzat jotzeko espediente. Izena: Antonio Arechabaleta, 1936-12-20; eta MHDZ, PS 93, 1, 112, Sopelako JMik matxinatutzat jotzeari buruzko espediente. Izena: Isidoro Zamacona Charroalde, 1937-04-05.

Testigantza horiek kontuan hartuz gero, ondoriozta dezakegu Larrabasterrako maistra kargutik kentzeko eskeak herriko giroa gaiztotu zuela. Hala ere, litekeena da, gai hori alde batera utzita, lasaitasuna izatea nagusi udalerriko giroan. Gerra Zibilari eskainitako zatian ikusiko dugunez, Concordia Moralen aurkako prozesua Larrabasterrako Eskolako irakaslea kargutik kenduz amaitu zen; María Teresa Echevarria Solaguren irakasleak ordezkatu zuen, kargua 1936ko azaroaren 13an hartu zuenean⁹³⁴.

2.4. Gizartea eta ekonomia

2.4.1. Datu demografiko orokorrak

Errestaurazioari eta Primo de Riveraren Diktaduraren aldiari eskainitako blokean Sopelako egitura soziala eta ekonomikoa jorratu dugunean esan lez, 1900 eta 1930 artean, herriak biztanleriaren hazkunde nabarmena izan zuen. Egoera hori Euskadi eta Nafarroa osoan jazotzen ari zelako isla zen, non 1900ean 911.256 biztanle izatetik 1930ean 1.237.593 izatera igaro baitziren. Biztanleriaren hazkunde hori ez zen modu uniformean jazo; aitzitik, Gipuzkoan eta Bizkaian metatu zen, eta erabakigarria izan zen probintzia horietara iritsitako etorkin kopurua. XX. mendeko lehen hamarkaden ezaugarri izan zen beste faktore erabakigarri bat ezarritako osasun neurriei esker lortutako jaiotza tasaren igoera eta heriotza tasaren jaitsiera izan ziren. Aipatu behar da dinamika hori apurtu egin zela 1918ko gripearen epidemiarekin, heriotza tasak gora egin baitzuen, batez ere gazteenen artean; horren ondorioak, hala ere, nabariagoak izan ziren pertsona gehien biltzen zituzten hiriguneetan⁹³⁵.


1900 eta 1930 artean Sopelan izandako hazkunde demografikoak, jakina, aipatu berri ditugun joera orokor horrek jarraitu zituen, XX. mende hasieran 841 biztanle izatetik 30eko hamarkadaren hasieran 1.353 izatera igaro baitzen. Hamarkada horretan zehar, biztanleriaren hazkundeak bere horretan jarraitu zuen, baina Gerra Zibilak eta haren ondorioek hazkunde hori geldiarazi zuten; izan ere, jaiotzen kopurua murriztu egin zen, 1936ko 16tik 1940ko 13ra igaro baitzen (2. irudia). Hala ere, Elizatea 1.432 biztanlera iritsi zen 1940an⁹³⁶.

934 BFAH, SOPELANA 0044/003, Bidalitako korrespondentzia, 1936, *Sopelako alkateak Bizkaiko Irakaskuntza Nazionaleko ordezkariari zuzendutako jakinarazpena*, 1936-11-16.


935 PICAVEA SALBIDE, Pedro: *“La población en el País Vasco (1900-1930). Evolución, factores de crecimiento y estructura del colectivo social a principios de siglo” en Vasconia. Cuadernos de Historia-Geografía*, 16. zk. Donostia, Eusko Ikaskuntza, 1990, 96-134 or. (aipua: 100-116 or.).

936 Datuen iturria: www.ine.es (Udalerriek Biztanleria Erroldetan 1842tik izandako aldaketak: Sopela)

1. IRUDIA: SOPELAKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA, 1900-1940



2. IRUDIA: JAIOTZA-TASAREN BILAKAERA SOPELAN, 1930-1940 (ITURRIA: SOPELAKO ERREGISTRO ZIBILA)



2.4.2 Udalerriko gizartearen osaera Bigarren Errepublikan zehar

Sopelako gizarteak Errepublika garaian izan zuen osaera aztertzeko, 1932ko eta 1934ko Hauteskunde Erroldak erabili ditugu. Aipatzekoa da zerrenda horiek 23 urtetik gorako sexu bietako hautesleen izen-deiturak jasotzen dituztela, hareen lanbidearekin batera, eta horrek aukera ematen digula herriaren osaera sozialari buruzko argazki nahiko zehatza egiteko. Hona hemen errolda bik emandako zifra orokorrak:

85. TAULA: SOPELAKO HAUTESKUNDE ERROLDA 1932an	
Boto eskubidea zuten emakumeak	360
Boto eskubidea zuten gizonak	318
Guztira	678

86. TAULA: SOPELAKO HAUTESKUNDE ERROLDA 1934an	
Boto eskubidea zuten emakumeak	379
Boto eskubidea zuten gizonak	339
Guztira	718

Sopelako emakumeek aldi horretan zituzten ogibideei dagokienez, bitan banatzen ziren nagusiki: nekazariak eta etxeakoandreak. Azken horiek, gaztelaniaz, “*sus labores*” epigrafean sartu zituzten. Etxeko zerbitzuan ziharduten sei emakume eta maistra bat ere agertzen dira. Azken horrek, Efigenia Pascual Calvok, Sopelako eskoletan ziharduen irakasle gisa. Ez zen herrian zegoen irakasle bakarra; izan ere, Larrabasterrako eskola mistoa Concordia del Moral Vargasek zuzentzen zuen, zeina erroldetan etxeakoandre gisa agertzen den irakasle lanak egin arren. Horrez gain, 1934ko Erroldako zerrenda gehigarria aztertzen badugu, 1935eko apirilaren 15a baino lehen boto eskubidea eskuratuko zuten auzotarren izenak jasotzen zituena, ikus dezakegu beste maistra bat agertzen zela: Miren Iturri Landajo, aurrerago hizpide izango dugun udatiar familia bateko kidea.

Zerrenda horietan ere ez da jostunik aipatzen, baina badakigu garai horretan Saturnina Muñoz Alzagak jardun zuela lanbide horretan, *Guía Reparazen* 1930eko eta 1936ko edizioetan jasotzen den lez. Argitalpen horren 1928ko liburukia aztertuz gero, urte hartan, Muñozek ez ezik, Sara Apraiz Esesumagak eta Belmira Urrutiak ere jostintzan lan egiten zuten. Azkenik, aipatu 1936ko gida horretan beste emakume bat ageri da Sopelako estanko baten buru gisa: Fernanda Amechazurra Goirigolzarri. Aipatzekoa da Muñoz, Apraiz eta Amechazurra etxeakoandre gisa bakarrik agertzen zirela erroldetan⁹³⁷.

Bistan denez, nekazari gisa agertzen ziren emakumeak etxeko lanez ere arduratzen ziren, eta ez zaigu ahazten marinelen emazteek euren gain hartzen zutela familiaren ekonomiaren kudeaketa senarrek kanpoan ematen zituzten bolada luzeetan. Azkenik, emakumeek izan ohi zuten beste lanbide bat, nekazariak batik bat, “*vendejera*” delakoa zen: ortuetako produktuak asteroko hainbat azokatan,


937 BFAH, Industria eta Merkataritza Zentroaren Fonda, *Guía Reparaz* 1928, 1930 eta 1936.

Portugaletekoan adibidez, saltzeaz arduratzen ziren baserritarrak ziren. Ez daukagu daturik 30eko hamarkadan lan hori egin zuten emakumeen kopuru zehatza jakiteko, baina 1932ko urriaren erdialdean, gutxienez, herriko 26 emakumek egiten zuten lan *“barazkiak eta nekazaritzako bestelako produktu batzuk Portugaleteko azokan saltzen”*. Honako hauek ziren:


87. TAULA: SOPELAKO “VENDEJERAK” PORTUGALETEKO AZOKAN (1932ko URRIA)⁹³⁸		
Izen-deiturak	Adina	Ogibidea erroldaren arabera 1932
Ana Menchaca Saitua	35	Nekazaria
Avelina Basarte	-	-
Bonifacia Aquesolo	48	“Etxekoandrea”
Cipriana Elorduy Videa	37	Nekazaria
Feliciana Larrazabal Arana	55	Nekazaria
Flora Videa Bilbao	67	“Etxekoandrea”
Francisca Bilbao Ansoleaga	32	Nekazaria
Honorina Basarte	-	-
José Antonia Olaguibel Vidaurrazaga	60	Nekazaria
Juanita Legarra	-	-
Justa Gorostola Uribe	46	Nekazaria
Justa Ortiz de Zarate	34	Nekazaria
Leandrea Ortiz de Zarate Landea	35	Nekazaria
Leona Arrarte Inchaustieta	48	Nekazaria
Margarita Bilbao Apraiz	56	“Etxekoandrea”
María Gorostola Uribe	30	“Etxekoandrea”
María Laucirica Bilbao	48	Nekazaria
Nicanora Bilbao	-	-
Nicanora Momoitio Gorostola	34	“Etxekoandrea”
Nicasia Aguirre Menchaca	37	Nekazaria
Ramos Ercoreca	-	-
Segunda Marcaida Maurica	37	Nekazaria
Severina Gorostola Uribe	37	Nekazaria
Severina Larrazabal Esumaga	37	Nekazaria
Vicenta Marcaida Maurica	26	“Etxekoandrea”
Victoria Gorostola Larrondo	65	Nekazaria

938 BFAH SOPELANA 0035/003, Jasotako korrespondentzia, 1932, *Portugaleteko merkatuan barazkiak eta nekazaritzako bestelako produktuak saltzen dituzten eta Sopolako biztanleak diren emakumeek aurkeztutako instantzia*, 1932-10-20. Adina eta lanbidea 1932ko Hautesle Erroldatik ateratakoak dira. Horieta batzuk ez dira agertzen, ez Errolda horretan, ez 1934koan ere, seguruenik kasu bietan oraindik ez zirelako 23 urtera iritsiko, horixe baitzen botoa emateko eskubidea baliatzeko gutxieneko adina. Juanita Legarraren kasuan, 1932ko zerrendan emakume bi aurkitu ditugu izen eta deitura horrekin: Juana Legarra Bengoechea, 24 urtekoa, eta Juana Legarra Expósito, 38 urtekoa.

EMAKUMEEK ZITUZTEN OGIBIDEAK (HAUTESKUNDE ERROLDA, 1932 - SOPELA)



EMAKUMEEK ZITUZTEN OGIBIDEAK (HAUTESKUNDE ERROLDA, 1934 - SOPELA)



Gizonek garai horretan zituzten lanbideei dagokienez, gehienak itsasgizonak, nekazariak edo jornalariak ziren. Nabigazioa zen Sopelako bizilagun gehienek zuten lanbidea, Errestaurazioaren garaiko azken urteetatik ohikoa zen lez. 1932ko erroldan, itsasoan lan egiten zuten 122 sopoloztar zeuden eta horietatik 99 itsasgizon lez agertzen ziren; beste 18, aldiz, ontzi makinista lez agertzen ziren, 3 merkantzia ontzietako kapitainak ziren eta 2 pilotuak. 1934an egindako erroldan dauden zifrek horien antz handia dute.

Nekazariak edo baserritarrek herriko bigarren lan sektore garrantzitsuena ziren eta, ondoren, jornalariak zeuden. "Jornalari" izendapenak barne hartzen zituen, nagusiki, Bilboko Itsasadarreko industrialdeko instalazioetan lan egiten zuten biztanleak, 30eko hamarkadaren ezaugarri izan ziren krisialdi ekonomikoa eta beharginen langabezia jorratzean ikusiko dugun lez. Lan arloko krisi horrek 'langile espezializatu' lez katalogatu ditugunei ere eragin zien; 1932an 18 herritar ziren: 6 arotz, 4 igeltsero, mekanikari 2, ebanista 1, 2 hargin, errementari 1 eta pintore 1.


Sopelako langile asko, aurrerago aztertuko ditugun langabeziaren estatistiketan ikusten den lez, errentapeko lurrez arduratzen ziren, eta horrek, neurri batean, langabeziaren ondorioak arintzen lagundu zuen. Edozelan ere, 1932ko eta 1934ko erroldetan, deigarria da errolda horietan jasotzen den jornalari kopuru handia (52 eta 65, hurrenez hurren), 1923ko erroldan jasotako zifrarekin alderatzen badugu, Berba baterako, bertan jornalari bakarra zenbatu baitzuten. Ziurrenik, hainbat faktorek azaltzen dute hori horrela izatea. Ángel García-Sanz eta Fernando Mikelarenak adierazten duten lez, 1900 eta 1930 artean industria landa eremutik zetorren eskulana xurgatuz joan zen eta, ondorioz, nekazaritza lanetan ziharduten gizonak % 31 murriztu ziren, Bizkaian eta Gipuzkoan batez ere⁹³⁹, Sopelaren kasuan, XX. mendeko lehen hiru hamarkadetan zehar, ez dirudi dinamika hori hautematen denik; aldiz, itsasgizonen kopuruak eten barik egin zuen gora, eta 1919. urtean nekazariena baino handiagoa izatera iritsi zen. Jornalariei dagokienez, 20ko hamarkadaren amaieratik aurrera soilik ikus dezakegu igoera txiki bat. Horrela, 1928ko Hautesle Erroldan 6 jornalari zenbatu ziren, eta horiei 3 metalurgialari gehi diezazkiekegu; 1930eko zerrendan 17 bizilagun daude inskribatuta jornalari lanbidearekin⁹⁴⁰. Arrapaladako krisi ekonomikoa bazegoen ere, adierazi dugun lez, 52 ziren 1932an. Gehikuntza hori joan den mendeko lehen hiru hamarkadetan izandako biztanleria hazkundearen eta Elizatera iritsitako etorkinen ondoriozkoa izan liteke.

939 GARCÍA-SANZ MARCOTEGUI, Ángel eta MIKELARENA PEÑA, Fernando: "Evolución de la población y cambios demográficos" en *Historia del País Vasco y Navarra en el siglo XX*, Madrid, Biblioteca Nueva, 2002, 182-183 or.


940 1928 eta 1930eko Hauteskunde Errolda

Erroldetan aurki ditzakegun herriko gainerako lanbideak honako hauek ziren: 8 merkataria, udal hiltegiaren ardura zuen harakina, herriko medikua, udalerrian bizi zen beste mediku bat, parrokiako apaizak, eskribau pare bat, enplegatuak, etab.

GIZONEK ZITUZTEN OGIBIDEAK (HAUTESKUNDE ERROLDA, 1932 - SOPELA)



GIZONEK ZITUZTEN OGIBIDEAK (HAUTESKUNDE ERROLDA, 1934 - SOPELA)



Sopelan nekazariak osatzen zuten biztanleria sektorean sakonduz, 1930-1936 aldiko Nekazaritza Estatistikek erakusten dute Elizateko nekazari gehienek, guztizkoaren % 83k, ez zutela jabetzarik (88. taula), eta errentapeko lurrez arduratzen zirela, herriko baserrietan maizter lez biziz. Bestalde, nekazaritzarako lursailak jabetzan zituzten herritarren kopurua kanpotar jabeena baino handiagoa zen (89. taula).

**88. TAULA: NEKAZARITZAKO JABETZAREN EGITURA
SOPELAN (NEKAZARIAK) 1930-1936⁹⁴¹**

Nekazari jabeen kopurua	29
Jabetza bako nekazari kopurua	145

**89. TAULA: NEKAZARITZARAKO LURSAILEN HERRIKO ETA KANPOKO JABEAK.
SOPELA (1930-1936)⁹⁴²**

Nekazaritzarako lursailen jabe diren herritarren kopurua	66
Nekazaritzarako lursailen jabe diren kanpotarren kopurua	35

Nekazarien etxebizitzari dagokionez, Sopelan 33 baserri bakun eta 56 bikoitz zeuden; 'bikoitzak' familia bi hartzen zituztenak ziren, familia bana eraikin erdi bakoitzean. Aipatutako Nekazaritzako Estatistikek gai horri buruz ematen dituzten datuek erakusten dutenez, baserri gehienetan maizterrak bizi ziren: nekazaritzarako etxebizitzaren % 70 inguru bakunak ziren, eta ehunekoak berberak ziren baserri bikoitzen kasuan.

90. TAULA: BASERRI BAKUNAK SOPELAN 1931-1936⁹⁴³

Jabeak bertan bizi dira	10
Maizterrak bizi dira	23
Hutsik daude	0
Guztira	33

941 BFAH, SOPELANA 0074/003, Nekazaritzako Estatistika 1930; SOPELANA 0074/006, Nekazaritzako Estatistika 1933; SOPELANA 0074/007, Nekazaritzako Estatistika 1935; eta SOPELANA 0074/039, Nekazaritzako Estatistika 1936

942 Ibid.

943 BFAH, SOPELANA 0074/006, Nekazaritzako Estatistika 1933; SOPELANA 0074/007, Nekazaritzako Estatistika 1935; SOPELANA 0074/039, Nekazaritzako Estatistika 1936.

91. TAULA: BASERRI BIKOITZAK SOPELAN 1931-1936⁹⁴⁴

Jabeak bertan bizi dira	5
Maizterrak eta jabeak bizi dira	10
Maizterrak bizi dira	40
Hutsik daude	1
Guztira	56

Errepublikaren garaian ez zen nekazarien sindikaturik sortu herrian. Aurrerago ikusiko dugun lez, Abeltzainen hiru Ermandade zeuden, behi azienda aseguratzen, hura baitzen ugariena; eta, bestalde, *Sociedad Humanitaria de Socorros Mutuos* elkarteak zegoen, bere bazkideetako edozeini sor lekizkiokeen egoera txarren aurrean laguntza emateko; 1933an 177 bazkide zituen herrian eta 1936an, berriz, 183⁹⁴⁵.

2.4.3. Abeltzaintzako ekoizpena 1931 eta 1936 artean⁹⁴⁶

Bilboko itsasadarraren inguruko industrializazio prozesua XIX. mendearen bigarren erdialdean hasi zen, hainbat aldaketa eraginez probintziako nekazaritza eta abeltzaintza ekoizpenean, hiri inguruko eskaerari erantzuteko birbideratu baitzen. Horrela, Bizkaiko **behi aziendek** hazkunde handia izan zuten, behien okela eta esnea hiriko merkatuek gehien eskatzen zituzten produktuetak bi zirelako. Behi buru kopuruaren hazkundearekin batera etorri ziren, bazka landareen laborantza zabaltzea eta bazkaleku naturalen ongarritze bizkorra, produktibitatea handitzeko, abereak bazkatzearen⁹⁴⁷.

Logikoaenez, Sopolako udalerrria parametro horien barruan ibili zen. Adibidez, 1907an 230 behi zeuden⁹⁴⁸ eta 1933an, oster, 435. Horietatik 420 esne behiak ziren, aipatu lez, eta horrek euskal kostaldeko probintzietan jazo zen ekoizpenaren espezializazioa islatzen zuen. Bigarren Errepublikan zehar, kontsumitzeko esne freskoa 1932an iritsi zen ekoiztako kopuru handienera, 243.600 litroekin; 1933tik aurrera, berriz, kopuru horrek behera egin zuen, eta 200.000 litro inguruan mantendu zen. Beherakada hori, ziur asko, garai hartan nagusi zen krisi ekonomikoaren ondorioz jazo zen.

944 Ibid.

945 BFAH, SOPELANA 0074/006, *Nekazaritzako Estatistika* 1933; eta SOPELANA 0074/0039, *Nekazaritzako Estatistika* 1936.

946 Atal honetako koadro guztiak 1931 eta 1936 arteko Nekazaritzako Estatistiketan jasotako informazioarekin egin dira: BFAH, SOPELANA 0074/004 (1931), SOPELANA 0074/005 (1932), SOPELANA 0074/006 (1933), SOPELANA 0074/007 (1934), SOPELANA 0074/040 (1935); eta SOPELANA 0074/039 (1936).

947 GRANJA, 183. or.

948 BFAH, SOPELANA 0064/017, *Sopolako udalerriko azienten errolda*, 1907-05-16.

Behi buruak urte horietan Elizatean izan zuen garrantziaren isla da **Abeltzainen** hiru **ermandande** egotea. 1936an, guztira, 173 bazkide zituzten, honela banatuta: 1. ermandadeak 37 bazkide zituen, 2. ermandadeak 76, eta 3. ermandadeak 60⁹⁴⁹. Ermandade bakoitzak aseguratutako abelburu kopurua honela banatzen zen:

92. TAULA: SOPELAKO ABELTZAINEN ERMANDADEEK ASEGURATUTAKO ABELBURU KOPURUA (1933-1936)⁹⁵⁰			
	1933	1934	1936
1. ermandadea (Ángel)	157	163	168
2. ermandadea (Silverio)	228	231	245
3. ermandadea (Juan)	175	175	182

93. TAULA: BEHI AZIENDA SOPELAN (1931-1935)					
	1931	1932	1933	1934	1935
Hazitarako zezenak	2	-	2	1	1
Behiak	351	342	435	426	362
Zekorrak	37	28	54	58	32
Bigantxak	31	33	66	66	55
Idiak	18	8	12	10	12
Guztira	439	411	569	561	462

94. TAULA: BEHI AZIENDA ETA EUREN ESNE EKOIZPENA SOPELAN (1931-1935)					
	1931	1932	1933	1934	1935
Esnetarako behi kopurua	341	342	420	416	362
Kontsumitutako esne fresko litroak	222.100	243.600	199.875	200.118	200.300

949 BFAH, SOPELANA 0074/039, *Nekazaritzako Estatistika* 1936.

950 BFAH, SOPELANA 0074/006, *Nekazaritzako Estatistika* 1932; SOPELANA 0074/007, *Nekazaritzako Estatistika* 1934; eta SOPELANA 0074/039, *Nekazaritzako Estatistika* 1936.

Behi esnea ekoizteaz gain, ardi esnearen kantitate askoz apalagoak ere gazta egiteko erabiltzen zituzten. Artileari dagokionez, ez dakigu zenbat kilo lortzen ziren, baina jakin badakigu 1935eko ekainean nekazaritzako estatistiketan adierazi zela “*orain arte*” merkaturatzen ez zen produktu bat zela⁹⁵¹.

95. TAULA: ARDI AZIENDA ETA EUREN ESNE EKOIZPENA SOPELAN (1931-1935)					
	1931	1932	1933	1934	1935
Esnetarako ardi kopurua	53	54	43	50	108
Gaztagintzarako esne litroak	629	608	503	556	1.600

Txerri aziendari dagokionez, María José Ainzek dioen lez, autokontsumoa zuen helburu, eta baserri bakoitzeko, batez beste, txerri bi zituztela uste da⁹⁵².

96. TAULA: TXERRI AZIENDA SOPELAN (1931-1935)					
	1931	1932	1933	1934	1935
Gizentzeko arrak	61	81	77	71	75
Gizentzeko urrixak	69	59	63	56	61
Guztira	130	140	140	127	136

Sopelako **hegazti aziendari** eta arrautza ekoizpenari dagokienez, 1931 eta 1935 artean egindako Nekazaritzako Estatistiketan agiri den kopurua nahiko txikia iruditzen zaigu ondoan zegoen Urdulizko Udalak aitortutako kopuruekin alderatuta. 1931ko maiatzeko estatistika erreferentziatzat hartuz gero, Urdulizko Udalak adierazi zuen 1550 oilo zeudela udalerrri hartan, urtean 135.000 arrautza ekoizten zituztenak, eta orduan oraindik ez zegoen martxan jarrita José M.^a Uribe Echevarriak handik gutxira sortu zuen hegaztitegia⁹⁵³. Sopelan, maiatza horretan 2.555 oilo zenbatu zituzten eta 1.221 arrautza lortu zirela jaso zen, hilean ziurrenik, hala denik zehazten ez bada ere. Udalerrri biek emandako zenbakien artean dagoen alde handiak, herri batean eta bestean arrautzen ekoizpenari dagokionez erregistratutako zifrak nolabaiteko prebentzioarekin hartzea eskatzen digu.

951 BFAH, SOPELANA 0074/040, Nekazaritzako Estatistika, 1935.

952 AINZ IBARRONDO, María José: *El caserío vasco en el país de las industrias*, Madril, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa, Idazkaritza Nagusi Teknikoa, Argitalpen Zentroa, 2001, 126. or.

953 SOMOKUETO, 217-219 or.

97. TAULA: HEGAZTI AZIENDA ETA ARRAUTZA EKOIZPENA SOPELAN (1931-1935)					
	1931	1932	1933	1934	1935
Oilarrak	261	271	286	271	292
Oiloak	2.555	2.688	2.703	2.784	2.915
Oilaskoak	476	1.872	1.731	1.102	1.400
Oilo arrautzak	1.221	1.865	1.715	1.012	1.310

2.4.4. Nekazaritzako ekoizpena 30eko hamarkadan

Lehenik eta behin, aipatu beharra dago herrian zeuden nekazaritzako finkek txikiak zirela. Adibidez, 1933an hektarea batetik beherako 55 finka zeuden, 20 hektarea baino gutxiagoko 76 eta 100 hektarea baino gutxiagoko bakar bat baino ez. Kontserbatutako dokumentazioaren arabera, 1931-1936 aldian, gutxienez, kopuru horiek berdin-berdinak izan ziren⁹⁵⁴.

Sopelako nekazaritzako ekoizpena ebaluatzeko labore desberdinetarako erabilitako azalerari buruzko informazioa dugu. Aipatu beharra dago lur eremu guztiak gizalanetan daudela, garai hartan herrian azalera neurtzeko erabiltzen zen unitatean, zeina 0,0027391 hektarearen edo 273,91 metro koadroren baliokidea baita. Bestalde, datuak urtero jasotzen ziren datak errespetatu ditugu, hau da, maiatza eta iraila, eta taula bitan jaso dugu bildutako informazio guztia (98. eta 99. taulak).

Aurreko lerroetan adierazi lez, behi buru kopuruaren hazkundearekin batera, zabaldu egin ziren behiak eta beste abere batzuk bazkatzeko bazka landareen laboretarako erabiltzen ziren lurak. Hori dela eta, 1931tik 1936ra arteko maiatzetako estatistiketan honako bazkarako labore hauek aurki ditzakegu: garia, garagarra, oloa, zekalea, arbiak eta babak. Patatak erabilera mistoko labore gisa sailka ditzakegu, giza elikadurarako funtsezko produktu bat izateaz gain, txerriak hazteko ere erabiltzen baitziren⁹⁵⁵.

Patatak ere agertzen dira 1931 eta 1935 bitarteko irailtako estatistiketan, bazkarako beste labore batzuekin batera, halan zelan artoa, erremolatxa, arbia, aza, hirusta, alpapa eta belardietan lortutako belarra⁹⁵⁶.

954 BFAH, SOPELANA 0074/006, *Nekazaritzako Estatistika*, 1933.

955 Labore horien erabilera zehazteari dagokionez, Labayru Ikastegiaren Euskal Herriko Atlas Etnografikoa kontsultatu dugu: https://atlas-etnografico.labayru.eus/index.php/Ganaderia_y_pastoreo_en_vasconia/eu

956 Ibid.

Bizkaian garia zegoen oraindik, lurraldeko kontrako klimatologia dela-eta hura haztea betidanik zaila izan bada ere. Gariaren bizirapenaren arrazoi nagusiak errentak ordaintzeko tradizioz erabili izana eta autokontsumorako produktu gisa erabili izana dira. Hala ere, aztergai dugun garaiaren inguruan, zereal hori jada ez zen etxean kontsumitzeko erabiltzen, ogia baserrietako labeetan egosteari utzi ziotelako, produktu hori dagoeneko eginda eros zitekeenez. Ildo horretan, María José Ainzek azaltzen duen lez, landare horren ereintza mantendu egin zen, alea okinei saltzea errentagarria zelako⁹⁵⁷.

98. TAULA: LABOREEN AZALERA GIZALANETAN, SOPELAN (1931-1936) (1. zatia)

	1931ko maiatza	1932ko maiatza	1933ko maiatza	1934ko maiatza	1935eko maiatza	1936ko maiatza
Bazkarako garia	-	-	-	-	20	24
Bazkarako garagarra	-	49	53	51	0	0
Bazkarako oloa	-	514	504	498	511	517
Bazkarako zekalea	-	41	49	51	55	48
Arbiak, ganadurako	561	539	551	533	526	537
Garia	586	615	624	616	512	498
Garia, baba lerroekin	-	-	-	10	15	17
Babak	59	71	65	-	-	-
Ilarrak	6	4	4	-	-	-
Patatak	654	735	865	856	875	882
Kipulak	16	30	26	24	27	35
Berakatzak	15	21	20	-	-	-

Sopelan, artoaren hazkuntza, 99. taulan ikusten den lez, indaben hazkuntzarekin lotu ohi zen, nekazaritza munduan oso hedatuta zegoen eta ohikoa zen jardunbideari jarraikiz. Herrian ere, 1934tik aurrera, lotuta agertzen dira garia eta babak. Bitxia bada ere, landare bi horiek Sopelatik gertu dagoen Urdulizko udalerrian ere lotu egin zituzten urte horretatik aurrera⁹⁵⁸.

957 AINZ IBARRONDO, 113. or.

958 SOMOKUETO, 210 or.

Gainerako landareak baratzeko produktuak dira, halan zelan tomatea, piperra, kipula, berakatza edo ilarrak. 1931 eta 1935 bitarteko irailtako estatistiketan, baratzeetara bideratutako lur gizalanak jasotzen dituen atal bat dago. Bertan, aipatutakoez gan, beste landare batzuk ere sartu zituzten, halan zelan azenarioak, porruak, azak, urazak eta abar. Baratzeko laboreen egundoko aniztasun hori guztia 1934an egindako zerrendan (100. taula) jaso zen, baina aurrerago jorratuko dugu zerrenda hori. Produktu horien parte bat, ikusiko dugun lez, autokontsumorako erabiltzen zuten eta beste zati bat, ostera, asteroko merkatuetan zuzeneko salmentarako erabiltzen zuten; horretaz aipatu “vendejera” delakoak arduratzen ziren. Zalantzarik barik, zeregin horrek bultzada bat izan zuen 1893an trenan iritsi zenean, erraztu egiten baitzuen langileak salmenta puntuetara joan ahal izatea hiriko eskariari erantzuteko.

99. TAULA: LABOREEN AZALERA GIZALANETAN, SOPELAN (1931-1935) (2. zatia)					
	1931ko ir.	1932ko ir.	1933ko ir.	1934ko ir.	1935eko ir.
Bazkarako erremolatxa	127	185	100	150	151
Bazkarako arbia	-	539	489	500	489
Alpapa	371	355	360	343	318
Hirusta	-	-	61	58	55
Belar sail artifizialak	432	482	480	490	501
Bazkarako aza	18	25	30	31	29
Artoa-indabak	2.095	2.060	2.035	2.066	2.098
Indabak	-	15	14	17	19
Kipulak	34	30	26	28	27
Patatak	718	735	301	-	41
Meloiak	2	-	-	-	-
Tomateak	35	36	32	33	31
Piperrak	112	125	115	120	117
Ortua	32	38	35	37	35

Baratzeko laboreei dagokienez (100. taula), 1934. urteari buruzko informazio xehatua dugu. Urte horretako estatistikan, baratzeara, “*giza elikadurarako lekaleak edo barazkiak landatzeko azalera*” gisa definitzen zen. *Labore mota horretarako “lursail bera erabiltzen zen urtero eta, oro har, baserrien inguruan edo herriguneetatik hur dauden zati zarratuak”* erabiltzen zituzten. Sopelan, 1934ko maiatzean, baratzearako erabiltzen zen azalera, guztira, 495 gizalanekoa zen. Kontuan hartuz, lehen adierazi dugun lez, gizalan bat 273,91 metro koadro zirela, guztira 135.585,45 metro koadro bideratzen zituzten baratzeazintzarako. Guztira, 191 baratze zeuden garai hartan, 173 nekazarik ustiatzen zituztenak. Baziren ere, nekazaritzan ez ziharduten arren, baratzeak lantzen zituzten herritarrak; helburua, argi eta garbi, bere burua hornitzea zen⁹⁵⁹.

100. TAULA: SOPELAN BARATZEZAINZARA BIDERATUTAKO AZALERA, GIZALANETAN (1934ko maiatza)	
Azak	81
Azalorea	9
Zerbak	2
Ziazerbak	1
Urazak	5
Perrexila	1
Zainzuriak	3
Eskarolak	2
Marrubia eta baratze marrubia	5
Meloia	1
Luzokerra	2
Kuia	2
Tomatea	28
Piperra	104
Babak	49
Orburuak	5
Indabak	50
Azenarioak	3
Kipulak	24
Patatak	49
Berakatzak	19
Porruak	39
Ilarrak	11
Guztira	495 gizalan

959 BFAH, SOPELANA 0074/007, *Nekazaritzako Estatistika*, 1934.

Fruta arbolei dagokienez (101. taula), 1929. eta 1933. urteei buruzko datuak ditugu. Datu horiei esker, zuhaitz horien kopuruak gora egin zuela ikus dezakegu, Bizkaiko Diputazio probintzialak urte horietan eskaini zituen luberriak egiteko laguntzengatik ziurrenik. Alde horretatik, nabarmentzekoa da udareondo kopuruak izandako hazkundera, 1929an 900 ale izatetik 1933an 1.500 izatera igaro baitzen. Baina Sopelan landaketa bat gailentzen bada, sagarrondoarena da, euskal kostaldeko probintzietan tradizionaltzat jo daitekeen fruta arbolarena. Izan zuen garrantziaren froga 1933ko estatistikan islatu zen, non ez zen zenbatu zenbat ale zeuden, baizik eta betetzen zuten lur eremua. Elizateko fruta arbolak biltzen dituen koadroan ikus daitekeenez, 1933an jateko sagarraren eta sagardotarako sagarraren artean bereizten zen. Azken horrek adieraziko luke edari hori herrian ekoizten zela, baina ez dakigu zenbat litro egiten ziren, ez baitago horri buruzko ezelango informaziorik.

Herrian ere baziren **txakolina** egiteko mahatsondoak hazteko lursail batzuk (102. eta 103. taulak). 1929an, 25 gizalaneko hedadura zuten eta urtebete geroago 15era jaitsi zen, hori izanik Errepublikaren garaian mantendu zen kopurua. Hala ere, labore horren atzerakada aspalditik zetorren: 1929ko estatistikan informazio osagarri gisa gehitu zen 50 urte lehenago Sopelan mahastiek hartzen zuten azalera 300 gizalanekoa zela⁹⁶⁰. Herrian ikusi dugun mahats ekoizpenaren beherakada nabarmena, batez ere, landare zorriaren antz handia duen filoxera intsektuaren erasoaren ondorio izan zen.

960 BFAH, SOPELANA 0040/002, Bidalitako korrespondentzia, 1929, *Nekazaritzako estatistika 1929* (1929-08-24).

**101. TAULA: SOPELAKO FRUTA ARBOLAK (1929KO ABUZTUA⁹⁶¹
ETA 1933ko IRAILA)**

Zuhaitz mota	Sakabanatutako arbola kopurua 1929	Sakabanatutako arbola kopurua 1933
Laranjondoak	-	18
Limoiondoak	-	14
Mertxikondoak	260 (mertxikondoak, brinoiak eta mertxika leunak)	187
Abrikotondoak	10	26
Gingondo eta gereziondoak	50 gereziondo	131
Aranondoak	400	203
Sagarrondoak, jateko	1300 sagarrondo (Tipologia eta azalera zehaztu barik)	208 gizalaneko azalera hartzen dute
Sagarrondoak, sagardorako		201 gizalaneko azalera hartzen dute
Udareondoak	900	1.500
Irasagarrondoak		137
Pikondoak		680
Intxaurreondoak	300	306
Almendrondoak	10	20
Hurritzak	-	6
Gaztainondoak	80	100
Masustondoak	50	50
Mizpirondoak	5	15

102. TAULA: MAHASTIETARA BIDERATUTAKO AZALERA SOPELAN, GIZALANETAN (1930-1933)

	1930	1931	1932	1933
Mahastia, ekoizten	10	10	10	12
Oraindik ekoizten ez duen mahastia	5	5	5	3

103. TAULA: EKOIZTEN DUTEN MAHASTIAK SOPELAN (1934-1936)

Fruta kontsumorako parrak	150 Landare
Txakolina ekoizteko parrak	101 Id.
Guztira	251 Id.

961 BFAH, SOPELANA 0040/002, Bidalitako korrespondentzia, 1929, *Nekazaritzako estatistika 1929* (1929-08-24).

2.4.5. Industria eta merkataritza ehuna

Ikusi dugun lez, Sopela landa eremuko udalerrri bat zen, non nagusi ziren industria establezimendu gehienak irin errota tradizionalak ziren. Hala ere, herria ez zen Bilboko Itsasadarraren eremuak bizi izan zuen industrializazio prozesutik kanpo geratu; izan ere, bere udalerrrian, ezagutzen ez dugun data batean, **kare fabrika** bat sortu zen, 30eko hamarkadan Félix Urrutia Gorordoren jabetzakoa zena. Industria hori Arrietara hondartzan zegoen, “*Ingesta*” izenez ezagutzen den lekuan, hain zuzen ere, eta 1932an 5 langile zituen. 1934ko apirileko deskribapenaren arabera, fabrika instalazioak “*karea egiteko labea, aldizkakoa, eta kareharri harrobia*” zituen, “*labearen ondoan*”⁹⁶².

Aldi horretan zehar herrian industrialtzat kalifikatutako establezimenduak honako hauek ziren:

104. TAULA: INDUSTRIA ESTABLEZIMENDUAK SOPELAN (1931-1936)⁹⁶³		
Establezimendu mota	Jabea	Ezaugarriak
Kare fabrika	Félix Urrutia Gorordo	Karea egiteko labea, aldizkakoa, eta kareharri harrobia, labearen ondoan
Irin errota	José Egusquiza Arechavaleta	Olio astunez mugitutako motorra
“Salto” irin-errota	Policarpo Eguiraun Cortina	Energia hidraulikoz mugitutako harri bi. Urtean hiru hilabetez funtzionatzen du.
“Tambolin-errota” irin errota	Policarpo Eguiraun Cortina	Energia hidraulikoz mugitutako harri bi. Urtean hiru hilabetez funtzionatzen du.
Errota		
Errementeria	José María Zuazua Sarria	Makina barik. Erregaia: ikatz minerala
Errementeria	Avelino Garay Amechazurra	Makina barik. Erregaia: ikatz minerala
Arotzeria mekanikoa (Ibarra baserria)	Remigio Esesumaga Elorduy	Hainbat lanetarako bost makina, energia elektriko mugitzen direnak
Aroztegia	Pedro Camiruaga Ondiz	1930eko uztailaren 1ean ireki eta 1931ko abuztuaren 10ean zarratu zuen. Ofizial batek eta ikastun batek egiten zuten lan

962 BFAH, SOPELANA, 0054/005, 1931ko urte ekonomikoan zehar Sopelako bizilagunek aurkeztutako industria kontribuzioaren alta eta baje aitorpenak; SOPELANA 0074/005, Nekazaritzako Erroldaren laburpena, 1932; eta SOPELANA 0054/008, 1934ko urte ekonomikoan zehar Sopelako bizilagunek aurkeztutako industria kontribuzioaren alta eta baje aitorpenak.

963 Koadro hau egiteko, honako industria kontribuzio hauen altak eta bajak erabili ditugu batez be: BFAH, SOPELANA 0054/004 (1930), SOPELANA 0054/005 (1931), SOPELANA 0054/006 (1932/1934) eta SOPELANA 0054/008 (1934). Horrez gain, honako hauek ere erabili dira: BFAH, SOPELANA 0042/003, Bidalitako korrespondentzia, 1934, *Udalerrian dauden industria enpresa guztien zerrenda, kontsumitzen duten erregai mota adierazita*, 1934-01-31; eta *Guía Reparaz* (1930 eta 1936).

Udalerriko industriaren egoera zabaldu egin zen 1935eko azaroaren erdialdean. Egun horietan, José María Arrese Azcoaga bilbotarrak instantzia bat aurkeztu zuen, Larrabasterra auzoan **papier fabrika** bat martxan jartzeko eskatuz, “*Papelera del Carmen*” izenarekin. Establezimendu industrial berria Concepción Arechavaletaren jabetzako eraikin batean egongo zen, lehenago Jesusen Bihotzeko moja misiolarien komentu izan zen eraikin berean. Fabrikaren ekoizpen nagusia biltzeko papera izango zen, eta arduradunak 1936ko urtarrilaren 1ean zabaltzeko asmoa zuela adierazi zuen. Aurreikuspen hori, ordea, ez zen bete, eta irekitzeko ezarritako data berria ezarri zuten, apirilaren 15erako, makineria instalatzen amaitu ondoren. Berrito ere, establezimenduaren abiarazpena atzeratu egin behar izan zuten, “*dagozkion probak eta makinerian zuzenketak egiteko*”. Azkenik, lokalak uztailaren 1ean⁹⁶⁴ zabaldu zituen ateak, Gerra Zibila piztu baino apur bat lehenago. Egoera horrek, jakina, bere funtzionamenduari eragin zion. Edozelan ere, fabrika gatazka belikotik onik atera zen, 40ko hamarkadaren lehen erdian behintzat dokumentatuta aurkitu baikenuen. Bertan lan egiten zuten pertsona kopuruari dagokionez, badakigu 1940ko azaroan plantilla 18 gizonetik eta 8 emakumetik osatzen zutela⁹⁶⁵.

Elizateko **merkataritza sareari** dagokionez, koadro bat egin dugu 1930eko eta 1936ko *Guía Reparazen* jasotako datuetan oinarrituz, baita 1930etik 1936ra bitarteko industria kontribuzioaren espedienteek, eta 1930etik 1935era bitarteko aldi lurralde eta industria kontribuzioak kobratzeko zerrendek ematen duten informazioan ere.

Aipatzekoa da herriko elikagaien saltokiek mistoen kategoria zutela. Horren adibiderik onena José de la Quintanaren Janaritegia zen, zeina *Guía Reparazen* drogeria, estanko, hotel restaurant eta kinkila denda gisa agertzen baita. 1929ko abuztuko informazio bati esker, badakigu Sopelan jangaiak, edariak eta kafe zerbitzua eskaintzen zituzten establezimenduak “*garrantzi txikikoa*” zirela eta, horregatik, jabeek eurek artatzen zituela, enplegatutako saltzailerik barik. Irekiera ordutegiei dagokionez, neguan denda horiek goizeko zortzietan zabaldu eta gaueko bederatzietan zarratzen zituzten ateak; udan, berriz, gaueko hamarrak arte egoten ziren zabalik. Beste alde batetik, lanegunetan ezin zuten “*ezelango elikagairik*” saldu eguerdiko ordu batetik arratsaldeko hirurak arte eta iluntzeko zortzietatik aurrera, baina ez dakigu zeri zor zaion murrizketa hori. Jaiegunetan, debeku hori eguerdiko hamabietatik aurrera jartzen zen indarrean⁹⁶⁶. Logikoa dirudi pentsatzea ordutegi horiek indarrean jarraitu zutela Errepublika garaian.

964 BFAH, SOPELANA 0037/002, Jasotako korrespondentzia, 1935 José María Arrese Azcoagak Sopelako Udalarari aurkeztutako instantzia, 1935-11-18; BFAH, SOPELANA 0036/004, Jasotako korrespondentzia, 1936, José María Arrese Azcoagak Sopelako Udalarari aurkeztutako instantzia, 1936-04-03; eta BFAH, SOPELANA 0038/002, Jasotako korrespondentzia, 1937, José María Arrese Sopelako Udalarari helarazitako jakinarazpena, 1936-07-26 (Dokumentua akats batengatik dago espediente honetan jasota).

965 *Anuario Vascongado*, 1940 1942 eta 1944; eta BFAH, SOPELANA 0045/004, Bidalitako korrespondentzia, 1940, Sopelako alkateak Bizkaiko Gobernadore Zibilarari helarazitako ofizioa, 1940-11-12.

966 BFAH, SOPELANA 0040/002, Bidalitako korrespondentzia, 1929, Sopelako alkateak Bizkaiko Merkataritzako Toki arteko Batzorde Paritarioko presidenteari helarazitako jakinarazpena, 1929-08-12.

Aipatutako *Guía Reparazen* adierazten den herrian harategi bat zegoela, baina, berez, **udal hiltegia** zen. Errepublika aldiaren hasieran, Gumersindo Goicoechea zen haren buru, 1932ko martxoaren 15ean kargutik kendu zuten arte, postua egun biz jarraian zarratuta eduki baitzuen horretarako ezelako baimenik barik, alegatuz “*ez zuela ia haragirik saltzen*”. Goicoechearen erabakiak ondoez handia sortu zuen auzoan, eta kalte egin zien udalaren interesei. Kargua utzi ondoren, Antonio Olagortak hartu zuen Hiltegiako Taularen ardura. 1933ko ekainaren erdialdean, Goicoechea berriro agertu zen eszenan, eta udalari baimena eskatu zion, herrian “*txahal okela saltzeko postu bat*” irekitzeko. 1932an jazotakoa kontuan hartuta, udalak ganadu hiltzaile ohiaren eskaera ukatu zuen, argudiatuz haren asmoa Olagortari kalte egitea zela, izan ere, “*lehen Goicoechea jaunak bakarrik egonda ia haragirik saltzen ez bazuen, orain, taula bi egonda, gutxiago saldu ahal izango du, eta, horregatik, argi eta garbi ikusten da zein den jaun honen asmoa*”⁹⁶⁷.

Urte horietan, Elizateko merkataritzaren sektorean izandako gertaera aitagarriena **Sociedad Cooperativa de Consumo** izeneko kontsumorako elkartearen irekitzea izan zen, 1930eko martxoaren 19an, Larrabasterrako lokal batean, lehenago Jose Torronteguiak zeroan janaritegia egon zen lekuan. Establezimendu berrian ez zen edaririk zerbitzatzeko, “*ez koparik, ez txikitorik, botilatan edo garrafoietan bakarrik*”. 1935ean, Isidoro Zamacona buru zuen Elkartearen Sopelako herriguneko eraikin berri batera mugitu zuten, eta beheko solairuan denda nagusia, okindegia, bizartegia eta kontsultategi bat jarri zituzten. Aurrerago ikusiko dugunez, lehen solairua Elkartearen ekitaldi aretorako gorde zuten, Kooperatibari izaera sozialagoa emanez. Alderdi berri horrekin bat etorritik, frontoi bat ere atxiki zioten eraikinari⁹⁶⁸. Sopelako Kooperatiba Elkarteak Errepublikaren garaian izandako bazkide kopuruari dagokionez, ez zen aldaketa handirik egon, 160 pertsona ingurukoa izan baitzen⁹⁶⁹.

967 SUA, 1929-1932ko Osoko Bilkuraren Akta Liburua, 1932-03-14 eta 1932-03-28ko Bilkura Arrunta; eta SUA, 1932-1934ko Akta Liburua, 1933-07-04ko Bilkura Arrunta.

968 BFAH, SOPELANA 0054/004, Industria kontribuzioen altak eta bajak, 1930; BFAH, SOPELANA 0073/008, *Sopelako Udalak izapidetutako espedientearen, Isidoro Zamaconaren, herri horretako Sociedad Cooperativa de Consumo Elkartearen ordezkari gisa, aurkeztutako instantzia baten ondorioz*. Instantzian horretan, Moreaga auzoko bere jabetzako lurretan eraikin bat eta frontoi bat eraikitze baimena eskatzen du, 1934.

969 BFAH, 0074/006, Nekazaritzako Estatistika 1933; SOPELANA 0074/007, Nekazaritzako Estatistika 1935; eta SOPELANA 0074/039, Nekazaritzako Estatistika 1936. 1933an, *Sociedad Cooperativa de Consumo* Elkarteak 160 bazkide zituen, 1934an 165, eta 1936an 161 bazkidera jaitsi zen.

Sopelako hondartzen inguruko ostalaritza establezimenduei dagokienez, egokitzen jo dugu gai hori herriko turismoari eskaintzen diogun atalean aztertzea.

105. TAULA: SOPELAKO MERKATARITZA-EHUNA 1930-1936⁹⁷⁰		
Saltokia	Arduraduna	Ezaugarriak
Ehorztetxea	Remigio Esesumaga	1930eko urrian ireki eta 1931ko martxoaren 20an egin zuten baja ⁹⁷¹ .
Bizartegia	Eduardo Vicente (1930) Vicente López (1936)	
Harategia	Gumersindo Goicoechea (1930-1932) Antonio Olagorta (1932-1936)	Berez, udal hiltegia zen.
Txurro dendak	Daniel Arceniega Tomás Basarte	Txurroak, seguraski, Artziniegako eta Basarteko udako negozioetan salduko ziren.
Drogeria	José de la Quintana	Bere janaritegiaren barruan
Estankoa	José de la Quintana (1930 eta 1936) Fernanda Amechazurra (1936)	Quintanaren kasuan, bere janaritegiaren barruan Amechazurraren kasuan, ziurrenik, estankoa José Garayren negozio barruan zegoen
Aleak (biltegia)	José Egusquiza	
Hotel Restaurant-ak	José de la Quintana Daniel Arceniega José Garay	Quintana eta José Garayren kasuan, bere janaritegiaren barruan
Kinkila denda	José de la Quintana	Bere janaritegiaren barruan
Sociedad Cooperativa de Consumo Elkartea	Presidentea: Isidoro Zamacona Charroalde	1930eko martxoaren 19an ireki zituen ateak, Larrabasterrako lokal batean, José Torrontegiaren janaritegia zegoen lekuan ⁹⁷²
Janaritegiak	José de la Quintana José Garay Valentín Cajigas / Tomás Basarte	Valentín Cajigasek Taberna edo udal alondegiaren ardura izan zuen, janaritegian ere jardunez, 1928ko urtarrilaren 1etik 1933ko hasierara arte. Egun horretan, establezimenduaren ustiapena Tomás Basarteren eskuetara igaro zen ⁹⁷³

970 BFAH, Industria eta Merkataritza Zentroaren Fundazioa, *Guía Reparaz* 1930 eta 1936.

971 BFAH, SOPELANA 0054/004, Industria kontribuzioen altak eta bajak, 1930; eta BFAH, SOPELANA 0054/005, Industria kontribuzioen altak eta bajak, 1931.

972 BFAH, SOPELANA 0054/004, Industria kontribuzioen altak eta bajak, 1930.

973 BFAH, SOPELANA 0040/002, Bidalitako korrespondentzia, 1929, *Sopelako alkateak Bizkaiko Diputazio probintzialeko Arbitrajeen administratzaile nagusiari helarazitako jakinarazpena*, 1929-02-26; eta BFAH, SOPELANA 0054/007, Industria kontribuzioen altak eta bajak, 1933.

2.4.6. 30ko hamarkadako krisialdia eta beharginen langabezia

Joan den mendeko hogeita hamarreko hamarkadak krisi ekonomiko sakon baten eragina izan zuen. 1929ko urrian New Yorkeko burtsan izandako krakak munduko ekonomia aurrekaririk bako atzeraldi batera eroan zuen. Hala ere, Ricardo Mirallesen dioen lez, faktore horrek berez ez du balio Espainiako krisiaren garapena azaltzeko. Gogorarazi behar dugu, XIX. mendearen amaieratik, Errestaurazioaren gobernuek mota guztietako neurri interbentzionistak aplikatu zituztela kanpoko lehiari aurre egiteko. Jokabide hori areagotu egin zen Primo de Rivera buru zuen erregimen diktatorialean, zeinak Espainiako ekonomia autarkiatik gertuko egoera batera eroan baitzuen, nazioarteko egoera ekonomikotik ia isolatuta geratu baitzen. Primo de Riveraren estatuaren protekzionismoaren ezaugarrietako bat azpiegiturretan inbertsioak egitea izan zen, eta alderdi hori oso onuragarria izan zen euskal industria ehunarentzat. Primo de Riveraren erorketak, 1930eko urtarrilean, politika ekonomiko horien amaiera ekarri zuen, eta aro berri bat hasi zen. Manuel de Arguelles Ogasun ministroa izan zen buru, eta gastuen murrizketa ezarri zuen, aurrekontu oreka lortu ahal izateko. Planteamendu horrek jarraitu egin zuen Bigarren Errepublikaren etorrerarekin ere⁹⁷⁴.

Primo de Riveraren garaian ezarritako isolazionismoak atzeratu eta leundu egin zuen nazioarteko krisiak Estatuan izan zuen eragina, merkatu nagusia Estatuko mugetatik kanpo zuten sektore ekonomikoetan izan ezik, halan zelan euskal meatzaritzan eta ontzigintzan. Horrek, neurri protekzionistak kentzearekin batera, Euskadi *“Espainia osoan krisi ekonomikoak gehien zigortutako eremu industrial”* bihurtzea ekarri zuen. Atzeraldia bereziki gogorra izan zen Bizkaian, hura izan baitzen Euskadiko probintziarik kaltetuena, *“industria handiarekiko zuen dedikazioagatik”*⁹⁷⁵.

1929 eta 1933 bitartean industriaren produkzioak probintzian izandako beherakada, José Javier Díaz Freirek aztertu zuena, kezkarria izan zen. Adibidez, 1932an siderurgia enpresek 1929koan produzitutakoaren erdia ekoitzi zuten, eta ontzigintzaren sektoreak 1933an eraikitako tona kopurua 1929an fabrikatutako guztiaren % 23 baino ez zen izan. Bizkaiko enpresariak egoera negatibo horri heldu zioten, alde batetik, gobernuei probintziako industria berraktibatze obra programa bat gara zezaten eskatuz eta, bestetik, langileen parte bat kaleratuz. Horri dagokionez, 1931ko azaroan, Bizkaiak 23.706 langile langabe zituen; horietatik 11.444 guttiz langabe zeuden eta 12.262 partzialak ziren⁹⁷⁶.

Estatu osoko langabeziaren gaiari heltzeko, Azañaren Gobernuak 1931ko azaroaren 27ko Beharginen Enpleguaren Legea aldarrikatu zuen, Lan eta Aurreikuspen Ministerioaren gainbegiradarekin langileak doan enplegatzeke zerbitzuaren Estatu mailako ezarpena xedatzen zuena. Langabeziari aurre egiteko laguntza hori modu hierarkikoan antolatu zuten, Bulego Nagusi bat eta haren

974 MIRALLES, Ricardo: *“La crisis económica de los años treinta en el País Vasco”* *Ekonomiaz*-en, 9-10 zk., 1897-1988, 277-300 or., aipua 277-278 or.

975 Ibid.

976 DÍAZ FREIRE, José Javier: *“Vizcaya 1931-1933. Una conflictividad decreciente”*, *Vasconia: Cuadernos de historia-geografía*, 10. zk., 1.988, 193-212 or., aipua: 201-202 or.

mende zeuden probintziako sukurtsalak ezarriz. Beheko mailan, probintziako hiriburuetako eta alderdi buru ziren udalerrietako enplegu bulegoak jarri zituzten, eta herri nagusietan ordezkariak sortzeko aukera zabalik utzi zuten⁹⁷⁷.

Hala ere, langileen enplegurako Estatu mailako sistema ez zen martxan jarri 1932ko abuztuaren 6ko Dekretua agertu zen arte, haren bidez ezarri baitzen aurreko urteko azaroaren 27ko Legea aplikatzeko Erregelamendua⁹⁷⁸.

Hori dela eta, ez da harrizkoa 1932ko otsailaren erdialdean José Calviño Bizkaiko Gobernadore Zibilar gaian esku hartzea erabaki izana. Langabezia zeuden langileen kopuruak etengabe gora egiten zuela ikusita, gehienez zortzi eguneko epean “*Bizkaiko probintziako udal guztietan*” Udal Lan Poltsak sortzea agindu zuen. Zerbitzu hori ‘*subsídio*’ izeneko beste erakunde bat ezarriz osatu zuten, zeinak “*enplegu barik eta derrigorrean langabe daudenei laguntzeko*” misioa baitzuen⁹⁷⁹.

Sopelan, alkateak martxoaren 8an Gobernadore Zibilari jakinarazi lez, ez zen aipatutako Udal Lan Poltsa eratu, herrian “*beharrean zegoen beharginik*” ez zegoela argudiatuz. Hala ere, lehenengo zinegotziak onartu zuen “*fabriketan eta tailerretan lan egiten zuten langile batzuk*” kaleratu egin zituztela “*lan faltagatik*”. Hori horrela izanda ere, adierazi zuen “*guztiek errentamenduan dituzten lurren laborantzan bizimodua dutenez*”, bazituztela behar diren produktuak “*eurak eta euren senideak elikatzeko*”. Horri esker, alkateak azaldu zuenez, Sopelan ez ziren antzeman “*langabeziaren ondorio tamalgarriak*”⁹⁸⁰.

Hala ere, langabe horien egoerak ez zuen hobera egiteko itxurarik, atzeraldi ekonomikoa areagotzen ari baitzen. Izan ere, uztaila erdialdean, herriko errepublikanoek adierazi zuten Sopelan bazegoela “*langile multzo bat, bizi dugun krisi gogorraren ondorioz, ezelango okupaziorik barik dagoena*”. Horregatik, Ciriaco Echaizek, *Centro Democrático* Errepublikanoaren presidente eta ordezkari gisa, instantzia bat aurkeztu zion udalari, aipatutako Lan Poltsa sortzeko eskatuz, beste udal batzuek egin zuten lez, “*lana ez izateagatik etxe askotan sortzen ari den eta gose eta miseria arazo izugarri bihurtzeko joera duen egoera tamalgarria ahal den neurrian arintzen saiatzeko*”⁹⁸¹.

Udalak handik egun gutxira heldu zion herriko errepublikanoen eskaerari eta zinegotziek adierazi zuten ez zekitela Sopelan langile langaberik zegoenik. Hala eta guztiz ere, zituzten inprimakiak banatzea adostu zuten, “*lanik barik zeuden beharginak horiek betetzen has zitezen*”, udal idazkaritzan Lan Poltsa sortzeko, *Centro Democrático*ko kideek eskatu lez⁹⁸².

977 Gaceta de Madrid 1931-11-28.

978 Gaceta de Madrid 1932-08-13.

979 La Gaceta del Norte 1932-02-18.

980 BFAH, SOPELA 0043/002, Bidalitako korrespondentzia, 1932; Sopelako alkateak Bizkaiko Gobernadore Zibilari helarazitako ofizioa, 1932-03-08.

981 BFAH, SOPELANA 0035/003, Jasotako korrespondentzia, 1932 Ciriaco Echaizek Sopelako Udalari aurkeztutako instantzia, 1932-07-14.

982 SUA, 1929-1932ko Akta Liburua, Bilkura Arrunta, 1932-07-18.

Lan egoera korapilatsu horren aurrean, Diputazioak sustatutako errepede probintzialen mantentze lanak aukera bikaina ziren langabe askorentzat. Udalek, tokiko langabeen egoera arintzeko asmoz, probintziako erakundeari eskatu zioten herri lanak egiten ari ziren udalerrietako langileak kontratatzeko. Halaxe egin zuen Sopolako Kudeaketa Batzordeak 1933ko otsailaren amaieran, Pedro Luis Terrones kideak proposatuta. Kudeatzaileak azaldu zuenez, Bizkaiko Diputazioa Sopela eta Urduliz arteko errepede probintziala konpontzen ari zen egun hareetan, lana *“udalerrikoak ez diren peoi eta jornalarietarako”* emanez. Terronesek adierazi zuen Elizatean bazeudela *“lan horiek egiteko oso gai ziren langileak”*, eta horregatik planteatu zuen probintziako erakundeari eskatzea herriko langileak onar zitzatela errepedeetako lanetan, *“egungo derrigorrezko langabeziak sortu dien egoera kritikoa arintzeko”*⁹⁸³.

Maiatzaren erdialdean, Juan Dilisek, gertu dagoen Gorlizko lehen zinegotziak, gutun bat bidali zien Bizkaiko udalerrietako alkateei, esanez *“behin eta berriz”* eskatu ziotela Diputazio probintzialari, udalerriri hartan lana zegoenean, lana *“lehenik eta behin”* bertako *“langile langabeetarako”* emateko. Gorlizko Udalak atsekabetuta zegoela adierazi zuen, probintziako erakundeak ez baitziren jaramonik egin bere eskaerei, Lan Poltsan izena eman zuten langileen kopurua handituz zihozazela ikusita, eta *“bien bitartean, beste herri batzuetako langileak etortzen direla Foru Aldundi txit gorena udalerriri honetan egiten ari den lanetara”*. Egoera hori, ikusi dugunez, ez zen soilik Gorlizko udalerrian gertatzen; hori dela eta, horren aurrean, udalerriri horretako udalak Bizkaiko gainerako udalei proposatu zien Diputazioari idazkiak bidaltzeko, lanak egiten ziren udalerrietako langile langabetuak kontratatzeko eta langile horiek *“txandaka lan egin dezaten eskatuz, guztiei modu berdintsuan emateko egiteko bat”*. Azkenik, Gorlizko udalbatzak udalei eskatu zien proposamen horri buruz hartzen zuten ebazpenaren berri emateko⁹⁸⁴.

Gorlizko alkateak planteatutako ideia Sopolako Udalak ekainaren 3an egindako osoko bilkuran jorratu zuen. Lehen zinegotzi gorliztarraren idazkia irakurri ondoren, Ciriaco Echaiz zinegotzi errepublikanoak hartu zuen berba, eta bere kideei azaldu zien Bizkaiko Aldundiak adostu zuela *“brea geruza bat zabaltzea Elizate honetatik igarotzen den errepede probintzialean, aurtengo udan”*. Lan horiek egiteko, jarraitu zuen zinegotziak, beharrezkoa izango zen *“gaur egun errepede horretan lan egiten dutenak baino”* behargin gehiago kontratatzea. Alde horretatik, Sopolan bazeuden *“egoera benetan kritikoa eta larriaren zeuden langile langabeak, ezelango bizibiderik ez zutenak, eta horietako batzuk espezializatuta zeuden”* errepedean egin behar zen lanean, *“aurretik lan horretan aritutakoak zirelako”*. Hori dela eta, Echaizek proposatu zuen udalak Aldundiko presidentearengana jotzea, erregutuz, *“lan horretan onar zitzatela herri honetako langile langabetuak, udal honen barrutian dagoen tartearen lanean irauten duten denboran besterik ez bada ere, nolabait arintze aldera zorigaitzoko etxe askotan nagusi den miseria”*. Zinegotzi errepublikanoaren planteamenduak harrera ona izan zuen gainerako zinegotzien aldetik, eta Aldundiko presidenteari ofizio bat bidaltzea erabaki zuten, herriko langile langabeen kontratazioa lortzeko⁹⁸⁵.

983 SUA, 1932-1934ko Akta Liburua, Bilkura Arrunta, 1933-02-25.

984 BFAH, SOPELANA 0036/002, Jasotako korrespondentzia, 1933, Gorlizko alkateak Sopolako alkateari helarazitako ofizioa, 1933-05-22.

985 SUA, 1932-1934ko Akta Liburua, Bilkura Arrunta, 1933-06-03.

1934ko martxora arte, ez dugu Sopelako langileen langabeziari buruzko hileko daturik. Hori aldatu egin zen hilabete horren erdialdean Bilboko Beharginen Enpleguaren Tokiko Bulegoaren Ikuskapen Batzordea sortu zenean, aipatutako 1931ko azaroaren 27ko Legea betez. Batzorde horretako kideek martxoaren 24an hartu zituzten euren karguak. Haien zeregin nagusien artean zegoen langabeziari buruzko estatistikak egitea eta, halandaze, martxoaren 31n, garai hartan Bilboko Barruti Judiziala osatzen zuten 21 herrietako alkateei eskatu zieten nor bere udalerrietako langabeen datuak emateko. Halaber, herri bakoitzean Beharginen Enpleguaren Erregistroa eratzeko izapideak abiarazteko agindu zieten eta, hala, euren herrietan bizi ziren beharginen eta patroien izen-deiturak bidaltzeko eskatu zieten, ordura arte herrian funtzionatzen zuen azken Lanaren Toki Kontseiluko kideen izen-deiturekin batera⁹⁸⁶.

Agindutakoa betez, Sopelako Udalak apirilaren 21ean erabaki zuen Beharginen Enpleguaren Erregistroa sortzea. Bestalde, herrian bizi ziren langileen zerrendan 42 pertsona zeuden, honako lanbide hauetan banatuta:

BEHARGINAK SOPELAN 1934-05-12⁹⁸⁷
Zurginak: 5
Doitzaileak: 2
Metalurgialariak: 13
Portuko Obra Batzordeko langileak: 5
Peoiak: 15
Trenbideetako langileak: 1
Jornalariak: 1

Sopelako patroiei dagokienez, zerrenda 10 bizilagunek osatzen dute, eta honako lanbide hauek zeuden:

PATROIAK SOPELAN 1934-05-12⁹⁸⁸
Zurginak: 1
Merkatariak: 5
Errementariak: 2
Industrialak: 1
Pintorea: 1

986 BFAH, BILBAO DUODÉCIMA 0034/005

987 BFAH, SOPELANA 0042/003, Bidalitako korrespondentzia, 1934 *Sopelako alkateak Bilboko Udaleko Beharginen Enpleguaren Bulegoko presidenteari helarazitako ofizioa*, 1934-05-12.

988 Ibid.

Bilboko Barruti Judizialeko 21 udalei eskatutako informazioari esker, Beharginen Enpleguaren Bulegoko Ikuskaritza Batzordeak beharginen langabeziaren egoerari buruzko erradiografia zehatz bat egin ahal izan zuen: apirilaren amaieran 15.479 langile zeuden langabe, eta horietatik 10.115 erabateko langabezian zeuden. Datu horiek maila handiagoko instantziei bidali zitzaizkien, halan zelan Lan ministroari, “*Bilboko mugapean krisiak izan duen eragin nabarmena*” ikusi ahal izateko. Krisiak “*erauzketa industriei, metalurgiari, eraikuntzari, banketxei, aseguruiei eta bulegoei*” eragiten zien nagusiki. Egoera gogor hori ikusita, maiatzaren hasieran, Gobernu zentralari Bizkaiari zegozkion gaiak eta espedienteak ahalik eta arinen konpontzeko berriro eskatzea erabaki zuten, zehazki, “*metalurgia industriren, herri lanen eta trenbide lotuneen gaiak*”⁹⁸⁹.

Abuztuaren erdialdean, guztira 15.417 langabe zeuden, hau da, apirilean baino 62 langile langabetu gutxiago. Hala ere, erabateko langabezian zeuden langileen kopuruak gora egin zuen, apirileko datuekin alderatuta, 295 gehiago baitziren⁹⁹⁰.

Sopelako egoerari dagokionez, 1934ko martxotik maiatzera, herriko 21 langile zeuden erabateko langabezian, hau da, erregistratutako langileen % 50. Lan banaketa honako hau zen:

106. TAULA: LANGILE LANGABEAK SOPELAN (1934KO MARTXOA-MAIATZA)⁹⁹¹		
Industria jardueraren taldea	Langile langabe kopurua	Oharrak
Itsasoko industriak	2	Sugina eta sukaldaria
Siderurgia eta metalurgia	3	Ikastuna eta peoi doitzailak
Eraikuntzaren industriak	1	Igeltseroa
Zuraren industriak	2	Zurginak
Bestelako industria eta ogibideak	13	Peoiak eta jornalariak
Guztira	21	

1934ko martxotik 1936ko uztailera bitarteko hileko langabeen kopurua jasotzen duten hiru grafikoetan ikus daitekeenez, 1934ko uztailetik aurrera beherakada txiki bat egon zen langabe kopuruan, eta 1935eko apirilera arte mantendu zen.


989 BFAH, BILBAO DUODÉCIMA 0034/005, *Beharginen Enpleguaren Bulegoaren Ikuskaritza Batzordea*, 1934-04-23ko eta 1934-05-07ko aktak.

990 BFAH, BILBAO DUODÉCIMA 0034/005, *Beharginen Enpleguaren Bulegoaren Ikuskaritza Batzordea*, 1934-08-13ko akta.

991 BFAH, SOPELANA 0042/003, Bidalitako korrespondentzia, 1934 *Beharginen langabeziaren estatistika - Sopela*, Martxoa, apirila eta maiatza. Ekainean, arotzetako bat langabezia partzialean egotera igaro zen, peoi eta jornalarietako bi lez.

1935eko maiatzean herriko beharginen errolda 45 pertsonakoa zen. Data horretatik aurrera, hileroko estatistiketan zehazten hasi zen zenbat langabe ziren “errentan dituzten lurrak lantzen” zituzten nekazariak. Adibidez, aipatu 1935eko maiatzean, Sopelan zeuden 15 langabetuetatik 9k errentan zituzten soroak. Faktore horrek leundu egiten zuen beharginen eta euren familien egoera zaila⁹⁹².

BEHARGINEN LANGABEZIA SOPELAN. 1934 (MARTXOA - ABENDUA)



107. TAULA: BEHARGINEN LANGABEZIA BILBOKO BARRUTI JUDIZIALEAN 1934KO APIRILA - ABENDUA⁹⁹³


	Erabateko langabe kopurua	Langabe partzialen kopurua	Langabeak guztira
Apirila	10.115	5.364	15.479
Maiatza	10.153	4.344	14.497
Ekaina	10.459	4.746	15.205
Uztaila	10.410	5.007	15.417
Abuztua	10.736	4.364	15.100
Iraila	10.631	4.902	15.533
Urria	10.768	4.482	15.250
Azaroa	11.022	3.862	14.884
Abendua	12.937	7.162	20.099

992 BFAH, SOPELANA 0042/004, Bidalitako korrespondentzia, 1935 *Beharginen langabeziaren estatistika - Sopela, Maiatza*.

993 Informazioaren iturriak: Bilboko Estatistika Buletinak, 1934; eta *La Gaceta del Norte* 1934-04-25.

1934ko abenduan Bilboko Barruti Judizial osoan langabeen kopuruak izan zuen gorakada nabarmena, ordura arte barruti hura osatzen zuten 21 udalerrien zerrendari beste herri bi gehitzearen emaitza izan zen. Sartu zen herrietako bat Barakaldo industria herria izan zen, langabetu kopuru izugarri handia zuen herria. Horrek azaldu egiten du hilabete hartan Bilboko Barruti Judizialean izandako langabeen guztizko kopuruen hazkundea. Izan ere, aldagai hori azpimarratu egin zuten *Bilboko Udalaren Estatistika Buletinaren* abenduko alean, hilabete hartako Barruti Judizialeko langabeen zenbaketan “*Barakaldoko beharginen langabezia barne hartu zela*” adieraziz⁹⁹⁴.

BEHARGINEN LANGABEZIA SOPELAN. 1935



108. TAULA: BEHARGINEN LANGABEZIA - BILBOKO BARRUTI JUDIZIALA - 1935⁹⁹⁵

	Erabateko langabe kopurua	Langabe partzialen kopurua	Langabe kopurua guztira
Urtarrila	13.307	7.542	20.849
Otsaila	13.342	7.622	20.964
Martxoa	13.261	7.368	20.629
Apirila	13.218	7.071	20.289
Maiatza	13.484	8.056	21.540
Ekaina	8.664	8.417	17.081
Uztaila	9.419	7.652	17.071
Abuztua	8.838	6.945	15.783
Iraila	8.883	6.539	15.422
Urria	8.969	6.997	15.996
Azaroa	9.208	7.556	16.764
Abendua	9.296	8.107	17.403

994 *Bilboko Udalaren Estatistika Buletina*, 1934ko abendua.

995 Informazioaren iturria: *Bilboko Uriaren Estatistika Buletinak*, 1935.

1936ko lehen sei hilekoan zehar, langabeziak nabarmen egin zuen gora Bilboko Barruti Judizial osoan, erabateko langabezian zegoen behargin kopuruari dagokionez bereziki. Igoera hori Sopelan eta inguruko herrietan islatu zen 1936ko bigarren hiruhilekotik aurrera, Berangon batik bat. Barruti Judizialaren ekaineko estatistikaren arabera, langabeen guztizko kopuruak nabarmen egin zuen behera, langabezia partziala zuten langileen kopuruak behera egin izanari esker. Hala ere, gora egin zuen erabateko langabezian zegoen behargin kopuruak. Edozelan ere, Gerra Zibilaren etorrerak dinamitatu egin zuen ekainean izandako jaitziera, eta uztailan gorakada nabarmena ekarri zuen langabe kopuruan. Sopelari dagokionez, langabeen jaitziera oso apala izan zen ekainean, uztailako igoera legez. Hala ere, ondoko Urduliz eta Berango udalerrietan, langabeen hazkunde hori suntsigarria izan zen, Urdulizen bereziki, non ekainean langabezian zeuden 29 langiletik uztailako 70era igaro ziren (horietatik 45 ziren langabe partzialak)⁹⁹⁶.

Oro har, langile langabeen kopuruaren goranzko edo beheranzko gorabeherei ez ezik, iraupen luzeko langabeziaren eraginari ere erreparatu behar diogu. Horri buruzko zifra zehatzik ez badugu ere, dirudienez, Sopelako udalerrian izan zuen eragina oso kezagarria izan zen. 1936ko maiatzaren hasieran, Diputazio probintzialak Sopela eta Urduliz arteko errepeidea zabaltzeko eta konpontzeko zuen asmoaren berri izan ondoren, udalak Beharginen Enpleguaren Bulegoan izena emanda zuten herriko langileak kontratatzea proposatu zion probintziako erakundeari. Alkateak zehaztu zuenez, auzokide horiek *“hainbat urte daramatzate erabateko langabezian”* eta horietako asko *“egoera benetan larrian daude, ez baitute bizitzeko ezinbestekoena den elikagaia ere, OGIA, alegia”*, eta euren seme-alabek, *“koitadu horiek”, “txiki-txikitatik (...) era guztietako estutasunak eta miseriak pairatu dituzte, euren zorigaiztoko etxeetan ez dutelako gosea besterik ezagutu”*. Horregatik, lehenengo zinegotziak lan horiek martxan jartzea *“aukera ederra”* zela esan zuen, udalerriko langabeek *“lansari bat irabazi ahal izateko, langabeei berei eta euren familia babesgabei laguntzeko”*. Kontratazioaren kudeaketak errazteko, alkateak zerrenda bat helarazi zion Diputazioko Kudeaketa Batzordeko presidenteari, non 20 langileen izen-deiturak eta bakoitzaren soldataren mende zeuden senideen kopurua jasotzen ziren⁹⁹⁷. Ez dakigu eskaera hori aintzat hartu ote zuten, ezta lanak egikaritu ziren ere, uztailan Gerra Zibila piztearekin batera, den-dena azpikoz gora jarri baitzen.


996 BFAH, BILBAO DUODÉCIMA 0036/025 eta 0036/026.

997 BFAH, SOPELA 004/003, Bidalitako korrespondentzia, 1936; Sopelako alkateak Bizkaiko Diputazioko Batzorde Kudeatzailearen presidenteari helarazitako jakinarazpena, 1936-05-04.


109. TAULA: BEHARGINEN LANGABEZIA BILBOKO BARRUTI JUDIZIALEAN (1936ko URTARRILA - EKAINA)⁹⁹⁸

	Erabateko langabe kopurua	Langabe partzialen kopurua	Langabe kopurua guztira
Urtarrila	9.300	7.969	17.269
Otsaila	9.351	7.941	17.292
Martxoa	9.432	7.855	17.287
Apirila	9.992	7.736	17.728
Maiatza	10.389	7.275	17.664
Ekaina	10.682	4.211	14.893
Uztaila	10.704	6.733	17.477

BEHARGINEN LANGABEZIA SOPELAN - 1936 (URTARRILA - UZTAILA)



998 BFAH, BILBAO DUODÉCIMA 0035/004, 0035/005, 0036/022, 0036/023, 0036/024, 0036/025 eta 0036/026.

BEHARGINEN LANGABEZIA BARRIKA - BERANGO - URDULIZ (AZAROA 1935 - UZTAILA 1936)**2.5. Kultura eta aisia****2.5.1. Turismoa eta udako aisia Sopelan 30eko hamarkadan**

Ikusi genuen lez, joan den mendeko 20ko hamarkadan Sopela eta bertako hondartzak helmuga turistiko gisa finkatu ziren. Egoera horrek hala jarraitu zuen Bigarren Errepublikan zehar, aurreko hamarkadan ohikoak ziren udatiarren familiak herriarekiko leial mantendu baitziren garai hartan eta udaldia bertan igarotzea aukeratzeko jarraitu baitzuten, alokatutako etxebizitzetan ostatu hartuz, 1932ko ekainaren hasieran *Euzkadi* berripaperean islatu zen lez. *Itxasok sinatutako idazki batean, jakinarazi zen udatiarrak herrira heltzen hasiak zirela eta "eskatutako etxeen arabera, pentsa daiteke aurten egundo baino jende gehiago etorriko dela"*⁹⁹⁹.

Garaiko egunkarietan egindako kronika ugarietan, udatiarren izen-deiturak jaso ziren. Horren adibide gisa, Gamiz-Fikako Juan Iturri Astorquiza eta Abandon jaiotako Ticiano Landajo Ugalde senar-emazteak aipa ditzakegu. Iturrik, Kontabilitate eta Merkataritza ikasketak zituenez, Portugaleteko Salazar familiarentzat egiten zuen lan, zeinak Andaluziara bidali baitzuten meatze enpresa bat kudeatzeko. Hori dela eta, Iturri-Landajo familia Lora del Rion (Sevilla) bizi zen, baina Bizkaiarekin zuen harremanari eutsi zion, Sopelan ezarriz udako egoitza, "*Sevillarren etxea*" izenez ezaguna zen etxean. Aipatzekoa da bikotearen alabetako bat, Ticiano Iturri Landajo, 1904an Portugaleten jaioa, Medikuntzan Doktorea eta 1932an Bizkaiko Medikuen Elkargoko lehen elkargokidea izan zela¹⁰⁰⁰.

999 *Euzkadi* 1932-06-09.

1000 <https://www.cmb.eus/ticiano-iturri-landajo>

Urte horietan, Sopelako hondartzek Bilboko inguruetakoa bainularien udako aisialdirako leku gogokoenetako bat izaten jarraitu zuten. Horrela izan zen, aurreko hamarkadan lez, urtero Barinatxe, Arrietara eta Atxabiribilgo hareatzetan itotzeak jazo arren eta, horren ondorioz, prentsan hondartza horiek zalantzan jartzen zituzten artikulua argitaratzen zituzten arren. Auzia oso korapilatsua zen, izan ere, gertakizun horiek eragiten zuten giza dramaz harago, ehunka bisitari etortzeak, logikoa denez, onura ekonomikoak ekartzen baitzizkion Elizateari.

1931ko uda hasi baino egun batzuk lehenago, zehazki ekainaren 16an, Bilboko gazte bat itota hil zen “*Sopelako hondartzan*”. Horren ondorioz, “*Sopelan ohikoak diren batzuek*” gutun bat bidali zuten Bilbon argitaratutako egunkarietara euren tristura agertzeko, “*ezbehar horien errepikapen etengabeak*” ez zituelako “*tokiko agintariak gaitz horrentzako konponbide bat bilatzera bultzatu*”. Sinatzaileek baieztatu zuten, itotzeak saihesteko “*errotiko neurriak hartzeko garaia zen*” edo, gutxienez, “*kasu gehienetan eragotzi ahal izateko*”. Horretarako, “*hondartzako hainbat lekutan*” luzera egokiko sokak instalatzea proposatu zuten, “*edozein igelari onen*” gerrira lotuz gero, arriskuan zeuden pertsonak erreskatatu ahal izateko. Ekintza horretan hondartzan zeudenek parte hartu beharko lukete, “*(sokaren) kontrako muturrari eutsiz, salbamendua gauzatu ahal izateko*”. Beharrezko materiala finantzatzeko, Sopelako Udalak “*zailtasun ekonomikoak*” izango balitu, hondartzara “*joaten zirenen artean herri harpidetza bat egitea*” planteatu zen¹⁰⁰¹.

1932ko udako denboraldiaren amaieran, beste tragedia bat jazo zen Barinatxe hondartzan. Irailaren 8an, 17 eta 21 urteko lehengusina bi gazte itota hil ziren Getxo eta Sopela udalerrietako jurisdikzioakoa den hareatzan. Bilboko prentsak xehetasun guztiekin jaso zuen heriotza bi horien albistea, eta era horretako ezbeharrak aldira gertatzen zirela azpimarratu zuen. Adibidez, *El Liberal* egunkariak adierazi zuenez, “*hondartza horretan bainu denboraldi ia guztietan jazotzen dira antzeko gertaerak, oso bakanak dira bainularirik itotzen ez diren urteak*”. Eta, jarraitzen zuen esanez, hori hala zela agintariek eta jendeak oro har hondartza horrek zuen arriskuaren berri izan arren, zaingo zerbitzurik ez zegoelako¹⁰⁰².

Prentsan ohikoa zen sentsazionalismotik urrun, Juan Irigoyenek artikulua bat sinatu zuen *La Gaceta del Norte*-n, “*Sopelako tragedia saihesgarria*” izenburuarekin. Bertan, erradiografia zuhur eta errealista bat egin zuen Sopelako uretan ohikoak ziren itotzeen kausei buruz. Irigoyenek, lehenik eta behin, Elizateko hondartzei lotutako ospe beltza argumentu barik utzi zuen: “*ez dezagun esan soilik Sopelari buruz hondartza guztiei buruz esan daitekeena eta esan behar dena, direla defendatuak eta irekiak, arrisku handiak baitakartzate, eta euren presentzia eta jarduna Bakion, Laidan, Lagan, Karraspion, Zarautzen eta abarretan baitaude*”. Artikulugilearen ustez, arriskua “*ia modu ekitatiboan banatuta*” zegoen, “*eta defentsa edo sorospen baldintzak ziren aldatzen zen bakarra, hondartza batzuetan zainduta baitzeuden, baina besteetan ez*”. Sopelako hondartzaren kasu zehatza aztertuz, Irigoyenek aipatzen du, nahiz eta “*jendetsuena izan, eta itsasoko gaitzetan eskarmentu gutxien duten bisitariak*” dituen izan, prebentzioak ez zeudela “*aurreikuspenik*”.

1001 *Euzkadi* 1931-06-17 eta 1931-06-20; *El Pueblo Vasco* 1931-06-20, *Excelsior* 1931-06-20.

1002 *El Liberal* 1932-09-09, *El Noticiero Bilbaíno* 1932-09-09 eta 1932-09-10; eta *La Gaceta del Norte* 1932-09-10.

oinarrizkoenaren mailan”, hau da, ez zuela beharrezko zaingorik. Bestalde, aipatu zuen itsasora zabalik dauden hondartzak, Sopelakoak kasu, “itsasertzeko azpi-korrontearen mende” daudela, eta erresaka bortitza goak dituztela. Sopelan segidan izandako itotzeek eragindako “izuagatik fantasia zoroak” sortu ziren, “bainularia irensten duten zurrunbiloak” daudela esanez, baita “sakonera handira erortzea eta irteteko aukerarik ematen ez duten putzuak” ere. Irigoyenen ustez, “Sopelan bizitzak eramaten dituen” kausa nagusia “hara iristen den giza marea da, zuhurtziagabea, bainulari ezjakinak mehatxatzen dituzten arriskuak ezagutzen ez dituen, bai Sopelan, bai defentsa handieneko hondartzetan ere, itsasoaren egoeraren eraginez kausa berberak izan ohi baitira”. Artikulugileak Sopelako hareatzarako proposatu zuen formula prebentzioa eta banderen kode bat ezartzea izan zen, erabiltzaileei itsasoaren egoeraren berri emateko. Azkenik, artikulua egileak adierazi zuen gutxi izan zirela urperatze bidezko heriotzak:

“(...) teniendo en cuenta la inconsciencia de las gentes que se entregan a este recreo, sin siquiera saber reponerse y tomar pie en el piso de la playa, al menor movimiento de empuje de una ola pequeña: caso corriente entre mujeres, que con solo este incidente y su nerviosidad desatada se ponen a ahogar en aguas que no les llegan a la cintura, y de este tipo de muchachas y de hombres llegan y se bañan todos los días, en Sopelana, centenares de candidatos a la tragedia, que se salvan por el cuidado exclusivo de la Divina Providencia”¹⁰⁰³.

1933ko udaldiari begira, udalak hareatzetan zenbait neurri ezartzea erabaki zuen. Berba baterako, “hondartzan jartzeko egurrezko oin zuzen batzuk” instalatzea erabaki zen, “hondartzan, hondarraren gainean, udalak dituen salbagailuak jartzeko”. Julián Gorostola zinegotzi errepublikanoak egindako iradokizunari jarraikiz, instalazio horiek osatzeko “gurdi bat” jarri zuten, bertan salbagailuen “sokak jasotzeko”, modu erosoagoan eta eraginkorragoan erabili ahal izateko. Hobekuntza horiek ordaintzeko, ekainaren 10ean egindako osoko bilkuran, alkateak iradoki zuen, udala jasaten ari zen krisi ekonomikoa ikusita, komenigarria litzatekeela Trenbidearen Konpainiako zuzendariari dirulaguntza bat eskatzea, udalak “salbamendu zerbitzua” jartzeak zekartzan gastuei aurre egin ahal izateko. Bere aldetik, Pedro Saitua zinegotzi jeltzaleak Barinatxe hondartzaren egoera jarri zuen mahai gainean, minduta agertuz, “Bilboko egunkari batzuek, erabateko ezjakintasunagatik edo kalte egiteko asmo bikoitzarekin”, hareatza hartan jazotako itotzeak “Sopelako hondartzei” egozten zizkietelako, 1932ko irailean hil ziran lehengusina bien kasuan jazo zen moduan. Hura legezko tragediak saihesteko, zinegotzi jeltzaleak Barinatxe hondartzaren inguruan burdinazko taula bat jartzea proposatu zuen, honako idazkun honekin: “Hondartza arriskutsua. - Debe katuta dago hondartza honetan bainatzea. 25 pezetako isuna jarriko da”. Ideia hori bertaratutako zinegotzi guztien botoarekin onartu zen, baita Francisco Galbarriartu zinegotzi errepublikanoak egindako proposamena ere. Azkenak nabarmendu ondoren Barinatxe hondartza Arrietara eta Atxabiribila hareatzetatik oso urrun egoteagatik Sopelako Guardiñen zaingorik ez zuela, iradoki zuen bizilagunek salatzea Barinatxen bainatzen ikusten zuten “edozein pertsona”. Ekimena arrakastatsua izan zedin, salatzaileak isunaren zenbatekoaren % 50 eskuratuko zuten¹⁰⁰⁴.

1003 *La Gaceta del Norte* 1932-09-11.

1004 SUA, 1932-1934ko Akta Liburua, Bilkura Arrunta, 1933-06-10.

Garai bertsuan, Bizkaiko Itsas Ordezkaritza agertu zen, zeinak “*udako denboraldietan herri horretako hondartzetan gertatzen diren etengabeko eta zorigaitzeko istripuak*” ikusita, Sopelako Udalari agindu baitzion hareatzetan segurtasun neurriak ezartzeko. Hori egin ezean, Probintziako Itsas Ordezkaritzak mehatxu egin zuen “*hondartza horiek bainuetarako erabiltzea debekatzearekin. Neurri hori zorrotz ezarriko da, neurri horrek udalerrri horren ekonomian izan dezakeen eraginak min ematen badigu ere*”¹⁰⁰⁵.

Ekainaren 17an, alkatea Itsas Ordezkaritzaren egoitzara joan zen, eta udalak herriko hondartzetara eragiten zien arazo larriari aurre egiteko adostutako xedapenak azaldu zituen. Itsas erakundeko idazkariari egokiak iruditu zitzaizkion onetsitako neurriak, baina adierazi zuen beharrezkoa zela aguazil bat izendatzea Barinatxe hondartzako zaingorako, baita “*bandera gorri batzuk*” jartzea ere, “*leku arriskutsuetan, bainulariak ohartarazteko*”. Eskakizun horiek udalbatzan azaldu ondoren, Galbarriartu zinegotziak adierazi zuen Itsas Ordezkaritzari jakinarazi behar zitzaioela, nahiz eta udal diru kuxentzat “*sakrifizio handia*” izan, hiru guardia izendatuko zirela, eta zehaztu zen domekatan eta jaiegunetan bakarrik eman ahal izango zutela zerbitzuak; izan ere, eskura zeuden “*baliabide urrien*” ondorioz, “*gutziz ezinezkoa zen zaintza hori lanegunetan mantentzea*”¹⁰⁰⁶.

1934ko udako denboraldia beste tragedia batekin hasi zen: ezkonberri batzuk, Bilbon bizi zirenak, ekainaren 24an, domekan, Sopelako hondartzara joan ziren eguna pasatzera. Senarrak goiz erdian bainu bat hartzea erabaki zuen, korronteak eroan zuen eta, azkenean, itota hil zen. Bilboko prentsak albistearen berri eman zuen eta, zenbait kasutan, sentsazionalismoz estali zuten jazotakoa. Adibidez, *El Pueblo Vasco*ko titular oso gogor bat erabili zuen: “*Ito da lehen Sopelan*”, “*Sopelan urteko lehen ezbeharra jazo zela*” adierazteko. *Euzkadi* berripaperak azpimarratu zuen Sopelako hondartza “*bainatzeko oso arriskutsua zela, urte osoan zehar zegoen erresaka bortitzagatik*”. Amaitzeko, esaten zuten arrisku hori areagotu egiten zela “*salbamendu txaluparik eta larrialdi zerbitzurik ez zegoelako; ezin baita sorosle bat eta jabetza partikularreko soka bat halakotzat hartu, ez baitira beti hondartzan egoten*”¹⁰⁰⁷.

Kontua da, itotzea baino egun bat lehenago, udalak sasoikako hiru zaindariak izendatu zituela eta ekainaren 29an hasi behar zirela lanean, domeka eta jaiegunetan soilik, udaldi bakoitzean ohikoa zen lez. Zaintzaileei agindua eman zitzaien “*erresaka dagoen egunetan edo itsasoa harrotuta dagoenean*” bainulariei arriskuaz ohartarazteko, “*arrisku gutxien duen lekua zein den adierazteko, eta itsasertzetik ahalik eta gertuen bainatzeko gomendatzeko, beharrezkoa izanez gero, uretan sartzea ere debekatuz*”. Agindu horien aurkako edozein erresistentzia agintariei jakinarazi behar zitzaien¹⁰⁰⁸.

1005 BFAH, SOPELANA 0036/002, Jasotako korrespondentzia, 1933 *Bizkaiko Itsas Ordezkaritzak Sopelako alkateari helarazitako jakinarazpena*, 1933-06-10.

1006 SUA, 1932-1934ko Akta Liburua, Bilkura Arrunta, 1933-06-17.

1007 *El Liberal* 1934-06-26, *El Noticiero Bilbaíno* 1934-06-26, *El Pueblo Vasco* 1934-06-26, eta *Euzkadi* 1934-06-26.

1008 SUA, 1932-1934ko Akta Liburua, 1934-06-23ko Bilkura Arrunta.

Desegokitzat jotzen zen bainatzeko arropa eta hondartzetan biluzik egotea gori egon zen gaia izan zen urte horietan. 1931ko ekaina amaieran, *Zabal-Aldak Euzkadi* berripapereko orrialdeetatik salatu zituen “*ikuskitzuna, ezertzat sailkatzera ausartzen ez garenak eta, zoritxarrez, hondartzara joatean ikusten ditugunak*”, eta alkateari erregutu zion “*aurrerantzean kultura eta begiramen arauak betearaz ditzala, dirudienez, gazte batzuk ez baitute halakorik betetzen*”. Horretarako, kronikariak proposatzen zuen “*jagoletza zerbitzu txiki bat ezartzea, aginduetan autoritate eta energia handia izango dituen*”¹⁰⁰⁹.

Aipatu beharra dago udala ekainean zehar gai hori jorratzen aritu zela. Adibidez, ekainaren 8an, “*herri honetako hondartzetan behar den legezko begiramena eta duintasun publikoa gordetzeko asmoz*”, debekatu egin zitzaizen hareatzetatik gertu kokatutako janari eta edari establezimenduen jabeen beren produktuak zerbitzatzea “*modu egokian jantzita ez dauden pertsonen*”. Udalak agindu zuenez, sukaldaritza lokal horietara sartzeko, bainujantziak gain, gizonak, gutxienez, “*jaka lotuta*” eroan behar zuten soinean, eta emakumeek, oster, “*txabusina edo bestelako jantzi txukunak*” izan behar zituzten jantzita. Egun batzuk geroago, herriko hareatzetan bainulariak ugaritu egin zirela ikusita, guardia bi izendatu zituzten, hondartzak domeka eta jaiegunetan zaintzeko, itsasoan sartzen zirenak kontrolatzeaz gain, bertan “*behar diren begiramena eta duintasuna*” bete zitezien. Hala izan zedin, “*derrigortuta zeuden alkateetan edozein egintza immoral salatzea, zegoen zehapena ezarri ahal izateko*”¹⁰¹⁰.

Dirudienez, zaintza hori ez zen nahikoa izan: abuztuaren 9an, *La Gaceta del Norte*k udatiar baten gutuna jaso zuen bere orrietan, eta Sopelako hondartzan ikusten zena “*ulertezina*” zela esan zuen, “*probintziako agintaritzaren gorenak moral publikoaren gainean agindu egokiak eman dituen arren*”. Salaketa horren egileak ohartarazi zuenez, “*bide beretik jarraituz gero, ez da egongo pertsona zintzorik*” herriko hareatza zapaldu ahal izango zuenik, eta zera baieztatzen zuen, “*udak beste hondartza batzuetan igaro beharko ditugu, zintzotasun gehixeagoetan*”¹⁰¹¹.

Arazo hori berriro jazo zen hurrengo urtean. 1932ko uztailaren erdialdean, udal gobernu taldea larrituta agertu zen “*eskrupulurik ez duten bainulari batzuek hondartza hauetan egiten dituzten gehiegikerien aurrean, eta kontuan hartuta udalbatzen funtsezko betebeharra dela begiramena eta duintasun publikoa zaintzea*”, alkateak eta alkateordeak osatutako Batzorde bat izendatu zuen Gobernadore Zibilarekin biltzeko. Batzordearen zeregina honako hau izan zen: probintziako agintari gorenari hainbat neurri proposatzea, “*hondartza horietan abian jartzeko komenigarriak direnak, bertan ikusten den moraltasunik eza zuzentzeko*”¹⁰¹².

1009 *Euzkadi* 1931-06-24.

1010 SUA, 1929-1932ko Osoko Bilkuraren Akta Liburua, 1931-06-08ko eta 1931-06-15eko Bilkura Arrunta.

1011 *La Gaceta del Norte* 1931-09-09.

1012 SUA, 1929-1932ko Osoko Bilkuraren Akta Liburua, Bilkura Arrunta, 1932-07-11.

Jan eta edari establezimenduetarako sarbidea erregulatzen zuen araudia urteroko berbera zen, eta urtero kontratatzen ziren ere hondartzarako guardia bik. Hala ere, erresistentzia aurkitzen zuten bainulari batzuen aldetik beren lana betetzeko. 1933ko apirilean, Concordia Moral Udal Kudeaketa Batzordeko presidentea baimena eskatu zion Gobernadore Zibilar zaindariak “*Udaltzaingo bien armaz*” hornitu ahal izateko, “*moralak eta ohitura onek gorputzeko jantziei dagokienez eskatzen duten txukuntasuna zaintzeko*”¹⁰¹³. Antza denez, Concordia Moralen eskaria ukatu egin zuten, izan ere, 1934ko uztailean, Constantino Zurbano alkateak, Gobernadore Zibilararen “*hondartzetako moraltasunik ezari eta ganberrismoari buruzko*” zirkular baten aurrean, ohartarazi baitzuen guardiak “*armarik barik doazenez, batzuetan jendetzak ez dituela errespetatzen*”. Horrez gain, lehen zinegotziak gogorarazi zuen Sopelako Udalak domeka eta jaiegunetan bakarrik mantendu zezakeela zaingo zerbitzua eta, halandaze, adierazi zuen “*komenigarria izango litzatekeela Guardia Zibila (...) lanegun batzuetan hondartzetara joatea, batez ere astelehenetan eta martitzenetan, orduan joaten direlako bertara, zaingorik ezaz abusatuz, askatasun jakin batzuk hartzen dituztenak*”¹⁰¹⁴.

1936ko uztailaren erdialdean, Barinatxe hondartzak moraltasun arauak hausten ziren espazio bat izaten jarraitzen zuen, *El Pueblo Vasco* egunkarian salatu zenaren arabera. Idazkiaren egileak, ‘*Monchin*’ ezizenaren atzean babesa hartuta, hareatza hartako bisitariak “*Afrikako hondartzen erdian*” zeudela uste zuten ‘*nomadak*’ zirela esan zuen, eta, horren ondorioz, “*afrikanismo primitibo apur bat*” praktikatu behar izaten zutela. Barinatxe hondartzaren morfologiak, zeinak itsaslabar garaien babesa baitzuen, “*kamuflajea biribiltzeko*” balio zuen, bainujantziei dagokienez halako lasaikeria bati bide eman, eta dirudienez, nudismoaren praktikara ere heltzen baitzen. Horren harira idatzi zuen artikulugileak, azpimarratu zuen “*hiriak irakasten duen dotorezia*” ahaztu egiten zutela hareatza hartara joan ohi zirenek eta, halandaze, “*atabismo ugari sortzen da orduan eta ‘nomada’ teorikoak gogoratzen du duela mende batzuk ez zegoela, ez irratirik, ez beste hainbat gauza. Eta denari uko egiten dio. Denari...*”. ‘*Monchin*’ek gai hori azpimarratu zuen, hondartza hartan “*hondartzako bestelako ‘nomadismo’ bat ere badago adierazteko, tamalez, Kantauriko itsasertzeko parte honetara ere hedatu dena. Baina... Hau sport orrialde bat besterik ez da*”¹⁰¹⁵.

1013 BFAH., SOPELANA 0042/002, Bidalitako korrespondentzia, 1933 *Udaleko Kudeaketa Batzordeko presidente andreak Bizkaiko Gobernadore Zibilar helarazitako jakinarazpena*, 1933-03-18.

1014 BFAH., SOPELA 0042/003, Bidalitako korrespondentzia, 1934; *Sopelako alkateak Bizkaiko Gobernadore Zibilar helarazitako jakinarazpena*, 1934-07-18.

1015 *El Pueblo Vasco* 1936-07-12, “*Estampas de verano. Sopolana-Sur-Mer y el nomadismo de vía estrecha*”.

Sopelako hondartzetan ikusten ziren janzkeren duintasunaren kontua ez zen izan tokiko agintariak kezkatu zituen izaera moraleko gai bakarra. 1931ko maiatzaren 8an, Manuel Antón Elorriaga auzotarrak udalari baimena eskatu zion *“bainu garaian hondartzan (...) akordeoia jo ahal izateko”*. Eskariari aho batez eman zioten ezezkua, hondartzan *“egon behar duten begiramen eta duintasun publikoarentzat desegokia dela aintzatesten delako”*¹⁰¹⁶.

Azkenik, baimendutako dantzak amaitu ondoren gaueko aisialdia luzatzea erabakitzen zutenek Barinatxe erabili izana salatu zen *Euzkadi* berripaperaren 1934ko abuztuaren 25eko edizioan. Antza denez, egun batzuk lehenago, *“goizaldeko ordu biak inguruan”*, 20 bat auto *“dotorez”* osatutako jarraigo bat aipatu hareatzara joan zen, eta *“parrandazaleak eroan zituen, zeinak eguna argitu arte ‘druidarena’ egiten aritu baitziren, horrek dantzaz eta libazioz asetako euren garunen astuntasuna esnatzen baitu”*. Egunkari jeltzalearen iritziz, *“Barinatxe hondartza, beste behin ere basatia izan zen, gartzelaniaz hartzen duen izena lez”*¹⁰¹⁷.

Dirudienez, artikulu hartan aipatzen ziren pertsonak klase dirudunekoak ziren, eta *“persona horiek neguko ‘ordena’”* zutela esan zuen, *“udan askok soinetik kendu egiten dutelako, euritako jantziak naftalina artean gordetzen diren lez”*. Egoera horrekin amaitzeko, *“begiramena eta eredugarriak izatea”* eskatzen zen, edo, behintzat, parranda luzatu behar bazuten *“modu pribatuan egitea, herri apal batek eskandalu hori jasan ez dezan”*. *“Hondartza basatietako ikuskizun horiek gogaituta daudenei (...)”*, salaketaren egile anonimoak, zera aholkatu zien,

*“(...) que si no tienen a mano otro remedio contra las lecciones que se les da en estos finales ‘verbeneros’ de alta madrugada y a distancia de las pistas de baile, devuelvan a sus puntos de partida a estacazo limpio estos tomos de insultos a lo más rudimentario de las conductas ejemplares”*¹⁰¹⁸.

1016 SUA, 1929-1932ko Osoko Bilkuraren Akta Liburua, Bilkura Arrunta, 1931-05-11.

1017 *Euzkadi* 1934-08-25.

1018 *Ibid.*

20ko hamarkadako turismoaren gaia jorratu dugunean, Sopelako hondartzen inguruan zeuden ostalaritza establezimenduak ere zerrendatu ditugu. Errepublika garaian, udan soilik irekitzen zituzten negozioak izaten jarraitu zuten, eta udako denboraldia iristearekin batera ateak zabaldu eta jarduera uda amaitzean bukatzen zuten. Jarraian dagoen taulan ikus daitekeenez, ostalaritza eskaintza handitu egin zen 1935ean eta 1936an, hurrenez hurren, Arrietara hondartzan postu bi berri ireki zituztenean:

110. TAULA: OSTALARITZA NEGOZIOAK SOPELAKO HONDARTZEN INGURUAN 1931-1936¹⁰¹⁹			
Negozioa	Jabea	Kokalekua	Jarduera urteak
Apopilo etxea eta taberna	Daniel Arceniega Val	Moreaga	1931-1936
Janari eta edari postua	Tomás Basarte Vidaurrezaga	Atxabiribil hondartza	Udaldiak 1931-1936
Janari eta edari postua	Valentín Cajigas Fresnedo	Atxabiribil hondartza	Udaldiak 1931-1936
Janari eta edari postua	José María Ibarra Aldecoa	Arrietara hondartza (Antonio Busto Somozaren lursailean)	Udaldiak 1931-1936
Janari eta edari postua	Francisco Gutiérrez Osteicoechea	Arrietara hondartza	Udaldiak 1935-1936
Janari eta edari postua	Francisco Arbulu Libarona	Arrietara hondartza	Udaldia 1936

1019 BFAHn gordeta dauden eta jarraian adierazten diren signaturak dituzten *Sopelako industria kontribuzioen alta eta baje*n aitortpenen informazioarekin egindako taula: SOPELANA 0054/005 (1931), SOPELANA 0054/006 (1932), SOPELANA 0054/007 (1933), SOPELANA 0054/008 (1934), SOPELANA 0054/009 (1935) eta SOPELANA 0054/037 (1936). BFAHn gordeta dauden eta jarraian adierazten diren signaturak dituzten *lurralde eta industria kontribuzioak kobratzeko zerrendetako* datuak ere erabili dira: AH00059/001 (1931), AH00068/001 (1932), AH00074/001 (1933), AH00080/001 (1934) eta AH00086/001 (1935).

Zalantzarik barik, Sopelako hondartzetara bisitari ugari iristeak diru sarrerak ekartzen zizkion udalerrinari, eta udala beti saiatu zen herriaren interesak zaintzen. Berba baterako, 1930eko apirilean, udalak Trenbidearen Konpainiari eskatu zion, egingarria balitz, *“Bilbotik Sopelarako tren txartelen prezioan beherapenen bat aplikatzeko”*. Eskaera horren arrazoia da Algortarainoko txartela Sopelarako baina merkeagoa zela eta, horren ondorioz, domeka eta jaiegunetan eguna Sopelako *“hondartza ikusgarri eta osasungarrietan”* igarotzera etortzen ziren *“ehunka bidaiari”* Getxoko geltokian jaisten zirela eta horietarako bidea *“oinez egiten zutela, mendietan eta errepideetan barrena”*. Elizateko udalak adierazi zuen hori kaltegarria zela, bai trenbide konpainiaren, bai udalaren interesentzat, eta Sopelarako txartelaren prezioan beherapen bat eginez gero, herrira joaten ziren bidaiari guztiek trenez egingo zutela bidea, horrek zekarren erosotasunagatik. Murrizketa horren ondorioz, udalaren iritziz, *“ehunka pertsona gehiago etorriko liriteke hondartza horietako oxigeno garbia arnastera eta, ondorioz, Trenbideak bidaiari gehiago izango lituzke; halandaze, Konpainiak diru bilketan igoera nabarmena lortuko luke eta Sopelako herriak ere onura handiak izango lituzke”*¹⁰²⁰.

1934ko uztailan, berriro planteatu zen trenaren txartelaren prezioa, baina beste testuinguru batean, herria krisi ekonomiko gogorra jasaten ari baitzen. Orduan, Francisco Galbarriartu zinegotzi errepublikanoak bere kideei azaldu zenez, Trenbide Konpainiak *“txartel merkeak zituen Areeta, Neguri eta Getxoko Elizateko Algortako geltokietarako, Bilbotik herri haietako hondartzetara bainatzera joaten diren bidaiarientzat (sic)”*. Hori dela eta, Sopelako hareatzetara joaten ziren *“bainulari ugari”* Galbarriarturi berari eta beste zinegotzi batzuei euren kexak adierazi zizkieten, eta erregutu zieten udalak trenbide konpainiari eska ziezazkion *“Sopelako geltokirako eta Larrabasterra auzoko geralekurako txartel horiek berak, ez daitezen izan Getxoko hondartzetara bainatzera doazenak baino baldintza kaskarragokoak”*. Sopelako hondartzetara joan ohi ziren gehienak Algortako geltokian jatsi eta oinez iristen ziren euren helmugara, txartelaren prezioa zela eta¹⁰²¹.

Hilabete batzuk lehenago, 1933ko ekainean, udalak, krisiaren ondoriozko *“egoera ekonomiko zailean”* murgilduta, Trenbidearen Konpainiara jo behar izan zuen, eta dirulaguntza bat eskatu zuen *“hondartzetako salbamendu zerbitzu berriaren”* gastuak ordaindu ahal izateko. Eskaera hori argudiatzeko, udalak adierazi zuen segurtasun neurriak zenbat eta hobeak izan, orduan eta bainulari gehiago etorriko zirela eta, halandaze, trenbide konpainiak mozkin handiagoak lortuko zituela¹⁰²².

1934ko uztailan, udala ostalaritza establezimenduen jabeei eta salgaiak zerbitzitzen zizkieten merkatariei zuzendu zitzaie, hondartzako salbamendu zerbitzuen kostuak ordaintzeko *“diru apur batekin”* laguntzeko eskatzeko, udalak ez baitzuen gastuak ordaintzeko behar beste diru¹⁰²³. Hornitzaileetako batek, Antonio Bustok, gertu dagoen Plentziako *‘Jata’* izeneko apardun eta izotz

1020 SUA, 1929-1932ko Osoko Bilkuraren Akta Liburua, 1930-04-23ko Bilkura Arrunta.

1021 SUA, 1932-1934ko Akta Liburua, 1934-07-07ko Bilkura Arrunta.

1022 SUA, 1932-1934ko Akta Liburua, 1933-06-10eko Bilkura Arrunta.

1023 SUA, 1932-1934ko Akta Liburua, 1934-07-07ko Bilkura Arrunta.

fabrikaren jabeak, adierazi zuen prest zegoela “obolo txiki batekin laguntzeko, nire indarrak oso urriak baitira”. Horri dagokionez, Bustok zera azaldu zuen, “Sopelako HONDARTZAN freskagarrien saltokiei egindako salmentengatik jasotzen ditudan diru sarrerak oso txikiak dira, egungo krisi ekonomikoa dela eta; izan ere, aipatu herria beti izan dut gogoko, ez arrazoi komertzialengatik, jabetzak ditudan herri horretako parte izateagatik baizik”¹⁰²⁴.

Bustok Sopelako alkateari emandako erantzuna aprobetxatu zuen jakinarazteko entzun egin zuela “informazio faltsua, nik Sopelako hondartzaren kontrako kanpaina egin dudala dioena, bainulariak Plentziara joan daitezen, Sopelara joan ordez, eta hori funtsik bako eta oinarririk bako albiste bat da”. Hori dela eta, Sopelako lehenengo zinegotziari eskatu zion ezeztatzeko “halako faltsukeriak, halako GEZURRAK zabaltzen ari direnei, ez berbaz, ez prentsa bidez, ez baitzait halako desegokikeriarik bururatu, hain zuzen ere interes gehiago baitituz Sopelako hondartzan Plentziakoan baino”¹⁰²⁵.

2.5.2. Harremanetarako eta aisialdirako guneak

Aurreko atalean hondartzako aisialdia aztertu dugu, udako dibertsio modu nagusietako bat; kapitulu honetan, aisialdirako beste formatu batzuk jorratuko ditugu, baita Elizateko bizilagunek harremanetarako zituzten espazioak ere. Tradizioz, uda izaten zen pertsonen arteko harremanak ugaritzen ziren garaia, herrietako zaindarien jaiak ospatzen baitziren. Udako eguraldia mesedegarria zen era horretako festak ugaritzeko. Neguko hilabeteetan, aldiz, egun hotz eta euritsuen ondorioz nabarmen murrizten ziren astialdiaz gozatzeko aukerak. Hilabete horietan, espazio zarratuak nagusitzen ziren, halan zelan tabernak edo alderdi politikoen egoitza sozialak, edo leku estalietan egiten ziren dantzaldiak.

Domeka eta jaiegunetan egiten zen **jolas** edo dantzaldia Sopelako gazteek harremanak ezartzeko zuten modu tradizionala bat zen. Errepublikaren garaian, **jolasa** udaletxeko sarrerako arkupean egiten zen, eguraldi txarretik babestuta egoteko. 1931ko azaroaren parean, espazio hura ez zen nahikoa “gazteriaren lasaialdirako dantzaldira” bertaratutakoak hartzeko, Elizateko 40 gaztek udalari aurkeztutako idazki batean adierazi zuten lez. Instantzia hartan azaldu zuten, “baldintza txarretan eta estuegi dantzatzer behartzen” zituen, “jendetzak ez duelako besterik ahalbidetzen”. Hori dela eta, udalari eskatu zioten “aipatutako arkupeari zabaltasun handiagoa emateko modua” bilatzeko, eta “gaur egun arkupea eta harategia banatzen dituen paretara eraisteko ideia” proposatu zioten. Era horretan, sinatzaileen arabera, “bete egingo lirateke gazteok domeka eta jaiegunetako lasaialdietan dituen nahiak”¹⁰²⁶.

1024 BFAH, SOPELANA 0037/001, Jasotako korrespondentzia, 1934 Antonio Bustok Sopelako Udalari helarazitako jakinarazpena, 1934-07-18.

1025 Ibid.

1026 SUA, 1929-1932ko Osoko Bilkuraren Akta Liburua, Sopelako hainbat gaztek udalari aurkeztutako instantzia, 1931-11-21 (Aipatu osoko bilkuren liburuan agertutako dokumentua).

1931ko urtarrilean —orduan zinegotzi zen Alejo Marcaidak hala proposatuta— udalak erabaki zuenaren arabera, *jolasak* arratsaldeko hiruretan hasi behar zuen, “*otoitz egiteko deia egin bezain laster amaitzeko, aitzakiarik barik*”, hau da, arratsaldeko seietan, Eliza Katolikoak esaten zuenez, ordu horretan errezatu behar baitzen Angelusaren Otoitza. Udalaren agindua bete zedin, Ángel Villalabeitia soinu jotzaileari ohartarazi zioten, aipatutako “*otoitzero deia*” egin ondoren bost minutu baino gehiagoz jotzen jarraitzen bazuen, 10 eta 25 pezeta arteko isuna ezarriko zitzaioala. Agindu hori denbora batez bete behar izan zen, baina laster ahaztu zuten: 1932ko uztaillean, “*hainbat familiako aita*” kexatu egin baitzitzaizkien udaleko zinegotzi batzuei, domeka eta jaiegunetako dantzaldiak oso berandu amaitzen zirelako. Udal gobernu taldeak, “*irregulartasun*” horren ohartun, Villalabeitiari agindu zion behin elizako dorrean otoitzero deia egin ondoren, “*dantzatzeo pieza bakarra jo ahalko zuela, gazteak euren etxeetara ordu egokian joan ahal izateko*”. Udalak soinu jotzaileari ohartarazi zionaren arabera, “*adostutakoa ez betetzea*” 5 eta 15 pezeta arteko isunarekin zigortuko zen, eta behin baino gehiagotan gertatzen bazen, udalak “*egoki irizitako erabakia*” hartuko zuen¹⁰²⁷.

Gazteriak dantzarekiko zuen zaletasun hori, zalantzarik barik, ederto bideratu zuen Sopelako EAJK, eta **Larrabasterako batzokian** ezpata dantza talde bi sortzea lortu zuen; ikusiko dugunez, talde horiek 1931ko San Pedro jaietan egin zuten lehen emanaldia. Euskal dantza talde pare horren sorrera (1932ko ekainean haur dantzarien¹⁰²⁸ sailarekin handitu zen) Errepublikako lehen konpasetan herriko jeltzaleen antolakuntza lorpenik aipagarriena izan zen.

Zentro nazionalistak ziren batzokien asmoetako bat harremanetarako zentro bihurtzea zen: sarbidea librea izan ohi zen, giroa ere atsegina zen lehen aldiz joaten zirenentzat, lagun eta senideekin topatzen baitziren. José María Tapizek ondorioztatzen duen lez, egoitza nazionalistak, landa eremuko udalerrietan batez ere, “*ondo pasatzeko alternatiba erreal eta lehiakorra, eta elkargune eroso*” ziren, batez ere neguan, izan ere, urteko sasoi horretan udako hilabeteetan maiz ospatzen ziren herrietako jaiak urriak baitziren¹⁰²⁹. Errepublikaren garaian Elizateko abertzaletasunaren historiari heltzean ikusi dugun lez, badirudi apatia nagusi izan zela herriko jeltzaleen artean. Antolatutako berbaldiez gain, jarduera atseginagoak baino ez ditugu aurkitu, halan zelan antzerkia, behin bakarrik, 1932ko martxoaren 28an, *Euzko-Gaztedijako* zenbait emakumek eta kidek Nicolás Viarren ‘Maite’ eta Isidro Paradaren ‘*Los calmosos*’¹⁰³⁰ antzezlanak antzestu zituzten egunean. Dena den, begirada ez dugu Sopelako udalerraren mugen baitan soilik ipini behar, baldin eta abertzaletasunak harremanetarako guneei zegokienez egiten zuen eskaintza osoa aztertu gura badugu. Trenak eskaintzen zuen mugikortasun erosoari esker, Elizateko afiliatu eta jarraitzaileak beste herri batzuetara joan ahal izan ziren

1027 SUA, 1929-1932ko Osoko Bilkuraren Akta Liburua, 1931-01-21eko Ezohiko Bilkura eta 1932-07-11ko Bilkura Arrunta.

1028 *Euzkadi* 1931-06-06, 1931-06-24, 1931-06-26 eta 1932-06-09.

1029 TAPIZ FERNÁNDEZ, José María: “*Los batzokis jeltzales durante la II República. Centros de Sociabilidad y reclamos de afiliación*” *Vasconia*, 33, 2003, 283-302 or., (aipua: 293-295 or.).

1030 *Euzkadi* 1932-03-31.

beste erakunde jeltzale batzuek deitutako inaugurazioetara, ekitaldietara eta jardunaldietara, ez bakarrik ingurukoetara, baizik eta baita urrunagoko beste udalerrri batzuetakoetara ere, Bilbora, esaterako.

1935ean, Elizateko aisialdirako eskaintza zabaldu egin zen, **Sociedad Cooperativa de Consumo** Elkartearen hartzeko eraikin bat eraiki zutenean. Eraikina Antonio de Araluze arkitektoak diseinatu zuen 1934ko apirilean. Proiektua gauzatu ondoren, kooperatibak Larrabasterran zuen jatorrizko kokalekua utzi eta Sopelako hirigunean kokatu zen, udaletxetik metro gutxira. Planoaren arabera, kooperatibistak artatzeko instalazio berrien beheko solairuan denda bat, okindegi bat, bizartegi bat eta kontsultategi bat zeuden. Eraikuntza berriaren lehen solairua Elkartearen ekitaldi aretorako gorde zuten, eta, bestalde, eraikinari frontoi¹⁰³¹ bat atxiki zioten, Sopelak ordura arte izan ez zuen kirol instalazio bat zena.

Frontoi berriak, zalantzarik barik, arrakasta handia izan zuen herrian. *La Gaceta del Norte* jaso zenez, 1935eko martxoaren erdialdean, oraindik teilatua falta zitzaion arren, kantxan partidak jokatzeko zituzten dagoeneko. Egun horietan, zehazki martxoaren 10ean, frontoiko taberna inauguratu zen, eta *“bainugela eta dutxak”* amaitzen ari ziren. Hilabete horren amaieran, hedabide berean zera adierazi zuten, *“pilota kirolaren inguruan ezer gutxi egongo da frontoiari teilatua jartzen ez dioten bitartean”*, baina nabarmendu zen *“maisutasunez eta dotoreziaz egindako kantxako koadroen pintura, zeinaren obrak gure bizilagun eta adiskide Pantaleón Trifolek zuzendu baititu”*¹⁰³².

Pilota partidak jokatzeko jarraitu zuten, instalazioa oraindik estali barik bazegoen ere. Horren erakusgarri da maiatzaren 5erako programatutako partida, *I. Aste Abegikorraren* aldekoa, ezin izan zela jokatu, egun hartan herrian izan zen denboralearen ondorioz, atzeratu egin behar izan baitzuten¹⁰³³.

Frontoia hormigoi armatuz eraikita zegoen, eta sentsazio ona eragin zion *Aritzi*, 1935eko San Pedro jaietan jokaturako partidak estali zituen *Euzkadi* berripapereko korrespondentzari. Artikulugilearen iritziz, kirol instalazio berriak *“Sopelan gure kirolarekiko zaletasuna piztea”* lortuko zuen, *“orain arte ez baitu errebote xume batere izan kirol hori egiteko”*. Hori dela eta, Kooperatibako buruek frontoia eraikitzeko izan zuten ekimena txalotua izan zen, izan ere, euren nahia pilotan jokatzeko tokirik ez zuten beste udalerrri batzuek ere ideia hori kopiatzea zen¹⁰³⁴. Herriko jaietan jokatu ziren partidak Pio de Arrese herritarrak antolatu zituen, zeinari buruz *Kurloya* kronikariak *Euzkadi* berripaperean esan baitzuen *“Sopelako pilota mugimenduaren ardatz nagusia”* zela¹⁰³⁵.

1031 BFAH, SOPELANA 0073/008, *Sopelako Udalak izapidetutako espedientearen, Isidoro Zamaconak, herri horretako Sociedad Cooperativa de Consumo Elkartearen ordezkari gisa, aurkeztutako instantzia baten ondorioz. Instantzian horretan, Moreaga auzoko bere jabetzako lurretan eraikin bat eta frontoi bat eraikitzeko baimena eskatzen du*, 1934.

1032 *La Gaceta del Norte* 1935-03-16 eta 1935-03-30.

1033 *La Gaceta del Norte* 1935-05-12. Sopelako pilotalekuan jokaturako beste partida batzuei buruzko informazioa jasotzen da *La Gaceta del Norte*ren 1935-04-21eko eta 1935-05-28ko aleetan.

1034 *Euzkadi* 1935-07-04.

1035 *Euzkadi* 1935-07-03.

111. TAULA: PILOTA PARTIDAK - SAN PEDRO JAIK 1935¹⁰³⁶

Ekainak 29	<p>Haurren zesta-punta: Celaya eta Laca (Markina) Ramos eta Aizpiriren (Markina) aurka</p> <p>Esku pilota: Arregui eta Guederiaga (Areeta) Urcelay (Zornotza) eta Zabalaren (Etxebarri) aurka</p>
Ekainak 30	<p>Esku pilota: Jose María eta Zarraga (Sopela) Bacela anaien (Getxo) aurka</p> <p>Esku pilota: Zalbidea eta Pérez (Algorta) Elguezabal anaien (Mungía) aurka (Geldiarazi egin zuten Zalbideak partidan zehar izandako istripu batengatik)</p>

Handik gutxira, uztailaren 25ean, Sociedad Cooperativa Elkartearen eraikina eta frontoia inauguratu zituzten¹⁰³⁷. Azaldu lez, erakundearen orientazio katolikoa agerian geratu zen inaugurazio ekitaldietan Meza Nagusia eta lokalen bedeinkapena sartu zituztenean. Inaugurazio egunerako, pilota partidez gain, honako egitaraua prestatu zuten:

112. TAULA: SOPELAKO SOCIEDAD COOPERATIVA ELKARTEAREN INAUGURAZIO EKITALDIEN PROGRAMA 1935-07-25¹⁰³⁸

10:00: Meza Nagusia, Bilboko Koral Elkartearekin.
<p>Mezaren ondoren: Lokalak bedeinkatzea eta José Acevedo, Unión de Cooperativistas del Norte de Españako presidentearen berbaldia kooperatibismoaren abantailei buruz.</p>
Antonio de Arechavaletaren omenezko herri oturuntza. (Obrak berak finantzatu zituen eta 90 mahaikidek parte hartu zuten).
<p>17:00: Pilota partidak: Eskuz: Coche (Algorta) eta Zarraga (Sopela) Juanito Bachi eta Lecueren (Plentzia) aurka Pala: Ochandiano anaiak (ezin da irakurri) eta Ibarondo (guztiak Kirol Klubekoak)</p>

1036 *La Gaceta del Norte* 1935-07-03.

1037 BFAH, SOPELANA 0042/004, Bidalitako korrespondentzia, 1935 *Sopelako alkateak Sociedad Cooperativa de Consumo Elkartearen eraikinaren inaugurazioa dela-eta izaera kooperatibistako berbaldira bertaratzeko Agustín Artaza ordezkari gisa izendatzeko egindako ofizioa*, 1935-07-24.

1038 *La Gaceta del Norte* 1935-07-28.

Ikusten denez, pilotalekuak jarduera nahiko emankorra izan zuen. Gauza bera esan daiteke era guztietako ikuskizunak eskaini zituen Elkartearen eraikineko ekitaldi aretoari buruz ere. Honako berba hauekin jaso zuten 1935eko irailaren 19an *La Gaceta del Norte*:

“De algún tiempo a esta parte, parece que los prestidigitadores, cómicos y artistas de circos han tomado a este bello rincón como centro de sus operaciones. Antes tuvimos al famoso ‘Fasman’, quién causó sensación con sus experimentos de hipnotismo, transmisión del pensamiento y catalepsia. Hoy tenemos a ‘Kalwo’, el rey de la evasión, quien ofrece mil pesetas al que le deje amarrado, etc, etc. La mayor parte de estas sesiones se exhiben en el salón de actos de la Cooperativa”¹⁰³⁹.

Antzerkiak ere bere lekua izan zuen Ekitaldi Aretoan. Berba baterako, 1935eko urrian, herriko gazte batzuek osatutako antzeztalde batek *‘¿Que viene el general!’* antzeztu zuen, eta Sopelako emakumezko aktore gazteen talde batek, berriz, Bonifacio Sainz R.Pren *‘La gratitud’* antzezlana eroan zuen oholtzara¹⁰⁴⁰.

Garai horretako **Sopelako jaiei** zegokienez, jai nagusiak San Pedro zaindariarenak eta Larrabasterrako Karmengo Andre Mariaren eguna ziren. Santa Marinako erromeria ere mantendu zen (uztailaren 20an), baita Paduako San Antoniokoa ere (ekainaren 13an). Azken kasu horretan, badakigu 1934an antolatu zen ekitaldietako bat zaldi lasterketa bat¹⁰⁴¹ izan zela, eta 1933ko maiatzaren erdialdean, ostera, udalak urte hartako ekainaren 13an udal alondegiko landan ganadu azoka bat¹⁰⁴² antolatzea erabaki zuela, urtero egiteko asmoz. Horrez gain hurrengo urtarrilaren 20an, San Sebastian egunean, ganaduzaleen beste azoka bat egitea erabaki zen. Ekimen bikoitz hori gauzatzeko, beharrezkoa zen Gobernadore Zibilak baimena ematea, baina aipatzekoa da ez ditugula aurkitu, ez baimen hura, ez udalaren planak gauzatu ote ziren baieztatzen duen ezelango erreferentziarik. Egia esan, udalak herriak bizi zuen egoera ekonomiko txarra arintzeko neurri moduan planteatu zuen idea hori, esanez azoka bi egiteak ez ziola *“ezelango gasturik eragiten Udalari, eta (...) aldiz, ekimenak onura handiak ekar zitzaizkela fruitua emanaz gero”¹⁰⁴³*. San Andres egunari buruzko erreferentziarik aurkitu ez dugun arren, pentsa daiteke izen hori duen baselizak azaroaren 30ero erromesak jasotzen jarraitu zuela Bigarren Errepublikako urteetan zehar.

1039 *La Gaceta del Norte* 1935-09-19.

1040 *La Gaceta del Norte* 1935-10-13. Gizeozko antzezleak honako hauek izan ziren: Zalbidea, Inchaurtieta, Achalandabaso, Galbarriartu, Zorroza, Aurrecoechea eta Pío. Eta emakumezko antzezleak: Caridad y Begoña Sojo, María Ángeles Gutiérrez, Carmen Quintanilla, Concha eta María Luisa Partearroyo.

1041 SUA, 1932-1934ko Osoko Bilkuraren Akta Liburua, 1934-06-23ko Bilkura Arrunta.

1042 Ganadu azoka horren jatorria 1780tik dago (ITURRIZA eta ZABALA, Juan Ramón; eta AZCARATE REGIL, Manuel: *Historia General de Vizcaya*, I. ATALA *Antiguos recuerdos de Vizcaya*, Bilbo, Amigos del Pueblo Vasco Argitaletxea, 1985, V. liburukia, 393-394 or.).

1043 SUA, 1932-1934ko Osoko Bilkuraren Akta Liburua, 1933-05-20ko Bilkura Arrunta.

Edozelan ere, kontsultatu dugun dokumentazioari esker, urte horietan San Pedro, Karmen eta Santa Marina jaiak handitasunez ospatzeko programatu zituzten ekitaldien berri izan dezakegu. 1931ko ekainaren 26an *Euzkadi* berripaperean argitaratutako kronika bati esker, herriko jaietako eta Larrabasterra auzoko egitarauak lortu ditugu:

113. TAULA: SAN PEDRO JAIETAKO EGITARAUA, 1931¹⁰⁴⁴	
Ekainak 29	<p>9:30: Ezpata dantza taldearen irteera Larrabasterrako Batzokitik udaletxerantz. Handik, udalbatzarekin batera, Parrokiara joango dira Meza Nagusia entzuteko.</p> <p>Mezaren ondoren: herriko ezpata dantza taldearen emanaldia, Aureskua eta dantzaldia 13:00ak arte.</p> <p>16:00: Ezpata dantza taldearen emanaldia eta, ondoren, erromeria handia Musika Bandarekin, danbolinteroeekin, akordeoiekin eta hainbat musika tresnarekin.</p> <p>22:00: Erromeria foku elektrikoekin eta faroltxoen argitan, akordeoiekin eta abarrek girotuta, gaueko hamabiak arte.</p>
Ekainak 30	<p>10:00: Requiem meza herriko hildakoen oroimenez.</p> <p>11:00: Haurrentzako jolasak, eskudirutan saritutakoak, Aureskua eta dantzaldia 13:00ak arte.</p> <p>16:00: Erromeria Musika Bandarekin, danbolinteroeekin eta akordeoiekin; atsedenaldirian sariak dituen Jota Lehiaketa egingo da.</p> <p>22:00: Erromeria gauerdira arte.</p>
Uztailak 1	<p>Goizez: Aureskua eta dantzaldia 13:00ak arte.</p> <p>16:00: Erromeria Musika Bandarekin, danbolinteroeekin eta akordeoiekin. Atsedenaldirian, zaku lasterketa, sariak.</p> <p>22:00: Dantzaldia gauerdira arte.</p>
Uztailak 5 (Festaren errepikapena)	<p>Meza Nagusiaren ondoren, herriko ezpata dantza taldearen emanaldia. Jarraian, Aureskua eta dantzaldia 13:00ak arte.</p> <p>16:00: Erromeria Musika Bandarekin, danbolinteroeekin eta akordeoiekin.</p> <p>22:00: Dantzaldia gauerdira arte.</p>

1044 *Euzkadi* 1931-06-26.

114. TAULA: KARMENGO JAIEN EGITARAUUA, 1931¹⁰⁴⁵

Uztailak 16	<p>10:00: Udalbatzaren irteera udaletxetik, danbolinaz lagunduta Meza Nagusia ospatu zen Larrabasterrako Jesusen Bihotzaren moja misiolari agurgarrien komentuko kaperarantz.</p> <p>Meza Nagusiaren ondoren: herriko ezpata dantza taldearen emanaldia.</p> <p>12:00: Cross Country-a, sariekin</p> <p>16:00: Erromeria Musika Bandarekin, danbolinteroekin, akordeoiekin eta abarrekin. Atsedendian, auresku lehiaketa, sariekin.</p> <p>22:00: Dantzaldia, argiztapenarekin eta hainbat musika instrumentuz girotuta, gaueko hamabiak arte.</p>
-------------	--

Oro har, Bigarren Errepublikako urteetan zehar egin ziren jaietako ekitaldiek 1931ko San Pedro eta Karmengo Andre Mariaren jaietarako prestatutako egitarauaren eskema bera zuten. Urte hartan, berritasun bat izan zen Larrabasterrako Batzokiko ezpata dantza talde sortu berriaren emanaldia, zeinak 1932an berriz parte hartu baitzuen. Ikusi dugun moduan, 1933an San Pedro eta Karmengo jaietan ere egin zituzten emanaldiak, udaleko zinegotzi guztien adostasunik barik izan bazen ere. Gutxiengo errepublikanoak adierazi zuen “*ezpata dantzak izaera politikoa*” zuela eta, horregatik, Batzokiak debalde egitea proposatu zuen, udalak haiei ezelango dirurik ordaindu barik. Gehiengo nazionalistak argudiatu zuen dantza hura “*Hiru Probintzietako dantza erregional bat*” zela, urte hartako jaietan Batzokiko dantza taldeak emanaldia egiteari babesa emateko; erabaki horrek hiru zinegotzi errepublikanoen aurkako botoa jaso zuen¹⁰⁴⁶.

1045 Ibid.

1046 SUA, 1932-1934ko Osoko Bilkuraren Akta Liburua, 1933-06-17ko Bilkura Arrunta.

Jaiak girotzeko kontratatutako Musika Bandaren emanaldiei dagokienez, erromeria bera ez ezik, kalejirak ere hartzen zituzten barne. Horrela ezarri zen udalak 1934an eta 1935ean adostu eta ezarri zituen 16 musikariz osatutako Bandaren betebeharretan. Hona hemen 1934an egin behar izan zituzten ibilbideak:

115. TAULA: MUSIKA BANDAREN BETEBEHARRAK 1934KO SAN PEDRO ETA KARMENGO JAIETAN¹⁰⁴⁷	
Ekainak 29	16:00: Kalejira Larrondo auzotik Elizondoko landara (600 metro). Erromeria landa horretan iluntzera arte.
Ekainak 30	16:00: Kalejira Larrabasterra auzotik Elizondoko landara (1.200 metro). Erromeria landa horretan iluntzera arte.
Uztailak 8	Ibilbidea eta emanaldia, ekainaren 29an lez.
Uztailak 16	16:00: Kalejira udaletxetik Larrabasterra auzora (1.200 metro) eta erromeria iluntzera arte.

Esan lez, jaien egitarauen eskemak antzeko ildoan izan zuen Errepublikaren garaian, erabilitako dokumentazioan berrikuntza batzuk aurkitu badira ere. Berba baterako, 1932ko uztailaren 16an programatu ziren ekitaldien artean, 1933ko Karmengo jaietan berriro egin zela dakigun txirringularitza lasterketa bat sartu zen, non txirringulariek *“Bidebietako zirkuituari”* aurre egin behar izan baitzioten, zirkuitua hamabost bider egin arte¹⁰⁴⁸.

Musikari dagokionez, 1933ko San Pedro jaietako bigarren egunean *“Balendin eta Sabin Enbeitia oleskari ospetsuek”* emanaldi bat egin zuten¹⁰⁴⁹. Bi bertsolari horien erakustaldia ezin hobeto zetorren bat euskal abertzaletasunak jai herrikoiei buruz zuen ikuspegiarekin, urte horietan zehar *“exotikotzat”* jotzen zituen instrumentuen aurka eta *“dantza lotua”* deiturikoaren aurka agertu baitzen. Sopelaren kasuan, aurreko orrialdeetan azaldu dugun lez, herriko abertzaleek gai horietan izan zuten jarrera erakusten duen adibide oso argi bat dugu: 1931ko ekainaren erdialdean, elizateko zenbait gaztek baimena eskatu zitoten udalari Manuel Antonio Elorriagak San Pedro eta Karmengo jaietan piano biraderaduna jo zezan. Musika tresna hori *“hain atsegina”* ez zela eta *“jada ez dela ia inon jotzen”* argudiatuz, zinegotzi nazionalistez osatutako gehiengoak ukatu egin zuen eskatutako dantzaldia egiteko baimena¹⁰⁵⁰. Ez dirudi bertako jeltzaleek euskalduna zen horretatik kanpokotzat jotzen zituzten dantza eta instrumentuen kontra egindako borrokak espero zen emaitza lortu zuenik Sopelan: 1935eko uztailaren hasieran, *Kurloyak*, *Euzkadi* berripapereko artikulugileak, Pio Arrese zoriondu zuen, San Pedro jaietako pilota partiden antolatzailea, eta adierazi zuen, kirol topaketa

1047 BFAH, SOPELANA 0042/003, Bidalitako korrespondentzia, 1934, *Sopelako alkateak Fructuoso Martín Musika Bandako zuzendariari helarazitako ofizioa*, 1934-06-26. 1935eko betebeharrak hemen: BFAH, SOPELANA 0042/004, Bidalitako korrespondentzia, 1935, *Sopelako alkateak Fructuoso Martín Musika Bandako zuzendariari helarazitako ofizioa*, 1935-06-24.

1048 SUA, 1932-1934ko Osoko Bilkuraren Akta Liburua, 1932-10-03ko Bilkura Arrunta; eta *Euzkadi* 1933-07-15.

1049 *Euzkadi* 1933-07-01.

1050 SUA, 1929-1932ko Akta Liburua, 1931-06-22ko Bilkura Arrunta.

horiei esker, “*pianotoxoen eta ‘jazz-band’ ulertezinaren gozakaiztetik urrin egon ahal izan gara une batez, lur arrotzetatik gure gaztetasun ederra galbideratzeko berariak ekarritako instrumentuetatik urrun*”¹⁰⁵¹.

Santa Marina egunari dagokionez, eskema tradizionalari eutsi zioten. Berba baterako, 1932ko uztailaren 20an, ermitan Meza ospatu ondoren, ohiko bazkaria egin zen, non udaleko zinegotziak eta “*udalerriko gainerako agintari eta langileak*” elkartu ziren. Ohi lez, ospakizunera joan ziren bizilagunei ‘lunch’ bat oparitu zieten: 16 litro ardo zuri, 8 litro ardo mindu eta lata galleta bi¹⁰⁵². Ikusi dugun lez, hurrengo urtean, 1933ko apirilko udal hauteskundeetatik udalean egon zen gutxiengo errepublikanoak zalantzan jarri zuen agintarien bazkaria egitea. Errepublikanoek proposatu zuten udaleko zinegotziak eta langileak biltzen zituen oturuntza ordaintzeko inbertitzen zen dirua eskolako neska-mutikoentzako txango bat antolatzeko erabiltzea. Gutxiengoaren asmoa ez zen bazkari tradizionala bertan behera uztea, Ciriaco Echaiz zinegotziak azaldu zuen lez (haren alde agertu baitzen), baizik eta parte hartzaile bakoitzak bere menua ordaintzea. Oturuntza hura antzinatik egiten zela adieraziz, gehiengo nazionalistak bazkaria udalak ordaintzearen alde bozkatu zuen¹⁰⁵³.

2.5.3. Eskolako hezkuntza eta helduen alfabetatzea

Bigarren Errepublika iritsi zenean, Sopelak herriko erdigunean zeuden Eskola Nazionalak zituen hezkuntza azpiegitura bakar gisa eta, handik gutxira, Larrabasterra auzoan ateak ireki zituen behin-behineko ikastetxe bat gehitu zitzairen horiei. Aipatu beharra dago erregimen errepublikanoa iritsi aurretik auzo hartan “*Jesusen Bihotzeko Misiolari Erlijiosoen Ikastetxea*” izan zutela. Ramón de Echevarrioste kronistak kontatu zuenez, 1917ko maiatza aldera atzerriko sei moja Larrabasterrara iritsi ziren Lehen Mundu Gerratik ihesi, eta komentu bat jarri zuten. Hasiera hasieratik, nesken irakaskuntzan jardun zuten¹⁰⁵⁴, “*baina geroago*”, Sopelako alkateak 1933ko abuztuan adierazi zuenaren arabera, “*ez dakigu zergatik, amore eman zuten eta urte batzuk dira ez dutela irakaskuntzan jarduten*”¹⁰⁵⁵. Ez dugu daturik ikastetxe pribatu hartan herriko ikasleak egon ote ziren jakiteko. Egia esan, 1931ko maiatzean, mojek 42 neskato zituzten babesean hartuta. Hilabete horren erdialdean istilu ugari izan ziren Madrilen eta eraikin erlijioso batzuei su eman zieten. Gertakari horien ondorioz, Larrabasterrako erlijiosoek Italiara joateko agindua jaso zuten, eta Bizkaiko Diputazioari abisua eman zioten 42 neskatoen ardura har zezan. Maiatzaren 18an, probintziako erakundeak pleitatutako autobus batek adingabeak jaso zituen beste zentro batzuetara eramateko¹⁰⁵⁶.

1051 *Euzkadi* 1935-07-03.

1052 SUA, 1929-1932ko Akta Liburua, Bilkura Arrunta, 1932-07-18.

1053 SUA, 1932-1934ko Akta Liburua, 1933-07-15eko Bilkura Arrunta.

1054 *La Gaceta del Norte*, 1917-06-06 eta *El Pueblo Vasco* 1917-06-06. Echevarriostek zehaztu zuenez, sei mojak hainbat nazionalitatekoak ziren: norvegiarra, ingelesa, frantsesa, alemana, errusiarra eta portugesa.

1055 BFAH, SOPELANA 0042/002, Bidalitako korrespondentzia, 1933, *Sopelako alkateak Konfesio eta Kongregazio Erlijiosoen emandako Lehen Hezkuntzako Ordezkapen Obrarako Batzorde Misto Probintzialeko lehendakariari helarazitako ofizioa*, 1933-08-21.

1056 *Excelsior* 1931-05-19 eta *El Pueblo Vasco* 1931-05-19. Babesean hartutako neskatoak honela banatu zituzten: 20 “*Begoñako establezimendu batera*” joan ziren, 12 Bilboko Miserikordia Etxean hartu zituzten eta 10 Urduñara bidali zituzten.

Eskolako hezkuntzak Sopelan Bigarren Errepublikan zehar izan zuen oztopo nagusia herrian zeuden eskoletan edukiera nahikoa ez izatea izan zen, izan ere, gainezka egin zuten eskolatzeko adinean zeuden haurren kopuruak gora egin zuenean. Arazo horren jatorria Primo de Riveraren diktaduraren garaian zegoenez, komenigarria iruditu zaigu hemen jorratzea, gaiari buruzko ikuspegi osoa eskaini ahal izateko. Elizateko eskolak gainezka egoteari buruz aurkitu dugun lehen erreferentzia 1925eko martxoaren 26koa da, data horretan ikuskapen bat egin baitzen ikastetxeko haurren atalean. Egun hartan 74 ikasle zeuden ikasgelan, “*zaila zen denak aldi berean eserita egotea, ez baitzegoen mahai eta banku nahikoa*”. Gabezia hori arintzeko, udalari aholkatu zioten ikasgelan zegoen plataforma kentzeko, leku asko hartzen zuelako, “*eta haren ordeaz haurrentzako mahai bat gehiago jartzeko*”¹⁰⁵⁷.

Nesken eskola ere gainezka zegoen, M.^a Pilar García Lehen Hezkuntzako ikuskariak 1926ko urriaren erdialdean egindako bisitan egiaztatu zuen lez. Garai hartan, 103 neskatila zeuden matrikulatuta. Ikuskapenaren egunean, guztira, 73 ikasle zeuden ikasgelan, “*kopuru handiegia, lokalaren neurriak kontuan hartzen badira, ez baitu berrogei baino gehiago joatea onartzen*”. Egoera horren aurrean, ikuskariak adierazi zuen beharrezkoa eta premiazkoa zela “*ikasgela handitzea, eta horretarako egoki irizitako lanak egitea*”. Espazioaren muga horrek, irakaskuntzaren kalitateari eragiteaz gain, “*asistentzia erregularizatzea eta derrigorrezkoa izan dadin lortzea*” eragozten zuen. Hori ikusita, alkateak berba eman zuen, udal aurrekontuak horretarako aukera ematen zuenean, eskolak berritzeko lanak egingo zirela¹⁰⁵⁸.

Sopelako eskolak eraberritzeko proiektua ez zen izan herriko ikasleak eraginkortasunez hartzeko zegoen leku falta konpontzeko planteatu zen konponbide bakarra. 1929ko uztailaren erdialdean, herriko alkateak Larrabasterran Eskola Misto bat eraikitzeke idea azaldu zuen Lehen Irakaskuntzako Tokiko Batzarrean, eta “*auzo jendetsueneko bizilagunen eskaeren berri eman zuen*”, azken urteotan, “*biztanleria nabarmen handitu da (...), egin diren eraikin ugariekin (...)* eta, ondorioz, eskolara doan biztanleria ere handitu egin da”. Jakina, lehen zinegotziak Sopelako ikastetxea gainezka zegoela aipatu zuen, baita Larrabasterratik eskola horretara joateko “*gaztetxoenek*” egin behar zuten distantzia ere. Gaia udalbatzari helarazi zitzaionean, aho batez onetsi zen, eta Fernando Oleaga alkateari baimena eman zioten egin beharreko kudeaketak egin zitzan, zeinak Lehen Hezkuntzako zuzendariari abuztuaren 10ean egindako eskaera formalean gauzatu baitziren¹⁰⁵⁹.

1057 BFAH, SOPELANA 0086/006, *Sopelako Eskola Publikoko azterketa publiko orokorren akta liburua*, 1877-1929, 1925-03-27ko bilkuraren akta.

1058 BFAH, SOPELANA 0086/006, *Sopelako Eskola Publikoko azterketa publiko orokorren akta liburua*, 1877-1929, 1926-10-23ko bilkuraren akta.

1059 BFAH, SOPELANA 0071/003, *Sopelako Udalak izapidetutako espedientea, Larrabasterra auzoan mutilentzako eta neskenentzako eskola unitario banarentzako eraikin bat eraikitzeke (1929-1943)*, udal idazkariak ziurtatutako dokumentazioa, hainbat erabakiri buruzkoa, 1929-07-22, 1929-08-01 eta 1929-08-10.

Larrabasterran eskola bat eraikitzearen gaiak 1929ko irailaren erdialdean piztu zen eztabaida bat eragin zuen. Hilaren 16an, Gobernadore Zibilak idazki bat helarazi zion Sopelako alkateari. Idazkia herriko hiru bizilagunek bidali zioten: Enrique Urruticoechea, Pio Arrese eta Pantaleón Trifolek, eta Antonio Arechavaletak Sopelako udalari ustez egindako lursail baten eskaintza zuen hizpide. Ustez, lursaila eskaini zuen, lehendik zeuden Eskola Nazionalak ordeztuko zituzten *“Eskola eraiki berriak”* bertan egin ahal izateko, udalak aurrekontuan jasotako diru esleipenarekin. Oleaga alkateak, Gobernadoreari emandako erantzunean, *“oso harrituta”* zegoela adierazi zuen, herritar horiek sinatutako salaketa idazkia irakurri ondoren, eta adierazi zuen *“gezurra eta guztiz faltsua”* zela Arechavaletak udalari lehen aipatutako eskaintza *“egundo”* egin izana, *“ez idatziz, ez ahoz”*. Lehen zinegotziak egin zuena, ostera, zera izan zen, Arechavaletari iritzia eskatzea Eskola Nazionalak berritzeko proiektu *“egokiena eta merkeena”* aukeratzeko, eta alkatearen berbetan, elkarrizketa horietan ez zen bestelako gairik jorratu. Azkenik, Oleagak argi utzi zuen udalak zorrotz bete zituela Instrukzio Publikoko Ministerioari Larrabasterrako eskola misto bat eraikitzea eskatzeko beharrezko izapide guztiak. Kasu horretan, Arechavaletak bai eskaini ziola ahoz udalari eraikin hori egiteko lursaila eta, seguruenik, salaketa jarri zuten bizilagunek hori txarto ulertu zuten. Gaia ez zen hor amaitu, jakin baitakigu Gobernadore Zibilak Urruticoechea, Arrese eta Trifol zitatu zituela, baita Antonio Arechavaleta ere, haren aurrean ager zitezen, nahiz eta ez dakigun auzi hura zertan geratu zen¹⁰⁶⁰.

Edozelan ere, Sopelako eskola handitzeko lanak 1930eko ekainaren amaiera aldera amaitu zituzten, 12.000 pezetako kostuarekin. Udaleko diru kutxak ordainketari aurre egiterik ez zuenez, Fernando Oleaga herritar eta alkate ohiak bere burua eskaini zuen udalari dirua maileguan uzteko, eta dirua itzultzeko sei urteko epea ezarri zen¹⁰⁶¹.

Hala ere, beharrezko berritze lan horiek ez zioten konponbiderik ematen herriko haurren populazioaren hazkundearen ondoriozko arazo kezagarriari. 1930eko azaroaren amaieran, Sopelako Udalak Diputazio probintzialak hamar auzune eskola eraikitzea erabaki zuela jakin zuenean, Elizateari ikastetxe horietako bat eraikitze baimena emateko eskatu zuen, eta Larrabasterran eraiki zitekeela adierazi zuen, *“Arechavaleta’ izeneko puntuan, (Eskola) Nazionalatik 1.200 metro ingurura”*. Eskaera idazkian ez zen ezelango xehetasunik ezkutatu Lehen Hezkuntzak udalerrian zuen egoera latzari buruz: aurretik adierazitako *“herrian dauden eskolen eskasia”* aipatzen zen, izan ere, garai hartan 97 mutiko eta 100 neskato baitzeuden matrikulatuta. Halandaze, *“guztiz ezinezkoa zen haur kopuru hain handia”* behar den moduan artatu ahal izatea, *“horrek haurrei eta, ondorioz, euren gurasoei eragiten dien kaltearekin, gehienak pobreak baitira eta ez baitute baliabiderik euren seme-alabei Lehen Hezkuntza ez den bestelako heziketarik emateko; horregatik dago hainbeste analfabeto, eta herri zibilizatuen latsa eragiten*

1060 BFAH, SOPELANA 0040/002, Bidalitako korrespondentzia, 1929; *Sopelako alkateak Gobernadore Zibilari helarazitako ofizioa*, 1929-09-18; BFAH, SOPELANA 0034/005, Jasotako korrespondentzia, 1929 Gobernadore Zibilak *Sopelako alkateari helarazitako ofizioa*, 1929-09-16; eta *Gobernadore Zibilak agindutako zitazioak* 1929-09-20 eta 1929-09-23.

1061 SUA, 1929-1932ko Akta Liburua, 1930-06-25eko Ezohiko Bilkura.

du horrek". Sopelako Udalak "*bere betiko amesgaiztotzat*" jo zuen arazo hori, eta onartu zuen ezin zela udal eskola bat sortzeko aukera planteatu ere egin, bere aurrekontu txikiarekin "*gutziz ezinezkoa izango litzaiokeelako hura mantentzea*"¹⁰⁶².

Diputazioari auzo eskola bat esleitzeko eskatu eta egun batzuetara, *Gaceta de Madriden* Larrabasterrako behin-behineko Eskola Nazional Mistoia sortuko zela esan zuten, 1930eko azaroaren 13ko Errege Aginduaren bidez¹⁰⁶³. Udalak abenduaren 30ean egindako osoko bilkuran jorratu zuen albiste hori, inguruko Lehen Irakaskuntzako ikuskariak helarazitako ofizioaren bidez haren berri izan ondoren. Idazkiarekin batera, 1931ko otsailaren 3a baino lehen, eskola martxan hasi ahal izateko, udalak erosi behar zituen materialen zerrenda bat zegoen eta orduan alkate zen Antonio Arechavaletak aurreratu zuen horretarako dirua, Udalak geroago ordainduko ziona¹⁰⁶⁴.

1931ko apirilaren amaieran, Larrabasterrako Eskola Mistoaren sorrera oraindik izapidetzen ari zirela, alkateak garai hartan eskolan zegoen egoera azaldu zuen, eta zehaztu zuen udalerrian 6-14 urteko 135 mutiko eta adin tarte bereko 141 neskato zeudela. Berrito ere, zeuden eskolak nahikoa ez zirela adierazi zen, sexu bietako eskola bi, edo eskola misto bi sortzearen egokitasuna aipatuz: "*bata Moreaga auzoan, Artaza-Torre izeneko puntuan, eta bestea Ugeraga auzoan, Arechavaleta izenarekin ezagutzen den puntuan*". Lehen zinegotziak argitu zuen ikastetxe bi horiek sortzeak ez zuela bertan behera uzten udalak Larrabasterra auzorako eskatutako ikastetxea¹⁰⁶⁵.

1931ko maiatzaren 18an, Instrukzio Publikoko Ministerioak Larrabasterrako Eskola Nazional Mistoia behin betiko sortutzat jotzea erabaki zuen. Ekainaren erdialdera, María Segarra Aberasturi bitarteko irakasleak hartu zuen kargua, eta ikastetxea martxan jarri zen¹⁰⁶⁶. Segarra ez zen luze egon karguan, 1932ko otsailaren 26an kendu baitzuten kargutik, bere ordezkaria Concordia Moral Varga jarritz, zeina apirilaren 8an hasi baitzen lanean¹⁰⁶⁷.

Eskolak emateko aretoa jarri zen eraikina José Egusquiza Arechavaletaren jabetzakoa zen, zeinak sei hilabetez laga baitzuen lokala¹⁰⁶⁸, hautatutako espazioaren behin-behinekotasuna azpimarratuz; udala, bien bitartean, eskola bat eraikitzeko Estatuko dirulaguntza bat lortzeko izapideak egiten ari zen. Egusquizaren eraikinak ez zituen irakaskuntzaren funtzionamendu egokirako beharrezko baldintzak

1062 BFAH, SOPELA 0042/001, Bidalitako korrespondentzia, 1930; *Sopelako alkateak Bizkaiko Gobernadore Zibilarri helarazitako jakinarazpena*, 1930-11-29.

1063 *Gaceta de Madrid*, 337. zk., 1930-12-03.

1064 SUA, 1929-1932ko Osoko Bilkuraren Akta Liburua, 1930-12-30eko Bilkura Arrunta.

1065 BFAH, SOPELANA 0043/001, Bidalitako korrespondentzia, 1931, *Sopelako alkateak Bizkaiko Lehen Irakaskuntzako ordezkariari zuzendutako jakinarazpena*, 1931-04-30.

1066 *Gaceta de Madrid*, 14. zk., 1931-05-23; BFAH, SOPELANA 0035/002, Jasotako korrespondentzia, 1931, *Lehen Irakaskuntzako Administrazio Ataleko buruak Sopelako alkateari helarazitako ofizioa, non María Segarra bitarteko maistrak kargua noiz hartu zuen jakinarazteko eskatzen baitzen*, 1931-06-17; eta *El Pueblo Vasco* 1931-07-09.

1067 BFAH, SOPELANA 0078/002, Sopelako Udaleko Lehen Irakaskuntzako Tokiko Kontseiluaren aktak, 1932-1936 urteak, *Batzarraren akta*, 1932-06-23.

1068 SUA, 1932-1934ko Osoko Bilkuraren Akta Liburua, 1933-09-23ko Bilkura Arrunta.

betetzen, Lehen Irakaskuntzako Tokiko Kontseiluan gutxienez hiru bidez salatu zen lez. Eraikin hartan zegoen ere irin errota motordun bat, zeinaren zaratak eragotzi egiten baitzuen irakasleen lana eta, horrez gain, arriskutsua baitzen haurrentzat, “*deskuidu txikienarekin ere*” istripu bat izan baitzezaketen. Horrez gain, 1933ko ekainean egindako ikuskapenean egiaztatu zen moduan, eraikinaren beheko solairua ukuilu gisa erabiltzen zen eta “*darion kiratsaz gain, behien marruek eragiten duten zaratagatik zaila da eskolako lanak egitea*”. Hori gutxi balitz, eskolako atearen ondoan “*substantzia ustelduez ondo hornitutako simaurtegi bat*” zegoen. Lehen Hezkuntzako ikuskariak, egoera larri hura ikusita, udalari agindu zion simaurtegia “*atoan*” desagerrarazteko eta “*presa osoz*” ekiteko Eskolen eraikuntzari. Egia esan, aipatutako simaur tontor hura gutxienez urte hartako otsailaren erdialdetik zegoen leku hartan, eta data horretan iragarri zitzaion jabeari handik kendu behar zuela. Ikusi dugunez, eskaera horrek ez zuen aurrera egin, eta ez zuen eraginik izan ere ikuskariaren aginduak, 1933ko irailaren erdialdean, salatu egin baitzen “*Larrabasterrako eskolako atearen ondoan dagoen simaurra oraindik kendu barik dagoela*”¹⁰⁶⁹.

Udalak Larrabasterrako eskolak eraikitzeke dirulaguntza lortzeko gestioek 1933ko otsailaren 6an eman zuten fruitua. Egun horretan, Instrukzio Publikoko Ministerioak eskatutako dirulaguntza eman zion, baina erabaki hori ez zen argitaratu martxoaren 1ean *Instrukzio Publiko eta Arte Ederretako Ministerioaren Aldizkarian* argitaratu zen arte¹⁰⁷⁰.

Erabakia hartu bazen ere, proiektua gauzatzeko bidea luzea eta bihurria izan zen. 1933ko maiatzaren 20an, Sopelako Udalak Batzorde bat eratu zuen, “*Antonio Arechavaleta Urrechaga jaunarekin biltzeko (...), Larrabasterra auzoan eraiki gura den eskola multzoari dagokion gaiaren alderdi ekonomikoa (sic) aztertzeko*”. Aurreko orrialdeetan azaldu dugunez, Batzorde hori osatzeak polemika handia sortu zuen udaleko gehiengo nazionalistaren eta gutxiengo errepublikanoaren artean, Francisco Galbarriartu zinegotzi errepublikanoak ordezkari zela horretan parte hartzeari uko egin ziolako, “*azaltzea ez dagokion arrazoiak direla-eta*”¹⁰⁷¹.

Beste zinegotzi ordezkari biak Arechavaletarekin bildu ziren, zeinak adierazi baitzuen udalak enkantera atera zitzaizkela lanak, “*ez baita (sic) dirurik faltako*”. Hala ere, alkateak gainerako zinegotzietan ohartarazi zenez, proiektuaren zenbateko handia kontuan hartuta (56.503,85 pezeta) beharrezkoa zen “*aitorpen zehatz eta argi bat*” egitea, Arechavaletak mailegua emateko jarritako baldintzak finkatzeko. Zinegotzi gehienak alkatearen adierazpenarekin ados agertu ziren, Francisco Ondiz zinegotzia izan ezik, zeinak proposatu baitzuen “*aipatu lanak gauzatzea*”, proposatutako dokumentua egin barik¹⁰⁷².

1069 BFAH, SOPELANA 0078/002, Sopelako Udaleko Lehen Irakaskuntzako Tokiko Kontseiluaren aktak, 1932-1936 urteak, 1932-10-24ko Ohiko Batzarraren akta, 1933-02-16ko *Bilkuraren akta*, 1933-06-17ko *Ezohiko Batzarraren akta*; eta 1933-09-16ko *Ohiko Batzarraren akta*.

1070 REKALDE RODRÍGUEZ, Itziar: “*La construcción de escuelas en el País Vasco durante la II República (1931-1936)*” *Aula* 11, 1999, Salamanca, 115-174 or., (aipua: 168 eta 171 or.).

1071 SUA, 1932-1934ko Osoko Bilkuraren Akta Liburua, 1933-05-20ko eta 1933-05-27ko Bilkura Arrunta.

1072 SUA, 1932-1934ko Osoko Bilkuraren Akta Liburua, 1931-05-27ko Bilkura Arrunta.

Udal gobernu taldearen erabakia gorabehera, prozesua geratu egin zen. Uztailaren hasieran, udalak onartu egin zuen proiektuaren alderdi ekonomikoa konpontzeko egindako gestioek ez zutela espero zen emaitza izan, baina “*zinegotzi jaunen borondate onari*” *dei eginez, itxaropentsu agertu zen ezusteko hori “gehiegi luzatu barik”* konpontzeari zegokionez. Hilaren amaieran, Ciriaco Echaiz zinegotziak berriro jarri zuen gaia mahai gainean, eta adierazi zuen udalak “*erabakiren bat hartu behar zuela*” proiektua zegoen atakatik ateratzeko. Zinegotzi errepublikanoak jakin bazekien udalerrria egoera zaila bizitzen ari zela krisialdi ekonomikoaren ondorioz, baina adierazi zuen gaiaren inguruko “*egungo ziurgabetasuna*” ezin zela “*gehiegi luzatu*” eta gestio berriak egin behar zirela. Echaizen planteamenduari jarraikiz, udalbatzak Batzorde berri bat izendatu zuen Antonio Arechavaletarekin berriro biltzeko, obrak egin ahal izateko udalari mailegua emateko prest zegoen ala ez argitzeko, eta finantzaketa zein baldintzatan gauzatuko zen argitzeko¹⁰⁷³.

Ongilearekin izandako bilera oso positiboa izan zen, izan ere, baieztatu zuen obrak gauzatzeko “*udalari era guztietako erraztasunak*” emango zizkiola, eta “*beharrezkoa den kopurua mailegu gisa*” jarriko zuela. Gainera, krisi ekonomikoa kontuan hartuz, Arechavaletak maileguaren lehen hiru urteetan ezelango interesik ez kobratzeko konpromisoa hartu zuen. Udalak “*onargarrizat*” jo zuen eskaintza eta hiru zinegotziri eskatu zien jesapenaren baldintzak jasoko zituen dokumentua idazteko, alde bik sinatu ahal izan zezaten, eta zegokion espedientea ireki zuen. Arechavaletaren konpromisoa sendotu egin zen abuztuaren erdialdean, udalari bidali zion idazki baten bidez, non adierazten zuen maileguaren zenbatekoa 30.000 pezetakoa izango zela eta itzultzeko 35 urteko epea eskainiko zuela. Eskaintza hori ikusita, gobernu taldeak “*guztiak horren berri izan dezaten*” argitaratzea erabaki zuen, eta ediktua *Probintziako Aldizkari Ofizialean* sartu zuen¹⁰⁷⁴.

Hala ere, herriko nazionalismoak Arechavaletarekin zituen harremani heldu diegunean kontatu dugun lez, irailaren 24an prozesu hori guztia hankaz gora jarri zen Sopolako EAJren Zuzendaritza Batzordeak *Euzkadi* berripaperean artikulua bat argitaratu zuenean, non udalak Arechavaleta buru zela egindako jarduketak batzuk aipatzen zituen. Ongileak, nabarmenki haserre, udalari jakinarazi zion bertan behera uzten zuela emango zuela agindutako mailegua, baita eskolak eraiki behar ziren lursailaren dohaintza ere¹⁰⁷⁵.

Arechavaletaren erabakia kolpe latza izan zen udalaren planentzat, ez baitzuen nahikoa diru obra horiek bere gain hartzeko. Egoera hain txar hori ikusita, udalbatzak, gutun baten bidez, ongileari adierazi zion erabat gaitzesten zuela egunkari nazionalistan argitaratutako testua, eta zehaztu zuen udaleko zinegotzi bakar batek ere ez zuela parte hartu hura egiten. Zinegotzien helburua oso argia zen: Arechavaletak iritzia aldatzea eta erabakian atzera egitea lortzea. Bestalde, Sopolako EAJk jendaurreko barkamena eskatu zion *Euzkadi* berripaperean eta argi

1073 SUA, 1932-1934ko Osoko Bilkuraren Akta Liburua, 1933-07-08ko eta 1933-07-29ko Bilkura Arrunta.

1074 SUA, 1932-1934ko Osoko Bilkuraren Akta Liburua, 1933-08-05eko eta 1933-08-19ko Bilkura Arrunta.

1075 *Euzkadi* 1933-09-24; eta SUA, 1932-1934ko Osoko Bilkuren Akta Liburua, 1933-09-30eko *Bilkura Arrunta*, 1933-10-03ko *Ezohiko Bilkura*.

utzi zuen irailaren 24an argitaratutako artikuluan, ez zirela ari, “ezelan ere”, alkate ohiari buruz, nahiz eta, esan lez, testu hark aipamen argiak zituen Arechavaleta udalaren buru zenean hartutako erabakiei buruz¹⁰⁷⁶.

Bi mugimendu horiek ez zuten ezertarako balio izan. Urriaren hasieran bidalitako gutunak erantzunik jaso ez zuenez, udalbatzak Arechavaletarekin biltzeko eskatu zien zinegotzi biri, eskolen gaia bideratzen saiatzeko, eta honek itxuraz “jarrera ona” agertu bazuen ere, erantzun barik jarraitu zuen. Zinegotzien ezinegona handituz joan zen eta, azaroaren erdialdean, Arechavaletari eskatu zioten obretarako 30.000 pezetako mailegua egingo zuen ala ez jakinarazteko, eta ohartarazi zioten erantzuna ezezkoa balitz bide judizialera joko zutela “hartutako konpromisoa betetzera behartzeko”¹⁰⁷⁷.

Aurretik ikusi dugun lez, ultimatum horrek are gehiago indartu zuen Arechavaletak hartutako erabakia, eta oso modu zorrotzean esan zuen bera ez zegoela “maileguaren eskaintza betetzera behartuta”, izan ere, “udal horrek ez baitu aurretik onartu eta gaur egun ere ezin delako onartu”. Udalak, Sopelako irakaskuntzaren etorkizuna egoera hain zailean geratzen zelako atsekabetuta, Tomas Eguidazu letraduaren esku utzi zuen auzia, zeina Arechavaletarekin bitartekari lanak egiten saiatu baitzen, arrakastarik barik. Aukera horrek porrot egin ondoren, abokatuak bide judiziala baztertu egin zuen, udala galtzen aterako zelako, ez baitzegoen eskritura publikorik eskola berria eraikitzeko lursailaren dohaintza formalizatzen. Baldintza hori barik, agindutako mailegua ere baliogabea zen¹⁰⁷⁸.

Aipatu dugun lez, 1934ko otsailean Santos Samper, inguruko Lehen Irakaskuntzako ikuskaria, agertu zen; bera ere Arechavaletak bere iritzia aldatu eta mailegua eman zezan saiatu zen, baina bere gestioak alferrikakoak izan ziren¹⁰⁷⁹. Puntu horretatik aurrera, Larrabasterra auzorako eskola berriaren gaia gelditu egin zela dirudi, eta behin-behineko eskolak José Egusquizen eraikinean jarraitu zuen. 1933ko irailaren erdialdean, Egusquizak udalari gogorarazi zion bere garaian sei hilabeterako laga zuela espazio hura. Ordutik igarotako denbora ikusita, Egusquizak udalaren aldetik ordain bat jasotzeko eskubidea aldarrikatu zuen, eta hilabete horretatik aurrera lokala okupatzeagatik hilean 75 pezeta ordaintzeko eskatu zuen. Une horietan, udal gobernu taldearen aurreikuspenen arabera, eskola eraikin berriaren obrak 1934ko udaberrirako amaituta egongo ziren eta, halandaze, zentzuzkoa iruditu zitzaion eraikinaren jabeak hilero 50 pezeta jasotzea alokairu gisa¹⁰⁸⁰. Akordio hori hartu eta egun gutxira, aipatu gatazka piztu zen Arechavaletarekin, eta handik hilabete gutxira eskola amaituta egotearen ideia desagertu egin zen.

1076 BFAH, SOPELANA 0042/002, Bidalitako korrespondentzia, 1933, *Sopelako alkateak Antonio Arechavaletari zuzendutako jakinarazpena*, 1933-10-04; eta *Euzkadi*, 1933-10-04.

1077 SUA, 1932-1934ko Osoko Bilkuraren Akta Liburua, 1933-10-21eko eta 1933-10-28ko eta 1933-11-11ko *Bilkura Arrunta*.

1078 SUA, 1932-1934ko Osoko Bilkuraren Akta Liburua, 1933-12-02ko eta 1933-12-23ko *Bilkura Arrunta*.

1079 SUA, 1932-1934ko Osoko Bilkuraren Akta Liburua, 1934-02-10eko eta 1934-02-17ko *Bilkura Arrunta*.

1080 SUA, 1932-1934ko Osoko Bilkuraren Akta Liburua, 1933-09-23ko *Bilkura Arrunta*.

Samperrek 1934ko otsailean egindako gestioen ondoren, dirudienez, udalak proiektua baztertu egin zuen, ziurrenik Ardoaren Estatutuaren gatazkaren ondoriozko inguruabar politikoei behartuta. Urte horretako azaroan udalaren agintea bereganatu zuen Kudeaketa Batzordeak hilabete horren erdialdean heldu zion berriro gaiari, eta Juan de la Quintana zinegotziari eskatu zion Antonio Arechavaletarekin biltzeko. Bilera horren emaitza ez zen guztiz pozgarria izan, ongileak eutsi egin baitzion “*udalarekin ezelango mailegurik ez egiteko*” erabakiari. Aldiz, Arechavaletak baieztatu zuen “*eskola multzoa (...) eraikitzeke lursaila eskuratzeko erraztasunak emango zituela*”¹⁰⁸¹.

Egun horietan, Isidoro Zamacona zinegotziak egoera azaldu zion Antonio Uriarte getxoztarrari, Sopelako hainbat higiezin eta lurren jabeari; hura prest agertu zen udalari beharrezko lursaila eskuratzeko eta eskola azpiegitura behar bezala eraikitzeke bere laguntza ekonomikoa emateko. Horrela, bide berri bat zabaldu zen hainbeste denboraz amestutako proiektu hura gauzatzeko; handik gutxira berriro elkartu ziren Zamacona zinegotzia aipatu Uriarterekin eta haren izeba Rufina Uriarterekin¹⁰⁸².

Elkarrizketa horiek fruitua eman zuten, eta 1935eko otsailaren erdialdean, udalak onartu egin zuen Uriarterek egindako proposamena. Haren arabera, udalak 25.000 oin karratuko lursail bat erosiko ziola hitzartu zen, garai hartan pinudi batek betetako “*Unamuzaga’ eta ‘Ibarra’ (...) auzo bidearen ekialdeko aldean*” zegoena. Lursailarentzat ezarritako prezioa 5.000 pezetakoa izan zen, eta bost urteko epea ezarri zen udalak ordainketa egiteko. Bestalde, Rufinak eta Antonio Uriartek 10.000 pezetako mailegua eman zioten udalari obrak egiteko, zeinak hamar urteko epean itzuli beharko baitzuen¹⁰⁸³.

Udal akordio horrekin eman zitzaion hasiera 1932ko abuztuan Antonio de Araluce arkitekto getxoztarrak diseinatutako eraikinaren eraikuntzari. *La Gaceta del Norte* 1935ean zehar argitaratutako kronikei esker, nahiko zehaztasun handiz ezagutzen dugu Larrabasterrako eskolaren eraikuntza prozesua. Martxoaren amaieran, Bilboko egunkarian jakinarazi zuten udalean “*hainbat obra kontratista*” zeudela, “*euren aurrekontuak egiteko oharrak hartzen eta eskola multzoaren planoak aztertzen*”, eta “*enkantea edo baldintza agirien irekiera*” apirilaren 2an egingo zela ziurtatzen zuten¹⁰⁸⁴.

Lehenengo harria maiatzaren 4an jarri zen, Bizkaiko Gobernadore Zibila bertan zela, baina ekitaldi ofiziala laburtu egin behar izan zuten, “*derrigorrezko berbaldiak alde batera utzita, etengabeko euria zela eta*”. Herriko agintariek, eskolako haurrek eta irakasleek osatutako segizioa Antonio Arechavaletaren txaletera joan zen, eta

1081 SUA, 1932-1934ko Osoko Bilkuraren Akta Liburua, 1934-11-17ko Bilkura Arrunta.

1082 Ibid.

1083 BFAH, SOPELANA 0071/003, *Sopelako Udalak izapidetutako espedientea, Larrabasterra auzoan mutilentzako eta neskentzako eskola unitario banarentzako eraikin bat eraikitzeke (1929-1943), 1935-05-11ko ziurtagiria*, udalak 1935-02-19an egindako bilkuran hartutako erabakiak jasotzen dituen.

1084 *La Gaceta del Norte* 1935-03-30.

bertan te bat eman zieten; haurrek, berriz, askari bat jaso zuten. Bitxia bada ere, *La Gaceta del Norte* egunkarian argitaratutako kronikan ez ziren lehen aipatutako Uriartetarrak agertzen, bai ordea, Arechavaleta, eta azpimarratzen zen “*gizon ona, prestua eta zintzoa zela, ongia ereiten gozatzen duena eta herriak aurrera egin dezan ahal duen neurrian laguntzen duena*”¹⁰⁸⁵. Iruzkina hain positibo horiek, ziurrenik, ongileak proiektu horretan neurri handiagoan edo txikiagoan parte hartu izanari zor zaizkio. Isidoro Zamacona suhia udaleko Kudeaketa Batzordean zinegotzi gisa egoteak lankidetzara egingarri hori erraztu zuen ziurrenik.

Irailaren erdialdean, lanak “*oso aurreratuta*” zeuden, eraikinaren teilatua jarrita zegoen eta. Gertaera hori “*udaleko kideak, kontratistak eta beharginak*” bildu zituen bazkari batekin ospatu zen¹⁰⁸⁶. Eskolak azaroaren 20an hartu ziren behin-behinean, eta 1936ko urtarrilaren 20an behin betiko. Hala ere, martxoaren hasieran, Larrabasterrako ikastetxe berria ez zen oraindik martxan jarri, egiteke baitzegoen izapide hori baimendu behar zuen ikuskaritzaren bisita. Horrek esan gura zuen eskolak behin-behineko eskolan ematen jarraitu behar zutela, baldintzak kaskarrak izan arren. Hori gutxi balitz, Estatuak 20.000 pezetako dirulaguntza oraindik eman ez zuenez, udalak Instrukzio Publikoko ministroari idaztea erabaki zuen, gorabehera horiei irtenbidea aurkitzeko. Gai horretan bitartekari izan zen Indalecio Prieto, Gorteetan Bilboko diputatua zena, zeinak gutun bat bidali baitzion Sopelako alkatezari apirilaren 26ko datarekin, Errepublikako Gobernuak egindako gestioen berri emateko. Sopelako Udalak aktan jaso zuen Prietok “*herri txiki honen interesen alde erakutsitako aparteko interesagatiko esker on sakona, eta ez dugu ahaztuko gai hori lehenbailehen ebazteko egin duen esku hartze baliotsu eta ezin estimatuzkoa*”. Horrez gain, udalbatzak “*arren*” eskatu zion diputatu sozialistari Estatuaren laguntzako 20.000 pezetak “*ahalik eta azkarren*” ordaintzeko bitarteko izan zedin, “*bere influentzia paregabearekin*”, udalerrinari kalteak eragozteko. Azkenik, ekainaren 27an, Sopelako Udalak hainbeste itxarondako dirulaguntza jaso zuen¹⁰⁸⁷.

Hogeita hamarreko hamarkadan herrian irakasle zirenei dagokienez, lehen ere aipatu dugu Concordia Moral, Larrabasterrako eskola mistoko maistra. Sopelako Eskola Nazional izenekoetan, Ambrosio Apellaniz Sáez zen haurren atalaren buru, eta 1922ko abuztuaren 21etik bete zuen kargu hori, Pablo Álvarez de Eulate aurreko maisua ordezkatu zuenean; azken horrek egun gutxi batzuk lehenago utzi zuen kargua, 70 urte bete eta erretiroa hartu zuenean, herrian 17 urtez irakasle gisa jardun ondoren¹⁰⁸⁸. Nesken heziketaren arduraduna Efigenia Pascual Calvo maistra zen, 1924ko martxoaren 20an kargua hartu, eta bere aurrekoa zen Elvira Rojí Miranda ordezkatu zuena. Pascual herrira iritsi zen egunaren berri eman zen

1085 *La Gaceta del Norte* 1935-05-07.

1086 *La Gaceta del Norte* 1935-09-19.

1087 BFAH, SOPELANA 0044/003, Bidalitako korrespondentzia, 1936, *Sopelako alkateak Instrukzio Publikoko eta Arte Ederretako ministroari helarazitako jakinarazpena*, 1936-03-09, *Sopelako alkateak Indalecio Prieto diputatuari helarazitako jakinarazpena*, 1936-05-07; eta *Sopelako alkateak Bizkaiko Gobernadore Zibilarari helarazitako jakinarazpena*, 1936-07-09.

1088 BFAH, SOPELANA 0086/006, *Sopelako Eskola Publikoko azterketa publiko orokorren akta liburua*, 1877-1929, 1922-08-21eko bilkuren akta; eta SUA, *Akordioaren liburua* 1921-1924, 1922-08-27ko eta 1922-09-24ko Bilkura Arrunta.

El Pueblo Vasco egunkarian argitaratutako kronika batean, eta bertan zehaztu zuten irakasleari harrera egin ziotela “*tokiko agintariek, eta neskato guztiek eta herritar gehienek txalotu egin zutela*”¹⁰⁸⁹.

Irakaskuntzak Errepublikaren garaian Elizatean zuen egoerari dagokionez, haren garapen onari eragiten zioten arazo nagusiak eskoletako matrikula kopuru handiegia eta huts egiteak ziren. 1933ko ekainaren erdialdean, inguruko ikuskariak eskoletako instalazioak bisitatu zituen eta, ikusi zuenez, Sopelako Mutilen Eskolan 87 ikasle zeudela matrikulatuta, Neskatoen Eskolan 71 ikasle zeuden erregistratuta, eta Larrabasterra auzoko Eskola Mistoan, ostera, sexu bietako 70 ikasle zeuden matrikulatuta. Horren kopuru handiak ikusita, ikuskariak agindu zuen ikastetxe bakoitzak gehienez 60 ikasle har zitzakeela, horrek adingabe askoren hezkuntza artatu barik geratzea esan gura zuen arren. Gabezia horri konponbide bat emateko, erabaki zen, matrikula bete ondoren, “*matrikulatu gura diren horiekin (...) zerrenda bat*” egitea, “*adinagatik, lekualdatzeagatik eta abarregatik, eta ez etortzeagatik bete barik geratzen diren lekuak betetzeko*”¹⁰⁹⁰.

Haurrak eskoletara ez joatea eragiten zuten arrazoiak faktore birekin lotuta zeuden zehazki: hurrek baserriko zereginetan parte hartu behar izatea, batez ere uza ereiteko eta biltzeko garaietan; eta, bestetik, eguraldi txarra. Bertaratzea sustatzeko, ikuskariak alkatetzari aholkatu zion “*bando bat*” argitaratzeko “*gurasoei gogoraraziz seme-alabak eskolara bidali behar zituztela*”. Eskolako absentismoari aurre egiteko, Lehen Irakaskuntzako Tokiko Kontseiluari agindu zioten “*hilabeteko huts egite kopuru bat*” finkatzeko, “*bertaratzen ez diren haurren kanporaketa ezartzeko*”. Kanporaketa ez zen lehenengo hilabete horretan jazoko; aitzitik, adingabearen aitari deituko zioten, “*haurra eskolara bidaltzeko duen betebeharrak konbentzitzeko eta, berriro betetzen ez badu, haurra kanporatu beharko dutela jakinarazteko*”. Hori jazoko balitz, haurrari baja eman eta zerrendan agertzen den lehenengo haurra onartuko lukete. Agindutakoa betez, Tokiko Kontseiluak hilean gehienez 6 bider huts egin zezaketela ezarri zuen. Dirudienez, neurri hori ezartzeak ez zuen egoera konpondu; izan ere, 1936ko maiatzean, maisu-maistrek “*oso irregularizat*” jo zuten ikasleen bertaratzea¹⁰⁹¹.

1933ko ekainaren erdialdean eskoletara egindako bisitaldian, irakasleen lana “*onargarriztat*” jo zen, eta maisu-maistrek “*arduraz eta gogotsu*” lan egiten zutela adierazi zen. Lanerako gogo hori gorabehera, irakasleek ez zuten lortzen “*gura zuten fruitua*”, huts egiteak zirela-eta, baita “*hizkuntzarekin lotutako zailtasunengatik*”¹⁰⁹² ere, ikasle gehienak euskaldunak zirelako eta gaztelaniaz eskolatu behar zituztelako. Faktore horrek zaildu egiten zuen haurren ikaskuntza.

1089 BFAH, SOPELANA 0086/006, *Sopelako Eskola Publikoko azterketa publiko orokorren akta liburua*, 1877-1929, 1924-03-20ko bilkuraren akta eta *El Pueblo Vasco* 1924-03-22.

1090 BFAH, SOPELANA 0078/002, *Sopelako Udaleko Lehen Irakaskuntzako Tokiko Kontseiluaren aktak*, 1932-1936 urteak, Ezohiko Batzarraren akta, 1933-06-17.

1091 BFAH, SOPELANA 0078/002, *Sopelako Udaleko Lehen Irakaskuntzako Tokiko Kontseiluaren aktak*, 1932-1936 urteak, 1933-06-17ko Ezohiko Batzarraren akta, 1933-07-10eko Ohiko Batzarraren akta; eta 1936-05-06ko Ohiko Batzarraren akta.

1092 BFAH, SOPELANA 0078/002, *Sopelako Udaleko Lehen Irakaskuntzako Tokiko Kontseiluaren aktak*, 1932-1936 urteak, Ezohiko Batzarraren akta, 1933-06-17.

Garai hartan, irakasle guztiek egindako lanak Sopelako agintarien zein gurasoen onespén orokorra zuela zirudien, ez baitago ezelango protestarik herriko eskoletan emandako irakaskuntzari buruz. Aldiz, aho bateko balorazio on hori 1934ko uztailetik aurrera pitzatzen hasi zen, Larrabasterrako maistra Concordia Moralek auzo hartako eskolan herriko *“gurasoak ez dituzten haurrak (...)”* onartzea erabaki zuelako. Moralen erabaki horrek auzo hartan bizi ziren ikasleak kaltetzen zituen, ikastetxeak leku kopuru mugatua zuelako. Hori dela eta, Lehen Irakaskuntzako Tokiko Kontseiluak, irakasleak emandako urratsaren berri izan zuenean, aurrerantzean Larrabasterran bizi ez ziren ikasleak ez onartzeko agindu zion¹⁰⁹³.

Bigarren Errepublikaren garaian Elizatean egondako gatazkak jorratu ditugunean ikusi dugun lez, 1936ko apirilean Concordia Moralen egoera zaildu egin zen, ikasleen guraso batzuek Sopelako Udalari idazki bat bidali baitzioten; hartan adierazten zuten irakasleak ez zuela eskolen ordutegia betetzen, eta salatzen zuten *“etxeko lanak egitera”* joaten zela, *“gogoak ematen dihonean”* itzultzeko. Bertan ematen zen irakaskuntzari dagokionez, nahiko eskasa zela dirudi, gurasoek adierazi zutenez, *“beste herri batzuetatik etorritako hainbat ikasle zeuden, eta eskola horretara irakurtzen zekitela iritsi arren, gaur egun, silabaz silaba modu kaskarrean ahoskatzen besterik ez dakite”*, izan ere, *“irakurtzen irakatsi beharrean, umeek, horretarako adinik ez dutelako, jakin behar ez dituzten gauzak irakasten ari da, abortuei eta erditzei buruz berba egiten baitie, eta gurasoei ez zaigu hori gustatzen”*. Hori gutxi balitz, irakaskuntzan laizismoa nagusi izan behar bazen ere, Larrabasterrako Eskolan bazegoen *“irudi bat, eta haurrei haren aurrean belaunikatzera eta eskola orduetan haren aurrean otoitz egitera behartzen dituzte”*. Egoera horren aurrean, salaketa egin zuten gurasoek Concordia Moral *“atoan eta bat-batean kanporatzeko”* eskatu zuten, *“ezinezkoa delako jokabide horiek onartzea”*¹⁰⁹⁴. Aurretik azaldu lez, auzi honen ebazpena Gerra Zibilaren erdian jazo zen, eta maistra kargutik kendu zuten.

Azkenik, adierazi behar da 5 eta 14 urte bitarteko eskolatze aldia amaitu ondoren, helduentzako eskolen bidez alfabetatzeko aukera zegoela (gaueko eskolak ere esaten zitzaien). Eskola horiek herriko eskoletan bertan ematen ziren, Estatuak emandako dirulaguntzari esker. 1934ko abenduan, Ambrosio Apellaniz maisua eta Concordia Moral maistra arduratzen ziren irakaskuntza horretaz. Estatuaren laguntzak ez zuen gehiagorako ematen eta, halandaze, inguruko ikuskariak Efigenia Pascual irakasleari adierazi zion askatasun osoa zuela izena eman zuten 48 ikasleei gaueko eskolak ematen jarraitu ala ez erabakitzeko. Pascualek irakaskuntza horrekin musu truk jarraitzea erabaki zuen. Jokabide eskuzabal hori

1093 BFAH, SOPELANA 0078/002, *Sopelako Udaleko Lehen Irakaskuntzako Tokiko Kontseiluaren aktak*, 1932-1936 urteak, 1934-07-10eko Ohiko Batzarraren akta.

1094 BFAH, SOPELANA 0072/020, *Sopelako Udalak Larrabasterra auzoko eskolako haurren gurasoek eskolako maistraren aurka jarritako salaketa baten ondorioz izapidetutako espedientea*, 1936-04-09.

udaleko Kudeaketa Batzordeak aintzat hartu zuen, eta biziki eskertu zuen maistrak hartutako erabakia. Hori dela eta, inguruko Lehen Irakaskuntzako Ikuskariari eskatu zioten bere nagusiari “*ekintza hain altruista eta eskuzabal*” horren berri emateko, irakaslearen espedientean ager zedin¹⁰⁹⁵.

Efigenia Pascualen erabakian, pisu handia izan zuen bere ikasle helduen erabakitasunak, Estatuaren dirulaguntzak hartzen zituzten eskolak estaltzen ez zituela jakin zutenean, “*euren gurasoekin udalera joatea erabaki baitzuten*”, euren prestakuntzak jarrai zezan eskatzeko. Pascualek hori gertatzea saihestu zuen, bere ikasleei agindu baitzien ikasturte osoan jarraituko zuela eskolak ematen. Irakasleak berak, 1935eko martxoaren erdialdean udalari aurkeztu zion instantzia batean, lan horrek zuen garrantzia azpimarratu zuen: “*Irakurtzen eta kontatzen ikasi duten heldu analfabetoen izenak aipa ditzaket, baita beren prestakuntza nabarmen hobetu duten beste batzuenak ere, baina idazki hau ez luzatzearren, ez dut halakorik egingo*”. Sopelako Udalari aurkeztutako idazkiaren helburu nagusia 300 pezetako haborokin bat eskatzea izan zen, ohiko “*materialak eta soldatak*” kontuan hartuta, “*Sopelako herri saiatu honetako biztanleen alde kulturaren eta heziketaren kausari bost hilabetez eskaini dizkiodan zerbitzuengatik*”. Udalak kontuan hartu zuen irakasleak adierazitakoa eta, Estatuaren ezelango dirulaguntzarik ez zegoela kontuan hartuz, eskola materialean inbertitutako 58,05 pezetak eta kontsumitutako argindarra baloratuz, Pascuali 175 pezetako haborokina ematea erabaki zuen, “*etorkizunerako aurrekaririk ezarri barik, udal altxorraren egoera estua dela eta*”¹⁰⁹⁶.


Garai horretan Sopelan zegoen analfabetismoaren gutxi gorabeherako argazki bat izateko, 1932ko eta 1934ko Hauteskunde Erroldetan jasotako datuetara jo behar dugu, eta horretarako informazioa grafiko batzuetan islatuko dugu. Horietan, sexu bietako alfabetatuen eta analfabetoen kopuru osoa jasotzen da, baita adin tarteen araberrako banaketa ere. Horri dagokionez, gogoratu beharra dago 23 urtetik gorako emakumeek eta gizonek zutela bozkatzeko eskubidea Bildutako datuak aztertuta, zenbait ondorio atera ditzakegu:

- Analfabetismoak gehiago eragiten zien emakumeei gizonei baino, kontuan hartzen badugu, bai 1932an, bai 1934an boto eskubidea zuten emakumeen % 30ek gutxi gorabehera ez zekiela, ez irakurtzen, ez idazten. Gizonezko boto emailen artean, aldiz, % 12 inguru ziren analfabetoak.
- 20 eta 29 urte bitarteko adin tartean irakurtzen eta idazten ez zekiten sexu bietako boto emailen kopurua txikiagoa zen, halandaze, badirudi belaunaldi hartan analfabetismoa nabarmen murriztu zela.
- 30 eta 80 urte bitarteko emakume analfabeto gehiago egotea, adin tarte berean alfabetatu bako gizonen kopuruen aldean, gurasoen zati handi batek izandako jarreraren isla litzateke, tradizioz lehenasun handiago eman izan baitzaio gizonen prestakuntzari alabenari baino.


1095 BFAH, SOPELANA 0078/002, *Sopelako Udaleko Lehen Irakaskuntzako Tokiko Kontseiluaren aktak, 1932-1936 urteak*, 1934-12-15eko Batzar Arruntaren akta; eta BFAH, SOPELANA 0042/003, Bidalitako korrespondentzia, 1934, *Sopelako alkateak Efigenia Pascual Calvo maistrari helarazitako jakinarazpena*, 1934-12-24.

1096 BFAH, SOPELANA 0037/002, Jasotako korrespondentzia, 1935, *Efigenia Pascual Calvo maistrak Sopelako Udalari aurkeztutako instantzia*, 1935-03-14; eta BFAH, SOPELANA 0042/004, Bidalitako korrespondentzia, 1935, *Sopelako alkateak Efigenia Pascual Calvo maistrari helarazitako jakinarazpena*, 1935-05-15.


EMAKUMEEN ALFABETATZEAREN EGOERA (SOPELAKO HAUTESKUNDE ERROLDA, 1932)




EMAKUMEEN ANALFABETISMOA ADIN TARTEAREN ARABERA (1932KO HAUTESKUNDE ERROLDA - SOPELA)




GIZONEN ALFABETATZEAREN EGOERA (SOPELAKO HAUTESKUNDE ERROLDA, 1932)




GIZONEN ANALFETISMOA ADIN TARTEAREN ARABERA (1932KO HAUTESKUNDE ERROLDA, SOPELA)




EMAKUMEEN ALFABETATZEAREN EGOERA (SOPELAKO HAUTESKUNDE ERROLDA, 1934)




EMAKUMEEN ANALFETISMOA ADIN TARTEAREN ARABERA (1934KO HAUTESKUNDE ERROLDA - SOPELA)



GIZONEN ALFABETATZEAREN EGOERA (SOPELAKO HAUTESKUNDE ERROLDA, 1934)



GIZONEN ANALFABETISMOA ADIN TARTEAREN ARABERA (1934KO HAUTESKUNDE ERROLDA. SOPELA)



2.5.4. Euskara Sopelan Errepublikaren garaian

Euskarak Sopelan Bigarren Errepublikaren garaian izandako egoera jorratzeko, Errestaurazioaren garaia aztertzean azaldu genuen problematika bera dugu: ez dugu behar adina daturik Elizatean Errepublikaren garaian zegoen errealitate linguistikoari buruzko argazki ahalik eta zehatzena egiteko.

Azaldu lez, badirudi XX. mendearen lehen hamarkada bietan gaztelaniaren erabilerak gora egin zuela herrian, baina ezin dugu zehaztu zein neurritan. Adibide gisa, aipatzen dugu 1918an, Juan Ignacio Goirik, San Pedro elizako apaiz ekonomoak, aurreko hamar urteetan homilia euskara hutsean predikatu zela adierazi zuela. Hala ere, urte batzuk geroago, 1924ko martxoan, Pedro Ellauri parrokiako apaiz lagunkideak, beste udalerrri batera joan behar zuela eta, gaztelania eta euskara erabili zituen eliztarrei agur esateko.

Hainbat faktorek bultzatu zuten gaztelaniak herrian presentzia handiagoa izatea: Sopelan udako kolonia egonkor bat eratzeak (eremu erdaldunetatik zetorren, halan zelan Bilbotik eta Estatuko hainbat lekutatik), Bilboko itsasadarraren inguruan hiri eta industria eremuarekin harreman sozioekonomikoak areagotzeak, edo lehen hezkuntzan gaztelania erabiltzeak komunikazio hizkuntza gisa. Azken horri dagokionez, aurreko orrialdeetan Elizateko eskola hezkuntzaren garapenari heldu diogunean adierazi dugun moduan, eskolak emateko orduan gaztelania bakarrik erabiltzea oztupo larria zen eskolako ikasleentzat, ziur asko, gehienak euskaldunak zirelako. Horrela adierazi zen 1933ko ekainean egindako Eskolen ikuskapenean, non, irakasleek ahalegin handiak egin arren, ez zuten lortzen *“gura zuten fruitua”*, besteak beste, *“hizkuntzarekin lotutako zailtasunengatik”*¹⁰⁹⁷; agerian geratu zen, halandaze, zein zen ikasleen errealitate linguistikoa, baita euren ama hizkuntza euskara zela ere.

Ez dugu behar adina informaziorik joan den mendeko hogeita hamarreko hamarkadan herrian bizi ziren euskaldunen, erdaldunen eta elebidunen kopuru zehatza kuantifikatzeko. Horri buruzko erreferentziaren bat egiten duen iturri bakarra *Euzkadi* berripapera da, EAJren organo nagusia. 1931ko ekainean, Sopelako berriemaile anonimo batek baieztatu zuen Elizateko biztanleen % 98 euskalduna zela¹⁰⁹⁸, eta ezinezkoa da jakitea zein portzentajek zuen jarioa gaztelaniaz.

1930eko abuztuaren hasierara arte atzera egiten badugu, euskara hutsean idatzitako beste artikulua bat aurkituko dugu, herrian euskararen gaia jorratzen duena, baina ezelango kopururik eskaini barik. Idazki horretan Sopela udalerrri euskaldun lez aurkeztu zen, non oso gutxi ziren euskaraz berba egiten ez zekitenak:

*“Erri au euskalduna da, erdalzalean entzutia zabaldu bayako be. Emeko seme gutxi dago, oso gutxi; euskera ez dakienak. Badagoz baten batzuk euskera gutxitaz daukenak, baña zenbat? Oner ondorako ipiñi geinkez euskeltzale zintzuak diranak emetik urten barik”*¹⁰⁹⁹.

Azpimarratu behar da artikuluaaren egilearen asmoa Elizatearen izaera euskalduna azpimarratzea zala, horren inguruko zalantzak argitzeko agian: *“¿Sopelana’tik eta euskeraz? Itanduko dau baten-batek. Bai, Sopelana’tik eta euskeraz”*¹¹⁰⁰. Egja esan, hilabete batzuk lehenago, 1930eko martxoaren amaieran, *Erri* Algortako korrespontsalak esan zuen Getxon, Sopelan eta inguruko beste udalerrri batzuetan parrokoek katekesia gaztelaniaz ematen zutela:

1097 BFAH, SOPELANA 0078/002, *Sopelako Udaleko Lehen Irakaskuntzako Tokiko Kontseiluaren aktak, 1932-1936 urteak*, Ezohiko Batzarraren akta, 1933-06-17.

1098 *Euzkadi* 1931-06-14.

1099 *Euzkadi* 1930-08-08.

1100 Ibid.

“Emen izpazter errietan beintzat erreskadan ikusten da eta errukarri da orain berrogeikaron gágozan ezkeru geyago; Jaunartzerako neska ta mutikok gertuten dabilten ezkeru; ikusten da egunero ‘kistar-ikasti’ erderaz irakasten (...)

Bat baño geyagok esan daust ia ez dagon ongi biderik; egon ez, bai, Gotzai Jaunak dauko agindute, euzkel errietan edo euzkeraz egiten dan errietan, jaupariak beartute dagozala euzkeraz egiten euren eliztarrari.

Ez uste emen Getxo, Sopela eta abar errietan dagozan jaupariak erdelidunak diranik; ez, oneik batzuk Arratiarrak, bestek Mundakarrak eta alan dira, danak euzkeraz erderaz baño lenago ikasikoak”¹¹⁰¹.

Ez dirudi Errik azaldutakoak une hartan ezelango erantzunik jaso zuenik Sopelatik. Txiberri korrespontsal urduliztarrak, ostera, Algortako artikulugilearen baieztapenei aurre egin zien, argi utziz Urdulizen haur guztiek katekesia euskaraz jasotzen zutela¹¹⁰².

Ez dugu ahaztu behar euskal nazionalismoak hasieratik arreta berezia jarri zuela herriko biztanleek euskara erabiltzen zuten udalerrietako tenpluetan gaztelaniaren erabilera salatzeke. Bigarren Errepublikaren lehen konpasetan, *Euzkadi* berripaperak gai hori jorratzen zuten hainbat artikuluru argitaratu zituen. Sopelaren kasuan, 1931ko ekainaren erdialdean, kronika bat agertu zen egunkari nazionalistan, non egile anonimo batek kontatu zuen Jesusen Bihotzaren egunean San Pedro elizara joan zen predikariak sermoia gaztelaniaz egin zuela. Kronikariaren arabera, horrek harritu egin zituen herriko euskaldunak, zeinak, esan lez, auzokide guztien % 98 baitziren. Artikulugileak honela jaso zuen bere haserrea:

“¿Non bizi gara?. Aritute geratu gara erri onetako euzkaldunak (eta eunetik larogeta ama zortzi gara) gauz, emengo elixan jazorikuagaz. Luli guztian lez erri onetan bere ospatu dogu Josuren Biotz Maitiaren jaya ta poz-pozik joan gara Beronen opaz egin dan ekixkizunetara ta ara non eukalerriko biotza dan geure Sopelana’n itzaldi edo sermoia erderaz egin dauskun erbertetik etorririko txonizlari batek, badakigu bere erru ez tala txonizlariena, baña errudunak jakin beye oso mindute geratu garela erri onetako euzkaldurak, eta sasoi au ezta elixara doyazanak minduteko erea halandaze be, naiko otz ikusten da ostea elixara biotz-biotzez goyazana’k minduten arteko orain, Buakiyo geure asarria ba parroco jaunari ta uste dogu aurerantzian geure biotz mindubak poztuko dabezala. Euskalduneri euzkeraz”¹¹⁰³.

Antza denez, Elizateko elizan gaztelaniaren erabilera ez zen gertakari isolatu bat izan: 1935eko San Pedro egunean ospatutako Meza Nagusian, predikua Alberto Onaindia Valladolideko kalonjeak egin zuen, eta “euskara bikainez eta gaztelaniaz berba egin zuen”¹¹⁰⁴.

1101 *Euzkadi* 1930-03-30.

1102 *Euzkadi* 1930-04-02.

1103 *Euzkadi* 1931-06-14.

1104 *La Gaceta del Norte* 1935-07-03.

Bestalde, nazionalismoak jaioberriei euskal izenak jartzea sustatu zuen, eta horrek, garai hartan, gurasoek zuten ideologia nazionalista jendaurrean agertzea zekarren. Udalerrri bakoitzetik *Euzkadi* berripaperera bidaltzen zituzten kroniketan, berri ematen zen haur bat euskal izen batekin bataiatzen zen bakoitzean, “Euzkel izenak” izeneko atalean. Horrela jazo zen 1931ko martxoaren amaieran, José Landa Sopolako medikuak eta Elisa Bilbaok osatutako senar-emazte bikotearen alabaren bataioaren albistean. Jaioberriak Nere izena jaso zuen, eta egunkari jeltzaletik zoriondu egin zituzten “*zorioneko guraso eta amabitxi eta aitabitxiak, ereduagarriak izan direlako gure milaka urteko hizkuntza maiteari hain ohoragarria den zeremonialean gorazarre eginda (tamalez, ez baita batere ohikoa herri honetan)*”. Artikuluaren egileak gai horren inguruan zituen nahiak azaltzeko aprobetxatu zuen, honako hau esanez: “*Quiera Dios que el ejemplo recibido cunda entre el resto de padres euzkeldunes y honremos nuestra lengua en acto tan sencillo como hermoso*”¹¹⁰⁵.

Ez dirudi adibidea gehiegi hedatu zenik, 1931ko ekainaren amaieran *lñaki* berriemaileak herriko elizan aldi berean bataiatutako hiru haurren albistea jaso baitzuen. Artikulugileak adierazi zuenez, “*min handiz*” ikusi zuten, “*guraso eta amabitxi eta aitabitxi euskaldunak izan arren, inori ez zitzaiola euskal izenik jarri*”. Hori dela eta, *lñakik* aukera baliatu zuen sopoloztarrei mezu bat helarazteko:

“Queridos baserritarras, vosotros que a vuestros amados “umetxus” les inculcáis desde un principio la lengua de vuestros padres, nuestro viejo euzkera, ¿no creéis digno para ellos un nombre euzkérico? ¡Cuánto más suave suena en vuestros labios un nombre euzkeldun que el erdeldun!

Despertad de ese letargo y tratar por cuantos medios estén a vuestro alcance de honrar vuestra lengua, y éste, el bautizar a vuestros hijos en euzkera, no creo os sea muy costoso”¹¹⁰⁶.


Dei horrek ez zuen eragin handirik izan, baldin eta 1930-1937 aldiko Erregistro Zibileko jaiotza liburuek ematen dituzten datuei erreparatzen badiegu, izan ere, gaztelaniazko izenak dira nagusi, hemen kopiatu dugun taulan ikus daitekeen lez. Euskal izenen zifrak nahiko txikiak dira aldi horretan zehar, 1936. urtean izan ezik, urte horretan hamabi kasu jaso baitziren. Zenbakiak are txikiagoak dira 1923-1929 aldia, Primo de Riveraren diktadurari dagokiona, aztertzen badugu, (1923an 3, 1924 eta 1928 artean urtean 1, eta 1929an¹¹⁰⁷ 2). Ustez, jaioberriei euskal izena ezartzea erabaki zuten guraso gehienek ideologia abertzale euskalduna zuten, nahiz eta premisa hori ez zen beti betetzen.

1105 *Euzkadi* 1931-03-28.

1106 *Euzkadi* 1931-06-26.

1107 SOPELAKO ERREGISTRO ZIBILA (SEZ), 1. atala, 11. liburua (1922-1932) eta 12. liburua (1932-1952).

EUSKAL IZENAK - SOPELA, 1930-1937



1930-1937 aldian Sopelan jarri ziren euskal izenei dagokienez, zerrenda bat egin dugu, eta 'Ignacio', 'María Amaya' eta 'María Begoña' formak baztertu ditugu. Aipatzekoa da euskal izenen inskripzioarekin batera gaztelaniazko itzulpena ere ematen zela, parentesi artean:

URTEA	EUSKAL IZENAK
1930	Neskak: Miren Begoña, Miren Garbiñe. Mutilak: Sabin Imanol, Yosu Andoni, Yone Andoni.
1931	Neskak: Nerea, Miren, Miren Karmele. Mutilak: Kepa
1932	Neskak: Maitena, Edur Secunda, Maite. Mutilak: Andoni Txaber, Iñaki, Bingen Joseba Mirena Martin.
1933	Mutilak: Iker, Iñaki, Imanol Joseba.
1934	Neskak: Maite Nekane, Miren Iñase, Miren Eburne. Mutilak: Joseba Andoni, Joseba Iñaki.
1935	Neskak: Miren Pilare.
1936	Neskak: Eburne, Nere, Miren Ibone, Miren Andoni, Miren Maite, Miren Eburne, Miren Belen. Mutilak: Iñaki (2), Joseba Andoni, Mitxel, Josu Erraimunda.
1937	Neskak: Miren Begoñe, Miren Lurdes, Miren Begoña



Hurrengo lanak hiru etapa historiko ezberdin aztertzen ditu: Berrezarkuntzaren aldiaren zatirik handiena (1890-1923), Primo de Riveraren Diktadura (1923-1930) eta Bigarren Errepublikak (1931-1936). Bilakaera politikoa eta alderdien ezarpena aztertzeaz gain, beste gai batzuk ere jorratzen dira, hala nola gatazka sozialak, euskararen egoera, edo Sopela udako helmuga gisa sortu eta sendotzea.

El siguiente trabajo analiza tres etapas históricas diferenciadas: la mayor parte del periodo de la Restauración (1890-1923), la Dictadura de Primo de Rivera (1923-1930) y la Segunda República (1931-1936). Además de estudiar la evolución política y la implantación de los partidos, se abordan otros aspectos relevantes como la conflictividad social, la situación del euskera o el proceso de consolidación de Sopela como destino turístico estival.



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

herria gara
Sopela
SOPELAKO UDALA

Sopelako Udala
Ayuntamiento de Sopela